

Egunean Egunekeo

Ebanjelioa

2025 Urtea

Egutegi liturgikoa
Egunean Egunekeo Ebanjelioa
Igande eta Jai-egunetan irakurgai guztiak
Otoitzak eta Debozioak

Egunean egunekeo iruzkin laburrak gaztelaniaz:
Francisco Javier (Patxi) Álvarez de los Mozos, SJ

Testu liturgikoak:
Liturgiarako liburuetatik.



Mezulari

Debekatua dago, legeak jasotako salbuespenetan izan ezik, lan honen kopiarik egitea, banaketa burutzea, jendaurrean zabaltzea eta aldaketak egitea jabetza intelektualaren titularren baimenik gabe. Aipatu eskubideen urratzea jabetza intelektualaren aurkako delitutzat har daiteke (Zigor Kodea, 270 eta hurrengo artikulua). Erreproduzio Eskubideen Espainiar Elkarte (www.cedro.org) da eskubide horien babesaz arduratzen dena.

Liburua eratu eta euskaratu: Dionisio Amundarain OSB, Andoni Sarriegi, Anizeto Ajuriagogeaskoa, Mariaje Gerra eta Jose I. Eguskitza
Argitalpen honen erantzulea: Koldo Katxo, SJ.

Azaleko argazkia: 2025 Jubileua (logotipo ofiziala).

© Mezulari, 2024
Grupo de Comunicación Loyola
Aita Lojendio kalea, 2
48008 Bilbo
info@gcloyola.com
www.gcloyola.com

ISBN: 978-84-271-4841-3
Lege gordailua: BI-613-2024
Maketazioa: Marín Creación, S. C. / www.marincreacion.com
Inprimategia: GZ Printek, S. A. L. - Zamudio (Bizkaia) / www.gzprintek.es

Aurkibidea

Egutegia 2025	4
Sarrera	5
Festaburuak eta jai mugikorak 2025ean	9
Ospatzeko jai nagusiak 2025ean	9
Eguneko ebanjelioa eta irakurgaiak:	
Urtarrila	11
Otsaila / Zezeila	57
Martxoa / Epaila	99
Apirila / Jorraila	153
Maiatza / Orrila	227
Ekaina / Bagila	271
Uztaila / Garagarrila	319
Abuztua / Dagonila	369
Iraila	421
Urria / Urrila	471
Azaroa / Zemendia	517
Abendua / Gabonila	565
Otoitzak eta debozioak	619

URTE LITURGIKOA 2025 C-A URTEKOA

Asteak	Ig	As1	As2	As3	Os1	Os2	Lar
URTARRILA							
Maria				I	2	3	4
Egub C	5	6	7	8	9	10	11
Bataio C	12	13	14	15	16	17	18
2. Urt C	19	20	21	22	23	24	25
3. Urt C	26	27	28	29	30	31	
OTSAILA							
3. Urt C							1
4. Urt C	2	3	4	5	6	7	8
5. Urt C	9	10	11	12	13	14	15
6. Urt C	16	17	18	19	20	21	22
7. Urt C	23	24	25	26	27	28	
MARTXOA							
7. Urt C							1
8. Urt C	2	3	4	HE	6	7	8
1. Gar C	9	10	11	12	13	14	15
2. Gar C	16	17	18	19	20	21	22
3. Gar C	23	24	25	26	27	28	29
4. Gar C	30	31					
APIRILA							
4. Gar C			1	2	3	4	5
5. Gar C	6	7	8	9	10	11	12
Aste S C	13	14	15	16	OS1	OS2	19
Pazk ig C	20	21	22	23	24	25	26
2. Pazk C	27	28	29	30			
MAIATZA							
2. Pazk C				1	2	3	
3. Pazk C	4	5	6	7	8	9	10
4. Pazk C	11	12	13	14	15	16	17
5. Pazk C	18	19	20	21	22	23	24
6. Pazk C	25	26	27	28	29	30	31
EKAINA							
Igokun C	1	2	3	4	5	6	7
Mend C	8	9	10	11	12	13	14
HS C	15	16	17	18	19	29	21
Corp C	22	23	24	25	26	JB	28
13. Urt C	29	30					

Asteak	Ig	As1	As2	As3	Os1	Os2	Lar
UZTAILA							
13. Urt C			1	2	3	4	5
14. Urt C	6	7	8	9	10	11	12
15. Urt C	13	14	15	16	17	18	19
16. Urt C	20	21	22	23	24	25	26
17. Urt C	27	28	29	30	31		
ABUZTUA							
17. Urt C						1	2
18. Urt C	3	4	5	6	7	8	9
19. Urt C	10	11	12	13	14	15	16
20. Urt C	17	18	19	20	21	22	23
21. Urt C	24	25	26	27	28	29	30
22. Urt C	31						
IRAILA							
22. Urt C		1	2	3	4	5	6
23. Urt C	7	8	9	10	11	12	13
24. Urt C	14	15	16	17	18	19	20
25. Urt C	21	22	23	24	25	26	27
26. Urt C	28	29	30				
URRIA							
26. Urt C			1	2	3	4	
27. Urt C	5	6	7	8	9	10	11
28. Urt C	12	13	14	15	16	17	18
29. Urt C	19	20	21	22	23	24	25
30. Urt C	26	27	28	29	30	31	
AZAROA							
30. Urt C							1
31. Urt C	2	3	4	5	6	7	8
32. Urt C	9	10	11	12	13	14	15
33. Urt C	16	17	18	19	20	21	22
34. Urt C	23	24	25	26	27	28	29
1. Aben A	30						
ABENDUA							
1. Aben A		1	2	3	4	5	6
2. Aben A	7	8	9	10	11	12	13
3. Aben A	14	15	16	17	18	19	20
4. Aben A	21	22	23	24	25	26	27
Fami S.A	28	29	30	31			

LABURDURAK: Aben = Abendualdia • Ast S. = Aste Santua • Corp = Corpus Eguna • Egub = Eguberrialdia • Gar = Garizuma • HE = Hausterre Eguna • HS = Hirutasun Santua • Igokun = Jesusen Igokundea • JB = Jesusen Bihotza • OS1 = Ostegun Santua • OS2 = Ostiral Santua • Pazk = Pazkoaldia • Mend = Mendekoste Igandea • Urt. = Urteko • Bataio = Jaunaren Bataioa.

SARRERA

2025 JUBILEUA, ITXAROPENEAN ERROMES

2021-2023ko Sinodoa, Sinodo-erako elizaren alde: elkartasuna, partaidetza misioa izan zen 2023 urteko Egunean Eguneko Ebanjelioa liburuaren azala eta sarrera. Jakina denez Frantzisko aita santuak 2024ra arte luzatu du Sinodoa. Hala eta guztiz ere, 2025 JUBILEUA aldarrikatu du eta baita bere Prestakuntza ere 2024 urtean zehar. Otoitzaren urtea deitu dio, beraren garrantzia azpimarratu nahian. Egia esan, Sarrera hau idaztean, ez dugu ezagutzen Sinodoaren azken emaitza; horregatik ezin erreparatu testu horri. Dena dela, **2025 JUBILEUAK** ildo horri jarraituko diola espero dugu. Sinodo-erako eliza izan behar du **IXAROPENEAN ERROMES** dabilena, ez besterik.

Jubileuak garrantzi espiritual eta sozial handia izan du Elizaren bizitzan. Historian zehar, 1300 urtetik aurrera, urte santua aldarrikatu izan da, kristauak erromesaldi-ibilaldi luzeak eginez bekatuen barkamen berezia erdiesteko. Hasiera hartan, ehun urtero ospatu ohi zen; gero, berrogeita hamar urtero, eta, gaur egun, hogeita bost urtero. Baina urte santu bereziak ere ospatu ohi dira. Aita santuak zentzu berezi bat eman nahi dio 2025 urteko Jubileuari, hau da, bere pastoral zentzua jarri eta sakondu nahi du erdigunean.

2022an idatzi zuen gertakizun honen inguruan eta aipatu zuen pandemiaren egoera latza, izugarria eta ez sinestekoa. Aipatu zuen ere konponbidea erantzun solidarioan zegoela; horregatik laguntza egokia eman behar zitzaizela gehien sufritzen zutenei eta baliabide gutxi zutenei.

Orduantxe aipatu zuen itxaropenaren garra. Horregatik, jubileu honetarako berebiziko deia egin zuen urte horretakoa ITXAROPENEAN ERROMES izan zedin. Noski, hori posible izango bada, senidetasun unibertsalaren zentzua izatea lortu beharko dugu. Konfiantza giroa guztiz beharrezkoa dugu aurrera egiteko. Baina baldintza batzuk ere aipatu zituen; haien artean, begiak ez ixtea gosearen tragediari, eragozten duena milioika pertsona duintasunezko bizitza eramatea; bereziki, errefuxiatu andana hartu beharko du kontuan, euren lurraldetik aldendu beharra izaten dutelako.

2024ko maiatzaren 9an, Jesu Kristo Jaunaren Igokunde egunean, “Frantzisko, Erromako Gotzaina, Jainkoaren zerbitzarien zerbitzaria”, «**Spes non confundit**», («**itxaropenak ez du huts egiten**») (Erm 5, 5) gutunarekin ageri zaigu. Hasieran, horrela idatzi digu aukeratu duen leloari erreparatuz: «Denak zain daude. Pertsona ororen bihotzean presente dago itxaropena, gogo eta ongiaren desira gisa, nahiz eta ez jakin zer ekarriko duen geroak. Hala ere, etorkizunaren aurreikusi ezinak sentimendu kontrajarriak sorrarazten ditu askotan: konfiantzatik beldurrera, baretasunetik etsipenera, ziurtasunetik zalantzara. Sarritan aurkitzen ditugu pertsonak: adoregabe, etorkizunari eszeptizismo eta ezkor begira; ezerk zorionik eskainiko ez balie bezala. Zein da Jubileua denontzat izan dadin **itxaropena berpizteko aukera**. Jainkoaren Hitzak lagunduko digu bide hori aurkitzen. Utz diezaiozun nork bere buruari Paulo apostoluak Erromako kristauei idatzitakoari jarraitzen».

Beraz, inoiz baino handiagoa den ez dakit, baina bai ikaragarritzko dela munduan, begi-bistan, dugun krisialdia. Aipatu dugun leloa ederki dator. Elizak, kristauok, zaindu, landu, ospatu beharra dugu itxaropena, baina erromes moduan, martxan, **elkarrekin borondate oneko beste pertsona eta erakundeekin** erein, landu, partekatu behar du. Beraz, Jubileuaren arlo espiritualak alde sozialarekin uztartu

beharra du. Beti kontziente izanik denon etxearen zaintzak denon konpromisoa eskatzen duela.

Gutunak 25 zenbaki ditu, eta 13.ean Elizari haxe eskatzen dio: «Kristau elkarteak beti prest egotea **ahulenen eskubidea defendatzeko**. Zabal ditzala eskuzabaltasunez bere ate atseginak, inori ez dakion inoiz bizitza hobe baten esperantzarik falta. Piztu dadila gure bihotzetan Jaunaren Hitza, honek, azken judizioaren parabolan, esan zuen: “Bidean nengoen, eta ostatuz hartu ninduten”, “nire anaiarik txikienarekin egin zuten bakoitzean, nirekin egin zuten” (Mt 25, 35.40)».

Beste aldetik, gure liburutxo honen iruzkinak egin dituen **Patxi Alvarez de los Mozos**, SJ, bilbotarra izan da. Teologian lizentziaduna, Soziologian doktorea eta Telekomunikazioetan ingeniari-ikasketak egin zituen. Jesusen Lagundiko justizia sozial eta ekologiako idazkaritzako zuzendaria izanik, ia mundu osoan zehar ibili da. **Alboan** jesuiten nazioarteko kooperazioarako erakundean lan egin du. Urte hauetan San Salvadorreko UCA unibertsitatean bizi eta irakasten du. Liburu interesgarri batzuk idatziak ditu espiritualtasun, justizia, arazo sozial eta ekologiari buruzkoak.

2025eko ale hau euskaratzearen ardura **Jose Ignazio Eguskitza** apaizak bete du. Hemendik har dezala, guztion izenean, gure eskerrik beroena. Esker mila **Dionisio Amundarain** OSB langile nekaezinari ere, itzulpenak egiten eta zuzentzen aritu delako. Eskerrik asko **Andoni Sarriegi**, **Anizeto Ajuriagoegaskoa** eta **Mariaje Guerra** laikoei ere itzulpenetan laguntzeagatik. Ikusten duzunez, talde-lana ezinbestekoa izaten da gure liburutxo eder hau argitaratzeko. Orobat, eskerrak eman nahi dizkiegu **Mezulariko** arduradunei, eurek urtero ematen dizkigute gaztelerazko iruzkinak guk euskaratzeko, eta argitaratzeko laguntza handi eta eskuzabalagatik. Beti bezala, **Deustuko Unibertsitateari** geure esker

ona adierazten diogu, liburutxo hau eskegitzeagatik bere webgunean: <https://www.deusto.es/document/deusto/es/egunean-eguneko-ebanjelioa.pdf> (aurreko orrietan dagoen egutegira joan eta klikatu nahi duzun egunean).

Bukatzeko, azken urteotako ebanjelioaren eta euskararen berri ona zuekin partekatzen jarraitzen dugu: 2022ko urtariletik aurrera martxan da **otoi.eus** webgunea, fedea eta espiritualtasuna gure hitzetan; baita **sallebarne.eus** webgunea eta fedea gure ahotsean. Iparraldeko bi webgune guztiz jakingarriak dakartzagu gure liburuxka honetara: **fedeola.eus** eta **kanta Jaunari.eus**.

Beti bezala, on egin eta adiorik ez!

Koldo Katxo, SJ

FESTABURU

ETA JAI MUGIKORRAK 2025ean

Jaunaren Bataioa	urtarrilaren 12
Hausterre	martxoaren 5
Jaunaren Piztuera Igandea	apirilaren 20
Mendekoste igandea	ekainaren 8
Hirutasun guztiz Santua	ekainaren 15
Corpus Christi	ekainaren 22
Jesusen Bihotz guztiz Santua	ekainaren 27
Jesu Kristo Jauna, diren guztien Erregea	azaroaren 23
Abendualdiko 1. igandea	azaroaren 30
Familia Santua	abenduarien 28

OSPATZEKO JAI NAGUSIAK 2025ean

Andre Maria Jainkoaren Ama	urtarrilaren 1a
Jaunaren Epifania	urtarrilaren 6a
San Jose, Andre Mariaren senarra	martxoaren 19a
San Prudentzio Armentiakoa (Araba)	apirilaren 28a
Santiago apostolua	uztailaren 25a
San Ignazio Loiolakoa	
(Bizkaia eta Gipuzkoa)	uztailaren 31
Andre Mariaren Jasokundea	abuztuaren 15a
Santu Guztiak	arazoaren 1a
Andre Maria Sortzez Garbia	abenduarien 8a
Jaunaren Jaiotza (Eguberri)	abenduarien 25a



URTARRILA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA

Hezkuntza eskubidearen alde: Egin dezagun otoitz etorkinen, errefuxiatuen eta gerrak kaltetutakoen beraien hezkuntzarako eskubidea, mundu hobe bat eraiki ahal izateko beharrezkoa, errespetatua izan dadin.

Eguberrialdia

JAINKOAREN AMA MARIAREN FESTABURUA

Jesus izena ezartzea. Bakearen eguna

Zenbakiak liburutik 6, 22-27.

Honela mintzatu zitzaion Jauna Moisesi: «Esaiezu Aaroni eta haren semei: Honela bedekatuko dituzue israeldarrak: “Bedeinka zaitzala Jaunak eta zaindu. Ager diezazula Jaunak aurpegi argia, eta erruki dadila zutaz. Erakuts diezazula Jaunak aurpegi gozoa, eta eman bakea”. Honela dei egingo diote nire izenari israeldarren alde, eta Nik bedekatuko ditut».

Sal 66: Erruki bekigu Jainkoa, bedeinka gaitzala.**San Paulok Galaziarrei egindako gutunetik 4, 4-7.**

Senideok: Garaia bete zenean, bere Semea bidali zuen Jainkoak, emakumeagandik jaioa, legepeko egina, legepean zirenak askatzera, guk seme-alabatzakoa har genezan. Eta seme-alaba zareten seinaleztat bere Semearen Espiritua bidali du Jainkoak gure bihotzera, «Abba! Aita!» deika ari dena. Beraz, aurrerantzean ez zara esklabo, seme edo alaba baizik, eta seme edo alaba bazara, baita oinordeko ere, Jainkoari esker.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2, 16-21.

Aldi hartan, artzainak lasterka joan ziren Betleemera, eta han aurkitu zituzten Maria eta Jose eta haurra askan etzana. Ikusi zutenean, jakinarazi zuten haur hartaz esan zitzaiena. Entzun zuten guztiak harriturik gelditu ziren artzainek esaten zutenarekin. Mariak, berriz, gogoan jasotzen zituen gauza hauek guztiak, bere bihotzean hausnartuz. Eta artzainak Jainkoari aintzaka eta goraka itzuli ziren, entzun eta ikusi zutenagatik; dena aingeruak esan bezala gertatu zitzairen. Jaio eta zortzi egunera haurra erdaindu zutenean, «Jesus» ezarri zioten izena, sabelean sortu aurretik aingeruak esan bezala.

Eguberrialdia
JAINKOAREN AMA MARIAREN FESTABURUA
Jesus izena ezartzea. Bakearen eguna

Urte berria artzainen pozezko deiadarrekin esnatzen da, Maria eta Jose eta haurra askan ikustean. Artzain haiek Betleemera joan dira korrika; ezin diote utzi haurrari buruz esandakoa gogo biziz kontatzeari, eta aintzaka eta laudorioka ari zaizkio Jainkoari, ikusi dutenagatik. Poztasuna kutsatzen dute eta konpartitzera gonbidatzen gaituzte, geure Kristoren jaiotzaren lekuko garelako historian. Mariaren antzera, gure bizitzetan Jainkoaren gauzek bihotzean hausnartzera bultzatzen gaituzte. Gaur Maria Jainkoaren Ama dela aldarrikatzen dugu. Berak erditzen du Jesus Jainkoa, bere baitan ernaldiari baietza eman ondoren; gizon eta judu izaten irakatsiko dio, eta bere garaiko eta herriko seme izaten; hazten lagunduko dio, Beragan fidatuz eta Hari etorkizunerako bidea irekiz. Maria eta Joseraren ondoan, Jesusek gizaki izaten ikasiko du. Bitartean, Mariak bere baitan fededunaren kontenplaziozko jarrera garatuko du, non deskubritzen baitoa historia eta existentzia eraldatzen duen Jaungoikoaren presentzia, Kristoren bizitzarekin bat eginez.

* * *

«Ongia, maitasuna, justizia eta elkartasuna ez dira behin eta betiko lortzen; egunero erdietsi behar dira» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 11).

1 Joan liburutik 2, 22-28: Bego zuengan, hasieratik entzun duzuen mezua. Sal 97: Ikusi dute lur-muga denek gure Jainkoagandiko garaipena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1, 29-34.

Hau da Joan Bataiatzaileak egin zuen aitormena, juduek Jerusalemdik apaizak eta lebitarrak bera nor zen galdetzera bidali zizkiotenean. Joanez argi eta garbi aitortu zuen: «Ni ez naiz Mesias». Haiek galdetu zioten: «Nor zara, bada? Elias al zara?». Joanez erantzun: «Ez». Haiek, orduan: «Etortzekoa den profeta al zara?». Eta hark: «Ez». Berriro galdetu zioten: «Nor zara, bada? Bidali gaituztenei erantzuna eman behar diegu. Zer diozu zeure buruaz?». Joanez, orduan: «Ni, basamortuan oihuka ari denaren mintzoa naiz: “Zuzendu bidea Jaunarentzat”, Isaias profetak esan zuen bezala». Bidalitako haietako batzuk fariseuak ziren, eta galdetu zioten: «Zergatik bataiatzen duzu, bada, ez bazara Mesias, ez Elias, ez etortzekoa den profeta?». Joanez erantzun zien: «Nik urez bataiatzen dut. Zeuen artean baduzue, ordea, ezagutzen ez duzuen bat, nire ondoren datorrena; eta ni ez naiz inor haren oinetakoen lokarriak askatzeko ere». Hau guztia Betanian gertatu zen, Jordan ibaiaz bestaldean, han ari baitzen Joan bataiatzen.

Juduen itxaropena pizten duen mendebaldeko aire freskoa dakar Joanez berarekin. Bere bataioaren oihartzuna Jerusalemeraino iristen da, nondik bidaltzen dizkioten mezulariak bera nor den galdetzera. Joanez adierazten die «zuen artean» dagoen norbaiten aitzindari bat besterik ez dela. Ertzetatik iristen zaizkigu Salbatzailearen nobedadea iragartzen duten ahotsak. Basamortuan, Jainkoarekin elkartzeko eta tentazioaren aurka borrokatzeko lekuan, sortzen da Izpituaren urez eraldatu gaitzen uzteko deia. Berak gidatzen du gure begirada geure artean dagoen Jainkoa ikusteko. Aurten izan daiteke unea Jainkoa deskubritzeko giza mugetan, non jarri duen Bere bizilekua eta non itxaroten gaituen Bera zerbitzatzeko eta gurtzeko.

Jesusen Izen guztiz santua, Jesusen Lagundiko Goiburua
 Santa Genoveva, *aitorlea*. San Ziriako (Keralan, India 1805),
apaiza eta fundatzailea (Karmeloko Amaren Kongregazioa)

1 Joan liburutik 2, 29-3, 6: Harengan dagoenak ez du bekaturik egiten.
 Sal 97: Ikusi dute lur-muga denek gure Jainkoagandiko garaipena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1, 29-34.

Hurrengo egunean, ikusi zuen Joan Bataiatzaileak Jesus beregana etortzen eta esan zuen: «Hona hemen Jainkoaren Bildotsa, hona munduko bekatua kentzen duena. Honi buruz esan nuen nik: “Badator nire ondoren gizon bat, niri aurrea hartu didana, ni baino lehenagotik baitzen”. Nik ere ez nuen ezagutzen; baina ni urez bataiatzera etorri banaiz, hura Israeli ager zekion etorri naiz». Eta aitormen hau egin zuen Joanez: «Espiritua ikusi dut uso-irudian zerutik jaisten, eta haren gainean gelditzen. Nik ere ez nuen ezagutzen; baina urez bataiatzera bidali ninduenak esan zidan: “Espiritua jaisten eta gainean gelditzen zaiola ikusiko duzuna, hura da Espiritu Santuaz bataiatzen duena”. Nik ikusi dut eta aitortzen nauxe dela Jainkoaren Semea».

Joan ebanjelariak argi adierazten du Jainkoaren Semea dela Jesus. Betidanik existitzen da, eta bere izaera osoa Jainkoaren irudi da, irudi hau Bere maitasunaren obra eta eredu baita. Izpirituz gantzutua izan da Jesus, eta Bere Izpirituz babestu eta beteko gaitu, gu ere Bere antzeko izan gaitezen. Joanez Jainkoaren Bildotsa ere badela diosku, bekaturen barkamenerako tenpluan eskaintzen ziren arkumeak bezala. Hark Jainkoaren barkamena ekartzen digu, pertsona bakoitzari eta mundu osoari, adiskideturik bizi ahal izan gaitezen, giza familia osatuz. Jesus da Seme maitea, Zeinek bere Espiritua oparitzen digun eta bakea dakarkigun.

* * *

Jesusen Izen guztiz santua

Siraken liburutik 51, 8-25.

Orduan, zure errukiaz oroitu nintzen, Jauna, eta zuk gure alde betidanik egindakoaz: onik ateratzen dituzula zuregan itxaroten

Eguberrialdia

Jesusen Izen guztiz santua, Jesusen Lagundiko Goiburua

Santa Genoveva, *aitorlea*. San Ziriako (Keralan, India 1805),*apaiza eta fundatzailea (Karmeloko Amaren Kongregazioa)*

dutenak eta gaiztoen eskuetatik libratzen. Lurretik neure erregua bidali nuen zугanaino eta otoitz egin heriotzatik aske gelditzeko. Honela egin nizun dei: «Jauna, neure aita zaitut! Ez baztertu ni atsekabealdian, harroputzak nagusitzean, laguntzarik ez dagoenean. Etengabe goretsiko zaitut, esker onez kantatuko». Zuk entzun egin zenuen nire otoitza, heriotzatik salbatu eta txarraldi honetatik atera. Horregatik eman nahi dizkizut eskerrak, eta zu goretsi eta bedeinkatu, Jauna. Oraindik gazte nintzelarik, bidaiatzen hasi aurretik, bete-betea bilatu nuen jakinduria neure otoitzean. Tenplu aurrean otoitz egin nuen hori lortzeko, eta neure bizitzaren azkeneraino bilatuko dut. Loratu zenean, hartaz poztu zen nire bihotza, heltzen ari den mahats-mordoaz bezala. Bide zuzenetik ibili dira nire oinak, jakinduriaren arrastoari gaztarotik jarraituz.

Sal 8: Jauna, gure Jauna, bai miresgarria zure izena lurbira osoan.

San Paulok Filipinoarrei egindako gutunetik 2, 1-11.

Beraz, egia bada Kristok aholku ematen dizuela eta maitasunak adorez betetzen zaituztela, egia bada Espirituagan bat eginik bizi zaretela eta bihozbera eta gupidatsu zaretela, bete nazazue pozez, denok iritzi eta sentiera bereko izanez, elkar maitatuz eta ongi hartuz. Ez egin deus ere norgehiagokeriaz edota harrokeriaz, apaltasunez baizik, besteak norbera baino hobeak direla pentsatuz; ez nork bere onari bakarrik begiratuz, baizik besteena ere bilatuz. Izan itzazue zeuen artean Kristo Jesusek izan zituen sentipen berak. Kristo Jesusek, jainkozko izaerako izanik ez zion gogor eutsi nahi izan jainkozko bere mailari; bestela baizik, hustu egin zen bere handi izateaz eta esklabotzaera hartu zuen, gizakien antzeko eginez. Gizaki huts bezala agertuz, apaldu egin zuen bere burua, heriotzaraino menpeko eginez, gurutzean hiltzeraino. Horregatik, denen gainetik goratu zuen Jainkoak eta izen guztietan bikainena eman zion, Jesusen izenaren omenez, zeruan,

Jesusen Izen guztiz santua, Jesusen Lagundiko Goiburua
 Santa Genoveva, *aitorlea*. San Ziriako (Keralan, India 1805),
apaiza eta fundatzailea (Karmeloko Amaren Kongregazioa)

lurrean eta lur azpian, guztien belaunak makur daitezen, eta mihi orok aitor dezan Jesu Kristo dela Jauna, Jainko Aitaren aintzarako.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2, 21-24.

Jaio eta zortzi egunera haurra erdaindu zutenean, Jesus izena ezarri zioten, sortu aurretik aingeruak esan bezala. Moisesen legean agindutako garbikuntza egiteko unea iritsi zitzaientean, gurasoek Jesus Jerusalemera eraman zuten Jaunari aurkezteko. Izan ere, hau agintzen du Jaunaren legeak: Lehen- seme guztiak Jaunari sagaratuko zaizkio. Jaunaren legean ezarritako oparia ere eskaini zuten: bi usapal edo bi usakume.

Gaur ospatzen dugu Jesusen Lagundiaren jai nagusia. Jesusen izena jartzeak gogorarazten digu, baita ere, Konpainiak Jesus bakarrik duela buru, hasierako jesuitek nahi izan zuten bezala. Jesusek «Jainkoak salbatzen du» esan nahi du; horrela deitu zioten, Goiaingeruak Mariari adierazi bezala, gogoan izateko maitasunean ekimena Jainkoak duela beti. Jesusek salbazioa ekarri zigun, baina behetik, Filipotarren epistolak dioen bezala, bakarrik salbatzen baitu besteengana gerturatzen denak eta haien alde egiten duenak: gurekin solidario izanik giza bizitzaren berezko hauskortasunean eta sufrimenduetan. Zortzigarren egunean zirkunzidatu egin zuten Jesus, herri juduaren kide zela adierazteko, zeini eskertu beharrean gauden horrelako gizon baten oparia. Jesusen gurasoek bi usakume aurkeztu zituzten, pobreei dagokien eskaintza, familia pobre batean jaio baitzen eta pobre bizi, pobreen lagun izanik. Konpainiak Jesus bakarrik izan nahi du buru. Hori da, halaber, kristau guztien desira nagusia, bataiatuak izan ginenetik hasi baikinena Maisuaren urratsei jarraitzen; biziaren Jainkoaren seme-alaba, Jesusen anaia-arreba eta Kristoren jarraitzaile izateko.

1 Joan liburutik 3, 7-10: Jainkoagandik jaio denak ez du bekaturik egiten. Sal 97: Ikusi dute lur-muga denek gure Jainkoagandiko garaipena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1, 35-42.

Aldi hartan, han zegoen Joan Bataiatzailea bere bi ikaslerekin. Jesus handik igarotzen ikusirik, esan zien Joane: «Horra Jainkoaren Bildotsa». Bi ikasleek, hori entzunik, Jesusi jarraitu zioten. Itzuli zen Jesus eta, jarraitzen ziotela ikusirik, esan zien: «Zeren bila zabiltzate?». Haiek erantzun: «Rabbi, non bizi zara?» (Rabbik «Maisu» esan nahi du). Jesusek esan zien: «Zatozte eta ikusiko duzue». Joan ziren, ikusi zuten non bizi zen, eta harekin gelditu ziren egun hartan. Arratsaldeko laurak inguru zen. Joani entzun eta Jesusi jarraitu zioten bietako bat Andres zen, Simon Pedoren anaia. Andresek bere anaia Simonekin egin zuen topo lehenengo, eta esan zion: «Mesias aurkitu dugu» (Mesias hitzak «Kristo» esan nahi du, hau da, «Gantzutua»). Eta Jesusengana eraman zuen. Jesusek, begira-begira jarritz, esan zion: «Simon zara zu, Joanen semea; aurrerantzean “Kefas” izango da zure izena» (Kefas izenak «Pedro» esan nahi du, hau da, «Harkaitza»).

Pasarte honek Jesusek zuen erakargarritasuna agertzen digu. Lehen dizipuluek aski dute bere egunerokotasunean Berarekin topo egitea, bizi den toki hartan, Mesias bezala ezagutzeko. Beraien poztasuna hain da handia, ze Andresek ez dauka dudarik bere anaia Simoni deitzeko, berau ere joan dadin Jesus ezagutzera. Honek begiratu eta izen berria ematen dio, Pedro, bere anai-arrebentzat harri sendoa izango da eta. Jesusek Simoni bere bokazioa deskubritzen dio, gurekin egiten duen bezala. Jesusen hitzek («Zatozte eta ikusiko duzue») durundi egiten jarraitzen dute historian, kristauok Berarengana joatera animatuz: Bera ezagutzeko, eta Bere begiradak liluratu eta Bere misioak grinatu gaitzan.

Siraken liburutik 24, 1-4.12-16 (gr. 1-2.8-12).

Jakinduriak bere burua goستن du, bere herriaren erdian aintzaz betetzen da. Goi-goikoaren batzarrean ahoa irekitzen du eta haren ahalmenaren aurrean aintzaz betetzen da. Bere herriaren erdian goratzen dute eta santuen batzar osoan miresten; aukeratuen taldeek gorespenak ematen dizkiote eta bedeinkatua izango da bedeinkatuen artean. Orduan, guztien Egileak agindu zidan, sortu ninduenak etxola eraiki zidan, eta esan: «Bizi zaitez Jakobena herrian, eta izan bedi Israel zure ondare».

Hasieran, gizaldiak baino lehenago, sortu ninduen, eta inoiz ere ez dut amairik izango. Etxola santuan, haren aurrean, egin dut zerbitzu, eta horrela Sion mendian finkatu naiz. Hiri maitean eman dit atsedena eta Jerusalem dago nire agintaritzan. Izen handiko herrian bota ditut sustraiak, Jaunaren sailean, haren ondarean.

Sal 147: Hitza haragi egin zen, eta gure artean jarri zuen bizilekua.

San Paulo apostoluak Efesoarrei egindako gutunetik 1, 3-6.15-18.

Bedeinkatua izan bedi Jainkoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita, zeruan, Kristoren bitartez, Espirituaren era guztietako ondasunez bedeinkatu gaituena! Kristogan aukeratu gintuen, mundua sortu baino lehen, santu eta errugabe izan gaitezen beraren aurrean, maitasunez. Bere onginiak eraginda aurrez zuen erabakia, Jesu Kristoren bitartez gu seme-alabatzat hartzea; bere Seme maiteagan eskuzabal eman digun dohain zoragarria gorespen-kantu bihur dadin berarentzat. Jesus Jaunagan duzun sinestearen eta fededun guztienganako duzun maitasunaren berri jakinik, etengabe ari naiz zuengatik eskerrak ematen, neure otoitzean zuetaz oroitzuz. Jesu Kristo gure Jaunaren Jainkoak, aintzaren Aitak, eman diezazuela Espirituaren jakinduria eta goi-argia, bera ezagutzeko. Argi ditzala zuen barruko begiak, jakin dezazuen zer itxarotera dei egin dizuen eta zein aberatsa den fededunentzat oinordekotzan prestatua duen aintza.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1, 1-18.

Hasieran bazen Hitza eta Hitza Jainkoarekin zen, eta Jainko zen Hitza. Hitza hasieran Jainkoarekin zen. Gauza guztiak haren bidez eginak dira, eta egindakorik ezer ez da hura gabe egin. Hitzagan zen bizia, eta bizia gizakien argia zen; argiak ilunpean argi egiten du, baina ilunpeak ez zuen onartu. Agertu zen gizon bat, Jainkoak bidalia: Joan zuen izena. Aitormenerako etorria zen, argiaren aitormen egitera, haren bidez guztiek sinets zezaten. Hura ez zen argia, argiaren aitormen egin behar zuena baizik. Hitza zen egiazko argia, mundura etorritz gizaki guztiak argitzen dituen. Munduan zegoen eta, mundua haren bidez egina den arren, munduak ez zuen ezagutu. Bereengana etorri zen, eta bereek ez zuten onartu. Onartu zuten guztiei, berriz, haren izenean sinesten dutenei, alegia, Jainkoaren seme-alaba izateko ahalmena eman zien. Hauek ez dira giza odoletik sortu, ezta giza nahieratik ere, Jainkoagandik baizik. Eta Hitza haragi egin zen, eta gure artean jarri zuen bizilekua, eta ikusi dugu haren aintza, Aitagandik graziaz eta egiaz betea datorren Seme bakarrari dagokion aintza. Joanez hartaz egin zuen aitormen, oihuka esanez: «Hau zen nik esan nuen hura: “Nire ondoren datorrena nire aurretik jarri da, ni baino lehenagokoa baitzen”». Eta haren betearen betetik guztiok hartu dugu, grazia graziaren gain hartu ere. Legea Moisesen bidez emana zen; grazia eta egia, berriz, Jesu Kristoren bidez etorri dira. Jainkoa ez du inork inoiz ikusi; Aitaren altzoan dagoen eta Jainko den Seme bakarrak ezagutarazi digu.

Hitzaurrea deitutako Joanen Ebanjelioaren atala Kristori buruzko ereserkia da. Kristoren jatorria Jainkoa da, Zeina baita Haren jatorrizko lurraldea. Jainkoak sortu du errealitate osoa, Haren maitasunak zeharkatzen baitu osorik; eta errealitate hori Hartaz mintzo da, Berak ematen baitio zentzua. Kristo Argia da garai eta kultura guztien gizadiarentzat, eta benetako bizitza argitzen du. Bera onartu dutenak Jainkoaren seme-alaba egin ditu, Zeina baitaukate

beraien Aitatzat. Haiek ere Jainkoarengan dute jatorrizko lurra, eta argia eta bizitza Kristogan ezagutu ditzakete. Kristo da gure jatorria eta destinoa: Harengan aurkitzen dugu gure benetako aurpegia eta Harengana zuzentzen dira gure urratsak, agindutako lurraldea lortzeko AITA-AMA Jainkoaren ondoan. Hitzaurre honen bidez, Joan ebanjelariak begirada altxatzera gonbidatzen gaitu, historiaren Jaunaren jarraitzaileak eta Jainko sortzailearen seme-alabak garela ohartzeko. Ez du axola askotan Erreinua desagertzen dela dirudien arren, sufritzen duen jazarpenaren aurrean. Gure destinoa Jainkoaren ondoan dago eta Kristok bidea ireki digu.



Artzainak. Altzo Muino. Erretaula.

Isaias profetaren liburutik 60, 1-6.

Jaiki zaitez, Jerusalem, argitu, badator-eta zure argia; zure gainean ageri da Jaunaren aintza. Begira, ilunak estalia du lurra, gau beltzak estaliak ditu herriak; zure gainean, ordea, Jauna agertuko da, haren aintza zure gainean azalduko. Zure argira etorriko dira herriak, zure egunsenti-distirara erregeak. Jaso itzazu begiak zeure ingurura eta ikus: guztiak elkartu eta zugana datoz, urrutitik datoz zure semeak, besoetan dakartzate zure alabak. Hori ikustean, distiratsu jarriko zara, bihotza zirrarez eta zabal-zabal duzula, itsasoko aberastasunak zugana etorriko baitira eta nazioen ondasunak zuri ekarriko dizkizute. Gamelu-taldeek estaliko zaituzte, Madiango eta Efako dromedarioek. Sabatik datoz guztiak, urrea eta intsentsua dakartzatela, eta Jaunari gora eta gora diotsotela.

Sal 71: Ahuspez agurtuko zaituzte, Jauna, nazio guztiek.**San Paulo Apostoluak Efesoarrei egindako gutunetik 3, 2-6.**

Senideok: Jakingo duzue, noski, Jainkoak bere onginahian zuen onerako eman didan eginkizuna, goi-agerpenez jakinarazi baitit bere asmo ezkutua; salbamen-asmo hau ez zitzaien iraganeko gizaldiei jakinarazi; orain, ordea, Espirituaren bidez bere apostolu santuei eta profetei agertu die Jainkoak. Eta haxe da Jainkoaren asmo ezkutua: Berri Onari esker, jentilak Kristo Jesusekin oinorde-kide direla, harekin gorputz bat bera osatzen dutela eta agintzari beraren partaide direla.


Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 2, 1-12.

Jesus Judeako Betleemen jaio zen Herodes erregearen garaian. Aldi hartan Mago batzuk etorri ziren sortaldetik Jerusalemera, galdezka: «Non da jaioberria den juduen erregea? Haren izarra ikusi

dugu sortaldean, eta hura gurtzera gatoz». Berri honekin larritu zen Herodes erregea, eta Jerusalem osoa harekin batera. Orduan, apaizburuak eta lege-maisuak bildurik, Mesias non jaiotzekoa zen galdetu zien. Haiek erantzun zioten: «Judeako Betleemen, honela idatzi baitzuen profetak: “Eta zu, Judako Betleem, ez zara, ez, Judako hirietan txikiena; zugandik aterako baita buruzagia, nire herri Israelen errege izango dena”». Orduan Herodesek, Magoei isilka dei eginik, izarra noiz agertu zitzaien jakin zuen zehatz. Ondoren, Betleemera bidali zituen, esanez: «Zoazte, eta jakin arduraz haurraren berri, eta, aurkitzean, esadazue, ni ere gurtzera joan nadin». Haiek, erregeari entzun ondoren, joan ziren. Eta bat-batean, sortaldean ikusitako izarra aurretik jarri zitzaien, haurra zegoen lekuaren gainean gelditu arte. Izarra ikusi zutenean, berealdiko poza hartu zuten. Etxean sarturik, haurra ikusi zuten, Maria bere amarekin, eta, ahuspezturik, gurtu egin zuten. Ondoren, beren kuxkak irekita, erregaluak eskaini zizkioten: urrea, intsentsua eta mirra. Gero, Herodesengana ez itzultzeko albistea ametsetan harturik, beste bide batetik itzuli ziren beren lurraldera.

Borondate oneko gizakiak preziatzen ditugu Ekialdeko Magoengan, zeintzuek zintzoki bilatzen dituzten egia eta bizitza. Haiek errealitatea auskultatzen dute, errealitate haren existentzian eragina duten zeinuak aurkitzeko asmoz. Izar baten gidaritzapean jartzen dira apalki, ziur baitaude lortu nahi duten onbidera eramango dituela. Magoak betetasun nahiak animatutako bilatzaileak dira. Jesusengan kontraesanaren zeinupean agertzen da Jainkoaren presentzia. Bihotz zintzodunengan erakarpina eta bakea sortzen ditu, baina instalatuengan alarma, beldurra eta agresibitatea pizten ditu. Mariak Magnificat-en kantatzen duen bezala, Jesusen Jainkoak pobreentzako itxaropena iragartzen du eta harroentzat sakabanaketa, Herodesek ongi antzematen duen bezala. Magoek Haurrarekin topo egiteak adorazioa pizten du. Kontu handiz prestatu dute topaketa hori, eta opariak eskaintzen dizkiote. Laudorioz eta esker onez belaunikatzen

dira. Haur horrengan bizi den jainkotasuna aitortzen dute; eta Haren ondoan atseden hartzen dute eta bizitakoa dastatzen. Haurrak bere amarekiko duen xumetasunak ez ditu nahasten, baizik eta sakontasun jainkotiarrak deskubritzen dute giza apaltasunean. Haiek gure bizitzaren hauskortasunean presente dagoen Jainkoa gurtzen irakasten digute.



Jaunaren agerkunde ondokoa
San Raimundo Peñafortekoa, *apaiza*

1 Joan 3, 22-4, 6: Aztertu espiritua Jainkoagandik datorren ala ez.
Sal 2: Nazioak emango dizkizut ondare.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 4, 12-17.23-25.

Egun haietan, Joan Bataiatzailea kartzelan sartu zutela jakin zuenean, Jesus Galileara baztertu zen. Baina, Nazaret utzirik, itsasbazterrean dagoen Kafarnaumen jarri zen bizitzen, Zabulonon eta Neftaliren lurraldean. Horrela bete zen Isaias profetak esana: «Zabulonon lurraldea eta Neftaliren lurraldea, itsasbidea, Jordanez beste aldean, jentilen Galilea. Ilunpean bizi zen herriak argi handia ikusi zuen; herio-itzealean bizi zirenei distira egin zien argiak». Ordutik hasi zen Jesus hots egiten: «Bihotz-berri zaitezte, hurbil da-eta Zerueta Erreinua». Galilea osoan barna ibili zen Jesus, hango sinagogetan irakasten, erreinuari buruzko Berri Ona hots egiten eta herrian gaitz eta eritasun guztiak sendatzen. Siria guztian zabaldu zen haren izena. Edozein gaitz eta oinazek jotakoak eramaten zizkieten: deabrudun, epileptiko nahiz elbarri, eta hark sendatu egiten zituen. Eta Galilea, Dekapolis, Jerusalem, Judea eta Jordanez beste aldetik etorritako jendetza handiak jarraitzen zion.

Joan atxilotzeak Jesusen bizitza publikoa azkartzen du. Galilean kokatzen da, non agertzen den benetako argi gisa. Bere hitzak itzelezko bozkarioa dira: «gertu dago Zerueta Erreinua». Erreinua dohainik dator, ez da ezer egin behar hura iritsi dadin. Hori onartzeak konbertsioa eskatzen du, ikuskera berria; baina Erreinua oparia da, eta ez saria giza merituentzat. Azken batean, Erreinua Jesusekin dator. Berak erakusten du, Berak aldarrikatzen du Berri Ona eta Berak sendatzen ditu gaitz guztiak; eta erakarpen-indar itzela eragiten du lurralde hartako jendearengan, zeintzuek baltsamotzat hartzen baitute. Sendatu egiten du eta askatu, eta Bere hitza garbi eta berri ageri da. Jesusekin, Jainkoa Bere herriari laguntzera iritsi da.

Jaunaren agerkunde ondokoa

San Apolinar, *gotzaina*San Teofilo, *diakonoa*San Lorenzo Justiniano, *gotzaina*

1 Jn 4, 7-10: Jainkoa maitasuna da. Sal 71: Ahuspez agurtuko zaituzte, Jauna, nazio guztiek.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6, 34-44.

Aldi hartan, Jesusek jendetza handia ikusi zuen; erruki izan zituen, artzainik gabeko ardiak bezala baitziren, eta luzaro irakasten hasi zitzairen. Berandu egin baitzen, ikasleak hurbildu zitzaizkion, esanez: «Leku bakartia da hau eta oso berandu da. Bidal itzazu, inguruko baserri eta auzoetara joan eta jatekoa eros dezaten». Jesusek erantzun zien: «Emaiezue zeuek jaten». Haiek, orduan: «Berrehun denarioren ogiak erostera joango al gara, bada, hauei jaten emateko?». Jesusek esan zien: «Zenbat ogi duzue? Zoazte ikustera». Ikusi eta esan zioten: «Bost, eta bi arrain ere bai». Orduan, jende guztia belar gainean taldeka eserarazteko agindu zien. Ehunaka eta berrogeita hamarnaka eseri ziren. Jesusek, bost ogiak eta bi arrainak hartu eta, begiak zerura jatorik, bedeinkapen-otoitza egin, ogiak zatitu eta ikasleei eman zizkien, jendeari banatzeko; bi arrainak ere jende guztiaren artean banatu zituen. Asetzeraino jan zuten denek, eta ogi- eta arrain-hondarrekin hamabi saski bete bildu zituzten. Bost mila gizon ziren jan zutenak.

«**B**idal itzazu»: min ematen du hori dizipuluen ahotan entzuteak, zeren egunero hazten ari den jende despedituz beteriko mundu batean bizi baikara. Dizipuluak beldur dira eta beren segurtasun apurra babestu nahi dute. Egin behar denari buruz ez du zalantzarik Jesusek: «Emaiezue jatekoa zeuok». Daukaguna partekatzea da kontua, ezer gutxi bada ere. Pobreziak gure elkartasuna ala beldurra eta errezeloak piztu ditzake; eta, azkenik, gure gaitzespena. Guk erabakitzen dugu. Ebanjelioak seinalatzen du ezen elkartasunaren bideak janari batera garamatzala, non denok kabitzen garen eta ase arte elikatzen garen. Gure eskuzabaltasuna mobilizatza eta munduko kaleratuekin partekatutako mahaia sortzera etorri da Jesus.

Jaunaren agerkunde ondokoa
San Eulogio Kordobakoa, *apaiza eta martiria*

1 Joan 4, 11-18: Elkar maite badugu, Jainkoa gugan dago. Sal 71:
Ahuspe agurtuko zaituzte, Jauna, nazio guztiek.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6, 45-52.

Bost mila gizonak ase ondoren, Jesusek bere ikasleak ontzian sarrarazi eta bere aurretik beste aldera, Betsaidarantz, joateko agindu zien, berak jendeari agur egin bitartean. Jendea bidali ondoren, mendira joan zen, otoitz egitera. Ilundu zuenean, ontzia itsaso erdian zen, eta Jesus lehorrean, bera bakarrik. Ikasleak arraunean nekez ari zirela ikusirik, haizea kontra baitzuten, goiz aldera haiengana joan zen ur gainean oinez, haiei aurrea hartu nahian bezala. Ikasleak, ur gainean ibiltzen ikusi zutenean, mamua zelakoan, deiadarka hasi ziren; denek ikusi zuten eta erabat izutu ziren. Baina Jesus berehala mintzatu zitzaien: «Izan bihotz! Ni naiz; ez beldur izan!». Ontzira igo zitzaien eta haizea gelditu egin zen. Zeharo harriturik gelditu ziren, ez baitzuten ulertu ogiekin gertatua, adimena itsu zuten eta.

Dizipuluek kontrako haizearekin egiten dute arraun gauerdian. Jesus jendea agurtzen geratu da eta otoitz egiten dio Aitari. Dizipulu haiek bakarrik eta galduta sentitzen dira. Bizitzan sarritan aurkitu gaitezke horrela: ilunetan, aurrera egin ezinik, noraezean eta abandonatuta; porrot, desolazio-edo hutsune-garaiak, pertsonalak nahiz komunitarioak, dira hauek. Egunsentian, Jesus oinez agertzen da itsaso gainean. Hain gertaera ulertezinaren aurrean, mamu bat dela uste dute dizipuluek, eta asaldatu egiten dira. Jesusen hitzek bakarrik baretzen dituzte: «animo, neu naiz, ez izan beldurrik». Bizitzaren ekaitzen erdian, zailtasun oro gaingitzen duen, laguntzen gaituen eta Bere bakea ematen digun Jaun bezala agertzen zaigu Jesus.

Jaunaren agerkunde ondokoa

San Nicanor, *diakonoa eta martiria*

Dolores Sopena, *dohatsua (Katekesia Institutuaren fundatzailea)*

1 Joan 4, 19-5, 4: Jainkoa maite duenak maite dezala bere senidea ere. **Sal 71:** Ahuspez agurtuko zaituzte, Jauna, nazio guztiek.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 4, 14-22a.

Aldi hartan, Jesus, Espirituaren indarrez, Galileara itzuli zen, eta haren izena lurralde hartan guztian zabaldu zen. Hango sinagogetan irakasten zuen, eta denek goresten zuten. Jesus Nazaretera, bera hazitako herrira, joan zen, eta larunbatean, ohi zuenez, sinagogan sartu eta zutik jarri zen irakurgaia egiteko. Isaias profetaren liburua eman zioten eta, irekitzean, pasarte hau aurkitu zuen: «Jaunaren Espiritua nire gainean dago, hark gantzutu bainau, behartsuei Berri Ona emateko. Gatibuei askatasuna eta itsuei ikusmena hots egitera bidali nau, zapalduiei askatasuna ematera, Jaunaren onginahi-urtea hots egitera». Liburua bildu ondoren, laguntzaileari eman eta eseri zen. Denak sinagogan begira-begira zeuzkan. Jesus honela hasi zitzaien: «Gaur bete da orain entzun duzuen Liburu Santuko hitz hau». Denek Jesusen alde hitz egiten zuten eta harriturik zeuden Jainkoaren onginahiaz esaten zituenengatik.

Jesusekin, Jaungoikoaren errukiaren garaia zabaltzen da; Jaunaren graziazko urtea hasten da. Horixe aldarrikatzen du Jesusek Nazareten, Isaiasen irakurketaren bidez. Bere bizitza publikoak benetan eraldatuko du testuak aurreikusi bakarrik egin dezakeena: pobreak, gatibuak, zapalduak, itsuak... izango dira Jainkoaren errukiaren lehentasunezko hartzaileak. Jesusekin batera iristen da beraien askapena eta sendabidea. Testuak dioenez, Jesusen ospea hedatzen ari zen: denek goraipatzen zuten eta Hartaz miretsita gelditzen ziren. Gure sufrimenduei erreparatuko dien, baketuko eta lasaituko gaituen, eta gurekin egongo den eta etorkizuna eskainiko digun Jainkoaren egarritz gabilza. Errukiaren eta samurtasunaren Jainkoa da benetako Berri Ona.

Jaunaren agerkunde ondokoa
 San Higinio, 9. aita santua
 Santa Honorata, birjina

1 Jn 5, 5-13: Espiritua, ura eta odola. Sal 147: Jerusalem, ospa ezazu Jauna!

Jesu Kristoren ebanjelioa San Lukasen liburutik 5, 12-16.

Aldi hartan, Jesus hiri batean zegoela, legenaz (lepraz) jositako gizon bat azaldu zen; Jesus ikustean, ahuspez erori eta erregutu zion: «Jauna, nahi baduzu, garbi nazakezu». Jesusek eskua luzatu eta ukitu egin zuen, esanez: «Nahi dut, geldi zaitez garbi». Eta orduan bertan alde egin zion legenak. Inori ez esateko agindu zion Jesusek eta esan: «Zoaz, azaldu apaizagana eta eskaini garbikuntzaren ordainez Moisesek agindu zuena, agiria izan dezaten». Jesusen izena gero eta gehiago ari zen zabaltzen eta jendetza handia bildu ohi zen hari entzutera eta beren gaitzetatik sendatzera. Baina Jesus leku bakartietara baztertu ohi zen otoitz egitera.

Jesusen oinetaraino hurbiltzen den legenardun honek samurtasuna pizten du. Ez da Jesusen borondateari gailentzen saiatzen, baizik eta Haren erruki eske ari da: «nahi baduzu...». Jesusek ukiezina ukitu egiten du eta harekin kutsatu gabe, errotik sendatzen du. Ongiaren hauskortasunak gaizkiaren hondamena gainditzen du. Hemen samurtasunez eta fintasunez agertzen da Jesus, Zeinen sendaketa kontaktu fisikoan eta konpainia pertsonalean gertatzen baita Hori dela eta, irakurgaiak dioen bezala, jendea Harengana hurbiltzen da, Bere ontasunak biziki erakarriak sentitzen baitira; eta bitartean, Bera bakardade bila zebilen, Aitari otoitz egiteko eta Honengan egunero berritua izateko.

JAUNAREN BATAIOA

San Arcadio Mauritaniakoa, *martiria*

Isaias Profetaren liburutik 42, 1-4.6-7.

Honela mintzo da Jauna: «Hona nire zerbitzaria, Nik eusten diodana, nire aukeratua, atsegin dudana. Honengan ipini dut neure espiritua; zuzenbidea ekarriko die herriei. Ez du oihu egingo, ez ahotsa goratuko, ez du kaleetan entzunaraziko bere mintzoa. Kanabera pitzatua ez du hautsiko, doi-doi piztua dagoen argi-metxa ez du itzaliko. Zuzenbidea ekarriko du leialki; ez du etsiko, ez da hautsiko, zuzenbidea lurrean ezarri arte; uharteak haren irakaspenaren zain daude. Nik, Jaun honek, salbamen-egintzarako dei egin dizut, eta eskutik heldu; Nik eratu zaitut eta izendatu herriarentzat itun eta nazioentzat argi izateko, itsuen begiak zabal ditzazun, giltzapetuak espetxetik askatu eta ilunpean bizi direnak kartzelatik atera ditzazun».

Sal 28: Bere herria bedeinkatuko du bakea emanez Jaunak.

Apostoluen Eginak liburutik 10, 34-38.

Egun haietan honela mintzatu zen Pedro: «Orain jabetzen naiz benetan Jainkoak ez duela bereizkeriarik egiten, baizik eta onartzen duela begirune diona eta beraren nahia egiten duena, edozein herritakoa dela ere. Hark bere hitza bidali zien israeldarrei, guztien Jauna den Jesu Kristoren bidez, bakearen Berri Ona iragarritz. Badakizue zer gertatu zen, Galileatik hasi eta Judea osoan, Joane hots egin zuen bataioaren ondoren: Nazareteko Jesusena, alegia: Jainkoak Espiritu Santuaren indarraz gantzutu zuen, eta hark on egiten eta deabruak hartutako guztiak sendatzen igaro zuen bizitza, Jainkoa berekin baitzuen».

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 3, 15-16.21-22.

Aldi hartan, herria zain-zain zegoen eta denak ari ziren pentsatzen ez ote zen Joan Bataiatzailea Mesias izango. Joane guztiei adierazi zien: «Nik urez bataiatzen zaituztet; baina badator ni baino ahaltsuago

JAUNAREN BATAIOA

San Arcadio Mauritaniakoa, *martiria*

dena eta ni ez naiz inor haren oinetakoen lokarriak askatzeko ere. Hark Espiritu Santuaz eta suaz bataiatuko zaituzte». Herri guztia bataiatzen ari zen batean, Jesus ere bataiatu zen. Eta otoitzean ari zela, zerua zabaldu zen, eta Espiritu Santua jaitsi zitzaion gainera uso-irudian. Eta mintzo hau etorri zen zerutik: «Zu zara nire Semea, nire maitea; Zu zaitut atsegin».

Jesusen bataioak Bere pertsonaren misteriora hurbiltzen gaitu. Jesus Jordanera joan zen, Joaneke bataiatua izatera, eta han Jainkoaren esperientzia sakona izan zuela kontatzen du ebanjelioak. Jainkoak bere Seme maitetzat eta kuttuntzat hartua sentitu zen Jesus. Bizipen hori lagun izan zuen Bere bizitza osoan, beti hartu izan baitzuen Jainkoa Aitatzat. Biziki maitatutako Semea zen. Baina horregatik pribilegiatua eta betebeharretatik salbuetsia sentitu beharrean, gaixoak eta bekatariake sendatzera eta Erreinua iragartzera bidalitzat izan zuen Bere burua. Izpirituak gantzuturik, Honek gidatu zuen Bere misioan, zeini mugarik gabeko eskuzabaltasunez ekin baitzion. Gu ere bataiatuak izan gara urez eta Izpirituaren dohaina jaso dugu. Jesusek Jainkoaren seme-alaba maiteak eta elkarren neba-arreba garela esan digu. Jainkoa gure AITA-AMA da, guztiona. Jesusen Izpirituak laguntzen gaitu, Haren misio bera bete dezagun: iragartzea, sendatzea eta askatzea. Bada garaia Jesusen behin betiko Egiara hurbiltzeko, jakinda Jesusen Egiarekin batera gure egia ere aurkitzen dela. Jesusengan gure egiazko izaera agertzen zaigu, zeinetara deituak izan garen.

Urteko 1. astea

San Hilario, *gotzaina eta eliz irakaslea*San Benigno, *martiria*San Kastor, *apaiza eta ermitaua***Hebrearrei gutuna 1, 1-6:** Jainkoak Semearen bidez hitz egin digu.**Sal 96:** Ahuspez jartzen zaizkio aingeru guztiak.**Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1, 14-20.**

Joan Bataiatzailea kartzelan sartu zutenean, Jesus Galileara joan zen eta Jainkoaren Berri Ona hots egiten zuen. Honela zioen: «Betea da garaia, eta hurbil da Jainkoaren erregetza. Bihotz-berri zaitezte eta sinetsi Berri Ona». Jesusek, Galileako itsasbazerretik igarotzean, Simon eta honen anaia Andres ikusi zituen sareak urera botatzen, arrantzaleak baitziren. Jesusek esan zien: «Zatozte nirekin, eta giza arrantza egingo zaituztet». Haiek berehala sareak utzi eta jarraitu egin zioten. Aurrerago, Santiago eta honen anaia Joan, Zebedeoren semeak, ikusi zituen; sareak konpontzen ari ziren beren ontzian. Ikusi bezain laster, dei egin zien Jesusek. Haiek, beren aita Zebedeo mutilekin ontzian utzirik, Jesusen ondoren joan ziren.

Ebanjelioak Galileako itsasoaren usaina, bertako uren zurrumurrua eta itsasertzeko arrantzaleen ahotsak dakarzkigu. Jesus eurengana hurbiltzen da eta dei egiten die batzuei: Simoni eta Andresi, Santiagori eta Joani. Bere jarraitzaile zintzoak izango dira, lagun handiak. Haiek bere bizitza atzean uzten dute, Jesusen ondoan jarduteko, oraindik hori ez dakiten arren. Abentura bat hasten dute Jesusekin. Honek erakarri egiten ditu; eta bizitza berriaz, betetasunaz, betikotasunaz hitz egiten die, egunen batean esango dioten bezala. Gaur egun ere Jesusek esaten jarraitzen du ezen epea bete dela, Jainkoaren Erreinua hurbil dagoela, konbertitzeko eta Berri Onean sinesteko. Guretzat ere unea da Bere deiari erantzuteko eta martxan jartzeko.

Urteko 1. astea

San Fulgentzio, *gotzaina*San Juan de Ribera, *Valentziako artzapezpikua*

Hebrearrei gutuna 2, 5-12: Egoki zen, haiek salbamenera gidatuko zituen burua, Jesus, oinazeen bidez bete-beteko egitea. **Sal 8:** Jauna, zeure eskulan guztien buru gizakia jarri duzu.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1, 21b-28.

Kafarnaumen, larunbatean sinagogan sarturik, irakasten hasi zen Jesus. Jende guztia txunditurik zegoen haren irakaspenaz, nagusitasunez irakasten baitzien, eta ez lege-maisuek bezala. Bazen, hain zuzen, sinagoga hartan espiritu gaiztoaren menpe zegoen gizon bat, eta oihuka esan zuen: «Zer duk gurekin, Jesus Nazaretarra? Gu hondatzera al hator? Bazekiat nor haizen: Jainkoaren Santua». Jesusek gogor eraso zion: «Isil hadi eta atera gizon horrengandik!». Espiritu gaiztoak astinaldi gogorra eman zion eta, garrasi handia eginez, atera egin zen gizonagandik. Denak ikaraturik gelditu ziren, elkarri galdezka: «Zer dugu hau? Irakaspen berria, eta nolako nagusitasunez emana gainera! Espiritu gaiztoei ere agintzen die, eta obeditu egiten diote!». Laster zabaldu zen Jesusen entzutea Galilea aldeko bazter guztietara.

Jesusen hitza indartsu altxatzen da gaitza erroitik erauziz, zeinak gure mundua geldiarazten baitu. Jesusek espiritu nazkagarriak kanporatzeko boterea duela errepikatuko du Ebanjelioak. Berak sendatu, askatu eta liberatu egiten du: Bere ekintzaren ondoren, pertsona bakean eta lasai geratzen da, maitatzeko eta zerbitzatzeko askatuta. Markosen ebanjelioaren hasiera honetan honela agertzen da Jesus: botere erabakigarri gisa, zeinek pertsonak bereganatzen dituen gaitza desegiten baitu; eta benetako gizon gisa, zeinek autoritatez irakasten baitu, Beraren egiatik egiten duelako hitz, ez maileguz hartutakotik. Bere bizitza eta hitza bata bestearekin aberasten dira. Bitartean, Bere ospearen entzutea zabaltzen ari da Galilean, eta baita horrelako gizon baten nortasunari buruzko galdera ere.

Urteko 1. astea

San Paul, *ermitaua*. San Mauro, *abadea*.San Arnaldo Janssen, *apaiza eta fundatzailea (Verbo Divino kongregazioa)*

Hebrearrei gutuna 2, 14-18: Gauza guztietan senideen antzeko izan behar zuen, errukitsu izan zedin. **Sal 104:** Gogoan du etengabe Jaunak bere ituna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1, 29-39.

Aldi hartan, Jesus sinagogatik atera eta Simonen eta Andresen etxera joan zen zuzenean, Santiagorekin eta Joanekin. Simonen amaginarreba oheratua zegoen sukarrarekin; berehala, hartaz hitz egin zioten Jesusi. Joan zitzaion Jesus ondora, eskutik hartu eta jaikiarazi zuen. Sukarrak alde egin zion, eta zerbitzatzen hasi zitzaion. Arratsean, eguzkia sartu ondoren, gaixo eta deabrudun guztiak eraman zizkioten Jesusi. Herri guztia bildu zen atarian. Eta hark gaixo asko sendatu zuen, edozein zela ere haien gaitza, eta deabru asko bota zuen. Deabruak ez zien uzten hitz egiten, bazekiten-eta nor zen. Goizean goiz, artean ilun zegoela, Jesus herritik atera eta bazter bakarti batera joan zen; han otoitzean ari zen. Simon eta lagunak Jesusen bila hasi ziren eta, aurkitzean, esan zioten: «Jende guztia zure bila dabil». Hark, ordea, erantzun: «Goazen beste norabait, inguruko auzoetara, horietan ere Berri Ona hots egitera, horretarako atera bainaiz». Hala, Galilea guztian barna ibili zen, hango sinagogetan Berri Ona hots egiten eta deabruak botatzen.

Gaurko Ebanjelioan Jesus jardunaldi betean ikusten dugu Galilean: irakasten, sendatzen, pertsonen denbora eskaintzen, askatzen, otoitz egiten. Atal honek Jesusek Pedroren amaginarrebarekiko duen arreta ere nabarmentzen du: harengana hurbildu, eskutik hartu eta altxatu egiten du; eta emakumeak zerbitzu bihurtutako esker onez erantzuten du. Sumatu dezakegu baita ere otoitza Jesusen bizitzaren sekretu ezkutua dela: tarte luzez egoten da Aitarekin isilik eta bakardadean; harreman horretatik sortzen da Bere indarra eta determinazioa. Azkenik, Jesusen askatasuna deskubritzen dugu: Bere ikasleak liluratzen dituen arrakasta sozialari eutsi ordez, beste herrixka batzuetara joaten baita, bertan ere Berri Ona iragartzeko. Horrela irteeran den Jainkoa deskubritzen dugu Harengan.

Urteko 1. astea

San Martzelo, 30. aita santua, eta martiria

Hebrearrei gutuna 3, 7-14: Adoretu elkar egunero, «gaur» horrek irauten duen bitartean. Sal 94: Entzungo al duzue gaur Jaunaren mintzoa: «Ez gogortu zeuen bihotza».

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1, 40-45.

Aldi hartan, legenardun bat etorri zitzaion erreguka Jesusi eta, belaunikaturik, esan zion: «Nahi baduzu, garbi nazakezu». Jesusek, errukiturik, eskua luzatu eta ukitu egin zuen, esanez: «Nahi dut, izan zaitez garbi». Orduan bertan alde egin zion legenak, eta garbi gelditu zen. Jesusek bidali egin zuen, zorrotz aginduz: «Kontuz gero! Ez esan inori ezer. Baina zoaz, agertu apaizagana eta eskaini garbikuntzaren ordainez Moisesek agindutakoa, ezaugarri izan dezaten». Hura, ordea, atera zeneko, gertatua hots egiten eta zabaltzen hasi zen oihuka, eta harrezkero ezin zen Jesus inongo herritan agerian sartu, eta kanpoan gelditu ohi zen, leku bakartietan. Hala ere, edonondik zetorkion jendea.

Hunkitu egiten du legenardunaren eskeak, zeina Jesusen aurrean belaunikatzen baita eta apalki esaten baitio: «Nahi baduzu, garbitu nazakezu». Jesusen borondatearen esku geratzea erabaki du. Eskatzen erakusten du gizon honek. Eta Jesus errukiorrak bai nahi du: eskua luzatu eta ukitu egiten du legenarduna eta hau garbi geratzen da. Jesusek ez du urrutitik sendatzen, hurbiletik eta intimitatean baizik. Puruak zikina ukitu egiten du, eta Bera kutsatua izan ordez, sendatu egiten du gaixoa. Horrela sendatzen gaitu Jainkoak, guregana hurbilduz, gure barru hondatua ukituz eta guztiz sendatuz. Legenardunaren poza hain da handia, ze ezin baitio komunikatzeari eutsi. Jende talde ugari inguratuko du Jesus, Zeina ordutik aurrera leku bakartietan ibiliko den; horrela, bitxia bada ere, legenardunak zeukan egoera hartuz.

Urteko 1. astea

San Anton, *abadea*

Hebrearrei gutuna 4, 1-5.11: Saia gaitezen atseden horretan sartzen.

Sal 77: Ez ahaztu Jainkoaren eintza handiez.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 2, 1-12.

Zenbait egunen ondoren, Jesus Kafarnaumen sartu zen berriro, eta etxean zegoeneko berria zabaldu zen. Bildu zen jendetzarekin ez zegoen inon tokirik, ezta atarian ere. Eta mezua adierazten zien. Hartan, elbarri bat ekarri zioten lau lagunuen artean. Baina jendetzagatik ezin zuten eramane Jesusenganaino. Orduan, bera zegoen parean etxe-gaina zulatu eta zulotik behera eraitsi zuten elbarria, etzanik zegoen ohatilan. Jesusek, haien sinesmena ikusirik, esan zion elbarriari: «Seme, barkatuak dituzu bekatuak!». Baziren han eserita lege-maisu batzuk, eta hau zioten beren baitan: «Zer ari duk hau horrela? Biraoka ari duk. Nork barka zitzakek bekatuak, Jainkoak berak izan ezik?». Baina Jesusek bere barruan haien gogoetei igarri eta esan zien: «Zergatik dituzue gogoeta horiek zeuen baitan? Zer da errazago, elbarriari “barkatuak dituzu bekatuak” esatea ala “jaiki, hartu ohatila eta zabiltza” esatea? Orain ikusiko duzue, bada, Gizonaren Semeak baduela mundu honetan bekatuak barkatzeko ahalmena». Eta esan zion elbarriari: «Zuri diotsut: Jaiki, hartu ohatila eta zoaz etxera». Berehala jaiki, ohatila hartu eta guztien aurrean ateratu zen. Denak harriturik gelditu ziren, eta Jainkoa goresten zuten, esanez: «Ez dugu sekula horrelakorik ikusi».

Ez dakigu zein indarrek lotzen duten gizon honen bizitasuna paralizaturik uzteraino; agian gaixotasunak, depresioak, edo agian bekatuak berak. Egoera horretan ezinezkoa da ezer egitea, beste batzuei egiten uztea baino. Lau adiskidek jaisten dute, Jesus dagoen etxeko sabaitik behera, eszenatokiaren erdigunea okupatu arte. Jesusen bizitzaren erdigunean biktimak daude eta hau da horietako bat. Jesusek adiskideen fedean eta maitasunean erreparatzen du, Beragan jarri duten konfiantzan. Haiek elbarriari Jesusek autonomia itzultzea espero dute; eta horixe Honek egingo du: elbarri hura kanpotik eta barrutik sendatu. Jesusen hitzek desagerrarazi egiten dute gizon hura paralizatzen zuen pisu dena, eta laudorioak betetzen du esena.

Urteko 1. astea

Kristauen Batasunaren aldeko zortziurrenaren hasiera
Santa Priska eta Santa Margarita, *birjinak*

Hebrearrei gutuna 4, 12-16: Hurbil gaitezen konfiantza osoz Jainkoaren grazia- tronura. Sal 18: Zure hitzak, Jauna, espiritu eta bizi dira.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 2, 13-17.

Aldi hartan, Jesus itsasaldera atera zen berriro. Jende guztia berarengana zihoan, eta irakasten hasi zitzaien. Bidez zihoala, Lebi Alfeorena ikusi zuen, zergak biltzeko mahaian eseria, eta esan zion: «Jarraitu niri». Lebi zutitu eta jarraitu egin zion. Geroago, Jesus mahaian zegoen Lebiren etxean; bazen beste zergalari eta bekatar asko ere Jesusekin eta honen ikasleekin mahaian; izan ere, asko zihoazkion ondoren. Fariseuen arteko lege-maisu batzuek, bekatar eta zergalariekin jaten ari zela ikustean, esan zieten ikasleei: «Nolatan jaten du zergalari eta bekatariekin?». Hori aditzean, Jesusek esan zien: «Ez dute osasundunek behar sendagilea, gaixoez baizik; ez naiz zintzoei dei gitera etorri, bekatariei baizik».

Nor da Jesusi jarraitzeko duin? Seguruenik inor ere ez, bere merituengatik; Jesusen borondatez, bekataririk handiena ere bai. Lebi holakotzat da hartua bere kulturan: bekataritzat, erromatarren kolaboratzailetzat juduen esplotazioan. Baina Jesusek gaitasun ezezagunak ikusten ditu haren eta konfiantza du berarengan. «Jarraitu niri» esango dio. Hitz hori gure kristau bizitzaren hasieran dago eta bere oihartzuna une oro sentitu behar dugu, jasotako deiari leial eusteko. «Jarrai nazazu» hitzek Jesusek deituriko pertsonarengan duen konfiantza adierazten dute; segurtasuna eskaintzen diote lagundua eta gidatua sentitzen denari; eta aurretik doan Maisuaren ahots beroarekin dute lotura. Sarritan entzun behar ditugu guri zuzendutako Jesusen hitz horiek.

Santuak: Joan Ogilvie, Esteban Pongrác, Meltxor Grodziecki
apaizak, eta Marko Krizevcenin, *Esztergom-eko kalonjea*.

Dohatsuak: Ignazio de Azevedo, *apaiza* eta lagunak; *

Isaias profetaren liburutik 62, 1-5.

Sionen maitasunez ez naiz isilduko, Jerusalem maitasunez ez naiz geldi egongo; haren garaipena goiz-argia bezala agertu arte, haren salbamenak zuziak bezala distiratu arte. Eta ikusiko dute herriek zure garaipena, errege guztiek zure ospea; izen berria ezarriko dizute, Jaunak berak emana. Koroa eder izango zara Jaunaren eskuan, errege-diadema zeure Jainkoaren eskuan. Ez dizute berriz deituko «Zapuztua», ezta zure lurraldeari ere «Hondatua». «Ene atsegina» deituko dizute zuri, eta «Emazte» zure lurraldeari. Atsegin izango baitu zugar Jaunak eta emaztetzat hartuko du zure lurraldea. Mutila neskatzarekin ezkontzen den bezala, hala ezkonduko da zurekin zure eraikitzailea; senarra emaztearekin poztzen den bezala, hala poztuko da zurekin Jainkoa.

Sal 95: Zabaldur Jaunaren mirariak herri guztietan.

San Paulok 1 Korintoarrei 12, 4-11.

Senideok: Era askotakoak dira dohainak, baina bat bakarra Espiritua; era askotakoak zerbitzuak, baina bat bakarra Jauna; era askotakoak eginbideak, baina bat bakarra Jainkoa, guztiengan guztia egiten duena. Bakoitzari denen onerako ematen dizkio Jainkoak Espirituaren dohainak. Honela, bati jakinduriaz hitz egitea ematen dio Jainkoak Espirituaren bidez; beste bati, Espiritu beraren arabera, ezagueraz hitz egitea; bati, Espiritu beraren egitez, sinesmen-dohaina ematen dio; beste bati, Espiritu beraren egitez, sendaketak egiteko dohaina; bati, mirariak egiteko ahalmena; beste bati, Jainkoaren izenean hitz egitea; bati espiritu faltsua et benetakoa bereiztea;

* Santiago Salès, *apaiza* eta Gilermo Saullemouche, *martiriak, jesuitak*
 San Makario Handia, *abadea*
 Martzelo Spinola, *dohatsua, fundatzailea (Jainkoaren Bihotzaren mirabeak)*

Santuak: Joan Ogilvie, Esteban Pongráz, Meltxor Grodziecki
apaizak, eta Marko Krizevcenin, *Esztergom-eko kalonjea*.
 Dohatsuak: Ignazio de Azevedo, *apaiza* eta lagunak; *

beste bati, hizketa arrotzez mintzatzea, eta beste bati, hizketa horren esanahia adieraztea. Hori guztia, ordea, Espiritu batek berak egiten du, bere dohainak nahi duen bezala bakoitzari banatuz.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 2, 1-11.

Aldi hartan, ezteiak izan ziren Galileako Kanan, eta han zen Jesusen ama. Jesus eta honen ikasleak ere ezteietara gonbidatu zituzten. Ardoa bukatu zen, eta amak esan zion Jesusi: «Ez dute ardorik». Jesusek erantzun zion: «Utz nazazu bakean, emakume. Nire ordua ez da oraindik etorri». Jesusen amak esan zien morroiei: «Egizue berak esango dizuen». Harrizko sei ontzi zeuden han, juduek beren garbikuntzetarako erabili ohi zituztenak, bakoitza ehun bat litrokoa. Jesusek esan zien morroiei: «Bete ontziak urez». Eta haiek leporaino bete zituzten. Jesusek berriro: «Atera orain, eta eraman mahaizainari». Eta haiek eraman zioten. Dastatu zuen mahaizainak ura ardo bihurtua, nongoa zen jakin gabe (morroiek, bai, bazekiten, berek atera baitzuten ura); orduan, ezkonberriari deitu eta esan zion: «Ardo ona denek hasieran ateratzen dute eta, jendea edanda dagoenean, txarragoa. Zuk, berriz, orain arte gorde duzu ardo ona». Galileako Kanan egin zuen Jesusek bere lehen-ezaugarri hau; honela, bere aintza azaldu zuen, eta sinetsi egin zuten harengan ikasleek.

Joanen ebanjelioan Jesusen bizitza publikoko lehen zeinua ezkontza baten testuinguruan gertatzen da, kultura gehienetako ospakizunik alaienean. Ez zaigu ezer esaten senargaiei buruz, baina Idazti Deuneko pasarteen oihartzuna dira, non Jainkoak bere herriarekin duen loturaz hitz egiten baitzaigu. Jesus maitasun historia eder baten erdian agertzen zaigu, Jainkoak gizateriari dion maitasunaren erdian,

* Santiago Salès, *apaiza* eta Gilermo Saultemouche, *martiriak, jesuitak*
 San Makario Handia, *abadea*
 Martzelo Spinola, *dohatsua, fundatzailea (Jainkoaren Bihotzaren mirabeak)*

Santuak: Joan Ogilvie, Esteban Pongrác, Meltxor Grodziecki
apaizak, eta Marko Krizevcanin, *Esztergom-eko kalonjea*.
 Dohatsuak: Ignazio de Azevedo, *apaiza* eta lagunak; *

zeinarekin bat egin nahi izan baitu fideltasunez. Jesusek ardo berria dakar, ardorik onena, zeinek gure ura oinarritzat hartzen baitu; baina zapore zoragarrikoa den eta bizitza alaitzen duen mailarik goreneko edari bihurtzen baitu: gure uraren sinpletasuna, zeina Kristoren begiradapean ardoz gorritzen den. Mariaren bitartekotzak Jesusen ekintza eragin eta Honen bizitza publikoa azkartu egiten du. Hark Maisua seinalatzen digu, Honen esana egin dezagun. Horrela bakarrik, zerbitzariak bezala, Jainkoaren mirariak hartakotzat hartuko ditugu, bizitzaren normaltasunarekin nahastu gabe. Jesusen hitzak betetzean irekiko zaizkigu begiak errealitatearen sakontasun jainkotiarrrera. Orduan pozez ospatuko dugu egunero Jaungoikoaren eta bere herriaren arteko batasun leiala.

* * *

«Mundu masifikatu honetan inoiz baino bakarrago gaude, banakako interesak nagusitzen baitira eta existentziaren alderdi komunitarioa ahultzen ari baita» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 12).

* Santiago Salès, *apaiza* eta Gilermo Saultemouche, *martiriak, jesuitak*
 San Makario Handia, *abadea*
 Martzelo Spinola, *dohatsua, fundatzailea (Jainkoaren Bihotzaren mirabeak)*

San Fabian, *aita santua eta martiria*. San Sebastian, *martiria*
 San Fruktuoso, *gotzaina* eta San Eulogio eta San Augurio,
haren diakonoak, martiriak

Hebrearrei gutuna 5, 1-10: Semea izanik ere, oinazearen oinazez ikasi
 zuen obeditzen. Sal 109: Apaiz zara zu, Melkisedek bezala, betiko.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 2, 18-22.

Aldi hartan, Joan Bataiatzailearen ikasleek eta fariseuek barau-eguna zuten. Jesusengana joan eta esan zioten: «Nolatan egiten dute barau Joanen ikasleek eta fariseuek, eta zure ikasleek ez?». Jesusek erantzun zien: «Ezteietara deituek egin ote dezakete barau, senar berria berekin dutelarik? Senar berria berekin duten bitartean, ez dezakete barau egin. Etorriko zaie, bai, senar berria kenduko dieten eguna; orduan, egun hartan, egingo dute barau. Inork ez dio jantzi zaharrari oihal gordinezko adabakirik josten; bestela, adabaki berriak jantzi zaharra behartu, eta zarratada handiagoa egiten da. Ez du inork ardo berririk sartzen ere zahagi zaharretan; ardoak zahagiak lehertu egingo lituzke eta, orduan, ez ardo eta ez zahagi. Ardo berria zahagi berritan».

Jesusen bizitza publikoaren hasieran Erreinuaren ekintzak gainezka egiten du. Bere obra errukiorra ezin konta ahala pertsonagana iristen da, zeintzuk sendatzen baititu. Ez da barau egiteko garaia, Jainkoaren presentzia kontsolagarria ospatzekoa baizik, ezkontzan senargaiaren lagunek bezala. Egongo da denbora barau egiteko, Maisuak jazarpena sufritzen duenean, Garizuman egiten dugun bezala. Baina baraualdia ez da izango orduan Jainkoaren mesedea lortzen saiatzeko, juduen errituetan bezala, baizik eta biktimarekiko gure elkartasuna adierazteko. Erreinuaren predikuak bizitzaren aurrean kokatzeko guztiz modu berria dakar. Ardo berria da, zeinek zahagi berriak behar baititu: praktikak berriztatzea eta zaharrak birdefinitzea.

Urteko 2. astea

Santa Ines, *birjina eta martiria*

Hebrearrei gutuna 6, 10-20: Itxaropen hau dugu geure bizitzaren aingura sendoa eta segurua. Sal 110: Gogoan du beti Jaunak bere ituna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 2, 23-28.

Behin batean, larunbatez gari-soroetan barna zihoan Jesus. Eta ikasleak bidenabar galburuak mozten hasi ziren. Fariseuek esan zioten Jesusi: «Nolatan ari dira egiten, larunbatez zilegi ez dena?». Hark erantzun: «Ez al duzue inoiz irakurri zer egin zuen Davidek beharraldi batean, bera eta bere lagunak goseak gertatu zirenean? Nola, Abiatar apaiz nagusi zelarik, Jainkoaren etxean sartu eta Jaunari eskainiriko ogiak jan zituen, legez apaizek bakarrik jan zitzaketenak, eta nola bere lagunei ere eman zien?». Eta esan zien: «Larunbata gizakiarentzat egin zuen Jainkoak, ez gizakia larunbatarentzat. Beraz, Gizonaren Semea larunbataren beraren nagusi da».

Dizipuluek galburuak biltzeak talka egiten du larunbataren preskripzioarekin, zeinek lan hori egitea debekatzen baitu. Jesusek Itun Zaharrera jotzen du erakusteko nola egon diren salbuespenak beti, Daviden kasuan bezala. Horrela, Jesusek nabarmentzen du ezen praktika erritualaren helburua ez dela gizakia Jainkoaren ustezko agindu baten bidez menderatzea, baizik eta pertsonaren ongia bilatzea. Kontua ez da pertsona txikiagotzea, gizatasunean haztea baizik. Hori da edozein erlijio-agindutan beharrezkoa den irizpide bakarra, horixe bilatzen baitu Jainkoak. Legea ulertzeko araua errukian oinarritzen da, eta ez menderatzean.

Hebrearrei gutuna 7, 1-3.15-17: Apaiz zara zu, Melkisedek bezala, betiko. Sal 109: Apaiz zara zu, Melkisedek bezala, betiko.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3, 1-6.

Aldi hartan, Jesus sinagogan sartu zen berriro. Bazen han gizon beso ihar bat. Zelatan zegozkion larunbatean sendatzen ote zuen, zertan salatuko baitzebiltzan. Jesusek beso iharrari esan zion: «Jaiki eta zatoz hona erdira». Eta besteei esan zien: «Larunbatez zer da zilegi, on egitea ala gaitz egitea, bizia salbatzea ala kentzea?». Haiek, ordea, isilik. Jesusek, ingurukoei haserre begiraturik eta beraien setakeriaz mindurik, esan zion gizonari: «Luzatu beso hori». Hark luzatu zuen, eta sendatu egin zitzaion. Handik atera orduko, fariseuek eta Herodesen alderdikoek elkar hartu zuten Jesusen kontra, hura nola galduko.

Sufritzen duen gizakia Jesusek bere begiradaren eta elkartearen erdigunean jartzen du. Ez du baztertzen, ezta ezkutatzen ere. Juduentzat larunbata aginduz betetako eguna da; Jesusentzat betiereko eguna, non Jainkoak bere interes osoaren erdigunean jartzen baitu gizakia. Jesus larunbatean aritzen da, zeren, Jaungoikoaren eguna izanik, sufritzen duten gizakienganako errukiaren eta samurtasunaren eguna baita. Jesus konbentzituta dago ezen larunbata gizakiarentzat egina dagoela, hazi eta bizi dadin. Gizakiaren ongia erlijio-agindu guztien gainetik dago, eta baita gauzatu beharreko oposizio ororen gainetik ere.

Urteko 2. astea

San Ildefontso, *gotzaina*Santa Emerentziana, *birjina*

Hebrearrei gutuna 7, 25-8, 6: Jesusek behin betiko oparia eskaini zuen bere burua eskaini zuenean. **Sal 39:** Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egin dezadan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3, 7-12.

Aldi hartan, Jesus itsasbazterrera joan zen bere ikasleekin. Galileatik etorritako jendetza handiak jarraitu zion. Eta, berak egiten zituenak entzunik, Judea, Jerusalem eta Idumeatik, Jordanez bestaldetik eta Tiro eta Sidon aldetik ere jendetza handia bildu zitzaion. Jesusek txalupa prest edukitzeko agindu zien ikasleei, hainbeste jenderen artean zapal ez zezaten. Izan ere, asko zituen sendatuak, eta gaitzen bat zuten guztiak gainera zetozkion, ukitu nahian. Espiritu gaiztoek, ikusten zuteneko, haren oinetara erori eta oihuka esaten zioten: «Jainkoaren Semea zara Zu». Hark, ordea, zorrotz agintzen zien, ez emateko ezagutzeroa.

Pasarte honek Galileako eszenen ezaugarri bereizgarriak biltzen ditu: aintzira bere soinu eta koloreekin, adi entzuten duten jendetzak, gaitzen sendaketak eta espiritu gaiztoen kanporatzea. Eskualde osoko pertsonak etortzen dira, batzuk Galileako periferiakoa. Jesusek hitzez eta egitez iragartzen duen Jainko errukiorraren mezua denengana heltzen da, denei eskaintzen zaielako eta behartsu guztiek konfiantzaz onartzen dutelako. Gizon-emakume haien begiradak eta itxaropenak Jesusengan daude jarrita. Gaur egun, orduan bezala, Bera eta Bere ontasuna dira Bere jarraitzaileen arretaren erdigune, Haren mezuari adi eta Haren misiorako prest daudelarik.

Urteko 2. astea

San Frantzisko Saleskoa, *gotzaina eta eliz irakaslea*

Hebrearrei gutuna 8, 6-13: Kristo itun hobearen bitarteko. Sal 84: Maitasunak eta leialtasunak topo dute egiten.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3, 13-19.

Aldi hartan, Jesus mendira igo zen, berak nahi izan zuenei dei egin zien, eta haiek hurbildu egin zitzaizkion. Hamabien taldea eratu zuen, berarekin bizitzeko eta Berri Ona hots egitera bidaltzeko; eta deabruak botatzeko ahalmena eman zien. Hamabi hauek aukeratu zituen: Simon –honi Pedro izena ipini zion–, Santiago Zebedeorena eta Joan, Santiagoren anaia –hauei Boanerges izena ipini zien, hau da, «Trumoi-kume»–, Andres, Felipe, Bartolome, Mateo, Tomas, Santiago Alfeorena, Tadeo, Simon Zelote eta Judas Iskariote, Jesus saldu zuena.

Jesusek behar al zituen dizipuluak? Ez al zen nahikoa Bera bakarrik? Ondo aukeratu al zituen? Pedrok traizionatu egin zuen, Judasek entregatu, Tomasek zalantza egin, Zebedeotarrek lehen postuak nahi zituzten... Bakarrik dakigu, dizipulu komunitate hari esker, Eliza existitzen dela eta Jesusen mezua iritsi zaigula. Jainkoak aurrera darama Erreinua, giza lokatza laztanduz. Jesusek dizipulu horiek Bere lagun egin zituen, eta Bere misio bera fidatu zien: predikatzea, sendatzea eta deabruak kanporatzea. Horrela egiten du gurekin ere: Bere lankideak izanik, gu Berarekin egotea nahi du, Bere presentziaz gozatuz gure eguneroko bizitzan eta historian; eta nahi du ezen murgildu gaitzezla Bere misioan, Berri Ona hitzez eta ekintzez iragarritz, komunitatean Bere ondoan ibilita.

Urteko 2. astea

Kristauen Batasunaren aldeko Zortziurrenaren bukaera

San Paulo apostolua Kristogana itzultzea

Santa Elbira, *abadesa*

Eginak liburutik 22, 3-16: Bataia zaitez eta garbitu zeure bekatuetatik Jaunaren izenari dei eginez. **Sal 116:** Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 16, 15-18.

Aldi hartan, Jesus Hamaikiei agertu eta esan zien: «Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona izaki guztiei. Sinetsi eta bataiatzen dena salbatuko da; sinesten ez duena, berriz, kondenatuko. Sinesten dutenek seinale hauek izango dituzte lagun: nire izenean deabruak botako dituzte, hizkuntza berrietan mintzatuko dira, sugeak eskuetan hartuko dituzte eta, edari hilgarriren bat edanda ere, ez die kalterik egingo; gaixoei eskuak ezarriko dizkiete eta sendatu egingo dira».

Konbertitu aurretik, San Paulok kristauak jazarri egin zituen juduen diasporako komunitateen artean. Amorruek itsututa, zigortzea besterik ez zuen buruan. Baina Damaskorako bidean Jesusekin egin zuen topo, eta Honek bide berri bat erakutsi zion. Topaketa hark itsutasuneraino desorientatu zuen; ikusmena berreskuratu zuenean, bere bihotzean Kristo baino ez zen geratzen: «Kristo bizi da nigan» (Gal 2, 20) eta karitatea izan zen bere bultzada berria. San Paulok bere gainerako bizitzan Kristo iragarri zuen, kristau elkarteak osatuz. Jatorri judua, heleniar kultura eta erromatar hiritartasuna nahasten ziren harengan; hori dela eta kristautasunaren unibertsaltasuna aldarrikatzen zuen. Berarekin, Eliza bere erakarpenagatik eta beti irteeran egoteagatik nabarmendu zen. Horretan jarraitzera gaude deituak.

Nehemiasen liburutik 8, 2-4a.5-6.8-10.

Egun haietan, Esdras apaizak Moisesen legearen liburua ekarri zuen, gizon-emakume eta ezaguera zuten guztien batzarraren aurrera. Zazpigarren hilaren lehen eguna zen. Eta goizetik eguerdia arte Ur-atearen aurreko plazan batzar osoari irakurtzen aritu zitzaion; herri osoa adi-adi zegoen legearen liburua entzuten. Esdras lege-maisua, hartarako egina zuten ohol-tza gainean zegoen zutik. Esdrasek liburua zabaltzen zuen herri osoaren aurrean, bera denen gainetik jarria baitzegoen; liburua zabaltzeaz batera, herri osoa zutitu zen. Gero, Esdrasek Jauna Jainko handia goretsi zuen, eta herriak, eskuak jasorik, «Amen, amen» erantzun zuen; ondoren, makurtu eta lurreraino ahuspeztuz, Jainkoa gurtu zuten. Lebitarrek argi eta garbi irakurtzen zuten Jainkoaren legea, esanahia azalduz, herriak ulertzeko eran. Herri osoak negarrari eman zion, legearen hitzak entzutean. Orduan, Nehemias gobernariak, Esdras apaiz eta lege-maisuak eta irakasten ari ziren lebitarrek esan zioten herriari: «Gaurko eguna Jaunari, geure Jainkoari, sagaratua dugu; beraz, ez egon triste, ez negar egin». Gainera, esan zieten: «Zoazte eta jan haragi guria, edan ardo gozoa, eta bidali janaria ezer prestaturik ez dutenei ere, egun hau Jaunari sagaratua baita. Ez atsekabetu, Jaunaren poza baita zuen indarra».

Sal 18: Zure hitzak, Jauna, espiritu eta bizi dira.

San Paulok 1 Korintoarrei 12, 12-30.

Senideok: Gorputzak, bat izanik ere, atal asko du; baina atal guztiek, asko izanik ere, gorputz bat bakar-ra osatzen dute. Gauza bera gertatzen da Kristorekin ere. Gu guztiok, judu nahiz greziar, esklabo nahiz libre, Espiritu bat berarengan izan gara bataiatuak, gorputz bat bakar-ra egiteko. Eta guztiok Espiritu bat beretik edan dugu. Gorputza, izan ere, ez du atal bakarrak osatzen, askok baizik. Oinak esango balu:

Urteko 3. astea

San Timoteo eta San Tito, *gotzainak*

«Eskua ez naizenez gero, ez naiz gorputzarena», ez lioke horregatik gorputzarena izateari utziko. Eta belarriak esango balu: «Bergia ez naizenez gero, ez naiz gorputzarena», ez lioke horregatik gorputzarena izateari utziko. Gorputz guztia begi balitz, non entzumena? Eta dena belarri balitz, non usaimena? Baina Jainkoak bere tokia jarri zion atal bakoitzari gorputzean, berak nahi bezala. Denak atal bat balira, zer-nolakoa izango litzateke gorputz hori? Baina ez, atalak asko dira; gorputza, ordea, bat bakarra. Begiak ez diezaioke eskuari esan: «Ez dut zure beharrik»; ezta buruak ere oinei: «Ez dut zuen beharrik». Gehiago oraindik, makalenak diruditen gorputz-atalak beharrezkoenak dira, eta duintasunik gutxieneko iruditzen zaizkigunak itzal eta begirune handiagoz inguratzen eta zaintzen ditugu; izan ere, berez ohoragarri direnek ez dute arreta horien beharrik. Jainkoak berak, gorputza eratzean, berez ohore gabeko ziren atalei begirune handiagoa eman zien. Horrela, ez dago zatiketarik gorputzean, eta atal guztiak bata besteaz arduratzen dira. Atal batek min duenean, min dute gainerako atal guztiek harekin; eta, atal bat ohoratua denean, poza dute gainerako guztiek harekin. Zuek, beraz, Kristoren gorputza zarete, eta zuetako bakoitza gorputz horren atal. Eliz elkartean bakoitzari bere tokia ezarri dio Jainkoak: lehenengo apostoluak jarri ditu, bigarren profetak, hirugarren irakasleak, ondoren mirarigileak, gero sendatzeko edo behartsuei laguntzeko dohaina, nahiz elkarte gidatzeko edota hizketa arrotzez mintzatzeko dohaina dutenak. Denak apostolu ote dira? Denak profeta? Denak irakasle? Denak mirarigile? Denek ote dute sendatzeko dohaina? Denak mintzo ote dira hizketa arrotzez? Denak ote dira hizketa arrotzen interpretari?

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 1-4; 4, 14-21.

Teofilo agurgarria: Askok ekin dio gure artean izan diren gertakarien historia idazteari, hasieratik begizko testigu eta gero Berri Onaren predikari izandakoek jakinarazi digutenaren arabera. Neuri

ere ongi iruditu zait dena bere harian zuretzat idaztea, hasieratik guztia zehatz-mehatz aztertu ondoren, hartu dituzun irakaspenak zein finkatuak dauden ikus dezazun. Jesus, Espirituaren indarrez, Galileara itzuli zen, eta haren izena lurralde hartan guztian zabaldu zen. Hango sinagogetan irakasten zuen, eta denek goersten zuten. Jesus Nazaretera, bera hazi zen herrira, joan zen, eta larunbatean sinagogan sartu, ohi zuenez, eta zutik jarri zen irakurgaia egiteko. Isaias profetaren liburua eman zioten eta, irekitzean, pasarte hau aurkitu zuen: «Jaunaren Espiritua nire gainean dago, hark gantzutu bainau, behartsuei Berri Ona emateko. Gatibuei askatasuna eta itsuei ikusmena hots egitera bidali nau, zapaldueti askatasuna ematera, Jaunaren onginaldi-urtea hots egitera». Liburua bildu ondoren, laguntzaileari eman eta eseri egin zen. Denak sinagogan begira-begira zeuzkan. Jesus honela hasi zitzaion: «Gaur bete da orain entzun duzuen Liburu Santuko hitz hau».

Lukasen Ebanjelioaren irakurketa hasten dugu, berau baita aurtengo ohiko igandeetan entzungo duguna. Lukasek Jesusen bizitza publikoa Nazaret-eko sinagogako eszena honekin hasten du. Jesusek Isaiasen liburua hartu eta Bere misioaren zentzua laburbiltzen duen pasarte irakurtzen du. Jainkoaren Izpirituak gantzututako gizona da, Jainkoaren gizona. Ahaztuta sentitzen diren behartsuei, Jainkoa beraien alde ahalegin bizian ari denaren Berri Ona iragarriko die; beren burua harrapatuta ikusten duten gatibu eta zapalduak askatu egingo ditu; galduta dabilzan itsuei, berriz, ikusmena itzuliko die. Berarekin dator Jainkoaren graziazko urtea. Irakurtzen amaitu ondoren dio: «Gaur betetzen da entzun berri duzuen Eskritura hau». Jesusek, Jainkoak bidaliak, historiaren biktimekiko Aita-Amaren errukia eta samurtasuna, haienganako Bere lehentasuna, aldarrikatzen ditu. Jesus euren artean biziko da, lagundu eta sendatu egingo ditu, gurutzean biktima bat gehiago izan arte. Harengan ez dago Jainko mendekari edo mehatxatzailearen itzalik; Bere errukiak distira egiten du. Hau da Jesusen bidea, zeinek Berari jarraitzera gonbidatzen gaituen, egiazko bizitza deskubritu eta gure bihotza samurtu ditzagun.

Urteko 3. astea

Santa Angela Merici, *fundatzailea (Urtsulinak)*San Enrike de Ossó, *fundatzailea (Teresianak)*

Hebrearrei gutuna 9, 15.24-28: Kristo behin bakarrik izan zen opari eskainia, bekatuak kentzeko; gero bigarrenez agertuko da beraren zain daudenak salbatzera. **Sal 98:** Kanta Jaunari kantu berri, egin baititu hainbat harrigarri.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3, 22-30.

Aldi hartan, Jerusalemdik jaitsitako lege-maisuek hau zioten Jesusi buruz: «Beeltzebul dauka honek barruan», eta «Deabruen buruzagiaren indarrez botatzen ditu honek deabruak». Jesusek beregana deitu eta parabola hauen bidez hitz egin zien: «Nola bota dezake Satanasek Satanas? Bere baitan zatiturik dagoen erreinuak ezin du iraun. Bere baitan zatiturik dagoen familiak ezin du iraun. Era berean Satanasek ere, bere buruaren aurka jaiki eta zatiturik baldin badago, ezin du iraun; harenak egin du. Ez daiteke inor sartu indartsu baten etxean lapurretara, aldez aurretik hura lotzen ez badu; orduan, bai, harrapa ditzake haren etxeko ondasunak. Benetan diotsuet: Dena barkatuko die Jainkoak gizakiei, bekatuak eta esan litzaketen birao guztiak; baina Espiritu Santuaren aurka birao egiten duenak ez du sekula barkamenik izango; errudun izango da betiko». Espiritu gaiztoa zeukala ziotenei erantzun zien hau.

Jesusek ez du izpiritu gaiztoen gaineko botererik haien printzea delako, baizik eta baztertu eta kanporatu egiten dituelako. Egia esan, ez du zerikusirik haiekin, zeintzuk gaizkiaren semeak baitira; Jesus Errukitsuaren semea da. Hala ere, jasotzen duen kritikaren mekanismoa ezaguna zaigu: ongia egiten duenari ospea kentzea, funtsean bere buruaren alde dabilela eta bere interes partikularra baino ez duela bilatzen esanez. Orduan modu txarrez begiratzen hasiko gatzazkio. Ongia hain sublimea zaigu gizakioi, non jeloskor baikaude hura egiten duenarekiko; eta hain desafiatzailea da, ezen nahiago baitugu existituko ez balitz, erabat bestelako modu batean bizitzera behartuko gintuzke eta. Gu Karitatearen Jainkoaren seme-alabak gara eta Bere begirada izatera deituak.

Tomas santua Aquinokoa, *apaiza eta eliz irakaslea,*
domingotarra
 San Julian Cuencakoa, *gotzaina*

Hebrearrei gutuna 10, 1-10: Hemen nauzu, Jainko, zure nahia betetzeko. **Sal 39:** Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egin dezadan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3, 31-35.

Aldi hartan, Jesusen ama eta anai-arrebak etorri ziren eta, kanpoan gelditurik, deiarazi egin zuten. Jende asko zegoen Jesusen inguruan eserita, eta esan zioten: «Aizu, hor dituzu kanpoan ama eta anai-arrebak, zeure bila». Jesusek erantzun zuen: «Zein dira nire ama eta anai-arrebak?». Eta, inguruan eserita zituenei begiratzuz, esan zuen: «Hauek ditut Nik ama eta anai-arreba. Jainkoaren nahia egiten duena, horixe dut Nik anaia, arreba eta ama».

Erreinuaren agerpenak giza lotura naturalak birplanteatzera garamatza. Erreinu honen logikan, horiek jada ez daude odolez josita, Jainkoaren borondateari egiten zaion ekarpen komunez baizik. Horrela, AITA-AMA Jainko bakar baten inguruan bildutako giza komunitate berria eraikitzen da, non denok garen anai-arrebak. Familia bera hartzen du barne, baina ez da familia horretara mugatzen. Horrela gertatu zen Jesusen amarekin eta anai-arrebekin, zeintzuek lehenengo kristau elkartean aurkitu baitzuten familia zabalagoa eta Erreinoa iragartzeko misio berria. Mariak Jesusen heriotzarekin galdutzat zeukan familia lehen dizipuluekin izan zuen.

Urteko 3. astea

San Gelasio, 49. *aita santua*Santa Radegunda Trebiñokoa, *birjina*

Hebrearrei gutuna 10, 11-18: Beren betera eraman ditu Kristok Jainkoarentzat behin betiko sagaratuak direnak. **Sal 109:** Apaiz zara Zu, Melkisedek bezala, betiko.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 4, 1-20.

Aldi hartan, Jesus berriz ere irakasten hasi zen itsasertzean. Eta hainbeste jende bildu baitzitzaion ondora, urean zegoen txalupa batera igo eta bertan eseri zen. Jende-taldea, berriz, lehorrean zegoen, itsasbazterrean. Gauza asko irakatsi zien parabola bidez hitz eginez. Honela ari zitzaien bere irakastaldian: «Entzun! Behin batean, atera zen ereilea hazia ereitera. Ereitean, zenbait ale bide-bazterrean erori zen, eta txoriek etorri eta jan egin zuten. Beste zenbait harri artean erori zen, lur handirik ez zen lekuan, eta, axaleko lurra izanik, berehala erne zen; baina eguzkiak jo orduko, erre egin zen eta, sustrairik ez zuelako, ihartu. Beste zenbait ale sasi artean erori zen, eta sasiak, haztean, ito egin zuen hazia eta ez zuen fruiturik eman. Gainerakoak lur onean erori ziren, eta erne, hazi eta fruitua eman zuten: bateko hogeita hamar, hirurogei nahiz ehun». Eta ohar hau egin zien Jesusek: «Entzuteko belarririk duenak, entzun beza!». Bakarrik gelditu zirenean, Hamabiekin batera berarekin zebiltzanek parabolaren esanahiaz galdetu zioten Jesusi. Eta honek esan zien: «Zuei eman zaizue Jainkoaren erreinuaren misterioa ezagutzea; kanpokoei, ordea, dena parabola bidez ematen zaie, Liburu Santuak dioena bete dadin: “Begiratzen dute, bai, baina ikusten ez; entzuten dute, baina ulertzen ez; horrela, ez dira Jaunagana bihurtzen eta ez zaie barkatzen”». Eta esan zien gainera: «Parabola hau ez duzuela ulertzen? Nola ulertuko dituzue, orduan, gainerako parabola guztiak? Ereileak hitza ereiten du. Hitza ereitean, batzuk “bide-bazterra” bezalakoak dira: entzun bezain laster, Satanasek etorri eta haiengan erein den hitza kendu egiten die. Beste batzuk “harri artea” bezalakoak dira: hitza entzutean, berehala pozik hartzen dute; baina sustrairik gabeak eta

Urteko 3. astea

San Gelasio, 49. aita santua

Santa Radegunda Trebiñokoa, birjina

iraupen txikikoak izanik, hitza dela-eta estutasun nahiz erasoaldiren bat sortu orduko, huts egiten dute. Beste batzuk, berriz, “sasi artea” bezalakoak dira: entzuten dute hitza, baina mundu honetako ardurak, diru-gosea eta bestelako grinak nagusitzen zaizkie eta hitza ito egiten diete, fruiturik gabe utziz. Eta hona nor diren “lur ona” bezalakoak: hitza entzun, onartu eta fruitua ematen dutenak: bateko hogeita hamar nahiz hirurogei nahiz ehun».

Jesusek parabola baten bidez deskribatzen dizkigu Erreinuaren haziak izan ditzakeen askotariko emaitzak, ereiten den lur sailaren arabera: bide ertzean, harri artean, sasiz inguratuta, edo lur on eta emankorrean. Ereiten duen Jainkoaren iniziatibaz eta lur saila duen gizakiaren lankidetzaren bidez hazten da Erreinua. Haziarekiko konfiantza erabatekoa da, lur onean ugari haziko baita. Gure esku gelditzen da gure giza lurra oxigenatzea, ongarritzea eta prestatzea, uzta jasotzeko. Orduan gertatzen da mirakulua, gure ahalegin hutsez esplika ezin daitekeena; eta Erreinua itzelezko neurrian hazten da, giza elkartasuna eta duintasuna sortzeraino, inoiz imajinatu gabeko eran.

Urteko 3. astea

San Lesmes, *beneditarra eta martiria*Santa Martina, *birjina eta martiria*

Hebrearrei gutuna 10, 19-25: Iraun dezagun sendo itxaropena aitortzen; lagun diezaigun elkarri, maitasunean elkar gogoberotuz. **Sal 23:** Hau da, Jauna, zure aurpegi bila dabiltzanen taldea.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 4, 21-25.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Lakaripean edota ohe azpian ipintzeko pizten ote da kriseilua? Ez ote da argimutlaren gainean ipintzeko pizten? Izan ere, ez dago ezer gordea agertuko ez denik, ezta ezkutuan ere argitaratuko ez denik. Entzuteko belarririk duenak, entzun beza!». Beste hau ere esan zien: «Kontu izan nola entzuten duzuen! Zuek zein neurritan entzun, neurri berean emango dizue Jainkoak, eta gehiago ere bai. Izan ere, duenari eman egingo zaio; ez duenari, ordea, duen apurra ere kendu».

Kristo gure Argia da: Bere egiaz argitzen du gure barnea, jarraitu beharreko bideak erakusten dizkigu eta gure etorkizuna itxaropenez argizatzen du. Kriseilua Kristo da, Zeinek gonbidatzen baikaitu hura argimutlean altxatzera, askoren laguntzarako. Argi honek talka egiten du gaur egun zoriona agintzen duten, baina su hutsalak diren argi erakargarri amaigabeekin. Kristok bakarrik asebetetzen gaitu. Batzuetan ez gara Argi horren indarrak fidatzen, beste argi askoren zarata zakarrak liluratuta. Baina jarraitzen du argi segurua izaten, zeinek askori aukera ematen baitio: errealitatea begi errukiorrez ikusteko, historian eraginkorra den Jainkoaren Erreinuaren presentzia deskubritzeko eta ibili beharreko bideak argitzeko. Kristoren Argia altu behar dugu argimutlean.

Urteko 3. astea

San Bosco, apaiza (*Salesianoen fundatzailea*)

Hebrearrei gutuna 10, 32-39: Borroka gogorra egin behar izan zenuten. Ez galdu, beraz, adorea. **Sal 36**: Jaunagandik dator zintzoen salbamena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 4, 26-34.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Jainkoaren erreinua gizonak lurrian hazia ereitean gertatu ohi denaren antzekoa da; hura lo nahiz iratzarriarik egon, gau eta egun, hazia erne eta garatu egiten da, hark nola ez dakiela. Lurrak berez ematen du fruitua: lehenengo landarea, gero galburua eta, azkenik, alea galburua betean. Eta garia heltzean, igitaiaz ekiten zaio, uztaroa da eta». Beste hau ere esan zien: «Zeren antzeko dela esango genuke Jainkoaren erreinua? Zein parabolaren bidez adieraz genezake? Mostaza-haziaren antzekoa da: lurrian ereitean, hazi guztietan txikiena da; erein eta gero, ordea, gora egiten du eta beste barazki guztiak baino handiagoa egiten da; eta hain handiak dira botatzen dituen adarrak, txoriek habia egiten baitute haren itzalpean». Horrelako parabola askoren bidez iragartzen zien Jesusek mezua, haiek ulertzeko eran. Ez zien ezer irakasten parabola bidez izan ezik; baina bere ikasleei, bakarrean, guztiaren esanahia adierazten zien.

Lehen parabolak Erreinuaren indarra nabarmentzen du, Zeina hazten baita guretzat ezezagunak diren bideetatik. Desagertzen ari dela dirudienean, bat-batean garbi eta emankor agertzen da. Konfiantza izaten laguntzen digu prozesu historiko luzeetan, non batzuetan gaizkia nagusitzen baita. Azken batean, Jainkoak eta Bere Erreinuak bidea irekitzen digu, ustekabea: itxaroteko eta itxaropenerako deia da. Bigarren parabolak arreta txikitasunean jartzen du, zeinetatik sortzen den Erreinua: ziapea bezain ale txiki batetik. Eta txikitan nola adierazten den ere nabarmentzen da, ziape-zuhaitzak ez baitu liluratzen zedroek bezainbeste, baina hark bizia hartzen du eta txoriak babesten ditu. Erreinua txikitasunetik sortzen da eta txikitasunean adierazten da.

Sainkoagana
bide 
eginez
Gogo
Jardunen
 bidez

OTSAILA / ZEZEILA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA

Apaiz eta erlijioso bizitzarako bokazioen alde: Egin dezagun otoitz Kristoren misioa apaiz eta erlijioso bizitzan zerbitzeko deia sentitzen duten gazteen nahi eta zalantzak eliz elkarteak bereak egin ditzan.

Urteko 3. astea

San Pionio, *apaiza eta martiria*

Hebrearrei gutuna 11, 1-2.8-19: Arkitekto eta egile Jainkoa bera duen hiria itxaron zuen Abrahamek. **Salmoa: Lukas 1:** Bedeinkatua Jauna, Israelgo Jainkoa, agertu eta bere herria askatu duena!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 4, 35-41.

Egun hartan, ilunabarrean, Jesusek esan zien ikasleei: «Goazen itsasoaz bestaldera». Jendea utzi eta ontzian eraman zuten Jesus, zegoen bezala. Beste ontzi batzuek ere jarraitu zioten. Horretan, haizebolada zakarra atera zuen, eta olatuek ontzia jotzen zuten, ia urez betetzeraino. Jesus, berriz, txopan lo zegoen, buruko baten gainean. Esnarazi eta esan zioten: «Maisu, ez al dizu axola gu galtzeak?». Hark, esnaturik, haserre egin zion haizeari, eta itsasoari esan: «Hago isilik! Geldi!». Gelditu zen haizea, eta barealdi handia egin zen. Jesusek esan zien: «Zergatik beldur hori? Ez al duzue oraindik sinesmenik?». Beldur-ikaraz gelditu ziren, elkarri esanez: «Nor ote dugu hau, berak esana egiten baitute haizeak eta itsasoak ere?».

Ez da harritzekoa guk, kristau-bizitza ausart eta kontzientearen aurrean aurkako jarrera gogorrek topatzea. Izan litezke aurka jartzen diren pertsonak eta berenaz konbentzitu nahi gaituztenak edota jazartzen gaituzten barne-beldurak. Jesusek laguntzen gaituelakoa bera ere zalantzan jartzera irits gaitezke. Horrelako zerbait sentitzen dute Jesusen ikasleek aintziran zehar ur-ertzeraino egiten duten ibilian. Ekaitza sortzen da eta olatuak txalupa joz lehertzen dira. Beren Maisua uzkurtuta eta lotan ikusten dute txopan berek denboraleari aurre egin eta ontzia gidatzen duten bitartean. Zalantza sortzen zaie: Jauna gurekin al dator ba? Ba, bai, Jaunak beti laguntzen du, haizeari eta itsasoari agiraka egiten die eta bakea eta konfiantza itzultzen die. Orduan, Erreinuaren aldeko ibiliak lasaitasunez jarraitzen du aurrera itsasoa zeharkatuz.

Malakias Profetaren liburutik 3, 1-4.

Hau dio Jainko Jaunak: «Hor bidaltzen dut neure mezularia, nire aurretik bidea prestatzera. Eta berehala etorriko da bere santutegira, zuek bila zabiltzaten nagusia, eta irrikatzen duzuen ituneko mezularia. Horra non datorren, dio Jaun ahalguztidunak. Nork jasan haren etorrera-eguna? Nor zutik egon, hura agertzean? Urtzailearen sua bezala izango da, garbitzailearen lixiba bezala. Urtu eta garbitzeko eseriko da; zilarra eta urrea garbitzen diren bezala, halaxe garbituko ditu Lebiren ondorengoak, Jaunari opariak behar bezala eskain diezazkieten. Orduan, atsegin izango zaio Jaunari Judako eta Jerusalemgo oparia, lehengo garaietan bezala».

Sal 23: Jaun ahalguztiduna da Errege ospetsua.**Hebrearrei egindako gutunetik 2, 14-18.**

Familia bereko seme-alabek odol eta haragi berak dituzten bezala, Jesusek gizakiaren odol-haragiak hartu zituen, bere heriotzaz heriotzaren nagusia den deabrua ezerezteko, eta heriotzaren beldurrez beren bizitza osoan esklabo bizi zirenak askatzeko; Jesus ez baitzen aingeruei laguntzera etorri, Abrahamen jatorrikoei baizik. Horregatik, gauza guztietan bere senideen antzeko izan behar zuen, apaiz nagusi errukitsu eta Jainkoari dagozkion gauzetan fidagarri izateko, herriaren bekatuak barkatzeko gai. Bera ere nekeetan probatua izan zelako, orain gauza da probaldian daudenei laguntzeko.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2, 22-40.

Moisesen legearen arabera, amari garbikuntza egiteko unea iritsi zitzaionean, gurasoek Jerusalemara eramán zuten Jesus, Jaunari aurkezteko. Izan ere, honela dago agindua Jaunaren legean: «Lehen-seme guztiak Jaunari sagaratuko dizkiozue». Jaunaren legean ezarritako

oparia ere eskaini behar zuten: «Bi usapal edota bi usakume». Bazen Jerusalemen Simeon izeneko gizon bat, gizon zintzo eta jainkozalea, Jainkoak Israel noiz kontsolatuko zain zegoena. Espiritu Santua berekin zuen, eta aditzera emana zion ez zela hilko Jaunaren Mesias ikusi arte. Eta Espiritu Santuak eraginda tenplura joan zen. Legeak agintzen zuena betetzeko gurasoek Jesus haurra tenplura eramanean, Simeonek haurra besoetan hartu eta Jainkoa bedeinkatu zuen, esanez: «Orain utz dezakezu, Jauna, zeure morroi hau bakean hiltzen, Zeuk hitzeman bezala. Ikusi dute nire begiok zugandiko salbamena, herri guztien aurrean zuk aurkeztua: nazioak argitzeko argia eta zure herri Israelen ospea». Haurraren aita-amak harriturik zeuden haurraz esaten zirenekin. Eta Simeonek bedeinkatu egin zituen, eta haurraren ama Mariari esan zion: «Begira, israeldar asko erortzeko eta beste asko altxatzeko ipinia dago hau; eztabaida sortzen duen ezaugarri izango da, horrela bihotz askotako asmoak agerian geldi daitezten. Eta zuri ezpata batek alde zuzeneko dizu arima». Bazen profetesa bat ere, Ana zeritzana, Fanuelen alaba, Aserren jatorrikoa. Urteetan oso aurreratua zen; gaztetan ezkondu eta zazpi urtez senarrarekin bizi ondoren, alargun gelditu zen, eta bazituen laurogeita lau urte. Gau eta egun tenpluan egoten zen, barau eta otoitz, Jainkoa zerbitzatzen. Ordu hartan han gertatu zen, eta Jainkoa goستن eta haurraz mintzatzen hasi zitzairen Jerusalem askatasunaren zain zeuden guztiei. Jesusen gurasoak, dena Jaunaren legeak agintzen duen bezala bete ondoren, Galileara itzuli ziren, beren herri Nazaretera. Haurra hazten eta indartzen zihoan, jakinduriak betetzen ari zen eta Jainkoaren grazia berekin zuen.

Gertakizun txundigarriaren kontakizuna da gaurkoa. Gurasoak haurrarekin Tenplura hurbildu direnean, ez zaizkie bidera irten ez apaiz nagusiak, ez gainerako gidari erlijiosoak, ez lege-maisuak. Jesus onartu eta Jainkoaren Bidalitza aitortu dutenak, adin handiko bi lagun izan dira; fede xumea dute eta bihotza irekia; beren bizitza

luzean Jainkoaren salbamenaren zain bizi izan dira. Gizonezkoak Simeon du izena (hau da: «Jaunak entzun du»); emakumeak Ana du izena (hau da: «Erregalua»). Aldi guztietan eta herri guztietan, bere konfiantza Jainkoagan ezarririk bizi izan den fede xumeko hainbat eta hainbat jenderen ordezkari dira biak. Gaur egun ere askapenaren, kontsolamenduaren eta argiaren bila dabiltzanen irudi dira. Gure irudi dira, esperantza galdu gabe argiaren bila gabiltzanon irudi. Gure behar horiek Jesusengan betetzen direla erakusten digute. Larrialdi eta zailtasunetan ere itxaropena ez galtzen erakusten digute.

* * *

Ene jainko, maite zaitut

«Ene Jainko, maite zaitut»,
barne-barnetik ateratzen zait.
Hausnartuz,
astakeria bat diodala deritzot.
Dena dela, zurekiko egokia den maitasunaz
maite zaitudala ziur nago.
Badakit maitasunaren sorburu zarela,
zeu zarela lurra betetzen duen
MAITASUNA.
Horrela erantzuten dizut, «bihotz osoz»
Horrelako maitasunak izana beharko luke.
Zuk nitaz nahi duzuna gertatu beharko luke.
Hori nire ukapena baino sendoagoa da.
Hala ere, zuk, barkatu,
Nire mugatasunean ez baitzaitut erabat maitatu.

(Rafael María León. *Orar 301. Egokitua*)

Urteko 4. astea

San Blas, *gotzaina eta martiria*San Oskar, *gotzaina*Santa Claudina Thévenet, (*fundatzailea Jesus-Maria*)

Hebrearrei gutuna 11, 32-40: Sinesmenari esker erreinuak menderatzen zituzten. Jainkoak zerbait hobea prestatu zuen guretzat. **Sal 30:** Izan bihotz, Jaunagan itxaroten duzuen guztiok!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 5, 1-10.

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak itsasoaz bestaldera joan ziren, gerasatarren lurraldera. Jesus ontzitik jaitsi zeneko, espiritu gaiztoaren menpe zegoen gizon bat atera zitzaion hilobi artetik bidera. Hilobietan bizi zen, eta ezin zuen inork lotuta eduki, ezta katez ere; askotan lotua zuten girgiluz eta katez, baina hark kateak hautsi eta girgiluak puskatu egiten zituen, eta ez zen inor ere hura menderatzeko gauza. Gau eta egun, hilobi artean eta mendiz mendi ibili ohi zen etengabe, marrumaka eta bere burua harriz zauritzen. Urrutitik Jesus ikustean, lasterka joan eta aurrean ahuspeztu zitzaion. Eta oihu handiz esan zion: «Zer duzu nirekin, Jesus, Goi-goiko Jainkoaren Seme horrek? Jainkoarren, ez nazazu oinazetu». Izan ere, Jesusek hau agindu baitzion: «Atera hadi gizon honengandik, espiritu gaizto hori!». Orduan, Jesusek galdetu zion: «Nola duk izena?». Hark erantzun: «Taldea, asko gara eta». Eta arren eta arren eskatzen zion, ez zitzala lurralde hartatik kanpora bidali. Txerri-talde handia zebilen mendi inguru hartan, uxarrean. Espiritu gaiztoek eskatu zioten Jesusi: «Bidal gaitzazu txerrietara, beraietan sar gaitezen». Hark baimena eman zien; orduan, espiritu gaiztoak gizonagandik atera eta txerrietan sartu ziren, eta txerri-taldea ezpondan behera itsasora amildu zen; bi mila inguru txerri ito zen. Txerrizainek ihes egin eta gertatuaren berri zabaldu zuten herrian eta auzoetan; eta jendea, zer gertatu zen ikustera etorri zen. Jesusengana iristean, han ikusi zuten deabruduna, eserita, jantzirik eta bere onean, lehen deabru-taldearen menpe zegoen huraxe bera, eta biziki izutu ziren. Ikusi zutenek, deabrudunari gertatua eta txerriena kontatu zieten. Orduan, beren lur-mugetatik alde egiteko eskatu zioten Jesusi.

Jesus ontzira igotzean, deabrudun izanak arren eskatzen zion berarekin ibiltzen uzteko; baina Jesusek ez zion utzi, baizik hau esan zion: «Zoaz etxera, zeure senitartera, eta jakinarazi Jaunak, zutaz errukiturik, egin dizun guztia». Joan zen, bada, eta Jesusek egin ziona hots egiten hasi zen Dekapolisko lurraldean. Harriturik gelditzen ziren denak.

Agian eritasun psikikoren batek edota baztertua izatearen ondorez jakotako gizon bat ikusten dugu aurrean. Bere sufrimenduak kateatuta, bere burua zauritzen du eta bortizki komunikatzen da. Baztertuta bizi da eta bere auzotar ikaratuak zepo eta kateekin menderatzen saiatzen dira. Jesus esku hutsik hurbiltzen zaio eta harremanak berrezartzen hasten da. Begietara begiratzen dio eta gizaki moduan hitz egiten dio. Hitz sendatzaile horrek askatu egiten du bere barnea eta gizartera itzultzen da. Gizon berri bat agertzen da. Jesusi berarekin joatea eskatzen dio, baina Jesusek eginkizun bat ematen dio: «iragar iezaiezu zeureei Jaunak bere errukiaz egin duena». Sendatu eta osatutakoaren eginkizuna ematen dio.

* * *

«Sortzen ari garen kultura horretan, hutsa, berehalakoa eta proiektu komunik gabea, “aurrez ikus daitekeena da, baliabide batzuk agortzean, beste gerra batzuetarako giro aproposa sor daitekeela, beti ere eskabide eta arrazoi prestuak erabiliz hori mozorrotzeko”» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 17).

Urteko 4. astea

Joana Valois-koa, *erregina*San Joan Brito, *apaiza*, eta Rodolfo Acquaviva, *apaiza*, eta lagunak, *dohatsuak*, *martiriak*, *jesuitak*

Hebrearrei gutuna 12, 1-4: Ekin diezaiozun etsi gabe aurrean dugun lasterketari. **Sal 21:** Goretsiko zaituzte, Jauna, zure bila dabiltzanek.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 5, 21-43.

Aldi hartan, Jesus itsasoaz bestaldera itzuli zenean, jende-talde handia bildu zitzaion. Artean itsaso ondoan zegoela, sinagogako buruzagietako bat etorri zen, Jairo zeritzana; Jesus ikustean, honen oinetan ahuspezturik, arren eta arren eskatzen zion: «Hilzorian dut alabatxoa; zatoz haren gainean eskuak ezartzera, senda dadin eta bizi». Jesus harekin abiatu zen. Jende asko zihoakion ondoren, estutuz. Bazen han emakume bat, hamabi urte hartan odol-jarioa zuena. Hamaika sendagileren eskuetan jasatekoak jasana zen, eta bere ondasun guztiak ere horretan emanak zituen; baina sendatu beharrean, gero eta okerrago zihoan. Jesusen berri entzunda, jende artean atzetik joan eta jantzia ukitu zion, hau baitzioen bere artean: «Jantzia bederen ukitzen badiot, sendatuko naiz». Une berean odol-jarioa gelditu zitzaion, eta gaitza sendatua zuela sumatu zuen bere gorputzean. Berehala antzeman zion Jesusek halako indar bat atera zitzaiola barnetik eta, jende artean itzulirik, galdetu zuen: «Nork ukitu dit jantzia?». Ikasleek erantzun zioten: «Hainbeste jendek estutzen zaituela ikusi, eta nork ukitu zaituen galdetzen al duzu?». Baina Jesus ingurura begira zebilen, nork egin ote zion hori. Orduan, emakumeak, beldurrez dar-dar—ongi baitzekien zer gertatu zitzaion—, oinetara erori eta egia osoa aitortu zion. Baina Jesusek esan zion: «Alaba, zeure sinesmenak sendatu zaitu; zoaz bakean, eta sendatua bekizu gaitza».

Artean hizketan ari zela, sinagogako buruzagiaren etxetik etorri ziren, esanez: «Hil zaizu alaba. Zertako eman neke gehiago Maisuari?». Baina Jesusek, hitz horiek entzunik, sinagogako buruzagiari esan zion: «Ez beldur izan; zuk sinetsi!». Ez zion inori ere berekin joaten utzi, Pedrori, Santiagori eta honen anaia Joani izan ezik. Sinagogako buruzagiaren etxera iristean, ikusi zuen Jesusek hango istilua, jendea

negarrez eta garrasika. Sartu eta esan zien: «Zer dela-eta horrenbeste istilu eta negar? Neskata ez dago hilda, lo dago». Haiiek barre egiten zioten. Baina Jesusek denak kanpora bidali zituen eta, neskataren aita-amak eta berekin zituenak harturik, neska zegoen tokira sartu zen. Neskari eskutik heldu eta esan zion: «Talitha, kum» (hau da: «Neskata, zuri diotsut, jaiki»). Berehala zutitu eta ibiltzen hasi zen, hamabi urte bazituen eta. Jende guztia harri eta zur gelditu zen. Jesusek zorrotz agindu zien inork ere ez zezala jakin. Eta neskataxi jaten emateko esan zien.

Gaixotasunagatik etsipen amorragarriak, sinagogako burua eta atzeko aldetik Jesusen soingainekoa ukitzen duen emakumea kidetzen ditu. Biek agortu dituzte beren baliabide guztiak: batetik bere harreman-sarea eta besteak bere ondasunak, baina erremediorik ez dute aurkitu. Gelditzen zaion bide bakarra Jesusengana jotzea da eta harengana jotzen dute etsita. Hari ontasun-emari handia dario, zauriak orbaindu eta itzaltzera doazela dirudienean, bizia berritzen duena. Ebanjelioko kontakizuna da eta zailtasunean harengana biltzen denaren esperientzia. Agertokiko gertaera, neskatoa sendatuta eta bere gurasoek inguratuta mahaian eserita indarberritzeko jaten ari dela amaitzen da: hori noski, Jainkoak bere seme-alabak ongi zainduta sortzen duen bakearen irudia da.

Urteko 4. astea

Santa Ageda, *birjina eta martiria*

Hebrearrei gutuna 12, 4-7.11-15: Maite duena zentzarazten du Jaunak. **Sal 102:** Jaunaren maitasuna betidanik betidaino begirune diotenentzat.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6, 1-6.

Aldi hartan, Jesus bere herrira joan zen, ikasleak ondoren zituela. Hurrengo larunbatean, sinagogan irakasten hasi zen. Entzule askok, harriturik, hau zioen: «Nondik du honek hori guztia? Zer da eman zaion jakinduria hori? Eta honen eskuz gertatzen diren mirari horiek? Hau ez al da, ba, arotza, Mariaren semea eta Santiago, Jose, Judas eta Simonen anaia? Eta honen arrebak ere ez al dira hemen gure artean bizi?». Eta ezin zuten sinetsi harengan. Jesusek esan zien: «Profetari edonon ematen diote ohore, bere herrian, senitartean eta etxean izan ezik». Eta ezin izan zuen han miraririk egin; hala ere, gaixo bakar batzuk sendatu zituen, eskuak gainean ezarriz. Eta harriturik zegoen haien sinesgogorkeriaz. Gero, inguruko auzoetan ibili zen, irakasten.

«**E**z al da ba hau arotza, Mariaren semea?». Bere auzokideen begietan, Jesus pertsona arrunta zen soil-soilik. Beretarra baino ez zen batengandik ezin zezaketen ezer berezirik itxaron. Kritikaren atzean giza jeloskorkeriaren soinua entzuten da ozen. «Han ez zuen inolako miraririk egiterik izan» : aurreiritziek eragotzita, Maisuaren berritasuna ito egin zuten. Profetak behar ditugu: errealitateaz ikuspegiak argi eta garbi dituzten pertsonak, utopia jariatuko dutenak eta itxaropen-zerumugak eskaintzen dituztenak. Baina halakoak igartzeko, behar-beharrezkoa dugu sormena hutsaltzen digun geure handikeria eta ausardia mesprezatu eta besteren distira amesten duena albora uztea. Horrela soilik onartu ahal izango dugu profetengan datorren Erreinura hurbiltzen duen Espiritua.

San Martin Igokundekoa (Beasain 1567-Japonia 1597),
frantziskotarra, martiria.

Santuak: Paulo Miki, *erlijiosoa*, eta lagunak;

Hebrearrei gutuna 12, 18-19.21-24: Sion mendira hurbildu zarete zuek, Jainko biziaren hirira. **Sal 47:** Oi Jainko, hausnartzen dugu zure maitasuna, zure tenpluaren erdian.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6, 7-13.

Aldi hartan, Jesus Hamabiei dei egin eta binaka bidaltzen hasi zen, espiritu gaiztoak botatzeko ahalmena ematen ziela. Biderako ezer ez hartzeko agindu zien, makila besterik: ez ogirik, ez zakutorik, ezta dirurik ere gerrikoan; oinetan sandaliak eraman zitzatela; baina aldatzeko soinekorik ez. Gero, nola jokatu esan zien: «Etxe batean sartzean, gelditu bertan herri hartatik atera arte. Eta nonbait onartzen ez bazaituztete eta entzun nahi ez badizuete, handik alde egitean, astindu zeuen oinetako hautsa, haien kontrako seinaleztat». Joan ziren, bada, Hamabiak eta Berri Ona hots egin zuten, jendea bihotz-berri zedin. Deabru asko botatzen zuten eta gaixo asko sendatzen, oloioz gantzutuz.

Jesusek misio-lanera bidaltzen ditu bere ikasleak binaka. Elkar lagunduko dute, elkarrekin hartuko dituzte erabakiak eta elkarrekin adieraziko dute beren nortasunaren bidez, Erreinua, elkartearen edo komunitatearen bizitzaren dela. Makila, sandaliak eta tunika soilik eramango dute, beste ezer ez. Beraz, Jainkoagan eta harrera egiten dien jendearengan konfiantza izan beharko dute haien eskuzabaltasunari erregu eginez. Erreinuaren mezuak berez egingo du distira eta ez eramaile direnen lustrearengatik. Azkenik, Jesusek porroterako prestatzen ditu bere ikasleak. Halako kasuetan, dena atzean utzi beharko dute, ez dute eramango ez oroitzapen txarrik eta ez erresuminik eta beren iragarpenaren beharra duen beste auzo batera joan beharko dute. Han, predikatu, deabruak kanporatu, gaixoak edo eriak sendatuko dituzte, hau da, Maisuaren misio edo eginkizun berbera beteko dute.

* eta *Dohatsuak:* Karlos Spinola, Sebastian Kimura, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak, jesuitak*

Urteko 4. astea

San Amant, *gotzaina* (Baionako elizbarrutian)San Rikardo, *erregea***Hebrearrei gutuna 13, 1-8:** Jesu Kristo bat bera da atzo, gaur eta beti.**Sal 26:** Jauna dut argi eta salbamen.**Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6, 14-29.**

Aldi hartan, jakin zuen Herodes erregeak Jesusen berri, honen izena oso ezaguna baitzen. Batzuek zioten: «Joan Bataiatzailea piztu da hilen artetik; horregatik du mirariak egiteko ahalmen hori». Beste batzuek, berriz: «Elias da». Eta beste zenbaitek: «Profeta da, antzinako profetak bezalakoa». Iritzi hauek entzutean, hau zioen Herodesek: «Nik lepoa moztu nion Joan huraxe piztu da». Izan ere, Herodesek Joan harrapatu eta kartzelan lotua zuen, Herodias zela eta. Herodesen anaia Feliperen emaztea zen Herodias, baina Herodesek bere emaztetzat hartua zuen, eta Joaneke esaten zion: «Ez zaizu zilegi zeure anaiaren emaztea edukitzea». Horregatik, gorroto zuen Herodiasen Joan eta hil egin nahi zuen, baina ezin, Herodesek begirune baitzion Joani; gizon zuzen eta santutzat zeukan, eta babestu egiten zuen. Joanen hitzek kezkarik sortzen bazioten ere, gogoz entzuten zion. Etorri zitzaion, ordea, Herodiasi aukerako eguna: Herodesek, bere urtebetetzean, afaria eman zien agintari, gudaiburu eta Galileako handikiei. Sartu zen jantokian Herodiasen alaba eta dantzari egin zuen, eta atsegin izan zitzaion Herodesi eta mahaikideei. Orduan, erregeak esan zion neskaxari: «Eskatu nahi duzuna, eta emango dizut». Eta zin eginez agindu zion: «Eskatu ahala guztia emango dizut, nire erreinuaren erdia bada ere». Atera zen neskaxa eta bere amari galdetu zion: «Zer eskatuko diot?». Amak erantzun: «Joan Bataiatzailearen burua». Itzuli zen arin-arin erregeagana eta eskaria egin zion: «Emadazu oraintxe bertan Joan Bataiatzailearen burua azpilean». Goibel jarri zen erregea, baina mahaikideen aurrean egindako zinagatik, ez zion ukatu nahi izan. Berehala, bere guardiak bat bidali zuen, Joanen burua ekartzeko aginduz. Joan zen hura kartzelara eta lepoa moztu zion, eta azpilean ekarri zuen burua; neskaxari eman zion, eta neskaxak amari. Joanen

Urteko 4. astea

San Amant, gotzaina (*Baionako elizbarrutian*)San Rikardo, *erregea*

ikasleak, hori jakitean, haren gorpua jasotzera etorri eta hilobian ehortzi zuten.

Dantzaldi batek aukera eman du itxaroten zen Joanen erailketa gauzatzeko. Herodiasen malezia, Herodesek bere gonbidatuak ez erdeinatzeko duen erreparoarekin batzen da profeta akabatzeko. Joanez bere hitzarekin ukitua zuen errege-etxeko izen ona eta ez du noski barkamenik lortuko. Gaur egun ere munduan zehar, hainbat kazetari eta giza eskubideren defendatzaile erailtzen dituzte, gizonak nahiz emakumeak, ustelkeria salatzeagatik eta egia agerian uzteagatik. Agintekeriak boterearen berezko ahuleziak ez du onartzen kritikarik. Agerkariak, gizarte hartako erakundeetako arbitrariotasunaren, hostasunaren eta bortizkeriaren eszenarioa deskribatzen du. Herodes aurkituko dugun hurrengo aldiaren bere jauregian topatuko dugu Jesusen heriotzaren bezpera-gauean. Herodesen izena, ezjakintasunari eta basakeriari behin betiko lotuta geldituko da.

* * *

«Boteretsuari komeni zaionean egia den hori ez da jada egia boteretsuak horri onurarik atera ezin dionean» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 25).

Urteko 4. astea

San Jeronimo Emiliani, aitorlea (*umezurtzen eta gaztedi utziaren zaindaria*)Santa Josefina Bakhita, *erlijiosa*

Hebrearrei gutuna 13, 15-17.20-21: Bakearen Jainkoak piztu zuen hilen artetik artzain handia; berak egin zaitzatela gai egite on orotarako. **Sal 22:** Jauna dut artzain, ez naiz ezeren beharrean.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6, 30-34.

Aldi hartan, apostoluek, berriro Jesusengana bildu zirenean, egin eta irakatsi zuten guztiaren berri eman zioten. Jesusek esan zien: «Zatozte zuek bakarrik leku bakarti batera, eta hartu atsedeen pixka bat». Asko baitziren joan-etorrian zebiltzanak, eta ez zuten jateko ere astirik. Orduan, bazter batera joan ziren beraiek bakarrik, txalupaz. Baina jende askok ikusi zituen alde egiten, eta nora zihoazen igarri ere bai, eta herri guztietatik leku hartara jo zuten lasterka, oinez, haiei aurea hartuz. Txalupatik ateratzean, Jesusek jendetza handia ikusi zuen. Errukitu zitzairen, artzain gabeko ardiak bezala baitzebiltzan, eta luzaro irakasten hasi zitzairen.

Bi sentimendu nabarmentzen dira pasarte honetan: alde batetik, jendeak Jesusekin topo egiteko duen egarria, korrika egiten baitute ikasleen txalupa iristerako aurea hartzearren. Beste aldetik, Jesusen errukia, halako jendetza ikustean, artzainik gabeko ardien moduan daudenaz jabetzen baita. Berak aurreikusia zuen ikasleekin soilik atsedeen hartzea, baina bere asmoak baztertu eta kontsolaturik entzuten dion jendearen alboan irauten du. Jesusekin topo egiteko gogoia eta gizakiekiko errukia kristau-bizitza gida dezaketen bi sentimendu handi dira, beraz, biak ere landu egin behar dira eta denbora ere hartu egin behar da horiek praktikan jartzeko.

Isaias Profetaren liburutik 6, 1-2a.3-8.

Ozias erregea hil zen urtean, Jauna ikusi nuen, tronu altu eta garai batean eseria; haren mantu-hegalak tenplua betetzen zuen. Suzkoak bezalako izaki batzuk zituen gainean; seinu hegal zituzten. Eta honela egiten zioten oihu elkarri: «Santu, santu, santua, Jaun ahalguztiduna! Lur osoa betetzen du haren aintzak!». Ahotsaren oihuz tenpluko ateorpoek dardara egin zuten, eta tenplua kez bete zen. Nik esan nuen: «Ai ene, galdua naiz! Ezpain kutsatuak baititut eta ezpain kutsatuak dituen herrian bizi naiz. Errege eta Jaun ahalguztiduna ikusi dut neure begiz!». Une hartan, suzkoak bezalako izaki haietako bat etorri zitzaidan hegan, aldaretik suhatzez harturiko txingarra eskuetan zekarrela, eta txingarraz ahoa ukitu zidan, esanez: «Hara, txingar honek ezpainak ukitu dizkizu; kendua duzu, bada, gaiztakeria, barkatu zaizu bekatua». Orduan, Jaunaren ahotsa entzun nuen esaten: «Nor bidaliko dut? Nor izango dugu mandatari?». Eta nik erantzun: «Prest nauzu, bidali ni neu».

Sal 137: Eresi egingo dizut, Jauna, aingeruen aurrean.

San Paulok 1 Korintoarrei 15, 1-11.

Senideok: Irakatsi nizuen Berri Ona oroitarazten dizuet. Zuek onartu egin zenuten, horretan sendo oinarrituak zaudete eta salbatu ere horrexek salbatzen zaituzte, nik iragarri nizuen bezala eusten badiozue. Bestela, alferrik sinetsiko zenuten. Nik hartu nuena bera eskualdatu nizuen lehen-lehenik, hau da, Kristo gure bekatuengatik hil zela, Liburu Santuek esan bezala; hobiratu egin zutela eta hirugarren egunean piztu egin zela, Liburu Santuek esan bezala; Pedrori agertu zitzaiola, eta ondoren Hamabiei; gero, bostehun eta gehiago senideri agertu zitzaion batera –horietako gehienak bizirik daude oraindik, batzuk hil badira ere–; gero, Santiagori agertu zitzaion, ondoren

Urteko 5. astea

Santa Apolonia, *martiria*San Migel Febres Cordero (Migel anaia), *erlijiosoa*

apostolu guztiei. Beste guztiei agertu ondoren, neuri ere agertu zitzaidan, garaia baino lehen jaiotako haurra bezalakoa naizen honi. Izan ere, apostoluetan txikiena naiz ni, apostolu-izenik ere merezi ez duena, Jainkoaren Eliza pertsegitu bainuen. Baina naizen hau Jainkoak bere graziaz egin nau, eta haren grazia ez da nigan fruiturik gabea izan; gainerako apostolu guztiek baino lan gehiago egin dut, izan ere; ez, noski, nik, baizik eta Jainkoak nirekin bere graziaz. Horrela, bada, bai haiek eta bai nik, horixe da hots egiten dugun mezua, eta horixe zuek sinetsi duzuen.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 5, 1-11.

Aldi hartan, jendea gainera zetorkion Jesusi, Jainkoaren hitza entzuteko; Genesaret aintzira-ertzean zegoen Jesus. Bi txalupa ikusi zituen ur-bazterrean geldituta; arrantzaleak, ontzietatik jaitzita, sareak garbitzen ari ziren. Igo zen txalupa haietako batera, Simonenera, eta lehorretik pixka bat aldentzeko eskatu zion. Gero, eseri eta txalupatik jendeari irakasten jardun zuen. Hitzaldia bukatzean, esan zion Simoni: «Jo itsaso zabalera eta bota sareak arrantzurako». Simonek erantzun zion: «Maisu, gau osoan eginahalak egin eta ez dugu ezer harrapatu; hala ere, Zuk diozunez gero, botako ditut sareak». Hala egin zuten eta, hainbesteko arrain-pila harrapatu zuten, sareak lehertzeko zorian baitzeuden. Beste txalupako lagunei keinu egin zieten laguntzera etortzeko; etorri ziren, eta bi txalupak bete zituzten, ia-ia hondoratzeraino. Gertatua ikusirik, Jesusen oinetan ahuspeztu zen Simon Pedro, esanez: «Alde nigandik, Jauna, bekataria naiz eta». Izan ere, zur eta lur zeuden Simon eta harekin ziren guztiak, eginiko arrantzuagatik, eta gauza bera gertatzen zitzaizen Simonen arrantzu-lagun ziren Zebedeoren seme Santiagori eta Joani ere. Baina Jesusek esan zion Simoni: «Ez beldur izan, hemendik aurrera giza arrantzale izango zara». Haiek txalupak lehorrera atera zituzten eta, dena utzirik, jarraitu egin zioten.

Urteko 5. astea

Santa Apolonia, *martiria*San Migel Febres Cordero (Migela anaia), *erlijiosoa*

Lukasen pasarte honek lehen ikasleei egindako deia aurkezten digu eta batez ere Pedroren pertsona du ardatz. Agertokiak arrantzale haien eguneroko bizitza erakusten du: aintzira, ontziak, sareak..., geure egunerokotasunean jasotzen dugu Jesusen deia. Jesusek bi jarrera eskatzen dizkio Pedrori: aintziran barrurantz arraunean egitea eta sareak botatzea. Aintziran barrurantz arraunean egiteak, segurtasunarena den gunetik irten eta ur ezezagunetan barneratzea dakar, baina horretara gonbidatzen gaitu Jesusek. Bestalde, sareak botatzeak, begi-bistakotzat jotzen dugunarekiko haustura dakar. Pedrok sareak botatzen ditu, ez noski bere eskarmentuak hala eskatzen diolako, Jesusek eskatzen diolako baizik. Urrats hori Jesusez fidatuta ematen du. Harrapatutako arrainak ikustean, Pedrori harridura datorkio eta hori gainerako ikasleengana ere zabaltzen da. Hain ezustekoa izan den arrantza hori ez da beren lanaren fruitua, ezinezkoa da, Jainkoarengandik soilik etor daiteke halakorik. Pedro, Jaunaren aurrean ez da duin sentitzen, bekatari baizik. Azkenean, Jesusen misterioak, beren borondatea bereganatzen die: «eta dena utzirik jarraitu egin zioten». Hori da gaurko irakurgaiaren gonbita: geure baitatik irten, Jesusez fidatu, Jainkoaren aurrean egoteaz harritu, dena utzi eta hari jarraitu.

* * *

«Izan ere, gerra orotan “senidetetasun-proiektua, giza familiaren berezko proiektu hori” suntsiturik dago» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 26).

Urteko 5. astea

Santa Eskolastika, *birjina*

Hasiera liburutik 1, 1-19: Jainkoak esan zuen, eta hala izan zen. Sal 103:
Poztu bedi Jauna bere eginetan!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6, 53-56.

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak, itsasoa igaro ondoren, Genesaretera iritsi ziren eta bertan lehorreratu. Ontzitik atera orduko ezagutu zuen jendeak Jesus, eta lurralde hartan barna joan ziren; eta Jesus nora, haraxe eramaten zizkieten gaixoak ohatiletan. Jesus joaten zen herri, auzo nahiz baserrietan, gaixoak atarietan ipintzen zizkieten. Soineko-ertza bederen ukitzen uzteko eskatzen zioten, eta ukitzen zuten guztiak sendaturik gelditzen ziren.

Jesusen garaian ugari ziren gaixoak eta eriak. Jendeak, sendatzen ez ziren gaixotasunak jasaten zituen eta ez zuten nora joanik. Sarritan, gaur egun munduko beste alderdi batzuetan bezala, zor astunak berenganatzen zituzten alferrikako tratamenduekin. Batzuetan pertsona santuengana jotzen zuten, haiek ukitu eta sendatzeko. Santu denak sendatu egiten du. Horrela jotzen zuten Jesusengana, hark beti lagundu eta maitatu baitzituen. Berak zainduak sentitzen ziren. Gaur egun, sendatzeko medikuengana joaten gara. Baina gaixotzen direnek edo eri direnek, barne-bakea ere behar izaten dute egoerari aurre egiteko eta itxaropenaren zuzia bizirik mantentzeko. Bakea eta itxaropena Jaunak bakarrik ematen ditu, gaur ere gaixoen eta erien erdian jarraitzen baitu, sufrimenduak arintzeko eta baketzeko bere burua ukitzen utziz.

Urteko 5. astea

Andre Maria Lourdeskoa

San Paskual 1.a, 98. aita santua

Hasiera liburutik 1, 20-2, 4a: Egin dezagun gizakia geure antzera, geure irudiko. **Sal 8:** Jauna, gure Jauna, bai miragarria zure izena lurbira osoan!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 7, 1-13.

Aldi hartan, fariseuak eta Jerusalemeko etorritako lege-maisu batzuk hurbildu zitzaizkion Jesusi, eta ikasleetako batzuek esku kutsatuekin –hau da, eskuen garbikuntza egin gabe– jaten zutela ikusi zuten. Izan ere, fariseuek, eta juduek oro har, ez dute jaten lehenbizi eskuak arretaz garbitu gabe, zaharren ohiturari tinko eutsiz. Azokatik etxeratzean ere, ez dute jaten garbikuntza egin gabe; eta badute ohiturazko beste hamaika betebeharrak: hala nola, edalontzi, pitxer eta suilen garbiketa.


Horrela bada, fariseuek eta lege-maisuek galdetu zioten Jesusi: «Zergatik ez dute zure ikasleek zaharren ohiturari dagokionez jokatzeko? Nolatan jaten dute esku kutsatuekin?». Jesusek erantzun zien: «Itxurazaleok halakook! Ederki asko esan zuen zuetaz Isaias profetak, honako hau idatzi zuenean: “Herri honek ezpainez ohoratzen nau, baina urruti du bihotza; alferrik naute gurtzen, hauen irakaspena giza agindu hutsa da”. Zuek Jainkoaren agindua bazterrerara utzi eta giza ohiturari eusten diozue». Eta jarraitu zuen: «Bai, lasai asko zokoratzen duzue Jainkoaren agindua, zeuen usadioak ezartzeko. Esate baterako, Moisesek esan zuen: “Ohoratu aita-amak”, eta “Aita nahiz ama madarikatzen duenak heriotza-zigorra izango du”. Zuek, berriz, beste hau diozue: “Norbaitek aitari edo amari esaten badio: Zuri eman behar nizukeena ‘Korban’ da (hau da, tenplurako opari), halakoak ez du aitari edo amari ezertan lagundu beharrik”. Horrela, Jainkoaren hitza baliogabe uzten duzue zeuen arteko usadioengatik. Eta horrelako asko egiten duzue».

Urteko 5. astea

Andre Maria Lourdeskoa

San Paskual 1.a, 98. *aita santua*

Fariseu eta eskribauen eztabaida berri bat entzun dugu Jesusen aurka, eta oraingo honetan, jan aurretik eskuak garbitzeko obligazioaz. Jesusek, gizakien arauak ezarri nahi izateaz akusatuko ditu. Erlijio-espírituok Jainkoarekin ditugun harremanetan kontuan zer hartu behar dugun jakin nahi dugu, hau da, zer bete behar dugun akasgabeak izateko. Baina Jesus oso urrun dago horretatik, eta berak, beti onartuko gaituen Jainko errukitsuarekin harremanak izatea eskaintzen digu. Harreman arriskutsua hain zuzen ere, izan ere, horrek, geure bihotza, Jainkoaren izakien sufrimenduaren aurrean gupida izango duen eta haren zerbitzurako konpromisoa hartzen duen beste batez trukatzea baitakar. Ez dago araurik, jada neurririk ez duten giza elkartasuna eta giza maitasuna baizik. Prest al gaude horretarako?



Lourdes-ko Andre Maria

Hasiera liburutik 2, 4b-9.15-17: Jainko Jaunak gizona hartu eta Edengo baratzean ipini zuen. **Sal 103**: Bedeinka beza nire arimak Jauna!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 7, 14-23.

Aldi hartan, Jesusek jendeari berriro dei egin eta esan zion: «Entzun denok eta ulertu ongi. Ez da ezer, kanpotik gizakiaren barrura sartuz, hau kutsa dezakeenik; barrutik ateratzen zaionak, horrek kutsatzen du gizakia». Jendea utzi eta etxeratu zenean, hitz horien esanahiaz galdetu zioten ikasleek. Jesusek esan zien: «Beraz, ez duzue zuek ere ulertzen? Ez al duzue ikusten kanpotik sartzen zaion ezerk ez dezakeela gizakia zikindu? Sartu, ez baitzaio bihotzean sartzen, sabelean baizik, eta handik komun-zulora doa». Hitz hauekin, janari guztiak garbiak direla adierazi nahi zuen. Eta gaineratu zuen: «Barrutik ateratzen denak, horrek bai egiten duela gizakia zikin. Izan ere, barrutik, gizakiaren bihotzetik, ateratzen dira asmo txarrak, lizunkeria, lapurretak, hilketak, adulterioak, diru-gosea, gaiztakeriak, maltzurkeria, lasaikeria, bekaizkeria, irainak, harrokeria, burugabekeria. Gaiztakeria hauek guztiak barrutik ateratzen dira, eta hauek dute kutsatzen gizakia».

Munduaren sorkuntza guztia jainkoaren maitasunaren fruitua da, berak guretzat duen samurtasunaren oparia. Hasiera liburuak hala adierazten du honako hau errepikatzen duenean: «eta Jainkoak ona zela ikusi zuen». Gaiztakeria ez dago sartuta sortutako gauzetan, gizakiok egiten ditugun haien erabilera txarretan baizik. Gaiztakeria horrek, Jesusek esaten digun bezala, mila bekatu-itxura hartzen ditu, gure giza bihotza hondatuta, ikaratuta edo gaixorik dagoenean. Beraz, hortik dugu geure barnera begiratu beharra, geure egia azalduz, errudunen bila ibili gabe eta geure itxura aldatu gabe, garena aitortuz eta Jainkoaren errukia eskatuz gure bihotz lokartua eta esker txarrekoa sendatzeko. Gaiztakeriak habia egin dezake geure barnean eta geure izate osoa itsustu, garena eta egiten duguna kutsatuz.

Urteko 5. astea

San Benigno, *martiria*San Kastor, *apaiza eta ermitaua*

Hasiera liburutik 2, 18-25: Emakumea moldatu eta gizonari eraman zion. Eta biak haragi bat izango dira. **Sal 127:** Zorionekoa Jaunari begirune diona.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 7, 24-30.

Aldi hartan, Jesus Tiro aldera joan zen. Etxe batean sartu zen, eta ez zuen inork jakiterik nahi; baina ezin izan zen ezkutuan egon. Alaba espiritu gaiztoak hartua zeukan emakume bat, Jesusen berri jakin zueneko, etorri eta oinetan ahuspeztu zitzaion. Emakumea jentila zen, feniziarra. Eta alabagandik deabrua botatzeko eskatzen zion Jesusi. Jesusek erantzun zion: «Utzi lehenbizi seme-alabak asetzen; ez dago ondo seme-alabei ogia kendu eta txakurrei botatzear». Emakumeak erantzun zion: «Bai, Jauna, halaxe da; baina txakurrek ere jan ohi dituzte seme-alaben ogi-apurak mahaipen». Orduan, Jesusek: «Erantzun horrengatik, zoaz; atera da deabrua zure alabagandik». Itzuli zen etxera, eta ohean etzana aurkitu zuen neskatxa; alde egina zen deabrua.

Jesusen oinetara bere burua makurtutako emakume jentil edo fedegabe horren jarrerak, hunkitu egiten du eta ez du bere harrotasunik zauritzen Maisuaren hitzen kolpeak, alderantziz baizik, itzuli egiten dio: «zakurrek ere, mahaiaren azpian, umeek botatzen dituzten apurak edo hondarrak jaten dituzte». Bere alaba sendatuta geldituko da. Erantzun horrek arrakala bat irekitzen du juduen fedean, haiek Jainkoa, aukeratutako herriarena (berena) soilik zela uste baitzuten. Lehenengo kristau-elkarteak berehala ulertu zuen Kristoren iragarpena gizateria osoari zuzendua dela eta Jainkoaren errukiak gizaki guztiak harrapatzen dituela, gehien sufritzen dutenak batez ere. Jainkoa ez da kristautentzat soilik, denen Aita da eta amaren erraiak ditu.

Urteko 5. astea

San Zirilo, *monjea* eta San Metodio, *gotzaina*.
(Europako Zaindariak)

Apostoluen Eginak liburutik 13, 46-49: Jentilengana joko dugu.
Sal 116: Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10, 1-9.

Aldi hartan, Jaunak beste hirurogeita hamabi ikasle izendatu eta bere aurretik bidali zituen binaka, bera joatekoa zen herri eta leku guztietara. Eta esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi. Egin, beraz, otoitz uzta-jabeari bidal ditzala langileak bere uztara. Zoazte! Arkumeak otso artera bezala bidaltzen zaituztet. Ez eraman poltsarik, ez zakutorik, ez oinetakorik, eta ez gelditu bidean inori agur egiten. Edozein etxetan sartzen zaretela, esazue lehenbizi: “Bakea etxe honetakoei!”. Eta han bakezalerik bada, haren gainean kokatuko da zuen bakea; bestela, berriz, zuen bakerik gabe geldituko dira. Geldi zaitetzte etxe berean; eta jan eta edan daukatenetik, zor baitzaio langileari bere saria. Ez ibili etxez etxe. Herriren batean sartu eta ondo hartzen bazaituztete, jan jartzen dizuetenetik, sendatu bertako gaixoak eta esaiezue: “Hurbil duzue Jainkoaren erreinua”».

Zirilo eta Metodio bi anaia izan ziren, herri eslaviarren ebanjelizatzaileak. Horregatik, gaurko ebanjelioak misio-bidalketa bat azaltzen digu: binaka, jende gutxi labore edo zeregin askorako, pobretasunez eta hauskorak izanez, ardiak otso artera bezala. Mezuaren handitasuna mezulariaren ahuleziatik azaltzen denean itsasten eta sustraitzen da ebanjelioa. Hala gertatu zen Jesusekin, lehenengo ikasleekin eta Zirilo eta Metodio bezalako misiolariekin. Erreinua, proposatu eta limurtuz itsasten da, ez da ezartzen edo inposatzen; Bere egia soilak erakartzen du, ez du arranditasunez itsutzen; bakea ekartzen du, ez bekaizkeria eta lehia. Baztertua edo mespretxatua izateko arriskua du. Komunikazio adeitsuak, zintzotasunak eta ontasunak, Erreinuaren onarpenerako atak irekitzen dituzte.

Urteko 5. astea

Santa Jovita, *martiria*San Klaudio de la Colombière, *apaiza, jesuita*

Hasiera liburutik 3, 9-24: Jainko Jaunak Edengo baratzetik bota egin zuen gizakia, lurra landu zezan. **Sal 89:** Jauna, gure ihesleku zu izan zara gizalditik gizaldira.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 8, 1-10.

Egun haietan, berriro jendetza oso ugaria izanik eta zer janik ez, Jesusek ikasleei dei egin eta esan zien: «Erruki dut jende hau; badaramate hiru egun nirekin eta ez dute ezer ere jateko. Etxera baraurik bidaltzen badituzte, bidean akiturik geldituko dira, urrutitik etorriak ere badira eta». Ikasleek esan zioten: «Baina nondik atera bakardade honetan hauek asetzeko adina ogi?». Hark galdetu zien: «Zenbat ogi duzue?». Eta haiek erantzun: «Zazpi». Orduan, jendeari lurrean esertzeko agindu zion. Gero, zazpi ogiak hartu eta, Jainkoari esker onezko otoitza egin ondoren, zatitu eta bere ikasleei eman zizkien, bana zitzaten. Haiek jendeari banatu zizkieten. Bazituzten arraintxo banaka batzuk ere; Jesusek bedeinkatu zituen eta haiek ere banatzeko agindu zien. Asetzeraino jan zuten denek, eta zazpi otarre bete zituzten hondarrekin. Lau mila inguru ziren. Ondoren, Jesusek agur egin zien, eta bere ikasleekin txalupara igo eta Dalmanuta aldera joan zen.

Jesus, bera laguntzen duen jendetzak duen gosearen kargu egiten da eta errukitu egiten da haietaz. Baina erruki horrek beti ekitera eta jardutera eramaten du. Kasu honetan, ikasleek daukaten apurra elkarrekin banatzera: zazpi ogi eta arrain batzuk. Hori da Jesusek hartzen duena, izan ere, Jainkoaren ekintzak beti giza partaidetza behar du. Gutxiarekin nahikoa da, baina daukagun guztia izan behar du. Azken mugarainoko eskuzabaltasunak, errealitate berriak sortzen ditu pasarte honetan bezalaxe, jendetza handia gustura eta aseta. Agerkaria eukaristiakoa da: Jesusek ogiak hartu, eskerrak eman, eta zatitu egin ditu ikasleek zerbitzatu egiten dituzte. Eukaristian, egunero Jainkoaren ekintza hori ospatzen dugu, zatitzeko eta banatzeko ematen ditugun geure bizitzen ogiz elikatzen baikaitu.

Urteko 6. astea

San Onesimo, *gotzaina eta martiria*
Santa Juliana, *birjina eta martiria*

Jeremias profetaren liburutik 17, 5-8.

Honela mintzo da Jauna: «Madarikatua konfiantza gizakiagan duena, giza indar hutsean oinarritzen dena eta bihotza Jaunagandik urrutiratzen duena. Basamortuko astalarraren antzeko da, ez du sasoi onik izango; basamortu kiskalian landatua dago, bizi ezineko gatz-lurrean. Bedeinkatua konfiantza Jaunagan duena, bere euskarri Jauna duena. Ur-ertzean landatutako zuhaitzaren antzeko da, ur bizigarrietara zabaltzen ditu sustraiak; ez dio sargoriari beldurrik, haren hostoak beti hezerik; lehor-urtean ere hura lasai, ez dio utziko fruitu emateari».

Sal 1: Zorionekoa Jaunagan itxarobidea jartzen duena!

San Paulok 1 Korintoarrei 15, 12.16-20.

Senideok: Kristo hilen artetik piztua dela hots egiten bada, nolatan esaten dute zuetako batzuek hilak ez direla pizten? Izan ere, hilak pizten ez badira, Kristo ere ez da piztu. Eta Kristo piztu ez bada, alferrikakoa da zuen sinesmena: zeuen bekatuetan zaudete oraindik. Eta zer esanik ez, hil diren kristauak ere galduak dira. Kristogan jarria dugun itxaropenak bizitza honetarako bakarrik balio badu, gizaki guztietan errukarrienak gara. Baina ez, piztu da Kristo hilen artetik, heriotzatik piztuko direnetan lehen-fruitu.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6, 17.20-26.

Aldi hartan, Jesus ikasleekin menditik jaitsi eta zelaigune batean gelditu zen. Ikasle-multzo handia zen harekin; baita herriko jendetza ugaria ere, Judea osotik, Jerusalemdik eta Tiroko eta Sidongo itsasaldetik etorria. Jesusek, ikasleei begira, esan zien: «Zorionekoak behartsuok, zuena baita Jainkoaren erreinua. Zorionekoak orain gose zaretenok, aseko baitzaituzte Jainkoak. Zorionekoak orain negar egiten duzuenok, barre egingo baituzue. Zorionekoak zuek, Gizonaren Semea dela-eta

Urteko 6. astea

San Onesimo, *gotzaina eta martiria*Santa Juliana, *birjina eta martiria*

jendeak gorrotatu, beren artetik bota eta madarikatuko zaituztetenean eta izen txarra emango dizuetenean. Alaitu zaitezte egun horretan eta egin pozez jauzi, handia izango baita zuen saria zeruan; gauza bera egin zieten profetei jende horren gurasoek. Baina ai zuek, aberatsok, hartu baituzue zeuen poza! Ai zuek, orain aseak zaudetenok, gose izango baitzarete! Ai zuek, orain barre egiten duzenok, aiene eta negar egingo baituzue! Ai zuek, mundu guztiak zuetaz ondo hitz egingo duenean, gauza bera egin baitzieten sasiprofetei jende horren gurasoek!».

Jesusek zuzenean hitz egiten die aurrean dituen pertsoneri eta bi talde bereizten ditu. Alde batetik, behartsuak, gosea jasaten dutenak, negar egiten dutenak eta jazarriak direnak. Horiei zoriontsu deitzen die eta alaitzeko eskatzen die, Jainkoaren erreinua berena dela-eta. Beste aldetik, aberatsak, aseta daudenak, barre egiten dutenak eta jende guztiak laudatzen dituenak jartzen ditu. Jesusek erruki ditu eta beren saria edo ordaina jada jaso dutela esaten die. Behartsuek ulertzen dute Erreinuaren logika, doakoa dena, errukitsua, denentzako dena eta Jainkoaren maitasuna beregan duena. Aberatsak ez dira gai logika hori antzemateko beren mundua merituen baita, segurtasunena eta irabaziak lortzeko tratuak egitearena. Behartsuek ulertzen dituzte elkartasuna eta doakotasuna, eta horregatik, Jesusen Jainkoak gogoberotu egiten ditu; aberatsek beren jabetzen negoziazio-ahalmenean sinesten dute eta Jesusek iragartzen duen Jainko horrek desengainatu egiten ditu, irudikeria inozoa iruditzen baitzaie. Zoriontasun horiek koloka jartzen gaituzte: non gaude gu? Erreinu horrek bete egiten al gaitu ala iruzurra iruditzen zaigu? Behartsuentzako berri ona dena, guretzat ere hala al da? Ebanjelioak gidatuko gaitu Jesus gure Jaun behartsu eta umilari jarraitzeko.

Andre Mariaren Zerbitzarien *Zazpi Fundatzaile Santuak*
Amaseako (gaur egungo Amasia, Turkian)
San Teodoro, *martiria*

Hasiera liburutik 4, 1-15.25: Kainek Abel bere anaiari eraso zion eta hil egin zuen. **Sal 49:** Eskaini esker onezko oparia Jainkoari.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 8, 11-13.

Aldi hartan, fariseuak etorri eta Jesusekin eztabaidan hasi ziren. Jainkoagandiko seinale bat eskatzen zioten azpikeriaz. Jesusek, barrutik hasperen eginez, esan zien: «Zer dela-eta ari da gizaldi hau seinale eske? Benetan diotsuet: Gizaldi honi ez zaio seinalerik emango». Eta, haiek utzirik, berriro txalupara igo eta bestaldera abiatu zen.

Lilura eta fedea galdutako gure gizartean, zeinu jainkotiarrek errealitateko hutsaltasunarekin nahastu ditugu eta misterioa bere osagairik bastoenetara murriztu dugu. Gure bizitzetan eta historian taupaka ari den Jainkoaren xuxurla isilarazi dugu. Behar-beharrezkoa dugu Jainkoaren presentzia berriro ere geure barnean aurkitzea, txikienen saiakeretan biltzen den agintzaria alegia, guk nola jakin gabe hazten den Erreinuaren hazia, elkartasunaren eta barkamenaren alde norbaitek apustu egiten duenean irekitzen den itxaropena. Gaur egungo kristauok begiak ireki eta belarriak zorroztu beharra dugu gris itxurako geure errealitatean Jainkoaren presentzia argitsu, patxadatsu eta maitekorra antzemateko.

* * *

«Migratzaileak ez dira nahikoa duin bizitza sozialean beste edonork bezala parte hartzeko, eta ahaztu egiten da pertsona orok berezkoa duela duintasuna. Horrenbestez, «beren kabuz salbatu» beharra dute» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 39).

Urteko 6. astea

San Simeon, *Jerusalemgo gotzaina*Fiesoleko Joan dohatsua (Frai Angelico), *apaiza, domingotarra*

Hasiera liburutik 6, 5-8; 7, 1-5.10: Egin dudak gizakia suntsitu egingo dut mundutik. **Sal 28:** Bere herria bedeinkatuko du bakea emanez Jaunak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 8, 14-21.

Aldi hartan, ikasleei ogia hartzea ahaztu zitzaientzen, eta bat bakarra zeukaten ontzian. Jesusek ohar hau egin zien: «Begira gero! Kontuz ibili fariseuen eta Herodesen legamiarekin». Haiek, berriz, eztabaidan ari ziren elkarrekin, ogirik ez zutelako. Konturatu zen Jesus eta esan zien: «Zer ari zarete ogirik ez duzuela eta? Oraindik ez al duzue ulertzeko adimenik? Hain burugogorrek al zarete? Begiak izan, eta ez al duzue ikusten? Belarriak izan, eta entzuten ez? Ez al duzue gogoan, bost mila gizonen artean bost ogiak banatu nituenean, zenbat saski bete zenuten hondarrekin?». «Hamabi», erantzun zioten. «Eta lau mila gizonen artean zazpi ogiak banatu nituenean, zenbat otarre bete zenuten hondarrekin?». Erantzun zioten: «Zazpi». Orduan, Jesusek: «Eta oraindik ere ez duzue ulertzen?».

Jesusek ohartarazi egiten ditu ikasleak fariseuen tentaldian eror ez daitezen. Fariseuek, meritueta oinarritutako Jainkoarekiko harremanean sinesten dute, Jainkoaren gogoa betetzen duten arauak betetzean. Jesusek doako Jainkoa aurkeztzen du, denei ugaritasunez ematen diena eta norberarentzat irabazi beharrik ez duena. Bere maitasuna iraunkorra da eta ez da maneiagarria. Ebanjelioak, merituaren Jainkoaren eta mugagabeko doakotasunaren Jainkoaren artean aukera egin beharrean jartzen gaitu. Aita bigarrena da soilik, baina bere borondatean eta ontasunean konfiantza jarri beharraren izua gainditu beharra dugu eta ez geure ekintza onen bidez haren bihotza irabaztea pentsatu. Heldulekurik gabeko Jainkoarenganako maitasun baldintzagabea alegia.

Urteko 6. astea

San Konrado Confalonieri, *ermitaua*

Hasiera liburutik 8, 6-13.20-22: Ontziko estalkia ireki eta lurrazala lehor ikusi zuen. **Sal 115:** Gorespen-oparia dizut, Jauna, eskainiko.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 8, 22-26.

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak Betsaidara iritsi ziren, eta itsu bat ekarri zioten, uki zezala eskatuz. Jesusek itsuari eskutik heldu eta herritik kanpora atera zuen. Begiak listuz igurtzi ondoren, eskuak gainean ezarri zizkion eta galdetu: «Ikusten al duzu ezer?». Hark begiratu eta esan zuen: «Gizonak-edo nabaritzen ditut: zuhaitzak dirudite, baina ibili dabilta». Orduan, berriro eskuak ezarri zizkion begietan eta argi ikusten hasi zen gizona; sendaturik gelditu zen, guztia garbi-garbi ikusten zuela. Jesusek etxera bidali zuen, herrian sartu ere ez giteko aginduz.

Gizon itsu horrek geuregana itzularazten gaitu, guk ere zailtasunak baititugu Erreinuaren erabateko berritasuna antzemateko. Geure barruti pertsonal itxietan, ditugun aurreiritziekin itsututa gaude, gizarteko arau edo ohiturengatik edo jarrera pertsonal zurrungatik. Jesus guri begiak irekitzera dator, inguratzen gaituen errealitatea argi berriz ikus dezagun eta itxuraz begi-bistakoa dena zalantzan jar dezagun. Erreinuak iraultza pertsonala eta gizartekoa dakar eta horrek bihotz-berritzea eta begirada-berritzea eskatzen ditu. Itsuak Jesusen bi saiakera behar izan zituen ikustea lortzeko. Guk ere denbora beharko dugu Jesusek geure itxituratik atera gaitzan, bere eskuak ezar diezazkigun eta Ebanjelioaren argitasunarekin dena modu berrian ikus dezagun.

Urteko 6. astea

San Leon, *gotzaina*

Fatimako Hiazinta eta Frantzisko, anai-arrebak, *santuak*

Hasiera liburutik 9, 1-13: Neure ortzadarra ipiniko dut hodeietan, eta hura izango da lurrarekin egiten dudana itunaren ezaugarri. **Sal 101:** Zerutik lurrera begiratu du Jaunak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 8, 27-33.

Aldi hartan, Feliperen Zesarea inguruko auzoetara abiatu zen Jesus bere ikasleekin. Bidean galdera hau egin zien ikasleei: «Ni nor naizela dio jendeak?». Haiek erantzun zioten: «Batzuek Joan Bataiatzailea zarela; beste batzuek Elias; besteek profetaren bat». Jesusek berriro galdetu zien: «Eta zuek, nor naizela diozue?». Pedrok erantzun: «Zu Mesias zara». Inori ez esateko agindu zien Jesusek zorrotz. Orduan, irakasten hasi zitzaientzen, Gizonaren Semeak asko sufritu beharra zuela; zahar, apaizburu eta lege-maisuek gaitzetsi egingo zutela eta hil; eta hiru egunen buruan piztuko zela. Argi eta garbi mintzatzen zitzaientzen honetaz. Orduan, Pedro, Jesus aparte harturik, gogor egiten hasi zitzaion. Baina Jesusek, itzuli eta ikasleei begira, gogor eraso zion Pedrori, esanez: «Alde nire ondotik, Satanas! Zure asmoak ez dira Jainkoarenak, gizakiarenak baizik».

Pasarte honek fede-aitormena du bere baitan sinestunarentzat: Jesus da gure Mesias. Baina beste maila batean, baieztapen horrek berak, Pedrok Mesias ahaltsu eta askatzaile politikoaz zituen ilusio faltsuak adierazten ditu. Ezer ez urrunagorik Jesusengan: harentzat Mesias jazarritako bat da. Pedroren itxaropen oker horiek proba gogorra jasango dute Jaunaren nekaldikoan. Pedrok gaur ez ditu ulertzen maisuaren hitzak eta haren heriotza eta piztuera gertatu beharko dira biktima bati jarraitzen diola eta Erreinua kontraesanean eta jazarpenean sortzen dela ulertzeko. Hortik sortzen da Aitak bakarrik sor lezakeen bizi berria. Agian guk ere Pedrorena bezalako bihurtze-edo konbertitze-prozesu bat beharko dugu horretarako.

Urteko 6. astea

San Pedro Damiani, *gotzaina eta eliz irakaslea*

Hasiera liburutik 11, 1-9: Jaitsi eta nahas diezaiegun hizkuntza, elkar uler ez dezaten. **Sal 32:** Bai dohatsu Jaunak bere oinorde hautatu duen herria.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 8, 34-9, 1.

Aldi hartan, Jesusek jendeari eta ikasleei dei egin eta esan zien: «Nire ondoren etorri nahi duenak uko egin biezaio bere buruari, har beza bere gurutzea eta jarrai biezat. Izan ere, bere bizia gorde nahi duenak galdu egingo du; bere bizia nigatik eta Berri Onagatik galtzen duenak, ordea, gorde egingo du. Zertarako du gizakiak mundu guztia irabaztea, bizia galtzekotan? Eta zer eman dezake gizakiak bizia berriro eskuratzeko? Beraz, norbait, gizaldi desleial eta bekatari honen aurrean, nitaz eta nire mezuaz lotsatzen bada, Gizonaren Semea ere lotsatu egingo da hartaz, bere Aitaren aintzaz beterik aingeru santuekin etorriko denean». Eta honela amaitu zuen: «Egia diotsuet: Hemen direnetako batzuk ez dira hilko, Jainkoaren erreinua ahalmenaz etortzen ikusi arte».

Kristau-bizitza aukera batean jokatzeko da: nor bere interesetan zentratu eta lortutakoari eutsi; edo nor bere baitatik irten, oso-osorik besteren alde eman eta Erreinuari eskaini. Eusteak usteldu egiten gaitu barrutik; emateak gizatartu eta askatu egiten gaitu. Aukeratze hori une oro egin beharrean gaude, bizitzaren bidegurutze bakoitzean. Alabaina, Erreinuak, edozein izatek dituen erantsitako kostu gehigarriak ere baditu. Maisuari bizia kostatu zitzaion; gudan ere, bere jarraitzaileengan, izango ditu hainbat kontraesan, «gurutzea», Jesusek dioen moduan. Baina Jaunaren laguntza ere aurkituko dugu, bere Espirituaren indarra, zentzua, argia eta itxaropena alegia. Gure salbamena, Kristoren eta Ebanjelioaren alde bizia galtzean datza.

Urteko 6. astea

San Pedro apostoluaren gotzain-aulkia

Santa Margarita Cortona-koa, *erlijiosa*.

1 Pedro liburutik 5, 1-4: Haiek bezala arduradun eta Kristoren sufrimenduen testigu naizen honek. **Sal 22:** Jauna dut artzain, ez naiz ezeren beharrean.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 16, 13-19.

Aldi hartan, Jesusek, Filiporen Zesareara iritsi zenean, galdera hau egin zien ikasleei: «Gizonaren Semea nor dela dio jendeak?». Haiek erantzun: «Batzuek Joan Bataiatzailea dela; beste batzuek Elias; besteek Jeremias edo profetaren bat». Jesusek, orduan: «Eta zuek, nor naizela diozue?». Simon Pedrok erantzun zuen: «Zu Mesias zara, Jainko biziaren Semea». Orduan, Jesusek esan zion: «Zorionekoa zu, Simon, Jonasen semea, hori ez baitizu hezur-mamizko inork agertu, zeruko nire Aitak baizik. Eta hau diotsut Nik: Zu Pedro zara –harkaitza–; harkaitz horren gainean eraikiko dut Nik neure Eliza, eta Herioaren indarrak ez zaizkio nagusituko. Zerueta ereinuko giltzak emango dizkizut: zuk mundu honetan lotua, zeruan ere lotua geldituko da, eta zuk mundu honetan askatua, zeruan ere askatua».

Jesusek Pedro, geure fedearen oinarritzko harri moduan eskaintzen digu. Pedro lekuko bat da. Berak, Jainkoaren presentzia indartsua ikusi du Jesusengan, Jainko biziaren Seme gisa ezagutzen eta aitortzen du. Pedrok sentiberatasuna izan zuen behartsua eta jazarria zen aparteko gizaki harengan jainkotiartasuna nabaritzeko. Geroago, eraildako baten piztueraren lekuko konbentzitua ere izango da. Alabaina, Pedro ez da gizon perfektua, aurkakoa gehiago. Ahulezia asko ditu, Jesus ukatzeraino ere iristen da. Bere fedea ez da sendoa bera hala delako, Jesusengan bermatzen delako baizik. Horrela bada, sinestunen eredua da: bermatzen gaituen Jesusen jarraitzaile garenona eta geure bizitzetan Jainkoaren presentziaren lekuko garenona.

San Polikarpo, *gotzaina eta martiria*
 Rafaela Ibarra (Bilbo 1843-1900), *dohatsua, fundatzailea*
(Aingeru Zaindaria)

Samuel lehenengo liburutik 26, 2.7-9.12-13.22-23.

Egun haietan, Saul erregea Zif basamortura jaitsi zen, Israelgo hiru mila gizon aukeratu berekin zituela, Daviden bila. David eta Abixai gauez iritsi ziren Saulen gudarostea zegoen lekura. Saul lo aurkitu zuten, kanpalekuaren erdian etzana, lantza lurrean sartua buru ondoan. Abner eta gainerako jendea erregearen inguruan zegoen lo. Abixaik esan zion Davidi: «Jainkoak zeure esku jarri dizu gaur etsaia. Uztazu lantza-kolpe batez lurrari josten; ez dut birritan jo beharrik izango». Davidek, ordea, Abixairi: «Ez hil! Ez litzateke zigorrik gabe geldituko Jaunaren gantzutuari eskua ezarriko liokeena». Orduan, Davidek Saulen buru ondoan zegoen lantza eta ur-ontzia hartu zituen, eta alde egin zuten biek. Ez zituen inork ikusi, ez zen inor ohartu, ezta inor esnatu ere. Lo zeuden denak, Jaunak bidalitako lozorroak harturik. David bestaldera joan eta mendi gailurrean gelditu zen, urrutian, etsaien eta bere artean tarte handia utziz. Davidek oihu egin zuen: «Errege, hona hemen zure lantza. Bidal ezazu mutilen bat bila. Nori berea ordainduko dio Jaunak, bere zuzentasunaren eta leialtasunaren arabera. Jaunak nire esku jarri zaitu gaur, baina nik ez diot eskurik ezarri nahi izan Jaunaren gantzutuari».

Sal 102: Bihozbera eta errukiorra da Jauna.

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik 15, 45-49.

Senideok: «Lehenengo gizakia, Adam, izaki bizidun bilakatu zen»; azkeneko Adam, berriz, Espiritu bizi-emaila. Ez zen espirituzkoa izan lehenengoa, haragizkoa baizik; ondoren dator espirituzkoa. Lehenengo gizakia lurreko hautsetik hartua izan zen; bigarrena, berriz, zerutik dator. Lurtarra, Adam, lurtarren eredu da; zerutarra, Kristo, zerutarren eredu. Eta lurtarraren irudiko garen bezala, zerutarraren irudiko ere izango gara.

Urteko 7. astea

San Polikarpo, *gotzaina eta martiria*Rafaela Ibarra (Bilbo 1843-1900), *dohatsua, fundatzailea*
(*Aingeru Zaindaria*)

Jesu Kristoren Ebanjelioa Lukasen liburutik 6, 27-38.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Hau diotsuet zuei, entzuleoi: Maita itzazue zeuen etsaiak, egin on gorroto dizuetenei, bedeinkatu madarikatzen zaituztetenak, egin otoitz izen ona kentzen dizuetenen alde. Masail batean jotzen zaituenari eskaini bestea ere; soingainekoa kentzen dizunari ez ukatu jantzia ere. Eskatzen dizun edonori eman, eta zeurea kentzen dizunari ez itzularazi. Eta besteek zuei egitea nahi duzue, egin zuek ere besteei. Maite zaituztetenak bakarrik maite badituzue, zer esker on zor zaizue? Bekatariek ere maite dituzte beren maitaleak. Eta on egiten dizuetenei bakarrik egiten badiezue on, zer esker on zor zaizue? Bekatariek ere egiten dute beste horrenbeste. Eta ordaina hartzekotan bakarrik ematen baduzue maileguz, zer esker on zor zaizue? Bekatariek ere aurreratu ohi diote elkarri, dagokiena hartzekotan. Ez! Zuek maitatu etsaiak, egin on eta eman maileguz, ordainari begiratu gabe; handia izango da zuen saria, eta Goi-goikoaren seme-alaba izango zarete, ona baita hura esker txarrekoentzat eta gaiztoentzat. Izan zaitezte errukiorrak, zuen Aita errukiorra den bezala. Ez gaitzetsi inor, eta Jainkoak ere ez zaituzte gaitzetsiko; ez kondenatu, eta ez zaituzte kondenatuko; barkatu, eta barkatuko dizue; eman, eta emango dizue: neurri betea, sakatua, estutua eta leporainokoa emango dizue altzora. Izan ere, zuek zein neurriz neurtu, halakoaz neurtuko zaituzte Jainkoak».

Ez dago neurririk Jainkoak deituak gaituen maitasun-bizitzaren tamaina neurtzeko. Hori da gaur Jesusek eskatzen diguna, dena maitasun izatea, dena eskuzabaltasun. Mesfidantza izan ohi dugu zerbait doan eskaintzen digunarekiko eta hala esan ohi dugu: inork ez du zerbait ezeren truke ematen. Baina bere jarraitzaileoi hain zuzen ere, horixe da Jesusek eskatzen diguna: dena ontasun den Aitaren errukiaren pare portatzea. Maitasunaren neurririk ezak, Aitaren errukian du bere oinarria. Pasarte horrek atsekabe bortitza sorraraz diezaguke geure barnean: etsaiak maitatu?, gorroto gaituztenei

San Polikarpo, *gotzaina eta martiria*
 Rafaela Ibarra (Bilbo 1843-1900), *dohatsua, fundatzailea*
(Aingeru Zaindaria)

on egin?, iraintzen gaituztenen alde otoitz egin? Horrek naturaren aurkakoa dirudi. Baina hil ala bizikoa den jarrera hori ez da borondate hutsaren fruitua, Jainkoari eskatu behar diogu bere maitasuna dasta arazi diezagula lurreko izaki bakoitzarekiko, pertsona bakoitzarekiko. Horrela bakarrik partekatuko dugu berak neurririk gabe eskaintzen digun maitasun hori eta bere maitasunaren ibilgu edo bide bihurtuko gara. Baina, ba al du zentzurik horrelako portaera batek? Ez al du jada oztoporik aurkitzen ez duen gaiztakeria sustatzen? Funtsean, maitasunak soilik ebakitzen du indarkeriaren espirala eta agian baita gerarazi ere. Gorrotoari, eramankortasunarekin soilik egiten zaio aurre. Hori da Jesusen ondarea.

* * *

Jesusen lagunak

Esna zaitez, nire arima.
 Ea Ebanjelioak esnatzen zaituen!
 Ea belarriak irekitzen dizkizun
 eta entzuten dituzun gutxien espero duzunean
 iristen den Lagunaren pauso hotsak.
 Presta zaitez baita zure Lagun horren
 lagun arraroen pauso hots zalantzatsuak entzuteko ere.
 Hezurretan daudenak,
 gaizki jantziak bezain gutxi jandakoak,
 bide guztietan jarraitzen diotenak.
 Komunikabideetan agertzen ez diren pertsona horiek,
 estatistiketako datu bihurtzen ditugunak:
 gose direnen zenbaki hotz,
 hil zorian dauden eta gosez hil diren zenbaki huts.

(Patxi Loidi)

San Luzio, *martiria*
Santa Primitiva, *martiria*

Siraken liburutik 1, 1-10: Gauza guztien aurretik sortua da jakinduria.

Sal 92: Errege da Jauna, ospez jantzia.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 9, 14-29.

Aldi hartan, Jesus eta berekin zituen lagunak menditik jaitsi eta gainerako ikasleengana iritsi zirenean, jendetza handia zuten haien inguruan, eta lege-maisu batzuk haiekin eztabaidan. Jendea harriturik gelditu zen Jesus ikustean eta lasterka joan zitzaizkion agurtzera. Jesusek galdetu zien ikasleei: «Zer zenuten horiekin eztabaidan?». Jendarteko batek erantzun zion: «Maisu, hemen ekarri dizut neure semea: hitz egiten uzten ez dion espiritua du. Non edo han espiritua jabetzen zaionean, lurrera botatzen du, eta mutikoa, lerdea dariola eta hortz-karraska, gogor-gogor egina gelditzen da. Zure ikasleei eskatu diet espiritua botatzeko, baina ezin izan dute». Jesusek esan zien: «Hau gizaldi sinesgogorra! Noiz arte egon behar ote dut zuekin? Noiz arte jasan behar ote zaituztet? Ekarri mutikoa». Ekarri zioten, eta espirituak, Jesus ikustearekin batera, gogor astindu zuen mutikoa, eta lurrean iraulka eta lerdea zeriola utzi zuen. Jesusek galdetu zion aitari: «Noiztik dago horrela?». Hark erantzun: «Ume-umetandik. Askotan bota izan du sura, baita urera ere, hilarazteko. Ezer egin ahal baduzu, erruki zaitez gutaz eta laguniezaguzu». Jesusek esan zion: «Ahal dudan diozu? Dena ahal du sinesten duenak». Orduan, mutikoaren aitak deiadarka: «Sinetsi nahi dut! Lagundu sinesgabe honi!». Jesusek, jendea pilatzen ari zela ikusirik, gogor eraso zion espiritu gaiztoari: «Espiritu gorra eta mutua, Nik agintzen diat: atera hadi honengandik eta ez sartu berriro». Espiritua, garrasika eta berebiziko astindua emanez, atera egin zen. Mutikoa hilik bezala gelditu zen; hila zegoela zioen askok; baina Jesusek eskutik hartu eta altxarazi zuen, eta mutikoa zutik jarri zen. Jesus etxeratu zenean, ikasleek galdetu zioten bakarrean: «Eta guk, zergatik ezin izan dugu espiritua bota?». Jesusek erantzun zien: «Gisa honetako espirituak botatzeko bide bakarra otoitza da».

San Luzio, *martiria*
Santa Primitiva, *martiria*

Beharbada ikasleekin identifikatuta sentituko gara, hauskorren direnengandik gaiztakeria uxatzeko gaitasunik gabe, geure otoitzetan ziurtasunik gabe eta geure itzaropenean ere noraezean gabiltzala ikustean. Ume gaixo horren aitaren eskaerak baditu hitzak gure eskaeretakako: «Sinesten dut, baina lagun ezazu nire fede-gabezia». Fede gehiago behar dugu geure jarraipenean aurrera egiteko, geure gogoberotasuna ez galtzeko, geure kristau-elkartea ahultzen duen sekularitasuna aurrera egiten ikustean, behartsuak sufritzen ikustean, akituta ez gelditzeko, geure etorkizuna eta gizartearena konfiantzaz ikusteko. Otoitza gu laguntzera dator zalantzak azaleratzen utziz eta bitartean Jaunaren esku onetan jartzen gara, hartaz fidatuta soil-soilik.

* * *

Gurutzearen eta Piztueraren Otoitza

Jesus,
Gure anaia, laguna eta Jauna.
Zure Gurutzearen aurrean
Zure neurrigabeko maitasuna eskertu besterik ezin dugu.
Zuk erakutsi diguzu errukiaren, maitasunaren eta leialtasunaren bidea
dela Bizira garamatzana.
Jauna, zure Gurutzean Piztueraren hazia ikus dezakegu.
Gurutzea ez da azkena,
gaixotasuna eta heriotza ez dira azkena.
Gurutzea da egiazko bizi iturri bakarra.
Horregatik, Jesus, gure anaia eta Jauna,
Zure gurutzeko heriotzak indartu eta berritu egiten gaitu.
Zure minak eta gure ezinak bat egiten dute.
Eskerrak, Jesus;
egon zaitez beti gure alboan
eta ingura gaitzazu zure maitasunez.

Urteko 7. astea

San Bitorino, *martiria*Santa Valverga, *abadesa*

Siraken liburutik 2, 1-13: Prestatu zeure burua probarako. **Sal 36:** Utzi Jaunaren esku zeure zoria, berak ekinean jardungo baitu.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 9, 30-37.

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak menditik alde egin eta Galilean zehar zebiltzan. Jesusek ez zuen hori inork jakiterik nahi, ikasleei irakastera emana baitzegoen. Honela ari zitzairen: «Gizonaren Semea gizakien esku utziko dute; hilko dute, baina hil eta hiru egunera piztuko da». Haiek, ordea, ez zuten ulertzen zer ari zitzairen; galdetzeak, berriz, beldurra ematen zien. Iritsi ziren Kafarnaumera eta, etxean zeudela, Jesusek galdetu zien: «Zer eztabaida izan duzue bidean?». Baina haiek hitzik ez; beren artean handiena nor ote zen eztabaidatu baitzuten bidean. Eseri zen Jesus eta, Hamabiei dei eginik, esan zien: «Lehenengo izan nahi duena izan bedi denetan azkena eta denen zerbitzaria». Gero, haurtxo bat hartu, haien erdian jarri eta, haurra besarkatuz, esan zien: «Honelako haur bat nire izenean onartzen duenak Ni onartzen nau, eta Ni onartzen nauenak, ez nau Ni onartzen, bidali nauen hura baizik».

Ikasleak isilik daude, lotsa sentitzen baitute. Handitasun-asmoak dituzte eta horiekin Jesus ez dator bat. Ikasleek beren desiren erdi-erdian nork bere izen ona edo izen handia jartzen dute; Jesusek ume txiki ziztrin bat jartzen die aurrean. Beraientzat, besteek eskaintzen dieten arreta eta errespetua dira garrantzitsuenak; Jesusentzat besteak zerbitzatzea da garrantzitsua. Berarentzat, izatea ez da besteen gainean jartzea; izatea, baztertuekiko elkartasunez eta nork bere konpromisoarekin burua jaistea da. Jerusalemerako bidea aldapa gora da, Jesusek ulertezintasuna eta jazarpena iragartzen dielako eta jada jendetzak inguratuta agertzen ez delako. Horrelako gizon bati jarraituta, zer izango da haietaz? Eta, zer izango da gutaz bere bizi-proposamena benetan hartzen badugu?

Urteko 7. astea

San Alexandro, *gotzaina*San Porfirio, *gotzaina*

Siraken liburutik 4, 12-22 [gr. 11-19]: Jakinduria maite dutenak ditu Jaunak maite. **Sal 118:** Gainezka dute bakea, Jauna, zure nahia maite dutenek.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 9, 38-40.

Aldi hartan, Joaneke esan zion Jesusi: «Maisu, gizon bat ikusi dugu zure izenean deabruak botatzen, eta galarazi egin nahi izan diogu, ez baita gure taldekoa». Baina Jesusek erantzun: «Ez galarazi, ez baita inor, nire izenean mirari bat egin eta gero Nitaz gaizki esaka jardungo duenik. Zeren gure aurka ez dagoena gure alde baitago».

Gizakion artean oso handia da sarrera-baldintza zurrinak dituzten elkarte baztertzailak sortzeko joera. Baina horrela bazterkeria sustatzen da, elkarlanerako aukerak zaildu egiten dira eta ugaritasunetik eta aniztasunetik sortzen den sorkuntza-indarra itzali egiten da. Jesusek ez daki ezer alderdikeriez eta berarentzat «geure aurka ez dagoena, geure alde dago»; pertsonen hazkuntzaren alde lan egiten duena, gizatasuna edo askatasuna zabaltzen duena, beste batzuek sendatzen dituen, maitasunez ezer eskatu gabe ematen duena, adiskidetzen dena edo barkatzen duena..., Erreinuaren logikaren barruan dago. Kristauok ez daukagu Erreinuaren eskusibotasuna. Jainkoak gizaki guztiei dei egiten die, bakoitzari bere egoera zehatzean, Erreinurako bidea irekitzeko eta bertako partaide izateko.

* * *

«Hala, beldurraren ondorioz, ez dugu bestearekin harremanak izaterik nahiko, eta ez gara horretarako gai ere izango» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 41).

Urteko 7. astea

Ama Doloretakoaren Gabriel Santua, *pasiotarra*

Siraken liburutik 5, 1-10 [gr.1-8]: Itzuli Jaunagana luzatu gabe. Sal 1:
Zorionekoa Jaunagan itxarobidea jartzen duena!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 9, 41-50.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Mesiasen jarraitzaile zaretelako, baso bat ur bada ere ematen dizuen, benetan diotsuet, ez da saririk gabe geldituko. Nigan sinesten duten txiki hauetakoren baten sinesmena galbidean jartzen duenak hobe luke errotarri bat lepotik lotu eta itsasora amilduko balute. Zeure eskuak galbidean jartzen bazaitu, moztu; hobe duzu eskumotz betiko bizian sartu, bi eskuak dituzula infernura, itzalezineko sura, joan baino. Zeure oinak galbidean jartzen bazaitu, moztu; hobe duzu hanka-motz betiko bizian sartu, bi oinak dituzula infernura jaurtia izan baino. Zeure begiak galbidean jartzen bazaitu, atera; hobe duzu begibakar Jainkoaren erreinuan sartu, bi begiak dituzula infernura jaurtia izan baino; han ez da hiltzen barruko harra, ezta itzaltzen ere sua. Izan ere, suaz gazitu behar dira denak. Gauza ona da gatza; baina gatza gezatzen bada, nola gazitu berriro? Eduki gatza zeuen baitan eta zaudete bakean elkarrekin».

Jesusek «sinesten duten ume txikiez» hitz egiten du. Sinestea, inozentzia-ekintza da, konfiantzak lagunduta hustasunera egindako jauzia. Gaur egun, sinestea, ausardia-ekintza da, izan ere, denak, horren arrazoizkotasuna gezurtatu egiten duela baitirudi. Jesusek ohartarazi egiten gaitu ume txikien eta gu guztion fedea zangotrabatzeaz: Erreinitutik urrun dauden ekintzen bidez (eskuekin), kontsumokeriaren bide landuak jarraitzeagatik eta gizarteak eskaintzen digun harrokeria hutsalagatik (oinekin) edota garrantzirik ez duten ortzi-mugak geure egiteagatik (begiekin). Fedea, oso kultura-aurkakoa da; horregatik dago arriskuan. Alabaina, eskuzabaltasun eraginkorrek eraikitzen jarraitzen du, erabakiak hartzeko orientazioa eskaintzen eta bizitza berri eta zentzuz betea egiteko ikuspegiak eskaintzen.

Urteko 7. astea

Rufino, Justo eta Makario santuak, *martiriak*

Siraken liburutik 6, 5-17: Balio neurtezina du adiskideak. Sal 118: Gida nazazu, Jauna, zeure aginduen bidetik.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 10, 1-12.

Aldi hartan, Jesus Judeako mugetan sartu eta Jordan ibaiatz bestaldera igaro zen. Berriro jendetza handia bildu zitzaion eta bera, ohi zuen bezala, irakasten hasi zitzaion. Hurbildu zitzaizkion fariseu batzuk eta, Jesus zertan harrapatuko, galdetu zioten: «Zilegi al zaio gizonari emaztea uztea?». Hark erantzun zien: «Zer agindu zizuen horretaz Moisesek?». Eta haiek: «Moisesek dibortzio-agiria idatzi eta emaztea uzteko baimena eman zigun». Jesusek esan zien: «Zeuen burugogorkeriagatik eman zizuen Moisesek lege hori. Baina, munduaren hasieratik, Jainkoak gizaseme eta emakume egin zituen; horregatik, gizasemeak bere aita-amak utziko ditu eta emaztearekin elkartuko da, eta biak haragi bat izango dira. Beraz, aurrerantzean ez dira bi, haragi bat baizik. Horrela, bada, Jainkoak bat egin duena ez beza gizakiak banandu». Gero, etxean, arazo berari buruz galdetu zioten ikasleek. Jesusek esan zien: «Bere emaztea utzi eta beste batekin ezkontzen denak adulterioa egiten du lehenengoaren kontra; eta bere senarra utzi eta beste batekin ezkontzen den emazteak adulterioa egiten du era berean».

Jesusek ezkonduen arteko maitasun ideala aurkezten digu, behin-betiko maitasuna, gozotasunez betea, non gizon bat eta emakume bat elkartzen diren, aldi berean bi izateko eta bat izateko eta giza hazkuntzarako toki den familian maitasun emankorra gauzatzeko. Batasun hori, Jainkoak gizakia rentzat eta Elizarentzat duen maitasunaren irudi da: leiala, maitasun gozoa eta proba orotarako sendotasun handikoa. Horregatik, ezkontza gure sakramentu etako bat da. Jesusek halaber, gizonaren eta emakumearen berezko berdintasuna nabarmentzen du, are gehiago ezkontzaren barruan. Berdinak sortuak eta maitasunez berdin gisa elkarrekin bizitzera deituak. Jesusek ideala proposatzen digu gu dastatu eta bizitzen saia gaitezen.



MARTXOA / EPAILA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA

Krisian dauden familien alde: Egin dezagun otoitz zatiketak dituzten familiek barkamenaz beren zaurien sendaketa aurki dezaten, beraien arteko ezberdintasunean bakoitzaren aberastasuna aurkitzera iritsiz.

Urteko 7. astea

San Rosendo, *gotzaina*San Felix III.a, 48. *aita santua*San Leon (Baiona), *gotzaina eta martiria*

Siraken liburutik 17, 1-13 [gr.1-15]: Bere irudiko egin zuen Jainkoak gizakia. **Sal 102:** Jaunaren maitasuna betidanik betidaino begirune diotenentzat.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 10, 13-16.

Aldi hartan, haurrak eraman zizkioten Jesusi, uki zitzen; ikasleek, ordea, haserre egiten zieten. Hori ikustean, haserretu zen Jesus eta esan zien: «Utzi hurrei Nigana etortzen, ez galarazi, horrelakoena da eta Jainkoaren erreinua. Benetan diotsuet: Jainkoaren erreinua haur batek bezala hartzen ez duena ez da inola ere bertan sartuko». Eta, besarkatuz, bedeinkatu egiten zituen haurrak, eskuak gainean ezarriz.

Jesusek samurkiro hartzen zituen haurrak. Jainkoaren Erreinuan sartzeko funtsezko jarrerak sumatzen zituen haiengan. Umeek guztia posible dela sinesten duenaren xalotasuna izaten dute, pertonekin eta gauzeekin pozteko gai izaten dira, eta egitasmoeekin eta ametsekin pizteko gauza. Eskuzabalak izaten dira ematen direnean, ez dute ezer gordetzen, doan eta osotoro eskaintzen dira. Ahultasunetik erruz irabaz daitekeela erakusten dute, beldurtzen eta bortxatzen duen indarrari erreparatu gabe. Haurren otoitza fedez betea egon ohi da. Jesusengana eraman beharra daukagu umeak gaur egun ere eta txikienak haren ondoan nola egoten diren ikasi. Orduan Erreinutik askoz gertuago izango gara.

Siraken liburutik 27, 5-8 [gr.4-7].

Galbaheari eragindakoan, hondarrak gelditzen dira, eta azterketa egitean, gizakiaren akatsak. Labeak probatzen ditu eltzegilearen ontziak, eta giza arrazoiketak gizakiaren balioa. Fruituak erakusten du nola zaindu duten arbola, eta hitzak gizakiaren pentsamoldea. Ez goratu inor hitz egiten entzun baino lehen, horretan probatzen baitira gizakiak.

Sal 1: Bai ederra, Jauna, Zu gorestea!

San Paulok 1 Korintoarrei 15, 54-58.

Senideok: Gure izate ustelkorra bizi ustelezinez jantziko denean, eta izate hilkorra hilezkortasunez, orduan beteko da Liburu Santuak dioena: «Behin betiko garaitua gertatu da heriotza. Non duk, herio, heure garaipena? Non heure eztena?». Heriotza dakarren eztena bekatua da, eta bekatuak legetik hartzen du bere indarra. Eskerrak Jainkoari, garaipena eman digulako Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez! Beraz, ene senide maiteok, iraun sendo, asmoz aldatu gabe, Jaunaren lanean gero eta gogotsuago, jakinik Jaunak ez duela zuen nekea saririk gabe utziko.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6, 39-45.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Izan ote daiteke itsua itsuaren gidari? Ez ote dira biak zulora eroriko? Ikaslea ez da irakaslea baino gehiago, baina ondo eskolaturiko ikaslea bere irakaslea adinakoa izango da. Nolatan ikusten duzu senidearen begiko lasto-izpia eta zeure begiko habeaz ohartzen ez? Nolatan esan diezaiokezu senideari: “Adiskide, uztazu begian duzun lasto-izpia ateratzen”, zuk zeurean duzun habea ikusten ez duzula? Itxurazalea halakoa! Atera lehenik zeure begitik habea, eta orduan ikusiko duzu

Urteko 8. astea

San Pedro Zuñigakoa, *gotzaina*Santa Atanasia, *aitorlea*

garbi, senidearen begitik lasto-izpia ateratzeko. Ez da zuhaitz onik fruitu txarra ematen duenik, ezta zuhaitz txarrik ere fruitu ona ematen duenik. Bere fruituetatik antzematen zaio zuhaitzari; elorritik ez da pikurik biltzen, ezta sasitik mahatsik hartzen ere. Ona denak ona ateratzen du bere barneko ondasun-altxorretik, eta gaiztoak gaitza bere gaiztakeri altxorretik; ahoak esan, bihotzari gainezka dariona esaten baitu».

Jesusen parabola eta irudi hauek kontuz ibiltzeko esaten digute besteak arin epaitzearekin eta autokritika egiteko eskatzen. Batzuetan gauzak inork baino argiago ikusten ditugulakoan jokutzen dugu eta, besteak gidatu nahirik, zuloan erortzen gara haiekin batera. Edo, zerbait ikasi eta asko dakigulakoan ibili ohi gara, nahiz eta apendizak bezain heldugabeak besterik ez izan. Ezin ditugu besteak galbahe itxi-itxi batekin epaitu eta, aldi berean, geure okerrezt jabetu ez, batzuetan begiko habea bezain eskandalagarriak izan arren. Autokritika gakoa da bizitzan, apal bizitzeko eta gainerakoak estimatzeko. Ez digu utziko nartzisismoan erortzen eta gizon-emakumeen bizitzagatik eskerrak emanaraziko digu. Aldapagora egiten zaio autokritika hori perfekzioa jator bilatzen duen pertsona erlijiosu nahikotxori: nola aitortu hainbeste denbora eta ahalegin eginda, oraindik hasiberriak garela? Jendaurreko ekintzetan ezagun du gizakiak zer duen barruan. Pertsona onak, bizitzako gorabeheretan, ontasuna erakusten du. Beharrezkoa da gure onena gutaz jabetzea, gure bizitzan argi eta garbi ager dadin.

Siraken liburutik 17, 20-28 [gr.24-29]: Etorri berriz Goi-goikoagana eta saihestu bidegabekeriatik. **Sal 32**: Poztu eta alaitu Jaunagan, zintzook.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik: 10, 17-27.

Aldi hartan, Jesus abiatzera zihoala, gizon bat etorri zitzaion lasterka eta, aurrean belaunikaturik, galdetu zion: «Maisu ona, zer egin behar dut betiko bizia ondareztat jasotzeko?». Jesusek erantzun zion: «Zergatik esaten didazu ona? Inor ez da ona, Jainkoa besterik. Badakizkizu aginduak: ez hil inor, ez egin adulteriorik, ez ostu, ez egin gezurrezko testigantzarik, ez egin kalterik, hartu aintzat aita-amak». Hark, orduan: «Maisu, gazte-gaztetandik bete izan dut hori guztia». Jesus maitasunez begira jarri zitzaion, eta esan: «Gauza bat besterik ez zaizu falta: zoaz, saldu daukazun guztia eta eman behartsuei, eta altxorra izango duzu zeruan; gero, zatoz eta jarraitu Niri». Hitz hauek entzutean, ilun jarri zen gizona eta nahigabez joan, ondasun handien jabe baitzen. Orduan, Jesusek, ingurura begiratu, esan zien ikasleei: «Bai nekez sartuko direla aberatsak Jainkoaren erreinuan!». Harriturik utzi zituen ikasleak esaldi honek. Baina Jesusek berriro ere: «Ene semeok, zaila da benetan Jainkoaren erreinuan sartzea! Jostorrazaren begitik gamelua igarotzea errazago, aberatsa Jainkoaren erreinuan sartzea baino». Ikasleek, gero eta harrituago, elkarri ziotsaten: «Nor salba daiteke, orduan?». Jesusek begira-begira jarri eta esan zien: «Gizakiarentzat ezinezko da, baina Jainkoarentzat ez, dena baitezake Jainkoak».

Ebanjelioak dio Jesusek maite izan zuela gizon hura eta zeukan onena eskaini ziola: bere ondoan bizitzea, gauza askorik gabe. Jesusi iruditu zitzaion baietz erantzungo zuela, izan ere bizitza on baten benetako irrika adierazten zuen. Ezin, ordea. Ezin izan zuen, bere segurtasunari eta aberastasunen ongizateari lotuta bizi baitzen. Nahigabetuta alde egin zuen. Maisuari jarraitu nahi bai, baina ez zen

Urteko 8. astea

San Emeterio eta San Zeledonio, *martiriak*

aske. Jesusek oharra egiten digu egoteko erne aberastasunek Erreinuko bizitzari jartzen dizkioten eragozpenekin. Oztopoa jartzen diote gure borondateari eta kateatu egiten dute gure nahia. Ondasunei helduta, eskuzabaltasuna galtzen dugu eta Jainkoa alboratzen, alferrik baitugu orduan. Erreinuan esku hartzeak askatasuna eta eskuzabaltasuna irekitzen ditu gudan eta garen eta dugun guztia ematera bultzatzen gaitu.

* * *

Bide ertzean

Hona hemen ni, Jauna,
itsua bezala bide-ertzean
—nekatua, izerditan, hautsak jana—;
eskale, beharturik eta ogibidez.
Baina sentitzean zure urratsak,
entzutean zure ahots besterik ez bezalakoa,
goitik beheraino naiz dardara,
iturburu bat jalgiko bailitzan
ene barnean.
Ai, zer galdera zurea!
Zer du itsuak gura ikusi baizik?
Ikus dezadala, Jauna!
Ikus ditzadala, Jauna, zure bidezidorrak.
Ikus ditzadala, Jauna, bizitzako bideak.
Ikus ditzadala, nagusiki, Jauna,
zure aurpegia, zure begiak,
zure bihotza.

(Florentino Ulibarri)

Urteko 8. astea

San Kasimiro, aitorlea

Siraken liburutik: 35, 1-15 [gr.1-12]: Aginduetara makurtzea opari salbagarria da. **Sal 49**: Zuzen dabilenari diot Jainkoaren salbamena erakusten.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 10, 28-31.

Aldi hartan, Pedrok esan zion Jesusi: «Hara, guk dena utzi dugu, Zuri jarraitzeko». Jesusek erantzun: «Benetan diotsuet: Nigatik eta Berri Onagatik etxea, senideak, ama, aita, seme-alabak eta lurak uzten dituenak, orain, mundu honetan, ehun halako hartuko du: etxe, senide, ama, seme-alaba eta lur, erasoaldiekin batera; eta gero, datorren munduan, betiko bizia. Orain lehenengo diren asko azkeneko izango dira, eta orain azkeneko direnak lehenengo».

Jesusek esaten digu berari jarraitzearen guztia uzten duena, sendi berri batean sartzen dela, odoleko familia baino askoz ugariagoa den anai-arrebez eta aita-amez osatutako senitartean. Erreinuak giza elkarteak eraberritzen du, elkar zaintzera bultzatzen gaitu, besteen bizitzagatik poz hartzera eta lur jota daudenen ona bilatzera. Erreinuko bizitzaren hasikin izatera dago kristau elkarteak, adiskidetasuna sortzen duen senidetasuna medio, hazten laguntzen duen amatasunagatik eta agintaritzak bakartzat Aita duelako. Eskuzabaltasunaz egina dago Erreinua, giza senidetasunaren bizitze berri bati atea zabaltzen diola.

Garizuma Hausterre

Santa Oliva, *birjina eta martiria*San Joan Jose Gurutzekoa, *aitorlea*

Joelen profezia liburutik 2, 12-18.

Orain honela mintzo da Jauna: «Itzul zaitezte nigana bihotz-bihotzez barauz, negarrez eta doluz. Urra itzazue bihotzak, ez soinekoak; itzul zaitezte Jaunagana, zeuen Jainkoagana, bihozbera eta errukitsua baita, haserregaitza eta maitasun handikoa, bere mehatxuez damutzen dena. Agian atzera egin eta damutuko da, eta bedeinkatuko zaituzte ostera, labore- eta isurtze-oparia eskain diezaiozuen Jaunari, zeuen Jainkoari. Jo turuta Sionen, antolatu baraualdia, dei egin batzarrera; bildu herria batzar santura, bildu zaharrak, ekarri haurrak, baita bularrekoak ere. Atera bedi senarra ezkontza-gelatik, emaztea ezkontza-ohetik. Negar egin bezate atari eta aldare bitartean apaizek, Jaunaren zerbitzariak. Esan bezate: “Barka, Jauna, barka zeure herriari; ez utzi lotsatan zeure ondarea, ez dezatela mendera atzeritarrek, ez dezatela esan beste herriek: Non dute, bada, beren Jainkoa?”» Bere lurraldearekiko maiteminez bete zen Jauna eta barkatu zion bere herriari.

Sal 50: Erruki, Jauna, bekatu egin dugu eta.

San Paulok 2 Korintoarrei 5, 20-6, 2.

Senideok: Kristoren mandataria gara, eta gure bitartez Jainkoak berak erregutuko balizue bezala da. Kristoren izenean eskatzen dizuegu: adiskidetu zaitezte Jainkoarekin. Bekatuarekin zerikusirik izan ez zuen hura, Jainkoak gugatik bekatuarekin bat egin zuen, guk haren bitartez Jainkoaren salbamena iritsi genezan. Jainkoaren lankide garenez gero, eskatzen dizuegu, ez dezazuela alferrik har haren onginahia. Izan ere, Jainkoak dio: «Onginahi-garaian entzun dizut, eta salbamen-egunean lagundu». Begira, beraz: oraintxe da onginahi-garaia, oraintxe salbamen-eguna.

Garizuma Hausterre

Santa Oliva, *birjina eta martiria*
San Joan Jose Gurutzekoa, *aitorlea*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6, 1-6.16-18.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Begira, gero: ez egin zeuen egintza onak jendaurrean, ikus zaitzaten! Bestela, ez duzue zeruetan dagoen Aitaren saririk izango. Limosna ematean, beraz, ez ibili aurretik turuta jotzen, itxurazaleak sinagogetan eta kaleetan ibiltzen diren bezala, jendeak txalotu ditzan. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zuk limosna ematean, ordea, ez beza jakin zure ezkerak zer egiten duen eskuinak; horrela, zure limosna ezkutuan geldituko da; eta ezkutuan ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina. Otoitz egitean, ez egin itxurazaleek bezala; horiek sinagogetan eta plaza-ertzetan zutik otoitz egitea maite baitute, jendeak ikus ditzan. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zu, ordea, otoitz egitean, sar zaitez zeure gelan, itxi atea eta egiozu otoitz ezkutuan dagoen zeure Aitari; eta ezkutuan ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina. Barau egitean, ez agertu kopetilun, itxurazaleak bezala; aurpegia itsustu egiten baitute, barau egiten dutela jendeari agertzeko. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zuk, ordea, barau egitean, gantzutu zeure burua usain gozoz eta garbitu aurpegia, jendeak ez, baina ezkutuan dagoen zure Aitak ikus dezan zure baraua; eta ezkutuan ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina».

Jesusi bidean gora Jerusalemerantz joaten laguntzera gonbidatzen gaitu Garizumak. Jada ez dago haren inguruan bere bila zebilen lehengo jendetzarik. Gatazka-giro itoa sumatzen da. Giza sufrimenduan Jesusekiko eta historiako biktimekiko elkartasunetik igarotzen da aintzaren bidea. Damu seinaletzat hartzen dugu gaur errautsa, bizi berri batera deitzen gaituen Jainkoagana bihotz-berritu nahirik. Elizak, ebanjelioaren ildotik, hiru jarrera proposatzen dizkigu aldi honetarako. Limosna, garena eta daukaguna eskuzabaltasunez emana, besteei bizitza eskaintzeko. Otoitza, Jainko onarengana irekia, haren hitzak eraberritu eta arnasberritzen baitu. Baraua, gure burua desio hutsaletatik hustutzeko egina, Erreinua irrikatzeak bete gaitzan. Nor

Garizuma Hausterre

Santa Oliva, *birjina eta martiria*San Joan Jose Gurutzekoa, *aitorlea*

bere baitatik irteteko egunak ditugu. Jainkoak eta haren Erreinuaren egarriak molda ditzala gure bizitzak. Bizkitartean, gure barne gogoa Jesusenarekin bateratzea dagokigu. Gero eta hurbilago sumatzen du Jesusek heriotza, igaro beharreko bidetzat du hil beharra, errukia eta giza elkartasuna diren bere egiazko izaera agertzeko eta Jainkoren aintzara iristeko.

* * *

Bada astirik

Badugu astirik otoitz egiteko, baita adierazteko,
bai hitz egiteko, bai entzuteko.
Badugu astirik.
Garizuma garai aproposa da.
Aproposa Jainko gure Aitaren oharpenak entzuteko.

Jauna, esan nahi didazunari
Nire bihotza irekitzea bururatu zait.
Aurretik, arren, entzun iezadazu.
Badakit ez duzula argirik itzaltzen lotarako,
zain jarraitzen duzu, harrera eginez jarraitzen duzu.
Gaur hau esango dizut:
eskerrik asko zain egoteagatik,
eskerrik asko zugar entzuna sentitzen naizelako.
Ez daukat beste inor beregana joateko,
zuk entzun egiten didazu.
Garai haietatik zurekin nabilela,
ez didazu inoiz huts egin,
beti erantzun didazu nire itxaropenaren aurrean.

(Emili Castro. *Orar 301. Egokitua*)

Garizuma Hausterre ondokoa
Santa Rosa Viterbokoa, *birjina*
San Marziano, *gotzaina*

Deuteronomio liburutik 30, 15-20: Bedeinkazioa eta madarikazioa jartzen dizkizut gaur aurrean. **Sal 1:** Zorionekoa Jaunagan itxarobidea jartzen duena!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9, 22-25.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Gizonaren Semeak asko sufritu beharra du; zaharrek, apaizburuek eta lege-maisuek gaitzetsi egingo dute eta hil, baina hirugarren egunean piztu egingo da». Eta hau esan zien denei: «Nire ondoren etorri nahi duenak uko egin biezaio bere buruari, har beza eguneroko bere gurutzea eta jarrai biezat. Izan ere, bere bizia salbatu nahi duenak galdu egingo du; baina bere bizia negatiboki galtzen duenak salbatu egingo du. Zertako du gizakiak mundu guztia irabaztea, bere bizia galtzen eta hondatzen badu?».

Jesusek bere heriotza eta piztuera iragarri ditu eta bidean nola jarraitu diezaiokegun azaltzen digu. Kontua da hanpuruskeriaz, botereaz eta edukitzeaz harrotzen den “ego”ari hegoak ebakitzea, onginahiaren bizilekua den “ni”a indartzen dugun bitartean, Erreinuaren alde konprometitzen den “ni”a eta biktimekiko elkertasunean bizitzeak dakarren ordaina bere gain hartzeko gai dena. “Ego”a galbide dugu, hutsaren hurrengoa irabazten saiatzen delako. Atera beharra daukagu zulo horretatik, ez baitigu gure interes zikoitzetatik haratago ikusten uzten. Jesusen Espiritua, oster, gure “ni” egiazkoenari laguntzera dator, adore ematen digu geure gurutzea bizkarrean hartuta goazela eta bizia agintzen digu bere ondoan.

Garizuma Hausterre ondokoa

Perpetua eta Felizitas *santuak*, *martiriak*

Isaias profetaren liburutik 58, 1-9a: Hau da nik maite dudana baraua.

Sal 50: Zuk ez duzu gutxiesten, ene Jainko, bihotz hautsia eta umildua.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9, 14-15.

Aldi hartan, Joan Bataiatzailearen ikasleak Jesusengana hurbildu eta esan zioten: «Zergatik guk eta fariseuek sarritan egiten dugu barau, eta zure ikasleek ez?». Jesusek erantzun zien: «Ezteietara deituak egon al daitezke triste senar berria berekin duten bitartean? Etorriko zaie senar berria kenduko dieten eguna; orduan, bai, egingo dute barau».

Jesuentzat pozak izan behar du bere ikasleen ezaugarri berezia, Jainkoa, izan ere, bere herriaren barruan baitago eta etorri badator haren Erreinua. Ospatu beharra dago hori. Horrek ez du esan nahi Garizuman barauak Pazkoa prestatzen lagunduko ez digunik. Barau askatzailea, gehiegizko kontsumismotik eta irrika hutsaletatik libera gaitzana. Soiltasuna eragiten duen baraua, kreaioarekiko begirunea eta zaintzea adierazten dituen. Eta, batez ere, biktimganako elkartasunera zuzenduko gaituen baraua, kateak aska ditzana, zapalduak libratu, uztarriak hautsi, ogia behartsuekin elkarbanatu, biluzik dagoena jantzi eta gizakiei bizkarra emango ez dien baraua. Isaiasek eta profeten tradizio guztiak erakusten digute bidea egun hauetan.

San Joan Jainkoarena, *fundatzailea* (San Joan Jainkoaren *Anaiak*). San Beremundo Iratxekoa, (*Villatuertan, Nafarroa 1092 edo 1099an jaioa*), *abadea*

Isaias Profetaren liburutik 58, 9b-14: Gose denari zeure ogitik ematen badiozu, zure argia ilunpean zabalduko da. **Sal 85:** Erakutsiezadazu, Jauna, zeure bidea, zurekin leial joka dezadan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 5, 27-32.

Aldi hartan, Jesusek Lebi izeneko zergalari bat ikusi zuen, zergak biltzeko mahaian eseririk, eta esan zion: «Jarrai niri». Hark, dena utzirik, zutitu eta jarraitu zion. Lebi bazkari handia eman zion Jesusi bere etxean; Jesusekin eta honen ikasleekin batera zergalari eta bestelako jende asko zegoen mahaian. Fariseuak eta haien lege-maisuak marmarrean ari ziren eta esan zieten ikasleei: «Zergatik jaten eta edaten duzue zergalari eta bekatariekin?». Jesusek erantzun zien: «Ez dute osasundunek sendagilea behar, gaixoek baino; ez naiz zintzoei dei egitera etorri, bekatariei baizik, bihotz-berri daitezen».

Jesusek zerga biltzeko mahaian aurkitu zuen Lebi zergalaria, bere kobrantza eta txanponetan murgilduta. Zergekin itotako herrian, inbaditzailearen atzaparra zen bera. Beldurra zioten eta, aldi berean, mespretxua. Jendeak guztiz gaitzesgarritzat jotako batengan, Jesusek, orde, gizon bat eta gerora jarraitzaile bat ikusi du. Lebi oturuntza batera gonbidatu ditu lagunak bere bihotz-berritzea ospatzeko. Haiekin eserita daude Jesus eta ikasleak. Jesusek harrera eraberritzailea egiten du. Harrera eginez bekatuak kateatutako bizitza bat askatzen du. Mahaia elkarbanatuz bizitza berri batera gonbidatzen du. Garizumak eskatzen digu uzteko Jesusi gu hartzen, askatuak eta eraberrituak izateko. Bihotz-berritze aldia da.

Garizumako 1. astea

Santa Frantziska Erromatarra, *erlijiosa*

San Pazioano, *gotzaina*

Deuteronomio liburutik 26, 4-10.

Moisesek honela hitz egin zion herriari: «Apaizak zure eskutik lehen-fruituen saskia hartu eta Jaunaren zure Jainkoaren aldare aurrean jarriko du. Orduan, Jaunaren zeure Jainkoaren aurrean esango duzu: “Nire aita noraezean zebilen aramearra zen; Egiptora jaitsi eta etorkin gisa bizi izan zen han, lagun bakar batzuekin. Egipton herri handi egin zen jendez eta indarrez. Egiptoarrek tratatu txarra eman ziguten, zapaldu eta morrontza gogorra ezarri. Deiadar egin genion Jaunari, gure arbasoen Jainkoari; Jaunak gure deiadarra entzun zuen, eta gure atsekabea, nekea eta estualdia ikusi zuen. Eta Egiptotik atera gintuen Jaunak ahalmen handiz eta esku indartsuz, etsaiengan beldur-ikara sortuz, ezaugarri eta egintza harrigarriak eginez. Toki honetara ekarri gintuen eta lurralde hau eman zigun, esnea eta ezia darizkion lurraldea. Orain, hona hemen non dakarzkizudan, Jauna, Zeuk eman didazun lurreko emaitzen lehen-fruituak”. Hori esanik, Jaunaren zeure Jainkoaren aurrean utziko duzu eskaintza, eta Jauna zeure Jainkoa ahuspez gurtuko duzu».

Sal 90: Zaude nirekin, Jauna, larrialdian.

San Paulok Erromatarrei 10, 8-13.

Senideok: Hau dio Liburu Santuak: «Hurbil duzu hitza, zeure ahoan eta zeure bihotzean». Hitz hori, hain zuzen, guk hots egiten dugun sinesmenaren mezua da. Izan ere, zeure ahoz aitortzen baduzu Jesus Jauna dela, eta zeure bihotzean sinesten baduzu Jainkoak hilen artetik piztu zuela, salbatuko zara. Zeren bihotzez sinesten duena zuzentzat hartzen baitu Jainkoak, eta ahoz aitortzen duena salbatu egiten da. Liburu Santuak dio: «Harengan sinesten duena ez da lotsagarri gertatuko». Judu izan ala ez, ez dago bereizketarik, bat bera baita guztien Jauna, dei egiten dioten guztientzat eskuzabala. Izan ere, «Jaunaren izenari dei egiten diona salbatuko da»

Garizumako 1. astea

Santa Frantziska Erromatarra, *erlijiosa*
San Paziano, *gotzaina*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 4, 1-13.

Aldi hartan, Jesus Espiritu Santuaz beterik itzuli zen Jordandik. Espirituak eramanik, basamortuan barna ibili zen berrogei egunez, deabruak tentatzen zuela. Ez zuen ezer jan egun haietan, eta azkenean gosetu egin zen. Orduan, deabruak esan zion: «Jainkoaren Seme baldin bazara, esaiozu harri honi ogi bihur dadila». Jesusek erantzun zion: «Liburu Santuan idatzirik dago: “Gizakia ez da ogiz bakarrik bizi”». Gero, deabruak, toki goi batera eramanik, munduko erreinu guztiak erakutsi zizkion une batean eta esan zion: «Horien guztien agintea eta ospea emango dizut; neuri eman didate eta nahi dudanari ematen diot. Beraz, gurtzen banauzu, zurea izango da dena». Jesusek erantzun zion: «Idatzirik dago: “Jauna zeure Jainkoa gurtuko duzu, eta hura bakarrik zerbitzatuko”». Orduan, deabruak Jerusalemera eraman zuen eta, tenpluaren goreneko ertzean ipinirik, esan zion: «Jainkoaren Seme baldin bazara, bota ezazu zeure burua hemendik beheara, idatzirik dago eta: “Bere aingeruei aginduko die zu zaintzeko”, eta “eskuetan eramango zaituzte, harriekin estropezu egin ez dezazun”». Erantzun zion Jesusek: «Agindua dago: “Ez tentatu Jauna zeure Jainkoa”». Eta tentaldi oro bukatutik, alde egin zuen deabruak Jesusengandik hurrengo egokiera arte.

Jesusek tentaldiak bizi izan zituen bizitza publikoan. Ebanjelioek aurkezten dituztenak misioko tentaldiak dira. Bizitza guztian izan zituen, nahiz eta hemen basamortuan bilduta geratu, Jainkoa aurkitzeko lekua delarik basamortua, baina baita proba lekua ere. Lehen tentaldia gauza hutsal eta axalekoek besterik ez arduratzeko zirikalditzat har daiteke. Uler daiteke agintea bere mesedetan bakarrik erabiltzeko eztenkada gisa ere. Ogiak ez duela asetzen erantzuten du Jesusek eta Aitari irekita eta adi egon beharra dagoela. Hark bakarrik asetzen du. Bigarren tentaldia ondo asko ezagutzen dugu: boterea eskuratzean datza menderatuta gauzkan beste baten pean gaudenean. Jesusek uko egiten dio mesedeekin kateak jarritzak erabili eta umiliatzen dutenen

Garizumako 1. astea

Santa Frantziska Erromatarra, *erlijiosa*San Pazio, *gotzaina*

dinamika mafiosoen pean erortzeari. Jesusek askatasuna aukeratuko du hitzez eta egitez. Bere autoritate moral osoak distira dagi askatasun horretan. Hirugarren tentaldia da: Jesus bidalia dela egiaztatuko duen gauza ikusgarri bat Jainkoari eskatzea. Froga bakarra, orde, fedea da eta eusten digun Jainkoaren laguntzarekiko konfiantza bizi eta ausarta. Gaur gonbidapena egiten zaigu Jesusen jarraibidean gure tentaldien bidea egitera, gure uste ona Jainkoagan bakarrik jar dezagun.

* * *

Bada astirik (2) jarraipena

Garizumaldi honetan,
 nire zurekiko harremana sendotu nahi dut,
 ona da, baina hobe izatea nahi dut.
 Zugar, nigan baino gehiago pentsa nahi dut,
 nire kideetan haragitua ikusi nahi zaitut,
 eskuzabaltasunez zure egintza aurrera eraman.
 Hitz gutxitan: nire Jaun bakar bezala zerbitu.
 Garizumak lagunduko dit.
 Elkartzeko, entzuteko,
 nire kezkak zurekin partekatzeko,
 zu bidelagun izatearen poza adierazteko
 garaia da.
 Gauza bakarra eskatzen dizut, Jauna,
 jarrai ezazu ni laguntzen.
 Zu gabe ezin dut ezer.
 Nire aldetik saiatuko naiz. Eskerrik asko.

(Emili Castro. *Orar 301. Egokitua*)

Lebitarraena liburutik 19, 1-2.11-18: Epaitu zuzenbidez zeure herritarra.

Sal 18: Zure hitzak, Jauna, espiritu eta bizi dira.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 25, 31-46.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Gizonaren Semea –eta aingeru guztiak harekin– aintzaz beterik etortzean, bere erregeaulki ospetsuan eseriko da, eta herri guztiak haren aurrean bilduko dituzte. Hark batzuk besteengandik bereiziko ditu, artzainak ardiak ahuntzetatik bereizten dituen bezala: ardiak bere eskuinaldean ipiniko ditu, eta ahuntzak ezkerrealdean. Orduan, erregeak esango die eskuinekoiei: “Zatozte, nire Aitaren bedeinkatuok; hartazue munduaren sortzetik zuentzat prestaturik dagoen erreinua. Gose bainintzen, eta jaten eman zenidaten; egarri, eta edaten eman; arrotz, eta etxean hartu ninduzuen; biluzik nengoen, eta jantzi egin ninduzuen; gaixorik, eta bisitatu; espetxean, eta ikustera etorri zineten”. Orduan, zintzoek erantzungo diote: “Jauna, noiz ikusi zintugun goserik, eta eman genizun jaten, edota egarri, eta edaten eman? Noiz ikusi zintugun arrotz, eta etxean hartu, edota biluzik, eta jantzi? Noiz ikusi zintugun gaixorik edota espetxean, eta ikustera joan?””. Eta erregeak erantzungo die: “Benetan diotsuet: nire seniderik txikien hauetako bati egin zeniotena neuri egin zenidaten”. Gero, esango die ezkerrekoiei: “Alde nigandik, madarikatuok, deabruarentzat eta haren lagunentzat prestaturik dagoen betiko sura. Gose bainintzen, eta ez zenidaten jaten eman; egarri, eta ez zenidaten edaten eman; arrotz, eta ez ninduzuen etxean hartu; biluzik, eta ez ninduzuen jantzi; gaixorik eta espetxean nengoen, eta ez zineten ni ikustera etorri”. Haiek erantzungo diote: “Jauna, noiz ikusi zintugun goseak edota egarri, arrotz edota biluzik, gaixorik edota espetxean, eta guk lagundu ez?””. Hark erantzungo die: “Benetan diotsuet: txikien hauetako bati egin ez zeniotena, neuri ez zenidaten egin”. Eta haiek betiko zigorrera joango dira; zintzoak, berriz, betiko bizira».

Garizumako 1. astea

San Alexandro, *martiria*Santa Maria Eugenia Milleret, *fundatzailea**(Jasokundeko Erlijiosak)*

Historiako biktimetan biltzen da egiazkoa denaren jainkozko alderdia. Berengan agertzen zaigu Kristoren aurpegia, hankutsik jartzeko deika duguna lur santua zapaltzean egiten den bezala, eta zerbitzatzeko galdezka, Jesusekin berarekin egingo genukeen bezala. Biktimak dira zinez «Kristoren bikarioak», Elizak hasieratik beti aitortu izan duen bezala. Garizumako idazkiek behin eta berriz esaten digute sufritzen ari diren senideei diegun errukian eta samurtasunean trinkotzen dela gure bihotz-berritzea. Beren minari oihartzun ematen die Jainkoaren ahotsak, gizadiaren anai-arreba izatera deitzen gaituelarik eta haiekin batera errukiaren Jainkoaren seme-alaba izatera hots egiten. Kanpora botatakoak nola maite ditugun, hala izango da gure azken auzia.

* * *

Gurutze-bidea

Jesus gurutziltzatua eta bihotz-hustua,
etsipena eta ezereza pairatu dituzu.
Otoitzaren bidez,
zure etsipena Jainkoari dei bihurtzen da.
Konpreniaraz egiguzu ez dagoela
etsipenak galduriko egoerarik,
ez dagoela erreka aski barnarik
Aitari buruzko deia tapa lezakeenik.
Ama Maria, onar gaitzazu zure ondoan,
gurutzearen oinean,
Jainkoaren zauriak gure bihotzean zizelkaturik gelditi daitezten. Amen.

(Martini Kardinala)

Garizumako 1. astea
Santa Aurea, *abadesa*
San Eutimio, *gotzaina*

Isaias profetaren liburutik 55, 10-11: Nire hitzak egingo du Nik nahi dudana. **Sal 33:** Beldur guztietatik libratu ninduen Jaunak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6, 7-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Otoitz egitean, ez jardun esan eta esan, jentilak bezala, uste baitute beren hitz-jarioari esker entzungo diela Jainkoak. Ez izan haien antzeko, badaki-eta zuen Aitak zer behar duzuen, zuek eske hasi baino lehen. Beraz, zuek honela egingo duzue otoitz: «Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia, zeruan bezala lurrean ere. Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen, baina atera gaitzazu gaitzetik». Izan ere, zuek besteei beren hutsegiteak barkatzen badizkiezue, zuei ere barkatuko dizkizue zeruko zeuen Aitak; baina besteei barkatzen ez badiezue, zuei ere ez dizkizue barkatuko Aitak zeuen hutsegiteak».

Jesusek bere otoitzerantz garamatza eta, hala, Aitaren bihotzean sartzen gaitu, bera bizi zen gune hartan. Jesusen hitzetara jotzen dugu Jainkoarekin haren desio sakonenez aritu ahal izateko: egin bedi zure nahia, etor bedi zure Erreinua, emaguzu zure ogia... Behar bada ez gara duin sentituko hainbeste apaldu zenaren otoitza errezatzeke. Behin eta berriz errepikatuz gure eskariak Jesusen beraren eskarietara egokituz goaz, bihotz barkabera zeukan harenera. Gutaz haratago begiratzen dugu, urrunago. Funtsezkoan murgilduta, gure behar txikiak uzten ditugu, non Aitaren eskuetan geratzen diren. Elkarte gisa mintzo gatzaizkion eta harengan guztiok elkarren neba-arreba garela aitortzen dugun gure Aita horren eskuetan.

Garizumako 1. astea

San Nikodemo, *aitorlea*

San Maximiliano, *martiria*

Jonasen profezia liburutik 1 ,1-10: Ninivetarrak beren bide okerretetik itzuli. **Sal 50:** Zuk ez duzu gutxiesten, ene Jainko, bihotz hautsia eta umildua.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11, 29-32.

Aldi hartan, jende asko biltzen ari zelarik, Jesus honela hasi zitzaion: «Gizaldi hau gaiztoa da. Ezaugarri eske ari da, baina ez zaio ezaugarririk emango Jonas profetarena besterik. Izan ere, ninivetarrentzat Jonas ezaugarri izan zen bezala, hala izango da Gizonaren Semea gizaldi honentzat. Auzi-egunean hegoaldeko erreginak gizaldi honetako jendearen aurka jaiki eta kondenatu egingo du, lurraren azken mugetatik etorri baitzen hura Salomonen jakinduriatzko hitzak entzutera, eta hona hemen Salomon baino gehiago dena. Auzi-egunean ninivetarrek ere gizaldi honen aurka jaiki eta kondenatu egingo dute, haiek bihotz-berritu egin baitziren Jonasen predikua, eta hona hemen Jonas baino gehiago dena».

Gure segurtasunei gogor helduta eta beldurrez eta ikaraz josita, hor goaz Jainkoagana ziurtasunak bermatuko dizkiguten eta gure apustuak garaipen irmo bihurtuko dituzten are eta zeinu gehiagoren eske. Baina Jainkoak betiko zeinuak eskaintzen dizkigu: haur bat aska batean, gizon zuzen bat gurutziltzatua, ontasunaren Maisu bat, otzana eta armagabea, bideetan zehar predikatzen duena. Jesusen Jainkoak txikien baitan hots egiten du, ernamuietan agertzen da eta biktimengan itxaroten. Gure bihotzetan ari da taupaka, gizatasun berrituaren egarri den helburu eginik. Ez dugu beste zeinuen beharrik Jesusengatik eta Ebanjelioagatik bizia jokatzeko, Jesus behartsu eta apalarengan Erreinuaren agintzari ziurra ikusten dutenen fede argigilea besterik ez.

Ester liburutik 4, 17n.p-r.aa-bb.gg-hh: Ez dut zu beste laguntzailerik, Jauna. **Sal 137:** Dei egin nizunean, erantzun zenidan, Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7, 7-12.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Eskatu, eta emango dizue Jainkoak; bilatu, eta aurkituko duzue; jo atea, eta zabalduko dizue; eskatzen duenak hartu egiten baitu, bilatzen duenak aurkitzen, eta atea jotzen duenari zabaldu egiten baitzaio. Zuetako norbaitek, semeak ogia eskatuta, harria emango ote dio? Edota arraina eskatuta, sugea emango ote dio? Beraz, zuek, gaiztoak izanik ere, zeuen seme-alabei gauza onak ematen baldin badakizue, zenbatez gehiago ez dizkie zeruko zuen Aitak gauza onak emango eskatzen dizkiotenei! Honela bada, besteek zuei egitea nahi zenuketen guztia egin zuek ere besteei; horixe da Moisesen legeak eta profetek diotena».

Bihotz onekoa da Aita, zabala da haren bihotza, bere onena emateko irrikaz taupaka. Aitaren eskuetan lasai jar ditzakegu gure amets eta larri guztiak, otoika, bilaka, deika. Gure eskariek ez dute haren borondatea makurrarazten, Bera gure alde baitago beti, gizatasunean hazten eta bere jarraitzaile izaten laguntzen. Eskatzea, hauskorak garela eta Jainkoaren beharra dugula aitortzeko era bat da. Aldiz, buruaskitasunak eta harrokeriak atea ixten diote Jainkoari eta merituairen logikan barneratzen gaituzte. Jainkoa bera den dohainagatik eskertuta, berea bezalako bihotz zabala sortzen da gure baitan, Jainkoaz, oparitzat harturik, gozatzen dena eta besteei guri egitea nahiko genukeena egiten diena.

Garizumako 1. astea

Santa Matilde, *erregina*

San Inozentzio, *gotzaina*

Ezekielen profetia liburutik 18, 21-28: Gaiztoaren heriotza nahi ote dut Nik, eta ez jokabidez aldatu eta bizitzea? **Sal 129:** Gure erruak gogoan badauzkazu, Jauna, nor dagoke zutik, Jauna?

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 20-26.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Jainkoaren nahia lege-maisuek eta fariseuek baino hobeki betetzen ez baduzue, ez zarete sartuko zeruetako erreinuan. Entzuna duzue antzinakoei agindua: “Ez hil inor”, eta norbait hiltzen duena errudun izango da auzitegian. Nik, ordea, hau diotsuet: Bere senidearekin haserretzen dena errudun izango da auzitegian; senideari “zoroa” esaten diona errudun izango da batzar nagusian, eta “sinesgabea” esaten diona infernuko surako errudun izango da. Beraz, zeure oparia aldarean eskaintzean, gogoratzen bazara zure senideak baduela zerbait zure aurka, utzi oparia han bertan, aldare aurrean, eta zoaz lehenik senidearekin bakeak egitera; etorri orduan eta eskaini zeure oparia. Konpon zaitez lehenbailehen zeure etsaiarekin, harekin auzitegira zoazen bitartean, etsaiak epailearen esku jar ez zaitzan, eta epaileak ertzainaren esku, eta giltzapean sar ez zaitzaten. Benetan diotsut: Ez zara handik aterako azken txanpona ordaindu arte».

Aginduak garrantzitsuak dira, igaro ezin diren mugak jartzen dizkiotelako giza jokabideari: «ez duzu inor hilko» da horietako bat. Nolanahi ere, Erreinuaren logika ezin geldi daiteke hor. Jesusek askoz urrutirago joatera gonbidatzen gaitu, bizitzako edozein gorabeheratan senideek bakezkoak egiteko lan egitera. Gatazkak ohikoak izaten dira gure harremanetan. Batzuk eguneroko bizikidetzan gertatzen dira; beste batzuk hil ala biziko egoeretan, guri egokituko zaizkigu edo maite ditugunei. Orduan eskuzabaltasun handia behar izaten da adiskidetzeko eta gure oldarkortasunari eta barruko erresuminari aurre egitea. Hala eskatzen digu Jesusek, giza adiskidetzearen alde lan egiteko nonahi eta noiznahi. Horrela bakarrik sartuko gara Erreinuan.

Garizumako 1. astea

Santa Luisa Marillac-ekoa. *fundatzailea Pauleko San Bizenterekin (Karitateko Ahizpak)*

Deuteronomio liburutik 26, 16-19: Jaunari zeure Jainkoari sagaraturiko herri izango zara. **Sal 118:** Zorionekoak Jaunaren lege-bidean dabiltzanak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 43-48.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzuna duzue antzinakoei agindua: “Maita ezazu zeure lagun hurkoa eta gorrota zeure etsaia”. Nik, ordea, hau diotsuet: Maita itzazue zeuen etsaiak eta egin otoitz eraso egiten dizuetenen alde, zeruetan dagoen zeuen Aitaren seme-alaba izan zaitezten, hark gaiztoentzat eta zintzoentzat ateratzen baitu eguzkia eta zuzenentzat eta zuzengabeentzat egiten euria. Izan ere, maite zaituztenak bakarrik maite badituzue, zer sari zor zaizue? Zergalariek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Eta zeuen senideak bakarrik agurtzen badituzue, zer egiten duzue berezirik? Jentilek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Izan zaitezte, beraz, guztiz onak, zeruko zuen Aita guztiz ona den bezala».

Badirudi Jesusen hitzak kontrako eztarrira joaten zaizkigula, urrutitxo doaz izan ere: etsaiak maitatu eta pertsegitzen gaituztenen alde otoitz egin? Gehiegi eskatzen du, gaizkinahia digutenei gure gorrotoa eta Aitaren bihotzean haiekiko maitasuna izatea aurrez aurre jartzea adina, gure bihotzean ezinezkoa egiten baitzaigu. Neurrian erantzutea, ordainaren logika izatea, moztu beharra eskatzen du Erreinuak: hau egin didazu, beraz hori bera egingo dizut. Etengabeko irain-eta eraso-katea eteteko eskatzen digu eta gaizki eginari on eginez erantzuteko. Oroitzapen garratzak eta herrak atzean uzteko eta Jainkoak maite duen bezala maitatzeko. Ez dago besterik. Aitaren maitasunarekin bakarrik maita dezakegu, gure giza bihotz txikia ez baita hainbesterako gai.

Garizumako 2. astea

San Hilario, *gotzaina*Santa Kolunba, *martiria*

Hasiera liburutik 15, 5-12, 17-18.

Egun haietan, Jaunak kanpora aterarazi zuen Abram eta esan zion: «Begira zerura eta konta itzazu izarrak, ahal baduzu». Eta, gainera, esan zion: «Horrenbeste izango dira zure ondorengoak». Abramek sinetsi egin zuen Jaunagan, eta Jaunak zuzentzat hartu zuen. Eta esan zion: «Ni naiz Jauna, kaldearren Ur hiritik atera zintuena, lurralde hau zuri jabetzan emateko». Abramek esan zion: «Jainko Jauna, nondik ezagutuko dut lurraldearen jabe izango naizela?». Jaunak erantzun zion: «Ekariezazkidazu hiru urteko txahal bat, hiru urteko ahuntz bat, hiru urteko ahari bat, usapal bat eta usakume bat». Ekarri zituen Abramek hauek guztiak eta erdibi egin zituen, eta puskak bata bestearen aurrez aurre ipini; hegaztiak ez zituen erdibitu. Hegazti harrapariak sarraskira zetozen, eta Abramek uxatu egiten zituen. Eguzkia sartzean, lozorroan murgildu zen Abram, eta ikara handia sartu zitzaion. Eguzkia sartu eta ilun beltz egin zenean, labe bat ketan eta zuzi bat sutan agertu ziren eta abere-zatien artetik igaro. Egun hartan Jaunak agintzari hau egin zion Abrami: «Zure ondorengoei emango diet lurralde hau, Egiptoko ibaitik hasi eta Eufrates ibai handiraino».

Sal 26: Jauna dut argi eta salbamen.

San Paulok Filipinoarrei 3, 17-4, 1.

Senideok: Izan zaitezte nire antzeko, eta begira nigan duzuen ereduaren arabera bizi direnei. Izan ere, asko dira Kristoren gurutzearen etsai bezala bizi direnak. Askotan esan dizuet eta berriro diotsuet orain malko artean. Horrelakoen azkena hondamendia da; sabela dute jainko, beren lotsarrietan harrotzen dira eta lurreko gauzetan bakarrik pentsatzen dute. Gu, ordea, zeruko hiritar gara eta handik itxaro dugu Salbatzailea, Jesu Kristo Jauna. Hark antzaldatuko du gure gorputz ezerez hau, bere gorputz aintzatsuaren irudiko eginez, gauza guztiak

Garizumako 2. astea
San Hilario, *gotzaina*
Santa Kolunba, *martiria*

bere menpe jartzeko duen ahalmenari esker. Horrela, bada, ene senide gogoko eta maiteok, nire poza eta nire koroa, iraun ezazue horrela Jaunari leial, maiteok.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9, 28b-36.

Aldi hartan, hartu zituen Jesusek berekin Pedro, Santiago eta Joan, eta mendira igo zen otoitz egitera. Otoitzean ari zela, aurpegiko itxura aldatu zitzaion, eta jantzia zuri distiratsu bihurtu. Hartan, bi gizon agertu ziren, Moises eta Elias, aintzaz distiratsu Jesusekin hizketan; Jerusalemen gertatzekoa zen Jesusen heriotzaz mintzo ziren. Pedro eta lagunak logurak jota zeuden; baina esnatu ziren eta Jesusen aintza eta harekin zeuden bi gizonak ikusi zituzten. Hauek urruntzen ari zirela, Pedrok esan zion Jesusi: «Maisu, bai ederki gaudela hemen! Egin ditzagun hiru txabola: bata zuretzat, bestea Moisesentzat eta bestea Eliasentzat». Ez zekien zer esaten zuen ere. Hau esaten ari zela, hodei batek estali zituen, eta hodeian sartzean beldurtu egin ziren. Ahots bat atera zen hodeitik, esanez: «Hauxe da nire Semea, nire Aukeratua. Entzuiozue». Ahotsa isiltzean, Jesus bakarrik ageri zen. Ikasleek isilik gorde zuten, eta egun haietan ez zioten inori esan ikusitakorik ezer.

Jainkoa porrot egin duenaren bidelagun al da? Historiako galtzaileekin al dago Jainkoa? Gure galeretan al dago Hura, gure ahalegin utopikoetan, gure apustu tolesgabeetan, eskaini eta aintzat hartu ez diguten maitasunean? Ezin dugu ahaztu bai fede judua bai kristaua, elkarrekin baztertu edo pertsegituaren arragoan gorpuztu zirela. Baztertuak izan zirelarik ikusarazi zitzaizkien beraiekin zutela biziaren eta agintzariaren Jainkoa. Jesusek porrot egin zuen, historiako galtzaile bat izan zen. Gaurko ebanjelio pasartearen Jainkoa haren dagoela jakinarazten zaigu. Haren aurpegi antzaldatua, jantzi distiratsuak, Jesus Jainkoaren laino barnean bilduta. Jainkoa du lagun eta babesle. Semea du, bere aukeratua. Hala sumatu zuten

Garizumako 2. astea

San Hilario, *gotzaina*Santa Kolunba, *martiria*

ikasleek, Jainkoaren aintzari so egon ziren jazarpena eta mespretxua jasaten zituen gizon harengan. Eta hari entzuteko eskatu zitzaien. Ez da erraza hain zorte gutxiko bati eta gurutzera doan gizonari entzutea. Zortea dutenek hitz egiten dutenean aretoa bete egiten da, baina Jesusek Erreinua aukeratu du eta galtzailea da. Gonbidapena jaso dugu entzuteko Maisuari Jainkoaren Erreinua hots egiten, biktimen eta ahaztuen Erreinua.

* * *

Gurutze-bidea

Geroaren Jainko Jauna,
barne-otoitzaren bidez
eta anai-arteko batasunaren bidez,
lagun gaitzazu Jainkoaren Hitzari fidatzen.
Gisa horretan
izpiritu argitasunez aberats gaitezen,
mundu honetako haustura
eta nahasmenduaren erdian
batasuna egiteko gai izan gaitezen. Amen.

(Martini Kardinala)

Garizumako 2. astea
San Patrizio, *gotzaina*

Danielen Profezia liburutik 9, 4b-10: Guk bekatu egin dugu, gaiztoak izan gara. **Sal 78:** Ez gu erabili, Jauna, gure bekatuek merezi bezala.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6, 36-38.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Izan zaitetzte errukior, zuen Aita errukior den bezala. Ez gaitzetsi inor, eta Jainkoak ere ez zaituzte gaitzetsiko; ez kondenatu, eta ez zaituzte kondenatuko; barkatu, eta barkatuko dizue; eman, eta emango dizue: neurri betea, sakatua, estutua eta leporainokoa emango dizue altzora. Izan ere, zuek zein neurriz neurtu, halakoaz neurtuko zaituzte Jainkoak».

Bizitzan gure burua besteekin alderatzen ibiltzen gara beti, jeneralean gorago daudenekin, lehiak eraginda edo jelsiak ziztatuta. Jesusek gure burua Jainkoarekin aldera dezagun gonbidatzen gaitu, ez haren gaitasunekin baizik haren eskuzabaltasunarekin eta maitasunarekin. Geu ere izan baikaitezke eskuzabalak eta maitatzeko gai. Egiaz, azken muturreraino egin dezakegu, Jesusek bezala. Gure esku daukagu Jainkoari begiratzea haren ontasunak harrapa gaitzan eta hark bezala jokatzeko, ez ahalguztidun izateko baizik eta gure samurtasun guztia loratzeko, harrera egiteko eta barkatzeko gaitasuna zabaltzeko, Jainkoak gudan ereiten eta elikatzen duen erruki guztia garatzeko. Utz diezaiogun Jainkoari gure baitan bizitzen, gizatasunez haziz joan gaitezen.

Garizumako 2. astea

San Zirilo Jerusalemgoa, *gotzaina eta eliz irakaslea*San Raimundo Fiterokoa *abadea, Toledon hil 1163**(Iruñea eta Tuterako elizbarrutietan)*

Isaias Profetaren liburutik 1, 10.16-20: Ikasi on egiten, bila ezazue zuzenbidea. Sal 49: Zuzen dabilenari diot Jainkoaren salbamena erakusten.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 23, 1-12.

Aldi hartan, honela mintzatu zitzaizen Jesus jendetzari eta ikasleei: «Lege-maisuak eta fariseuak Moisesen maisu-aulkian eseriak daude. Egizue, beraz, eta bete haiek esandako guztia; baina ez egin egiten dutena; esan, esaten baitute, baina egiten ez. Zama astunak eta eraman ezinezkoak lotzen dituzte, eta besteei leporatzen; baina berek atzamar batez ere ez dituzte mugitzen. Egiten duten guztia, jendeak ikusteagatik egiten dute; larrutxa zabalak erabiltzen dituzte bekokian, eta borlatxo deigarriak mantu barrenean. Afarietan lehenengo jarlekuak, eta sinagogetan aurreneko aulkiak maite dituzte, plazetan jendeak agur egitea eta denek “maisua” deitzea. Zuek, ordea, ez utzi inori “maisua” deitzen, bakarra baita zuen maisua, eta zuek guztiok elkarren senide baitzarete. Eta ez deitu lurrean inori “aita”, bakarra baita zuen Aita, zerukoa. Eta ez utzi inori “gidari” deitzen ere, bakarra baita zuen gidaria, Kristo. Zuetako handiena izan bedi zuen zerbitzari. Bere burua goratzen duena beheratu egingo du Jainkoak, eta bere burua beheratzen duena goratu».

Jesusek hipokrisiaren bekatua salatzen du hemen, autoritate morala duten pertsonen itxurakeria: besteei jokabide jakin batzuk ezartzen ahalegindu eta beraiek bestela jokatzeari, predikatzen dutenarekin zerikusirik gabe, bizimodu bikoitza eramanez. Kalte egiten diote elkarte ororen konfiantzari eta, era berean, balioa kentzen diote eskatzen dutenari. Jesusek berdinen elkarteak sortzea eskatzen du, Irakasle bakarra eta Aita bakarra besterik ez dituztenak. Koloka jartzen gaitu irakaspen horrek, izan ere, Elizan maiz erori gara fariseukeria klase horretan. Atsegin dugu besteei gizarte arauak ezartzea guk geure jokabideaz amore ematen dugun bitartean. Garizumak bihotz-berritzera deitzen gaitu, kristau norbanako gisa eta eliz elkarte bezala.

Samuel liburutik 7, 4-5a.12-14a.16.

Egun haietan, Jaunaren hitza etorri zitzaion Natani: «Zoaz eta esaiozu nire morroi Davidi: “Hau dio Jaunak: Zeure egunak bete eta zeure gurasoein atsedean hartuko duzunean, ondorengoa emango dizut, zure erraietatik ateratakoa, eta sendotuko dut haren erregetza. Hark eraikiko dio etxea nire izenari, eta Nik betiko sendotuko diot tronua. Aita izango nau hark Ni, eta seme izango dut Nik hura. Zure etxeak eta zure erregetzak betiko iraungo dute nire aurrean, eta zure errege-aulkiak sendo iraungo du beti”».

Sal 88: Haren errege-jatorriak betiko iraungo du.

San Paulok Erromatarrei 4, 13.16-18.22.

Senideok: Beren oinordekotza mundua izango zutela agindu zien Jainkoak Abrahami eta ondorengoei. Agintzari hau, ordea, ez zegokion legea betetzeari, sinesmenak duen salbamen-indarrari baizik. Beraz, agintzaria edo promesa, dohain hutsa izanik, fedeari dagokio; horrela, Abrahamen ondorengo guztientzat balio du, legearen arabera ondorengo direnentzat ez ezik, baita Abrahamen sinesmenaren arabera bizi direnentzat ere. Bera aita dugu guztiok, Liburu Santuak dioen bezala: «Herri askoren aita egin zaitut». Abraham aita dugu, beraz, Jainkoaren aurrean, hark sinetsi egin baitzuen hildakoak biziarazten eta izaterik ez dutenak izatera deitzen dituen Jainkoagan. Abrahamek sinetsi egin zuen, inolako itxarobiderik ez zegoenean itxaropenari eutsiz; horrela, herri askoren aita egin zen, Jainkoak esan zionaren arabera: «Horrenbeste izango dira zure ondorengoak». Horrexegatik, hain zuzen, zintzotzat hartu zuen Jainkoak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 1, 16.18-21.24a.

Jakobek Jose sortu zuen, Mariaren senarra, eta Mariagandik jaio zen Jesus, Kristo deritzana. Jesu Kristoren sortzea honela gertatu

zen: Maria, Jesusen ama, Joserekin ezkontzeko hitzemana zegoen eta, elkarrekin bizi izan baino lehen, haurdun gertatu zen Espiritu Santuaren egitez. Josek, Mariaren senarrak, gizon zintzoa baitzen eta ez baitzuen bere emaztea salatu nahi, hura isilean uztea erabaki zuen. Baina asmo hori gogoan zerabilela, Jaunaren aingerua azaldu zitzaion ametsetan eta esan zion: «Jose, Daviden ondorengo hori, ez beldur izan zeure emazte Maria etxean hartzeko, honengan sortua Espiritu Santuagandik baitator. Semea izango du, eta zuk «Jesús» ipiniko diozu izena, hark salbatuko baitu bere herria bekatuetatik». Josek, lotatik esnatu zenean, Jaunaren aingeruak agindu bezala egin zuen.

Ospakizun honek Joserengana garamatza, Galileako artisau xume, Mariaren senar eta Jesusen aitarengana. Jesusek hainbestetan deitzen dio Aita Jainkoari, ezen pentsarazten baitigu Josek zeruko Aitaren ispilu izan behar izan zuela harentzat. Sorkariez arduratzen zen aita xamurra, bereziki hauskor eta ahulenez. Fidatzeko moduko aita, haren babesa bilatu eta lur seguruan haziko zinela jakinda. Aita bihotz-zabala, guztiak zaintzen zituena eta ez bere sendia bakarrik. Ebanjelioak diosku Josek arreta bereziz kontu egin ziola Mariari hura zapuztera bultzatzen zuten inguruabar zailetan, eta ez zukeela nahiko jendeari gertaera hura jakitera ematerik ere. Guztiei bere borondatea betearazten zien familiako patriarkaren aldean, oso bestelako norbait. Gizon hark Jainkoari entzuten zion, haren hitzari gida zezan uzten zion. Eredu zen Jesusentzako, zeinak irmo sinetsi zuen berdinen elkartean, non agintaritzaz zerbitzatzea zela ulertuko zuten eta Jainkoaren beraren jokabidetzat hartuko. Frantzisko aita santuak Joserengana zaindaria izatera azpimarratu nahi izan du, kontu egiten eta babesten duena dela nabarmenduz. Jesusen eta Mariaren zaindaria, Elizaren zaindaria eta kreaioaren zaindaria. Gu guztiontzako eredu eta argibide.

Jeremias profetaren liburutik 17, 5-10: Madarikatua konfiantza gizakiagan duena. Bedeinkatua konfiantza Jaunagan duena. **Sal 1:** Zorionekoa Jaunagan itxarobidea jartzen duena!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 16, 19-31.

Aldi hartan, honela mintzatu zitzairen Jesus fariseuei: «Bazen gizon aberats bat, purpuraz eta liho finez jantzi eta egunero festa ederrak egiten zituen. Lazaro izeneko eskale bat, berriz, aberatsaren etxe-atarian etzanda egoten zen, zauriz josia; gogotsu jango zukeen aberatsaren mahaitik erortzen zena. Txakurrek berek ere etorri eta zauriak milikatzen zizkioten. Honetan, hil zen eskalea, eta aingeruek Abrahamen altzora eraman zuten. Hil zen aberatsa ere, eta ehortzi zuten. Hilan Egoitzan oinazetan zegoelarik, begiak jaso eta Abraham ikusi zuen urrutian eta Lazaro haren altzoan, eta deiadarka esan zuen: “Aita Abraham, erruki zakizkit! Bidal ezazu Lazaro atzamar muturra urean busti eta niri mihia freskatzera, oinaze gorrian bainago sugar hauetan”. Baina Abrahamek erantzun zion: “Seme, oroit zaitez zuk zorion franko izan zenuela bizitzan, Lazarok, berriz, zorigaitzak; horregatik, orain hark atsegina aurkitu du, eta zuk oinazeak. Gainera, gure eta zuen artean leize handia dago, eta nahita ere ezin da inor hemendik zuengana igaro, ezta hortik gugana ere”. Aberatsak berriro: “Orduan, aita Abraham, bidal ezazu, arren, Lazaro gure aitaren etxera, bost anaia badi tut eta; jar ditzala jakinaren gainean, eurak ere oinaze-leku honetara etor ez daitezen”. Abrahamek erantzun zion: “Hor dituzte Moises eta profetak; entzun diezaietela”. Hark berriro: “Ez, aita Abraham; hildakoren bat joango balitzaie, bihotz-berrituko lirateke”. Baina Abrahamek erantzun zion: “Moisesi eta profetei entzutuen ez badiete, ez dute sinetsiko ezta hildako bat piztuta ere”».

Garizumako 2. astea

San Eugenio, *martiria*Santa Maria Josefa Jesusen Bihotzarena, *fundatzailea**(Jesusen mirabeak)*

Parabolan bezala, berealdiko leizeak banatzen ditu baztertuak munduko aberatsengandik. Gutxi batzuk bakarrik heltzen dira mahaira; beste asko mahaitik erortzen diren ogi-apurretatik bizi dira. Parabolako aberatsak ez ikusten du, ez errukitzen da. Lazaroren zauriak miazkatzen dituzten zakurrek bihotz gehiago agertzen dute. Behartsuak ikusezin bihurtzen dira zenbakietan, axolagabekeriako estalki batek ezkutatuta. Zaila da zenbaki bategatik kupitzea. Kontaketa honetan, alabaina, Lazarok izena eta aurpegia ditu, aberatsak ez bezala. Aitak samurkiro zaintzen du. Gonbidatuta gaude behartsuak nor diren ezagutzera eta zainketa- eta erruki-zubiak eraikitzen, axolagabekeriaren leizeak gainditzeko.

* * *

«Keinu fisikoak, aurpegierak, isiluneak, gorputz-hizkuntza ezinbestekoak dira, eta are lurrina, eskuen dardara, lotsagorritzea eta izerdia ere, horiek guztiek asko esaten baitute eta giza komunikazioaren parte baitira. (...) Konexio digitala ez da askiubiak eraikitzen, ez da iristen gizateria batzera» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 43).

Hasiera liburutik 37, 3-4.12-13a.17b-28: Horra non datorren ameslaria; hil dezagun. Sal 104: Ekarri gogora Jaunak egindako mirariak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 21, 33-43.45-46.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apaizburuei eta herriko zaharrei: «Entzun parabola hau: Behin batean, nagusi batek mahastia landatu zuen eta hesiz inguratu; bertan dolarea egin eta dorrea eraiki zuen; gero, nekazari batzuei errentan utzirik, urrutira joan zen. Mahatsa biltzeko garaia iritsi zenean, bere morroiak bidali zituen nekazariengana, fruitutik zegokion partea jasotzera. Nekazariak, ordea, morroiei heldu eta bata jo, bestea hil eta bestea harrikatu egin zituzten. Berriro beste morroi batzuk bidali zituen, aurrekoan baino gehiago, eta haiei ere beste hainbeste egin zieten. Azkenean, bere semea bidali zien, bere baitarako esanez: “Izango diote begirune nire semeari”. Nekazariak, ordea, semea ikustean, esan zioten elkarri: “Oinordekoa duk. Hil dezagun eta guretzat izango duk ondarea”. Heldu zioten, mahastitik kanpora bota eta hil egin zuten». Jesusek galdetu zien: «Zer egingo die nekazari horiei mahastijabeak, itzultzean?». Erantzun zioten: «Errukirik gabe hilko ditu, eta bere garaian fruitua emango dioten beste nekazari batzuei utziko die mahastia». Jesusek esan zien: «Ez al duzue Liburu Santuan behin ere irakurri: “Etzegileek baztertutako harria giltzarri gertatu da. Jaunak egin du hori, gure begien harrigarri?”. Horregatik diotsuet: Jainkoaren erreinua zuei kendu eta fruitua aterako dion herri bati emango zaio». Parabola hauek entzutean, Jesus beraiegatik ari zela jabetu ziren apaizburu eta fariseuak, eta hura atxilotu nahian zebiltzan; baina jendearen beldur ziren, denek profetatzat baitzeukaten.

A ze aldea dagoen mahasti-jabearen eta mahastiaz jabetzen diren nekazarien artean: batak nolako onginahiz landatzen eta txukuntzen duen eta besteek nolako zikoizkeriaz hartzen duten, beraiek ezertxo ere egin gabe. Gero indarrez defenditzen dute mahastia armagabe

Garizumako 2. astea

San Benito, *abadea, fundatzailea (Beneditarrak)*San Filemon, *martiria*San Justiniano, *gotzaina*

datorkienarengandik. Jainkoaren ontasuna mehatxua dela uste dute. Jainkoak mundu zoragarria sortu du, eta dei egiten digu bere ontasun eta zuzentasunaren fruituak eskerturik eskain ditzagun. Hala ere, Jesus hil dugu, bere Seme maitea eta bidalia, eta erasoka jarraitzen dugu haren aurka historiako biktimengan. Giza bihotza eraldatzeko galdezka ari da mundua, hartutako hainbeste on Jainkoari itzultzeko, elkarrekin konpartituz eta giza familia adiskidetua sortuz.

* * *

Gida nazazu

Gida nazazu, Jauna, Pazko bidean.
Irakatsi entzuten, eta findu nire belarria,
zure Hitza uler dezadan, bertan eskaintzen
didazun guztia jaso dezadan,
eta eskatzen dizkidazun jarrerak landu ditzadan.
Emadazu argia,
ilunpe garai hauetan,
zure urratsak nabaritzeko
eta zure bidelagun izateko.
Ireki nire burua eta bihotza,
neugana muga ez nadin
eta nire pentsamenduetan nahas ez nadin.
Eman eta jasotzen,
harrera egin eta laguntzen asma dezadan.
Nire bizitzan ditudan eguneroko eginkizun
eta bizikizunen bidez
zeurekin topo egin dezaadala,
horrela zure bake eta poza nireganaturik
zeurekin ikasiko dut maitatzen.

(Antonio González. *Orar 301*)

Garizumako 2. astea

Santa Basilisa, *martiria*Santa Erlinda, *aitorlea*

Mikeasen profezia liburutik 7, 14-15.18-20: Itsas hondora botako ditugure bekatu guztiak. Sal 102: Bihozbera eta errukiorra da Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 15, 1-3.11-32.

Aldi hartan, zergalariak eta bekatariak hurbildu ohi zitzaizkion Jesusi, entzutera. Eta fariseuak eta lege-maisuak marmarrean hasi ziren, esanez: «Honek ongi hartzen ditu bekatariak, eta jan ere egiten du haiekin». Orduan, parabola hau esan zien Jesusek: «Gizon batek bi seme zituen. Gazteenak esan zion aitari: “Aita, emadazu dagokidan senipartea”. Eta aitak ondasunak banatu zizkien. Handik egun gutxira, seme gazteena, zituen guztiak bildurik, urrutiko herrialde batera joan zen, eta han, lasaikerian biziz, ondasun guztiak jan zituen. Dena xahutu zuenean, gosete handia sortu zen herrialde hartan eta beharra sentitzen hasi zen. Orduan, herrialde hartako batengana joan eta haren morroi jarri zen, eta hark bere sailetara bidali zuen txerriezain. Txerrien janari zen ezkurrez sabela betetzeko gogoak ematen zion, ez baitzion inork jaten ematen. Orduan, bere baitara itzulirik, esan zuen: “Hamaika langile bada nire aitarenean, nahikoa ogi duela, eta ni hemen goseak hiltzen. Jaiki, aitagana joan eta esango diot: Aita, bekatu egin dut Jainkoaren eta zure aurka. Ez dut gehiago seme izena merezi. Har nazazu zeure langileetako bat bezala”. Eta jaiki eta aitagana abiatu zen. Artean urruti zegoela, ikusi zuen aitak eta erruki izan zuen, eta, lasterka joanik, besarkatu eta musuka hasi zitzaion. Semeak esan zion: “Aita, bekatu egin dut Jainkoaren eta zure aurka. Ez dut gehiago seme izena merezi...”. Aitak, ordea, esan zien morroiei: “Atera berehala soinekorik ederrena eta jantzi iezaiozue; ipini eraztuna eskuan eta jantzi oinetakoak; ekarri zekor gizendua eta hil; egin dezagun festa-otordua, nire seme hau hila baitzegoen eta berriz bizi da, galdua zegoen eta aurkitu egin dugu”. Eta festa hasi zuten. Seme zaharrena soroan zen. Etxera hurbiltzean, soinua eta dantzak sumatu zituen, eta, morroi bati deiturik, zer gertatzen zen galdetu zion. Morroiak

Garizumako 2. astea

Santa Basilisa, *martiria*Santa Erlinda, *aitorlea*

erantzun: “Zure anaia etorri da eta zuen aitak zekor gizendua hil du, semea onik bereganatu duelako”. Seme zaharrena biziki haserretu zen, eta ez zuen sartu nahi. Atera zen aita eta erreguka hasi zitzaion. Baina hark erantzun zion aitari: “Hainbeste urte da zure zerbitzuan nagoela, zure agindurik behin ere huts egin gabe, eta ez didazu sekula antxume bat ere eman lagun artean jateko, eta horrako zure seme hori, emagalduekin zure ondasunak jan dituen hori, etorri denean, zekor gizendua hil diozu”. Aitak erantzun zion: “Seme, zu beti nirekin zaude, eta nirea den guztia zeurea duzu. Baina egoki zen festa egitea eta poztea, zure anaia hau hila baitzegoen eta berriz bizi da, galdua zegoen eta aurkitu egin dugu”».

Jesusek hartu egiten zituen gaixoak eta bekatariak eta horrek haserretu egiten zituen fariseuak eta legelariak. Gure burua hiru ispilutan begiratzeko parabola hau proposatzen digu Jesusek: seme gaztearen ispiluan, seme zaharrenarenean eta Aitarenean. Badaukagu zerbait hiruetako bakoitzarena. On egingo digu bi lehenei begiratzeak, gure bekatuaz jabeturik gizatiartu gaitezen. Baina garrantzitsuena ahaztu gabe, alegia, gure giza bokazioak Aitaren gero eta antz handiagoa izatera garamatza egunero. Haren maitasuna da parabola honen protagonista. Maitasun hori ari da ari, are oroitzapen hutsa denean ere, seme gazteenaren buruan. Tira egiten dio maitasun horrek etxera itzularazteko, beti maite duten leku hartara. Han dauka zain aita ona, besarkatuz, musuka hartuz eta bere bizitza berria ospatuz.

Garizumako 3. astea

San Toribio Mogrovejokoa, *gotzaina*San Jose Oriol, *apaiza*

Irteera liburutik 3, 1-8a.13-15.

Egun haietan, Moisesek bere aitaginarreba Jetroren, Madiango apaizaren, ardiak zaintzen zituen. Behin, basamortuan barna eraman zituen eta Horebera, Jainkoaren mendira, iritsi zen. Han Jaunaren aingerua agertu zitzaion, sasi artean pizturiko sugarrean. Moisesek ikusi zuen sasia, sutan egonik ere, ez zela erretzen. Moisesek esan zuen: «Hurbil nadin gauza harrigarri hori ikustera: nola izan liteke sasia ez erretzea?». Begiratzera zetorrela ikustean, Jaunak dei egin zion sasi artetik: «Moises, Moises!». Honek erantzun: «Hemen nauzu». Eta Jaunak: «Ez hurbildu; kendu oinetakoak, zauden tokia lur santua da eta». Eta gaineratu zuen: «Zure arbasoen Jainkoa naiz Ni, Abrahamen Jainkoa, Isaaken Jainkoa eta Jakoberen Jainkoa». Moisesek aurpegia estali zuen, Jainkoari begiratzeko beldurrez. Jaunak esan zion: «Ikusi dut neure herriaren atsekabea Egipton eta entzun dut haien oihua beren zapaltzaileen zigorpean; bai, jabetu naiz haien oinazeez. Eta haiek egiptoarren eskuetatik libratzera etorri naiz, eta lurralde hartatik lurralde on eta zabal batera, esnea eta ezta darizkion lurraldera, igoaraztera». Moisesek esan zion Jainkoari: «Hara, joango naiz israeldarengana eta “Zuen arbasoen Jainkoak bidali nau zuengana” esango diet; baina haiek “Nola du izena?” galdetzen badidate, zer erantzun behar diet?». Jainkoak esan zion: «Naizena naiz Ni. Hau esango diezu israeldarrei: “Naizena naiz” deritzanak bidali nau zuengana». Gainera, Jainkoak esan zion Moisesi: «Esan israeldarrei: “Jaunak, zuen arbasoen Jainkoak, Abrahamen Jainkoak, Isaaken Jainkoak eta Jakoberen Jainkoak, bidali nau zuengana. Horixe izango da nire izena betiko; honela deituko nauzue belaunez belau»».

Garizumako 3. astea

San Toribio Mogrovejokoa, *gotzaina*

San Jose Oriol, *apaiza*

Sal 102: Bihozbera eta errukiorra da Jauna.

San Paulok 1 Korintoarrei 10, 1-6.10-12.

Senideok: Jakin behar duzue, gure arbasoak denak egon zirela hodeipean eta denek igaro zutela itsasoa; denek hartu zuten bataioa hodeian eta itsasoan, Moisesekin bat egiteko; denek jan zuten espirituzko janari bera, eta denek edan espirituzko edari bera. Izan ere, beraiekin zihoan espirituzko harkaitzetik edaten zuten; eta harkaitz hura Kristoren irudi zen. Hala ere, haietako asko eta asko ez zitzaion atsegin izan Jainkoari, eta hilda gelditu ziren basamortuan. Gauza hauek guretzat ikasbide izateko gertatu ziren, gaiztakeriarik irrika ez dezagun, haiek irrikatu zuten bezala. Ez zaitez tala marmarrean ari, haietako batzuk ari izan ziren bezala, eta aingeru suntsitzailearen esku hil ziren. Hau guztia gure ikasbiderako gertatu zitzairen eta gure eskarmenturako idatzi zen, azken garai hauetan bizi garenok zentzarazteko. Beraz, zutik dagoela uste duena ibil bedi kontuz, eror ez dadin.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 13, 1-9.

Aldi hartan, etorri zitzaizkion batzuk Jesusi, galilear batzuei gertatuaren berri ematera: nola Pilatok hil zituen, eskaintzen ari ziren opariari odolarekin haiena nahastuz. Jesusek erantzun zien: «Uste al duzue galilear haiek gainerako galilearrak baino bekataria go zirela, horrelako heriotza izan zutelako? Ezetz diotsuet, eta, bihotz-berritzen ez bazarete, guztiok era berean galduko zarete. Eta Siloeko dorrea gainera erorita hil ziren hemezortzi haiek, uste al duzue gainerako jerusalemdarrak baino errudunagoak zirela? Ezetz diotsuet, eta, bihotz-berritzen ez bazarete, guztiok era berean galduko zarete». Eta parabola hau esan zien: «Gizon batek pikondo bat zeukan, bere mahastian landatua. Joan zen piku bila eta ez zuen aurkitu. Orduan,

Garizumako 3. astea

San Toribio Mogrovejokoa, *gotzaina*San Jose Oriol, *apaiza*

esan zion mahastizainari: “Bada hiru urte pikondo honetara piku bila natorrela, eta ez dut aurkitzen. Moztu ezazu. Zertako eduki hor, lurra alferrik jaten?”. Mahastizainak, ordea, erantzun zion: “Jauna, utzazu aurtengoz; bitartean, ingurua aitzurtu eta ongaria botako diot, ea aurrerantzean fruiturik ematen duen; eta bestela, moztu”».

Pertsonak jasaten dituzten zorigaitzak Jainkoaren zigorraren ondorioz gertatzen direla sinetsiko dugu behar bada, Jesusengana inguratzen diren juduek bezala. Ezbehar batzuk hain ulertezinak gertatzen zaizkigu, ezen pairatzen dituztenei botatzen baitiegu haien errua. Jesusek dio ez bilatzeko errudunik eta ez uste izateko bizitza okertu zaienak baino hobeak garenik. Aldi berean, Jainkoak bizitza onaren emaitzak espero ditu gugandik. Jesus pazientziaz eta kontuz aritzen den mahastizaina da eta mahastiak agorra dirudienean ere zaindu egiten du, fruitua eman dezan. Itxaroten eta lanean jarraitzen du. Gukan ari da, baina guri dagokigu bizimodua aldatzea, Ebanjelioaren arabera izan dadin. Haren pazientzia arrazoizkoa baino harago doa, izan ere uste ona du gure bihotz-berritzean. Bihotz-berritze hori barne jarrera bat da, Jainkoak maite duela entzuten duenarena, baina jokaera bat ere bada, Jainkoak bezala jokatzeko: kontuz, pazientziaz, maitatuz eta askatuz. Halakoa da, bai, Jainkoa, bere herria askatu eta gidatzen duena, errukiz, esnea eta ezia darizkion lurraldea aginduz eta hara eramanez.

* * *

«Solaskideari entzutea berezkoa du giza harreman orok, eta, gainera, hala egiten duenak erakusten du prest dagoela bestea onartzeko. (...) Baina gaurko mundua, gehien-gehiena, gor samarra da» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 48).

Garizumako 3. astea

San Segundo, *martiria*Santa Katalina Suediakoa, *abadesa*San Oscar Romero, *martiria*, *San Salvadorreko artzapezpikua*

Erregeak 2. liburutik 5, 1-15a: Bazen legenardunik asko Israelen; hala ere, ez zen haietako inor sendatu, Siriako Naaman baizik.

Sal 41: Jainko biziaren egarri naiz: noiz iritsiko ote naiz Jainkoaren aurpegia ikustera?

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 4, 24-30.

Aldi hartan, Jesus Nazaretera joan zen. Eta sinagogan jendeari esan zion: «Hara Nik egia esan: Ez da profetarik bere herrian onartua denik. Egiaz esaten dizuet: Bazen emakume alargunik asko Israelen Eliasen garaian, hiru urte eta sei hilabetez euria egin gabe egonik, lurralde guztian gosete gorria izan zenean; hala ere, Jainkoak ez zion haietako inori bidali Elias, Sidon herrialdeko Sareptako alargunari baizik. Eta bazen legenardunik asko Israelen Eliseo profetaren garaian; hala ere, ez zen haietako inor sendatu, Siriako Naaman baizik». Hauek entzutean, sinagogan zeuden guztiak amorruez bete ziren. Eta jaikirik, Jesus herritik kanpora atera eta herria eraikia zegoen mendiko amildegira eraman zuten, handik behera botatzeko asmotan. Baina Jesus haien erditik igaro eta bere bidetik joan zen.

Herriek arriskua izaten dute, hurbilekoen talentuak aitortzen ez dituen jarrera kaindarrean kateaturik gelditzeko. Besteen gaitasunak mehatxutzat hartzen dira eta horrek galarazi egiten die ahalmenak garatzea. Pobretzea dakarten jelsiak dira. Antzeko zerbait gertatzen zaio Jesusi bere lurraldean, Nazareten. Beretarrak errealitate honen aurrez aurre jarri ditu eta amildu egin nahi dute. Gatazka, arrazoi bategatik eta besteagatik, era batean eta bestean, bidera atera zitzaion Jesusi jendaurreko bizitzan zehar. Gure lurrean profetak izan daitezkeen gizon-emakumeekin bizi gara: jende bihotz-zabalak, gizarte berriak urratzeko ezinbestekoak ditugun talentuz jantziak. Egiegun toki beren ahalmenak garatu ditzaten, beren ahaleginei azpiak jan gabe. Funtsezkoa dugu guztion onarentzat.

Garizumako 3. astea
Jaunaren Gizakundearen adierazpena
San Dimas (*lapur ona*)

Isaias Profetaren liburutik 7, 10-14.

Egun haietan, mezu hau eman zion Jaunak Akaz erregeari Isaias profetaren bidez: «Eska iezaiozu Jaunari, zeure Jainkoari, ezaugarri bat zeuretzat, lurraren barrenean nahiz zeruen goiengan». Akazek erantzun zion: «Ez dut ezaugarririk eskatuko, ez dut tentatuko Jauna». Orduan Isaiasek esan zuen: «Entzun, Daviden etxe: Gutxi al deritzozue gizakientzat aspergarri izateari? Nire Jainkoarentzat ere aspergarri izan behar al duzue? Horregatik, Jaunak berak emango dizue ezaugarria. Begira, birjina haurdun dago eta semea izango du; Emmanuel ipiniko dio izena, hau da, “Jainkoa gurekin”».

Sal 39: Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egin dezadan.

Hebrearrei egindako gutunetik 10, 4-10.

Senideok: Zezenen eta akerren odolak ez ditzake bekatuak desegin. Horregatik, Kristok, munduan sartzean, dio: «Ez zenuen oparirik eta eskaintzarik nahi izan; baina gorputza eratu zenidan. Erre-oparirik eta bekatuen barkamen-oparirik ez zenuen atsegin izan. Orduan, esan nuen: Hemen nauzu, Jainko, zure nahia betetzeko; hau dago Liburuan nitaz idatzia». Lehendabizi dio: «Ez zenuen nahi izan, ez atsegin izan, oparirik eta eskaintzarik, ez erre-oparirik, ez bekatuen barkamen-oparirik», nahiz eta gauza guztiok legeak agindutakoak izan. Ondoren beste hau dio: «Hemen nauzu, zure nahia betetzeko». Lehenengo kultua kentzen du, bigarrena jartzeko. Eta Jesu Kristok, behin betiko egin zuen bere gorputzaren opariaren bidez, Jainkoaren nahia bete duelako izan gara gu sagaratuak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 26-38.

Aldi hartan, Gabriel aingerua bidali zuen Jainkoak, Nazaret zeritzan Galileako herri batera, birjina batengana; birjinak Maria

Garizumako 3. astea

Jaunaren Gizakundearen adierazpena

San Dimas (*lapur ona*)

zuen izena eta Jose zeritzan Daviden jatorriko gizon batekin ezkontzeko hitzemanana zegoen. Aingeruak, Mariaren etxean sartu eta esan zion: «Poztu zaitez, graziaz bete hori! Jauna zurekin». Ikaratu zen Maria hitz haiek entzutean, eta pentsatzen jarri zen, zer izan ote zitekeen halako agur hura. Aingeruak esan zion: «Ez beldur izan, Maria; Jainkoak gogoko zaitu. Begira, sabelean sortu eta semea izango duzu, eta «Jesus» ipiniko diozu izena. Handia izango da; Goi-goikoaren Seme deituko diote, eta Jainko Jaunak bere aita Daviden errege-aulkia emango dio; Jakoben herriaren errege izango da beti, eta haren erregetzak ez du azkenik izango». Mariak esan zion aingeruari: «Nola gerta daiteke hori, ez bainaiz inongo gizonekin bizi». Aingeruak erantzun zion: «Espiritu Santua jaitsiko da zugana eta Goi-goikoaren indarrak bere itzalpean hartuko zaitu; horregatik, zugandik jaioko dena santua izango da eta Jainkoaren Seme deituko diote. Hara, Elisabet zure ahaidea ere haurdun dago bere zaharrean, eta sei hilabeteko dago agorra omen zena; Jainkoarentzat ez baita ezer ezinik». Mariak, orduan: «Hona hemen Jaunaren mirabea; gerta bekit zuk diozun bezala». Eta aingeruak utzi egin zuen.

Jainkoak gure artean banatu nahi izan du guztia, bete-beteaz egagutu genezan, gizon-emakumeok elkarri buruz dakigun bezala. Giza haragi egin da, guri Jainkoaren egiazko aurpegia ikusten laguntzeko. Jainkoak aukeratu ahal izan zuen non eta nola jaio. Jesus Mariagandik sortu zen, Erromako inperioaren bazterreko herri urrun bateko emakume behartsu, xume eta gazte batengandik. Jesusek, bere txirotasunean, guztiok hartzen gaitu, eta bere txikitasun sozialean erakusten digu ez dagoela inor alde batera uzterik, den-denak garela baliotsuak Jainkoaren begientzat. Inor ez da beste inor baino gutxiago. Guztiok berdin maitatuak gara Jainkoaren bihotz zabal eta errukitsuaren barruan. Jainkoa gure artean agertzen da Mariak baietz esaten dionean Jainkoaren historian parte hartzeari. Maria ez da ezertaz konturatzen ez den gajo bat. Zailtasunez jabeturik, Jainkoari

Garizumako 3. astea
Jaunaren Gizakundearen adierazpena
San Dimas (*lapur ona*)

bere bizitzako atea irekitzen dion emakumea da. Aurre egin beharko die bakardadeari, gaizki-ulertuei eta sortuko zaizkion makina bat galderari. Horri guztiari esaten dio baietz, Jaunak gure giza historian esku har dezan. Gure haragian uzten dio Jainkoari Jainko izaten, haren salbamen-bide izateko.

* * *



Altzo Muino. Erretaula.

Garizumako 3. astea

San Braulio, *gotzaina*

San Kastulo, *martiria*

Deuteronomio liburutik 4, 1.5-9: Gorde itzazue eta bete nire aginduak.

Sal 147: Jerusalem, ospa ezazu Jauna!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 17-19.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez uste izan Moisesen legea edota profeten esanak baztertzera etorria naizenik; ez naiz baztertzera etorri, beren betera eramatera baizik. Benetan diotsuet: Zeru-lurrek iraungo duten bitartean, legearen letrarik edo zeinurik txikienak ere ez du baliorik galduko, dena bete arte. Beraz, agindurik txikienetako bat hausten duena eta hausten irakasten, txikiena izango da zeruetako erreinuan; betetzen duena, berriz, eta betetzen irakasten, handia izango da zeruetako erreinuan».

Idazki hau Zoriontasunen eta Jainkoaganako eta hurkoaganako maitasun aginduaren testuinguruan kokatzen da. Maitasuna gauza txikietan adierazten eta ezagutzen da; ez du neurririk eta horregatik txerazko adierazpenaren azken mugetaraino heltzen da. Hori eskatzen digu Jesusek, maitasun lege horren arnasa bazter guztietaraino eramateko, berak egin zuen bezala. «Legearen azken hizkia edo azentua» eta guzti betetzeak esan nahi du ez dugula ahaztu behar maitasunaginduaren eskarietako bat bera ere. Izan ere, azkenean, fereka, begirada, gau eta eguneko arreta eta ardura dira legearen amaierako letrak. Haietara iritsi ezean, zein geza den gainerako guztia.

Garizumako 3. astea
Santa Lidia, *martiria*
San Ruperto, *gotzaina*

Jeremias profetaren liburutik 7, 23-28: Hona Jaunaren, bere Jainkoaren, mintzoa entzun ez duen herria. **Sal 94:** Entzungo ahal duzue gaur Jaunaren mintzoa: «Ez gogortu zeuen bihotza».

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11, 14-23.

Aldi hartan, gizon bat mututurik zeukan deabrua botatzen ari zen Jesus. Deabrua atera bezain laster, mutua hizketan hasi zen. Jendea harriturik gelditu zen; batzuek, ordea, honela zioten: «Deabruen buruzagi den Beeltzebulen indarrez botatzen ditu honek deabruak». Beste batzuek, azpikeriaz, Jainkoagandiko seinale bat eskatzen zioten. Igarri zizkien Jesusek beren burutazioak eta esan zien: «Bere baitan zatiturik dagoen erreinua erraustu egingo da eta etxea etxearen gain eroriko. Era berean Satanas ere: bere baitan zatiturik badago, nola iraun dezake haren erreinuak? Zuek diozuenez, Nik deabruak Beeltzebulen indarrez botatzen ditut. Baina Nik deabruak Beeltzebulen indarrez botatzen baditut, noren indarrez botatzen dituzte zuen ikasleek? Horregatik, zeuen ikasleak izango dituzue epaile. Baina Nik deabruak Jainkoaren indarrez botatzen baditut, garbi dago iritsi dela zuengana Jainkoaren erreinua. Gizon indartsu batek, armaturik, bere jauregia zaintzen duen bitartean, seguru dauzka bere ondasunak. Baina indartsuago den batek eraso eta menderatzen badu, segurantzia ematen zioten armak kendu, eta banatu egiten ditu hari harrapatutako ondasunak. Nire alde ez dagoena nire aurka ari da, eta nirekin biltzen ez duenak sakabanatu egiten du».

Zapalketa giroan, mutuak ugaritu egiten dira hitz egiteko beldurrez, baina Jesus agertzean mingainak askatzen dira eta ausardia eta askatasunari bide ematen zaie. Jesusekin etorri datorren Erreinua ganean dela agertzen duen adierazpenetako bat da. Asko harrituta geratzen da, baina bada Maisuak eskatzen duen bihotz-berritzeari entzungor egiteko aitzakia berri bat aurkitzen duenik. Ziriari zotza

Garizumako 3. astea
Santa Lidia, *martiria*
San Ruperto, *gotzaina*

sartuz, salatzen dute deabruen printzea delako daukala Jesusek boterea haien gain. Jesusek erraz gezurtatzen du hori: nola borrokatuko da ba deabruen printzea deabruen beraien aurka? Jesusekin pilatuz doaz Erreinua hemen dela erakusten duten seinaleak, baina bada, setoso, mugitzen ez denik. Erabaki ausarten garaia da.

* * *

Gurutze-bidea

Esperantzaren eta pazientziaren Ama,
zuri deika gaude,
izan zaitez gure ararteko
zure semeari zuzentzen diogun otoitzean:
ihesaren eta ezinegonaren bidetik bait gabiltza,
ager bedi gure bidera,
Emauseko dizipuluei hurbildu zitzaizen bezala. Amen.

(Martini Kardinala)

Oseasen profezia liburutik 14, 2-10: Ez diegu gehiago «geure jainko» esango geure eskuz eginei. **Sal 80:** Ni naiz Jauna zure Jainkoa, entzun nire mintzoa.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12, 28b-34.

Aldi hartan, hurbildu zen Jesusengana lege-maisu bat eta galdetu zion: «Zein da agindu guztietan nagusiena?». Jesusek erantzun: «Hau da nagusiena: “Entzun, Israel: Jauna gure Jainkoa Jaun bakarra da. Maita ezazu Jauna zeure Jainkoa bihotz-bihotzez, gogo osoz, adimen guztiz eta indar guztiz”. Bigarrena, berriz, hau da: “Maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala”. Ez da hauek baino agindu handiagorik». Lege-maisuak esan zion: «Ederki, Maisu; egia diozu Jainkoa bakarra dela eta ez dela hura besterik esatean, baita hura bihotz-bihotzez, adimen guztiz eta indar guztiz maitatzea, eta lagun hurkoa nork bere burua bezala maitatzea, erre-opari eta sakrifizio guztiak baino hobeago dela esatean ere». Eta Jesusek, zuhurki erantzun zuela ikusirik, esan zion: «Ez zaude urruti Jainkoaren erreinutik». Eta handik aurrera, ez zen inor galderarik egitera ausartzen.

Judu bati bat-batean etortzen zitzaion ezpainetara lehen agindua: Jainkoa bihotz-bihotzez, gogo osoz eta adimen guztiz maitatzea. Bere historian zehar Jainkoaren askapen egintzagatik barru-barrutik eskertua zegoen herriak ezin zion Haren errukiari handikiro erantzun baino. Baina Jesusek bigarren agindu bat erantsiko du, lehenarekin modu banaezinean batuta dagoela sinetsita: lagun hurkoa maitatzea, nork bere burua bezala. Lehenak bigarrena motibatzen du eta bigarrenak lehenaren adierazten. Ezin dira independenteak balira bezala bizi. Orduz geroztik, kristauok Jainkoa lagun hurkoengan maitatzen ahalegindu gara eta lagun hurkoak Jainkoagan maitatzen.

Garizumako 3. astea

San Konstantino, *abadea*.Santa Gladys, *erregina*

Oseasen profetia liburutik 6, 1-6: Nahiago dut maitasuna sakrifizioak baino. **Sal 50:** Nahiago dut maitasuna sakrifizioak baino.

Jesu Kristoren ebanjelioa San Lukasen liburutik 18, 9-14.

Aldi hartan, parabola hau esan zien Jesusek beren burua zintzotzat hartzen eta besteak gutxiesten zituzten batzuei: «Bi gizon igo ziren tenplura otoitz egitera, bata fariseua eta bestea zergalaria. Fariseuak, zutik, honela egiten zuen otoitz bere barruan: “Eskerrak ematen dizkizut, ene Jainko, besteak bezalakoa ez naizelako: lapur, gaizkile, adulteriogile; ezta horrako zergalari hori bezalakoa ere. Astean bitan egiten dut barau, eta ditudan guztien hamarrenak ematen ditut”. Zergalaria, berriz, urruti gelditurik, ez zen begiak zerura jasotzera ere ausartzen, baizik eta bular joka ari zen, esanez: “Ene Jainko, erruki zakizkio bekatari honi!”. Hara zer diotsuedan: azkeneko hau Jainkoarekin adiskideturik itzuli zen etxera; bestea, berriz, ez. Izan ere, bere burua goratzen duena beheratu egingo du Jainkoak, eta bere burua beheratzen duena goratu».

Jesusek bizitzeko bi jarrera kontrajartzen ditu: bat, den bezalakoa delako eta bere jokaera moral zuzenagatik harro egotea, eta, aldiz, beste bat, eskasa delako, Jainkoaren eta besteen aurrean hutsaren hurrena dela pentsatzea. Bigarrenak bakarrik egiten gaitu Jainkoagana iristeko gauza. Harrokeria moralak handiusteko izanarazten digu eta ez digu uzten Jainkoari zain gaitzan eskatzen; baldintza horietan, alferrik dago Jainkoa. Gainera, nagusi sentitzen gara eta mespretxuz edo lainzezaz begiratzen diegu besteei. Ez garela duin eta txikiak garela dakigunean, oster, hauskortasunaren zirrikitu horretatik sartzen zaigu Jainkoa, sendatuz eta askatuz. Errukarri sentitzen garenean, senidetu gaitzeko beste gizon-emakumeekin. Honetan ez dago lasakeria moralerako gonbiterik, sakon bizitzea aukeratzeko deia baizik.

Garizumako 4. astea

San Joan Klimako, *abadea*Santa Irene, *martiria*

Josue liburutik 5, 9. 10-12.

Egun haietan, Jaunak esan zion Josueri: «Gaur kendu dizuet gainetik Egiptoko lotsaria». Israeldarrek Gilgalen jarri zuten kanpalekua eta hilaren hamalauan, arratsaldean, Pazko-jaia ospatu zuten Jerikoko zelaian. Pazko-biharamunean lurraldeko fruituetatik jan zuten: legamiagabeko ogiak eta gari-ale txigortua. Lurraldeko fruituetatik jaten hasi ziren egunetik aurrera, bukatu egin zen mana. Israeldarrek ez zuten gehiago manarik izan, eta urte hartan Kanaango lurraldeko emaitzez janaritu ziren.

Sal 33: Dasta ezazue eta ikusi zein ona den Jauna.

San Paulok 2 Korintoarrei 5, 17-21.

Senideok: Kristorena dena sorkari berri da; zaharrarenak egin du, berria sortu da. Hau guztia Jainkoagandik dator, Kristoren bitartez berekin adiskidetu baikaitu, eta adiskidetzeko zerbitzua guri eman digu. Izan ere, Jainkoa ari zen Kristogan mundua berekin adiskidetzen, gizon-emakumeei bekaturen kontua eskatu gabe, eta guri eman digu adiskidetzearen mezua. Senideok: Kristoren mandatari gara, eta gure bitartez Jainkoak berak erregutuko balizue bezala da. Kristoren izenean eskatzen dizuegu: adiskidetu zaitezte Jainkoarekin. Bekatuarekin zerikusirik izan ez zuen hura, Jainkoak gugatik bekatuarekin bat egin zuen, guk haren bitartez Jainkoaren salbamena iritsi genezan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 15, 1-3. 11-32.

Aldi hartan, zergalariak eta bekadariak hurbildu ohi zitzaizkion Jesusi, entzutera. Eta fariseuak eta lege-maisuak marmarrean hasi ziren, esanez: «Honek ongi hartzen ditu bekadariak, eta jan ere egiten du haiekin». Orduan, parabola hau esan zien Jesusek: «Gizon batek bi seme zituen. Gazteenak esan zion aitari: “Aita, emadazu dagokidan

Garizumako 4. astea

San Joan Klimako, *abadea*Santa Irene, *martiria*

senipartea”. Eta aitak ondasunak banatu zizkien. Handik egun gutxira, seme gazteena, zituen guztiak bildurik, urrutiko herrialde batera joan zen, eta han, lasaikerian biziz, ondasun guztiak jan zituen. Dena xahutu zuenean, gosete handia sortu zen herrialde hartan eta beharra sentitzen hasi zen. Orduan, herrialde hartako batengana joan eta haren morroi jarri zen, eta hark bere sailetara bidali zuen txerrizain. Txerriek jaten zuten ezkurrez sabela betetzeko gogoak ematen zion, ez baitzion inork jaten ematen. Orduan, bere baitara itzulirik, esan zuen: “Hamaika langile bada nire aitarenean, nahikoa ogi duela, eta ni hemen goseak hiltzen. Jaiki, aitagana joan eta esango diot: Aita, bekatu egin dut Jainkoaren eta zure aurka. Ez dut gehiago seme izena merezi. Har nazazu zeure langileetako bat bezala”. Eta jaiki eta aitagana abiatu zen. Artean urruti zegoela, ikusi zuen aitak eta erruki izan zuen, eta, lasterka joanik, besarkatu eta musuka hasi zitzaion. Semeak esan zion: “Aita, bekatu egin dut Jainkoaren eta zure aurka. Ez dut gehiago seme izena merezi...”. Aitak, ordea, esan zien morroiei: “Atera berehala soinekorik ederrena eta jantzi iezaiozue; ipini eraztuna eskuan eta jantzi oinetakoak; ekarri zekor gizendua eta hil; egin dezagun festa-otordua, nire seme hau hila baitzegoen eta berriz bizi da, galdua zegoen eta aurkitu egin dugu”. Eta festa hasi zuten. Seme zaharrena soroan zen. Etxera hurbiltzean, soinua eta dantzak sumatu zituen, eta, morroi bati deiturik, zer gertatzen zen galdetu zion. Morroiak erantzun: “Zure anaia etorri da eta zuen aitak zekor gizendua hil du, semea onik bereganatu duelako”. Seme zaharrena biziki haserretu zen, eta ez zuen sartu nahi. Atera zen aita eta erreguka hasi zitzaion. Baina hark erantzun zion aitari: “Hainbeste urte da zure zerbitzuan nagoela, zure agindurik behin ere huts egin gabe, eta ez didazu sekula antxume bat ere eman lagun artean jateko, eta horrako zure seme hori, emagalduekin zure ondasunak jan dituen hori, etorri denean, zekor gizendua hil diozu”. Aitak erantzun zion: “Seme, zu beti nirekin zaude, eta nirea den guztia zeurea duzu. Baina egoki zen festa egitea eta poztea, zure anaia hau hila baitzegoen eta berriz bizi da, galdua zegoen eta aurkitu egin dugu”».

Garizumako 4. astea

San Joan Klimako, *abadea*Santa Irene, *martiria*

Gure jatorrizko etxea Aitaren etxean dago. Berak egiten gaitu aske, bizia gure eskuetan jarritz. Nahiz eta kanpoa arriskutsua izan, seme gazteenak, seme zelako, aske izan beharra zeukan. Mutilak senipartea hartu eta xahutu egin zuen, giza hondamendirantz amilduz. Bere irrika guztiak ase nahirik, bakardadean eta etsipenean erori zen. Orduan, Aitarenean bizi izandakoaz oroitzeak etxerako bidea erakutsi zion. Gizarte bezala aspaldi jaso genuen ondarea eta utzi gurasoen etxea. Nahastuta eta sinesgogortuta, itzulerako arrastoa galdu dugu eta ez dakigu nora jo. Aita zain dugu irrika biziak, baina hura izan badela ahaztuta gaude eta harat-honat gabiltza noraezean, gogorik gabe eta itxaropenik ere gabe. Aitak giza askatasuna errespetatzen du, baina beti dago zain. Parabolari ortzi-mugara begiratzen du, seme gaztea itzuliko dela sinetsita. Iristen denean, lehen aldiz jabetzen da seme hura Aitaren maitasunaz: ez dio ezer aurpegiratzen, bere altzoan hartzen du, besarkatuz, musukatuz, eta berriro sendian hartuz. Horrela gertatzen da gaur egun ere, besarkatzeko zain-zain dugu Aita, jakin dezagun neurrigabe maite gaituela, azken askatasuna emateraino maite ere.

* * *

«Itxaropena izan dezazuela eskatzen dizuet; (...) Alegia, bizimodu beteak izateko irrika, egardia eta xedea dakarkigu, handia den zerbait lortzeko nahia; (...) Itxaropena ausarta da, badaki norberaren erosotasunetik eta ikusmira mugatzen diguten segurtasun eta konpentsazio txikietatik harago begiratzen» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 55).

Garizumako 4. astea

San Amos, *profeta*Santa Balbina, *birjina*

Isaias Profetaren liburutik 65, 17-21: Ez da han gehiago entzungo negar-hotsik, ez garrasirik. Sal 29: Goratuko zaitut, Jauna, onik atera nauzulako.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 4, 43-54.

Aldi hartan, Jesus Samariatik atera eta Galileara joan zen. Jesusek berak aitortua zuen, profeta ez dutela bere herrian aintzat hartzen. Hala ere, Galileara iritsi zenean, galilearrek harrera ona egin zioten. Izan ere, Jerusalem izanak ziren berak ere eta ikusiak zituzten Jesusek Pazko-jaietan egin zituen guztiak. Jesus Galileako Kanara joan zen berriro, ura ardo bihurtu zuen herrira. Bazen han errege-funtzionario bat, semea Kafarnaumen gaixorik zeukana. Funtzionarioak, Jesus Judeatik Galileara etorri zela jakitean, harengana joan eta bere semea sendatzera jaisteko eskatu zion, hilzorian zegoela eta. Jesusek erantzun zion: «Ezaugarriak eta egintza harrigarriak ikusten ez badituzue, ez duzue sinesten». Baina errege-funtzionarioak berriro: «Zatoz, Jauna, nire haurra hil baino lehen». Jesusek esan zion: «Zoaz etxera, onik duzu-eta semea». Gizonak sinetsi egin zuen Jesusek esana eta joan egin zen. Etxerakoan, morroiak atera zitzaizkion bidera, semea onik zuela esanez. Orduan galdetu zien zer ordutan hasi zen oneratzen. Eta haiek erantzun: «Atzo eguerdiko ordu batean utzi zion sukarrak». Konturatu zen aita ordu hartan esan ziola Jesusek: «Onik duzu semea». Eta sinetsi egin zuten Jesusengan berak eta etxeko guztiak. Judeatik Galileara itzuli zenean egin zuen Jesusek bigarren ezaugarri hau.

Pasarte honek gaixo dagoen haur bat nola sendatzen den aipatzen digu. Aitak, erregearen langilea, Jesusen egintzatzat hartzen du gertaera hori, lehenik, harengana jo baitu esku har zezan erreguka. Zeinua xumea da, gure bizitzako hainbat gertaera bezala. Kontua da nola ulertzen dugun, hutsal edo zoritxarreko gertakari gisa, edota ospatu eta eskertzeko opari bezala. Funtzionario hari, semearen

Garizumako 4. astea
San Amos, *profeta*
Santa Balbina, *birjina*

sendakuntzak, Jesusengan sinestarazi zion, etxeakoak federa erakarrit.
Jesusengana bildu ziren, uste on izan zuten harengan, otoitz egin zioten.
Gure bizitzako gertaerak Jainkoaren dohaintzat ulertzeraz deitzen
zaigu, haren babesa nabaritzeko, eskertuta eta uste oneko sentitzeko.
Horra hor Jainkoaren seinaleak gure bizitzan.

* * *

Ene jainko, maite zaitut

«Ene Jainko, maite zaitut»,
barne-barnetik ateratzen zait.
Hausnartuz,
astakeria bat diodala deritzot.
Dena dela, zurekiko egokia den maitasunaz
maite zaitudala ziur nago.
Badakit maitasunaren sorburu zarela,
zeu zarela lurra betetzen duen
MAITASUNA.
Horrela erantzuten dizut, «bihotz osoz»
Horrelako maitasunak izana beharko luke.
Zuk nitaz nahi duzuna gertatu beharko luke.
Hori nire ukapena baino sendoagoa da.
Hala ere, zuk, barkatu,
Nire mugatasunean ez baitzaitut erabat maitatu.

(Rafael María León. *Orar 301. Egokitua*)

POBREKIN
bide
eginez
eta
ADISKIDETZE
ZUZENTASUN
MISIOAN

APIRILA / JORRAILA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA

Teknologien berrien erabileraren alde: Egin dezagun otoitz teknologia berrien erabilerak giza harremanak ordezka ez ditzan, gizakion duintasuna errespetatuz eta gure garaiko krisiei aurre egiten lagundu dezan.

Garizumako 4. astea

San Venantzio, *gotzaina*Santa Teodora, *martiria*

Ezeikielen Profezia liburutik 47, 1-9.12: Ura ikusi nuen tenplutik irteten; eta ur hori iritsi zitzaien guztiak salbatu egin ziren. **Sal 45:** Jaun ahalguztiduna geurekin dugu, Jakoben Jainkoa gure gotorleku!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 5, 1-3a.5-16.

Aldi hartan, juduen jai bat ospatzen zen, eta Jesus Jerusalemera igo zen. Bada Jerusalem, Ardien Atea delakoaren ondoan, hebreeraz Betzata deritzan uraska bat, bost aterpe dituen. Aterpeetan gaixo asko egon ohi zen, lurrian etzanda: itsu, herren eta elbarri. Bazen han hogeita hemezortzi urtez gaixorik zegoen gizon bat. Jesusek, han etzanda ikusi eta aspalditik egoera hartan zegoela jakinik, esan zion: «Nahi al duzu sendatu?». Gaixoak erantzun zion: «Jauna, ez dut inor ura mugitzean uraskara sartuko naudenik; ni iristerako, besteren batek aurea hartzen dit». Jesusek esan zion: «Jaiki, hartu ohatila eta zabiltza». Une berean sendaturik gertatu zen gizona, ohatila hartu eta ibiltzen hasi zen. Larunbata zen egun hura, atsedeen-eguna. Horregatik, juduek esan zioten sendatuari: «Larunbata da, eta ez duzu zilegi ohatila eramatea». Hark erantzun zien: «Sendatu nauek berak esan dit: “Hartu ohatila eta zabiltza”». Orduan, galdegintza zioten: «Nor da ohatila hartu eta ibiltzeko esan dizuna?». Sendatuak, ordea, ez zekien nor zen, Jesus ezkutatu egin baitzen inguruko jendearen artean. Gero, Jesusek tenpluan aurkitu zuen eta esan zion: «Begara, sendaturik zaude. Ez egin bekaturik berriro, okerragorik gerta ez dakizun». Joan zen gizon hura, eta juduei jakinarazi zien Jesus zela sendatu zuena. Horregatik, hain zuzen, erasotzen zioten juduek Jesusi: larunbatez halako gauzak egiten zituelako.

Bi jai-egun dituzte Jerusalem. Jesusek, ordea, nahiago du hiriaren ingurumenean paseatu: han dira ugari gaixoak, itsuak, herrenak eta ezinduak. Beti, gizakiaren oinazearen bidelagun izan nahi izaten du. Uraska ondoan etzanik dagoen ezinduari galdetu dio: «Nahi

Garizumako 4. astea

San Venantzio, *gotzaina*Santa Teodora, *martiria*

al duzu sendatu?». Ezinduak 38 urte darama han, eta ezin izan du urera joan beste inor baino lehenago. Denbora luzeegia da. Amore eman al du jadanik, eta onartu egin al du bere bizitza guztian dagoen egoeran bizitzea? Uko egin al dio jadanik zutik jartzeari? Hori da Jesusen galderak iradokitzen diguna. Izan ere, adore edo kemen handia behar izaten da aldatzeko, egoera batera, nahiz bera kaltegarria izan, eginak gaudenean. Gure bihotz-berritze gizatarrak eta kristauak behin eta berriz berrituko dugun adorea eskatzen dute.

* * *

Berri onen egunkaria

Bizitzan berri ona izatea,
keinua, hitza, irudia, isiltasuna, abestia izatea.
Kalera irten egunero, azken txokora iritsi.
Luze gabe, denentzat,
eramatea arnasa... Jainkoarena.
Batzuengan jakin-mina esnatzeko
moduan bizitzea, gutxiagorekin, besteekin, arriskuarekin, doan.
Besteek, behartsuek, gure denbora jaten utziz,
beraiengan aurkitu arte, guk, galdutako identitatea.
Eta beti, beti, beti, lekua bilatu jendearen artean.
Bera baita, zalantzarik gabe,
Jainkoaren berri ona.
Beldurak pausatzea, ametsak altxatzea,
bere pausu keinukariak ibiltzea,
guztiek diren altxor handia agerian uztea lortu arte.

(Seve Lazaro. Otoi.eus)

Garizumako 4. astea

San Frantzisko Paulakoa, *ermitaua*

Isaias Profetaren liburutik 49, 8-15: Herriaren itun izateko izendatu zaitut, lurraldea berreraiki dezazun. **Sal 144:** Errukiorra eta bihozbera da Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 5, 17-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zien juduei: «Nire Aita lanean ari da beti, eta Ni ere lanean ari naiz». Esandako honengatik, juduak are gehiago zebiltzan Jesus hil nahian; larunbateko atsedena ez errespetatzeaz gainera, Jainkoa bere Aita zuela baitzioen, bere burua Jainkoaren pareko eginez. Jesusek esan zien: «Egi-egiaz diotsuet: Semeak ez dezake ezer ere bere kabuz egin, Aita egiten ikusten duena besterik: Aitak zer egin, huraxe bera egiten du Semeak ere. Izan ere, Aitak maite du Semea eta berak egiten dituen guztiak erakusten dizkio, eta hauek baino egintza handiagoak ere erakutsiko dizkio, harritu egingo zaituzteten egintzak. Aitak hilak piztu eta bizia ematen dien bezala, Semeak ere bizia ematen die nahi duenei. Aitak ez du inor epaitzen, baizik eta epaitzeko ahalmen guztia Semearen esku utzi du, denek, Aita ohoratzen duten bezala, Semea ere ohora dezaten; Semea ohoratzen ez duenak, hura bidali duen Aita ere ez du ohoratzen. Egi-egiaz diotsuet: Nire hitza entzun eta bidali nauenagan sinesten duenak, betiko bizia du; ez da kondenatua izango, heriotzatik bizira igaroa baita dagoeneko. Egi-egiaz diotsuet: Badator ordua, hobeto esan, iritsia da, hildakoek Jainkoaren Semearen ahotsa entzungo dutena, eta entzuten dutenak biziko dira. Aitak bizia bere baitan duen bezala, Semeari ere bizia bere baitan izatea eman dio. Gainera, epaitzeko ahalmena eman dio, Gizonaren Semea delako. Ez harritu esaten dizuedanaz; badator-eta ordua, hildako guztiak haren ahotsa entzungo dutena, eta hilobietatik aterako direna: ongia egin zutenak betiko bizirako piztuko dira; gaizkia egin zutenak, aldiz, kondenatuak izateko. Nik ez dezaket neurez ezer egin; Aitari entzun bezala epaitzen dut, eta nire epaia zuzena da, ez baitut helburu neure nahia egitea, bidali ninduenarena baizik».

Garizumako 4. astea

San Frantzisko Paulakoa, *ermitaua*

Ebanjelioan, ari eta ari ageri da Jesus beti, jendearekin komunikatzen, pertsonekin hizketan, sendatzen, deabruak uxatzen... Gaurkoan diosku, ari bada, bere Aitak ere hala egiten duelako ari dela. Aita zer egiten ikusi, hura bera egiten du berak. Jesusentzat, Aita ez da gure bizitza konkretuari ezikusiarena egiten dion norbait, baizik eta atsedetik gabe, eta eten gabe, gure bizitza konkretuan buru-belarri nahasia den norbait. Hurbildu eta zaindu egiten du jende desjabetua, jende ahaztua, jende bekataria, gizon eta emakume. Halako jendeagan ditu jarriak bere kezka eta bere begiak, halakoez biziki lehiatuz. Horregatik ari da Jesus ari den bezala. Jesusen jokabide horretan Aitaren jokabidea bera ikus dezakegu. Izan ere, egiazko Jainkoaren aurpegia agertu digu Jesusek, bere seme-alabez samurkiro arduratzen den Aitaren aurpegia.

* * *

«Aitortu beharra dugu aurrean izaten dugula beti besteez ez ardurtzeko tentazioa, (...). Esan dezagun argi: (...) gure gizarte garatu hauetan, ez dakigu ahulenei laguntza, zaintza eta sostengua ematen, ezjakin hutsak gara horretan» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 64).

Garizumako 4. astea

San Sixto 1.a., 7. aita santua

Irteera liburutik 32, 7-14: Egizu atzera, Jauna, zeure herriari egin diozun mehatxutik. **Sal 105:** Oroitu gutaz, Jauna, zeure herriaganako onginahiagatik.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 5, 31-47.

Aldi hartan, Jesusek esan zien judu-agintariei: «Nik neure buruaren alde egingo banu aitormen, nire aitormenak ez luke balioko. Beste batek du nire alde aitormen egiten, eta jakin badakit hark nire alde egiten duen aitormenak balio duela. Zuek mandatariak bidali zenizkioten Joan Bataiatzaileari, eta hark aitormen egin zion egitari. Ez dut hau esaten inongo gizakiren aitormen-beharrik dudalako, zuek salba zaitezten baizik. Joan Bataiatzailea argi-zuzi piztua eta distiratsua zen, eta zuek, alditxo batez, poz hartu nahi izan zenuten haren argiaz. Baina Nik badut Joanen aitormena baino hoberik: Nik betetzeko Aitak eman dizkidan egintzak; nire egintzek egiten dute aitormen nire alde eta Aitak bidali nauela frogatzen. Bidali nauen Aitak berak ere egiten du aitormen nire alde. Baina zuek ez duzue inoiz haren mintzorik aditu, ez haren aurpegirik ikusi, eta haren hitzak ere ez du zuen baitan lekurik, hark bidaliagan ez sinesteak erakusten duen bezala. Aztertzen dituzue Liburu Santuak, betiko bizia haietan aurkituko duzuelakoan, eta horiek dute, hain zuzen, nire alde aitormen egiten; hala ere, ez duzue nigana etorri nahi, betiko bizia izateko. Ez dut gizakiengandik aintzarik onartzen; baina ongi ezagutzen zaituztet eta badakit ez duzuela Jainkoa maite. Ni neure Aitaren izenean etorria naiz, baina zuek ez nauzue onartu; norbait bere izenean etorriko balitz, hura bai, onartuko zenukete. Nola sinets dezakezue zuek, elkarrengandik onartzen baduzue aintza, eta Jainko bakarragandik datorren aintzak ez badizue axola? Ez uste izan Aitaren aurrean Nik salatuko zaituztedanik; bada salatuko zaituzten norbait: Moises bera, zeuen itxaropen duzuen. Izan ere, Moisesi sinetsiko bazeniote, niri ere sinetsiko zenidakete,

nitaz idatzi baitzuen hark; baina hark idatzia sinesten ez baduzue, nola sinetsiko duzue nik esana?».

Moisesez, Liburu Santuek eta Joan Bataiatzaileak testigantza dagite Jesusez. Baina, azkenean, Jesusen egintzak berak dira bera Aitak bidalia dela frogatzen dutenak. Hori sinesteko, ordea, Jainkoaren egintza bezala ikusi behar dira..., eta hori ez da hain gauza sinplea. Jainko batez mintzo zaigu Jesus; Jainko horrengan sinestea, ordea, nekoso gertatzen zaigu. Jende xumea du maiteena Jainko horrek, ez ditu faboratzen merezi dutela ematen duten gizon-emakumeak, bekatariak onartzen ditu, ez du ordaintzen gure zuzenbide-kodearen arabera... Duda-muda agertzen du Jesusek guk Jainkoaz dugun ikusmoldeaz; hain zuzen, horregatik beragatik hartuko dute biraolaritzat. Geure begiak ireki beharrean gara eta beraren egintzei erreparatu beharrean; hauetan ikusiko dugu zein den Jainkoaren egiazko jokabidea munduan: xumea edo txikia den harengan, mespretxatua, zokoratua, ahaztua den harenagan.

* * *

«(...) ez baitugu inoren arazozen erruz gure denbora galdu nahi. Gure gizartearen gaixotasunaren sintomak dira horiek, gizartea gaixorik dagoen seinale, oinazeari bizkarra emanda eraikitzen baitugu gizarte hori» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 65).

Garizumako 4. astea

San Benito Palermokoa, *erlijiosoa*

Jakinduria liburutik 2, 1a.12-22: Heriotza lotsagarriara kondenatuko dugu. Sal 33: Hurbil zaie Jauna bihotz-hautsiei.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 7, 1-2.10.25-30.

Aldi hartan, Jesus Galilean zebilen; ez zuen Judean ibili nahi, juduek hil egin nahi baitzuten. Hurbil zen Etxola-jaia, juduen jaietariko bat. Jesusen senideak jaietara joan zirenean, Jesus ere joan zen; baina ez agerian, erdi ezkutuan baizik. Jerusalemdar batzuek zioten: «Ez al da hau hil nahi dutena? Lasai asko ari da, bada, hizketan, eta ez diote ezer esaten. Onartu ote dute agintariek hau dela Mesias? Baina hau badakigu nongoa den; Mesias etorriko denean, ordean, ez du inork jakingo nongoa den». Orduan, Jesusek, tenpluan irakasten ari zela, oihuka esan zuen: «Ni ezagutzen nauzue eta badakizue nongoa naizen. Baina Ni ez naiz neurez etorri, baizik eta fidagarria denak bidali nau, eta zuek ez duzue hura ezagutzen. Nik, bai, ezagutzen dut, harengandik bainator eta hark bidalia bainaiz». Orduan, atxilotu egin nahi izan zuten; baina ezin izan zion inork eskurik erantsi, ez baitzen artean iritsia haren ordua.

Ingurugiroa Jesusen inguruan eskastuz doa. Beraren bila dabilta, eta Jerusalemen kontuz ibili beharrean gertatu da, noiz agirian ibiliko eta noiz ezkutuan. Aitaren bidalitzat eman du bere burua, haren borondatea betetzen duen pertsonatzat, hura agerian jartzen duen pertsonatzat, hura berak ezaguna duelako. Geure begiak beragan jartzera gonbidatu gaitu, beragan ikustera Jainkoa zer eta zein den, Jainkoaz ditugun geure aurrekontzeptuak alde batera uztera, hainbat aldiz hain okerrak. Giza begiz ikusita, Jesusen bidea pertsona galdu batena dela irudi dakiguke, baina ez, ez da horrelakorik, Jesusengan beragan ikus dezakegu Jainkoak munduan izan nahi duen zoria: bera ezkutuan gelditzea, dakartzan argia, bizia eta ongia bera izatea; Jesusek jasan dituen pertsekuzioan eta heriotzan Aita bera ikustea, eta Jesusen geroko bizian Aitak mundu osoari opa diona ikustea. Hitz batean esateko, bera ezagutzera gonbidatu gaitu Jesusek, beragan Aitaren aurpegia ikusi ahal izateko.

Garizumako 4. astea

San Bizente Ferrer, *apaiza*

Jeremias Profetaren liburutik 11, 18-20: Hiltzera daramaten bildots otzana bezala nintzen ni. **Sal 7:** Zugan babesten naiz, Jauna, ene Jainkoa.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 7, 40-53.

Aldi hartan, jende arteko batzuek, Jesusen hitzak entzutean, hau zioten: «Hauxe da egiaz etortzekoa den profeta». Beste batzuek esaten zuten: «Hauxe da Mesias». Beste batzuek, berriz: «Galileatik etor ote daiteke Mesias? Ez al dio Liburu Santuak Mesias Daviden jatorrikoa izango dela eta haren herritik, Betleemdik, etorriko dela?». Iritzi kontrajarriak zeuden, bada, jendearen artean Jesusi buruz. Batzuek atxilotu egin nahi zuten; baina ez zion inork eskurik gainean jarri. Guardiak apaizburu eta fariseuengana itzuli ziren, eta hauek galdetu zieten: «Zergatik ez duzue ekarri?». Guardiiek erantzun zieten: «Ez du sekula inork gizon horrek bezala hitz egin». Fariseuek erantzun zieten: «Zer? Zuek ere liluratu al zaituzte? Sinetsi ote du harengan agintari edo fariseuetako batek ere? Baina legea ezagutzen ez duen jende hori madarikatua dago». Orduan, Nikodemok, fariseu haietako batek, behinola Jesusengana joan zenak, esan zien: «Zilegi al da gure legearen arabera inor gaitzestea, berari entzun eta zer egin duen jakin gabe?». Besteek erantzun zioten: «Galilearra al zara zu ere? Aztertu Liburu Santuak eta ikusiko duzu Galilean ez dela inoiz profetarik sortu». Ondoren, nor bere etxera joan zen.

Tenpluko guardiek ez dute Jesus atxilotu nahi izan. Diote: «ez du sekula inork gizon horrek bezala hitz egin». Horregatik, fariseuek madarikatu egin dituzte. Berek eta apaiz nagusiek atxilotu egin nahi dute Jesus, besteak beste, galilearra delako. Ez da beraien eskemetan kabitzen lurralde urrun eta mestizo hartako gizon batek bere burua Mesiastzat ematea. Beren sineskizunei atxikitzen zaizkie itsu-itsuan eta beren aginpide eztabaidea ezinari, Jesusi uko egiteko; jarrera horrek, jakina, ezgai bihurtu ditu harengandik datorren ezer ere entzuteko.

Garizumako 4. astea

San Bizente Ferrer, *apaiza*

Soilik fariseu peto-peto batengan, Nikodemogan, ireki da zirriztu bat; honek dio, Jesus juzkatu aurretik, bera zein den ikertu behar dela. Jesus gaitzetsi edo kondenatu, kanpotar izateagatik gaitzetsi eta kondenatu dute, lege-maisuen eta apaizen artekoa ez izateagatik, zokoko izateagatik.

* * *

Gure eguneroko borroka

Bizitza batek irauten duen gerra bat da,
nire baitan bi mundu aurrez aurre jartzen dituen.
Zerbaiten eta osotasunaren artean,
“oraingoz” eta “betirako” artean,
“ni” eta “Zu” artean...
Segurtasunak arriskuari egin behar dio aurre,
konfiantzari bermeak,
zaratak beti populatu gabeko isiltasunari,
miseria txikiak Maitasunaren aurka daude
eta harrotasunak egia zapaldu nahi du.
Emadazu, Jauna, borrokatzeko gaitasuna.
Egunero borrokatu behar da
azken egun horretara arte
non Zuk bion partez irabaziko duzun.

Isaias profetaren liburutik 43, 16-21.

Honela mintzo da Jauna: Jaunak bidea zabaldu zuen itsasoan, bidexka ur oldartsuetan; gurdi eta zaldi, gudaroste ahaltsua atera zuen gudura; hara, erori dira etsaiak, berriro ez jaikitzeke, itzali dira, bukatu, kandela-metxa bezala. «Ez oroitu iraganean gertatuez, ez gogoratu antzinakoez. Begira, dena berri egitera noa: hasia da sortzen, ez al diozue antzematen? Bidea irekiko dut basamortuan, ibaiak landa lehorrean. Basapiztiek, txakal eta ostrukek goretsiko naute, ura emango baitut basamortuan, ibaiak sorraraziko landa lehorrean, neure herriari, neure aukeratuari, edaten emateko. Eta neuretzat eratu dudana herriak nire gorespena iragarriko du».

Sal 125: Gurekin handikiro jokatu du Jaunak; hau da poza daukaguna!

San Paulok Filipinoarrei 3, 8-14.

Senideok: Nire ustez, ez du ezerk ezer balio Kristo Jesus nire Jauna ezagutzearen neurrigabeko ondasunaren aldean. Kristogatik dena galdu nuen eta dena zaborraren pareko jotzen dut, hura irabaztearren eta harekin bat eginda bizitzearren. Ez naiz neurez salbatzen, legea betetzeagatik alegia, Kristogan sinesteagatik baizik, Jainkoak sinemenaren bidez salbatzen nauelako, alegia. Kristo ezagutu nahi dut, haren piztueraren indarra neuregan sumatu eta haren nekeetan partaide izan nahi dut, haren antzeko bihurtu heriotzan, horrela hildakoen piztueran ere parte izango dudana itxaropenez. Ez dut esan nahi hori lortu dudanik edota helmugara iritsi naizenik; baina lehian jarraitzen dut ea eskuratzen dudana, Kristo Jesusen ni neurez eskuratu ninduen bezala. Senideok, ez dut uste dagoeneko eskuratua dudanik; baina, atzean gelditu denaz ahazturik, aurrera jotzen dut eta helbururantz lehiatzen naiz, saria iristeko; horretara deitzen baitit Jainkoak goitik, Kristo Jesusen bitartez.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 8, 1-11.

Aldi artan, Jesus Oliamendira joan zen. Biharamun-egunsentian, ordea, tenplura agertu zen berriro, eta herri guztia etorri zitzaion; Jesus eseri eta irakasten hasi zitzaien. Lege-maisuek eta fariseuek adulterioan harrapatutako emakume bat ekarri zioten eta, erdian ipiniz, esan zioten Jesusi: «Maisu, emakume hau adulterioan ari zela harrapatu dute. Moisesek horrelakoak harrika hiltzeko agindu zigun legean. Zuk zer diozu?». Azpikeriaz esaten zioten hori, zertan salatu izateko. Jesus, ordea, makurtu eta atzamarrez lurlean idazten hasi zen. Baina haiek galde eta galde ari baitzitzaizkion, zutitu eta esan zien: «Zuetan bekaturik gabe dagoenak bota diezaiola lehenengo harria». Eta, berriro makurturik, lurlean idazten jarraitu zuen. Haiek, hori entzutean, banan-banan alde egiten hasi ziren, zaharrenetatik hasita. Jesus bakarrik gelditu zen, emakumea aurrean zuela. Jesusek, zutiturik, esan zion: «Emakume, non dira salatzaileak? Ez al zaitu inork gaitzetsi?». Hark erantzun: «Inork ere ez, Jauna». Orduan Jesusek: «Ezta Nik ere, ez zaitut gaitzesten. Zoaz eta ez egin berriro bekaturik».

Bat-batean, Jesusek gelditu egin zuen denbora. Beraren galderak aldaketa eragin zuen jendetzaren begietan. Jadanik ez daude emakumeari begira, ez daude beren haserrearen helburu zuten emakume hari begira, baizik eta beren buruari begira jarri dira, beren kontzientziari begira. Ba al da zuetarik inor bekatutik libre? Inor ez. Mila eratan izan ohi gara bekatuan partaide. Jakinaren gainean, oker ulertzeagatik, geure burua hartara behartua sentitu dugulako, ahuleziagatik, mundu honetako herio-dinamikan partaide izateagatik, edota egin beharrekoak ez egiteagatik, gure ahalbide guztiak jokoan ez jartzeagatik. Une labur haiek betekotasun bilakatu ziren. Gizonezko guztiek, zaharrenetatik hasita, alde egin zuten. Zer harri bota lezake bere barnean errudun sentitzen denak? Jesusek mozorroa kentzen digu. Bere nortasunak, borondate on huts horrek, nahasirik utzi ohi gaitu. Ez gara ongi ateratzen konparaziotik. Onegia da bera. Ageri agerian utzi

ohi gaitu beraren errukiak. Ez gaitu akusatzen, baina ispilu bat jartzen digu aurrean, hartan geure burua oneski ikus dezagun, eta, ai, ikusten dugun argazkiak akatsak izaten ditu. Emakume hark barkazioa lortu zuen. Ez zeuden han salatzaileak, Jesus ere ez zen halakoa. Onartua sentitu zen emakumea, eta arindua. Artean, ordea, bere bekatutik arindu beharra zuen. Orduan, Jesusek esan zion: «ez egin gehiago bekaturik». Aske-aske joan zen, gizon on-on hark bihotza hunkiturik, eta bere biziera aldatzeko prest.

* * *

Gure eguneroko borroka (Jarraipena)

Eman fedea ebanjelioa, ontasuna, sakrifizioa
edo gurutzearen aurrean, ez errenditzeko.
Emaidazu poza ustekabe bakoitzari,
erorketa bakoitzari, ekaitz bakoitzari aurre egiteko.
Ni, nire aldetik, hemen nago,
nire indar gutxiarekin,
nire beso gaixoekin,
arraunean jarraitzeko prest.
Ez dakit nahikoa den
baina saiatu beharra dago.

(José María Rodríguez Olaizola. Otoi.eus)

Garizumako 5. astea

La Salleko San Joan Bautista, *apaiza eta fundatzailea*
(*Salletarrak*).

Danielen Profezia liburutik 13, 1-9. 15-17. 19-30. 33-62: Errugabe izanik ere, hil beharra dut. **Sal 22:** Ibar beltz ilunean banabil ere, ez naiz gaitzaren beldur, Zu nirekin baitzaude.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 8, 12-20.

Aldi hartan, Jesusek esan zien fariseuei: «Ni naiz munduaren argia; niri jarraitzen didana ez da ilunpean ibiliko; izango du bizirako argia». Fariseuek esan zioten: «Zuk zeure buruaren alde egiten duzu aitormen; beraz, zure aitormenak ez du balio». Jesusek erantzun zien: «Nik aitormen neure buruaren alde egiten badut ere, nire aitormenak balio du, ongi baitakit Nik nondik etorria naizen eta nora noan; baina zuek ez dakizue, ez nondik natorren, ez nora noan. Zuek giza erara epaitzen duzue; Nik ez dut inor epaitzen. Eta epaituko banu ere, nire epaia baliozkoa izango litzateke, ez baitut Nik bakarrik epaitzen, bidali nauen Aitak eta biok baizik. Eta zuen legean dago idatzia, bi lagunen aitormena baliozkoa dela. Honela bada, Nik neure buruaren alde egiten dut aitormen; baina bidali nauen Aitak ere egiten du aitormen nire alde». Haiek galdetu zioten: «Non da zure Aita?». Jesusek erantzun zien: «Ez Ni, ez nire Aita, ez gaituzue ezagutzen. Ni ezagutuko baninduzue, nire Aita ere ezagutuko zenukete». Tenpluan irakasten ari zela, diru-kutxa ondoan, egin zituen Jesusek adierazpen hauek. Hala ere, ez zion inork eskurik erantsi, ez baitzen artean iritsia haren ordua.

Fariseuek hika-mika dihardute Jesusekin, honengan konfiantzarik ez dutelako. Fariseuen aginpideak hiru sostengu ditu: Liburu Santuez egiten duten interpretazioa, herriagan duten itzala eta beren jokabide errugabea. Jesusi, berriz, Aitarekin duen harremanetik datorkio bere aginpidea. Galde eta galde ari zaizkio, ea erruren batean harrapatzen duten, baina Jesus ez da erori inolakoan. Badakite, Israelen historia uko egin zaien egiazko profetez bete dagoela, eta ez dute nahi horrelakorik berriro gerta dadin. Jesus zein eta nor den jakin nahi dute, baina ez dira

Garizumako 5. astea

La Salleko San Joan Bautista, *apaiza eta fundatzailea*
(Salletarrak).

konbentzitzen berak esan dienarekin. Beren begiez ikusten ari direna baino gorago jarri dituzte beren sineskizunak; horregatik, galdurik dabilta. Bitartean, begi garbiz begiratzen diotenak gai dira aintzat hartzeko Jesusek bere biziaz eta beren historiaz proiektatzen dien argia. Berak bakarrik ditu argitzen ahal.

* * *



Altzo Muino. Erretaula.

Garizumako 5. astea
San Dionisio, *gotzaina*

Zenbakiak liburutik 21, 4-9: Sugeek zizta egindako guztiak, brontzezko sugeari begiratzean, sendatu egingo dira. **Sal 101:** Entzun, Jauna, nire otoitza, hel bedi zugana nire deiadarra.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 8, 21-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zien fariseuei: «Ni banoa, eta nire bila ibiliko zarete; baina zeuen bekatuan hilko zarete. Ni noan tokira zuek ezin zarete joan». Orduan, entzuleek esan zuten: «Bere burua hil behar ote du? Horregatik esan ote du “Ni noan tokira zuek ezin zarete joan”?». Jesusek jarraitu zuen: «Zuek behekoak zarete, Ni goikoa naiz; zuek mundu honetakoak zarete, Ni ez naiz mundu honetakoa. Horregatik esan dizuet, zeuen bekatuetan hilko zaretela; zeren, “Ni naizela” sinesten ez baduzue, zeuen bekatuetan hilko baitzarete». Orduan, esan zioten: «Nor zara Zu?». Jesusek erantzun: «Hasieratik ari natzaizue esaten. Badut zuetaz zer esanik eta zer gaitzetsirik asko. Bidali nauena fidagarria da; eta Nik, hari entzun diodana, horixe bera esaten diot munduari». Haiek ez ziren jabetu Aitaz mintzo zitzaiaela. Jesusek, beraz, esan zien: «Gizonaren Semea jasoko duzuenean, orduan jakingo duzue Ni naizela, eta ez dudala neurez ezer egiten; baizik eta Aitak erakutsi didana bakarrik esaten dudala. Ni bidali nauena nirekin dago; ez nau bakarrik utzi, hark atsegin duena egiten baitut beti». Jesusek gauza hauek esan zituenean, askok sinetsi zuen harengan.

Bi alditaraino dio Jesusek testu honetan «Ni naiz»; Yahvek erabilitako esapidea bera da Moisesi sutan zegoen laharretik dei egitean. Ezin kontrolatu dugulako, bere errukiaz jokatzean guztiz aske delako, izenik ezin eman diogun bat bezala aurkeztu zaigu Jainkoa. Jainko askatzailea da, bidelagun du beti bere herriak, ez du behin ere bere herria bertan behera utzi, bere itunari beti leial eusten dio, esnea eta ezitia darizkion lur berria agindu dio bere herriari. Jainko horrekin guztiz bat sentitzen da Jesus, Aitatzat du berak eta Semetzat du bera Aitak. Hark bidalia da Jesus, hura bezala mintzo da Jesus, bidelagun du Jesusek Aita etengabe, hari atsegin ematen dihardu Jesusek. Laster, gurutzean altxaturik ikusiko dugu «Ni naiz» hori, gizadiaren askatzaile.

Garizumako 5. astea
San Maximo, aitorlea

Danielen profezia liburutik 3, 14-20.91-92.95: Jainkoak bere aingerua bidali du bere zerbitzariak libratzera. **Sal: Daniel 3:** Aintza eta gorespen zuri gizaldietan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 8, 31-42.

Aldi hartan, Jesusek esan zien beragan sinetsi zuten juduei: «Nire hitzean irauten baduzue, egiaz nire ikasle izango zarete; ezagutuko duzue egia, eta egiak aske egingo zaituzte». Erantzun zioten: «Gu Abrahamen ondorengoak gara, eta ez gara inoiz inoren esklabo izan. Nola diozu aske izango garela?». Jesusek erantzun zien: «Egi-egiaz diotsuet: Bekatu egiten duena bekatuaren esklabo da. Esklaboa ez da etxean betiko geratzen; semea, bai, betiko geratzen da. Beraz, Semeak askatzen bazaituzte, benetan aske izango zarete. Badakit, bai, Abrahamen ondorengoak zaretela; baina Ni hil nahian zabiltzate, nire hitza ez baita zuengan sustraitzen. Neure Aitaren ondoan ikusi dudana mintzo naiz Ni; zuek, berriz, zeuen aitagandik ikasi duzuen egiten duzue». Haiek erantzun zioten: «Abraham dugu aita». Jesusek orduan: «Abrahamen seme bazinete, Abrahamek egin zuena egingo zenukete. Zuek, ordea, Ni hil nahian zabiltzate, eta Jainkoari entzundako egia besterik ez dizuet esan. Abrahamek ez zuen horrelakorik egin. Zuek zeuen aita egiten duena egiten duzue». Erantzun zioten: «Gu ez gara sasikume; aita bakarra dugu, Jainkoa». Jesusek orduan: «Zuen aita Jainkoa balitz, maite izango nindukezue, Ni Jainkoagandik atera bainaiz eta etorri; Ni ez naiz neure kabuz etorria, hark bidalia baizik».

Bekatuak lotu egiten zaitu, menperatu, esklabo bihurtzen. Eskastu egiten du zure borondate ona, makur denera, zirtzil denera jo dezan. On dena txar denarekin nahastarazten dizu, jadanik bata eta bestea ezin bereizteraino. Jainkoak, aldiz, jaso egiten zaitu eta arindu. Geure kulturak, ez dakigu zergatik, horren kontrakoa pentsatzera eragiten digu hain justu. Ebanjelioak azpimarratu digu, egiak aske bihurtuko

Garizumako 5. astea
San Maximo, *aitorlea*

gaituela. Egia, geure buruari berari dagokionez; egia, Jainkoaren erreinuari dagokionez, zeina maitasun baita eta, horrengatik, ahultasun, gauza ororen oinarri; egia, Kristo bera da, Jesus gure anaia-neba eta gure Jauna, barneko eta kanpoko lotura guztitik askatzen gaituena, Aitaganantz arin-arin bide egin dezagun.

* * *

Emaguzu, Jauna,
izan gaitezen zure semearen maitale.
Gure maitasuna
izan dadila xumea, amultsua eta sutsua.
Emaguzu parte har dezagun haren atsekabean eta pozetan.

Garizumako 5. astea
 San Ezekiel, *profeta*
 San Makario, *gotzaina*

Hasiera liburutik 17, 3-9: Herri askoren aita izango zara. Sal 104:
 Gogoan du etengabe Jaunak bere ituna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 8, 51-59.

Aldi hartan, Jesusek esan zien juduei: «Egi-egiaz diotsuet: Nire hitza gordetzen duenak ez du inoiz heriotzarik ikusiko». Juduek esan zioten: «Orain bai dakigula deabruaren menpe zaudela. Abraham hil egin zen eta profetak ere bai; eta Zuk diozu: “Nire hitza gordetzen duenak ez du inoiz heriotzarik ikusiko”? Gure aita Abraham baino handiago al zara, bada, Zu? Hura hil egin zen eta profetak ere bai; nor zarelakoan zaude?». Jesusek erantzun zien: «Nire burua Neuk ohoratuko banu, nire ohore horrek ez luke ezer ere balioko; baina Aitak, zeuen Jainkoa omen duzuenak, ohoratzen nau Ni; zuek, ordea, ez duzue hura ezagutzen; Nik, bai, ezagutzen dut, eta ezagutzen ez dudala esango banu, gezurti izango nintzateke zuek bezalaxe; baina ezagutzen dut eta gordetzen ere haren hitza. Zuen aita Abraham pozik zen nire eguna ikusiko zuen itxaropenez; ikusi zuen eta alaitasunez bete zen». Orduan, juduek esan zioten: «Ez dituzu oraindik berrogeita hamar urte, eta Abraham ikusi duzula?». Jesusek erantzun zien: «Egi-egiaz diotsuet: Abraham sortu baino lehenagokoa naiz Ni». Orduan, harriak hartu zituzten hari jaurtitzeko; baina Jesus ezkutatu egin zen eta tenplutik atera.

Zenbat eta gehiago jakin juduek Jesusen berri eta zenbat eta gehiago entzun berari hitz egiten, orduan eta suminago egiten zaie beren amorrua. Pasadizo honetan, harriak hartzera iritsi dira berari harrika egiteko. Baina berak tenplu barnera ihes egin die, ezkutatzeko. Jesusen hitzak erronka izaten dira beti, onartu edota ukatu beharra. Beraren ondoan jarraituko duenak izango duen betiko biziak mintzo da hemen. Entzun dezagun: «betiko bizia». Eta zorua amildegi edota pendiz bihurtzen zaigula sentitzen dugu: posible ote hori?, zer segurtasun izan dezakegu horretaz? Egia esateko, ezer ez; soil-soilik Jaunaren maitasunean konfiantza izatea geratzen zaigu, den-dena baitezake berak, batez ere biziaren aurka doanaren gainean, azken-azkenean heriotzaren gainean. Beti berarekin izango garela agindu digu.

Garizumako 5. astea

San Estanislao, *gotzaina eta martiria*

Jeremias profetaren liburutik 20, 10-13: Neurekin dut Jauna, gudari indartsu. **Sal 17:** Neure larrialdian dei egin nion Jaunari, eta entzun zuen nire oihua.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 10, 31-42.

Aldi hartan, juduek berriro harriak hartu zituzten Jesusi harrika egiteko. Jesusek esan zien: «Egintza onik asko egin dut zuen aurrean Aitaren izenean; horietako zeinengatik egin nahi didazue harrika?». Erantzun zioten: «Ez zaitugu egintza onak egiteagatik harrikatu nahi, birao egiteagatik baizik; gizaki izanik, zeure burua Jainko egiten duzulako». Jesusek erantzun zien: «Ez al dago idatzirik zuen Liburu Santuan: “Nik esan dut: jainko zarete”? Beraz, Jainkoak “jainko” esaten die bere hitza zuzendu zienei, eta Liburu Santuak esana ukaezina da. Nolatan diozue, bada, Nik, Aitak sagaratu eta mundura bidali nauen honek, birao egiten dudala, Jainkoaren Seme naizela esateagatik? Nire Aitaren egintzak egiten ez baditut, ez sinetsi niri; baina egiten baldin baditut, niri sinesten ez badidazue ere, sinetsi egintzei. Horrela, behin betiko jakingo duzue Aita nigan dagoela eta Ni Aitagan». Berriz ere atxilotu egin nahi izan zuten, baina ihes egin zien eskuetatik. Berriro Jordanez beste aldera joan zen Jesus, garai batean Joan bataiatzen ari izan zen lekura. Han gelditu zen aldi batez, eta jende asko joaten zitzaion. Hau zioten: «Joanek ez zuen ezaugarriarik batere egin, baina hark honetaz esan zuen guztia egia zen». Eta han askok sinetsi zuen Jesusengan.

Ezin ihardetsi, ezin erantzun, diote Jesusi; argudiorik gabe gelditu dira; agian, hori bakarrik ere nahiko arrazoi dute Jesus garbitu, erail, nahi izateko. Baina Jesusen egintza onak berez dira albiste on bera zer edo nor den jakiteko. Egiazko zeinu dira: Jesusek iragartzen duen Jainko errukitsua seinalatzen dute. Egintza askatzaile dira: edozein pertsona askatzen dute itsutasunetik, paralisitik, heriotzatik; motel dagoen eztei-festara alaitasuna dakarte edota ogiz asetzen dute gose den

Garizumako 5. astea

San Estanislao, *gotzaina eta martiria*

jendetza. Jesusez mintzo dira eta Jesusek agerian ipini nahi duen Aitaz. Hau, hain urrun dago eta hain bestelakoa da jende askoren ustezko Jainko harengandik, patxadan eta gure erorikoa nola mendekatu eta nola zigortu zain legokeen jende askoren ustezko Jainko harengandik. Benetako Aita da, soil-soilik bere seme-alaben ona nahi du. Hori da Jesusek ezagutarazi nahi digun Jainkoa. Hori ezagutzera gonbidatzen gaitu.

* * *

Jainkoaren mintzoa

Ni gustura egongo nintzen han, Jesus,
 ikasle haiekin,
 haien atzean gordeta,
 irrikaz zuri begira,
 mila urterako fedea edanez...
 Begiak zabal-zabal egingo nituen
 zure argazkia nire begi-ninietan itsasteko
 eta noiznahi zuri begira egoteko,
 eta zure argiaren indarra hartzeko,
 zure suaren beroa,
 zure Aitaren mintzo indartsua,
 errukizko lainoan...
 Baina ezin.
 Bihurrienak izan ziren sarituak.
 Ze meritu egin zituzten ba,
 burugogorrek izateaz gain?
 Ze meritu, Jauna?

(Patxi Loidi)

Garizumako 5. astea
San Zenon, *gotzaina*

Ezeikielen profezia liburutik 37, 21-28: Herri bakar bihurtuko ditut.
Sal: Jeremias 31: Zainduko gaitu Jaunak, artzainak artaldea bezala.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 11, 45-57.

Aldi hartan, Maria ikustera joandako judu askok, Jesusek Lazarorekin eginga ikustean, harengan sinetsi zuen. Haietako batzuek, ordea, fariseuengana joan eta Jesusek egin zuena kontatu zieten. Orduan, apaizburuek eta fariseuek Batzarra bildu zuten, eta esan: «Zer egin? Gizon hau ezaugarri asko egiten ari da. Horrela jarraitzen uzten badiogu, denek sinetsiko dute honengan, etorriko dira erromatarrak eta suntsitu egingo dizkigute bai tenplua eta bai herria». Batzarkideetako batek, urte hartan apaiz nagusi zen Kaifasek, esan zien: «Zuek ez dakizue ezer. Ez al zarete konturatzen hobe duzuela gizon bat herriagatik hiltzea, herri osoa galtzea baino?». Kaifasek ez zuen hori bere kabuz esan; baizik eta, urte hartan apaiz nagusi zenez, profeta bezala hitz egin zuen, Jesus herriaren alde hilko zela adieraztean; eta herriaren alde ez ezik, baita sakabanaturik zeuden Jainkoaren seme-alabak elkartzeko ere. Eta egun hartan, Jesus hiltzea erabaki zuten. Horregatik, Jesus ez zen agerian ibiltzen juduen artean. Basamortu ondoko bazter batera alde egin zuen, Efraim izeneko herrira, eta han egon zen ikasleekin. Juduen Pazkoa gainean zen, eta herrialdeko jende asko Jerusalemera igo zen Pazkoa baino lehen, garbikuntzak egiteko. Jerusalemera etorriak Jesusen bila zebiltzan eta, tenpluan topo egitean, galdetzen zioten elkarri: «Zer deritzozue? Ez ote da jaietara etorriko?». Apaizburuek eta fariseuek agindua zuten, baldin inork Jesus non zen jakiten bazuen, sala ziezaiela, atxilotu ahal izateko.

Ongiak berez du distira egiten, berak bakarrik, ez du izaten publizitate beharrik. Gaizkia ilunpean da gauzatzen. Boterea beren esku dutenek eta beren probetxurako bakarrik baliatzen dutenek,

Garizumako 5. astea
San Zenon, *gotzaina*

ezin jasan izaten dute ongia. Higuindu egiten dute. Zenbat eta botere handiagoa duten, hainbat eta indarkeria bortitzagoaz pertsegitzen dute ongia. Ezkutuka jokatzeko dute, inork sala ez ditzan, nahiz eta beraiei eskuaren arrastoa azkenean begi-bistan gelditu. Izua eragiten saiatzen dira, eta izua gauzatzen. Horiek horrela, hor ikusten ditugu erortzen giza eskubideak defenditzen dituen jendea, ustelkeria agerian jartzen duten kazetariak, ingurumariaren aurka ari diren enpresei aurre egiten dietenak, autokratak kritikatzeko dituztenak... Horrela erori zen Jesus ere. Egiten ari zen ongiak hain biziki egiten zuen distira, non tiranoei jasanezin bihurtu baitzitzairen. Eta ezkutuan eta ilunpean, hura atxilotu eta hiltzea erabaki zuten.

* * *

«(...) bizitza beterako sortuak izan gara, eta maitasunaren bidez baino ez daiteke lortu hori. Ez dugu aukeran oinazearen aurrean axolagabe bizitzea, ezin dugu inor bizitzaren bide-bazterrean utzi» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 68).

Aste Santua: Erramu

San Martin 1.a, *aita santua eta aita santuen**artean azken martiria*San Hermenegildo, *martiria*

Isaias Profetaren liburutik 50, 4-7.

Jainko Jaunak hitz egiteko trebatu nau, bihotz-eroriei adore-hitza emateko. Goizero dit belarria ernearazten, ikasle onak bezala entzun dezadan. Jainko Jaunak belarria ireki dit, eta nik ez diot aurka egin, ez atzera jo. Bizkarra eskaini nien jotzen nindutenei; masailak, bizarretik tiraka ari zitzaizkidanei. Ez nien aurpegia saihestu irainei eta listuei. Jauna dut laguntzaile; horregatik, ez naiz kikildu; horregatik gogortu dut aurpegia, harkaitza bezala, bai baitakit ez naizela lotsagarri gertatuko.

Sal 21: Ene Jainko, ene Jainko, zergatik utzi nauzu eskutik?

San Paulok Filipinoarrei 2, 6-11.

Kristo Jesusek, Jainkoaren izaera bereko izanik, ez zion gogor eutsi Jainkozko bere mailari; bestela baizik, zegokion aintza utzi eta esklabo-izaera hartu zuen, gizakien antzeko eginez. Eta gizaki bezala agertuz, apaldu egin zuen bere burua, menpeko eginez heriotzaraino, gurutzean hiltzeraino. Horregatik, denen gainetik goratu zuen Jainkoak eta izen guztietan bikainena eman zion, Jesusen izenaren omenez denen belaunak makur daitezen, zeruan, lurlean eta lurpean, eta mihi guztiek aitor dezaten Jesu Kristo dela Jauna, Jainko Aitaren aintzarako.

Jesu Kristo gure Jaunaren Nekaldia San Lukasen liburutik 22, 14-23, 56.

Banuen gogoa, sufritu aurretik pazko-afari hau zuekin egiteko.

K Ordua etorri zenean, Jesus mahaian jarri zen apostoluekin eta esan zien:

† «Banuen gogoa, sufritu aurretik pazko-afari hau zuekin egiteko. Hara zer diotsuedan: ez dut gehiago Pazkoa ospatuko, hau Jainkoaren erreinuan bere betera iritsi arte».

K Eta edalontzi bat hartu, esker onezko otoitza egin eta esan zuen:
 † «Hartzazue eta banatu zeuen artean. Hara zer diotsuedan: ez dut gaurdanik gehiago ardo honetatik edango, Jainkoaren erreinua iritsi arte».

Egizue hau nire oroigarri.

K Gero, ogia hartu eta, esker onezko otoitza eginez, zatitu eta eman zien, esanez:

† «Hau nire Gorputza da, zuentzat emango dena. Egizue hau nire oroigarri».

K Afal ondoan gauza bera egin zuen edalontziarekin, esanez:

† «Edalontzi hau itun berria da, zuentzat isuriko den nire Odolaz ezarria.

Dohakabea Gizonaren Semea salduko duena!

K Baina begira, nirekin mahaian dago salduko nauena. Gizonaren Semea badoa, erabakia dagoen bezala; baina dohakabea salduko duena!».

K Ikasleak beren artean galdezka hasi ziren, nor izan ote zitekeen hori egingo zuena.

Ni zerbitzari bezala nago zuen artean.

K Eztabaida sortu zen ikasleen artean, zein ote zen handiena beren artean. Jesusek esan zien:

† «Herrietako erregeek menpean hartzen dituzte beren herriak, eta agintedunek “Ongile” deitzea nahi izaten dute. Zuek ez jokatu horrela; zuen artean nagusiena izan bedi gazteenaren pareko, eta agintaria zerbitzariaren pareko. Izan ere, zein ote da handiago, mahaian jarrita dagoena ala zerbitzatzen ari dena? Ez ote da mahaian dagoena? Ba, Ni zerbitzari bezala nago zuen artean. Zuek nirekin iraun duzue nire

Aste Santua: Erramu

San Martin 1.a, *aita santua eta aita santuen**artean azken martiria*San Hermenegildo, *martiria*

probaldietan. Eta Nik erreinua ematen dizuet, Aitak niri eman zidan bezala; nire mahaian jango eta edango duzue nire erreinuan, eta tronuetan eseriko zarete, Israel herriko hamabi leinuak epaitzeko».

Zuk, nigana bihurtzean, sendo itzazu zeure senideak.

K Eta esan zuen gainera:

† «Simon, Simon! Satanasek beretzat nahi zaituzte, garia galbahean bezala zuek astintzeko; baina Nik otoitz egin dut zure alde, zure fedea itzal ez dadin. Eta zuk, nigana bihurtzean, sendo itzazu zeure senideak».

K Pedrok esan zion:

S «Jauna, prest nago zurekin baita kartzelara eta heriotzara ere joateko».

K Jesusek erantzun zion:

† «Hara zer diotsudan, Pedro: gaur oilarrak jotzerako, hiru aldiz ukatuko duzu Ni ezagutzen nauzula».

Nigan bete beharrekoa da idatzirik dagoena.

K Ondoren, guztiei esan zien:

† «Falta izan al zenuten ezer, poltsarik eta zakutorik eta oinetakorik gabe bidali zintuztedanean?».

K Haiek erantzun:

S «Ezer ere ez».

K Jesusek berriro:

† «Orain, ordea, poltsa duenak har dezala eta gauza bera zakutoa duenak; eta ezpatarik ez duenak sal dezala soingainekoa eta erosi ezpata. Zeren egiaz diotsuet, Nigan bete beharrekoa dela Liburu Santuan idatzirik dagoen hau: “Gaizkileen kidekotzat jo zuten”. Izan ere, nireak laster egingo du».

K Haiek esan zioten:

S «Jauna, baditugu hemen bi ezpata».

K Hark erantzun:

† «Nahikoa da!».

Laariak harturik, are eta lehiatsuago egiten zuen otoitz.

K Atera zen Jesus eta, ohi zuen bezala, Oliamendira joan zen; ikasleek ere jarraitu zioten. Hara iristean, Jesusek esan zien:

† «Egizue otoitz tentaldian ez erortzeko».

K Eta haiengandik harrikada bat bide aldendurik, belauniko honela egin zuen otoitz:

† «Aita, nahi baduzu, urrun ezazu nigandik edari mingots hau; baina ez bedi egin nire nahia, zurea baizik».

K Hontan, aingeru bat agertu zitzaion zerutik, adore emanetz. Eta, laariak harturik, are eta lehiatsuago egiten zuen otoitz. Izerdia tantaka zerion lurrera, odola bezain lodi. Otoitzetik zutiturik, ikasleengana joan zen; nahigabearen nahigabez, lo aurkitu zituen, eta esan zien:

† «Nolatan zaudete lo? Jaiki eta egin otoitz, tentaldian ez erortzeko».

Judas, musu batekin saltzen al duzu Gizonaren Semea?

K Oraindik hizketan ari zela, gizatalde bat agertu zen; Hamabietako bat, Judas zeritzana, zetorren haien buru, eta Jesusengana hurbildu zen musu ematera. Jesusek esan zion:

† «Judas, musu batekin saltzen al duzu Gizonaren Semea?».

K Gertatzera zihoana ikusirik, Jesusen inguruan zeudenek esan zioten:

S «Jauna, erasoko al diegu ezpataz?».

K Eta haietako batek apaiz nagusiaren morroia jo eta eskuineko belarria moztu zion. Baina Jesusek esan zuen:

† «Utzi! Nahikoa da!».

K Eta, belarria ukituz, sendatu egin zuen. Orduan, beraren aurka etorriak ziren apaizburu, tenpluko guardia-buru eta herriko zaharrei esan zien:

Aste Santua: Erramu

San Martin 1.a, *aita santua eta aita santuen artean azken martiria*San Hermenegildo, *martiria*

† «Lapur baten bila bezalaxe etorri zarete, ezpata eta makilekin. Egutero zuekin nintzen tenpluan, eta ez zenidaten eskurik erantsi; baina oraintxe da zuen ordua, ilunpearen nagusialdia».

Kanpora irtenik, negarrari eman zion Pedrok saminki.

K Jesus preso hartu eta apaiz nagusiaren etxera eraman zuten. Pedrok urrutitik jarraitu zion. Batzuk patio erdian sua piztu eta inguruan eserita zeuden; Pedro ere haien artean eseri zen. Neskame batek, Pedro sutondoan eserita ikustean, begira-begira jarri eta esan zion:

S «Hau ere Jesusekin ibili ohi zen».

K Baina hark ukatu egin zuen:

S «Emakume, nik ez dut ezagutzen hori!».

K Handik berehala, beste batek ikusi eta esan zion:

S «Zu ere horietakoa zara».

K Eta Pedrok:

S «Ez, gizona! Ni ez!».

K Handik ordubetera edo, beste batek gogor egiten zuen:

S «Bai, hau ere Jesusekin ibili ohi zen, galilearra da eta».

K Pedrok erantzun zuen:

S «Ez dakit zertaz ari zaren, gizona!».

K Eta une berean, oraindik hizketan ari zela, oilarrak jo zuen. Itzuli zen Jauna eta Pedrori begiratu zion. Gogoratu zitzaion Pedrori Jaunak esandakoa: «Gaur oilarrak jo baino lehen, hiru aldiz ukatuko nauzu», eta, kanpora irtenik, negarrari eman zion saminki.

Asma ezak, profeta: zeinek jo hau?

K Jesus preso zeukatenek burlaka eta joka zerabilten. Begiak estalirik, galdetzen zioten:

S «Asma ezak, profeta: zeinek jo hau?».

K Eta beste hitz iraingarri asko esaten zioten.

Batzar Nagusira eraman zuten.

K Eguna argitu zuenean, herriko Zaharren Kontseilua, apaizburuak eta lege-maisuak bildu ziren, eta Jesus Batzar Nagusira eraman zuten. Hau esan zioten:

S «Mesias baldin bazara, esaguzu».

K Jesusek erantzun:

† «Esaten badizuet, ez didazue sinetsiko eta, galdetzen badizuet, ez didazue erantzungo. Baina hemendik aurrera, Gizonaren Semea Jainko ahalguztidunaren eskuinean eserita egongo da».

K Orduan, denek esan zuten:

S «Beraz, Jainkoaren Semea zara Zu?».

K Hark erantzun zien:

† «Zeuek diozue, Ni naiz».

K Haiek orduan:

S «Ba al dugu testigantza beharrik? Geuk entzun dugu beraren ahotik».

K Jaiki ziren denak eta Pilatogana eraman zuten Jesus.

Nik ez diot errurik aurkitzen gizon honi.

K Han Jesus salatzen hasi ziren, esanez:

S «Gure herria nahaspilatzen aurkitu dugu hau; enperadoreari zergak ordaintzea galarazten du eta bera Mesias, erregea, dela esaten».

K Pilatok galdetu zion:

S «Juduen erregea al zara Zu?».

K Jesusek erantzun zion:

† «Zeuk diozu».

K Pilatok apaizburuei eta jende-taldeari esan zien:

S «Nik ez diot errurik aurkitzen gizon honi».

K Baina haiek, behin eta berriro:

S «Judea guztian zehar herria asaldatzen ari da bere irakatsiekin, Galileatik hasi eta honaino».

Aste Santua: Erramu

San Martin 1.a, aita santua eta aita santuen

artean azken martiria

San Hermenegildo, martiria

K Hori entzutean, gizon hura galilearra zen galdetu zuen Pilatok. Eta, Herodesen menpekoea zela jakin zuenean, harengana bidali zuen, Jerusalemen baitzen egun haietan.

Herodesek, bere gudariekin batean, mespretxuz erabili zuen Jesus.

K Biziki poztu zen Herodes Jesus ikustean, aspaldian baitzuen hura ikusteko gogoia, hartaz entzuna zuenagatik; mirariren bat egiten ikusiko zuela ere espero zuen. Herodesek galdera asko egin zion, baina Jesusen ez zion hitzik ere erantzun. Bitartean, han ari ziren apaizburuak eta lege-maisuak salatu eta salatu. Herodesek, bere gudariekin batean, Jesus mespretxuz eta isekaz erabili ondoren, soineko distiratsu bat jantzi eta Pilatogana bidali zuen berriro. Egun hartan adiskidetu egin ziren Pilato eta Herodes, lehen etsai baitziren.

Pilatok haien esku utzi zuen Jesus.

Pilatok apaizburuak, agintariak eta herria berriro bildu eta esan zien:

S «Gizon hau herriaren nahasle bezala ekarri didazue; baina galderak egin dizkiot zuen aurrean eta ez diot aurkitu zuek egozten diozuen errurik bat ere; ezta Herodesek ere, gugana bidali baitu ostera. Honek ez du heriotza merezi duenik ezer egin. Beraz, zigorraldi bat eman eta askatu egingo dut».

K Baina guztiek aho batez deiadarka esan zioten:

S «Ken hori eta askaiezaguzu Barrabas».

K Hirian izandako matxinada eta giza hilketa batengatik espetxean sartua zuten Barrabas hori. Jesus askatu nahian, Pilato berriro mintzatu zitzaion. Baina haiek deiadarka jarraitu zuten:

S «Gurutza hori! Josi gurutzean!».

K Pilatok hirugarren aldiz esan zien:

S «Zer oker egin du, bada, honek? Nik ez dut hau kondenatzeko arrazoirik aurkitzen. Beraz, zigorraldi bat eman eta askatu egingo dut».

K Baina haiek deiadar eta deiadar ari ziren gurutzera zezala eskatuz, eta gero eta handiagoak ziren deiadarrak.

Orduan, Pilatok haien eskabideari men egitea erabaki zuen, eta haiek eskatzen zutena, matxinada eta hilketagatik espetxean zegoena, askatu eta haien esku utzi zuen Jesus.

Jerusalemgo emakumeok, ez egin negarrik nigatik.

K Jesus gurutziltzatzera zeramatera, sorotik zetorren bat, Simon Zirenekoa, hartu zuten eta gurutzea leporatu zioten, Jesusen atzetik eramane zezan. Herriko jende-talde handia zihoan Jesusen ondoren, baita emakume asko ere, bular joka eta harengatik aieneka. Itzuli zen Jesus haiengana eta esan zien:

† «Jerusalemgo emakumeok, ez egin negarrik nigatik; egizue negar zeuengatik eta zeuen seme-alabengatik. Hara, badatoz honako hau esango den egunak: “Zorionekoak agorrak, haurrik sortu ez duten sabelak eta hazi ez duten bularrak!”. Orduan, honela hasiko dira mendiei esaten: “Eror zaitezte gure gainera”, eta muinoei: “Ezkuta gaitzazue”. Izan ere, egur hezeari hau egiten badiote, zer ez ote diote egingo iharrari?».

K Jesusekin batera, bi gaizkile ere eramane zituzten hiltzera.

Aita, barka iezaezu, ez dakite-eta zer ari diren.

K «Buru-hezur» zeritzan lekura iritsi zirenean, han gurutziltzatu zuten Jesus, baita bi gaizkileak ere, bata Jesusen eskuinean eta bestea ezkerrean. Jesusek honela zioen:

† «Aita, barka iezaezu, ez baitakite zer ari diren».

K Gudariek Jesusen jantziak banatu zituzten, zotz eginez.

Aste Santua: Erramu

San Martin 1.a, *aita santua eta aita santuen**artean azken martiria*San Hermenegildo, *martiria**Hau juduen erregea da.*

K Herria begira zegoen. Agintariak, berriz, burlaka ari zitzaizkion, esanez:

S «Besteak salbatu dizkik; salba dezala bere burua, Jainkoaren Mesias, Aukeratua, baldin bada».

K Gudariek ere iseka egiten zioten; hurbildurik, ozpina eskaintzen zioten, esanez:

S «Juduen erregea baldin bahaiz, salba ezak heure burua!».

K Gainean idazkun hau zuen: «HAU JUDUEN ERREGEA DA».

Gaur nirekin izango zara paradisuan.

Gurutzetik zintzilik zeuden gaizkileetako bat Jesusi irainka ari zitzaion:

S «Hi ez al haiz, ba, Mesias? Salba ezak heure burua eta salba gaitzak gu ere!».

K Baina besteak haserre egin zion, esanez:

S «Ez al diok beldurrik Jainkoari, zigorra jasaten hagoela ere? Gurea legezkoa duk, geure eginengatik merezia baitiagu; baina honek ez dik inolako okerrrik egin».

K Gero, esan zuen:

S «Jesus, oroit zaitez nitaz, zeure erreinura iristean».

K Jesusek erantzun zion:

† «Benetan diotsut: gaur nirekin izango zara paradisuan».

Aita, zure eskuetan uzten dut neure espiritua!

K Eguerdi aldea zen, eta ilundu egin zuen lurbira osoan hirurak arte. Eguzkia ezkutatu zen eta santutegiko oihala erdi urratu zen. Jesusek deiadar handiz esan zuen:

† «Aita, zure eskuetan uzten dut neure espiritua!».

K Eta hau esanik, azken arnasa eman zuen.

Hemen, belauniko jarri eta egonalditxo bat egingo da.

Erromatar ehuntariak, gertatua ikusirik, Jainkoa goretsi zuen, esanez:

S «Benetan zintzoa zen gizon hau!».

K Ikuskizunera joandako jende guztia, gertatua ikusirik, bular joka itzuli zen hirira. Han zeuden Jesusen ezagun guztiak, baita Galileatik jarraitu zioten emakumeak ere, urrutitik dena ikusten.

*Harkaitzean zulaturiko hilobian ipini zuen Josek
Jesusen gorpua.*

Orduan, Zaharren Kontseiluko kide bat etorri zen, Jose zeritzana, gizon on eta zintzoa; honek ez zituen ontzat eman Batzar Nagusiaren erabakiak eta jokabidea. Judeako Arimatea herrikoa zen, eta Jainkoaren erreinua noiz iritsiko zain zegoen. Josek, beraz, Pilatogana aurkeztu eta Jesusen gorpua eskatu zion. Jesus gurutzetik eraitsirik, izara batean bildu eta harkaitzean zulaturiko eta lehen inor ehortzi gabeko hilobian ipini zuen. Pazko-jairako prestaketa-eguna zen, eta larunbata hastera zihoan. Jesusekin Galileatik etorritako emakumeek Joseri jarraitu zioten eta hilobia ikusi zuten, baita Jesusen gorpua nola jartzen zuten ere. Gero, itzuli eta usain gozoko ukenduak eta mirra prestatu zituzten. Larunbatean atsedean hartu zuten, agindua zegoen bezala.

Txunditurik entzun dugu nekaldiaren pasartea, Lukasen bertsiokoa. Ezin iritsi gara ulertzera zergatik hil den / duten Jesus, lagun bat hain errukitsua eta hain bihotz handia. Are gutxiago ulertzen dugu zergatik hil den Jainkoaren Semea. Jesus gurutzean josiagana garamatzaten gertaerek nahasirik garabiltzate, Egundokoa da Jesusen sufrimendua. Lukasek ari-arin aipatu du min fisikoa, baina xeheki deskribatu du ezarri dioten degradazioak eragin dion oinazea, bereen abandonuak, agintarien gorrotoak, soldaduen isekak, tratu gizatasun

Aste Santua: Erramu

San Martin 1.a, *aita santua eta aita santuen**artean azken martiria*San Hermenegildo, *martiria*

gabeak eragina. Ebanjelari honek Jesusek azkeneraino agertu duen ontasuna azaldu digu. Gupidatu egin da Apaiz Nagusiaren morroiaz, saldukeria egin dion Pedroz, bidelagun izan dituen Jerusalemgo emakumeez, gurutzean beraren aldamenen hil den lapurraz. Errukiz dirdiratsu ageri da Jesus kontraera osoan. Bere azken hitza Aitaganako konfiantza agertzeko jaulki du: «zure eskuetan uzten dut neure espiritua». Historiako hainbat eta hainbat biktima dakarzkigu Jesusek gogora, bereziki erailak izan diren errugabeak. Beragan aurkitu ahalko dute kontsolamendua. Aita bidelagun izango dute, azkeneraino, mundu honetako biktima guztiek. Eta gu, galdera nahasgarri honekin geratuko gara: «zergatik hil da Jainkoa?». Horrenbestez, presta gaitezen, aste honetan biziaren Jainkoaren heriotzaren misterioan sartzeko.

* * *

«(...) bi pertsona-mota besterik ez dago: oinazeaz arduratzen direnak eta zauritua bazterrean utzita bidean aurrera jotzen dutenak» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 70).

Aste Santua

San Tiburtzio, *martiria*
Santa Liduvina, *birjina*

Isaias profetaren liburutik 42, 1-7: Ez du oihu egingo, ez du kaleetan entzunaraziko bere mintzoa. Sal 26: Jauna dut argi eta salbamen.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 12, 1-11.

Pazkoa baino sei egun lehenago, Jesus Betaniara joan zen; han bizi zen Lazaro, Jesusek hilen artetik piztu zuena. Afaria eskaini zioten; Marta zerbitzatzen ari zen, eta Lazaro Jesusekin mahaian zeudenetariko bat zen. Mariak, nardo jatorrezko kilo erdi bat lurrin-usain gozoduna, balio handikoa, harturik, oinak igurtzi zizkion Jesusi, eta bere ile-adatsez xukatu. Etxea lurrin-usainez bete zen. Judas Iskariotek, salduko zuen ikasleak, esan zuen: «Zergatik ez da saldu ukendu hori hirurehun denarioan, eta dirua behartsuei eman?» (Hori esan zuen, ez behartsuak axola zitzaizkiolako, lapurra zelako baizik, eta, diru-poltsa berak zuenez, hara botatzen zutenetik ostu egiten zuelako.). Jesusek esan zion: «Utziozu bakean; nire hilobiratze-egunerako egin du hori. Izan ere, behartsuak beti dituzue zeuen artean; baina Ni ez nauczue betiko izango». Juduetariko asko, Jesus Betanian zegoela jakinik, hara joan zen, Jesusengatik ez ezik, baita hilen artetik piztu zuen Lazaro ikusteagatik ere. Apaizburuek, orduan, Lazaro ere hiltzea erabaki zuten, hura zela-eta herritar askok haiengandik alde egiten baitzuen eta Jesusengan sinesten.

Ikaslearen bidea azaldu digu Mariak, misiolari bidalia izan den ikaslearena, alegia; Jesusekiko maitasun pertsonal bizi-biziak joa ageri da eta. Pasadizoan samurtasuna nabari da gailen, Mariak adierazia; Jesusekiko eskerron sakoneko ageri da. Jesusen oinak ferekatu ditu garbitzeko, bere ilajeaz lehortu dizkio eta lurrinaz gantzutu. Nardoaren lurrin biziak areto guztia bete du. Keinua gehiegizko gertatu da, baina maitasunak gehiegizkoen hizkuntza bakarrik ulertzen du. Mariak maitasuna sentitu du; Judasek ez, ez da iritsi zer den ulertzeraz ere. Mariagandik ikas dezakegu Kristori geure maitasunez eta samurtasunez lagun egiten. Laster, beraren buru-eskaintzaren usainak beteko du dena.

Aste Santua

San Kreszente, *martiria*Molokaiko Damian dohatsua, *aitorlea*

Isaias profetaren liburutik 49, 1-6: Nazioen argitzat ezarriko zaitut, nire salbamena lurraren azken mugaraino irits dadin. **Sal 70:** Nire ahoak iragarriko du, Jauna, zure salbamena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 13, 21-33.36-38.

Aldi hartan, ikasleekin mahaian eseria zegoela, larritu egin zitzaion Jesusi barrua, eta argi adierazi zien ikasleei: «Egi-egiaz diotsuet: Zuetako batek salduko nau». Ikasleak elkarri begira jarri ziren, zeinez ari zen asmatu ezinik. Ikasleetako bat, Jesusek hain maite zuena, haren ondo-ondoan zegoen mahaian. Simon Pedrok keinu egin zion, zeinez ari zen galdetzeko adieraziz. Hark, burua Jesusen bular gainean jarritz, galdetu zion: «Zein da, Jauna?». Jesusek erantzun zion: «Ogi-puska busti hau emango diodana, huraxe da». Eta ogi-puska bustiz, Judasi, Simon Iskarioteraren semeari, eman zion. Eta ogi-puskarekin batera Satanas sartu zitzaion barrura. Orduan, Jesusek esan zion: «Egin behar duzuna egizu berehala». Mahaikideetako inork ez zuen ulertu zergatik esan zion hori. Judasek diru-poltsaren ardura zuenez, zenbaitek uste izan zuen jairako behar zena erosteko edota behartsuei zerbait emateko esan ziola. Judas ogi-puska hartu eta berehala atera zen. Gaua zen. Atera zenean, esan zien Jesusek: «Oraintxe agertuko da Gizonaren Semearen aintza, eta haren bidez Jainkoarena. Jainkoaren aintza haren bidez agertzen bada, Jainkoak ere bere aintzaz beteko du hura, eta berehala gainera. Semetxook, oraintxe ez nago luzarorako zuekin. Nire bila ibiliko zarete, baina juduei esan niena bera esaten dizuet zuei ere: “Ni noan tokira, zuek ezin zarete joan”». Simon Pedrok galdetu zion: «Jauna, nora zoaz?». Jesusek erantzun: «Ni noan lekura zuk ezin didazu jarraitu orain niri; geroago bai, jarraituko didazu». Pedrok esan zion: «Zergatik ezin dizut jarraitu orain? Neure bizia emango dut zugatik». Jesusek erantzun zion: «Zeure bizia emango duzula nigatik? Egi-egiaz esaten dizut: Oilarrak jo baino lehen, hiru aldiz ukatuko nauzu».

Aste Santua

San Kreszente, *martiria*Molokaiko Damian dohatsua, *aitorlea*

Ebanjelariak ikasleen saldukeriaren berria dakarkigute. Era batean edo bestean, guztiek huts egin zioten Jesusi. Judas izan zen etsaien esku jarri zuena; bera atxilotzeko gauzatua zuten azpijokoan beharrezko partaide izan zen. Hain ulertezina gertatu zitzairen jarrera hau lehen ikasleei, non testuak Judasez Satanas jabetu zela baitio. Zergatik egin zuen? Agian, beste zerbaite espero zuen Jesusengandik, konturatu zen galtzaile batengatik utzi zuela berak den-dena, ilusio guztiak lausotu zitzaizkion, eta erresumina nagusitu zitzaion. Pedro, berriz, Jesusi uko egin dionean jabetu da zein ahul den. Jesus maite du, baina adorea huts egin dio. Gainerakoek beldurraren beldurrez bertan behera utzi dute Jesus. Jesusek bakarrik jarraitu du leial. Aste honetan, gu ere gonbidaturik gaude leial eustera, eta beraren ondoan jarraitzera.

* * *

«Har dezagun parte, aktiboki, zauritutako gizarteak biziberritzen eta zaintzen. (...) Baina ez dezagun hori bakarka egin. Samariarra ostatu baten bila ibili zen, ostalariak zauritua zaindu zezan» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 77-78).

Aste Santua

Toribio Santua Liebanakoa

Santa Bernardita Soubirouskoa (Lourdes 1844-1879), *birjina*

Isaias profetaren liburutik 50, 4-9a: Ez nien aurpegia saihestu irainei.

Sal 68: Erantzun, ene Jainko, zeure maitasun handiaz, mesedegaraia duzu.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 26, 14-25.

Aldi hartan, Hamabietako batek, Judas Iskariote zeritzanak, apaizburuengana joan eta esan zien: «Zenbat agintzen didazue, Jesus zuei eskura emateagatik?». Haiek zilarrezko hogeita hamar txanpon agindu zioten. Orduz gero, Jesus haiei eskura emateko egokiera bila zebilen Judas. Legamiagabeko Ogien Jaiko lehen-egunean, ikasleek Jesusengana hurbildu eta galdetu zioten: «Non nahi duzu pazko-afarirako prestaketak egitea?». Jesusek erantzun zien: «Zoazte hirira, halakoagana, eta esaiozue: “Maisuak dio hurbil dela beraren ordua, eta zuen etxean ospatu nahi duela Pazkoa ikasleekin”». Jesusek agindu bezala egin zuten ikasleek, eta pazko-afaria prestatu zuten. Ilunabarrean, mahaian zegoen Jesus hamabi ikasleekin eta, afaltzen ari zirela, esan zuen: «Benetan diotsuet: Zuetako batek saldu egingo nau». Ikasleak, oso goibeldurik, galdezka hasi zitzaizkion banaka: «Nik ote, Jauna?». Hark erantzun: «Nirekin plater beretik jaten ari den batek salduko nau. Gizonaren Semea badoa, Liburu Santuek hartaz dioten bezala; baina dohakabea Gizonaren Semea salduko duena! Hobe zukeen jaio izan ez balitz». Orduan, Judasek, salduko zuenak, galdetu zion: «Ni al naiz, Maisu?». Jesusek erantzun zion: «Zeuk esan duzu».

Azken aldian agintariekin bizi zuen gatazka areagotzen joan zen, eta mehatxuka ari zitzaizkion arerioak Jesusi. Berak esana zien hainbat aldiz erailko zutela. Mezu hori indarra hartzen joan zen ikasleen artean, jakinaren gainean zeuden, bada. Beste hau izan zen espero ez zutena: beren arteko batek emango zuela arerioen esku. Eta Jesusek hori esan zienean, triste jarri ziren. Beren arteko zeinek saldu lezake? Zergatik? Ezin ulertu dute. Judasengan, ordea, handituz joan

Aste Santua

Toribio Santua Liebanakoa

Santa Bernardita Soubirouskoa (Lourdes 1844-1879), *birjina*

da erresumina eta jadanik ezin dio ezerk ere eragotzi Jesus saltzea. Arrazoren batengatik, zin egina du. Eta geuk? Ez ote dugu geuk ere erresuminen bat Jainkoaren aurka edota kristau-elkartearen aurka, aukera datorkigunean agertzen duguna? Geu ere Jainkoak huts egin digulakoan gelditu al gara, harengandik espero genuen zerbaitengatik eta azkenean eman ez digunagatik?

* * *

Ezkutatutakoaren Jainkoa

Ezkutatu egiten zara,
isiltasunean,
nire baitan zarata ateratzeko.
Haragi egiten zaren Jainkoa,
neska baten bihotzean,
iraultza bat hasteko.

Herrixka galdu batean,
oihartzun egitea erabakitzen duzun Jainkoa,
zure handitasuna erakusteko.

Hemen zauden Jainkoa,
ogi zati batean,
jakintsuak nahasteko.

Ezkutatzen ari zaren Jainkoa,
baina aurkitua izan nahi duzuna.

O, ezkutatatukoaren Jainkoa,
Non bizi zara?

(Jacobo Espinos. Otoi.eus)

Aste Santua

San Fortunato, *martiria*

Irteera liburutik 12, 1-8. 11-14.

Egun haietan, honela mintzatu zitzairen Jauna Moisesi eta Aaroni Egipton: «Hilabete hau izango duzue hilabete nagusia, urte guztiko lehenengoa. Esaiozue israeldarren elkarte osoari: “Hil honen hamarrean, bakoitzak abere xehe bat hartuko du, familia eta etxe bakoitzeko bana. Abere osoa jateko familia aski ez bada, aldameneko bizilagunekin elkartuko da, bakoitzak jan dezakeenaren arabera zenbat lagun behar den kontuan harturik. Aberea akatsik gabea izango da, arra, urtekoa, arkume nahiz antxume. Hilaren hamalaua arte gordeko duzue, eta egun horretan, ilunabarrean, israeldar elkarteko guztiek hilko dute. Gero, odola hartu eta jango duzuen etxeko atearen bi zutoinak eta ateburua odoleztatuko dituzue. Gau horretan, suan errea jango duzue haragia, legamiagabeko ogiz eta belar mingotsez lagundurik.

Honela jango duzue: gerria loturik, oinetakoak jantzirik eta makila eskuan, abiatzeko prest; presaka jango duzue, Jaunaren Pazkoa baita, hau da, Jaunaren igarotzea. Gau horretan Egipto osoan zehar igaroko naiz, eta hil egingo ditut Egiptoko lehen-ume guztiak, bai gizakienak eta bai abereenak, eta neure epaia emango diet Egiptoko jainkoei. Ala Ni Jauna! Odola izango duzue ezaugarri zuek zaudeten etxeetan. Odola ikustean, aurrera igaroko naiz; horrela, Nik egiptoarrak jotzean, izurriak ez zaituzte suntsituko. Egun hau gogoangarri izango duzue eta jai nagusiz ospatuko duzue Jaunaren ohoretan. Jai honen ospakizuna betiko lege izango duzue belaunez belaun”».

Sal 115: Esker onezko kalizak Kristoren odolean elkartzen gaitu.

San Paulok 1 Korintoarrei 11, 23-26.

Senideok: Jaunagandik hartu nuen nik, neure aldetik zuei eman dizuedan hau: Jesus Jaunak, saldu zuten gauean, ogia hartu eta, esker onezko otoitza eginez, zatitu zuela eta esan: «Hau nire Gorputza da,

zuentzat emana. Egizue hau nire oroigarri». Afal ondoan gauza bera egin zuen kalizarekin, esanez: «Kaliza hau itun berria da, nire Odolaz sinatua; egizue hau, edaten duzuen bakoitzean, nire oroigarri». Beraz, ogi honetatik jaten eta kaliza honetatik edaten duzuen bakoitzean, Jaunaren heriotza iragartzen duzue, hura etorri arte.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 13, 1-15.

Pazko-jaia gainean zen. Jesusek, mundu hau utzi eta Aitagana joateko ordua iritsi zitzaiola jakinik, munduan ziren beretarrak maite izanik, azkenean bete-betea maitatu zituen. Afaltzen ari ziren. Ordurako deabruak sartua zion buruan Simon Iskarioteraren seme Judasi Jesus saltzeko asmoa. Jesus, Aitak dena bere esku jarri ziola, Jainkoagandik etorria zela eta Jainkoagana zihoala jakinik, jaiki zen mahaitik, erantzi zuen soingainekoa eta, eskuzapia harturik, gerrian lotu zuen; gero, ontzi bat urez bete eta ikasleei oinak garbitzen hasi zitzaien, eta gerrian zuen eskuzapiaz lehortzen. Simon Pedrogana iritsi zenean, honek esan zion: «Jauna, Zuk niri oinak garbitu?». Jesusek erantzun zion: «Ni egiten ari naizena zuk ez duzu orain ulertzen; geroago ulertuko duzu». Pedrok berriro: «Zuk ez didazu niri sekula oinik garbituko». Jesusek erantzun: «Garbitzen ez bazaitut, ez duzu nirekin zerikusirik izango». Simon Pedrok esan zion: «Jauna, orduan oinak ez ezik, baita eskuak eta burua ere». Jesusek erantzun zion: «Garbitua hartu duenak ez du oinak baizik garbitu beharrik, erabat garbi baitago; eta zuek garbi zaudete, baina ez denok». Izan ere, bazekien nork salduko zuen; horregatik esan zuen: «Ez zaudete denok garbi». Oinak garbitu zizkienean, soingainekoa jantzi, berriro mahaian eseri eta esan zien: «Ulertzen al duzue egin dizuedana? Zuek Maisua eta Jauna deitzen didazue, eta ongi deitu ere, halaxe naiz eta. Beraz, Nik, Jauna eta Maisua naizen honek, zuei oinak garbitu badizkizuet, zuek ere elkarri oinak garbitu behar dizkiozue. Jarraibide eman dizuet, zuek ere Nik zuekin bezalaxe joka dezazuen».

Aste Santua

San Fortunato, *martiria*

Bere mahaira gonbidatu gaitu Jesusek, anai-arreben afarian parte hartzera. Onginahiz prestatu du dena, guztiok etxeko senti gaitezen. Bera da mahaiburu, eta horregatik da zerbitzari. Ez da eseri lehen eserlekuan, baizik eta azkenekoan, guztioi hobeto zerbitzatzeko. Beti maite izan gaitu; gaur, ordea, azken-azkeneraino maite gaitu. Harriagarria da Jesus belauniko zerbitzatzen ikustea, guztioi oinak garbitzen. Bera beti honela gogoratu dezagun nahi du, gutaz txeraz arduratzen dela, egundoko eskerron batek bil-bil egin gaitzan, eta, horrenbestez, geuk ere gauza bera egin dezagun anai-arrebekin. Hauxe da kristau-elkartearen zeinua: oinak bata besteari garbitzea. Jaiotordu honetan Erreinuaren ezaugarriak marraztu ditu: leuntasuna, bata bestiaz arduratzea, zerbitzua, maita zaitzaten uztea, maitatzea. Guztiengana iristen den maitasuna da, ordea; «etsaietara ere iristen den» maitasuna, Judasen irudi deserosoa ordezkari duten etsaietara, alegia. Hura ere Jesusen onginahiaren pertsona duin da. Afari haren oroigarria da gaurko Eukaristia. Hartara gonbidatuak gara gaur ere; anai-arreben lekua da, kristau-elkarte baten kreazioa da, onarpena eta konpromisoa direla medio; gizadi berradiskidetuaren irudia da Eukaristia hori, egun batean bete-betea izango dena; gurekin betiko ituna zigilatu duen Jainkoagan guztiok topaketa emankorra egingo dugun aldarea.

* * *

«Abegitsu jokatzuz, beraz, gizakiak bere egiten du erronka eta dohain handi bat: norberaren taldeaz harago gizateriarekin bat egitekoa» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 90).

Aste Santua

Santa Atanasia, *aitorlea*San Eusebio, *gotzaina*

Isaias profetaren liburutik 52, 13-53, 12.

Hara, nire zerbitzariak arrakasta lortuko du; goratua, gorengo mailara jaso izango da. Asko eta asko ikaratu ziren hartaz, hain baitzuen giza itxura ere galdua eta gizakia zenik ere ez baitzirudien; era berean, herri asko harrituko dira, erregeak haren aurrean mutu geldituko, inoiz kontatu ez zitzaiena ikusiko baitute, inoiz entzun ez zutena adituko. Nork sinetsi du gure mezua? Nori agertu zaio Jaunaren ahalmena? Sustraiak lur lehorrean dituen kimua bezala hazi zen Jaunaren zerbitzaria haren aurrean; ez zuen duintasunik, ez edertasunik, ez gure begientzat itxura erakargaririk; mespretxatua eta jendeak baztertua, oinaze-gizona, sufritzen ikasia; ez ikusiarena egiten zaiona bezala, mespretxatu egin genuen eta aintzakotzat hartu ez. Baina gure gaitzak bere gain hartu zituen hark eta gure oinazeak eramane. Guk, berriz, zigortutzat geneukan, Jainkoak zauritu eta atsekabetutzat. Gure bekatuengatik zulatu zuten, gure erruengatik zanpatu. Haren gainera erori zen guretzat salbagarri den zigorra: haren zauriek sendatu gaituzte. Ardiak bezala genbiltzan galdurik, bakoitza geure bidetik, eta Jaunak haren gainera bota zuen gu guztion errua. Gaizki erabili zuten, baina hura apaldu egin zen, ahorik zabaldu gabe. Hiltzera daramaten bildotsak bezala, ile-moztaileen aurrean isilik dagoen ardiak bezala, ez zuen ahorik zabaldu. Gogorki eta zuzengabe eramane zuten; baina haren zoria nori axola? Bizidunen lurretik erauzi zuten, nire herriaren bekatuagatik jota. Gaiztoen artean lur eman zioten, gaizkileekin batera hilobiratu, nahiz eta hark bidegabekeriarik ez egin eta haren ahoan maltzurkeriarik ez izan. Jaunak oinazez josi nahi izan zuen. Bekatuen ordainetan bizia eman zuelarik, izango ditu ondorengoak eta bizitza luzea, eta haren bitartez Jaunaren nahia burutuko da. Hainbat neke jasan ondoren, argia ikusiko du eta asea izango da. Ikasi duenaren bidez, nire zerbitzari zuzenak asko egingo ditu zuzen, haien gaiztakeriak bere gain hartu baitzituen. Horregatik, jendetza ugaria emango diot ordainetan, gizataldeak izango ditu

Aste Santua

Santa Atanasia, *aitorlea*San Eusebio, *gotzaina*

garaipen-sari, bere burua heriotzara eman zuelako eta bekatarien kideztat hartu zutelako. Denen bekatuak bere gain hartu zituen eta bekatarien alde erregutu zuen.

Sal 30: Aita, zure eskuetan uzten dut neure espiritua!

Hebrearrei egindako gutunetik 4, 14-16; 5, 7-9.

Senideok: Gure apaiz nagusi handia, Jesus, Jainkoaren Semea, zeruetan sartua dugunez gero, euts diezaiogun aitortzen dugun sinesmenari; izan ere, gure apaiz nagusia ez da gure ahuleriaz erruki ez daitekeen norbait, hura ere, gu bezala, gauza guztietan probatua izan baita, bekatuan izan ezik. Hurbil gaitezen, bada, konfiantza osoz Jainkoaren graziaren tronura, errukia iritsi eta premialdian laguntza izan dezagun. Kristok, bere giza bizitzaldian, deiar dar handiz eta negarrez egin zion otoitz eta erregu heriotzatik libra zezakeen Jainkoari, eta, Kristok begirune izan ziolako, entzun egin zion Jainkoak. Eta Semea izanik ere, oinazearen oinazez ikasi zuen obeditzen; horrela, bere betera iritsirik, betiko salbamenaren iturri bilakatu zen obeditzen dioten guztientzat.

Jesu Kristo gure Jaunaren Nekaldia San Joanen liburutik 18, 1-19, 42.

Getsemanin, Jesus preso hartu eta loturik eraman.

K Aldi hartan, Jesus eta ikasleak Zedron erreka igaro eta beste aldean zegoen baratze batera sartu ziren. Judasek ere, Jesus salduko zuenak, ezagutzen zuen leku hura, maiz bildua baitzen Jesus han bere ikasleekin.

Judas, beraz, tenpluko gudari-taldea eta apaizburuak eta fariseuen guardiak harturik, hara joan zen. Zuzi, argiontzi eta armez horniturik zihoazen. Jesusek, ondo baitzekien gertatuko zitzaion guztia, bidera atera eta esan zien:

Aste Santua

Santa Atanasia, aitorlea
San Eusebio, gotzaina

† «Noren bila zatozte?..?

K Haiek erantzun:**S** «Jesus Nazaretarraren bila».**K** Hark orduan:

† «Ni naiz».

K Han zen guardiekin batean Judas saltzailea ere. Jesusek «Ni naiz» esan zienean, atzeraka hasi eta lurrera erori ziren. Berriro galdetu zien:

† «Noren bila zatozte?».

K Haiek erantzun:**S** «Jesus Nazaretarraren bila».**K** Eta Jesusek:

† «Esan dizuet Ni naizela. Nire bila bazatozte, utzi hauei joaten».

K Horrela bete zen Jesusek berak esandakoa: «Eman dizkidazunetatik ez dut bat ere galdu».

Orduan, Simon Pedrok, aldean zeraman ezpata atera, apaiz nagusiaren morroia jo eta eskuineko belarria moztu zion. Morroiak Malko zuen izena. Jesusek esan zion Pedrori:

† «Itzuli ezpata zorrora. Ez al dut, ba, edan behar Aitak eman didan edaria?».

Jesus Anasen etxera eraman zuten lehenengo.

K Gudari-taldeak bere buruzagiarekin eta judu-agintarien guardiek Jesus preso hartu eta, loturik, Anasen etxera eraman zuten lehenengo; urte hartako apaiz nagusi Kaifasen aitagarreba zen Anas hau (Kaifas zen juduei aholku hau eman ziena: «Hobe da gizon bat herriagatik hiltzea»).

Simon Pedro eta beste ikasle bat Jesusen atzetik joan ziren. Beste ikaslea apaiz nagusiaren ezaguna zen eta, Jesusekin batera, apaiz nagusiaren jauregiko patiora sartu zen; Pedro, berriz, kanpoan gelditu zen, ate ondoan. Atera zen orduan apaiz nagusiaren ezaguna zen

Aste Santua

Santa Atanasia, aitorlea

San Eusebio, gotzaina

ikaslea eta, atezainari hitz egin ondoren, Pedro barrura sarrarazi zuen. Atezain zegoen neskameak esan zion Pedrori:

S «Zu ere ez al zara gizon horren ikasleetakoa?».

K Pedrok erantzun:

S «Ez, ez naiz!».

K Morroiak eta guardiak sua piztu eta berotzen ari ziren, hotz egiten baitzuen. Pedro ere haiekin zegoen, berotzen. Apaiz nagusiak bere ikasleez eta irakatsiaz galdetu zion Jesusi. Jesusek erantzun zion:

† «Ageri-agerian hitz egin izan diot Nik mundu guztiari; sinagogan eta tenpluan irakatsi izan dut beti, judu guztiak biltzen diren lekuan, eta ezer ere ez dut ezkutuan esan. Zergatik galdetzen didazu niri? Galdetu nire entzuleei eta emango dizute esan dudanaren berri».

K Hori esan zueneko, han zegoen guardia batek masaileko bat eman zion, esanez:

S «Horrela erantzuten al diozu apaiz nagusiari?».

K Jesusek erantzun zion:

† «Gaizki hitz egin badut, esan zertan; baina ongi hitz egin badut, zergatik jo nauzu?».

K Orduan, Anasek Kaifas apaiz nagusiagana bidali zuen Jesus lotua.

Zu ere ez al zara, ba, horren ikasleetakoa? Ez, ez naiz!

Bitartean, han zegoen Simon Pedro berotzen, eta esan zioten:

S «Zu ere ez al zara horren ikasleetakoa?».

K Pedrok ukatu egin zuen, esanez:

S «Ez, ez naiz!».

K Apaiz nagusiaren morroietako batek, Pedrok belarria moztu zionaren ahaideak, esan zion:

S «Ez ote zaitut, ba, neuk ikusi horrekin baratzean?».

K Ukatu egin zuen Pedrok berriz ere, eta berehala oilarrak jo zuen.

Aste Santua

Santa Atanasia, aitorlea
San Eusebio, gotzaina*Nire erregetza ez da mundu honetakoa.*

Kaifasen etxetik Gobernariaren jauregira eramán zuten Jesus. Goizaldea zen. Juduak ez ziren jauregian sartu, beren burua ez kutsatzeko, bestela ezin izango baitzuten pazko-afarian parte hartu. Pilatok kanpora atera eta galdetu zien:

S «Zertaz salatzen duzue gizon hau?».

K Haiek erantzun zioten:

S «Gaizkilea ez balitz, ez genizukeen ekarriko».

K Pilatok esan zien:

S «Eraman zeuek eta epaitu zeuen legearen arabera».

K Juduek orduan:

S «Guri ez zaigu zilegi inor heriotzara kondenatzea».

K Horrela beteko zen Jesusek esandakoa, zein heriotzaz hilko zen adierazi zuenean. Pilato jauregira sartu zen berriro eta, Jesusi deiturik, galdetu zion:

S «Zu al zara juduen erregea?».

K Jesusek erantzun:

† «Zeure kabuz galdetzen didazu hori ala besteez esan dizute hori nitaz?».

K Pilatok esan zion:

S «Judua ote naiz, ba, ni? Zeure herritarrek eta apaizburuek ekarri zaituzte nigana. Zer egin duzu?».

K Jesusek erantzun:

† «Nire erregetza ez da mundu honetakoa. Nire erregetza mundu honetakoa balitz, nire jendeak borroka egingo luke, Ni juduen eskuetan ez erortzeko. Nire erregetza, ordea, ez da hemengoa».

K Orduan, Pilatok esan zion:

S «Beraz, errege zara Zu?».

K Jesusek erantzun zion:

† «Bai, errege naiz, zeuk diozun bezala. Honetarako jaio eta etorri naiz mundura: egiaren testigantza egiteko. Egiarena denak entzuten du nire ahotsa».

Aste Santua

Santa Atanasia, *aitorlea*San Eusebio, *gotzaina***K** Pilatok galdetu zion:**S** «Zer da egia?».**K** Hori esanik, berriz ere juduengana atera eta esan zien:**S** «Nik ez diot errurik aurkitzen gizon honi. Baina baduzue ohitura nik Pazko-jaietan preso bat askatzekoa: nahi al duzue juduen erregea askatzea?».**K** Haiek, berriz, deiadarka:**S** «Hori ez! Askatu Barrabas!».**K** Barrabas hau bidelapurra zen.*Agur, juduen errege!*

Pilatok, orduan, Jesus zigorkatzeko agindu zuen. Gudariek, arantzazko koroa eginik, buruan ezarri zioten eta purpurazko mantua bota zioten gainera. Eta, hurbildurik, esaten zioten:

S «Agur, juduen errege!».**K** Eta masailekoka zerabilten. Atera zen berriro ere Pilato eta esan zien juduei:**S** «Hara, kanpora dakarkizuet, jakin dezazuen ez diodala errurik aurkitzen».**K** Atera zen, bada, kanpora Jesus, arantzazko koroa eta purpurazko mantua zeramatzala.

Pilatok esan zien:

S «Hona gizona!».**K** Apaizburuak eta guardiak, hura ikustean, deiadarka hasi ziren:**S** «Gurutzeria hori! Josi gurutzean!».**K** Pilatok esan zien:**S** «Eraman zeuek eta gurutziltzatu; nik ez diot errurik aurkitzen».**K** Juduek erantzun zioten:**S** «Guk badugu legea, eta lege horren arabera heriotza-zigorra merezi du, Jainkoaren Seme egin baitu bere burua».

Aste Santua

Santa Atanasia, aitorlea

San Eusebio, gotzaina

K Hori entzutean, are gehiago beldurtu zen Pilato eta, berriro jauregira sarturik, galdetu zion Jesusi:

S «Nongoa zara Zu?».

K Jesusek, ordea, ez zion erantzun ere egin. Orduan, Pilatok esan zion:

S «Ez al didazu erantzun behar? Ez al dakizu aginpidea dudala Zu askatzeko nahiz gurutziltatzeko?».

K Jesusek erantzun zion:

† «Ez zenuke nire gain inolako aginpiderik izango, Jainkoak eman ez balizu. Horregatik, zure eskura eman nauenak bekatu handiagoa du».

Ken hori, ken! Josi gurutzean!

K Ordudanik, Jesus askatu nahian zebilen Pilato.

Baina juduak deiadarka hasi zitzaizkion:

S «Hori askatzen baduzu, ez zara enperadorearen adiskide. Bere burua errege egiten duena enperadorearen aurka ari da».

K Pilatok, hitz horiek entzutean, kanpora eraman zuen Jesus eta auzitegian eserarazi, «Har lauzatua» zeritzan lekuan —hebreeraz «Gabbata»—. Pazko-jairako prestaketa-eguna zen, eguerdi ingurua. Pilatok esan zien juduei:

S «Hona zuen erregea!».

K Orduan, haiek deiadarka:

S «Ken hori, ken! Josi gurutzean!».

K Eta Pilatok:

S «Gurutziltatu egin behar al dut zuen erregea?».

K Apaizburuek erantzun zioten:

S «Ez dugu enperadorea beste erregerik».

K Orduan, Pilatok haien esku utzi zuen, gurutziltza zezaten.

Aste Santua

Santa Atanasia, aitorlea

San Eusebio, gotzaina

Gurutzean josi zuten, eta harekin batean beste bi.

Hartu zuten, beraz, Jesus, eta, gurutzea sorbaldan zeramala, «Buru-hezur» –hebreeraz «Golgota»– zeritzan lekurantz atera zen. Han josi zuten gurutzean, eta harekin batean beste bi, alde banatan, eta erdian Jesus. Pilatok kartel bat idatzi eta gurutze-buruan ipini zuen; hau zegoen idatzia: JESUS NAZARETARRA JUDUEN ERREGA.

Judu askok irakurri zuen kartela, hiritik hurbil baitzegoen Jesus gurutziltzatu zuten lekua; gainera, hebreeraz, latinez eta grekoz zegoen idatzia. Juduen apaizburuek esan zioten Pilatori:

S «Ez idatzi “Juduen erregea”, baizik “Juduen erregea dela dioena”».

K Pilatok erantzun zuen:

S «Idatzia bego idatzirik!».

Nire jantziak beren artean banatu zituzten.

K Gudariak, Jesus gurutzean josi ondoren, haren jantziak hartu eta lau zati egin zituzten, bakoitzarentzat bat; gero, tunika hartu zuten, baina josturarik gabea, goitik behera ehundua, zenez, esan zioten elkarri:

S «Ez dezagun urratu; zotz egin dezagun, ea zeinentzat den».

K Horrela bete zen Liburu Santuak dioena: «Nire jantziak beren artean banatu zituzten, eta nire tunika zotz egin». Hain zuzen ere, horixe egin zuten gudariak.

Horra hor zeure semea! Horra hor zeure ama!

Jesusen gurutzearen ondoan zeuden haren ama, amaren ahizpa, Maria Kleofasen emaztea eta Maria Magdalena. Jesusek, bere ama eta, honen ondoan, maite zuen ikaslea ikusirik, esan zion amari:

Aste Santua

Santa Atanasia, *aitorlea*
San Eusebio, *gotzaina*

† «Emakume, horra hor zeure semea!».

K Gero, ikasleari esan zion:

† «Horra hor zeure ama!».

K Eta orduz gero ikasleak bere etxean hartu zuen.*Bete da dena!*

Ondoren, Jesusek, dena bete zela jakinik, Liburu Santuak esana erabat bete zedin, esan zuen:

† «Egarri naiz!».

K Bazen han ozpinez betetako pitxar bat. Orduan, belaki bat ozpintetan busti eta, kanabera bati muturrean erantsiz, ezpaintedara hurbildu zioten. Ozpina hartu zuenean, Jesusek esan zuen:

† «Bete da dena!».

K Eta, burua makurtuz, azken arnasa eman zuen.**Hemen, belauniko jarri eta egonalditxo bat egingo da.***Odola eta ura atera ziren.*

Pazko-jairako prestaketa-eguna zen, eta juduek ez zuten nahi larunbatean gorpuak gurutzean gelditzerik, larunbat hura oso jaiegun handia baitzen. Horregatik, gurutziltzatuei berna-hezurak hautsi eta handik kentzeko eskatu zioten Pilatori. Joan ziren, bada, gudariak eta berna-hezurak hautsi zizkieten Jesusekin gurutziltzatutako bie; baina, Jesusengana iritsi zirenean, ordurako hilik zegoela ikusirik, ez zioten berna-hezurrik hautsi, baizik eta gudari batek lantzaz saihetsa zulatu zion, eta bat-batean odola eta ura atera ziren. Ikusi zuenak berak aitortzen du eta egiazkoa da haren aitormena. Hark badaki egia dioela, zuek ere sinets dezazuen. Liburu Santuak dioena bete zedin gertatu zen hau: «Ez diote hezurrik hautsiko». Eta beste pasarte batean hau dio: «Zulatu zutenari begiratuko diote».

Aste Santua

Santa Atanasia, aitorlea

San Eusebio, gotzaina

*Jesusen gorpua oihal-zerrendaz lotu zuten,
tarteaz lurrin-gaiak ezarritik.*

Gero, Arimateako Josek Jesusen gorpua eramateko baimena eskatu zion Pilatori. Jesusen ikaslea zen Jose, baina isilpean, juduen beldurrez. Pilatok baimena eman zion. Hark, orduan, joan eta Jesusen gorpua eramanez egin zuen. Etorri zen Nikodemo ere, behin batean gauzez Jesus ikustera joan zen hura, hogeita hamarren bat kiloko mirra eta aloezko nahastura zekarrela. Hartu zuten, bada, Jesusen gorpua eta oihal-zerrendaz lotu zuten, tarteaz lurrin-gaiak ezarritik, juduek hobiratzeko duten ohituraren arabera. Jesus gurutziltzatu zuten lekutik hurbil, baratze bat zegoen, eta baratzean ordu arte inor ehortzi gabeko hilobi berria. Hilobia hurbil zegoenez, hantxe ipini zuten Jesus, juduen Pazko-eguna hastear baitzegoen.

Bere bizia gugatik ematen aurkeztu digu Jesus San Joanek. Inork ez dio kendu bizia, berak du ematen bere adiskideengatik. Jauna da bera, berak du eszena guztia dominatzen. Beraren inguruan ustelkeria dago soilik eta krudelkeria. Berak, alabaina, dirdira egiten du bere handitasun xumeaz, eta ingurumari guztia betetzen du bere ontasun-lurrinaz. Gaur gurutzean kontenplatzen dugu Kristo eta gurutzean adoratzeko. Gaur, beraren aintza gurutzean ederretsi dezagun nahi du ebanjelariak. Gurutzeak gure mundu honetako gaitz guztia ipintzen digu begi aurrean, Jesusek berak jasana duen gaitza bere haragi ahulean; baita, ordea, oinaze esanezinek sakailatua, nahasia, joa duten gizadi osoaren gaitza ere, zeini zentzurik ez baitiogu ikusten eta zeinen aurrean tarteka, etsirik, garrasi egiten baitugu. Jesusengan gure solidario egin da oinazean Jainkoa bera. Zuzengabeki torturatua eta eraila izan den errugabe bat ikusten dugu Jesusengan. Beraren hurbileko sentitzen gara, eta gupida eragiten digu. Aldi berean, beraren hurbiltasun horrek arindu egiten gaitu. Berak ondo asko ulertzen du gure sufrimendua, berak lehenago hori bera jasana duelako. Guretzetik kontsolamendu-hitza jaulkitzen digu, inola ere ez gaitzespen hitzik. Jesusengan Jainkoa bera dakusagu, gu guztiok gogoan gaituen Jainkoa, gure ondoan jarraitzen du oinazean eta larrialdian, biktimen zaindaria da, ez da ahazten inortaz.

Irteera liburutik 14, 15-15, 1a.

Aldi hartan, Jaunak esan zion Moisesi: «Zergatik ari zatzaizkit oihuka? Esan israeldarrei aurrera egiteko. Eta zuk jaso makila eta luzatu eskua itsaso gainera: erdi bi egingo da itsasoa eta israeldarrak erditik igaroko dira, oinik busti gabe. Nik setatsu bihurtuko ditut egiptoarrak, atzetik jarrai diezazueten, eta neure aintza agertuko dut faraoiaren eta haren gudarostearen bizkar, haien gurdien eta zaldizkoen bizkar. Orduan jakingo dute egiptoarrek Ni naizela Jauna, neure aintza agertuko dudanean faraoiaren eta haren gudarostearen bizkar, haien gurdien eta zaldizkoen bizkar». Israeldarren aurretik zihoan Jainkoaren aingerua atzealdera pasatu zen; laino-adarra ere lekuz aldatu eta atzealdean kokatu zen, israeldarren eta egiptoarren artean jarritz. Lainoa ilunpe bihurtu zen, eta ezin izan ziren gau osoan elkarrengana hurbildu. Luzatu zuen Moisesek eskua itsaso gainera eta, Jaunak eraginda, ekialdeko haize indartsuak jo zuen gau guztian. Haizeak itsasoa lehortu zuen, eta urak erdibi egin ziren. Itsasoan zabaldutako lehor-bidetik igaro ziren israeldarrak, oinik busti gabe, urak ezker-eskuin zituztela harresi gisa. Egiptoarrak, faraoiaren zaldi, gurdi eta zaldizko guztiak, israeldarrei erasoka itsaso erdiraino sartu ziren. Goizaldean, Jaunak su- eta laino-adarretik egiptoarren gudarosteari begiratu zion eta nahasmendua sortu zuen haren baitan. Gurdien gorpilak trabatu zituen, nekez mugitzen zirela utziz. Orduan, egiptoarrek esan zuten: «Goazen ihesi israeldarrengandik, Jauna ari baita haien alde eta gure aurka». Baina Jaunak esan zion Moisesi: «Luzatu eskua itsaso gainera, urak egiptoarren gainera, haien gurdien eta zaldizkoen gainera, bihur daitezten». Luzatu zuen Moisesek eskua itsaso gainera; eguna argitzean urak ohiko lekura itzuli ziren, eta egiptoarrek, ihes egiteko ahaleginean, urarekin aurrez aurre topo egin zuten; Jaunak itsaso hondora amildu zituen egiptoarrak. Beren lekura itzultzean, urek estali egin zituzten israeldarren atzetik itsasoan sartu ziren guriak, zaldizkoak eta faraoiaren gudaroste osoa; ez zen bat bakarra ere bizirik atera. Israeldarrak, berriz, oinik busti gabe igaro ziren itsaso erditik, urak ezker-eskuin zituztela harresi gisa. Egun

Aste Santua

Pazko Gau Beila

San Leon IX.a, 152. *Aita santua*

hartan Jaunak salbatu egin zuen Israel egiptoarren eskuetatik, eta hilik ikusi zituen Israelek egiptoarrak itsasbazerrean. Eta Jaunak egiptoarren kontra erabili zuen ahalmen handia ikusirik, herriak begirune izan zion Jaunari, eta Jaunagan eta honen zerbitzari Moisesengan jarri zuen uste ona. Orduan, Moisesek eta israeldarrek kantu hau abestu zioten Jaunari:

Sal: Ir 15, 1b-2.3-4.5-6.17-18 (R/. 1b): Jaunari diot kantatzen, garaipen handia lortu duelako.

San Paulok Erromatarrei 6, 3-11.

Senideok: Bataioaz Kristo Jesusekin bat egin dugunok, haren heriotzarekin egin dugu bat. Bataioaren bitartez harekin heriotzan hobiratuak izan gara, Aitaren aintzaz Kristo hilen artetik piztu zen bezala, guk ere bizi berria bizi dezagun. Izan ere, harena bezalako heriotzan hari itsatsiak izan bagara, halaxe izango gara harena bezalako piztueran ere. Badakigu lehengo gure izaera Kristorekin gurutziltzatua izan dela, bekatuzko gure izaera hori ezereztua geldi zedin eta aurrerantzean bekatuaren esklabo izan ez gintezen. Izan ere, norbait, hiltzen denean, bekatutik aske gelditzen da. Beraz, Kristorekin hil bagara, sinesten dugu, bizi ere harekin biziko garela. Badakigu Kristo, hilen artetik piztuz gero, ez dela berriro hilko; herioak ez du gehiago aginterik harengan; haren hiltzea bekatuarentzat behin betiko hiltzea izan baitzen, eta haren bizitzea Jainkoarentzat bizitzea da. Berdin zuek ere; hartu kontuan bekatuarentzat hilik zaudetela eta Jainkoarentzat bizirik, Kristo Jesusengan.

Sal 117: Aleluia, aleluia, aleluia.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 24, 1-12.

Asteko lehen-egunean, goizean goiz, hilobira joan ziren emakumeak, prestaturik zituzten usain gozoko ukenduak eramanez. Hilobi-sarrerako harria iraulia aurkitu zuten. Sartu ziren, baina ez

Aste Santua

Pazko Gau Beila

San Leon IX.a, 152. Aita santua

zuten Jesus Jaunaren gorpua aurkitu. Zer pentsa ez zekitela zeuden; hartan, bi gizaseme agertu zitzaizkien jantzi distiratsuz. Emakumeak ikaraz eta burumakur zeudela, gizaseme haiek esan zieten: «Zer zabilzate hilen artean, bizi denaren bila? Ez dago hemen; piztu da. Gogora ezazue Galilean zegoela esan zizuen: Gizonaren Semea bekatarien esku utzi behar zutela eta gurutziltzatu, baina hirugarren egunean piztu egin behar zuela». Haiek Jesusen hitzez oroitu ziren. Eta, hilobitik itzulirik, gertaturiko guztien berri eman zieten Hamaiketi eta gainerako ikasleei. Maria Magdalena, Joana eta Santiagoren ama Maria ziren emakumeok; eta hauekin ziren beste emakumeek ere gauza bera esaten zieten apostoluei. Baina hauek zorakeriatzat hartu zituzten berriok, eta ez zieten sinetsi. Hala ere, Pedro jaiki eta hilobira joan zen lasterka; makurturik, oihal-zerrendak besterik ez zuen ikusi, eta etxera itzuli zen gertatuaz harriturik.

Urteko kristau-jairik garrantzizkoena ospatzen dugu gaur. Kristo piztu da heriotzatik, eta bizirik jarraitzen du gurekin. Gure fedea gertaera honetan oinarritzen da: gurutziltzatuak orain Aitaren eskuinean jarraitzen du gugatik erregutuz. Berpiztuagan jo du kreazioak bere gailurra; izan ere, beragana jotzen dugu Jainkoa denengan dena izango den arte; biktima errugabeek atsedean hartu ahal izango dute azkenean, zeren zuzentasuna lortuko baitute eta Jauna betiko lagun izango; itsuek, sorgorrek, paralitikoek, gaixo guztiek bizi ahalko dute esperantza ezen Bizidunak eraberrituko diela beren bizia; gizarte bakar utziek eta zuzengabeek, zerura deika ari diren horiek, konfiantza izan dezakete ezen iritsiko dela eguna zeinetan guztiok giza familia berradiskidetu bakarra eratuko dugun. Etorkizuna Kristo berpiztuarekin partekatzeko eginak gara, berak ireki baitigu bidea Aitaganantz eta honen ondoan baitugu bera zain-zain. Aldi honetan, ikasleek egin zuten gauza bera egitea dagokigu: egunerokotasunean Kristo bertako, presente, dugunaren zeinuak aurkitu. Bera bizirik antzeman gure artean, bakoitzari gomendatu digun misioa onartu, geure dohainez eta karismez lan egin kristau-elkartea eraikitzen, eta beraren presentziak eragiten dizkigun pozez eta esker onez bizi.

Apostoluen Eginak liburutik 10, 34a.37-43.

Egun haietan, honela mintzatu zen Pedro: «Badakizue zer gertatu zen, Galileatik hasi eta Judea osoan, Joanez hots egin zuen bataioaren ondoren: Nazareteko Jesusena, alegia; Jainkoak Espiritu Santuaren indarrak gantzutu zuen, eta hark on egiten eta deabruak hartutako guztiak sendatzen igaro zuen bizitza, Jainkoa berekin baitzuen. Eta gu gara hark juduen lurraldean eta Jerusalemen egindako guztien testigu. Jesus hau habe batetik zintzilik hil zuten; baina Jainkoak piztu egin zuen hirugarren egunean eta agertzeko ahalmena eman zion; ez, ordea, herri guztiari, Jainkoak aurrez testigutzat aukeratutakoei baizik: guri, alegia, hura hilen artetik piztu ondoren harekin jan eta edan dugunoi. Jesusek berak agindu zigun herriari predikatzeko eta aitortzeko, bera dela Jainkoak bizien eta hilen epaile ipini duena. Profeta guztiek aitormen hau egiten dute hartaz: harengan sinets dezaten guztiek bekatuen barkamena hartuko dutela, haren izenean».

Sal 117: Hau da Jaunak egin duen eguna, gu pozteko eta alaitzeko eguna.

San Paulok Kolosarrei 3, 1-4.

Senideok: Kristorekin berpiztu zaretenez gero, bila itzazue zeruko gauzak, han baitago Kristo, Jainkoaren eskuinaldean eserita. Irrika itzazue goiko gauzak, eta ez lurrekoak, hilik baitzaudete, eta zuen bizia Kristorekin dago Jainkoagan gordea. Kristo, zuen bizia, agertuko denean, zuek ere aintzatsu agertuko zarete harekin batean.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20, 1-9.

Asteko lehen egunean, Maria Magdalena hilobira joan zen goizean goiz, artean ilun zegoela, eta harria hilobitik kendua ikusi zuen. Orduan, Simon Pedrogana eta Jesusek maite zuen beste ikasleagana

itzuli zen lasterka, eta esan zien: «Eraman egin dute Jauna hilobitik, eta ez dakigu non jarri duten». Atera ziren, orduan, Pedro eta beste ikaslea, eta hilobirantz abiatu ziren. Biak batera abiatu ziren lasterka, baina beste ikaslea Pedro baino arinago zihoan, eta lehenago iritsi zen hilobira. Barrura begiratzeko makurturik, oihal-zerrendak lurrean ikusi zituen, baina ez zen sartu. Iritsi zen haren atzetik Simon Pedro ere eta hilobian sartu zen. Oihal-zerrendak lurrean ikusi zituen, baita Jesusen burua biltzen egoniko zapia ere; hau, ordea, ez zegoen oihal-zerrendekin batera jarria, beste toki batean bildua baizik. Orduan, sartu zen beste ikaslea ere, hilobira lehenengo iritsi zena. Ikusi eta sinetsi egin zuen. Izan ere, ordu arte ez zuten ikasleek ulertu Liburu Santuak dioena, Jesusek hilen artetik piztu behar zuela.

Ikasleek astearen lehen egunean bizi izan duten zoramena eta urduritasuna agertzen digu irakurgaiak. Asko dira hilobi inguruan egin diren joan-etorriak. Lehenik emakumeak mugitu dira; hamabiek jarraitu diete. Jesusen heriotza jendaurreko gertaera izan da, Jerusalem osoaren begiradapekoa; piztuera, berriz, pertsona bakoitzaren barnean gertatu da, berpiztuaren presentziak bihotzean konbentzimendu irmoa lortu duenean. Irakurgaiaren arabera, Pedrok baino presakago korri egin duen ikaslea izan da lehenik «ikusi duena eta sinetsi». Aski izan du zoruan zabalik diren oihal-zerrendak eta buru-zapia ikusi eta gorpua falta dela konturatzea, Jaunaren beraren promesa, hilen artetik piztuko zelakoa, bete dela jabetzeko. Begi-bistan duguna baino harago begiratzen jakitea izaten da arazoa. Ikusten dena ez da aski izaten. Hilobira joan direnek Jesus maite izan dute; maitasun horrek, Jesus bera gogoratzeak eta Liburu Santuak: horiek guztiek gidatu dituzte hazte-prozesuan, nahiz eta azkenean fede-jauzi bat egin behar izan duten. Ikasle guztiek egin dute bide hori nork bere unean, eta horrela iritsiko dira elkarte fededun bat eratzerara. Heriotzaren trauma alaitasun partekatu eta esperantza irmo bilakatuko da.

Pazkoaldia. Zortziurrena

Canterbury-ko San Antselmo, *gotzaina eta eliz irakaslea*

Apostoluen Eginak liburutik 2, 14.22-23: Jesus hori piztu egin du Jainkoak, eta gu guztiok gara horren testigu. **Sal 15:** Zaindu nazazu, Jauna, babes bila bainator zugana.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 28, 8-15.

Aldi hartan, emakumeak hilobitik arin-arin alde egin eta, ikaraz baina poz-pozik, lasterka joan ziren ikasleei berri ematera. Hartan, Jesus atera zitzaien bidera eta agur egin zien. Emakumeek, hurbildurik, oinak besarkatu zizkieten eta gurtu egin zuten. Orduan, Jesusek esan zien: «Ez beldur izan! Zoazte eta esan nire senideei Galileara joateko. Han ikusiko naute». Emakumeak bidean zihoazela, guardiako batzuek hirira joan eta gertatutako guztiaren berri eman zieten apaizburuei. Hauek, zaharrekin bildu eta hitzartu ondoren, dirutza handia eman zieten gudariei, hau aginduz: «Esazue, haren ikasleek gauez etorri eta zuek lo zeundetelarik, gorpua lapurtu dutela. Eta Gobernariaren belarrietara ezer iristen bada, geuk hitz egingo diogu eta arriskutik aterako zaituztegu». Haiek dirua hartu eta agindu bezala egin zuten. Eta gaurdaino zabaldu da kontu hori juduen artean.

Aste honetako irakurgaiak berpiztuak ikasleei agertzeko hartu dituen era desberdinak azalduko dizkigute. Agerpen horietan Jesusen presentziaren aztarna aurkitu ahalko dugu. Gaurkoan, lehenik eta behin, poza aurkitzea izango da kontua. Berpiztuak alaitasunera eragiten du, kasu honetan, bizi duten trauma-egoera batetik abiatuz; erabat jota baitaude, gurutziltzatzearen krudeltasuna eta Maisua bortizki galdu dutela eta. Berak, ordea, larritasun guztia uxatu du, eta poz garbi eta bareaz bete ditu. Bigarren, misio edo eginkizun bat gomendatu die elkartearen faboretan. Emakume hauek Galileara bidali ditu anaiei hitz egitera, eta horixe egin dute. Poza eta misioa: horra bi dohain, berpiztuak geure bizitzara dakartzkigunak.

Jesusen Lagundian, Andre Maria, Jesusen Lagundiaren Ama,
1541-04-22an Lagundia Erromak onartua izana gogoratuz.

San Sotero, 13. Aita santua. San Apeles, aitorlea

Apostoluen Eginak liburutik 2, 14a.36-41: Bihotz-berri zaitezte eta bataiatu guztiok Jesus Mesiasen izenean. **Sal 32:** Jaunaren graziaz betea dago lurra.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20, 11-18.

Aldi hartan, Maria hilobi ondoan zegoen, kanpoan negarrez. Eta, negarrez zegoela, hilobirantz makurtu zen eta bi aingeru ikusi zituen, zuriz jantziak, Jesusen gorpua egon zen lekuan eserita, bata burualdean eta bestea oinetan. Aingeruek esan zioten: «Zer duzu negarrez, emakume?». Hark erantzun zien: «Nire Jauna eraman dute, eta ez dakit non ipini duten. Hau esan eta berehala, atzera itzuli eta Jesus ikusi zuen zutik, baina ez zen konturatu Jesus zela. Jesusek esan zion: «Zer duzu negarrez, emakume? Noren bila zabiltza?». Hark, baratzezaina zelakoan, esan zion: «Jauna, zuk eraman baduzu, esadazu non ipini duzun, eta nik jasoko dut». Jesusek esan zion: «Maria!». Honek, hurbilduz, esan zion hebreeraz: «Rabbuni!». (hau da, «Maisu!»). Jesusek esan zion: «Utz nazazu, oraindik ez bainaiz Aitagana igo. Zoaz nire senideengana eta esaiezu: “Neure Aitagana eta zuen Aitagana noa, neure Jainkoagana eta zuen Jainkoagana”». Joan zen Maria Magdalena, eta berri hau eman zien ikasleei: «Jauna ikusi dut, eta hau eta hau esan dit».

Maisua maite duen ikaslearen eredu da Maria. Jota dago haren absentsiagatik, eta malkoek eta oinazeak errealitatea ikustea eragozten diote. Bere maitasuna bakarrik du gidari. Jesusek esnatu egin du bere nitasun barnekoitik, beraren izena jaulki dionean: «Maria». Bizira berrirori dei egin balio bezala izan da, bera birkreatuz. Orduan antzeman dio Berpiztuari. Mariak berarekin atxiki nahi izango luke Jesus, eskuz berari helduz; baina hori ez da posible jadanik, berria da berpiztuaren errealitatea. Aske utzi behar izan du, ezin beretu du. Jesusek, orduan, misio bat gomendatu dio: komunika diezaiei ikasleei berak bizi izan duen hori. Orain anaia izango ditu, Jesusen Aita beraren seme. Lehenik eta behin, urrats bat egin izango dute: jopu izatetik adiskide izatera (Jn 15,15) igaro dira; orain, berriz, Jesusen anaia izatera igaro dira. Geure anaia nagusia dugu Jesus, eta aurrea hartu digu Aitaganako bidean.

Pazkoaldia. Zortziurrena
San Jorje, *martiria*

Apostoluen Eginak liburutik 3, 1-10: Dudana emango dizut: Jesu Kristoren izenean, jaiki eta ibil zaitez. **Sal 104:** Poztu zaitezte bihotzez Jaunaren bila zabiltzatenok.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 24, 13-35.

Egun hartan bertan, asteko lehen-egunean, Jesusen bi ikasle Emaus izeneko herrixka batera zihoazen, Jerusalemdik hamaika kilometrora. Jerusalemen gertaturiko guztiez mintzo ziren elkarrekin. Eta, hizketan eta eztabaidan ari zirela, Jesus berbera hurbildu zitzaien eta haiekin zihoan; haien begiak, ordea, itsu zeuden eta ez zuten ezagutu. Jesusek esan zien: «Zertaz diharduzue hizketan bidean elkarrekin?». Haiek gelditu egin ziren, aurpegia ilun, eta bietako batek, Kleofas zeritzanak, erantzun zion: «Zu izango zara Jerusalemen egun hauetan gertatu dena jakin ez duen kanpotar bakarra!». Jesusek galdetu zien: «Zer gertatu da, ba?». Haiek erantzun zioten: «Nazareteko Jesusi gertatua; profeta ahaltsua zen egitez eta hitzez Jainkoaren eta herri guztiaren aurrean; baina gure apaizburuek eta agintariek heriotzara kondenatu dute eta gurutzean josi. Guk uste genuen hark askatuko zuela Israel; baina bada hiru egun hori gertatu dela. Egia da gure arteko emakume batzuek harriturik utzi gaituztela; goizean goiz joan dira hilobira eta ez omen dute gorpua aurkitu; gainera, Jesus bizi dela esan dieten aingeruak agertu zaizkiela esanez etorri zaizkigu. Gutar batzuk ere izan dira hilobian, eta emakumeek esan bezala aurkitu dute; baina bera ez dute ikusi». Orduan, Jesusek esan zien: «Bai zentzugabeak zaretela, bai motelak profetek esana sinesteko! Ez al zuen, bada, Mesiasak hori guztia sufritu behar, bere aintzan sartzeko?». Eta, Moisesengandik hasi eta profetaz profeta, Liburu Santuek hari buruz zioten guztia azaldu zien. Zihoazen herrixkara hurbildu zirenean, Jesusek aurrera jarraitzeko keinua egin zuen. Baina haiek arren eta arren eskatu zioten: «Geldi zaitez gurekin, berandu baita eta iluna gainean dugu». Eta herrian sartu zen haiekin gelditzeko. Haiekin mahaian zegoela,

Pazkoaldia. Zortziurrena
San Jorje, *martiria*

Jesusek, ogia harturik, bedeinkapen-otoitza esan, zatitu eta eman zien. Orduan, begiak ireki zitzaizkien eta ezagutu zuten; baina Jesus desagertu egin zitzaien. Haiek elkarri esan zioten: «Ez al genuen bihotza sutan, bidean hitz egiten zigunean eta Liburu Santuak azaltzen zizkigunean?». Eta berehala altxatu eta Jerusalemera itzuli ziren. Han Hamaikak eta hauen lagunak bildurik aurkitu zituzten, hau ziotela: «Piztu da Jauna egiaz eta Simoni agertu zaio». Bi ikasleek bidean gertatua kontatu zieten eta nola ezagutu zuten ogia zatitzean.

Bi ikasle haiek Jerusalemdik alde egin dute, lur jota. Trauma suharra bizi izan dute, eta horrekin sekulako desengainua historia batez, Jesusenaz, uste baitzuten beste bukaera bat izango zuela. Uste zuten, izan ere, «Israelen askatzaile» izango zela Jesus, baina porrot eginda hil da; gurutzeak beren esperantza guztiak xahutu dizkie. Bidaiari anonimo baten beharra izan dute: historia beste era batean hartzera eragingo die hark. Historia berritu hartan beraren egiazko zentzua aurkitu dutenean, «begiak ireki zitzaizkien», bihotza sutan zutela. Orduan, gai izan dira argi berri horretan beste jarrera batean pentsatzen jarri eta gainerako lagunengana itzultzeko. Gu geu ere ibil gintezke nahasturik eta erresumindurik oker hartu edo gaizki kontatutako historietan; beraien zentzu askatzailea berpiztuak bakarrik argitu ahal dezakeen historia izaten dira; horrelakoetan argi berri horrek bakarrik itzul gaitzake bizira, berradiskideturik eta berriro anai-arreba bihurturik.

Pazkoaldia. Zortziurrena

Sigmaringo San Fidel, *apaiza eta martiria*

Apostoluen Eginak liburutik 3, 11-26: Biziairen sorburua hil zenuten, baina Jainkoak piztu egin du hilen artetik. **Sal 8:** Jauna, gure Jauna, bai miragarria zure izena lurbira osoan!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 24, 35-48.

Aldi hartan, Emausko ikasleek bidean gertatua kontatu zuten eta nola ezagutu zuten Jauna ogia zatitzean. Horretan ari zirela, Jesus bera agertu zen ikasleen erdian eta esan zien: «Bakea zuei». Haiek, beldur-ikaraz beterik, mamua ikusten ari zirela uste zuten. Baina Jesusek esan zien: «Zergatik izutu zarete? Zergatik sortzen zaizkizue zalantza horiek barruan? Ikusi nire esku-oinak: Ni naiz. Uki nazazue eta begira: mamuak ez du hezur-haragirik, eta Nik bai, ikusten duzue». Eta hau esatean, esku-oinak erakutsi zizkien. Haiek, ordea, pozaren pozez oraindik ere ezin sinetsirik eta harriturik baitzeuden, Jesusek esan zien: «Ba al duzue hemen jatekorik?» Arrain erre puska bat eskaini zioten. Jesusek hartu eta beraien aurrean jan zuen. Gero, esan zien: «Hauxe da, artean zuekin nengoela, esan nizuena: Moisesen legean, profetetan eta salmoetan nitaz idatzitako guztia bete beharrekoa zela». Orduan, adimena argitu zien, Liburu Santuak uler zitzaizkien. Eta esan zien: «Idatzia zegoen, Mesiasak sufritu egin behar zuela eta hirugarren egunean hilen artetik piztu, eta, Jerusalemdik hasita, bihotz-berritzea hots egin behar zaiela haren izenean herri guztiei, bekatuak barka dakizkien. Zuek zarete gauza hauen testigu».

Bakea berpiztuaren presentziaren zeinu handietako bat da. Bakea, oinazetan edota galera handi bat izan dugunean; bakea, Erreinua aurrera eraman nahi izaten dugunean harrotzen zaizkigun gatazketan; bakea, hazkundearen krisialdietan; bakea, desengainuetan eta kontraesanetan beraietan ere. Berpiztuak bidea irekitzen dio bizi berri bati, berak heriotza zeharkatu ondoren. Ez da izaten zerutik eroritako ustezko mamu-irudi bat, baizik eta Jesus bera, asasinatua eta ezpataz

Pazkoaldia. Zortziurrena

Sigmaringengo San Fidel, *apaiza eta martiria*

joa bera da, sufrimenduaren amildegitik ateratzen gaituena, hartatik zentzu berri bat ateratzeko bai bizitzari, bai geure historiari, bai elkarte fededunari, bai geure misio edo eginkizunari. Beraren ondoan laino guztia erabat joaten da, zauriak orbaintzen dira, eta berradiskidetzea, munduak behar duena, ernetzen da hasikin gisa.

* * *

Ireki ezazu nire adimena

Ni naiz orain Zure oinetan dagoena
eta oihukatzen dizuna:
Jauna, ireki ezazu nire adimena.

Burugogor samarra naiz eta bihotza itxirik daukat
Nire ate guztiak blokeatuta ditut.
Ukitu itzazu nire buru-bihotzak
eta ireki horietan bide lau bat,
Zure maitasuna bertatik igaro dadin:
Zure aurpegi samurra,
Zure hitz argitsuak eta Zure Piztuera.

Nire defentsa guztiak hautsi eta,
pertsona berri bat egin nazazun
egunik egokiena da gaurkoa.

(Patxi Loidi)

Pazkoaldia. Zortziurrena

SAN MARKOS, EBANJELARIA

Apostoluen Eginak liburutik 4, 1-12: Ez dugu beste inor salba gaitzakeenik. Sal 117: Etxegileek baztertutako harria, berori gertatu da giltzarria.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 21, 1-14.

Aldi hartan, berriro agertu zitzairen Jesus ikasleei Tiberiades itsasertzean. Honela gertatu zen agerpena. Elkarrekin zeuden Simon Pedro, Bikia zeritzan Tomas, Natanael Galileako Kanakoa, Zebedeoren semeak eta beste bi ikasle. Simon Pedrok esan zien: «Arrantzura noa». Gainerakoek erantzun zioten: «Zurekin goaz geu ere». Atera eta ontzira igo ziren. Baina gau hartan ez zuten ezer harrapatu. Eguna argitu zuenean, ur-ertzean agertu zen Jesus; baina ikasleak ez ziren konturatu Jesus zela. Jesusek esan zien: «Mutilak, ba al duzue jatekorik?». Haiek erantzun: «Ez». Jesusek orduan: «Bota sarea txaluparen eskuinaldera eta aurkituko duzue». Bota zuten, bada, eta, hainbeste arrain harrapatu zutenez, ez ziren sarea ateratzeko gauza. Orduan, Jesusek maite zuen ikasle hark esan zion Pedrori: «Jauna da». Simon Pedrok, Jauna zela aditu zueneko, soinekoa jantzi (erantzia baitzuen) eta jauzi egin zuen urera. Beste ikasleak txalupan etorri ziren, sarea arrainekin arrastaka zekartela, lehorretik hurbil baitzeuden, ehunen bat metrora. Lehorrera jaitsi zirenean, su-txingarrak ikusi zituzten eta arrain bat gainean, eta ogia. Jesusek esan zien: «Ekarri harrapatu berri dituzuen arrainetako batzuk». Igo zen Simon Pedro ontzira eta lehorrera atera zuen sarea, ehun eta berrogeita hamahiru arrain handiz betea. Eta, hainbeste izanik ere, ez zen sarea urratu. Jesusek esan zien: «Zatozte gosaltzera». Ikasleetako inor ez zen ausartzen nor zen galdetzer, bai baitzekiten Jauna zela. Orduan, Jesusek, hurbildurik, ogia hartu eta eman zien, baita arraina ere. Hirugarren aldia izan zen hau, Jesus, hilen artetik piztu ondoren, ikasleei agertu zitzaiena.

Oraingo honetan, berpiztua bertako, presente, egin zaie arrantzale batzuei beren bizitzako egunerokotasunean. Gau guztian aritu dira arrantzuan, baina alferrik, ez dute ezer harrapatu. Alabaina, gure misioko desengainu txikietan fruitu berriak ekarri ohi ditu berpiztuak; soilik, berak gida gaitzan utzi behar izaten da. Arrantzuaren ugaritasunean antzeman diote ikasleek Jaunari; konturatu dira, berek lanean dihardutela, bai, baina dohaina azkenean Jaunagandik etortzen dela. Arrantzua bukatzean, Jesus zain dute lagun egiteko, arrainaz eta ogiaz elikatzeko, beraiez arduratzen jarraitzeko. Ez da hitz askoren konturik; soilik, berpiztuaren ondoan une pribilegiatu hori, ugaritasuna eta bakea dakarzkiena, dastatzen eta gozatzen jakitea da.

* * *



San Markos. Altzo Muino. Erretaula.

Pazkoaldia. Zortziurrena

San Isidoro, *gotzaina eta eliz irakaslea*

Apostoluen Eginak liburutik 4, 13-21: Guk ezin dugu inola ere entzun eta ikusi duguna isilean gorde. **Sal 117:** Eskerrak zuri, Jauna, erantzun didazulako.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 16, 9-15.

Asteko lehen-egunean, goizean goiz, pizturik, Jesus Maria Magdalenari, zazpi deabru atera zizkionari, agertu zitzaion aurrena. Hura Jesusekin bizi izan zirenei berri ematera joan zen, triste eta negarrez baitzeuden. Baina haiek, bizi zela eta berak ikusi zuela entzutean, ez zioten sinetsi. Ondoren, ikasleetako biri agertu zitzaientzen, beste itxura batean, auzo batera bidean zihoazela. Hauek ere besteei berri ematera joan ziren; baina hauei ere ez zieten sinetsi. Azkenik, Hamaiketik agertu zitzaientzen, mahaian zeudela, eta aurpegira bota zien beren sinesgabetasuna eta burugogorkeria, bera pizturik ikusi zutenei sinetsi ez zitelako. Eta esan zien: «Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona izaki guztiei».

Bere ebanjelioaren bukaeran, berpiztuak lekuko desberdini egindako agerpen-saila aipatu du Markosek: Maria Magdalenari, beronen lagunei eta Hamaiketik egindako agerpenak. Horiek guztiak ikusi dutena gainerakoei komunikatzen ari dira, baina behin eta berriz errepikatzen da sinestezina, sinesteko zailtasuna. Hildako bat piztu ote daiteke? Pertsona bakoitzak du esperientzia egin beharra, berpiztua bertako egin dakion bere bizitzan era pertsonalean. Horrelakorik gertatzean, Jaunak elkartera dei egiten digu, misiolari bidaltzen gaitu mundu osora, gizadi osoak bera ezagutu ahal dezan, parte hartu ahal dezan beraren alaitasunean, sendotu ahal dezan bere esperantza.

Pazkoaldiko 2. astea. Jainkoaren Errukiaren Eguna. San Pedro Kanisio, *apaiza eta eliz irakaslea, jesuita*. Maria Antonia Bandres, dohatsua (Tolosa 1896-1919), *birjina*. San Pedro Chanel, *apaiza, marista eta martiria*

Apostoluen Eginak liburutik 5, 12-16.

Mirari eta egintza harrigarri asko gertatzen zen herrian apostoluen eskuz. Fededun guztiak Salomonen aterpean biltzen ziren gogo batez; baina beste inor ez zen haiekin elkartzera ausartzen, herriak goratzen bazituen ere. Gero eta ugariago ziren Jaunari elkartzen zitzaizkion fededunak, gizon eta emakume. Gaixoak kaleetara ateratzen zituen jendeak eta ohe nahiz ohatiletan ezartzen zituzten, Pedro igarotzean, honen itzalak bederen haietakoren bat edo beste uki zezan. Jerusalem inguruko herrietatik ere jende-talde handiak etorri ohi ziren, gaixoak eta espiritu gaiztoen menpe zeudenak ekarriz, eta sendatu egiten zituen guztiak.

Sal 117: Eskerrak Jaunari, ona baita, haren maitasuna betikoa baita.

Apokalipsia liburutik 1, 9-11a.12-13.17-19.

Ni, Joan, zuen anaia eta Jesusen maitasunagatik atsekabeen, erreinuan eta itxaropen iraunkorrean zuen kideko naizen hau, Patmos deritzan uhartean nengoen erbesteratua Jainkoaren hitzagatik eta Jesusen testigantza egiteagatik. Jaunaren egunean Espirituak hartu ninduen eta neure ostean ahots handia entzun nuen, turuta-hotsa bezalakoa. Hau zioen: «Idatz ezazu liburu batean ikusiko duzuna, eta bidali Asiako eliz elkarteetara». Itzuli nintzen mintzo zitzaidan ahots hura norena ote zen ikusteko eta, itzultzean, urrezko zazpi argimutil ikusi nituen, eta haien erdian gizaseme antzeko bat, soineko luzez jantzia eta bularraldea urrezko uhalez lotua. Hura ikustean, hilda bezala erori nintzen haren oinetara. Hark eskuineko eskua gainean jarri zidan, esanez: «Ez beldur izan! Ni naiz lehena eta azkena, bizi dena; hilik egon nintzen, baina orain bizirik nago menderen mendetan, eta neure esku ditut Herioaren eta Hilan Egoitzaren giltzak. Idatz ezazu, bada, ikusi duzuna; orain dena eta gero izango dena».

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20, 19-31.

Asteko lehen-egunean, ilunabarrean, etxe batean bildurik zeuden ikasleak, ateak itxita, juduen beldurrez. Sartu zen Jesus eta, erdian jarriarik, esan zien: «Bakea zuei». Hori esanda, eskuak eta saihetsa erakutsi zizkien. Ikasleak pozez bete ziren, Jauna ikustean. Jesusek berriro esan zien: «Bakea zuei. Aitak Ni bidali nauen bezala, Nik zuek bidaltzen zaituztet». Eta haien gainera arnasa botaz, esan zien: «Hartzazue Espiritu Santua. Zuek bekatuak barkatzen dizkiezuenei, barkatu egingo dizkie Jainkoak ere; zuek barkamena ukatzen diezuenei, ukatu egingo die». Tomas, Hamabietako bat, Bikia zeritzana, ez zegoen haiekin Jesus etorri zenean. Gainerako ikasleek esan zioten: «Jauna ikusi dugu». Tomasek erantzun zien: «Haren eskuetan iltze-zuloak ikusten ez baditut, neure atzamarra haren iltze-zuloetan eta neure eskua haren saihetsean sartzen ez baditut, ez dut sinetsiko». Handik zortzi egunera, etxean zeuden berriro ikasleak, eta Tomas ere haiekin zen. Sartu zen Jesus, ateak itxirik zeudela eta, erdian jarriarik, esan zien: «Bakea zuei». Gero esan zion Tomasi: «Ekarri atzamarra, begira nire eskuak; ekarri eskua eta sartu nire saihetsean, eta ez izan sinesgogor, sinestedun baizik». Tomasek erantzun zion:

«Ene Jauna eta ene Jainkoa!». Jesusek esan zion: «Ikusi nauzulako sinetsi al duzu? Zorionekoak ikusi gabe sinesten dutenak». Beste ezaugarri asko ere egin zuen Jesusek ikasleen aurrean, liburu honetan idatzirik ez daudenak; hauek idatzi dira sinets dezazuen Mesias eta Jainkoaren Semea dela Jesus eta, sinetsiz, haren izenean bizia izan dezazuen.

Beldurra gehitu zaio Jaunaren heriotzak eragindako traumari, eta ikasleak hesiturik eta barne barrendurik, barne banakaturik, utzi ditu. Ematen du, beren baitan eho duten sare babesle hori ezin urratua dutela. Baina berpiztuak bere bidexka urratzen du geure barne beldurti horren zirrikituetan barna eta freskagarri aurkezten zaigu geure artean: «bakea zuei». Beraren hitzak beldur gutzia xahutzen du, tente

jartzeko eta arnasa sakon hartzeko adorea ematen digu, eta konfiantza osoa itzultzen. Argi garbi gertatzen da bera geure itxituraren ilunpean. Beraren arnasak Espirituaren airea ufutzen digu, horizonte berrietara hegaldatuko gaituena, arin eta zalu. Agian, Tomasen sinesgogorkeriak ongi adierazten du berpiztuagan sinesteko izaten dugun zailtasuna, beraren esperientzia pertsonalik ez dugunean: bakea bizitzako estualdietan; adorea ahuldurarik handiena bizi dugunean; lagun egitea bertan behera utzi gaituztela sentitzen dugunean; esperantza bizitzako hodeitzarren pean. Bere zauriak ukitzeko aukera eskaini dio Kristok Tomasi. Hain justu, bizitzako sufrimenduen artean, geureen eta besteen artean, egiten da berpiztua bertako edo presente: lagun egitea eskainiz, kontsolatuz, adoretuz eta kemena emanaz. Orduan aitortu ahal izaten dugu beraren handitasunaren aurrean belainiko: «Ene Jaun eta ene Jainko».

* * *

«Samariar baten eta judu baten arteko topaketa errukitsu horren bidez, indarrez dei egiten zaigu, beraz, manipulazio ideologiko oro gezurtaturik gure taldea zabaltzera, maitatzeko dugun gaitasun horri dimentsio unibertsala ematera, gai izan gaitezen aurreiritzi guztiei aurre egiteko, muga historiko nahiz kultural guztiak eta interes zeken oro gainditzeko» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 83).

Pazkoaldiko 2. astea

San Prudentzio, *gotzaina* (*Gasteizko elizbarrutiko eta Arabako Zaindaria*)

Apostoluen Eginak liburutik 4, 23-31. Otoitza bukatzean, Espiritu Santuaz beterik gelditu ziren guztiak, eta ausardiaz hots egiten zuten Jainkoaren hitza.

Sal 2: Zorionekoak, Jauna, zugar babesten direnak!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3, 1-8.

Bazen fariseuen taldean Nikodemo izeneko gizon bat, juduen buruzagietakoa. Honek gauez Jesusengana etorri eta esan zion: «Maisu, badakigu Jainkoak guri irakasteko bidali zaituela; inork ez baitezake egin Zuk egiten duzun ezaugarririk, Jainkoa berekin ez badu». Jesusek erantzun zion: «Egi-egiaz diotsut: Ezin du inork Jainkoaren erreinua ikusi, berriro jaiotzen ez bada». Nikodemok galdetu zion: «Nola jaio daiteke norbait, zaharra izanik? Sar ote daiteke amaren sabelean eta berriz jaio?». Jesusek erantzun zion: «Egi-egiaz diotsut: Ezin da inor Jainkoaren erreinuan sartu, uretik eta Espiritutik jaiotzen ez bada. Gizakitik berez jaioa gizaki da, Espiritutik jaioa espiritu. Ez harritu berriro jaio behar duzuela esan dizudalako. Haizeak edonondik jotzen du, eta entzuten duzu haren hotsa, baina ez dakizu nondik datorren, ez nora doan. Gauza bera gertatzen da Espiritutik jaio denarekin».

Jesus errepika eta errepika: Jainkoaren Erreinua ikusi ahal izateko, berriro jaio behar du pertsonak. Esan nahi baita, Erreinuaren logika beste bat dela, geure artean ohikoa dugunaren bestelakoa, eta honek ezartzen dizkigun lotura eta uztarri guztietatik urrundu beharra izaten dugula. Erreinua doakotasun, erregalu, da, Jainkoaren barkamen, Jainkoaren gupida eta maitasun sorkariekiko, eta jende ahulari lehentasuna eskaintzea, pobreekiko hurbiltasun, Jainkoarekiko erabateko konfiantza. Gure balioak hain urrun daude Erreinitik, non berriro jaio beste aukerarik ez baitugu. Nikodemok diotso Jesusi ezinezkoa dela hori. Jesusek, berriz, posible dela erantzun dio, aski dugula geure burua Espiritua baitan bainatzea, eta beronek egingo digula modua mundua Jainkoaren begiez ikusteko, sorkari guztien alde berak ari duen gupida-mugimenduan guri ere parte harraraziz.

Pazkoaldiko 2. astea

Santa Katalina Sienakoa, *birjina eta eliz irakaslea*
(Europako Zaindaria)

San Joan Apostoluaren 1. Gutunetik 1, 5-2, 2.

Senide maiteok: Hona hemen Jesu Kristogandik entzuna dugun mezua eta zuei iragartzen dizueguna: Jainkoa argi da eta harengan ez da inolako ilunik. Harekin elkartasunean bizi garela esan eta ilunpetan baldin bagabiltza, gezurra diogu eta ez gara egiaren arabera ari. Baina argitan bagabiltza, elkartasuna dugu bata besterekin eta haren Seme Jesusen odolak bekatu guztitik garbitzen gaitu. Bekaturik ez dugula esaten badugu, geure burua engainatzen dugu eta egia ez dago gure baitan. Geure bekatuak aitortzen baditugu, ordea, leiala eta zuzena den Jainkoak barkatuko dizkigu bekatuak, eta gaiztakeria guztitik garbituko gaitu. Bekaturik ez dugula egin esaten badugu, gezurti egiten dugu bera, eta haren mezua ez dago gudan. Ene seme-alabok, bekaturik egin ez dezazuen idazten dizuet hau. Hala ere, norbaitek bekatu egiten badu, badugu laguntzailea Aitaren aurrean: zuzena den Jesu Kristo. Hark bere burua eskaini zuen gure bekaturen barkamenerako; eta gureen barkamenerako ez ezik, baita mundu guztikoen barkamenerako ere.

Sal 102: Bedeinka beza nire arimak Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11, 25-30.

Aldi hartan, Jesusen esan zuen: «Bedeinkatua Zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsuei eta burutsuei gorde eta jende xumeari agertu baitizkiozu. Bai, Aita, hala izan duzu gogoko. Nire Aitak dena eman dit, eta ez du inork Semea ezagutzen, Aitak baizik; ezta Aita ere, Semeak baizik, eta Semeak agertu nahi dionak baizik. Zatozte nigana nekatu eta zamatuz guztiok, eta Nik arinduko zaituztet. Hartazue nire uztarria eta ikasi nigan, gozoa eta bihotz-apala bainaiz, eta aurkituko duzue zeuen arimentzako atsedena. Nire uztarria leuna baita, eta nire zama arina».

Pazkoaldiko 2. astea

Santa Katalina Sienakoa, *birjina eta eliz irakaslea*
(Europako Zaindaria)

Hots handian eman zion Jesusek esker otoitza aldarrikatzeari: jende xumeak ulertu du Erreinuaz bera hots egiten ari den mezua. Paradoxak bata bestearen segidan datoz Ebanjelioan: jakintsuek ez dute ezer ulertzen; mespretxatua den eta lelotzat emana den jendea, berriz, Erreinuaren mezua atzematera iritsi da, eta mezu horrek erakarria sentitu da. Erreinuak hautsi egin du zuhurtasunaren logika; baita derrigorrezko sentitzen den ordenu sozial zokoratzaila, baztertzailea, zuzentzat ematen duen logika arrazionala ere. Jende xumea bakarrik da sentibera esperantza bizitzeko: pertsonaren bihotzean eta gure gizartea eratzeko moduan aldaketa handiago bat sor daitekeela uste izateko. Erreinuak iragartzen duen errotiko aldaketa hori albiste handitzat hartzen du jende horrek; jakintsuentzat, berriz, munduari gainbehera eragitea da.

* * *

«Inork ez du lortzen heldutasuna, inor ez da iristen bizitza betera, besteengandik bakartuta» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 95).

Pazkoaldiko 2. astea

San Pio V.a, 225. Aita santua
Santa Sofia, birjina eta martiria

Apostoluen Eginak liburutik 5, 17-26: Kartzelan sartu zenituzten gizonak tenpluan daude eta herriari irakasten ari dira. **Sal 33:** Dohakabeak oihu egin zuen, eta Jaunak entzun.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3, 16-21.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Nikodemori: «Hain maite izan zuen Jainkoak mundua, bere Seme bakarra eman baitzion, harengan sinesten duen inor gal ez dadin, baizik eta betiko bizia izan dezan. Jainkoak ez baitzuen bere Semea mundura bidali, mundua kondenatzera, haren bitartez mundua salbatzera baizik. Harengan sinesten duena ez dago kondenatua; sinesten ez duena, berriz, kondenatua dago jadanik, Jainkoaren Seme bakarraren izenean sinetsi ez duelako. Hauxe da kondenazioaren arrazoa: argia mundura etorria dela, eta gizakiek ilunpea nahiago izan dutela argia baino, haien egiteak gaiztoak zirelako. Izan ere, gaizkia egiten duenak gorroto dio argiari, eta ez dator argira, haren egiteak agerian geldi ez daitezen. Egiaren arabera ari dena, berriz, argira dator, haren egiteak Jainkoak nahi bezala eginak direla ager dadin».

Espiritu erlijiosoak badu joera bat, Jainkoa epaile eta zigortzaile dela uste izatekoa; hortik sortu da Jainkoaz jendeari beldurra sartu nahi izatea, hain sarri gertatua. Ebanjelioko mezuak, ordea, beste ikuspegi bat ageri du: Jainkoak maite gaitu eta guretzat duen maitasuna hain handia da, ezen bere Seme maitea bidali baitigu, bera lagun izan dezagun, berak maite gaituela senti dezagun, eta, beraren ondoan biziz, dohainez eta doakotasunez handia, sekulakoa, den biziera bat ikus eta ezagut dezagun. Jainkoaren aurrean beldurrak ez du lekurik, txikienik ere, baizik eta konfiantzak soil-soilik betetzen du guztia. Jainkoaz fida gaitzke. Orduan, konfiantzazkoa eta emana den pertsona horren jarrera hori gogoan izanik, argiak bide zabala urratuko du gure bizitzan, beronetan biziz eta berau argi bizian jarritz.



GAZTEEKIN

bide
eginez

etorkizun

ITXAROPENTSU

bat



SORTZEKO

MAIATZA / ORRILA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA

Lan baldintzen alde: Egin dezagun otoitz lanaren bidez pertsona bakoitza garatu dadin, familiek duintasunez eutsi diezaioten eta gizartea gizakoiagoa bihur dadin.

Pazkoaldiko 2. astea
SAN JOSE LANGILEA

Apostoluen Eginak liburutik 5, 27-33: Geu gara gauza hauen testigu, baita Espiritu Santua ere. **Sal 33:** Dohakabeak oihu egin zuen, eta Jaunak entzun.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3, 31-36.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Nikodemori: «Goitik datorrena denen gainetik dago. Lurretik sortua lurrekoa da eta lurrekoaz mintzo da. Zerutik datorrena denen gainetik dago; ikusi eta entzun duena aitortzen du; baina haren aitormena ez du inork onartzen. Haren aitormena onartzen duenak Jainkoak egia dioela baieztatzen du. Izan ere, Jainkoak bidali zuenak Jainkoaren hitzak esaten ditu, neurririk gabe ematen baitio bere Espiritua. Aitak Semea maite du, eta haren esku jarri du dena. Semeagan sinesten duenak betiko bizia du; baina Semeagan sinesten ez duenak ez du bizia ikusiko, baizik eta Jainkoaren haserrea du gainean».

Lurtarra dena lurrarena dela eta lurraz hitz egiten duela dio Jesusek. Gure garaia horrelakoa da, lurtarra da eta lurraz ari da. Munduari, gauzei itsatsita dago eta hegaldia ekiteko gaitasunik ez du. Eta horrela, bizitzan ezinbestekoak zaizkigun zenbait alderdi, hala nola, bere transzendentzia, bere ahalmen irekiak eta aurrekaririk gabeko etorkizunarekiko irekitasuna galdu egiten ditu. Jesusek bere agintzaria iragartzen duen Aitaren ahotsa, eta errealitatea begirada berriz ikustea ahalbideratzen duen argia dakartzkigu. Horretarako, beharrezkoa da begirada jasotzea, zorutik altxatzea eta otoitz eta senideekiko maitasun eta zerbitzuren bidez Jainkoagan bizi izatea.

* * *

SAN JOSEREN JAIKO MEZA

Hasiera liburutik 1, 26-2, 3.

Jainkoak esan zuen: «Egin dezagun gizakia geure irudiko, geure antzeko; mendera ditzala itsasoko arrainak, zeruko hegaztiak, etxeko abereak eta lurreko narrastiak». Jainkoak, beraz, bere irudiko egin zuen gizakia, Jainkoaren beraren irudiko egin zuen; gizaseme eta emakume kreatu zituen. Eta bedeinkatu egin zituen Jainkoak eta esan zien: «Sor itzazue umeak eta ugaritu, bete lurra eta izan haren nagusi; mendera itzazue itsasoko arrainak, zeruko hegaztiak eta lurrean dabiltzan piztia guztiak». Jainkoak esan zuen: «Begira, zuei ematen dizkizuet lurraren azalean diren hazidun landare guztiak eta hazidun fruitua dakarten zuhaitz guztiak; janari izango dituzue horiek. Abereei, zeruko hegaztiei eta lurrean dabiltzan bizidun guztiei, berriz, belarra ematen diet janari». Eta hala izan zen. Eta egindako guztia ikusi zuen Jainkoak, eta oso ona zen. Eta arrats eta goiz: seigarren eguna burutu zen. Honela, burutuak gelditu ziren zeru-lurrak eta hauetan dagoen guztia. Zazpigarren egunerako burutu zuen Jainkoak egindako lana, eta zazpigarren egunean, egindako lan guztiaren ondoren, atsedean hartu zuen. Jainkoak bedeinkatu egin zuen zazpigarren eguna eta sagaratu, egun horretan hartu baitzuen atsedean bere kreaio-lan guztitik.

Sal 89: Sendo ezazu, Jauna, gure eskuen lana.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13, 54-58.

Aldi hartan, Jesus bere herrira joan zen, eta irakasten hasi zen sinagogan. Jendeak, harriturik, hau zioen: «Nondik du honek horrelako jakinduria, eta nondik mirari horiek? Ez al da, ba, arotzaren semea? Ez al da Maria honen ama, eta Santiago, Jose, Judas eta Simon honen anaiak? Eta honen arrebak ere ez al dira hemen gure artean

Pazkoaldiko 5. astea
SAN JOSE LANGILEA

bizi? Nondik du, beraz, hori guztia?». Eta ezin zuten sinetsi harengan. Jesusek esan zien: «Profetari edonon ematen diote ohore, bere herrian eta etxean izan ezik». Eta ezin izan zuen han mirari askorik egin, ez baitzuten sinesten.

Jose, arotza

2005eko maiatzaren 1ean, eta lehen aldiz bere aitasantutza-aldian, Vatikanoko leihora atera zen Benedikto XVI.a, Joan Paulo II.aren ohiturari jarraituz. Eta, noski, San Joseri buruz hitz egin zuen: «Gaur maiatza hasten dugu, kristau-herrian ongi errotutako ospakizun liturgiko batekin, San Jose Langilearenarekin. Eta dakizuenez, ni ere Jose deitzen naiz. Pio XII.a Aita Santuak ezarri zuen oroitzapen-egun hau, duela berrogeita hamar urte; lanaren garrantzia nabarmentzeko, hain zuzen ere, eta baita Kristoren eta Elizaren garrantzia ere langileen munduan. Gaurko gizartean ere beharrezkoa da «lanaren ebanjelioaren» testigantza egitea, Joan Paulo II.ak *Laborem exercens* bere entziklikan aipatu bezala. Desio dut inoiz lanik ez falta izatea, gazteek batez ere, eta lan-baldintzak izan daitezela gero eta errespetu handiagokoak pertsonentzat». «Joseren bizitza osoa hartzen du “arotzaren” tituluak. Lana izan zen Nazaretoko bere Familiari izan zion maitasuna adierazteko eguneroko bidea. Jesus ere esaneko izan zen, Joseren lanean parte hartuz, eta ezagutu ere “arotzaren semetzat” ezagutzen zuten» (Benedikto XVI.a).

Pazkoaldiko 2. astea

San Atanasio, *gotzaina eta eliz irakaslea*San Felix, *martiria*

Apostoluen Eginak liburutik 5, 34-42. Apostoluak pozez atera ziren Batzarretik, Jesusen izenagatik irainak jasateko Jainkoak duin aurkitu zituelako.

Sal 26: Gauza bat eskatzen diot Jaunari: bizi nadila Jaunaren etxean.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6, 1-15.

Aldi hartan, Galilea edo Tiberiadesko itsasoaz bestaldera joan zen Jesus. Jendetza handia zihoakion ondoren, ikusten baitzuten nolako ezaugarriak egiten zituen gaixoengan. Jesus, orduan, mendira igo eta han eseri zen ikasleekin. Hurbil zen Pazkoa, juduen jai nagusia. Jesusek, jende asko zetorkiola ikusirik, esan zion Feliperi: «Non erosiko dugu ogia hauei jaten emateko?» (Zirikatzeko esan zion hori, ongi baitzekien zer egin behar zuen). Felipek erantzun zion: «Berrehun denarioren ogia ez litzateke nahikoa izango, bakoitzak puska bat izateko». Ikasleetako batek, Simon Pedroren anaia Andresek, esan zion: «Bada hemen bost garagar-ogi eta bi arrain dituen mutiko bat; baina zer da hori horrenbesterentzat?». Jesusek jendea eserarazteko agindu zien ikasleei. Belar ederra zen leku hartan eta denak eseri ziren. Bosten bat mila gizonezko ziren. Jesusek ogiak hartu eta, esker onezko otoitza esan ondoren, eseritakoen artean banatu zituen, eta orobat arrainak ere, nahi adina. Ase zirenean, Jesusek esan zien ikasleei: «Bil itzazue hondarrak, ezer gal ez dadin». Bildu zituzten, bada, eta hamabi saski bete zituzten bost garagar-ogietatik jan zutenek utzitako hondarrez. Jendeak, orduan, Jesusek egindako ezaugarria ikusirik, hau zioen: «Hauxe da, benetan, mundura etortzekoa zen profeta». Jesusek, ordea, errege egiteko, indarrez eraman nahi zutela oharturik, mendira alde egin zuen berriro, berak bakarrik.

Pazkoaldian zehar ez da zaila pasarte honetan Eukaristiaren mahaia sumatzea. Dena Jainkoarekin topo egiteko eta bake gailurra

Pazkoaldiko 2. astea

San Atanasio, *gotzaina eta eliz irakaslea*San Felix, *martiria*

den mendian gertatu da. Astiro-astiro jendeak Jesus inguratu du. Denak belar gainean eseri dira eta naturak inguratzen ditu. Jesusek, testuingurua menderatzen duenak, beraien esku mutil batek dohainik utzi dituen ogi eta arraienekin pertsona haien gosea ase du. Hartu ditu janariak, eskerrak eman dizkio Aitari eta ogia eta arrainak banatu ditu. Denak ase dira eta oraindik gehiago geratu da. Gure Eukaristia Jesusek jendetza gosetuari eskaini zizkion otordu haien oroimena da. Gaur, guk ere, beregana jotzen dugu geure Jainko gosea asetzeko.

* * *

Partekatu

Banatu, ezer ez duenarekin,
nahiz edozertarako duin eta gai den,
bere baitan eta Jainkoaren baitan.
Banatu, ez bakarrik sobera duzuna,
baita lapurtua duzuna ere;
are, premiazkoa duzuna ere.
Banatu, zuzentasunagatik, maitasunagatik,
legezkoa denaren gainetik,
kontuan ezarri gabe,
bestea gustura geldí dadin arte.
Banatu, xumeki eta buru-eskaintzaz,
handiagoa edo hobeaz zarela pentsatu gabe,
trukean edo eskerrak ematea eskatu gabe.

(Florentino Ulibarri)

Pazkoaldiko 2. astea

San Felipe eta Santiago, *apostoluak*

San Paulok 1 Korintoarrei 15, 1-8.

Senideok: Irakatsi nizuen Berri Ona oroitarazten dizuet. Zuek onartu egin zenuten, horretan sendo oinarrituak zaudete eta salbatu ere horrexek salbatzen zaituzte, nik iragarri nizuen bezala eusten badiozue. Bestela, alferrik sinetsiko zenuten. Nik hartu nuena bera eskualdatu nizuen lehen-lehenik, hau da, Kristo gure bekatuengatik hil zela, Liburu Santuek esan bezala; hobiratu egin zutela eta hirugarren egunean piztu egin zela, Liburu Santuek esan bezala; Pedrori agertu zitzaiola, eta ondoren Hamabiei; gero, bostehun eta gehiago senideri agertu zitzaion batera –horietako gehienak bizirik daude oraindik, batzuk hil badira ere–; gero, Santiagori agertu zitzaion, ondoren apostolu guztiei. Beste guztiei agertu ondoren, neuri ere agertu zitzaidan, garaia baino lehen jaiotako haurra bezalakoa naizen honi.

Sal 18: Lurbira guztira zabaltzen da haien hotsa.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14, 6-14.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Tomasi: «Ni naiz bidea, egia eta bizia. Ezin da inor Aitagana joan, nire bidez izan ezik. Ni benetan ezagutuko baninduzue, nire Aita ere ezagutuko zenukete. Are gehiago, ezagutzen duzue dagoeneko, eta ikusi ere ikusi duzue». Orduan, Felipek esan zion: «Jauna, erakutsiezaguzu Aita, eta nahikoa dugu».

Jesusek erantzun: «Hainbeste denbora zuekin, eta ez al nauzu ezagutzen, Felipe? Ni ikusten nauenak Aita ere ikusten du. Nola diozu: “Erakutsiezaguzu Aita”? Ez al duzu sinesten Ni Aitagan nagoela eta Aita nigan? Nik esaten dizuedana ez dizuet neure kabuz esaten. Nigan bizi den Aita da bere egintzak burutzen ari dena. Sinetsiezadazue: Ni Aitagan nago eta Aita nigan. Besterik ez bada ere, sinetsi egintzengatik.

Pazkoaldiko 2. astea

San Felipe eta Santiago, *apostoluak*

Egi-egiaz diotsuet: Nigan sinesten duenak Nik egiten ditudan egintzak burutuko ditu berak ere, eta are handiagoak, Ni Aitagana bainoa. Nire izenean eska dezazuen guztia emango dizuet, Aitaren aintza Semeagan ager dadin. Nire izenean zerbait eskatzen baduzue, emango dizuet Nik».

Harridura sortzen du Felipek Jesusi Aita erakusteko egiten dion eskaerak. Aspalditik daramate elkarrekin, bere ikasleentzat Jesusen errealitateak misterio izaten dirau, ezer gutxi ikasi dute beregandik. Oraindik ez dute ulertu gertukoa den Jesusengan ageri dena Aita harrapa ezina dela. Guri ere horrelako zerbait gerta dakiguke. Denbora luzez Jesusen jarraitzaile gara, baina, beharbada oraindik ezezaguna zaigu. Beragan dugu Aitarenganako eta Erreinurako bidea, gure izanaren egia eta zentzuz eta alaitasunez betetzen gaituen bizia. Pazkoaldian Jesusen, gure Maisuaren, azken errealitatean sakondu genezake. Horretarako piztueraren bizipena izan eta haren espirituak gida zitzatela utzi zuten ikasle haien urratsak jarraitu behar ditugu.

* * *

«Arrazakeria erraz mututzen den birus bat bezalakoa da: desagertu beharrean, disimulatu egiten da, baina beti dago erasotzeko prest» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 97).

Pazkoaldiko 3. astea

San Jose Maria Rubio, *apaiza, jesuita***Apostoluen Eginak liburutik 5, 27b-32.40b-41.**

Egun haietan, apaiz nagusiak esan zien apostoluei: «Ez al genizuen zorrotz agindu ez irakasteko Jesusen izenean? Zuek, berriz, Jerusalem osoa bete duzue zeuen irakaspenez; gainera, gizon horren heriotzaren erantzukizuna geuri leporatu nahi diguzue». Pedrok eta beste apostoluek erantzun zuten: «Jainkoaren esana egin behar da aurrena, ez gizakiena. Gure arbasoen Jainkoak piztu egin du zuek egur batetik zintzilik hil zenuten Jesus. Jainkoak goratu egin du bere eskuinaz, Buruzagi eta Salbatzaile eginez, Israeli bihotz-berritzea eta bekatuen barkamena emateko. Geu gara gauza hauen testigu, geu eta esaneko zaizkionei Jainkoak ematen dien Espiritu Santua». Jesusen izenean hitz egitea zorrotz debekatu zieten. Ondoren, askatu egin zituzten. Apostoluak pozez atera ziren Batzarretik, Jesusen izenagatik irainak jasateko Jainkoak duin aurkitu zituelako.

Sal 29: Goratuko zaitut, Jauna, onik atera nauzulako.**Apokalipsia liburutik 5, 11-14.**

Nik, Joanek, ikuskarian, tronuaren, bizidun izakien eta zaharren inguruan zeuden aingeru askoren ahotsa entzun nuen; milaka eta milioika ziren, eta hots handiz zioten: «Hila izan den Bildotsa bada nor ahalmena eta aberastasunak, jakinduria eta indarra, ohorea, aintza eta gorespена hartzeko». Eta zeruan, lur gainean, lurpean eta itsasoan dauden sorkari guztiei, hau esaten entzun nien: «Tronuan eseria dagoenari eta Bildotsari gorespена, ohorea, aintza eta agintaritzza gizaldi eta gizaldietan». Lau izaki bizidunek «Amen» erantzun zuten, eta zaharrek ahuspeztu eta gurtu egin zuten.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 21, 1-19.

Aldi hartan, berriro agertu zitzairen Jesus ikasleei Tiberiades itsasertzean. Honela gertatu zen agerpena. Elkarrekin zeuden

Pazkoaldiko 3. astea

San Jose Maria Rubio, *apaiza, jesuita*

Simon Pedro, Bikia zeritzan Tomas, Natanael Galileako Kanakoa, Zebedeoren semeak eta beste bi ikasle. Simon Pedrok esan zien: «Arrantzura noa». Gainerakoek erantzun zioten: «Zurekin goaz geu ere». Atera eta ontzira igo ziren. Baina gau hartan ez zuten ezer harrapatu. Eguna argitu zuenean, ur-ertzean agertu zen Jesus; baina ikasleak ez ziren konturatu Jesus zela. Jesusek esan zien: «Mutilak, ba al duzue jatekorik?». Haiek erantzun: «Ez». Jesusek orduan: «Bota sarea txaluparen eskuinaldera eta aurkituko duzue». Bota zuten, bada, eta, hainbeste arrain harrapatu zutenez, ez ziren sarea ateratzeko gauza. Orduan, Jesusek maite zuen ikasle hark esan zion Pedrori: «Jauna da». Simon Pedrok, Jauna zela aditu zueneko, soinekoa jantzi (erantzia baitzuen) eta jauzi egin zuen urera. Beste ikasleak txalupan etorri ziren, sarea arrainekin arrastaka zekartela, lehorretik hurbil baitzeuden, ehunen bat metrora. Lehorrera jaitsi zirenean, su-xingarrak ikusi zituzten eta arrain bat gainean, eta ogia. Jesusek esan zien: «Ekarri harrapatu berri dituzuen arrainetako batzuk». Igo zen Simon Pedro ontzira eta lehorrera atera zuen sarea, ehun eta berrogeita hamahiru arrain handiz betea. Eta, hainbeste izanik ere, ez zen sarea urratu. Jesusek esan zien: «Zatozte gosaltzera». Ikasleetako inor ez zen ausartzen nor zen galdetzera, bai baitzekiten Jauna zela. Orduan, Jesusek, hurbildurik, ogia hartu eta eman egin zien, baita arraina ere. Hirugarren aldia izan zen hau, Jesus, hilen artetik piztu ondoren, ikasleei agertu zitzaiena. Gosaldu ondoren, Jesusek esan zion Pedrori: «Simon, Joanen semea, hauek baino maiteago al nauzu?». Hark erantzun: «Bai, Jauna, badakizu maite zaitudala». Jesusek, orduan: «Bazka itzazu nire bildotsak». Bigarrenez galdetu zion Jesusek: «Simon, Joanen semea, maite al nauzu?» Hark erantzun: «Bai, Jauna, badakizu maite zaitudala». Jesusek, orduan: «Zaindu itzazu nire ardiak». Hirugarrenez galdetu zion Jesusek: «Simon, Joanen semea, maite al nauzu?». Pedro goibeldu egin zen maite al zuen hirugarrenez galdetu ziolako, eta erantzun zion: «Jauna, Zuk dena dakizu; Zuk badakizu maite zaitudala». Orduan, Jesusek esan zion: «Bazka itzazu

Pazkoaldiko 3. astea

San Jose Maria Rubio, *apaiza, jesuita*

nire ardiak. Bene-benetan diotsut: Gazteago zinenean, zeuk lotzen zenuen gerrikoa eta nahi zenuen tokira joaten zinen; zahartzean, ordea, zuk besoak luzatu eta beste batek lotuko dizu gerrikoa eta nahi izango ez duzun tokira eramango zaitu». Horrela, zer-nolako heriotzaz Jainkoari aintza emango zion adierazi zuen Jesusek. Ondoren, esan zion: «Jarraitu niri».

Pasarteak ongi deskribatzen du gure kristau bizitza. Hainbatetan egin behar dugu lan iluntasunean, agian ezer ez lortzearen sentsazioaz. Baina iristen da egunsentiko argitasun una eta argiak bidea egiten du. Jaunak garamatzala sentitzen dugu eta, bat batean, bila genbiltzan bizia oparotasunez ageri da. Ezin diogu geure buruari meriturik eman, alderantziz, eskertza oihukatu besterik ezin genezake. Geure ahaleginen ondorio da, baina, dena bukatua zela zirudienean, ugari ematen duen Jainkoaren dohaina da. Orduan geuk ere ezagutu egiten dugu eta ikasle maiteak bezala esan genezake: «Jauna da». Baretasuna dakarren aitortza eta aldi berean, Pedro bezala, mugiarazten duena. Berpiztuaren agerraldi hau ikasleekin egiten duen otorduan burutzen da. Gertaera hau isiltasun kontenplatiboan gauzatzen da: Maisuaren presentzia gozatzen dute, haren pentsamenduak hausnartzen dituzte, lagundu eta goxotasunez zaindu, janaritu eta ase egiten duen Jainkoaren usaina sumatzen dute. Eukaristiaren irudia da, non gure kristau bizitza burutzen den eta eskaintza eta konpromiso berriaren iturburu da. Bertan, gure ondoan fruituak emanez jarraitzeko, egunerokotasunean bidelagun dugun eta berriro misiora bidaltzen gaituen Jainkoa ukitzen dugu.

Pazkoaldiko 3. astea

Santa Felizisima, *martiria*Santa Irene, *martiria*

Apostoluen Eginak liburutik 6, 8-15: Ezin izan zioten aurre egin Espirituak mintzatzeko ematen zion jakinduriari. **Sal 118:** Zorionekoak Jaunaren lege-bidean dabilzanak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6, 22-29.

Jesusek bost mila gizonezkoei, ase ziren arte, jaten eman ondoren, ur gainean oinez ikusi zuten Jesus ikasleek. Biharamunean, itsasoaz bestaldean zegoen jendea ohartu zen han txalupa bakarra izan zela, eta Jesus ez zela ikasleekin ontziratu, baizik eta hauek bakarrik joan zirela. Bitartean, beste zenbait txalupa etorri zen Tiberiadestik, Jaunak esker onezko otoitza egin ondoren ogia jan zuten ingurura. Jesus eta ikasleak han ez zeudela ikustean, jendea txalupetara igo eta Kafarnaumera joan zen, Jesusen bila. Itsasoaz bestaldean aurkitu zutenean, esan zioten: «Maisu, noiz etorri zara hona?». Jesusek erantzun zien: «Egi-egiaz diotsuet: Nire bila zabiltzate, ez ezaugarriak ikusi dituzuelako, ogia asetzeraino jan duzuelako baizik. Ahalegindu zaitezte, ez galtzen den janariagatik, irauten duenagatik baizik, betiko bizia ematen duenagatik; hori Gizonaren Semeak emango dizue, bera egin baitu Jainko Aitak bere aginpidearen ordezkari». Orduan, galdetu zioten: «Zer egin behar dugu, Jainkoak nahi duena egiteko?». Jesusek erantzun zien: «Hau da Jainkoak nahi duena: berak bidali duenagan zuek sinestea».

Jendeak Jesus aurkitzeko egiten duen ahaleginak gure arreta pizten du. Hor dabilta, ahalegin osoz, alde batetik bestera beraren aztarnak jarraitzen, berarekin topo egin ahal izateko. Hala ere, badaki Jesusek ez direla ari bere bila, ezta ere Erreinuaren iragarpenaren bila; bakar bakarrik jendetzarekin partekatu duen ogia lortu nahi dute. Beraientzat ogiaren iturri agortezin delako ari dira bilaketan. Guk ere sarritan Jainkoa erabili egin nahi izaten dugu, ugariak diren gure behar materialak aseko dituen iturria ziurtatu nahi izaten dugu: segurtasuna, osasuna eta ondasunak. Hori da gure ogi-gosea eta Jainkoari eskatzen diogun ogia. Baina Jesusen ogia Jesus bera da. Jesusek gurekin topo egin nahi du: bizia betetzen eta eskuzabaltasun eta gainerakoentzat dohain bihurtu den topo egitea da.

Pazkoaldiko 3. astea

Domingo Savio santua, aitorlea
San Luzio, profeta eta doktorea

Apostoluen Eginak liburutik 7, 51-8.1a: Jesus Jauna, hartazazu nire bizia. **Sal 30:** Zure eskuetan uzten dut, Jauna, neure bizia.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6, 30-35.

Aldi hartan, jendeak esan zion Jesusi: «Zein ezaugarri egiten duzu, guk haiek ikusi eta zugan sinesteko? Zer egiten duzu? Gure arbasoek mana jan zuten basamortuan, Liburu Santuak dioen bezala: “Zeruko ogia eman zien jaten”». Jesusek erantzun zien: «Egi-egiaz diotsuet: Ez zizuen Moisesek eman zeruko ogia; nire Aitak ematen dizue zeruko egiazko ogia; zeren Jainkoaren ogia zerutik jaitsi eta munduari bizia ematen diona baita». Orduan, haiek Jesusi: «Jauna, emaguzu beti ogi horretatik». Jesusek erantzun zien: «Ni naiz bizia ematen duen ogia; nigana datorrena ez da gose izango, eta nigan sinesten duena ez da behin ere egarri izango».

Jesusen erantzunaren aurrean jendetzak bere azken eskaria adierazten du: «Jauna, emaguzu beti ogi hori». Ez zaigu zail egiten, beraien hauskortasuna adierazten duen erreakzio honen aurrean hunkitzea eta haien nahiarekin bat egitea. Bizitzan beharrezkoak ditugu adiskidetasuna, animoa eta sendotasuna; itxaropena, motibazioa eta ilusioa. Ez ditugunean, edozein basa-ordezko gogotsu bilatzen dugu eta prezioak ez du axolarik. Baina Jaunak bakarrik dakar benetan behar duguna, gure gose eta egarria gutxitzen eta erabat itzaltzen dituen. Eukaristiak laburbiltzen du gure artean, beraren elkartean, presente dagoen Jaunarekin topo egitea: beraren burua den ogia ematen digu, baretzen eta baketzen gaituen eta beraren misioan parte hartzeko bidaltzen gaituen ogia.

Apostoluen Eginak liburutik 8, 1b-8: Alde guztietara joan ziren, Berri Ona hots eginez. **Sal 65:** Lur osoa, egiozu irrintzi Jainkoari.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6, 35-40.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Ni naiz bizia ematen duen ogia; nigana datorrena ez da gose izango, eta nigan sinesten duena ez da behin ere egarri izango. Zuek, ordea, lehen ere esan dizuedanez, ez duzue sinesten, ikusi nauzuen arren. Aitak niri ematen dizkidan guztiak nigana etorriko dira, eta nigana etortzen denik ez dut kanpora botako, ez bainaiz zerutik jaitsi neure nahia egitera, bidali nauenaren nahia baizik. Eta hauxe da bidali nauenaren nahia: berak eman dizkidan guztietatik, ez dezadala bat ere galdu, baizik eta piztu ditzadala azken egunean. Hauxe da nire Aitaren nahia: Semea ikusi eta harengan sinesten duenak izan dezala betiko bizia; eta Nik piztuko dut azken egunean».

Jesusek bizia bete egiten du, berekin ez dugu gehiago ez goserik ez egarririk. Asetzen duen ogia da. Izaki behartsuak gara, hainbat alditan ase beharrak larrituta. Baina Kristogan bizi betea ematen duen baretasuna aurkitzen dugu. Orduan laudorio eta ondasunen beharrizanetik libre, bekaizkeriatik urrun senti gintezke, kritikak jasateko, besteen erruak barkatzeko eta besteen eskakizunak onartzeko gai. Kristogan niak bere anbizioa pixkana itzaltzen ikusten du eta emankortasun berritua eta solidaritatera deituak garen anai-arreben gure izaera onartzea sortzen dira. Harengan bake bizia eta atsedeen sakona erretzen dira. Beragan sumatzen dugu bideratu gaituen eta egunen batean izango dugun betiko bizia.

Pazkoaldiko 3. astea

Antiguako Andre Maria Santa Dominga, *martiria*

Apostoluen Eginak liburutik 8, 26-40: Hona ura; zerk eragozten du ni bataiatzea? **Sal 65**: Lur osoa, egiozu irrintzi Jainkoari.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6, 44-51.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Ezin da inor nigana etorri, bidali nauen Aitak erakartzen ez badu. Eta Nik piztuko dut azken egunean. Hau dio profeten liburuak: “Jainkoaren ikasle izango dira denak”. Aitari entzun eta hark irakatsia bereganatzen duena nigana dator. Horrek ez du esan nahi inork Aita ikusi duenik; Jainkoagandik etorri denak bakarrik ikusi du Aita. Egi-egiaz diotsuet: Sinesten duenak betiko bizia du. Ni naiz bizia ematen duen ogia. Zuen gurasoek mana jan zuten basamortuan eta, halere, hil egin ziren. Bestelakoa da zerutik jaisten den ogia; honetatik jaten duena ez da hilko. Ni naiz zerutik jaitsia den ogi bizia; ogi honetatik jaten duena betiko biziko da. Eta Nik emango dudan ogia nire haragia da, mundua bizi dadin emana».

Jesus biziaren ogi eta zerutik jaitsitako janari bezala agertzen da. Gauza material eta zehatzetan itsuturik, gure barne irritsu eta urduria asetzen duena, goitik –Jainko berarengandik– datorren dohaina bakarrik dela ahaztu egiten zaigu. Itxaropen, lagundi, anaitasun, segurtasun eta alaitasun bezala bizitzaren materialtasunari gehigarri zaiona da handiena. Gure bizitzako gertaeretan sortzen da eta esker-otoitzean ezagutzen dugu bene-benetan. Jesusen jarraitzaileen elkartearen kantu eskertua den Eukaristia da, asetzen gaituen eta biziaren zentzu egiazkoa ematen digun bere handitasunagatik, Jainkoari gure gorapena adierazten diogun gunea.

Apostoluen Eginak liburutik 9, 1-20: Neure zerbitzurako aukeratua dut gizon hori, jentilei nire izena adieraz diezaien. **Sal 116:** Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6, 52-59.

Aldi hartan, juduak eztabaidan ari ziren beren artean: «Nola eman diezaguke honek bere haragia jaten?». Jesusek esan zien: «Egi-egiaz diotsuet: Gizonaren Semearen haragia jaten eta haren odola edaten ez baduzue, ez duzue bizirik izango zeuengan. Nire haragia jaten eta nire odola edaten duenak betiko bizia du, eta Nik piztuko dut azken egunean. Zeren nire haragia egiazko janari baita eta nire odola egiazko edari. Nire haragia jaten eta nire odola edaten duena nigan dago eta Ni harengan. Bizia den Aitak bidali nau eta Ni Aitari esker bizi naiz; era berean, Ni jaten nauena niri esker biziko da. Hau da zerutik jaitsi den ogia; ez da zuen gurasoek jan zutena bezalakoa, haiek hil egin baitziren. Ogi honetatik jaten duena betiko biziko da». Hau guztia Kafarnaumgo sinagogan irakatsi zuen Jesusek.

Eukaristian Jesusen bizitzarekin bat egiten dugu, gure bizitzaren barruraino sar dadin, gudan bizi dadin leku egiten diogu. Bere haragi hautsia da gurearen zati egiten dena, gu ere zati egin gaitezen eta bera bezala banatuak izan. Bere odol isuria da gureari gehitzen zaiona, bizitza Aitaren dohain bezala goza dezagun eta indarkeria eta zuzengabekeriagatik isuritako hainbeste odolengatik oihu egin dezagun. Azken finean, ogia eta ardoa partekatzen duen eukaristiadun elkartea da esker otoitzean, elkarren zaintzan eta gure mundu hau eraldatzen saiatzen den Erreinuko zerbitzuan Kristoren gorputz gisa eratzen doana.

Pazkoaldiko 3. astea

San Joan Avilakoa, *apaiza*San Damian Molokaikoa, *apaiza eta aitorlea*

Apostoluen Eginak liburutik 9, 31-42: Eraikiz eta ugalduz zihoan Eliza, Espiritu Santuagandiko adoreari esker. **Sal 115:** Nola ordainduko diot Jaunari egin didan on guztia?

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6, 60-69.

Aldi hartan, Jesusen ikasleetako askok esan zuen: «Gogorra da hizkera hau. Nork adi dezake?». Jesusek, bere baitan oharturik ikasleak marmarka ari zirela, esan zien: «Onartezina iruditzen al zaizue hori? Eta Gizonaren Semea lehen zegoen tokira igotzen ikusiko bazenute, orduan zer? Espiritua da bizia ematen duena; gizakiak ezin du berez ezer eman. Nik esan dizkizuedan hitzak espiritu eta bizi dira. Baina badira zuen artean sinesten ez duten batzuk». Izan ere, Jesusek hasieratik zekien nork ez zuen sinesten eta nork salduko zuen. Eta esan zuen gainera: «Horregatik esan dizuet ezin dela inor ere nigana etorri, Aitak ez badio horretarako gaitasuna ematen». Geroztik, haren ikasleatariko askok atzera egin zuen, eta aurrerantzean ez zen harekin ibili. Orduan, esan zien Jesusek Hamabiei: «Zuek ere alde egin nahi al duzue?». Erantzun zion Simon Pedrok: «Jauna, norengana joango gara? Zure hitzek betiko bizia dute. Eta guk sinetsi dugu eta badakigu Zu zarela Jainkoaren Santua».

Ordutik aurrera, bere ikasle askok atzera egin zutela eta dagoeneko ez ziotela jarraitzen gogoratzen digu gaurko pasarte honek. Behin betiko hautua egitera behartzen gaitu Jesusen jarraipenak: Jainkoak proposatzen digun konfiantzaren eta doakotasunaren munduan bizi, —hau hutsaltasunera jauzi egitea da— ala gure eskariak bete ditzan Jainkoa tresna erabilgarria bihurtzen saiatu, ahalegina egin, gure alde jartzeko. Jesusek bera den ogia jatea proposatu digu, dohainik onar dezagun eta berari gure gidari izaten utz diezaigun. Baina gure «nia» egarrituen eskakizunak betetzeari emanak bizi gara. Nola jokutzen dugu? Ai Pedrok zioena esateko gai bagina «Jauna, norengana joango gara? Zure hitzek betiko bizia dute».

Apostoluen Eginak liburutik 13, 14.43-52.

Egun haietan, Paulo eta Bernabe Pergetik Pisidiako Antiokiara joan ziren. Eta larunbatean sinagogan sartu ziren eta han eseri. Judu askok eta Jainkoa gurtzen zuten judu berri askok Paulori eta Bernaberi jarraitu zieten; hauek, beren hitzez, Jainkoaren graziari atxikirik irauteko adore ematen zieten. Hurrengo larunbatean, ia herri osoa bildu zen Jaunaren hitza entzuteko. Jendetza hura ikusirik, juduak bekaitzez bete ziren eta irainka egiten zioten kontra Paulok esaten zuenari. Orduan, Paulok eta Bernabek ausarki esan zuten: «Zuei adierazi behar genizuen lehendabizi Jainkoaren hitza; baina hitza baztertu eta zeuen buruak betiko bizirako gai ikusten ez dituzuenez gero, jentilengana joko dugu. Hauxe agindu baitigu Jaunak: “Nazioen argitzat ezarri zaitut, salbamina lurraren bazterreraino eraman dezazun”». Hau entzutean, jentilak poztu ziren eta Jaunaren hitza goresten zuten. Eta betiko bizirako zirenek sinetsi egin zuten. Jaunaren hitza zabaltzen ari zen herrialde hartan guztian. Baina juduek andre handiki jainkozale batzuk eta herriko jauntxoak berotu zituzten, Pauloren eta Bernaberen kontra erasoaldia sortu zuten eta beren lurraldetik bota zituzten. Paulo eta Bernabe, protesta gisa beren oinetako hautsa haien aurka astindu eta Ikoniora joan ziren. Ikasleak, berriz, pozez eta Espiritu Santuaz beterik gelditu ziren.

Sal 99: Jaunaren herri gara eta haren larreko artalde.

Apokalipsia liburutik 7, 9.14b-17.

Nik, Joanek, gizatalde handi bat ikusi nuen, inork ezin konta ahalekoa, nazio eta arraza, herri eta hizkuntza guztietako jendez osatua, tronuaren eta Bildotsaren aurrean zutik, soineko zuriz jantzia eta palma-adarra eskuetan. Zaharretako batek esan zidan: «Hauek larrialdi handitik datozenak dira. Bildotsaren odolean garbitu dituzte

San Jeremias, *profeta*. Santa Susana, *martiria*
 Domingo Iturrate dohatsua (Dima 1901-Cuenca 1937),
apaiza, trinitarioa

beren soinekoak, eta zuritu. Horregatik daude Jainkoaren tronuan aurrean, gau eta egun hari gurtza ematen bere tenpluan, eta tronuan eseria dagoena haiekin biziko da. Ez dira gehiago gose, ez egarri izango, eta ez ditu eguzkiak, ez sargoriak joko, tronuaren erdian dagoen Bildotsak bazkatuko baititu eta ur biziko iturrietara eramango. Eta Jainkoak begietako malko guztiak xukatuko dizkie».

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 10, 27-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Nire ardiek aditzen dute nire ahotsa; Nik ezagutzen ditut, haiek jarraitu egiten didate, eta Nik betiko bizia ematen diet; ez dira betiko galduko, ez dizkit inork ere eskutik kenduko. Haiek eman dizkidan nire Aita beste guztiak baino handiagoa da, eta ezin ditu inork ere kendu nire Aitaren eskutik. Aita eta biok bat gara».

Katakunbetan azken ardia bere bizkar gainean daraman Kristo artzain onaren irudia ugaria da. Ardiak zaurgarri ageri dira, babesa eta zaintza behar dituztenak. Beren artzainik gabe, inguratzen dituzten arriskuen aurrean galduak daude. Kristo da guretzat atsedetik gabe zaintzen gaituen artzain on hori. Segurtasuna ematen duen irudia da, bere ondoan ez baikintezke ez galdu, ez bizitzaren etengabeko arriskueta erori ere. Bere ahotsa oso gure artekoa da, eguneroko zaraten artean nabari daiteke eta bereak direnentzat nahastea ezina gertatzen da. Oihartzuna duen leku ezezagun orok etxe kutsua hartzea eragiten du ahots horrek. Kristok badaki ze buztinez gauden eginak eta barnean ze bizi-hats daramagun. Berak garen bezala ezagutzen gaitu eta horrela maite gaitu. Hau askatzailerik zaigu hezurretaraino, maitasun honek norberaren larritasunak askatu eta gure nora eza eta desbideratzeak bideratu egiten baititu. Jesusengan gure neke, kezka eta itxaropen ezak atsedendu genitzake. Bere ahots eta gureganako duen maitasunak jarraitza gonbidatzen gaituzte. Berak bakarrik ditu bizia diren hitzak, bizia osotasunean eta betikotasuna.

Apostoluen Eginak liburutik 11, 1-18: Jentilei ere eman die Jainkoak bizira daraman bihotz-berritzea. **Sal 41:** Jainko biziaren egarri naiz: noiz iritsiko ote naiz Jainkoaren aurpegia ikustera?

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 10, 1-10.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Egi-egiaz diotsuet: Artegian, atetik ez, baino beste nonbaitetik sartzen dena lapurra da eta harrapatzailea. Atetik sartzen dena, berriz, artzaina da. Honi ireki egiten dio atezainak, eta ardiek aditzen dute haren ahotsa; ardi bakoitzari bere izenaz deitzen dio, eta kanpora ateratzen ditu. Ardi guztiak atera ondoren, aurretik joaten zaie eta ardiek jarraitu egiten diote, ezagutzen baitute haren ahotsa. Arrotzari, orde, ez diote jarraituko; aitzitik, ihes egingo diote, arrotzaren ahotsa ez baitute ezagutzen». Jesusek adibide hau eman zien, baina haiek ez zuten ulertu zer esan nahi zien. Orduan, honela azaldu zien Jesusek: «Egi-egiaz diotsuet: Ni naiz ardien atea. Nire aurretik etorritako guztiak lapurrak ziren eta harrapatzaileak; horregatik, ardiek ez zieten jaramonik egin. Ni naiz atea. Ate honetatik sartzen dena onik izango da, lasai sartuko da eta aterako, eta aurkituko du jatekoa. Lapurra ez doa artaldera ostu, hil eta hondatzera baizik; Ni, berriz, bizia izan dezaten etorri naiz, bizia ugari izan dezaten».

Gureganako Jesusen maitasuna hain handia izanik, bere bizia gure alde eman zuen. Zaila gertatzen zaigu ulertzea, gure Jainkoa ulertzeko ahalmena gainditu egiten baitu. Izan ere, gu ez gara horrelakoak, ez dugu hainbesteko eskuzabaltasunik. Are gehiago, Jainkoari zeharka begiratzen diogu, ez aurrez-aurre, bere begirada gureganatzen duen bakoitzean erruak ikusi eta epaitu egingo gaituela uste dugulako. Aitzitik, berak ez du gure suntsipena bilatzen, bera gure salbatzaile izaten ustea baizik. Berak harrera ematen digu, galduta bagabiltza dei egiten digu, gutaz kezkatzen da eta, unea iritsiz gero, gu babestearren bere bizia arriskatzen du. Ez dago inoiz aldendurik. Artzain Onaren irudia sakonki kontsolatzailea eta sinesten dugun Jainkoa kontenplatzeke gune pribilegiatua da.

Pazkoaldiko 4. astea

Zeruko Andre Maria Fatiman agertua
San Andres Huberto Fournet, *apaiza*

Apostoluen Eginak liburutik 11, 19-26: Jentilei ere Jesus Jaunaren Berri Ona iragartzen hasi ziren. **Sal 86:** Goretsazue Jauna, nazio guztiok.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 10, 22-30.

Aldi hartan, tenpluaren sagarapen-jaiak ospatzen ziren Jerusalem. Negua zen. Jesus tenpluan zebilen, Salomonen aterpean. Inguratu zuten juduek eta esan zioten: «Noiz arte eduki behar gaituzu zalantzan? Zu bazara Mesias, esaguzu argi eta garbi». Jesusek erantzun zien: «Esan dizuet, eta ez duzue sinesten. Nik neure Aitaren izenean egiten ditudan egintzek ematen dute nire alde testigantza; zuek, ordea, ez duzue sinesten, nire ardietakoak ez zaretelako. Nire ardiek aditzen dute nire ahotsa; Nik ezagutzen ditut, haiek jarraitu egiten didate, eta Nik betiko bizia ematen diet; ez dira betiko galduko, ez dizkit inork ere eskutik kenduko. Haiek eman dizkidan nire Aita beste guztiak baino handiagoa da, eta ezin ditu inork ere kendu nire Aitaren eskutik. Aita eta biok bat gara».

Gure bizitzako egintzetan du oihartzuna Jesusen ahotsak. Jarraitzen ez diotenak ahots honekiko gor dira, baina bere jarraitzaileek bat-batean ezagutzen dute. Beraien egintzak, zalantzarik gabe, Jesusen izaera dute: gorputz eta arimaz gaixo direnak sendatzen dituzte, ikusten ez duenari argi egiten diote, alaitasun sendoa dakarte, bizitzaren zamagatik ezinduak sentitzen direnak abiarazten dituzte, zentzurik ezak jota daudenengan itxaropena eragiten dute, norabiderik gabeko pertsonak jarraitzaile sutsu bihurtzen dituzte. Jesusen jarraitzaileek beren bizitzako gertaeretan oihartzuna duen eta egunetik egunera berarekin eta Aitarekin gehiago lotzen dituen ahots honek gidatzea onartzen dute.

Pazkoaldiko 4. astea
San Matias, *apostolua*

Apostoluen Eginak liburutik 1, 15-17.20-26: Zotz eginik, Matiasi egokitu zitzaion, eta hamaika apostoluekin elkartu zuten. **Sal 112:** Bere herriko handikiekin eserarazi du Jaunak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15, 9-17.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Aitak Ni maite izan nauen bezala, halaxe maite izan zaituztet Nik ere zuek; iraun tinko nire maitasunean. Nire aginduak betetzen badituzue, nire maitasunean iraungo duzue, Nik ere, Aitaren aginduak bete ditudalako, haren maitasunean irauten dudan bezala. Hau esan dizuet nire poza zeuengan izan dezazuen, eta zuen poza bete-betea izan dadin. Hau da nire agindua: maita dezazuela elkar, Nik maite izan zaituztedan bezala. Ez du inork maitasun handiagorik, bere bizia adiskideen alde ematen duenak baino. Zuek nire adiskide izango zarete, Nik agindua betetzen baduzue. Aurrerantzean ez dizuet morroi deituko, morroiak ez baitu jakiten nagusiak zer egiten duen; zuei adiskide deitzen dizuet, neure Aitak jakinarazi didan guztia adierazi baitizuet. Ez ninduzuen zuek aukeratu Ni, Nik aukeratu zintuztedan zuek, eta eginkizun hau eman dizuet: edonon fruitu ugaria eta iraunkorra eman dezazuela; horrela, Aitari nire izenean eskatuko diozuen guztia emango dizue. Hauxe agintzen dizuet: maita dezazuela elkar».

Jesusek bere ikasleak elkar maitatzera eta berarekin duten harremana adiskidetasunezkoa izatera gonbidatzen ditu: «Aurrerantzean ez dizuet morroi deituko, zuei adiskide deitzen dizuet». Berak, bizilagunen artean gertatzen den bezala, berarekiko loturak eraikitzen deitu gaitu, elkar maitasun eta..., bestearekiko kezka, besteen lorpen eta bizitzagatik disfrutatzen duena. Jesus, gure lagun, eta gu, Jesusen lagun, txunditurik utzi gintzakeen gonbidapena. Santa Teresak zioen: «otoitza ez baita besterik, maite gaituela dakigunarekin adiskide-harremanetan jardutea baino». Hori da Jesusek guk egitea nahi duena: adiskidetasun maitekorraz korapilaturik berarekin lotzen gaituen ataria gurutzatzea.

Apostoluen Eginak liburutik 13, 13-25: Daviden hazitik atera zion Jainkoak Israeli Salbatzailea, Jesus alegia. **Sal 88:** Jauna, zure maitasuna abestuko dut beti eta beti.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 13, 16-20.

Jesusek, bere ikasleei oinak garbitu ondoren, esan zien: «Egi-egiaz diotsuet: Morroia ez da nagusia baino handiago, ezta bidalia ere bidaltzailea baino handiago. Hortaz jabeturik, zorionekoak izango zarete, horren arabera jokatzen baduzue. Ez naiz zuek guztietaz ari; badakit, bai, zein aukeratu ditudan; baina bete beharrekoa da Liburu Santuak dioen hau: “Nire ogitik jaten duena kontra altxatu zait”. Aurrez, gertatu baino lehen, esaten dizuet, gerta dadinean, “Ni naizela” sinets dezazuen. Egi-egiaz diotsuet: Nik bidalia onartzen duenak Ni onartzen nau, eta Ni onartzen nauenak bidali ninduen onartzen du».

Gizakiok norbait izatea atsegin dugu, kontutan har gaitzabela, errespeta gaitzabela eta jaramon egin diezagutela. Bada horrela tratatua ez denean minduta sentitzen dena. Jesusen jarrera alderantzizkoa da, bera gure oinetara makurtzen da garbitu ahal izateko. Are gehiago oraindik, ohiko giza baloreak irauliz, berak bezala egiten badugu zoriontsu izango garela esaten digu. Jokabide kristaua bizitasunez gure pertsonarengan txertatzen dugunean, zerbitzua alaitasun iturri bilakatzen da. Horretarako besteak maite behar ditugu, elkartearen balioa aurkitu, ahulen aldeko aukera egin eta gure niak laga. Orduan zerbitzua bizi zentzuaren eta alaitasunaren iturri bihurtzen da eta, gure aurreiritzi oro hautsiz, gaur egun ere gu garbitzen eta zerbitzatzen jarraitzen duen Jesusekin topo egiten dugu.

Pazkoaldiko 4. astea

San Mikel Garikoitz (1797-1863), *apaiza, fundatzailea*
(Betharramgo Jesusen Bihotzaren Apaizen Elkarte
*[Betharramdarra])**

Apostoluen Eginak liburutik 13, 26-34: Agintzaria geuri bete digu Jainkoak, Jesus berpiztuz. **Sal 2:** Nire Seme zara zu; Nik zaitut gaur sortu.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14, 1-6.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez izan kezkarik; sinetsi Jainkoagan eta sinetsi nigan ere. Nire Aitarenean bizitoki asko dago; horrela izan ez balitz, esango nizuekeen. Orain zuentzat tokia prestatzera noa. Joan eta tokia prestatu ondoren, berriro etorri eta neurekin eramango zaituztet, Ni nagoen tokian zuek ere egon zaitezten. Zuek badakizue Ni noan tokirako bidea». Tomasek esan zion: «Jauna, ez dakigu nora zoazen, eta nola jakin bidea?». Jesusek erantzun: «Ni naiz bidea, egia eta bizia. Ezin da inor Aitagana joan, nire bidez izan ezik».

San Joan, Jesusez aritzeko, hainbat irudiz baliatzen da, bera da artzain ona, mahatsondoa, bizia... Hemen beste bat gehitu du, Jesus da bidea. Zalantza eta ilunpe garaietan Jesusek bide bat eskaintzen digu, berea dena, Aitaren etxea besterik ez duen gure helmugara iritsi gaitezen. Hasteko, bidea bizidun izateko era bat da, bizi estilo bat, espiritualitate bat. Bestetik, bide bat jarraitzeko gida ere bada, galtzea eragozten digun ibilbide bat. Bera jarraituz ezin gintezke galdu. Jesus bizitzarako jokamoldea da eta Aitarengana bideratzeko gida. Han dugu, besoak zabalik, itxaroten.

* San Andres Bobola, *apaiza, martiria, jesuita*
 San Ubaldo, *martiria*
 Santa Gema Galgani, *birjina*

Pazkoaldiko 4. astea
San Paskoal Bailon, *erlijiosoa*

Apostoluen Eginak liburutik 13, 44-52: Jentilengana joko dugu. **Sal 97:**
Ikusi dute lur-muga denek gure Jainkoagandiko garaipena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14, 7-14.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ni benetan ezagutuko baninduzue, nire Aita ere ezagutuko zenukete. Are gehiago, ezagutzen duzue dagoeneko, eta ikusi ere ikusi duzue». Orduan, Felipek esan zion: «Jauna, erakutsiezaguzu Aita, eta nahikoa dugu». Jesusek erantzun: «Hainbeste denbora zuekin, eta ez al nauzu ezagutzen, Felipe? Ni ikusten nauenak Aita ere ikusten du. Nola diozu: “Erakutsiezaguzu Aita”? Ez al duzu sinesten Ni Aitagan nagoela eta Aita nigan? Nik esaten dizuedana ez dizuet neure kabuz esaten. Nigan bizi den Aita da bere egintzak burutzen ari dena. Sinetsiezadazue: Ni Aitagan nago eta Aita nigan. Besterik ez bada ere, sinetsi egintzengatik. Egi-egiaz diotsuet: Nigan sinesten duenak Nik egiten ditudan egintzak burutuko ditu berak ere, eta are handiagoak, Ni Aitagana bainoa. Nire izenean eska dezazuen guztia emango dizuet, Aitaren aintza Semeagan ager dadin. Nire izenean zerbait eskatzen baduzue, emango dizuet Nik».

Harrigarria gertatzen da ikasleek, oraingo honetan Felipek, Jesusen azken nortasunaz erakutsi duten ezjakintasuna. Behar bada, guri ere antzeko zerbait gerta dakiguke, Jainkoaren adiskidetasun eta errukiaz inguraturik egonik bera ezagutzera ez iristea eta erabat antzeman gabe igarotzea. Jainkoa berbera lanean ari den egintzetara bideratzen gaitu Jesusek. Haietan ezagutzera gonbidatzen gaitu. Eta bere egintza, batik bat Joanengan, maitasun, eskuzabaltasun eta zerbitzu egintza da. Egintza hauen zirrikitueta da Aitaren aurpegia agertzen. Jesusen erako gure egintzan, historian diharduen benetako Jainkoa aurki ahal izateko, arreta, sentsibiltatea eta, batik bat, inplikazioa eskatzen zaizkigu.

Pazkoaldiko 5. astea

San Joan I.a, 53. *Aita santua eta martiria*Santa M^a Josefa Sancho Guerra (Gasteiz 1842-Bilbo 1912),
*birjina eta fundatzailea***Apostoluen Eginak liburutik 14, 21b-27.**

Egun haietan, Paulo eta Bernabe Listrara, Ikoniora eta Antiokiara itzuli ziren. Bidenabar, ikasleen bihotzak sendotzen zituzten, sinesmenean irauteko adore emanaz. «Larrialdi asko jasan behar dugu –esaten zieten– Jainkoaren erreinuan sartzeko». Eliz elkarte bakoitzean arduradunak izendatu zituzten eta, otoitz eta barau egin ondoren, Jaunaren eskuetan utzi zituzten, harengan sinetsi baitzuten. Pisidian zehar, Panfiliara iritsi ziren eta, Pergen hitza hots egin ondoren, Ataliara jaitsi ziren. Han ontzia hartu zuten Siriako Antiokiara joateko, handik bidaliak baitzituzten burutu berria zuten egitekorako, Jainkoaren ardurapean jarri ondoren. Iritsi zirenean, eliz elkarteak bildu zuten eta Jainkoak beraien bidez egindako guztia azaldu zieten, baita jentilei federako atea nola ireki zieten ere.

Sal 144: Ene Jainko, ene errege, bedeinkatuko dut zure izena betiere.

Apokalipsia liburutik 21, 1-5a.

Nik, Joanek, zeru berria eta lur berria ikusi nituen, desagertuak baitziren lehenengo zerua eta lehenengo lurra, eta itsasorik ere ez zen. Hiri santua ikusi nuen, Jerusalem berria, zerutik Jainkoagandik jaisten, andregai bere senarrarentzat bezala apaindua. Eta ahots handia entzun nuen tronutik esaten: «Hona Jainkoaren bizilekua gizakien artean; haiekin biziko da. Haiek izango ditu bere herri, eta Jainkoa bera izango dute haiek berekin. Begietako malkoak xukatuko dizkie, eta ez da gehiago heriotzarik izango, ez dolurik, ez negarrik, ez nekerik, lehenengo mundua desagertua baita». Eta tronuan eserita zegoenak esan zuen: «Hara, gauza guztiak berri egiten ditut».

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 13, 31-33a.34-35.

Judas afaltokitik atera zenean, esan zien Jesusek: «Oraintxe agertuko da Gizonaren Semearen aintza, eta haren bidez Jainkoarena.

San Joan I.a, 53. *Aita santua eta martiria*
 Santa M^a Josefa Sancho Guerra (Gasteiz 1842-Bilbo 1912),
birjina eta fundatzailea

Jainkoaren aintza haren bidez agertzen bada, Jainkoak ere bere aintzaz beteko du hura, eta berehala gainera. Semetxook, oraintxe ez nago luzarorako zuekin. Agindu berria ematen dizuet: maita dezazuela elkar. Nik maite izan zaituztedan bezala, maita zuek ere elkar. Honetan ezagutuko dute guztiek nire ikasle zaretela: zuek elkar maite izatean».

«**O**raintxe ez nago luzarorako zuekin» esaldiak Judasek saltzeko erabakia hartu eta gertatuko dena ageria denean, ordu erabakigarri honetan Jesusek bizi duen samina adierazi du. Bere ikasleei, bere lagunei, hark deitzen dien bezala, bere ondarea uzteko garaia da. Aukeratu zituenetik maite izan ditu, lagundu eta irakatsi die, bidali ere egin ditu. Orain, hark beraiekin izan duen maitasun berbera beraien artean ere izan dezatela nahi du. Hau da kristauen ezaugarria, elkarren arteko maitasuna eta besteeikiko maitasun solidarioa, lehen kristau elkarteak bereizgarri izan zena. Elkarrekin hauek etxerik gabe eta galduta sentitzen ziren pertsonen harrera guneak eratu zituzten. Onartuak eta zainduak ziren gunea aurkitu zuten, non, elkarrenganako maitasunean, ospatzen zuten Jainko beraren maitasuna sumatzen zuten. Behar bada hau da oinarritzko kristau esperientzia, maitasuna elkarrekin baten barruan, non elkar-babestu eta pairatzen den. Bertan besteentzako zerbitzua eskaintzen da. Errukiaren mintzaeraz maite gaituen, beti bidelagun dugun eta geu ere maitatzera deitzen gaituen Jainkoarenganako fedea adierazten du.

* * *

«Gizaki orok du duintasunez bizitzeko eta erabat garatzeko eskubidea, eta oinarritzko eskubide hori ezin du ukatu ezin herrialdek» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 107).

Apostoluen Eginak liburutik 14, 5-18: Berri on hau adierazten dizuegu: utz ditzazuela idolo hutsalak eta bihur zaitezela Jainko biziagana. **Sal 113B:** Ez guregatik, Jauna, baizik zeure izenaren ohoregatik erakutsi zeure ospea.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14, 21-26.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Nire agindua onartu eta betetzen dituenak, horrexek nau maite, eta Ni maite nauena nire Aitak maite izango du, eta Nik ere maite izango dut eta agertuko natzaio». Esan zion Judasek, ez Iskariotek, besteak baizik: «Jauna, zer dela-eta agertuko zatzaizkigu guri eta ez munduari?». Jesusek erantzun zion: «Ni maite nauenak gordeko du nire hitza; nire Aitak maite izango du, eta Aita eta biok harengana etorriko gara eta harengan egingo dugu bizileku. Ni maite ez nauenak, ordea, ez ditu gordetzen nire hitzak. Eta entzuten duzuen hitza ez da nirea, bidali nauen Aitarena baizik. Zuekin naizen artean esan dizuet hau. Baina Aitak Laguntzailea, Espiritu Santua, bidaliko dizue nire izenean; hark irakatsiko dizue dena eta gogoraraziko Nik esan dizuedan guztia».

Eskaintzen dugun maitasunean Jainkoa gudan bizi da. Zaurgarrienekiko errukiaren dinamika geure gidari hartzen dugunean Jainkoaren bizileku gara. Orduan gure bihotza Jainkoarentzako etxe bihurtzen da: gudan taupadaka ari da, gudan sentitzen du, gudan agertzen da. Pentsatze hutsak ere zirrara eragiten du, ziurrenik, gurean bere bizi islatu dadin gure barnean Jainkoari tarte bat egiteko dugun arduraz jabetzen garelako. Ekialdeko kristauek, bereziki, ikuspegi hau «egoitza hartze» kontzeptuaz garatzen dute. Jainkoak gudan egoitza hartu duelarik, geu gara Jainkoaren tenplu eta Jainkoaren maitasuna besteekiko. Maitasunaren bidez, gudan bizi den Jainkoaren esparruan murgiltzen gara eta besarkatuz, gure munduko balioetatik hain urruti dagoen bere munduan inguratzen gaitu.

Pazkoaldiko 5. astea

San Bernardino Sienakoa, *apaiza, frantziskotarra*

Apostoluen Eginak liburutik 14, 19-28: Jainkoak beraien bidez egindako guztia azaldu zioten elkarteari. **Sal 144:** Zure adiskideek ager bezate, Jauna, zure erregetzaren bikaintasuna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14, 27-31a.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Bakea uzten dizuet, neure bakea ematen; Nik ematen dizuedan bakea ez da munduarena bezalakoa. Ez kezkatu, ez beldur izan. Entzun duzue esan dizuedana: “Banoa, baina itzuliko naiz zuengana”. Benetan maite baninduzue, poztuko zinatekete Aitagana noalako, Aita Ni baino handiagoa baita. Orain esan dizuet, gertatu baino lehen, gerta dadinean sinets dezazuen. Ez dut jadanik luze hitz egingo zuekin, bai baitator mundu honetako buruzagia. Horrek ez du nire gain ahalmenik; baina munduak jakin behar du Nik maite dudala Aita eta Aitaren agindua bete egiten dudala».

Jesusek bere bakea ematen digu. Ez da mundu honetako bakea, zeina, hainbat alditan, egoera zuzengabekoetan etsipenean edo pribilegioek ematen duten segurtasunean gauzatzen den. Jesusen bakea, gure bizitzan Jesusek duen presentzia sendoagatik sentitzen dugun bake ezberdin bat da. Bake hau, aurkakotasuna eta oztopoak aurkitu arren, bizitzari zentzua ematen dion Erreinuaren aldeko lanetik sortzen dena da. Gertaera mingarrietan sortzen dena ere bai, Jainkoak lagundu eta historian bere salbamenaren aztarnak sumatzea ahalbideratzen digulako. Beren errugabetasunaz jabetzen direnean eta zutik irauten dutenean biktimek bizi dutena. Berpiztuari esker ikasleek sentitu zuten bakea, hau gurutzeko samin garratzaren erdian eman arren.

Apostoluen Eginak gutunetik 15, 1-6: Jerusalemera igo zitezela erabaki zuten, apostoluekin eta arduradunekin auzia argitzera. **Sal 121:** Goazen pozik Jaunaren etxera!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15, 1-8.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ni naiz egiazko mahatsondoa, eta nire Aita da nekazaria. Nigan fruiturik ematen ez duen aihena moztu egiten du Aitak, eta fruitu ematen duena garbitu eta kimatu, fruitu gehiago eman dezan. Zuek garbi zaudete dagoeneko, Nik adierazi dizuedan hitzari esker. Zaudete nigan, Ni zuengan bezala. Aihenak berez, mahatsondoan ez badago, fruiturik eman ezin duen bezala, zuek ere ez, nigan ez bazaudete. Ni naiz mahatsondoa eta zuek aihenak. Norbait nigan badago, Ni harengan bezala, hark fruitu asko emango du; Ni gabe ezin baituzue ezer egin. Nigan ez dagoena kanpora botatzen dute, ebaki eta ihartzen den aihena bezala; gero, bildu, sura bota eta erre egiten dute. Nigan bazaudete eta nire hitzak zuengan badaude, eskatu nahi duzuen eta izango duzue. Honetan azaltzen da nire Aitaren aintza: zuek, nire ikasle izanik, fruitu asko ematean».

Mahatsondoaren eta aihenaren irudi esanguratsu honetan batasuna nabaritzen da, bizia emanez eta fruitua sortzea ahalbideratuz mahatsondotik aihenetaraino doan izerdia. Batasun hau gabe, aihena, isolaturik, lehortu eta ihartu egiten da. Kristau izateko beharrezkoa dugu Kristoren zukua, beharrezkoa berari itsatsirik egotea, beharrezkoa egarria beragan asetzea. Honela ez bada zimeldu eta ihartu egiten gara. Aitak nekazariaren eginkizuna hartzen du. Kristori itsatsirik egotea nahi du, baina, baita ere, fruitu eman dezagula. Eta horretarako neguan kimatu egiten gaitu. Kimaketa landarearen onerako pentsatua dago, udaberrian bizi berria sor dadin. Horrela zaintzen gaitu Aitak, alferrikakoa kenduz, muina utziz, fruitua ugari eman dezagun.

Apostoluen Eginak liburutik 15, 7-21: Ene iritziz, ez zaie alferreko oztoporik ezarri behar Jainkoagana bihurtzen diren jentilei. **Sal 95:** Zabaldu Jaunaren mirariak herri guztietan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15, 9-11.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Aitak Ni maite izan nauen bezala, halaxe maite izan zaituztet Nik ere zuek; iraun tinko nire maitasunean. Nire aginduak betetzen badituzue, nire maitasunean iraungo duzue, Nik ere, Aitaren aginduak bete ditudalako, haren maitasunean irauten dudan bezala. Hau esan dizuet nire poza zeuengan izan dezazuen, eta zuen poza bete-betea izan dadin».

Lehenik Jesusek maite izan gaitu, bera aurreratu izan da betidanik gu maitatzeko eta zaintzeko. Maitasun honetaz jabetzeak eskertzero eta era berean erantzutera garamatza, bera maitatuz eta gure senideak maitatuz. Gure bizitzan, gizadiaren historian eta kreazioan, agertzen den eta Jainkoak Kristorengan digun maitasun handiari esker onez erantzutea baizik ez da maitasunaren agindua. Maitasunari maitasunez erantzutean Jainkoaren bizitzan murgilduak sentitzen gara; egiaz, orduan bakarrik iritsi gintezke den bezala ikustera. Jaso den maitasunaren eta eman den maitasunaren dinamikan sartzea Jainkoaren bizitzaren atalasea gurutzatzea da. Orduan alaitasuna hazi egiten da eta bete bihurtzen da.

Pazkoaldiko 5. astea

San Desiderio, *gotzaina*Santa Almerinda, *martiria*

Apostoluen Eginak liburutik 15, 22-31: Espiritu Santuak eta guk erabaki dugu zuei zamarik ez ezartzea, behar-beharrezko direnak izan ezik. **Sal 56:** Goretsiko zaitut, Jauna, herrien artean.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15, 12-17.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Hau da nire agindua: maita dezazuela elkar, Nik maite izan zaituztedan bezala. Ez du inork maitasun handiagorik, bere bizia adiskideen alde ematen duenak baino. Zuek nire adiskide izango zarete, Nik agindua betetzen baduzue. Aurrerantzean ez dizuet morroi deituko, morroiak ez baitu jakiten nagusiak zer egiten duen; zuei adiskide deitzen dizuet, neure Aitak jakinarazi didan guztia adierazi baitizuet. Ez ninduzuen zuek aukeratu Ni, Nik aukeratu zintuztedan zuek, eta eginkizun hau eman dizuet: fruitu ugaria eta iraunkorra eman dezazuela edonon; horrela, Aitari nire izenean eskatuko diozuen guztia emango dizue. Hauxe agintzen dizuet: maita dezazuela elkar».

Jesusek aukeratu egin gaitu. Ez gaitu aukeratu gure dohainengatik, maite gaituelako baizik. Maitatzen duenaren aukeraketa da eta adiskideak duten maitasunaz erantzuten ikas dezagula espero du. Jesusekiko harremanak elkar maitasunaren, doakotasunaren eta eskuzabaltasunaren logika besterik ez du. Beste edozein adierazpen erak galdu, desitxuratu, egiten du. Jesusekin ez dago tarterik beldurrarentzat, barkatzen duen laguna baita; ez dago salerosketarik, ez duelako trukaketarik espero, berak musutruk ematen du; ez dago lehiaketarako aukerarik, sortuak baikara eta ez jainkoak. Adiskidetasuna da Jesusek berarekiko eraikitzea nahi duen harremana ulertzeko erarik egokiena. Eskakizun eta mugak desagertu dira, maitasunak ez du zerikusirik horiekin.

Pazkoaldiko 5. astea

Stradako Andre Maria, jesuiten ama-elizan:
Gesù elizan Erroman

Apostoluen Eginak liburutik 16, 1-10: Zatoz Mazedoniara eta lagun
iezaguzu. Sal 99: Lurtar guztiok, egin irrintzi Jaunari.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15, 18-21.

Aldi artan, Jesusek esan zien ikasleei: «Munduak gorroto badizue, jakizue zuei baino lehen niri izan didala gorroto. Mundukoak bazinete, munduak maite izango zintuzkete, nork berea maite duen legez; baina Nik aukeratu eta mundutik atera zintuztedanez, munduak gorroto dizue, mundukoak ez zaretelako. Gogoratu esan nizuen: morroia ez da nagusia baino handiago. Ni pertsegitu banaute, zuek ere pertsegituko zaituztete; nire hitza hartu badute, hartuko dute zuena ere. Nire izenagatik egingo dizuete hori guztia, bidali nauena ezagutzen ez dutelako».

Jasan zitzaketen eta, dagoeneko, lehen kristau elkarteak jasan zituen jazarpenen aurrean bere ikasleak aurrez prestatu nahi ditu. Garai guztietako Jesusen jarraitzaileen bizitzan eman da gatazka. Batzuetan, aurka zeuden gizarteetan gutxiengoaren sinesmena izateagatik. Gure inguruan pertsekuzio hori, batik bat, gaizki egiten dutenei on dena jasan ezina gertatzen zaielako ematen da, ongiak salatu egiten dituela sentitzen baitute; edo zuzentasunaren alde egiteak harreman mafioso eta ustelak dituztenen pribilegioak eten egiten baititu. Jesusen jarraitzaileak konponketa eta trikimailuetatik oso urrutiko baloreak ditu eta hori oso deserosoa bihurtzen da. Gatazka sortzean Jesusen laguntza besterik ez da geratzen.

Apostoluen Eginak liburutik 15, 1-2.22-29.

Egun haietan, Judeatik Antiokiara jaitsi ziren batzuk irakaspen hau ematen hasi ziren hango senideei: «Moisesengandiko usadioaren arabera erdaintzen ez bazarete, ez zaitezketen salba». Hori zela eta, iskanbila sortu zen, eta Paulok eta Bernabek eztabaida gogorra izan zuten haiekin. Orduan, Paulo, Bernabe eta beste batzuk Jerusalemara igo zitezela erabaki zuten, apostoluekin eta arduradunekin auzi hori argitzera. Apostoluek eta arduradunek, eliz elkarte osoarekin batera, beren arteko batzuk aukeratu eta Paulo eta Bernaberekin Antiokiara bidaltzea erabaki zuten. Barsaba deituriko Judas eta Silas aukeratu zituzten, senideen artean itzal handiko gizonak biak, eta gutun hau eman zieten eramateko: «Anaia apostoluek eta arduradunek Antiokia, Siria eta Ziliziako jentil-herrietako senideoi, agur! Jakin dugu gure arteko batzuek, guk agindu gabe, beren hitzez kezkatu eta nahastu zaituztetela. Horregatik, ordezkari batzuk aukeratzea erabaki dugu aho batez eta zuengana bidaltzea, Bernabe eta Paulo geure senide maiteekin, beren burua Jesu Kristo gure Jaunaren zerbitzuan eman duten horiekin. Hor bidaltzen dizkizuegu, bada, Judas eta Silas, hau bera ahoz jakinaraz diezazueten. Espiritu Santuak eta guk erabaki dugu zuei zamarik ez ezartzea, behar-beharrezko diren hauek izan ezik: ez dezazuela jan sasijainkoei eskainitako haragirik, ez odolik, ez odolustu gabeko abererik, eta utz ditzazuela legearen kontrako haragi-harremanak. Ondo egingo duzue horrelakoetatik alde egiten baduzue. Izan ongi».

* San Beda Agurgarria, *apaiza eta eliz irakaslea, beneditarra*
 San Gregorio VII.a, *aita santua, beneditarra*
 Santa Maria Magdalena Pazzi-koa, *birjina*

Santa Bizenta Maria Lopez Bikuña (Kaskante 1847-Burgos 1890), *birjina, fundatzailea (Maria Sortzez Garbiaren Erlijosak)**

Sal 66: Ene Jainko, aipa zaitzatela herriek, aipa zaitzatela herri guztiek.

Apokalipsia liburutik 21, 10-14.22-23.

Ni, Joan, hartu ninduen aingeruak eta mendi handi eta garai batera eraman ninduen espirituz; Jerusalem hiri santua erakutsi zidan, zerutik Jainkoagandik jaisten, Jainkoaren aintzaz dirdaitsu. Haren distira harribitxi eder baten antzekoa zen, jaspe harria bezain gardenak. Harresi sendo eta garaia zuen, hamabi atekoa, eta ate gainetan hamabi aingeru eta hamabi izen idatziak, israeldarren hamabi leinuen izenak. Hiru ate ekialdera zeuden, hiru iparraldera, hiru hegoaldera eta hiru mendebaldera. Hiriko harresiak hamabi oinarri zituen, eta hauetan idatziak Bildotsaren hamabi apostoluen izenak. Ez nuen inolako tenplurik ikusi, zeren Jauna Jainko ahalguztiduna eta Bildotsa baitira hango tenplu. Hiriak ez du behar argituko duen eguzkirik nahiz ilargirik, Jainkoaren aintzak baitu argitzen, eta Bildotsa du argiontzi.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14, 23-29.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ni maite nauenak gordeko du nire hitza; nire Aitak maite izango du, eta Aita eta biok harengana etorriko gara eta harengan egingo dugu bizileku. Ni maite ez nauenak, ordea, ez ditu gordetzen nire hitzak. Eta entzuten duzuen hitza ez da nirea, bidali ninduen Aitarena baizik. Zuekin naizen artean esan dizuet hau. Baina Aitak Laguntzailea, Espiritu Santua, bidaliko dizue nire izenean; hark irakatsiko dizue dena eta gogoraziko Nik esan dizuedan guztia. Bakea uzten dizuet, neure bakea ematen; Nik ematen dizuedan bakea ez da munduarena bezalakoa. Ez kezkatu, ez

* San Beda Agurgarria, *apaiza eta eliz irakaslea, beneditarra*
 San Gregorio VII.a, *aita santua, beneditarra*
 Santa Maria Magdalena Pazzi-koa, *birjina*

Santa Bizenta Maria Lopez Bikuña (Kaskante 1847-Burgos 1890), *birjina, fundatzailea (Maria Sortzez Garbiaren Erlijiosak)**

beldur izan. Entzun duzue esan dizuedana: “Banoa, baina itzuliko naiz zuengana”. Benetan maite baninduzue, poztuko zinatekete Aitagana noalako, Aita Ni baino handiagoa baita. Orain esan dizuet, gertatu baino lehen, gerta dadinean sinets dezazuen».

Jainkoak bere dinamikan txertatu gaitzan, Joanek hitzez inguratzen gaitu. Joanek ezagutzero eman nahi digun Jainkoa, maite duen Jainkoa da: bere Semea maite du, gutako bakoitza maite du eta maite du mundua. Jainkoa maitasuna da oso-osorik, ematen duena eta ernaltzen duena. Semearengan, bere bizia emateraino, erabateko eskaintza eragiten du. Ordainetan, gugan, erantzutera eragiten du, berak ematen digun maitasuna maitasunez itzultzen ikastera. Munduan errealtatearen eta historiaren erabateko berrikuntza darama aurrera. Maitasuna beti da bizi-sortzailea, sormenez betea dago. Jainkoaren maitasunean bizitzeak bakea sortzen du. Inguratzen gaituzten bizi egoerek jadanik ez dute garrantzirik. Beldur, larritasun, kezka edo arriskuei aurre egin beharraren bizikizuna izan genezake, baina honelako ezerk ez du garrantzirik, izan ere, maitasunaren dinamikan gaudenean, hau da, Jainkoaren dinamikan, barne-barnean bakea besterik ez dugu sentitzen. Bizitzak zentzu berri bat du, hain garrantzizkoa zirudiena axaleko bihurtzen da eta Jainkoaganako eta berak sorturikoekiko maitasun eta samurtasun harremana bizitzaren erdigune bihurtzen da. Beste ezerk ez du axolarik.

* San Beda Agurgarria, *apaiza eta eliz irakaslea, beneditarra*
 San Gregorio VII.a, *aita santua, beneditarra*
 Santa Maria Magdalena Pazzi-koa, *birjina*

Pazkoaldiko 6. astea

San Felipe Neri, *fundatzailea (Oratoriokoak)*

Apostoluen Eginak liburutik 16, 11-15: Jaunak bihotza ireki zion, Pauloren hitzak gogoz onar zitzan. **Sal 149**: Maite du Jaunak bere herria.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15, 26-16,4a.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Nik Laguntzailea, jatorria Aitagan duen egiaren Espiritua, bidaliko dizuet Aitagandik. Hark, etortzean, aitormen egingo du nire alde. Eta zuek ere egingo duzue aitormen, hasieratik nirekin baitzaudete. Zuen sinesmenak huts egin ez dezan esan dizuet hau. Zeren eta judu-elkartetik bota egingo baitzaituztete; are gehiago, badator ordua, zuek hilko zaituztenak Jainkoari kultu ematen diola uste izango duena. Eta horrela jokatuko dute, ez Aita, ez Ni, ezagutu ez gaituztelako. Aurrez esaten dizuet, hori gertatzean esana nizuela gogora dezazuen».

Lehen kristau elkartean gertatzen zen bezala Jesusek bere ikasleei jazarpena eta heriotza ere izango dituztela ohartarazi zien. Eta egoera horietan eginkizuna zein den zehaztu zien, hau bere testigutza ematean datza. Hitzaren bidez testigutza eman, baina batik bat, beraien jarrera eta egintzekin: barkatuz, apaltasunez azalduz, errukitsu izanez. Hau da, gurutzean Jesusek eskaini zuen aurpegi-itxura bera azalduz. Bere irudiak erakusten du jokabidea bai aurkako giroan, bai porrotean, bai sufrimenean. Joan orain hasten da ikasleek egoera honetan bidelagun izango duten Laguntzailea, Espiritu Santua, aipatzen. Ikasleekin bat egingo du, beraiekin batera Kristoren testigutza emateko.

Pazkoaldiko 6. astea

San Agustin Canterburykoa, *gotzaina*

Apostoluen Eginak Liburutik 16, 22-34: Sinetsi Jesus Jaunagan, eta salbatuko zarete zu eta zure etxeoak. **Sal 137:** Zeure eskuinez salbatzen nauzu, Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16, 5-11.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Orain, bidali ninduen Aitagana noa, eta zuetako inork ez dit nora noan galdetzen. Baizik eta hori esan dizuedalako, tristurak bete du zuen bihotza. Hala ere, egia diotsuet: hobe da zuentzat Ni joatea; izan ere, joaten ez banaiz, ez zaizue etorriko Laguntzailea. Joaten banaiz, ordea, bidali egingo dizuet. Hura etortzean, agerian jarriko du munduaren errua bekatuari, zuzentasunari eta epaiari buruz: bekatuari buruz, nigan sinesten ez duelako; zuzentasunari buruz, Aitagana noalako, eta ez nauzue gehiago ikusiko; epaiari buruz, mundu honetako buruzagia jadanik gaitzetsia dagoelako».

Kristauok, ikasleek gozatu ahal izan zuten bezala, Nazareteko Jesusekin topaketa eduki izatea nahi genuke. Bere heriotzarekin, haiek aukera hori galdu egin zuten, baina guk bere ausentziaz bakarrik dakigu. Ebanjelioak ditugu, bai, baina hainbeste dira erdi ezkutuan uzten dituzten alderdiak: bere itxura, bere ahotsa, bere harremana, bere historiaren zehaztasuna. Jesusek gaurko ebanjelioan dio: «ni joatea komeni zaizue», eta ez diogu ulertzen. Bera ezagutzeko bere Espiritua nahikoa zaigula esatean, beraz fidatzen gara, baina nahiago genuke aurrez-aurre ezagutzea. Espirituak ezagutzen lagunduko digu eta, bere erruki eta gupidaz, barneak ere mugituko dizkigu, Jesus aritu zen bezala aritzeko.

Pazkoaldiko 6. astea
 San Justo, *gotzaina*
 San Viktor, *martiria*

Apostoluen Eginak liburutik 17, 15.22-18, 1: Zuek ezagutu gabe gurtzen duzuen, horixe iragartzen dizuet nik. **Sal 148:** Zerulurak beterik dauzka zure distirak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16, 12-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Gauza asko dut oraindik zuei esateko, baina oraingoz ez zarete gai ulertzeko. Halere egiaen Espiritua etortzean, hark gidatuko zaituzte egia osoraino. Ez da bere kabuz mintzatuko, baizik eta entzungo duena esango dizue eta etorkizuna iragarriko. Hark nire aintza azalduko du, adieraziko dizuen niretik hartuko baitu. Aitak duen guztia nirea da; horregatik esan dizuet Espirituak niretik hartuko duela adieraziko dizuen».

Jesusen mezua gure historian zabaltzen da. Jesusek ezin izan zuen dena bere ikasleei esan, bazik eta Espirituaren laguntzaz garai orotako jarraitzaileoi argitzen ari zaigu. Sarritan Ebanjeliora jotzeak eta bizitza errukiz eta itxaropenez begiratzeak gertakizunen gainera argi berria proiektatzen dute, errealitatearen aurrean egoteko eta egokitzeke era berriak argizatzen dituzte. Jesusen Espiritua da, egunero, era berrituan, bizitzari buruz begi garbiak eta sormena izatea ahalbideratzen diguna, gaur egun Erreinuak aurkitzen dituen erronkei erantzun ahal izateko. Berak gidatzen gaitu, behartu gabe, argituz eta adoretuz barnetik mugituz, gaur egun ere Kristok aintzatsua izaten jarrai dezan.

Apostoluen Eginak liburutik 18, 1-8: Haiekin gelditu zen bizitzen eta lanean, eta sinagogan eztabaidan jarduten zuen. **Sal 97:** Agertu du Jaunak nazioen aurrean beragandiko garaipena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16, 16-20.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Denbora gutxi barru ez nauzue ikusiko, baina handik gutxira ikusiko nauzue berriro». Ikasleetako batzuek hau zioten elkarren artean: «Zer ote da esaten digun hau: “Denbora gutxi barru ez nauzue ikusiko, baina handik gutxira ikusiko nauzue berriro”, eta “Aitagana noa”? Zer esan nahi ote du horrako “gutxi barru” horrekin? Ez diogu antzik ere ematen zertaz ari den». Konturatu zen Jesus galdegin nahi ziotela, eta esan zien: «Eztabaidan ari zarete zeuen artean esan dizuedan honetaz: “Denbora gutxi barru ez nauzue ikusiko, baina handik gutxira ikusiko nauzue berriro”. Egi-egiaz diotsuet: Negar egingo duzue eta aieneka egongo zarete; mundua, berriz, poztu egingo da. Zuek triste egongo zarete; baina zuen tristura poz bilakatuko da».

Bere heriotzaren gertutasunean, Jesusek bere ikasleei laster goibeldurik geratuko direla azaltzen die, baina ez dela behin betirako izango, ez baita denbora luzea igaroko, ondoan, pozez beterik ikusiko duten artean. Jesusen jarraitzaileen bizitza heriotza uneetan igarotzen da, non ez den ezer ikusten, bakarrik beldurra, tristura eta larritasuna sentitzen diren, Erreinua itzaltzen ari dela baitirudi. Honela gertatzen da gizakien hausturetan ere, non gaitza bakarrik nagusitzen dela dirudien. Berpiztuak, heriotzaren eta bekatuaren arrailduretatik sortuz, laster berriro azalduko dela agintzen digu, mundua birsortu, argitasunez bete eta alaitasunez asetzeko. Fedean eta itxaropenean irautea dugu beharrezkoa.

Pazkoaldiko 6. astea

San Fernando III.a, *erregea*Santa Joana Arc-ekoa, *martiria*

Apostoluen Eginak liburutik 18, 9-18: Nire herri izango den jende asko dut Nik hiri honetan. **Sal 46:** Jainkoa da mundu osoaren errege.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16, 20-23a.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Egi-egiaz diotsuet: Negar egingo duzue eta aieneka egongo zarete; mundua, berriz, poztu egingo da. Zuek triste egongo zarete; baina zuen tristura poz bilakatuko da. Emakumea, erditzerakoan, triste egon ohi da, ordua etorri zaiolako; haurra izan ondoren, ordea, ahaztu egiten da larrialdiaz, munduari gizaki bat jaio zaiolako pozik. Zuek ere triste zaudete orain; baina agertuko natzaizue berriro, eta poztuko zarete, eta zuen poza ez dizue inork kenduko. Egun hartan ez didazue ezer galdetuko».

Jesusek, hemen, bere heriotzatik berpiztera igarotzea emakumearen erditzearekin alderatzen du. Erditzeko garaia iristean mina eta larritasuna datoz, baina gertaerak eraldatu eta alaitasunez betetzen duen bizi berriaz disfrutatzerara darama. Piztuera Jainkoaren etorkizunaz ari zaigu. Oraina arrisku eta lanbroaz inguratua egon daiteke, baina haurdunaldi mingarria besterik ez da, non zerbait hiltzen den berritasunak argia ikus dezan. Gari alea bezala da, zeina lur eze azpian sartzen den ernal dadin, edo fruitu gehiago eman dezan kimatzen den aihena bezala. Bada etorkizunik, Jainkoaren eskuetan dago, eta argi eta alaitasunez betea dago.

Pazkoaldiko 6. astea

Andre Mariaren Ikustaldia Elisabeti.

Santa Gertrudis, *aitorlea*. San Noe Mawaggali, *martiria*. San Eduardo Cestak (1801-1868), *Baiona, apaiza eta fundatzailea*

San Paulok Erromatarrei 12, 9-16b.

Senideok: Zuen maitasuna izan bedi itxurakeriarik gabea. Gorrotatu gaizkia eta eutsi ongiari. Maita ezazue elkar senide onak bezala, ohoratu elkar zeinek gehiago. Izan saiatuak eta ez nagi; izan gogoz gartsu, Jauna zerbitzatzeko beti prest; izan itxaropenean alai, ezbeharrean eraman handiko, otoitzean lehiatsu; lagundu fededunei beren beharretan eta eman gogoz ostatu arrotzei. Bedeinka itzazue erasotzen dizuetenak; bedeinkatu, ez madarikatu. Poztu, pozez daudenekin; egin negar, negarrez daudenekin. Bizi zaitezte elkar ongi hartuz; ez izan handinahi, apalen mailako baizik.

Salmoa: Is 12, 2.3 eta 4bcd.5-6 (R/. 6b): Egin poz-oihu, handikiro ari baita zuen alde Israelgo Santua.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 39-56.

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen, Judeako herri batera, eta, Zakariasen etxean sarturik, Elisabeti agur egin zion. Mariaren agurra entzun zuen orduko, jauzi egin zion Elisabeti haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen, eta esan zuen oihu handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nor naiz ni, nire Jaunaren ama ni ikustera etortzeko? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, Jaunak esan dizuna beteko dela sinetsi duzulako!». Mariak esan zuen: «Handiesten du nire arimak Jauna, pozaren pozez daukat neure barrua, Jainkoa baita nire salbamena, ikusi baitu mirabe honen ezereztasuna. Horregatik, dohatsu deituko naute gaurdanik gizaldi guztiek, handiak egin baitizkit Ahalguztidunak; santua da haren izena, eta haren errukia gizaldiz gizaldi begirune diotenengana. Bere besoaren indarra erabili du, buru-harroak suntsitu ditu; bota ditu beren aulkietatik ahaltsuak,

Santa Gertrudis, *aitorlea*. San Noe Mawaggali, *martiria*. San Eduardo Cestak (1801-1868), *Baiona, apaiza eta fundatzailea*

eta gora jaso ditu ezerezak; ondasunez bete ditu gose zeudenak eta esku-hutsik bidali aberatsak. Lagun etorri zaio bere morroi Israeli, bere errukiaz oroiturik; hala zien gure gurasoei hitzeman, Abrahami eta ondorengoei betiko esana». Mariak hiru hilabete inguru egin zuen Elisabetekin; gero, etxera itzuli zen.

Aingeruaren iragarpenak ez du Maria, txoraturik, bere buruari begira uzten, baizik mendira abiarazten du lasterka, bere lehengusina Elisabetekin elkartzeko eta aurrera doan bere haurdunaldian laguntzeko. Bi emakumeak elkar besarkatu dute, bizia sortzea ospatu egiten dute, pozak harrapatu ditu. Aldi berean, eskerrak emanez, beren kantua Jainkoari zuzendu diote. Bien artean taxutzen den enpatia eta konplizitate loturak gure fedea eta gizadiaren historia zeharkatzen duen irudi bat da. Beraien barnean Jainkoaren etorkizuna eratzen da, ez dira Jainkoaz jabetzen, baizik aseak sentitzen diren aldi berean, beraien bizitzak erabat ireki dizkiote hari. Elkarketa, zerbitzua, alaitasuna, osotasuna eta elkarlaguntza dira Jaunaren goranzko presentziak gure bizitzan sorrarazten dituen zenbait errealitate.

* * *

Beldurrik gabe ibili zinen fedearen bideetan
Jainkoari itxaroten zenion, fidela izan nahi zenuen.
Yavheren behartsuekin egotea aukeratu zenuen,
bere errealitate gogorraren erdian aurkitzea.
Zatoz nirekin, Ama, eta erakutsi sinesten,
erakutsi iezadazu itxaroten, erakutsi iezadazu maitatzen.

(Maite López-en abestia. Otoi.eus)



Guztion ETXEAREN Zaintzan partaide

EKAINA / BAGILA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA

Munduarekiko errukian hazteko: Gutako bakoitzak Jesusekiko bere harreman pertsonalaren bidez kontsolamendua aurki dezan eta bere Bihotza bidez munduarekiko errukia ikas dezan.

Pazkoaldiko 7. astea
JAUNAREN IGOKUNDEA
San Justino, *martiria*

Apostoluen Eginak liburutik 1, 1-11.

Teofilo maitea: Neure lehenengo liburuan, hasieratik zerura jasoa izan zen eguna arte Jesusek egin eta irakatsi zuen guztia idatzi nuen. Zerura igo aurretik, Espiritu Santuaren eraginez aginduak eman zizkien berak aukeratutako apostoluei. Jesus apostoluei agertu zitzairen bere nekaldiaren ostean eta bizirik zegoeneko froga asko eman zien, berrogei egunez bere burua ikustera emanez eta Jainkoaren erreinuaz hitz eginez. Haiekin bazkaltzen ari zen batean, hau agindu zien: «Ez alde egin Jerusalemdik. Zaudete han Nik Aitaren partetik egin dizuedan agintzaria bete zain. Joanek urez bataiatu zuen; baina zuek Espiritu Santuaz izango zarete bataiatuak egun gutxi barru». Orduan, bildurik zeudenek galdegin zioten: «Jauna, orain ezarriko al duzu berriro Israelgo erreinua?». Jesusek erantzun zien: «Aitak bakarrik du hori erabakitzeke ahalmena, eta ez dago zuen esku zein aldi edo unetan gertatuko den jakitea. Baina zuen gain jaitsiko den Espiritu Santuaren indarra hartuko duzue, eta nire lekuko izango zarete Jerusalemen, Judea osoan, Samarian eta lurraren azken mugaraino». Hori esanik, gorantz igo zen Jesus haien begi aurrean, hodei batek begietatik ezkutatu zien arte. Oraindik zerura nola zihoan begira-begira zeudela, zuriz jantzitako bi gizaseme azaldu zitzaizkien ondoan, eta esan zieten: «Galilearrok, zertan zaudete hor zerura begira? Zuen ondotik zerura igo den Jesus hori, zerura joaten ikusi duzuen bezalaxe etorriko da berriro».

Sal 46: Oihu alaiaren artean igo da Jainkoa, turuta-soinuz Jauna.

San Paulok Efesoarrei 1, 17-23.

Senideok: Jesu Kristo gure Jaunaren Jainkoak, aintzaren Aitak, eman diezazuela Espirituaren jakinduria eta goi-argia, bera ezagutzeko. Argi ditzala zuen barruko begiak, jakin dezazuen zer itxarotera dei

Pazkoaldiko 7. astea
JAUNAREN IGOKUNDEA
 San Justino, *martiria*

egin dizuen, zein aberatsa den fededunentzat oinordekotzan prestatua duen aintza eta zein handia den sinesten dugunon alde erabiltzen duen ahalmena. Ahalmen eta indar hori Kristogan erakutsi zuen Jainkoak, berau hilen artetik piztu eta zeruan bere eskuinaldean eserarazi zuenean. Jainkoak aginte, botere, indar eta nagusigo ororen gainetik ezarri du Kristo, eta mundu honetan ez ezik, datorren munduan ere aipa daitekeen izen ororen gainetik. Dena jarri du Jainkoak Kristoren oinazpian, eta berau ezarri du denen gainetik Elizaren buru. Haren gorputza da Eliza, unibertsoa erabat betetzen duen Kristok betea.

Jesus Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 24, 46-53.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Liburu Santuan idatzia zegoen, Mesiasak sufritu egin behar zuela eta hirugarren egunean hilen artetik piztu, eta, Jerusalemdik hasita, bihotz-berritzea hots egin behar zaiela haren izenean herri guztiei, bekatuak barka dakizkien. Zuek zarete gauza hauen testigu. Nire Aitak agindutako dohaina, Espiritu Santua, bidaliko dizuet Nik. Zuek zaudete hirian, Jainkoagandiko indarrez jantzi zaitezten arte». Gero, Betania aldera atera zituen Jesusek ikasleak eta, eskuak jasorik, bedeinkatu egin zituen. Bedeinkatzen zituen bitartean, aldendu egin zen haiengandik, eta zerura eraman zuten. Haiek, Jesus ahuspez gurtu ondoren, Jerusalemera itzuli ziren pozez beterik. Eta etengabe tenpluan egon ohi ziren Jainkoa goresten.

Jesus, bere eginkizuna bete ondoren, Aitarengana itzuli zela ospatzen dugu, berea baitzen. Bere eskuinaldean jarriarik, gure Jaun bezala ageri da: historiaren eta izadi osoaren Jaun. Jada itxiko ez den Aitaren bizirainoko bidea ireki digu berak. Gurutziltzatu bat, giza hondakin bat, ahaztu bat Aitak berreskuratu egin du eta orain gure Jaun da. Berari esker, hutsala dena, baztertua dena, ez dela balorerik gabeko ulertzen dugu. Historiako biktima orok eta tratu txarra jasandako krezazioak berak beregan babesle bat dute. Historiaren Jauna, errukia

Pazkoaldiko 7. astea

JAUNAREN IGOKUNDEASan Justino, *martiria*

eta barkamena, oinarri dituela tortura eta heriotza bere gorputzean jasan dituen gizona da. Hemendik aurrera ez da gugan beldurrik. Aitarengana igotzen den bitartean berpiztuak ikasleak bedeinkatu ditu. Hauek sinetsi ezinik iritsi nahi duten zerura begira geratu dira. Baina berpiztuak elkar maitasuna, konfiantza, solidaritatea eta anaitasunean oinarritu eta erakutsi dien bizitza berria eskaintzera mundura bidaliak izan dira. Egin egin beharko duten eta Jesus eta Aitaren ondoan bizia osotasunean izatera eramango dituen bidea ezagutu dute.

* * *

Balazta

Jauna, entzun. Nik ez dakit
sugeak eskuetan hartzen ez pozoia edaten,
txarrik jasan gabe, min hartu gabe.
Eskuak gaixoari ezartzen dizkiodanean,
ez da sendatzen; eta haur goiztiar bat ikusi dut,
nire aurrean, nire begiekin, hilik.
Haren alde otoitz besterik ez nuen egin ahal izan,
zure Aitari gomendatu, barrutik oihuka.
Mirari horiek egiteko gai banintz,
mundu guztira eramango nuke zure ebanjelioa...
Ez ote da izango fede gutxikoa zarela?
Senidea, begira ezazu ea balazta sakatu duzun...

(Patxi Loidi)

Pazkoaldiko 7. astea

San Martzelino, *apaiza*, eta San Pedro, *exorzista, martiriak*

Apostoluen Eginak liburutik 19, 1-8: Hartu al zenuten Espiritu Santua, sinetsi zenutenean? **Sal 67:** Munduko erreinuok, kanta Jainkoari.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16, 29-33.

Aldi hartan, ikasleek esan zioten Jesusi: «Orain bai argi hitz egiten duzula, eta ez irudi bidez. Orain badakigu dena dakizula eta ez duzula inork galdetu beharrik; horregatik sinesten dugu Jainkoagandik etorri zarela». Jesusek erantzun zien: «Orain sinesten duzuela? Hara, badator ordua, hobeki esan, etorria da, nor bere aldetik joanez sakabanatu eta Ni bakarrik utziko nauzuen ordua. Baina Ni ez nago bakarrik, neurekin baitut Aita. Hau esan dizuet, nigan bakea izan dezazuen. Izango duzue larrialdirik munduan; baina izan adore, garaitu dut Nik mundua».

Ikasleak nolako zalantzan eroriko diren jabetzen da Jesus. Maite dute Jesus, baina ez dute indarrik proba jasateko eta, sakabanaturik, ihes egingo dute, ez dute ezta elkar babestu ere egingo. Baina Jesusek ez du hemen egonezinik edo beraien jarreraz kexarik azaltzen, alderantziz baizik, beraien aldeko hautua berritu egiten du eta beraien adorea suspertzen saiatzen da. Hau ez du egiten hain gertu den gurutzeko uneagatik, geroago etorriko diren eta maila erakutsi beharko duten uneengatik baizik. Beregan bakea aurkitzera eta ausardia izatera gonbidatu ditu. Bera biziaren eta historiaren Jauna dela esan die eta heriotzak, bera menderatu ezin izan duen bezala, beraiekin ere ezingo duela.

Pazkoaldiko 7. astea

Lwagako San Karlos eta lagunak, *martiriak*

Apostoluen Eginak liburutik 20, 17-27: Neure ibilaldia burutu eta Jesus Jaunak eman didan egitekoa bete behar dut. **Sal 67:** Munduko erreinuok, kanta Jainkoari.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 17, 1-11a.

Aldi hartan, Jesusek begiak zerura jaso eta esan zuen: «Aita, iritsi da ordua. Ager ezazu zeure Semearen aintza, Semeak zure aintza ager dezan. Gizon-emakume guztien gain aginpidea eman diozunez gero, betiko bizia eman diezaiela Zuk berari emandakoei. Hau da betiko bizia: Zu, egiazko Jainko bakar hori, eta Zuk bidalitako Jesus Mesias ezagutzea. Nik zure aintza agertu dut munduan, Zuk eman zenidan egitekoa betetz. Orain, Aita, emadazu aintza zeure ondoan, eman mundua mundu izan baino lehen zure ondoan nuen aintza. Agertu diet zure izena mundutik bereizi eta eman zenizkidan gizon-emakumeei. Zeureak zenituen, Zuk niri eman zenizkidan, eta haiek onartu dute zure hitza. Badakite orain Zuk eman didazun guztia zugandik datorrela. Zuk niri eman zenizkidan hitzak eman dizkiet Nik, eta hauek onartu dituzte. Eta benetan jakin dute zugandik atera nintzela, eta sinetsi Zuk bidali ninduzula. Hauen alde erregutzen dizut; ez dut munduaren alde erregutzen, Zuk eman dizkidazunon alde baizik, zureak direlako. Bai, dudan guztia zurea da eta Zuk duzuna nirea, eta hauengan agertu da nire aintza. Ez naiz aurrerantzean munduan egongo; hauek, bai, munduan jarraituko dute. Ni, berriz, zugana noa».

Jesusek bere ikasleekin izan duen elkarrizketa luzea egun hauetan irakurtzen ari garen otoitza Aitari zuzenduz amaitu du. Bere bizitzaren balantzea egiten du eta, bere ikasleen alde eskatzen duen bitartekoa, eskaini egiten du. Bere bizi osoa Aitaren aintza agertzeko izan da. Biktima, behartsu eta bekatariekiko bere zerbitzua eta errukian Aitaren aintza agertzeko bere era izan da. Beretik sortu den dena Aitarengandik jaso duenaren adierazpena izan da. Bere bihotza Harengandik datorren ontasunaren islapena izan da. Jesusengan sinetsi eta konfiantza jarri

Pazkoaldiko 7. astea

Lwangako San Karlos eta lagunak, *martiriak*

duten eta orain Aitarenak ere diren bere lagunak alde egiten du era berezian otoitz. Isiltasunean, fedez eta kontsolaturik entzun eta guk ere berarekin eskatu besterik ez zaigu geratzen.

* * *

Bakea, neure bakea, ematen dizuet

Espero den topaketak
eta ustegabekoak
ematen duten bakea.
Keinu soilarena,
baina “erabakitzaila”.

Herrien sua
suspertzen duen bakea
eta bakarrik daudenak
elkartzen dituen.

Eztabaidak amaitzen dituen
irribarrearen bakea
eta mesfidantzaren lainoa
lausotzen duen elkarriketa.

Emadazu, Jauna,
eskuzabaltasun osoaren
eta solidaritate itsuaren
erabateko bakea;
nire beldurren gudak
eta koldarkeria geldiarazleak
baino bake sendoagoa.

Bizi, sufritu eta kutsatzen den bakea...

(Viviana Romero. Otoi.eus)

Pazkoaldiko 7. astea

San Frantzisko Caracciolo, *fundatzailea*
(*Arauzko Klerigo Txikienak*)

Apostoluen Eginak liburutik 20, 28-38: Jainkoaren eskuetan uzten zaituztet; hark badu ahalmen eraikitzeke eta oinordekotza emateko. **Sal 67:** Munduko erreinuok, kanta Jainkoari.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 17, 11b-19.

Aldi hartan, Jesusek begiak zerura jaso eta honela egin zuen otoitz: «Aita santu horrek, zaindu itzazu zeure ahalmenaz Zeuk eman dizkidazunok, bat izan daitezen Gu Geu bat garen bezala. Hauekin izan naizen bitartean, Nik zaindu ditut zeure izenean eman dizkidazunok. Hauen ardura izan dut eta ez da bat ere galdu, galdu behar zuena baizik; horrela, Liburu Santu-ek diotena bete da. Orain, ordea, zugana noa. Oraindik munduan nagoela esaten dut hau guztia, nire poza berengan izan dezaten, eta bete-betea izan dezaten. Zure hitza eman diet Nik; baina munduak gorroto die, mundukoak ez direlako, Ni ere mundukoa ez naizen bezala. Ez dizut eskatzen hauek mundutik ateratzeko, Gaiztoagandik gordetzeko baizik. Ez dira mundukoak, Ni ere mundukoa ez naizen bezala. Sagara itzazu egiaren bidez; zure hitza da egia. Ni mundura bidali ninduzun bezala, Nik ere mundura bidali ditut. Eta hauengatik sagaratzen dizut neure burua, hauek ere sagara ditzazun egiaren bidez».

Jesusek zerbitzuan, maitasunean eta elkar laguntzan oinarritutako eta Aitari eta berari loturiko elkarteak eratuz irudikatzen ditu bere ikasleak. Maitasuna eta solidaritatea bizi dituen elkarteak pribilegioak, lehenetsiak eta bazterketak oinarri dituen gizarte bateko botere faktikoek etsaitzat jotzen dute. Arrazoi horregatik Jesusek bere ikasleei ez direla mundu honetakoak esaten die. Baina hainbeste zuzentasun-ezaz josia dagoen mundu honetatik aldentzerik ez du nahi, baizik bertara bidaltzen ditu, maitasunaren indarrak, Espirituaren indarrak, eralda dezaten. Aitari, kutsatzen, nahasten eta desbideratzen saiatzen den etsaiarengandik aska ditzala besterik ez dio eskatzen. Kanporatzeaz josita dagoen munduan anaitasunaren eta adiskidetasunaren mezulari izango dira.

Pazkoaldiko 7. astea

San Bonifazio, *beneditarra, gartzaina eta martiria*

Apostoluen Eginak liburutik 22, 30; 23,6-11: Erroman ere nire testigu izan behar duzu. **Sal 15:** Zaindu nazazu, Jauna, babes bila bainator zugana.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 17, 20-26.

Aldi hartan, Jesusek begiak zerura jaso eta honela egin zuen otoitz: «Aita santu hori, ez dut erregutzen hauen alde bakarrik, baita hauen hitzaren bidez nigan sinetsiko dutenen alde ere. Egizu denak bat izan daitezela. Aita, Zu nirekin eta Ni zurekin biok bat garen bezala, hauek ere bat izan daitezela gurekin, munduak sinets dezan Zuk bidali nauzula. Zuk eman zenidan aintza bera eman diet Nik, bat izan daitezen, Gu biok bat garen bezala: Ni hauekin bat eta Zu nirekin bat. Horrela guztiz bat izango dira, eta munduak ezagutu ahal izango du Zuk bidali nauzula eta Ni maitatu nauzun bezala maitatu dituzula hauek ere. Aita, Zuk eman dizkidazunak Ni nagoen tokian nirekin egotea nahi dut, nire aintza, mundua izan baino lehen maite izan nauzulako eman didazun aintza, ikus dezaten. Aita zuzen hori, munduak ez zaitu ezagutu; Nik, ordea, ezagutu zaitut, eta hauek jakin dute Zuk bidali nauzula. Jakinarazi diet zure izena, eta aurrerantzean ere jakinaraziko, Zuk niri didazun maitasuna hauengan izan dadin, eta Ni ere hauengan izan nadin».

Jesus, bere otoitzean, etorriko direnez eskatzeaz gogoratzen da. Bere hitz hauetan aurrez-aurre ezagutu ez dugun baina aurretik izan ditugunen testigutzaren bidez sinestedun garenok ere sartzen gaitu. Guk denok batasun bat, elkartasunean familia handi bat osatzea nahi du, non historia eta etorkizuna barnean dituen eta Aitari eta Semeari lotzen den. Honela ospatzen dugu Eukaristia, sinestedun guztion batzarra Jesusen inguruan eta, esker oneko hitzak besterik zuzendu ezin diezazkiogun Aitaren maitasunean elkartasun Afaria. Jaunak bere maitasunean biltzen gaitu eta hori gure azken errealitatea, oinarritzakoena dena, gure biziak eraldatzen dituen eta besteei bizia ematen diena da.

Pazkoaldiko 7. astea

San Norberto, *gotzaina*.

San Martzelino Champagnat, *fundatzailea (Maristak)*

Apostoluen Eginak liburutik 25, 13-21: Hila den eta Paulok bizi dela dioen Jesus. **Sal 102:** Jaunak zeruan ezarri du bere aulkia.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 21, 15-19.

Jesusek, ikasleei agertu eta haiekin gosaldu ondoren, esan zion Simon Pedrori: «Simon, Joanen semea, hauek baino maiteago al nauzu?». Hark erantzun: «Bai, Jauna, badakizu maite zaitudala». Jesusek, orduan: «Bazka itzazu nire bildotsak». Bigarrenegaz galdetu zion Jesusek: «Simon, Joanen semea, maite al nauzu?». Hark erantzun: «Bai, Jauna, badakizu maite zaitudala». Jesusek, orduan: «Zaindu itzazu nire ardiak». Hirugarrenegaz galdetu zion Jesusek: «Simon, Joanen semea, maite al nauzu?». Pedro goibeldu egin zen maite al zuen hirugarrenegaz galdetu ziolako, eta erantzun zion: «Jauna, Zuk dena dakizu; Zuk badakizu maite zaitudala». Orduan, Jesusek esan zion: «Bazka itzazu nire ardiak. Bene-benetan diotsut: gazteago zinenen, zeuk lotzen zenuen gerrikoa eta nahi zenuen tokira joaten zinen; zahartzean, ordea, zuk besoak luzatu eta beste batek lotuko dizu gerrikoa eta nahi izango ez duzun tokira eramango zaitu». Horrela, zer-nolako heriotzaz Jainkoari aintza emango zion adierazi zuen Jesusek. Ondoren, esan zion: «Jarraitu niri».

Pazkoaldiaren amaierara gerturatzen ari gara, bertan bizi izan dugunaren laburpena egiteko garaia da. Guk ere, Pedrok bezala, hainbat alditan huts egin diogu Kristo gurutziltzatuari eta bere galdera, beharrezko bakarra, entzun beharrean gaude: maite al nauzu? Pedrok bere bihotzaren barne-barnetik erantzun zuen eta guri berdin egitea dagokigu, bihotz garbiz jokatzeari besterik ez zaigu eskatzen. Azkenean garrantzizkoena Jesusekin borrokan aritzea uztea da eta gure bizitzan ariko dena bera izatera iristea da, bere maitasunak gure arlo zauritu edo hilak esnatzea baimenduz eta harreman, oparotasun eta emankortasunean berpiztu ditzan. Berak bere misioa emanez jarraitzen du, gutako bakoitzari gurea, gure eta besteen onerako.

Apostoluen Eginak liburutik 28, 16-20.30-31: Erroman gelditu zen, Jainkoaren erreinua hots egiten. **Sal 10:** Zuzenek ikusiko dute, Jauna, zure aurpegia.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 21, 20-25.

Aldi hartan, Pedrok, itzuli eta Jesusek maite zuen ikaslea ondoren zetorrela ikusi zuen, afarikoan, Jesusen bular gainean jarririk, «Jauna, nor da salduko zaituena?» galdetu ziona. Hura ikusi zuenean, bada, Pedrok galdetu zion Jesusi: «Jauna, eta hori zer?». Jesusek erantzun zion: «Ni itzuli arte hori gelditzea nahi baldin badut, zuri zer? Zuk jarraitu niri». Hitz hauek zirela eta, ikasle hura hilko ez zelako zurrumurrua sortu zen senideen artean. Jesusek, ordea, ez zion esan ez zela hilko, beste hau baizik: «Ni itzuli arte hori gelditzea nahi baldin badut, zuri zer?». Ikasle huraxe da gauza hauez guztiez testigantza egiten duena eta idatzi dituen, eta badakigu egiazkoa dela haren testigantza. Beste gauza asko ere egin zuen Jesusek. Guztiak banan-banan bilduko balira, nik uste, mundu osoan ere ez lirakeela sartuko idatz litezkeen liburuak.

Bere misioan berretsia izanik, Pedro, dagoeneko patxaran, ikasle maitearekin konparatuz arreta galtzen hasi da. Jarraitzaileen artean norgehiagoka agertzen hasi da. Baina Jesusek bihotz zabala izan dezatela nahi du. Berak ematen digu, gutako bakoitzari, gure eginkizun ezberdina, bakoitza elkartearen onerako eta ez du nahi batzuk besteekin lehian aritzerik. Elkartea eraikitzen duten eta elkartearentzat zerbitzu diren eginkizunak ematen dizkigu. Gutako bakoitza banan-banan deitu du eta aldi berean, elkarre garanez, denok batera Erreinuaren zerbitzura deituak gara. Erreinuan ez dute lekuri ez kritikek, ez zeloek eta horretarako beraz arduratu besterik ezin genezake egin. Beste dena barreiatzea da. Jesusek «zuk jarraitu» esanez jarraitzen du.

San Santiago Berthieu, *apaiza, martiria, jesuita*
San Maximo, *gotzaina*
San Heraklio, *gotzaina*

Apostoluen Eginak liburutik 2, 1-11.

Mendekoste-eguna iritsi zenean, leku berean bildurik zeuden ikasle guztiak. Bat-batean, haize-bolada indartsu batena bezalako burrunba etorri zen zerutik eta ikasleak zeuden etxe guztia bete zuen. Orduan, suzko mihiak bezalako batzuk agertu zitzaizkien, eta, banatuz, bakoitzaren gainean kokatu ziren. Denak Espiritu Santuaz bete ziren eta hizkuntza arrotzez hitz egiten hasi, bakoitza Espirituak eragiten zion bezala. Bazen egun haietan Jerusalem judu jainkozalerik asko, zerupean diren herri guztietakoak. Burrunba hura entzutean, jendetza handia bildu zen eta txunditurik gelditu ziren, nork bere hizkuntzan hitz egiten entzuten baitzien. Harri eta zur, honela zioten: «Mintzo direnok, ez al dira guztiak galilearrak? Nola entzuten diegu, bada, bakoitzak geure jatorriko hizkuntzan? Gure artean badira partiarak, mediarak eta elamdarrak; baita Mesopotamian, Judean, Kapadozian, Ponton eta Asian bizi direnak ere; badira Frigiakoak eta Panfiliakoak, Egiptokoak eta Zirene inguruko Libiakoak, baita erromatarrak ere; eta denok, judu nahiz judu berri, kretar nahiz arabiar, geure hizkuntzan entzuten diegu Jainkoaren egintza harrigarriak hots egiten».

Sal 103: Zeure arnasa bidal gugana eta lur-azala berritu, Jauna.

San Paulok 1 Korintoarrei 12, 3b-7.12-13.

Senideok: Ezin du inork esan «Jesus da Jauna!». Espiritu Santuak eraginda ez bada. Era askotakoak dira dohainak, baina bat bakarra Espiritua; era askotakoak zerbitzuak, baina bat bakarra Jauna; era askotakoak eginbideak, baina bat bakarra Jainkoa, guztiengan guztia egiten duena. Bakoitzari denen onerako ematen dizkio Jainkoak Espirituaren dohainak. Gorputzak, bat izanik ere, atal asko du; baina atal guztiek, asko izanik ere, gorputz bat bakarra osatzen dute. Gauza bera gertatzen da Kristorekin ere. Gu guztiok, judu nahiz greziar,

San Santiago Berthieu, *apaiza, martiria, jesuita*
 San Maximo, *gotzaina*
 San Heraklio, *gotzaina*

esklabo nahiz libre, Espiritu bat berarengan izan gara bataiatuak, gorputz bat bakarra egiteko. Eta guztiok Espiritu bat beretik edan dugu.

NEURTITZA

Zatoz, bai, Gogo Guren eta bidal zerutik zeure argi-izpia. Zatoz, gaixoen aita, zatoz, dohain-emaile, zatoz, bihotzen argi. Poz-emaile bikaina, etxelagun atsegin, sargorian haize fin. Lan artean atsedan, nekean aringarri, malkoetan pozgarri. Bete, argi dohatsu, zintzoen bihotzeko zirrikiturik barnena. Zure laguntza gabe, ez du gizakiak ezer, ez du ezer on denik. Garbi zikin dagoena, busti lehor dagoena, zauriak oro senda. Zurrun dena bigundu, makur dena zuzendu, hotz dagoena berotu. Zugaran uste on duten zintzoei isuri zazpi dohain zerutik. Zintzo saria eman, osasun hil artean, poza betierez betiere. Amen. Aleluia.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20, 19-23.

Asteko lehen-egunean, ilunabarrean, etxe batean bildurik zeuden ikasleak, ateak itxita, juduen beldurrez. Sartu zen Jesus eta, erdian jarriarik, esan zien: «Bakea zuei». Hori esanda, eskuak eta saihesta erakutsi zizkien. Ikasleak pozez bete ziren, Jauna ikustean. Jesusek berriro esan zien: «Bakea zuei. Aitak Ni bidali nauen bezala, hala bidaltzen zaituztet Nik zuek». Eta haien gainera arnasa botaz, esan zien: «Hartzazue Espiritu Santua. Zuek bekatuak barkatzen dizkiezuenei, barkatu egingo dizkie Jainkoak ere; zuek barkamena ukatzen diezuenei, ukatu egingo die».

Espiritu Santua jaso dezaten Jesusek arnasa bota du bere ikasleen gainera. Bizia ufatzen du haiengana, bizi honek ase ditzan eta bizia eman dezaten. Espiritu Santuak bihotzak ireki egiten ditu eta hertsirik eta izuturik zeudenengana aire berria dakar. Berriro

San Santiago Berthieu, *apaiza, martiria, jesuita*
San Maximo, *gotzaina*
San Heraklio, *gotzaina*

jaiotzea bezala den eraldaketa osora, orain Espirituan ematen dena. Espiritua barrutik berotzen duen eta gure kemena suspertzen duen sua da. Erakarri, mugiarazi eta suspertzen duen Erreinuarekiko irrika da. Berarekin ezin gintezke geldi geratu, iraganean geratzen dira geldiarazten duten zalantza eta beldurrak. Espirituak, ilunaldi garaietan, gure itxaropena berritzen du. Bakearen, zuzentasunaren, giza duintasunaren eta kreazio babestuaren amets lortezinak berriro argizatzen dira eta eskura daudela dirudi. Espirituarekin behartsuek amets egiten dute berriro. Eta azkenik Espirituak gugan maitasuna ernetzen du, bera delako eskaini egiten den maitasuna eta eragin egiten duena. Mendekostek maitasun, txera eta elkarlaguntzaren hizkuntza bakarrean komunikatzen ikasten duten ezberdinak biltzen ditu, horrela Espirituaren elkartea sortuz. Jesusen jarraitzaile denok gara bere Espirituaren seme, berak elkartzen gaitu eta berak bidaltzen gaitu erreinuaren zerbitzuan lankidetzara.

Hasiera liburutik 3, 9-15. 20.

Adamek zuhaitzetik jan ondoren, Jainko Jaunak dei egin eta esan zion: «Non zara?». Hark erantzun: «Zure oin-hotsa baratzean entzun dudanean, beldurtu eta gorde egin naiz, larrugorri nengoelako». Jainkoak esan zion: «Eta zeinek jakinarazi dizu larrugorri zeundela? Galarazi nizun zuhaitzeko fruitua jan al duzu?». Gizonak erantzun: «Laguntzat eman didazun emakumeak eskaini dit fruitua, eta jan egin dut». Orduan, Jainko Jaunak esan zion emakumeari: «Zer egin duzu?». Emakumeak erantzun: «Sugeak engainatu nau eta jan egin dut». Eta Jainko Jaunak esan zion sugeari: «Hori egin dualako, madarikatua izango haiz abere guztien eta basapiztia guztien artean; sabel gainean ibiliko haiz arrastaka eta hautsa jango duk heure bizitzako egun guztietan. Elkarren etsai egingo zaituztet hi eta emakumea, hire eta haren ondorengoa; honek burua zapalduko dik, eta hik orpotik helduko diok». Gizonak bere emazteari «Eva» ezarri zion izena, bizidun guztien ama delako.

Sal 86: Ospetsuki mintzo dira zutaz, Jainkoaren hiri!

Jesu Kristoren ebanjelioa San Joanen liburutik 19, 25-34.

Aldi hartan, Jesusen gurutzearen ondoan zeuden haren ama, amaren ahizpa, Maria Kleofasen emaztea eta Maria Magdalena. Jesusek, bere ama eta, honen ondoan, maite zuen ikaslea ikusirik, esan zion amari: «Emakume, horra hor zeure semea!». Gero, ikasleari esan zion: «Horra hor zeure ama!». Eta orduraz gero ikasleak bere etxean hartu zuen. Jesusek, dena betea zela jakinik, Liburu Santuak esana erabat bete zedin, esan zuen: «Egarri naiz!». Bazen han ozpinez betetako pitxar bat. Orduan, belaki bat ozpinetan busti eta, kanabera bati muturrean erantsiz, ezpagnetara hurbildu zioten. Ozpina hartu zuenean, Jesusek esan zuen: «Bete da dena!». Eta, burua makurtuz, azken arnasa eman

Urteko 10. astea

ANDRE MARIA, ELIZAREN AMASan Efrén, *diakonoa eta eliz irakaslea*. San Jose Antxietakoa, *apaiza (Brasilen apostolu), martiria, jesuita*

zuen. Pazko-jairako prestaketa-eguna zen, eta juduek ez zuten nahi larunbatean gorpuak gurutzean gelditzerik, larunbat hura oso jaiegun handia baitzen. Horregatik, gurutziltzatuei berna-hezurak hautsi eta handik kentzeko eskatu zioten Pilatori. Joan ziren, bada, gudariak eta berna-hezurak hautsi zizkieten Jesusekin gurutziltzatutako biei; baina, Jesusengana iritsi zirenean, ordurako hilik zegoela ikusirik, ez zioten berna-hezurrik hautsi, baizik eta gudari batek lantzaz saihesta zulatu zion, eta bat-batean odola eta ura atera ziren.

Eliza Jesusen gorputz hautsitik eta bere odol isuritakotik sortzen da. Anaitasun iturri den gorputza eta mundu zuzengabearen aurrean matxinadaren hazi den odola. Gurutzearen oinean sortzen da, non bere ondoan Jesusen jarraitzaile guztien irudi den ikasle maitea eta bere ama Maria batu ziren. Jesusek gure etxean gure Ama bezala onartzera gonbidatzen gaitu. Gure ardurapean jartzen du, zaindu dezagun, azken batean bera izan arren gu zaintzen gaituena. Beragana jo genezake lur jota edo sufritzen ari garenean, edo Jesusen jarraipenean kontraesanez ari garenean, edota gure fedea eta gure Erreinuarekiko irrika jaisten direnean. Berak bere seme bezala hartzen gaitu eta Semearekin jartzen gaitu.

* * *

«Solidaritatea, zehazki, zerbitzuan adierazten da, besteen ardura era askotara izatean, alegia. Zerbitzatzea hein handi batean, hauskortasuna edo ahultasuna babestea da» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 115).

Urteko 10. astea

San Alexandro, *gotzaina*

San Paulok 2 Korintoarrei 1, 18-22: Jesus ez zen izan batean «bai» eta bestean «ez»; harengan dena «bai» izan zen. **Sal 118:** Erakutsi aurpegi argia, Jauna, zeure zerbitzari honi.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 13-16.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zuek zarete lurraren gatz. Baina gatz gezatzen bada, nola gazitu berriro? Ez du jadanik ezertarako balio, kanpora bota eta jendeak zapaltzeko baizik. Zuek zarete munduaren argia. Ezin daiteke ezkuta mendi gainean dagoen herria. Kriseilua ere ez da pizten lakaripean ipintzeko, argimutilaren gainean ipintzeko baizik, etxeko guztiei argi egin diezaien. Era berean, zuen argiak denen aurrean egin behar du argi, zuen egintza onak ikusiz, zeruko zuen Aita gorets dezaten».

Biziari zaporea ematen dion gatz eta argizatzen duen argi izatera deitzen gaitu Jesusek. Gatz anonimoa da, jakiekin nahastu eta itxuraz desagertu egiten baita. Argiak argitasuna du eta ikusmena ahalbideratzen du. Jesusek gu biak izatea nahi du, gatz lotsatia, protagonismorik bilatzen ez duena baina bere presentzia denek sumatzen dutena eta argi garbia bizi betearen bideak argizatzen dituen. Errukiaren eta gupidaren Erreinuko argi eta gatz, zeinek, zaratarik gabe, baztertuentzat guneak sortzen eta gizatiarrago eta duinagoak diren bizitzeko era berriak argi eta garbi proposatzen dituen. Jesusek, gizartean txertaturik, gizatiartasunaren ekarpena egingo duten elkarrekin izatea eta Jaunaren jarraipenerako proposamen erakargarria egiten duen Eliza izatea nahi du.

Urteko 10. astea

SAN BERNABE APOSTOLUA**Apostoluen Eginak liburutik 11, 21b-26;13, 1-3.**

Egun haietan, asko bihurtu ziren Jaunagana eta fededun egin. Jerusalemgo eliz elkarteak honen guztiaren berri jakin zuelarik, Bernabe bidali zuen Antiokiara. Poztu zen hara iritsi eta Jainkoak bere onginahiaz haien artean egina ikusi zuenean, eta bihotz-bihotzez Jaunarekiko leial irauteko adore ematen zien guztiei; Bernabe gizon ona baitzen, eta Espiritu Santuaz eta sinesmenez betea, jendetza handia elkartu zitzaion Jaunari. Handik Tarsora joan zen Bernabe Sauloren bila eta, aurkitu zuenean, Antiokiara eraman zuen. Urtebete osoa eman zuten elkarrekin lanean eliz elkarte hartan, jende askori irakasten. Hain zuzen, Antiokian eman zieten ikasleei lehenengoz «kristau» izena. Bazen Antiokiako eliz elkartearen zenbait profeta eta irakasle: hala nola, Bernabe, Simeon –izengoitiz Beltza–, Luzio zirenaikarra, Manaen –umetan Herodes erregearekin batera hazia– eta Saulo. Behin, barau egunez, Jaunaren kultu-ospakizun batean zeudela, Espiritu Santuak esan zien: «Bereizi Niretzat Bernabe eta Saulo, Nik dei egin diedan egitekorako». Orduan, barau eta otoitz egin ondoren, haiei eskuak buruan ezarri eta bidali egin zituzten.

Sal 97: Ikusi dute lur-muga denek gure Jainkoagandiko garaipena.**Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10, 7-13.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Bidean zoaztela, hots egin hurbil dela zeruetako erreinua. Senda itzazue gaixoak, piztu hildakoak, garbitu legenardunak, bota deabruak. Hutsean hartu duzue, eman hutsean. Ez eraman urrerik, ez zilarrik, ez dirurik gerrikoan; ez zakutorik biderako, ez soinekorik aldatzeko, ez oinetakorik, ezta makilarik ere, zor baitzaio langileari behar duen jatekoa. Edozein herritan nahiz auzotan sartzen zaretela, jakizue ba ote den konfiantzazko inor, eta gelditu haren etxean, herri hartatik atera arte.

Etxean sartzean, egin bake-agurra; etxeakoak duin badira, hel bekie zuen bakea; duin ez badira, berriz, zuen bakerik gabe geldituko dira».

Bernabek bere jabetzako soro bat saldu zuen eta salmentaren ordaina apostoluen esku utzi zuen behartsuen artean banatzeko (Eg 4, 34-37). Honela bere bidaietako lehenean Pablori lagundu zion misiolari ibiltari eta askea bilakatu zen. «Gizon ona eta Espiritu Santuaz eta fedez betea» zen (Eg 11, 24). Bernabe bere izengoiti zen: adoremaile, kontsolamenduaren seme. Bernabek berekin ezer eraman gabe Jesu Kristo iragartzera atera ziren lehen apostoluen misioa irudikatzen du. Sendatu, garbitu, askatu egiten zuten musu-truk. Bazekiten Jaunak opari egin ziela eta ez zuten beraientzat ezer bilatzen. Berpiztuaren bakea zeramaten partekatzeko eta zabaltzeko. Beraien egintza gureganaino iritsi da oroimen eskertu eta akuilu bezala.

* * *

«Solidaritatea. Komunitatearen alde pentsatzea eta jardutea da; guztion bizitza lehenestea, baten batzuek ondasunak eskuratzearen gainetik» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 116).

Isaias Profetaren liburutik 6, 1-4.8.

Ozias erregea hil zen urtean, Jauna ikusi nuen, tronu altu eta garai batean eseria; haren mantu-hegalak tenplua betetzen zuen. Suzkoak bezalako izaki batzuk zituen gainean; seinu hegal zituzten: bi hegalez aurpegia estaltzen zuten, beste bi hegalez gorputza, eta beste biez hegan egiten zuten. Eta honela egiten zioten oihu elkarri: «Santu, santu, santua, Jaun ahalguztiduna! Lur osoa betetzen du haren aintzak!». Ahotsaren oihuz tenpluko ate-orpoek dar-dar egin zuten, eta tenplua kez bete zen. Orduan, Jaunaren ahotsa entzun nuen esaten: «Nor bidaliko dut? Nor izango dugu mandatari?» Eta nik erantzun: «Prest nauzu, bidali neu».

Sal 22: Jauna dut artzain, ez naiz ezeren beharrean.**Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 17, 1-2.9.14-26.**

Aldi hartan, Jesusek begiak zerura jaso eta esan zuen: iritsi da ordua. Ager ezazu zeure Semearen aintza, Semeak zure aintza ager dezan. Gizon-emakume guztien gain aginpidea eman diozunez gero, betiko bizia eman diezaiela Zuk berari emandakoei. Hauen alde erregutzen dizut; ez dut munduaren alde erregutzen, Zuk eman dizkidazunon alde baizik, zureak direlako. Zure hitza eman diet Nik; baina munduak gorroto die, mundukoak ez direlako, Ni ere mundukoa ez naizen bezala. Ez dizut eskatzen hauek mundutik ateratzeko, Gaiztoagandik gordetzeko baizik. Ez dira mundukoak, Ni ere mundukoa ez naizen bezala. Sagara itzazu egiaren bidez; zure hitza da egia. Ni mundura bidali ninduzun bezala, Nik ere mundura bidali ditut. Eta hauengatik sagaratzen dizut neure burua, hauek ere sagara ditzazun egiaren bidez.

* Santa Paula Frassinetti, *fundatzailea* (Santa Dorotearen ahizpak)
San Onofre, *ermitaia*

Aita santu hori, ez dut erregutzen hauen alde bakarrik, baita hauen hitzaren bidez Nigan sinetsiko dutenen alde ere. Egizu denak bat izan daitezela. Aita, Zu Nirekin eta Ni Zurekin biok bat garen bezala, hauek ere bat izan daitezela Gurekin, munduak sinets dezan Zuk bidali nauzula. Zuk eman zenidan aintza bera eman diet Nik, bat izan daitezen, Gu biok bat garen bezala: Ni hauekin bat eta Zu Nirekin bat. Horrela guztiz bat izango dira, eta munduak ezagutu ahal izango du Zuk bidali nauzula eta Ni maitatu nauzun bezala maitatu dituzula hauek ere. Aita, Zuk eman dizkidazunak Ni nagoen tokian Nirekin egotea nahi dut, nire aintza, mundua izan baino lehen maite izan nauzulako eman didazun aintza, ikus dezaten. Aita zuzen hori, munduak ez zaitu ezagutu; Nik, ordea, ezagutu zaitut, eta hauek jakin dute Zuk bidali nauzula. Jakinarazi diet zure izena, eta aurrerantzean ere jakinaraziko, Zuk Niri didazun maitasuna hauengan izan dadin, eta Ni ere hauengan izan nadin».

Jesu Kristo betiereko apaiz nagusi da, ezer gorde gabe bere bizi osoa Erreinuaren zerbitzura eman duelako. Eskaintza honen bidez aintza iritsi du eta Aitaren etxera bildu da. Aitarengan bizi da, berarekin bat eginda, elkarmaitasunezko harremanean. Kristauok ere partekatzen dugu bere apaiz izaera, gizadiaren eta kreazioaren bizirako gure izana eskaintzen dugunean. Honela Jainkoaren bizian, Aitak eta Semeak duten maitasunean, partaide sentitzen gara. Kristau bizitzaren misterioa elkartasun misterio da, non maitasunaren bidez Jainkoaren bizitzara gehituak izan garen.

* Santa Paula Frassinetti, *fundatzailea* (Santa Dorotearen ahizpak)
San Onofre, *ermitaua*

Urteko 10. astea

San Antonio Paduakoa, *apaiza eta eliz irakaslea*,
*frantziskotarra*San Fandila, *apaiza eta martiria*

San Paulok 2. Korintoarrei 4, 7-15: Jesus Jauna piztu duenak piztuko gaitu gu ere Jesusekin, eta haren ondoan ipiniko gaitu zuekin batera. **Sal 115:** Gorespen-oparia dizut, Jauna, eskainiko.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 27-32.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzuna duzue antzinakoei agindua: “Ez egin adulteriorik”. Nik, ordea, hau diotsuet: Emakumeari irrikaz begiratzen dionak egin du jadanik adulterioa bere bihotzean. Eskuineko begia galbide bazaizu, atera eta bota zeuregandik urruti; hobe duzu gorputz-atal bat galdu, oso-osorik infernura jaurtia izan baino. Eskuineko eskua galbide bazaizu, moztu eta bota zeuregandik urruti; hobe duzu gorputz-atal bat galdu, oso-osorik infernura joan baino. Agindua dago hau ere: “Emaztea uzten duenak eman diezaiola dibortzio-agiria”. Nik, ordea, hau diotsuet: Bere emaztea uzten duenak –legez kontra elkartuak ez badira behintzat– adulteriora bultzatzen du emaztea; eta utzitako emakumearekin ezkontzen denak adulterioa egiten du».

Legearekiko Jesusen jarrera anibalentea da. Batzuei aurre egiten die, hala nola gizakia ez dagoela larunbataren onerako egina baizik larunbata gizakiaren onerako dionean edo bere ikasleei eskuak garbitu gabe edo baraurik egin gabe uzten dienean. Alabaina, beste lege batzuk azken muturreraino daramatza, ebanjelio honetan bezala. Badirudi Jesusek garbiak eta kutsatuak bereizten dituen legeetatik ihes egiten duela eta azkenekoetatik hasita denentzat leku bat eskatzen duela, honekin batera gure hoberena, azken muturreraino bestei eskaintzea nahi duela. Jesusentzat pertsonak, gehiago oraindik baztertuak, sakratuak dira, beraien zerbitzari gara.

Urteko 10. astea
San Eliseo, *profeta*

San Paulok 2 Korintoarrei 5, 14-21: Bekatuarekin zerikusirik ez zuen hura, Jainkoak gugatik bekatu bihurtu zuen. Sal 102: Bihozbera eta errukiorra da Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 33-37.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzuna duzue antzinakoei agindu zitzaiena: “Ez egin gezurrezko zinik”, eta “bete Jaunari egindako zinak”. Nik, ordea, hau diotsuet: Ez egin inolako zinik, ez zeruagatik, Jainkoaren tronua baita; ez lurragatik, haren oin-aulkia baita; ezta Jerusalemengatik ere, Errege handiaren hiria da eta. Ez egin zinik zeure buruagatik ere, ez baitezakezu zeure ile bakar bat ere zuri edo beltz bihurtu. Zuek esan ezazue “bai”, bai denean, eta “ez”, ez denean; gainerakoa gaiztoagandik dator».

Hitzekoak izatea, hori da Jesusek eskatzen duena. Elkarren arteko konfiantza zutabe duen elkarteak eraiki nahi du, horrela batzuk besteez fida gaitzen. Jainkoa lekukotzat ekartzeak susmoaren pitzadura irekitzea dakar, azaldu genuen konpromisoa nahikoa ez balitz bezala. Erreinuko elkartean ezin dugu zalantzarik izan besteek esaten digutenaz, zurikeria, umilazio eta manipulazioei uko eginez gardentasunean eta egian kokatu baitira. Horrela elkarte berri bat eta komunikatzeko era berri bat ahalbideratzen duen konfiantza zabaltzen da.

Urteko 11. astea

Hirutasun SantuaSanta Maria Mikaela, *birjina, fundatzailea (Aldareko Sakramentuaren Adoratzailleak)***Esaera Zaharrak liburutik 8, 22-31.**

Honela mintzo da Jainkoaren Jakinduria: «Bere jardueraren hasieran sortu ninduen Jaunak, bere lehenbiziko egintzen aurretik. Betidanik eratua naiz hasiera-hasieratik, lurra izan baino lehenagotik. Ur-leizerik ez zenean izan nintzen sortua, iturbururik ere ez zegoenean. Mendiak landatuak izan aurretik, muinoak baino lehen izan nintzen sortua; artean ez zituen Jainkoak mundu hau eta kanpokoak eginak, ezta unibertsoaren lehengaiak ere. Zerua ezarri zuenean, han nintzen ni, ur-leizearen gainetik zeru-sabaia jarri zuenean; hodeiak goian finkatu eta leizeko iturriak tinko ezarri zituenean, itsasoari mugak jarri –urak muga horietatik atera ez zitezen– eta lurrari oinarriak sendotu zizkionean, haren ondoan nengoen ni, obra-maisu bezala; haren gozamina nintzen egunero, haren aurrean jolastuz aldi oro; ludiarekin jolasten nintzen eta gizakiekin nuen gozamina».

Sal 8: Jauna, gure Jauna, bai miragarria zure izena lurbira osoan!**San Paulok Erromatarrei 5, 1-5.**

Senideok: Jainkoak fedeagatik zuzentzat hartu gaituenez gero, bakean gaude harekin, Jesu Kristo gure Jaunari esker. Honi esker, sinesmenagatik eman digu Jainkoak grazi egoera honetan bizitzea, eta harro gaude Jainkoaren aintza iritsiko dugun itxaropenez. Eta ez hori bakarrik; harro gaude atsekabeez ere, jakinik atsekabeak eroapena duela ondorio, eroapenak probaldia gainditzeko gaitasuna eta probaldia gainditzeak itxaropena. Itxaropenak ez du huts egiten, Jainkoak bere maitasuna isuri baitigu bihotzera, eman digun Espiritu Santuaren bitartez.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16, 12-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Gauza asko dut oraindik zuei esateko, baina oraingoz ez zarete gai ulertzeko. Halere egia

Santa Maria Mikaela, *birjina, fundatzailea (Aldareko Sakramentuaren Adoratzailleak)*

Espiritua etortzean, hark gidatuko zaituzte egia osoraino. Ez da bere kabuz mintzatuko, baizik eta entzungo duena esango dizue eta etorkizuna iragarriko. Hark nire aintza azalduko du, adieraziko dizuen niretik hartuko baitu. Aitak duen guztia nirea da; horregatik esan dizuet Espirituak niretik hartuko duela adieraziko dizuen».

Jainkoa maitasunez besarkatutako familia da. Aitaren maitasun kreatzaile eta erabateko dohaintza; harkor eta erantzun den Semearen maitasuna; inguratu, bereaz ahaztu eta elkarte sortzen duen Espirituaren maitasuna. Hiru pertsonetara murriztua geratzen ez den maitasuna, baizik denean datzana eta gu ere harrapatzen gaituena, Semearen gizatasunean, bere bizitzan, txertatzen gaituena, bere maitasunaren agerpen izaten utziz eta Hirutasunaren elkartasunean bizitzera deituak izanik. Hirutasuna ez da asma ezin daitekeen zenbakien jolas bat. Kreazioaren oinarria da. Ez da errealitateen batuketa-pilaketa, armonia eta oreka bilatzen duen batasun elkarlotua baizik, eta dena sortu, salbatu eta santutzen duen maitasunaz zeharkatua dago. Jainkoaren bizitzara erakarritako kreazio bat eta indar horretan itxaropen ororen oinarria aurkitzen duena. Hirutasunean bizi gara, ezerezetik bizira deitu gaituen Aitaren hitz adierazgarri et sortua baikara; Semearen gizatasun hauskor eta maitagarria gara, norengan gure azken egia agertu zaigun; goratzen eta gidatzen gaituen Espirituaren hegaldi eta amets, gogo eta utopia gara. Hiru pertsonen babesten gaituzte eta elkartasunean bizitzera deituriko giza familia bezala garamatzate.

Urteko 11. astea

Santa Justina, *martiria*San Bernabe, *monjea*

San Paulok 2 Korintoarrei 6, 1-10: Jainkoaren zerbitzari garela agertzen dugu. Sal 97: Bere garaipena ezagutarazi du Jaunak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 38-42.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzuna duzue antzinakoei agindua: “Begia begiaren ordain, hortza hortzaren ordain”. Nik, ordea, beste hau diotsuet: Gaizkileari ez erantzun gaizki; bestela baizik, eskuineko masailean jotzen zaituenari eskaini beste masaila ere; soinekoa kentzeko auzitara eramán nahi zaituenari eman soingainekoa ere; norbaitek mila pauso egitera behartzen bazaitu, egin bi mila berarekin. Eskatzen dizunari eman, eta dirua uzteko eskatzen dizunari ez ukatu».

Gizakion justiziak badirudi jaso dugun kalteari gogorkeriarekin erantzutera garamatzala. Beste aldetik erresuminak jaso dugunarena baino min handiagoa egitera eramango gintuzke, honek sortzen duen espiral geldiezinarekin, denok elbarri geratu arte. Jesusek gatazkak ez direla horrela geratzen ezta barne gorrotoak hazteari uzten ere erakusten digu. Berak nahasmena sortzen digun eta behar bada nazkatu ere egin gintzakeen proposamena egiten digu, gaizkiari on eginez erantzun: zauritu gaituenari gehiago zauritzen utzi; behartuz eskatzen digunari, kentzen diguna baino gehiago eman. Jesusek indarkerian oinarritutako harremana hausten du, zapaltzailearena den kontzientziara jotzen duen eskuzabaltasunarekin ordezkatzuz. Jesusi begiratzeak soilik lagun diezaguke bide horretan aurrera egiten.

Urteko 11. astea

Santa Valeriana, *martiria* San Inozentzio, *martiria*

San Paulok 2 Korintoarrei 8, 1-9: Jesu Kristo behartsu egin zen zuengatik. Sal 145: Goretsazu Jauna, ene barrena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 43-48.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzuna duzue antzinakoei agindua: “Maita ezazu zeure lagun hurkoa eta gorrota zeure etsaia”. Nik, ordea, hau diotsuet: Maita itzazue zeuen etsaiak eta egin otoitz eraso egiten dizuetenen alde, zeruetan dagoen zeuen Aitaren seme-alaba izan zaitezten, hark gaiztoentzat eta zintzoentzat ateratzen baitu eguzkia, eta zuzenentzat eta zuzengabeentzat egiten euria. Izan ere, maite zaituztenak bakarrik maite badituzue, zer sari zor zaizue? Zergalariek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Eta zeuen senideak bakarrik agurtzen badituzue, zer egiten duzue berezirik? Jentilek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Izan zaitezte, beraz, guztiz onak, zeruko zuen Aita guztiz ona den bezala».

Jesusek juduen maitasun legeak erradikalizatzen darrai, oraingoan muturreraino. Etsaiarekiko maitasun aginduaren edertasunak ez du ezkututzen bere zailtasuna. Noizbehinka nahita irainduak edo erasotuak izan garenean barkamena eman gabe tinko irauten dugu, zenbait irainek barkaezin baitirudite. Oraindik lortu ezinezkoagoa zaigu maitatzera iristea! Jabetzen gara etsaiak maite bagenitu giza elkarbizitza berehala berrituko litzatekeela, baina ez dakigu nola iritsi hain urruti. Bere sufrimenean barkatu eta maitatu egin zuen gurutziltzatua kontenplatzea besterik ez zaigu geratzen. Berak –eta gudan den bere Espirituak– mugi ditzake gure bihotzak eta bereizkuntzarik gabeko denenganako maitasun iturrian berritu.

Urteko 11. astea

San Markos eta San Martzelino, *martiriak*San Ziriako eta santa Paula, *martiriak*

San Paulok 2 Korintoarrei 9, 6-11: Alai ematen duena maite du Jainkoak. Sal 111: Zorionekoa Jaunari begirune diona.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6, 1-6.16-18.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Begira, gero: ez egin zeuen egintza onak jendaurrean, ikus zaitzaten! Bestela, ez duzue zeruetan dagoen Aitaren saririk izango. Limosna ematean, beraz, ez ibili aurretik turuta jotzen, itxurazaleak sinagogetan eta kaleetan ibiltzen diren bezala, jendeak txalotu ditzan. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zuk limosna ematean, ordea, ez beza jakin zure ezkerrek zer egiten duen eskuinak; horrela, zure limosna ezkutuan geldituko da; eta ezkutuan ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina. Otoitz egitean, ez egin itxurazaleek bezala; horiek sinagogetan eta plaza-ertzetan zutik otoitz egitea maite baitute, jendeak ikus ditzan. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zu, ordea, otoitz egitean, sar zaitez zeure gelan, itxi atea eta egiozu otoitz ezkutuan dagoen zeure Aitari; eta ezkutuan ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina. Barau egitean, ez agertu kopetilun, itxurazaleak bezala; aurpegia itsustu egiten baitute, barau egiten dutela jendeari agertzeko. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zuk, ordea, barau egitean, gantzutu zeure burua usain gozoz eta garbitu aurpegia, jendeak ez, baino ezkutuan dagoen zure Aitak ikus dezan zure baraua; eta ezkutuan ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina».

Egintza onak beraiek bakarrik nahikoa dira, ez dute beste sustagarririk behar, beraiek soilik asetzen baitute. Ez dugu besteen miresmenik behar ongi ari garenean —ez limosna ematean, ez otoitz egitean, ez barau egitean, ez justizia egitean edo laguntzen aritzean— baizik egiten ari garen horrek berak du berekin ordainsaria. Ez da garrantzikoena zer egiten dugun, zergatik egiten dugun baizik. Gainditzeko gogoia, ongi geratzeko eta ordainsaria izateko asmoa besterik ez dugunean, egiten dugun ongia mingots eta hutsal bihurtzen zaigu. Baina maitasunez, lagundu nahiaz, anaitasun sentimendutik edo eskertzatik sortzen denean, egintzak berak asetzen du eta nahikoa da.

Urteko 11. astea

San Romualdo, *abadea, fundatzailea (kamaldulitarrek)*
Santa Juliana Falconieri, birjina

San Paulok 2 Korintoarrei 11, 1-11: Jainkoaren Berri Ona dohainik hots egin nizuen. Sal 110: Zure egintzak, Jauna, leial eta zintzo dira.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6, 7-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Otoitz egitean, ez jardun esan eta esan, jentilak bezala, uste baitute beren hitz-jarioari esker entzungo diela Jainkoak. Ez izan haien antzeko, badaki-eta zuen Aitak zer behar duzuen, zuek eske hasi baino lehen. Beraz, zuek honela egingo duzue otoitz: “Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia, zeruan bezala lurrean ere. Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen, baina atera gaitzazu gaitzetik”. Izan ere, zuek besteei beren hutsegiteak barkatzen badizkiezue, zuei ere barkatuko dizue zeruko zeuen Aitak; baina besteei barkatzen ez badiezue, zuei ere ez dizkizue barkatuko Aitak zeuen hutsegiteak».

Kristauok, maitasun osoz, Jesusen hitzak Gure Aitan biltzen ditugu. Jesusen barnera inguratzea eta Aitarekin zuen harremana ezagutzea ahalbideratzen digute. Bere eskariak, bihotz handi batenak, errepikatzean, gure xedea gure mundua beraiek eratzea eta kristautzea da, Kristoren estiloaren erara birmoldatuz. Gure Aita egoera ezberdinetan errezatzen dugu, eskatzerakoan, oroitzekoan, eskertzerakoan edo otoitzean batzerakoan. Beti badago egin genezakeen azpimarra bat, hitz batean gera gintezke edo eskaera bereziki aipatu. Gure jarraitzaile bizitzak otoitz honetan egunero sakontzen jarraitzera gonbidatuak gaitu, egunez egun Jesusen antzekoagoak izan gaitezen.

Urteko 11. astea

Santa Florentina, *birjina*San Silverio, 58. *Aita santua*

San Paulok 2 Korintoarrei 11, 18.21b-30: Horien guztien gainetik, eguneroko nire buruhaustea: eliz elkarte guztien ardura. **Sal 33:** Beldur guztietatik atera ninduen Jaunak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6, 19-23.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez pilatu mundu honetan zeuen ondasunak, sitsak eta herdoilak jaten baitituzte hemen, eta lapurrek zuloak egin eta harrapatzen. Pilatu zeruan zeuen ondasunak, han ez baititu sitsak, ez herdoilak jaten, ezta lapurrek zuloak egin eta harrapatzen ere. Zeren, zure aberastasuna non, zure bihotza han. Begia da gorputzari argi egiten dion kriseilua. Begia onik baduzu, zure gorputz osoa argian ibiliko da. Baina begia gaixo baduzu, zure gorputz osoa ere ilunetan ibiliko da. Beraz, zure barruan argi izan behar lukeena iluna bada, a zer ilunpea zurea!».

Ondasunak pilatzea beraietan segurtasuna, norberaren ospea edo boterea bilatuz, gure konfiantza lapurreta eta galtzeari lotua dagoen hauskortasunean jartzea da. Gure ahalegina beraietan jartzeak okertu egiten gaitu, geuregana itzuliz eta ikusmena murriztuz. Eta gure nahi zekenetatik haratago ikustera ez gara iristen. Gure gehiago nahi izatean, argi motelaz bakarrik argiturik, gure barnea itzali egiten da. Edukitzearen irrikak behartsu egiten gaitu. Jesusek eskuzabaltasunera, besteen bizitzaz arduratzen eta besteen duintasunaren alde lan egitera gonbidatzen gaitu. Orduan bizitzak bizitasun berria hartzen du eta barneak Jainkoak eta bere Erreinuak bakarrik ekar dezaketen kontsolamenduaren argia eskuratzen du. Emankor izateak aberastu egiten du.

Urteko 11. astea

San Luis Gonzaga, *jesuita*San Ramon Rodakoa, *gotzaina*

San Paulok 2 Korintoarrei 12, 1-10: Pozik harrotuko naiz neure ahuleziaz. Sal 33: Dasta ezazue eta ikusi zein ona den Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6, 24-34.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ezin izan da inor bi nagusiren morroi; izan ere, bata gorroto izango du eta bestea maiteko, edota bati leial izango zaio eta bestea ez du aintzat hartuko. Ezin zarete Jainkoaren eta diruaren morroi izan. Horregatik diotsuet: Ez kezkatu bizitzeko zer jango edota gorputza zerez jantziko. Ez ote da bizia janaria baino gehiago, eta gorputza jantzia baino gehiago? Begira zeruko hegaztiei: ez dute ereiten, ez uztarik biltzen, ez mandioan pilatzen; hala ere, zeruko zuen Aitak janaritzen ditu. Ez al duzue zuek haiek baino askoz gehiago balio? Asko kezkatuta ere, zuetako nork luza lezake apurtxo bat bizitza? Eta jantzia, zergatik kezkatu? Begira nola hazten diren loreak zelaietan: ez dira lanean nekatzen, ez dute iruten; baina, egia esan, Salomon bera ere, bere ospe guztian, ez zen jantzen horietako bat bezain apain. Beraz, gaur belardian dagoen eta bihar suan erreko den belarra Jainkoak horrela jantzen badu, zenbatez gehiago zuek, sinesmen txikikook? Ez kezkatu, bada, zer jango, zer edango, zer jantziko duzuen pentsatuz. Jentilak arduratu ohi dira horiez guztiez. Zeruko zuen Aitak badaki horien guztien beharra duzuela. Bilatu lehenbizi Jainkoaren erreinua eta beronen zuzentasuna, eta gainerako guztia gehigarri emango dizue Jainkoak. Ez kezkatu, bada, biharko egunaz, biharko egunak ere ekarriko baitu bere kezka. Aski ditu egun bakoitzak bere buruhausteak».

Jesuentzat ondasunak metatzea Erreinuaren etsai nagusia da, pertsoneri erabateko jarduna eskatzen dielako eta konfiantza diruak ematen duen segurtasunera daramalako. Jesusek edukitzearen sokara itsatsiak ditugun gure eskuak askatzea eskatzen digu eta Jainkoarenganako gure konfiantzaren harian zintzilikatzea. Berak bere sorkari guztiak zaintzen ditu, txikienak ere bai, lirioak eta txoriak

Urteko 11. astea

San Luis Gonzaga, *jesuita*San Ramon Rodakoa, *gotzaina*

bezala. Gu beraren seme-alaba gara eta oraindik arreta handiagoz zaintzen gaitu. Gure konfiantza Jainkoagan jartzean, gure arazoei aurre egiteko poltsara jotzeari uzten diogu eta inoiz huts egiten ez duten eta giza familia hazten duten, bertako eta urrutiko, giza solidaritate sareetara jotzen dugu. Jadanik ez dago leku gehiagorik larritasun eta itotzearentzat.

* * *

Jauna, Rabboni eta Maisua:

Egunero, gauero jotzen duzu gure atean

Jainko biziaren errealitatera gu esnatzeko.

Baina ikusirik kezkatu gabiltzala eta, are, geure barnea itsuturik, oinarritzko premia deitzen ditugun horientatik

–janari, jantzi, osasun, lanagatik...–,

harritu egiten zara gure larriaz, eta zeruko Aitaz mintzo zatzaizkigu gure bizi-eskemak hausten dituzten hizkuntzan eta tonueran.

«Txoriez arduratzen da hura eta janaritzen ditu.

Eta eder jantzen ditu landako loreak...

Badu Hark betiere zuen premien berri.

Harentzat txoriak eta loreak baino baliotsuago zarete;

beraz, ez ibili bizitzaz estu eta larri.

Ibili lehenik haren zuzentasuna nola nagusi izango bila...».

... / ...

Kezkatzen gaituena kontuan du hark,

eta bera kezkatzen duena guk kontuan izatea nahi du.

Trukatze estrainioa! Bizi dugun pobretasunetik eta asegabetasunetik bakarrik ulertzen ahal dena

eta zugandik doan hartzen dugun maitasunetik!

(Florentino Ulibarri)

Hasiera liburutik 14, 18-20.

Egun haietan, Melkisedekek, Xalengo erregeak, ogi-ardoak atera zituen, Goi-goiko Jainkoaren apaiza baitzen, eta Abram bedeinkatu zuen, esanez: «Goi-goiko Jainkoak, zeru-lurren egileak, bedeinka dezala Abram. Eta bedeinkatua izan bedi Goi-goiko Jainkoa, zeure etsaien garaile egin zaituelako». Abramek harrapakin guztien hamarrenak eman zizkion Melkisedeki.

Sal 109: Apaiz zara Zu, Melkisedek bezala, betiko.

San Paulok 1 Korintoarrei 11, 23-26.

Senideok: Jaunagandik hartu nuen nik, neure aldetik zuei eman dizuedan hau: Jesus Jaunak, saldu zuten gauean, ogia hartu eta, esker onezko otoitza eginez, zatitu zuela eta esan: «Hau nire Gorputza da, zuentzat emana. Egizue hau nire oroigarri». Afalondoan gauza bera egin zuen kalizarekin, esanez: «Kaliza hau itun berria da, nire Odolaz sinatua; egizue hau, edaten duzuen bakoitzean, nire oroigarri». Beraz, ogi honetatik jaten eta kaliza honetatik edaten duzuen bakoitzean, Jaunaren heriotza iragartzen duzue, hura etorri arte.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9, 11b-17.

Aldi hartan, Jesusek Jainkoaren erreinuaz hitz egin zion jendeari, eta premia zuten guztiak sendatu zituen. Iluntzen hasia zen. Hamabiek hurbildu eta esan zioten Jesusi: «Bidal ezazu jendea, inguruko baserrietara eta auzoetara joan eta ostatua eta jatekoa bila dezaten, hau leku bazterra da eta». Jesusek erantzun zien: «Emaiezue zeuok jaten». Haiek, orduan: «Ez dugu bost ogi eta bi arrain besterik, jende honentzat guztiarentzat jatekoa erostera geu joaten ez bagara behintzat». Bosten bat mila gizonezko ziren. Jesusek esan zien ikasleei: «Eserarazi berrogeita hamarnaka». Hala, denak eserarazi

KRISTOREN GORPUTZ-ODOL SANTUAK

San Paulino Nolakoa, *gotzaina*. San Joan Fisher, *gotzaina* eta Tomas Moro santua, *aita familiakoa*, *martiriak*

zituzten. Jesusek, bost ogiak eta bi arrainak hartu eta, begiak zerura jasorik, bedeinkapen-otoitza egin, ogiak zatitu eta ikasleei eman zizkien, jendeari eskaintzeko. Asetzeraino jan zuten denek, eta gelditutako hondarrez hamabi saski bete zituzten.

Jesus zatitu eta banatzen den ogi egiten da. Bere oroigarri bere zeinuak errepikatzen deitutako elkarte gara, zatitzera eta banatzera deitua dagoen elkarte. Jendetzarekin egindako otordu hartan hamabi otar geratu ziren, hamabi leinuen judu herri osoarentzat iristeko nahikoa. Partekatzen duen elkarte batek askorengana iristeko adina dauka. Eliza bezala horretara gaude gonbidatuak: Jesus bezala eskuzabalak izan, kemenez handiak, emankorrak. Jesus indarkeriak eragindako odol isuria ere egiten da. Mundu honetako zuzentasun-ezaren hainbat biktimenarekin nahasia geratu zen zuzentasun-ezaren biktima baten odola. Bere odola edateak Jesus murgildurik aurkitu zen historia arriskutsu horretan gure parte hartzea adierazten du. Zuzentasunaren eta anaitasunaren Erreinu iritsierak eragiten duen gatazkan parte hartzea onartzea eta ez bertatik ihes egitea. Gure bizia Eukaristia bihurtzen gonbidaturik gaude. Bera da gure kristau bizitzaren iturri, bai eskuzabaltasunean, bai Erreinuak beti sortzen dituen liskarren azalpenean. Aldi berean, Eukaristia gure kristau bizitzaren gorena da, garena eta duguna Aitaren aurrean jartzera hurbiltzen garen gunea, berak besteentzako bizi eralda dezan.

Urteko 12. astea

Santa Agripina, *martiria*
San Urbano, *martiria*

Hasiera liburutik 12, 1-9: Hala, joan egin zen Abram, Jaunak agindu bezala. Sal 32: Bai dohatsu Jaunak bere oinorde hautatu duen herria.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7, 1-5.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez gaitzetsi inor, Jainkoak zuek gaitzetsi ez zaitzaten. Izan ere, zuek besteak nola epaitu, hala epaituko zaituzte Jainkoak; eta zuek zein neurritz neurtu, halakoaz neurtuko zaituzte Jainkoak. Nolaz ikusten duzu senidearen begiko lasto-izpia eta ez zara zeure begiko habeaz ohartzen? Eta nola esan diezaiokezu senideari: “Uztazu zeure begitik lasto-izpia ateratzen”, zuk zeurean habea duzula? Itxurazale hori! Atera lehenik zeure begitik habea, eta orduan ikusiko duzu garbi, senidearen begitik lasto-izpia ateratzeko».

Gure jokabideentzat aitzakia aurkitzera jotzen dugu, besteen erruak handitu egiten ditugun bitartean. Amore emaillegi geurekiko eta zorrotzegi besteekiko. Orduan errealitatea desitxuratua geratzen da gure begien aurrean, gaizki ikusten dugu eta hanka sartzen dugu. Jesusek lagun hurkoaren epaile ez egiteko oharpena egiten digu; alderantziz baizik, apalak izateko eta nartzisismotik aldentzeko eskatzen digu. Nor garen garbi ez badugu, gutxi lagun diezaiekegu besteei. Besteentzat garen zamaz jabetzen ez bagara, beren bizia arintzeko ezgai bihurtzen gara. Gure egia onartzeak apalak bihurtzen gaitu eta anaitasuna bizitzen laguntzen digu. Apalek bakarrik egin dezakete bidea elkarrekin, elkar jasanez eta besteentzat atsedan leku izanez.

Urteko 12. astea

SAN JOAN BATAIATZAILEAREN JAIOTZA

San Orentzio, *martiria*

Isaias Profetaren liburutik 49, 1-6.

Entzun, uhartek! Aditu, urrutiko herriok! Jaio aurretik deitu ninduen Jaunak, amaren sabelean nengoela gogoratu zen nitaz. Ezpata zorrotz bihurtu zidan ahoa, bere eskupean babestu ninduen; gezi zorrotz bihurtu ninduen eta gezi-ontzian gorde. Eta esan zidan: «Zu zara nire zerbitzaria, Israel, zure bidez agertuko dut neure ospea». Nik, berriz, hau nioen: «Alferrik nekatu naiz; alferrik eta hutsean akitu ditut neure indarrak». Baina Jaunaren baitan zegoen nire eskubidea, Jainkoaren eskuetan nire lansaria. Orain honela mintzo da Jauna, amaren sabelean eratu ninduen haren zerbitzari izateko, Jakoben leinuak harengana bihurrazteko eta Israel herria biltzeko. Ohorez jantzi nau Jaunak eta neure Jainkoa izan dut indar. Jaunak esan dit: «Ez da aski zu nire zerbitzari izatea, Jakoben leinuak berreraikitzeke eta Israelen bizirik geldituak itzularazteko. Nazioen argitzat ezarriko zaitut, nire salbamena lurraren azken mugaraino irits dadin».

Sal 138: Eskerrak zuri, hain harrigarriro egin nauzulako.

Apostoluen Eginak liburutik 13, 22-26.

Egun haietan, honela mintzatu zen Paulo: «Jainkoak David eman zien errege, honetaz aitormen hau eginez: “Aurkitu dut David, Jeseren semea, nire gogoko gizona, nik nahi guztia beteko duena”. Hitzemana zuenez, honen hazitik atera zion Jainkoak Israeli Salbatzailea: Jesus. Hau etorri baino lehen, Joan Bataiatzaileak bihotz-berritzeko bataioa hots egin zion Israel osoari. Eta bere bizitza bukatzera zihoanean, honela zioen Joanek: “Ez naiz ni zuek uste duzuen; badator nire ondoren beste bat, eta ni ez naiz inor haren oinetakoak askatzeko ere”». Senideok, Abrahamen ondorengo zaretenok, eta zuek, Israelen Jainkoa gurtzen duzenok, geuri bidali zaigu salbamen-hitz hau».

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 57-66.80.

Haurra izateko denbora bete zitzaionean, Elisabetek semea izan zuen. Jakin zuten auzokoek eta ahaideek zein erruki handia agertu zion Jaunak, eta zorionak ematen zizkieten. Jaio eta zortzigarren egunera, haurra erdaintzera eraman zuten, eta aitaren izena jarri nahi zioten, Zakarias. Amak, ordea, esan zuen: «Ez! Joan izango du izena». Esan zioten: «Ez duzue senitartean inor izen hori duenik». Orduan, aitari keinuka galdetu zioten zein izen eman nahi zion haurrari. Eta hark oholtxo bat eskatu eta idatzi zuen: «Joan du izena». Denak harriturik gelditu ziren. Bat-batean mihia askatu zitzaion Zakarias, eta hitz egiten hasi zen eta Jainkoa goستن. Beldurrak hartu zituen auzoko guztiak, eta Judeako mendialde guztian zabaldu zen gertatuaren berri. Entzuten zuten guztiek beren baitarako esaten zuten: «Zer izango ote da ume hau?». Zeren Jainkoaren eskua harekin baitzegoen. Haurra gorputzez hazten ari zen, eta espirituz sendotzen; basamortuan bizi izan zen, Israel herriaren aurrean agertu zen eguna arte.

Joan jaiotzatik bertatik Jainkoak egina da. Kreatzaileak errealitatei izendatuz argia eman zien bezala, joan ere izena emanez sortu du. Zakariasek Jainkoaren nahi hori baieztatuz eta onartuz, bere mututasun tematua hizketa eskertua bihurtzen du. Behin betirako Joan izango da, Jainkoak hala nahi izan zuelako. Joanen bizitza erabakigarria izan zen Jordanen bataioa hartzeko bataiatzailearengana joan zen Jesusen bizitzan. Bera atxilotzeak Jesusen ekintza publikoa aurreratu egin zuen eta beraren heriotzak Jesus eta Joanenak ere izan ziren ikasle batzuk goibeldu egin zituen. JoaneK Kristoren jardunaren bidea prestatu zuen. Badirudi eginkizun txikiagoa dela, baina ez da horrela. Kristau bizitzan egiten dugun guztia hori da, zorua prestatu Jainkoaren hazia errotu dadin. Nekazari gara eta ez hazi. Ez gara misioaren protagonista, Jainkoaren jardunarekin gozatzan dugun lankide liluratu eta eskuzabal baizik. Erreinuaren iragarpenarekin iristen den mundu berriaren profeta.

Hasiera liburutik 15, 1-12. 17-18: Abrahamek sinetsi egin zuen Jaunagan, eta Jaunak zuzentzat hartu zuen. Eta Jaunak ituna egin zuen harekin. **Sal 104:** Gogoan du etengabe Jaunak bere ituna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7, 5-20.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Kontuz sasiprofetekin! Ardi-larruz jantzita datozkizue, baina barrutik otso harrapariak dira. Beren egintzetatik antzemango diezue. Elorritik biltzen ote da mahatsik, edota laharretatik pikurik? Zuhaitz onak fruitu ona ematen du, eta zuhaitz txarrak fruitu txarra. Zuhaitz onak ezin du fruitu txarrik eman, ezta zuhaitz txarrak ere fruitu onik. Fruitu onik ematen ez duen zuhaitza moztu eta sura botatzen da. Beraz, beren fruituetatik antzemango diezue sasiprofetei».

Jesusek atzipetu eta galtzen gaituzten suge-liluratzailuez adi egoteko esaten digu. Baziren bere garaietan, badira gaur. Ongizate, zorion, esperientzien kontsumoa, eta asegarrien kontsumoa bezalako agintzariekin lilurutzen saiatzen diren eskaintzak. Jesusek ematen dituzten fruituei begiratzeko esaten digu: hustasuna, aspertzea eta etsipena. Berak beste bide bat proposatzen digu: zerbitzua, lagun hurkoa maitatzea eta zaintzea, baztertuekiko arreta, ingurumenaren zaintza, adiskidetasuna eta samurtasuna adieraztea. Lehen begiradan aurrekoa baino askoz zailagoa. Eta, behar bada, hala izango da, bertan gure aldetik gehiago eman behar dugulako. Dena dela, gizaki bezala ase egiten gaitu eta iturri garbi batetik, bihotz benetan eskertutik, sortzen den poz sakona eragiten digu.

Urteko 12. astea

San Pelaio, *martiria*San Josemaria Escriba, *fundatzailea (Opus Dei)*

Hasiera liburutik 16, 1-12.15-16: Agarrek semea eman zion Abrami, eta honek Ismael ezarri zion izena. **Sal 105**: Eskerrak Jaunari, ona baita.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7, 21-29.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez da aski Niri “Jauna, Jauna” esatea zeruetako erreinuan sartzeko; hau da beharrezkoa: zeruan dagoen nire Aitaren nahia egitea. Epai-egunean askok esango dit: “Jauna, Jauna, ez al genuen zure izenean hitz egin eta zure izenean deabruak bota eta zure izenean mirari asko egin?”. Baina Nik erantzungo diet: “Ez zaituztet inoiz ezagutu; alde Nigandik, gaizkileok!”. Beraz, nire hitz hauek entzuten eta betetzen dituen bere etxea harkaitz gainean eraiki zuen gizon zentzudunaren antzekoa da. Egin zuen euria, etorri ziren uholdeak, jo zuen haizeak eta eraso zioten etxe hari; baina ez zen erori, harkaitz gainean oinarritua baitzegoen. Nire hitz hauek entzun bai, baina betetzen ez dituen, bere etxea hondar gainean eraiki zuen gizon burugabearen antzekoa da. Egin zuen euria, etorri ziren uholdeak, jo zuen haizeak eta eraso zioten etxe hari; eta erori egin zen eta erabat hondatua gelditu». Jesusek hitzaldi hau bukatu zuenean, txunditurik zegoen jendetza haren irakaspenaz, nagusitasunez irakasten baitzien, eta ez lege-maisuek bezala.

Guk Jesusi jarraitzea ez da jainkozaletasunean gauzatzen, gure egintzetan baizik. Mendiko Sermoiak maila oso garaia baino garbia uzten du: besteeikiko harremana, azkenekiko azaltzen dugun errukia, ezberdinarekiko harrera eta onartzea, erasoen eta indarkerien espirala haustea osagai dituen bidea da Erreinura garamatzana. Jesusek badaki hori harkaitz gainean eraikitzea dela, denekiko –lagun eta etsaiekiko– maitasunaren harkaitza. Maitasunak ahuldu egiten gaitu, maitatzen dugunean errazago umilatu eta eraso diezaguten. Baina Erreinuan maitasunak bakarrik eskaintzen digu zoru tinkoa, ahuldadean indartsu eginez, gure bizia azken batean Aitaren eskuetan dagoela baretasunez fidatuz.

Ezekiel profetaren liburutik 34, 11-16.

Honela mintzo da Jainko Jauna: «Ni Neu egingo naiz artaldearen kargu, Neu arduratuko hartaz. Artzaina, artaldea sakabanatu zaionean, ardiez arduratzen den bezala, halaxe arduratuko naiz Ni neure ardiez; egun lainotsu eta ilunean sakabanaturiko toki guztietatik aterako ditut. Herri eta lurralde arrotzetatik aterako ditut eta bilduko, eta beren lurraldera eramango; Israelgo mendietan larratuko ditut, ibar heze eta lurraldeko herrixka guztietan. Larre oparotan bazkatuko ditut eta Israelgo mendi garaietan izango dituzte eskortak; barruti ederretan hartuko dute atseden eta larre oparotan bazkatuko dira Israelgo mendietan. Nik Neuk larratuko ditut ardiak eta Neuk harraraziko diet atseden –dio Jainko Jaunak–. Ardi galduaren bila joango naiz, desbideratua artaldera bilduko dut, hanka hautsia lotuko, gaixoa indartuko; gizenak eta indartsuak zainduko ditut. Behar bezala larratuko ditut ardiak».

Sal 22: Jauna dut artzain, ez naiz ezeren beharrean.**San Paulok Erromatarrei 5, 5b-11.**

Senideok: Jainkoak bere maitasuna isuri digu bihotzera, eman digun Espiritu Santuaren bitartez. Izan ere, oraindik bekatupean indargabe geundela, Kristo, Jainkoak erabakitako garaian, gaiztoen alde hil zen. Nekez onartuko luke norbaitek pertsona zuzen baten alde hiltzea; hala ere, pertsona on baten alde baliteke norbait hiltzeko prest egotea. Baina Kristo, artean gu bekatari ginela, hil zen gure alde; honela erakusten du Jainkoak guri digun maitasuna. Orain Jainkoak Kristoren odolaz zintzotzat hartu gaituelarik, zenbatez gehiago ez ote gaitu salbatuko zigorretik beraren bitartez! Etsai ginelarik, Jainkoak berekin adiskidetu bagintuen bere Semearen heriotzari esker, zenbatez gehiago, behin adiskidetz gero, ez ote gaitu salbatuko haren biziori

esker! Are gehiago, harrotu ere egiten gara Jainkoaz Jesu Kristo gure Jaunari esker, honen bitartez Jainkoarekin adiskidetzeari iritsia baitugu dagoeneko.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 15, 3-7.

Aldi hartan, parabola hau esan zien Jesusek fariseuei eta lege-maisuei: «Zuetako bat, ehun ardi izan eta bat galtzen bazaio, ez al da joaten, beste laurogeita hemeretziak larrean utzirik, galdutakoaren bila aurkitu arte? Eta, aurkitzean, lepoan hartzen du poz-pozik eta, etxera iristean, adiskideak eta auzokoak bildu eta esaten die: “Poztu zaitezte nirekin, aurkitu baitut galdutako ardia”. Hara Nik esan: Jainkoak ere poz handiagoa hartzen du bihotz-berritzen den bekataria batengatik, bihotz-berritu beharrik ez duten laurogeita hemeretzi zintzoengatik baino».

Jainkoak, Jesusengan adierazi digun bezala, izugarri maite gaitu. Bere bihotza gizakiarekiko eta pertsona bakoitzarekiko gainez egiten duen maitasun horren irudi da. Gaurko irakurgaiek errepikatzen duten irudia bere artaldea zaintzen duen artzainarena da. Ardi bakoitzagatik bizia ematen du, eta bat edo beste galtzen bada, bila ateratzen da, eta aurkitzen duenean pozez betea sentitzen da. Jesus gureganako, nireganako, maitasuna da. Zail egiten zaigu dastatzea, behar bada egia hori entzuten ohituak gaudelako. Edo, auskalo, sarriago, bere maitasunaren onuradunak ez ditugulako geure buruak jotzen. Jainkoaren aurrean txiki eta bekataria ikusten ditugu geure buruak. Nola maiteko nau ni, naizenarekin? Jesusek maite gaitu, aitek bezala bihotz handi eta errukitsua duelako. Maitasun hori ez dago gure esku. Bere anaia-arreba eta Aita beraren seme-alaba garelako maite gaitu. Egoera orotan maite gaitu: bakardadean, sufrimenean, zabarkerian, frakasoa, etsipenean, bekatuan ere bai. Ezerk ezin du hautsi Kristok digun maitasuna. Ezerk ez. Egia honetara behin eta berriz itzuli behar dugu, egunen batean, behar bada, erabat sinetsi dezagun eta Jainkoaren benetako seme-alaba bezala bizi ahal gaitezen. Orduan Jesusen poza erabateko izango da.

Urteko 12. astea

Andre Mariaren Bihotz Guztiz Garbia

San Ireneo Lyongoa, *gotzaina eta martiria*

Hasiera liburutik 18, 1-15: Ba ote da ezer ezinezkorik Jaunarentzat? Itzuliko natzaizunean, Sarak semea izango du.
Salmoa: Lk 1, 46-48a.48b-50.53-55: Oroitu da Jauna bere errukiaz.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2,41-51.

Jesusen gurasoak Jerusalemara joaten ziren urtero errones Pazko-jaietan. Jesusek hamabi urte bete zituenean, Jerusalemara igo ziren jaietara, ohitura zen bezala. Jaiegunak bukaturik gurasoak etxerantz abiatu zirenean, Jesus haurra Jerusalemen gelditu zen, haiek jakin gabe. Errones-kideen artean zetorrelakoan, egun bateko bidea egin ondoren, haren bila hasi ziren taldeko ahaideen eta ezagunen artean. Eta aurkitzen ez zutelarik, Jerusalemara itzuli ziren haren bila.

Hiru egunen buruan, tenpluan aurkitu zuten, irakasleen artean eserita, haiei entzuten eta galdezka. Entzuten zioten guztiak txunditurik zeuden erantzunetan azaltzen zuen argitasunagatik. Gurasoak, ikusi zutenean, harriturik gelditu ziren, eta amak esan zion: «Seme, baina zergatik egin diguzu hori? Horra nolako atsekabez ibili garen aita eta biok zure bila!» Hark erantzun zien: «Zergatik ibili zarete nire bila? Ez al zenekiten Nik neure Aitaren etxean egon behar dudala?» Haiek, ordea, ez zuten ulertu zer esan nahi zien.

Jesus Nazaretera jaitsi zen haiekin, eta haien menpean bizi zen. Haren amak bere bihotzean gordetzen zituen gauza hauek guztiak.

Gizakion etorkizuna bihotzean erabakitzen da, bertan uzten baitugu besteen saminak uki gaitzan ala bost axola zaigun, bertan erabakitzen dugu besteei ze jarrera izango dugun, bertan usteltzen dira gorroto zaharrak edo loratzen enpatia. Mariak bihotz garbia izan zuen, inor epaitzeko nagia, gertakarien azken esanahia itzaroteko presarik gabea eta Jainkoaren presentziaz bere Semeagan eta historian uste ona zuena. Gertatzen zenetik ez zuen asko ulertzen, Tenpluan batetik bestera ibiltzeko Jerusalemen ume hura galdu zenean bezala, baina bere bihotz xume eta garbiak Jainko gupidatsuaren misteriora hurbiltzea eta berak lagundua sentitzea ahalbideratu zion.

Urteko 13. astea

SAN PEDRO ETA SAN PAULO, APOSTOLUAKSanta Maria, *San Markosen ama*

Apostoluen Eginak liburutik 12, 1-11.

Aldi hartan, Herodes erregea eliz elkarteko batzuei gogor erasotzen hasi zen. Joanen anaia Santiago ezpataz hilarazi zuen eta, hori juduei atsegin zitzaiera ikusirik, Pedro ere preso hartu zuen. Pazko-astea zen. Pedro atxilotu eta kartzelan sartu zuen, bada, eta launa gudariko lau talderen zainpean jarri, Pazko ondoren herriaren aurrean agerrarazteko asmoz. Pedro kartzelan zaindua zeukaten bitartean, eliz elkartea otoitzean ari zitzaion haren alde Jainkoari etengabe. Herodesek hura kartzelatik atera behar zuen aurreko gauean, Pedro lo zegoen bi gudariren artean, bi katez loturik, eta guardiak atean kartzela zaintzen zeudelarik. Bat-batean, Jaunaren aingerua agertu eta gela guztia argiz bete zen. Aingeruak, saihetsean ukituz, Pedro esnarazi eta esan zion: «Jaiki azkar». Erori egin zitzaizkion kateak eskuetatik. Gero, aingeruak esan zion: «Lotu gerrikoa eta jantzi oinetakoak». Hala egin zuen; eta aingeruak berriro: «Jantzi soingainekoa eta jarraitu niri». Haren ondoren atera zen Pedro; ez zekien aingeruaren bitartez gertatzen ari zena egia zen ala ez; ametsa iruditzen zitzaion. Lehenengo eta bigarren zaintzaile-taldean ondotik igarota, kalera zeraman burdinazko ateraino iritsi ziren. Atea berez zabaldutik zitzaien eta kanpora irten ziren. Kale bat igaro ondoren, aingeruak bakarrik utzi zuen Pedro. Gertatuaz jabeturik, Pedrok esan zuen: «Orain badakit Jaunak bere aingerua bidali duela, ni Herodesen eskuetatik eta judu-herriak niretzat zituen asmoetatik askatzera».

Sal 33: Beldur guztietatik ninduen libratu Jaunak.

San Paulok 2 Timoteori 4, 6-8.17-18.

Anaia maitea: Ni neure bizia opari eskaintzeko zorian nago; gainean dut mundu honetatik joateko ordua. Borroka ona egin dut, bukatu dut lasterketa, gorde dut sinesmena. Dagoeneko zain dut

Urteko 13. astea

SAN PEDRO ETA SAN PAULO, APOSTOLUAKSanta Maria, *San Markosen ama*

garaipenaren koroa, Jaunak, epaile zuzenak, azken egunean emango didan koroa; eta niri ez ezik, baita haren agerraldia maitasunez itxaro duten guztiei ere. Jauna neurekin izan nuen eta indartu ninduen, nire bidez mezua osorik iragarria izan zedin eta jentil guztiek entzun zezaten. Berak atera ninduen lehoiaren ahotik. Jaunak aterako nau gaitz guztitik eta salbatuko, zeruko bere erreinura eramanez. Berari aintza menderen mendetan. Amen.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 16, 13-19.

Aldi hartan, Jesusek, Filiporen Zesareara iritsi zenean, galdera hau egin zien ikasleei: «Gizonaren Semea nor dela dio jendeak?». Haiek erantzun: «Batzuek Joan Bataiatzailea dela; beste batzuek Elias; besteek Jeremias edo profetaren bat». Jesusek, orduan: «Eta zuek, nor naizela diozue?». Simon Pedrok erantzun zuen: «Zu Mesias zara, Jainko biziaren Semea». Orduan, Jesusek esan zion: «Zorionekoa zu, Simon, Jonasen semea, hori ez baitizu hezur-mamizko inork agertu, zeruko nire Aitak baizik. Eta hau diotsut Nik: Zu Pedro zara –harkaitza–; harkaitz horren gainean eraikiko dut Nik neure Eliza, eta Herioaren indarrak ez zaizkio nagusituko. Zerueta erreinuko giltzak emango dizkizut: zuk mundu honetan lotua, zeruan ere lotua geldituko da, eta zuk mundu honetan askatua, zeruan ere askatua».

Pedro eta Pablo ezberdinak dira. Pedro erromatar inperioak menpean duen bazter batean bizi den arrantzaile apal bat da. Azkenetako periferietatik dator. Pablo, alderantziz, erabat helenizatutako diaspora judutarreko kide da, beste herrieekin elkarbizi den erromatar munduan erabat txertatua. Pedrok hasieratik ezagutu zuen Maisua aurrez aurre eta bere bizitza ezaguneko une guzietan, nekaldia kenduta, lagundu zion. Pablo bihotz-berritu bat da, Jesus Berpiztuaren barne esperientzia duena, zalditik bota zuena eta bizi berri bati ekin arazi ziona. Pedrok Jesus saldu zuen, baina beronen barkamenak berritu zuen eta Jaunaren konfiantzazko ikasle eta esker onekoa izatea ahalbideratu zion. Pablok

Urteko 13. astea

SAN PEDRO ETA SAN PAULO, APOSTOLUAKSanta Maria, *San Markosen ama*

legearen morrontzaren aurrean fedeak eskaintzen duen askatasunaren esperientzia izan zuen. Bukatzeko, Pedro juduen sentsibilitatetik gertukoa zen eta Pablo jentilenetik. Bi gizon oso ezberdin. Baina biak Elizaren zerbitzuan aritu ziren; berpiztuarekin harremanetan jartzean bizi berrituaren bizikizuna zuten fededunen kristau elkarteak eraikitzen saiatu ziren, bata eta bestea, nor bere esperientzia ezberdinetik abiatutik. Pedrok ardi guztiak larratzen zituen, bitartean Pablok bideak irekitzen zituen, fedea era berrituan adierazten zuen eta bere sormenarekin berriztatu egiten zuen. Gaur egun Elizaren bizitzan apostolu hauen bi espirituak behar ditugu.

* * *



San Paulo. Altzo Muino. Erretaula.

Urteko 13. astea

Erromako Eliza Santuko Lehen Martiriak

Hasiera liburutik 18, 16-33: Errugabea ere galdu egin behar ote duzu errudunarekin batean? **Sal 102:** Bihozbera eta errukiorra da Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 8, 18-22.

Aldi hartan, Jesusek, bere inguruan jendetza handia ikusirik, beste itsasertzera igartzeko agindu zuen. Orduan, lege-maisu bat hurreratu zitzaion, esanez: «Maisu, noranahi jarraituko dizut». Jesusek erantzun zion: «Azeriek badituzte zuloak eta zeruko hegaztiek habiak; Gizonaren Semeak, ordea, ez du burua non ezarri». Beste batek, ikasleetakoa zenak, esan zion: «Jauna, uztazu lehenik nire aitari lur ematera joaten». Jesusek erantzun zion: «Zuk jarraitu niri, eta utzi hildakoei beren hildakoei lur ematen».

Jesus abiatzeko unean da eta jarraitu nahi dioten bi pertsona inguratzen zaizkio. Lege-maisuari esan dio zerupea bakarrik eskain diezaiokeela, animaliena bera baino handiagoa. Bigarrena berriz bere aitari heriotza arte laguntzea eskatzen dion ikaslea da. Eta Jesusek Erreinuak familia harremanak berreraikitzen dituela esan dio, esaldi hau juduen belarrietarako oso gogorra izango zen. Jesusek jarraipena presakoa, behin betirakoa eta biziaren berregituratzailea dela erakusten digu. Bere oinarri bakarra berarekiko konfiantza da eta norberaren munduko betebeharrak eta menpekotasunak berreraikitzea eskatzen du. Jarraipena oinarritzakoa da, eta pertsona osoa, bere irrika eta eskaintzarekin, ematea eskatzen du.



UZTAILA / GARAGARRILA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA

Bereizmen gaitasunerako prestakuntzaren alde: Egin dezagun otoitz bereizmena egiteko, bizitzako bideak aukeratzen jakiteko eta Kristorengandik eta Ebanjeliotik aldentzen gaituena baztertzeko gero eta gehiago treba gaitezen.

Urteko 13. astea

San Aaron (*Moisesen anaia*)Santa Regina, *aitorlea*Santa Ester, *erregina*

Hasiera liburutik 19, 15-29: Jaunak suzko eta sufrezko euri-erauntsia bota zuen Sodoma eta Gomorra gainera. **Sal 25:** Begi aurrean dut, Jauna, zure maitasuna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 8, 23-27.

Aldi hartan, Jesus txalupara igo zen eta ikasleek jarraitu egin zioten. Bat-batean, ekaitz handia sortu zen itsasoan, eta olatuek txalupa estali egiten zuten. Jesus, berriz, lo zegoen. Ikasleak hurbildu eta esnatu egin zuten, esanez: «Salba gaitzazu, Jauna! Galtzera goaz!». Hark esan zien: «Zergatik zarete hain beldur, sineste gutxikook? Eta, zutiturik, haserre egin zien haizeari eta itsasoari, eta barealdi handia egin zen. Ikasleek, harriturik, honela zioten: «Nor ote dugu hau, berak esana egiten baitute haizeak eta itsasoak ere?».

Galilea itsasoa gauez zeharkatu zutenean, ikasleek egiaztatu zuten ezen Jesusi jarraitzeak benetan zerupe hutsean uzten duela jarraitzailea. Haizeak jotzen du eta olatuak harro-harro dabilta. Bizitzako bideetan eta Erreinuaren aldeko lanean dira sortzen zailtasunak. Ikasleak norabiderik gabe daude, nahasturik eta beldurrez. Beste horrenbeste gertatzen zaigu geuri ere tarteka: hodeiertza ikusten ez dugula eta abiada-portua urrun dela. Gertaeren baitan gaude eta, ebanjelioak dioenez, jakindakotzat ematen dugu Jesus ondoan dugula, baina lo sumatzen dugu. Jesusek fedea eskatzen digu bakar-bakarrik, beragan konfiantza izatea. Jauna da, ezer ez du beraren gainetik. Ekaitzari agintzen dionean, baretu egiten da hura, bakea dator eta aurrera jarraitzeko moduan gara, seguru eta adoretu.

Santuak: Bernardino Realino, Juan Francisco Régis eta Francisco de Gerónimo; Dohatsuak: Julián Maunoir eta Antonio Balducci, *apaizak, jesuitak**

Hasiera liburutik 21, 5. 8-20: Neskamearen semeak ez du oinordeko izan behar nire seme Isaakekin. **Sal 33:** Dohakabeak oihu egin zuen, eta Jaunak entzun.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 8, 28-34.

Aldi hartan, Jesus beste itsasertzera, gerasatarren lurraldera, iritsi zenean, bi deabrudun irten zitzaizkion bidera, hilobi artetik aterata. Hain baitziren gaiztoak, ez zen inor ausartzen bide hartatik ibiltzen. Deiadarka esan zioten: «Zer duzu gurekin, Jainkoaren Seme horrek? Garaia baino lehen guri oinaze ematera etorri al zara?». Handik urrutira gabe, txerri-talde handi bat zebilen uxarrean, eta deabruak eskatu zioten Jesusi: «Botatzekotan, bidal gaitzazu txerri-taldera». Jesusek esan zien: «Zoazte!». Haiek atera eta txerrietan sartu ziren, eta txerri-talde osoa ezpondan behera itsasora amildu zen eta urean ito. Txerrizainek ihes egin zuten eta, hirira joanik, dena kontatu zuten, baita deabrudunei gertatua ere. Orduan, herri osoa atera zen Jesusengana eta, ikusi zutenean, beren lur-mugetatik alde egiteko eskatu zioten.

Jesus jendetzarik gabeko parajetan dabil, herrixketatik at; elkartetik kanporatua eta baztertua izan den jendea bakarrik bizi da haietan, harat honat atsedetik gabe. Gadara aldean, bi deabrudunek egin diote aurre Jesusi, jarrera oldarkorrean. Beraiekin hizketan hasi da bera, lasaiarazi ditu, saneatu ditu eta eraberritu. Azkenean, galdua da beraien sumindura guztia. Beren herrira itzul daitezke eta familiara berriro; joana da jadanik beraien estigma. Baina handik alde egiteko eskatzen dio Jesusi jendetza guztiak; izan ere, horrelako gizon bat, pertsonak eta harremanak eraldatzen dituen, arriskutsuegia izaten da kanporatze edo eskusio-printzipioan oinarritzen den gizarte-antolaketa batentzat.

* San Juvenal, *martiria*
San Odon, *gotzaina*

Urteko 13. astea

SANTO TOMAS, APOSTOLUA

San Heliodoro, *gotzaina*

San Paulok Efesoarrei 2, 19-22:

Senideok: Ez zarete arrotz, ez atzerritar, Jainkoaren herriko kide baizik eta Jainkoaren familiako, apostoluen eta profeten oinarri gainean eraikiak, Kristo Jesus bera giltzarri delarik. Honengan ongi finkaturik eraikin osoa gora doa, tenplu santu bihurtzeraino Jaunarengan. Honengan eraikinaren parte zarete zuek ere besteekin batera, Espirituagan Jainkoaren bizileku bihurtzeraino.

Sal 116: Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20, 24-29.

Tomas, hamabietako bat, Bikia zeritzana, ez zegoen haiekin Jesus etorri zenean. Gainerako ikasleek esan zioten:

«Jauna ikusi dugu». Tomasek erantzun zien: «Haren eskuetan iltze-zuloak ikusten ez baditut, neure atzamarra haren iltze-zuloetan eta neure eskua haren saihetsean sartzen ez baditut, ez dut sinetsiko». Handik zortzi egunera, etxean zeuden berriro ikasleak, eta Tomas ere haiekin zen. Sartu zen Jesus, ateak itxirik zeudela eta, erdian jarririk, esan zien: «Bakea zuei». Gero esan zion Tomasi: «Ekarri atzamarra, begira nire eskuak; ekarri eskua eta sartu nire saihetsean, eta ez izan sinesgogor, sinestedun baizik». Tomasek erantzun zion: «Ene Jauna eta ene Jainkoa!». Jesusek esan zion: «Ikusi nauzulako sinetsi al duzu? Zorionekoak ikusi gabe sinesten dutenak.

Fededunak, bizitzeko, ez du aski izaten entzundako hutsa. Derrigor behar izaten du esperientzia bat bizitzea; horixe da, hain zuzen, Tomasek eskatu duena. Berpiztuarekin pertsonalki topo egite izanak, bizi izandako esperientziak, orube irmoa eskaintzen dio Jesusen jarraitzaileari, agian besterik ez bezalakoa. Jesusek, bere burua ikus dezan uzteaz gain, bere hatzak eta bere eskua beraren zaurietan sar ditzan eskatu dio Tomasi. Gizadiaren zaurietan, historiako

Urteko 13. astea
SANTO TOMAS, APOSTOLUA
 San Heliodoro, *gotzaina*

biktimengan eta eguneroko sufrimenduetan sumatu ohi da garbi, eta era partikularrean, berpiztuaren presentzia, lagun eginez, arinduz eta saneatuz. Hartarako, beharrezkoa da oinazeetan murgil gaitezen, ez da aski urrundik begira egotea; beharrezkoa da sufritzen ari den errealitateak zipriztindu eta uki gaitzan. Han dugu zain berpiztua, bere saihets zulatua eskainiz.

* * *

Maria, korapiloak askatzeko lagun

Santa Maria, korapiloak askatzeko kidea
 Santa Maria, Jainkoaren presentziaz betea,
 zure bizitzako egun guztietan umiltasunez
 Aitaren borondatea onartu zenuena,
 eta gaizkiak lortu ez zuena zu bere sareetan nahastea.

Zure Semearen ondoan jarririk,
 xumetasun eta pazientzia osoz,
 zailtasunengatik gure bizitzaren mataza
 nola askatu adibide ematen diguzuna.

Eta gure ondoan betirako gelditzean,
 Ama Gurea, gure bizitza ordenean jarri
 eta gehiago sendotzen dizkiguzuna
 Jaunarengana eramaten gaituzten loturak. (...)

(Ezezaguna. Otoi.eus)

Urteko 13. astea

San Valentin Berrio-Otxoa (Elorrio 1827-Vietnam 1861),
domingotarra, gotzaina, eta lagunak, martiriak

Hasiera liburutik 23, 1-4.19; 24, 1-8.62-67: Maite izan zuen Isaakek Rebeka. Honela arindu zitzaion Isaaki ama galdu izanaren nahigabea. **Sal 105:** Eskerrak Jaunari, ona baita.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9, 9-13.

Aldi hartan, Jesusek, bidez zihoala, Mateo zeritzan gizon bat ikusi zuen zergak biltzeko mahaian eseririk, eta esan zion: «Jarraitu niri». Mateok zutitu eta jarraitu egin zion. Geroago, Jesus mahaian zegoen Mateoren etxean; beste zergalari eta bekatarari asko ere etorri eta mahaian eseri ziren Jesusekin eta honen ikasleekin. Fariseuek, hori ikustean, esan zieten ikasleei: «Nolatan jaten du zuen Maisuak zergalariekin eta bekatariekin?». Hori aditzean, Jesusek esan zien: «Ez dute osasundunek sendagile beharra, gaixoei baizik. Hobe zenukete Jainkoak esandako honetaz jabetuko bazinete: “Nahiago dut errukia sakrifizioak baino”. Ez naiz zintzoei dei egitera etorri, bekatariei baizik».

Mateo zabar dabil. Burua bildutako monetatara jira eta bira darabil, guztiak behin eta berriz kontatu nahiz. Jesusek esnatu egin du beraren lo horretatik, eta bere obsesiotik aterarazi du, ebanjelioan hainbat aldiz entzuna den eskari batekin: «jarrai iezaazu». Pasartearen arabera, Mateok ez du izan pentsatu ere beharrik, bat-batean «jaiki eta jarraitu zion»; Jesusek eskaintzen duen bizia betebetea da, zerikusirik ez du erdigune dirua eta gauzak dituen bizitzaren hertsitasun obsesiboarekin. Jesusen gonbitak erakarri egiten du. Jesusek eraldatu egin du bekatarien eta publikanoen elkarte, harrera-leku bihurtuz, biziera-forma duinago eta gizatarrago baten desio bihurtuz. Beraiekin otordua eginez, beraien bihotz hautsia landuz doa, eta gauzetan desbideraturik dituzten desioak ere landuz.

Hasiera liburutik 27, 1-5.15-29: Jakobek bere anaiari lehen-semetza kendu zion, eta haren bedeinkapena jaso. **Sal 134:** Goretsazue Jauna, ona baita.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9, 14-17.

Aldi hartan, Joan Bataiatzailearen ikasleek Jesusengana hurbildu eta esan zioten: «Nolatan egiten dugu fariseuek eta guk hainbeste barau, eta zure ikasleek ez?». Jesusek erantzun zien: «Ezteietara deituak egon ote daitezke triste, senar-berria berekin dutelarik? Etorriko zaie, bai, senar berria kenduko dieten eguna; orduan egingo dute barau». Inork ez dio jantzi zaharrari oihal gordinezko adabakirik josten, adabakiak jantzia behartu eta zarratada handiagoa egingo bailuke. Ez da ardo berririk ere sartzen zahagi zaharretan; bestela, zahagiak lehertu egingo lirateke, eta ardoa isuri eta zahagiak galdu. Ardo berria zahagi berrietan sartzen da, eta horrela biek irauten dute».

Jauna gure artean izateak sortzen duen pozean errotzen da kristau-bizitza. Barauak topo egiteko prestatzen gaitu, geure gogoaren muintzat Jainkoa bera jarraziz; baina are garrantzizkoagoa da Jauna gudan dagoela ospatzea. Jaunaren presentzia horrek eraldatu egiten du, bai norberaren bizitza, bai elkartearena. Sustrai-sustrai berritasuna da; biziki eskatzen du, batetik, suntsitzea oinarritzat ezarpena eta hierarkia dituen bizikidetasunaren egiturak; bestetik, beste batzuk eraikitzea, Jaun eta Maisutzat Jainkoa bakarrik duen senidetasunean eraikiak. Erreinuak senide-harremanak ekartzen ditu, poz sakon baten sorburu direnak.

Urteko 14. astea

Santa Maria Goretti, *birjina eta martiria*

Isaias profetaren liburutik 66, 10-14.

Poztu zaitezte Jerusalemekin, alaitu harekin, maite duzuen guztiok! Izan orain harekin zoriontsu, harengatik dolu egin zenutenok! Asetzeraino edango duzue haren bular gozotik, atseginez xurgatuko haren ugatz oparotik. Zeren hau baitio Jaunak: «Ibaika ekarriko diot Jerusalem zoriona, erreka betean nazioen ondasuna. Bularra emango dizuete, altzoan eramango eta magalean gozatuko. Amak haurra kontsolatzen duen bezala, halaxe kontsolatuko zaituztet Nik; bai, Jerusalem kontsolatuko zaituztet. Hau ikustean, poztuko zaizue bihotza, belar berria bezala loratuko dira zuen hezurrak, eta Jaunak bere ahalmena agertuko die bere zerbitzariei».

Sal 65: Lur osoa, egiozu irrintzi Jainkoari.

San Paulok Galaziarrei 6, 14-18.

Senideok: Niri dagokidanez, Jainkoak libra nazala harrotzetik, Jesu Kristo gure Jaunaren gurutzean izan ezik; Kristo gurutzean hil zenez gero, mundua hilik dago niretzat eta ni munduarentzat. Izan ere, erdaindua izateak nahiz erdaingabea izateak ez dio axola; balio duena sorkari berri izatea da. Bakea eta errukia arau honi lotuak bizi direnei, baita Jainkoaren Israeli ere! Hemendik aurrera ez diezadala inork nekerik eman: Jesusen zauri-markak neure gorputzean baitaramatzat nik. Senideok, Jesu Kristo gure Jaunaren grazia zuen espirituarekin. Amen.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10, 1-12.17-20.

Aldi hartan, Jaunak beste hirurogeita hamabi ikasle izendatu eta bere aurretik bidali zituen binaka, bera joatekoa zen herri eta leku guztietara. Eta esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi. Egin, beraz, otoitz uzta-jabeari bidal ditzala langileak bere uztara.

Urteko 14. astea

Santa Maria Goretti, *birjina eta martiria*

Zoazte! Arkumeak otso artera bezala bidaltzen zaituztet. Ez eraman poltsarik, ez zakutorik, ez oinetakorik, eta ez gelditu bidean inori agur egiten. Edozein etxetan sartzen zaretela, esazue lehenbizi: “Bakea etxe honetakoei!”. Eta han bakezalerik bada, haren gainean kokatuko da zuen bakea; bestela, berriz, zuen bakerik gabe geldituko dira. Geldi zaitezte etxe berean; eta jan eta edan daukatenetik, zor baitzaio langileari bere saria. Ez ibili etxez etxe. Herriren batean sartu eta ondo hartzen bazaitzute, jan jartzen dizuetenetik, sendatu bertako gaixoak eta esaiezue: “Hurbil duzue Jainkoaren erreinua”. Baina herriren batean sartu eta onartzen ez bazaitzute, irten plazara eta esan: “Oinetan itsatsi zaigun zuen herriko hautsa ere hor astintzen dizuegu. Dena dela, jakizue hurbil dela Jainkoaren erreinua”. Begira: auzi-egunean Sodomak zigor bigunagoa izango du, herri horrek baino». Hirurogeita hamabi ikasleak pozez beterik itzuli ziren, eta esan zioten Jesusi: «Jauna, deabruak ere menpean jartzen zaizkigu zure izenean». Jesusek erantzun zien: «Tximista bezala zerutik erortzen ikusi dut Satanas. Begira, sugeak eta eskorpioiak zapaltzeko eta etsaiaren indar guztiak menderatzeko ahalmena eman dizuet, eta ezin izango dizue ezerk ere kalterik egin. Hala ere, ez poztu espirituak menpean jartzen zaizkizuelako; poztu, bai, zuen izenak zeruan idatzirik daudelako».

Jesus fio da jarraitzen dioten ikasleetako bakoitzaz. Bere mezulari gisa bidali ditu, binaka, fidaturik ezen egingo dutena berri ona hots egitea izango dela. Eta biderako argibideak eman dizkie: fardelez arin joan behar dute, jakinik segurtasuna ez datorrela mundu honetako gauzetatik, baizik eta bidaltzeak ematen duen indarretik. Bakea hots egin behar dute, harrera egingo dietenek babestu ditzan utziz. Ematera doaz, baina baita hartzera ere; izan ere, premia duten jende bezala doaz eta ez buruaski bezala. Babesgabe aurkeztuko dira, eta Jainkoaren Erreinua iritsi dela aldarrikatuko dute. Uko egingo dieten arriskua ere jasango dute; orduan ere, ordean, Erreinua iritsi dela hots egiten jarraituko dute. Pozik itzuli ziren, gomendatu zien misioa betea

Urteko 14. astea

Santa Maria Goretti, *birjina eta martiria*

zuten eta jendea saneatzen eta askatzen zela ikusia zuten. Eta Jesus, Maisu on denez, poztu da beraiekin, ez ditu sumatu lehiakide, baizik eta benetako lankide; baina Jesus konturatu da hurbiltasun, ardura eta kontsolamendu beharrean direla. Eta poz-pezik aldarrikatu du ezen beraien izenak irarriak direla zeruan. Gauza bera egitera gonbidatu gaitu gu geu ere. Maisuaren lankide gara Erreinua hots egiten, geure egintzez eta hitzez.

* * *

Maria, korapiloak askatzeko lagun (Jarraipena)

Santa Maria, Jainkoaren Ama eta Ama Gurea,
Amaren bihotzez askatzen dituzu
gure bizitza oztopatzen duten korapiloak,
zure besoetan jasotzeko eskatzen dizugu,
eta nahasmenetatik libra gaitzazula
zenbaitetan zure loturetatik askatzen garelako.

Zure graziagatik, zure bitartekaritzagatik,
gaitz guztietatik libra gaitzazu, Andre Maria
eta askatu Jainkoarekin bat egitea
eragozten diguten korapiloak,
nahasmen eta akats guztietatik libre,
Jainkoa gauza guztietan aurki dezagun,
eta Beragan izan ditzagun bihotzak jarrita
gure anai-arrebengan zerbitzatzeko.

Amen.

(Ezezaguna. *Korapilo askatzaile Andre
Mariari otoitza.* Otoi.eus)

Hasiera liburutik 28, 10-22a: Zurubi bat ikusi zuen, eta Jainkoaren aingeruak zurubian gora eta behera. **Sal 90:** Ene Jainko, zugan dut konfiantza.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9, 18-26.

Aldi hartan, Jesus mintzatzen ari zela, buruzagietako bat etorri zitzaion eta, ahuspezturik, esan zion: «Hil berria dut alaba; baina zatoz hari eskua ezartzera, eta biziko da». Jesus jaiki eta ondoren joan zitzaion bere ikasleekin. Hontan, hamabi urte hartan odol-jarioz zegoen emakume bat atzetik hurbildu zitzaion Jesusi eta soineko-ertza ukitu zion, hau baitzioen bere baitan: «Jantzia bederen ukitzen badiot, sendatuko naiz». Itzuli zen Jesus eta, emakumea ikustean, esan zion: «Izan bihotz, alaba! Zeure sinesmenak sendatu zaitu». Eta ordu beretik sendatua gelditu zen. Iritsi zen Jesus buruzagiaren etxera eta, hango erostariak eta jendearen istilua ikustean, esan zien: «Alde hemendik! Neskak ez dago hila, lo dago». Haiek barre egin zioten. Jendea bidali zutenean, sartu zen Jesus eta eskutik heldu zion neskakari, eta neskak jaiki egin zen. Inguru hartan guztian zabaldu zen gertatuaren berri.

Jesus ukitzeak sendatu egiten du. Haren gorputzari bizia dario, arindu eta birsortu egiten du. Neskak ia bizigabe batek eta odoljariora jasaten duen emakume batek atentzioa eman diote Jesusi, bidez doala. Bide horretan bere gupida berriztatzailea agertu du. Odoljariora jasaten duen emakumeak soineko-ertza ukitu dio eta bat-batean sendatu egin da. Besoa luzatuz Jesusen jantzia ferekatzera iritsi da, sendatzeko duen ahaltasunean konfiantza osoa ezarriz. Eta horrela sendatu da. Neskak ezin egin du jadanik ezer ere bere kabuz, soil-soilik Jesusen gupidan eta hurbiltasunean esperantza jarri. Jesus hurbildu zaio, eskutik hartu du; neskak, bat-batean, jaiki da. Jainkoaren fereka, laztana, saneagarria da; soilik, besoa beragana luzatzea dagokigu, eta bera ukitzeak eralda gaitzan uztea.

Urteko 14. astea

Santa Priszila, *martiria*San Prokopio, *martiria*

Hasiera liburutik 32, 22-32 (Hebr. 23-33): Israel deituko dizute, borrokan egin baituzu Jainkoarekin eta garaile atera zara. **Sal 16:** Nik, Jauna, zuzena naizelarik, zure aurpegia dut ikusiko.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9, 32-38.

Aldi hartan, deabruaren menpe zegoen mutu bat ekarri zioten Jesusi. Honek deabrua bota zuen, eta mutua hizketan hasi zen. Jendeak, harriturik, zioen: «Ez da Israelen egundaino horrelakorik ikusi». Fariseuek, berriz, hau zioten: «Deabruen buruzagiaren indarrez botatzen ditu honek deabruak». Herriz herri eta auzorik auzo zebilen Jesus, hango sinagogetan irakasten, erreinuari buruzko Berri Ona hots egiten eta gaitz eta eritasun guztiak sendatzen. Jendetza ikustean, erruki izan zuen, nekaturia eta lur joa baitzegoen jende hura, artzainik gabeko ardiak bezala. Orduan, ikasleei esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi. Erregutu, bada, uzta-jabeari, bidal ditzala langileak bere uztara».

Ebanjelioak bidaiari aurkeztu digu Jesus, erruki-zurrumbilo. Mutu bati hitza itzuli dio, elkartera itzultzeko aukera emanez; hirietan eta herrixketan ibiliko da Jesus, irakasten eta jendea sendatzen. Garbitu, berregin, lagun egin eta barkatu. Beraren egintzak ez du mugarik. Besteentzat duen maitasunak pertsona guztiak harrapatzen ditu, egoera soziala edo morala bereizi gabe. Giza sufrimena du gidari, eta ez ospea eta ohitura. Bihotzean du bere bizitzaren sekretua; horrek ematen dio besteren oinazea ikusteko aukera eta barne-barnetik errukitzekoa. Ondoren, ekintza dator jarioka. Bere ingurura begiratu eta saneatzeko dagoen lan eskerga nabari du Jesusek. Bera ezin iritsi da dena kontuan hartzera; horregatik eskatzen dio Jainko Aitari langileak bidal ditzan, beraren salbamen-lanean lankide izango dituenak.

Txinako martiriak: San Agustin Zhao Rong, *apaiza*, eta lagunak, *martiriak*. Santuak: Leon Ignazio Mangin, *apaiza*, Maria Zhu Wu eta lagunak, *martiriak*, *jesuitak*

Hasiera liburutik 41, 55-57; 42, 5-7a.17-24a: Geure anaiari egin genion okerra ari gara ordaintzen. Sal 32: Betor gugana, Jauna, zure maitasuna, zugar baitugu geure uste ona.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10, 1-7.

Aldi hartan, Jesusek, hamabi ikasleei dei eginik, ahalmena eman zien espiritu gaiztoak botatzeko eta gaitz eta eritasun guztiak sendatzeko. Hona hamabi apostoluen izenak: lehenbizi Simon, Pedro deritzana, eta honen anaia Andres; Santiago Zebedeorena eta honen anaia Joan; Felipe eta Bartolome, Tomas eta Mateo zergalaria, Santiago Alfeorena eta Tadeo, Simon Zelote eta Judas Iskariote, Jesus saldu zuena. Hamabi horiek bidali zituen Jesusek, ohar hauek eginez: «Ez joan jentilen lurraldeetara, ez sartu Samariako herrialdean ere, baizik eta zoazte Israel herriko ardi galduetara. Bidean zoaztela, hots egin hurbil dela zeruetako erreinua».

Uzta ugaria da eta lana egundokoa. Jesusek bere lankideak izendatu zituen jendaurreko bere bizitza hasi zuenean, eta ez dizipulu ikasle batzuk soilik. Berak zer, hura egingo dute. Horregatik eman die aginpidea espiritu gaiztoak botatzeko eta gaixoak sendatzeko. Horrela ikusi nahi gaitu geu ere Jainkoak, Jesusen egintza bera egiten, bere eginkizunean lagunduz. Ezagunak ditugu ikasle batzuen bizitzako xehetasunak, eta badakigu ez zirela perfektuak. Jesusen hurbileko ziren; agian, ezer gutxi gehiago... edozeinek balio ote du, bada? Bai, Jainkoaren seme-alabetako edozeinek balio du. Aski da Jainkok bidal zaitzan uztea, jendea sendatzera, eta iritsia den Jainkoaren Erreinua aldarrikatzeko. Bera jardungo da gugar, geuk ezin duguna eginez. Berak bidaltzen gaitu; soil-soilik beragan konfiantza izatea dagokigu.

Urteko 14. astea

Santa Rufina, *martiria*San Felix, *martiria*

Hasiera liburutik 44, 18-21.23b-29; 45, 1-5: Zuen bizia salbatzeko bidali ninduen Jainkoak Egiptora. **Sal 104:** Ekarri gogora Jaunak egindako mirariak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10, 7-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Bidean zoaztela, hots egin hurbil dela zeruetako erreinua. Senda itzazue gaixoak, piztu hildakoak, garbitu legenardunak, bota deabruak. Hutsean hartu duzue, eman hutsean. Ez eraman urrerik, ez zilarrik, ez dirurik gerrikoan; ez zakutorik biderako, ez soinekorik aldatzeko, ez oinetakorik, ezta makilarik ere, zor baitzaio langileari behar duen jatekoa. Edozein herritan nahiz auzotan sartzen zaretela, jakizue ba ote den konfiantzazko inor, eta gelditu haren etxean, herri hartatik atera arte. Etxean sartzean, egin bake-agurra; etxekoak duin badira, hel bekie zuen bakea; duin ez badira, berriz, zuen bakerik gabe geldituko dira. Onartzen ez bazaituztete eta zuen hitza entzun nahi ez, etxe nahiz herri hartatik ateratzean, astindu zeuen oinetako hautsa. Benetan diotsuet: auzi-egunean Sodomak eta Gomorrak zigor bigunagoa izango dute herri hark baino».

Jesusek bere misioaren aurrealdean ipini ditu ikasleak, ekintzaren lehen lerroan. Maisuak egin duena bera egin behar dute: Erreinua iritsi dela aldarrikatu eta jendea sendatu, saneatu eta liberatu. Ez dira izango mutiko-tresna huts, baizik eta egiazko protagonista. Gainera, hainbat argibide eman die. Beharrezkoa bakarrik eramateko eskatu die. Biluztasuna izango dute beren aurkezpen-gutuna. Ez dira joango buruaski, dena berekin dutela uste dutenak bezala, baizik eta Jainkoaren eta gainerakoen beharra sentitzen dutenen hauskortasunez azalduko dira. Herrixketan jendearen harrera pizten saiatuko dira, berak ere gai izan daitezen Erreinua iritsi dela onartzeko, beren bihotza bidaliari irekiz.

Urteko 14. astea

San Benito, *abadea (Europaren Zaindaria)*

Esaera Zaharrak liburutik 2, 1-9.

Ene seme, nire esanak onartu eta nire agindua gogoan gordetzen badituzu, jakinduriari kasu eta zuhurtziari jaramon egiten badiezu; adimenari dei eta zuhurtziari oihu egiten badiezu, horiek dirua eta altxorrek bezala bilatzen badituzu, orduan ulertuko duzu Jaunaganako begirunea, eta Jainkoa ezagutzera iritsiko zara. Jauna baita jakinduria ematen duena, beragandik datoz ezaguera eta zuhurtzia. Berak ematen die arrakasta zintzoei eta babesa jokabide zuzenekoei; zuzenbidea babesten du eta zintzoen jokabidea zaintzen. Orduan ulertuko duzu zer den justizia eta zuzenbidea, jatortasuna eta jokabide on oro.

Sal 33: Bedeinkatuko dut aldi oro Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 19, 27-29.

Aldi hartan, Pedrok esan zion Jesusi: «Hara, guk dena utzi dugu, zuri jarraitzeko. Zer izango da guretzat?». Jesusek erantzun zien: «Benetan diotsuet: Jainkoak mundu hau eraberritzean eta Gizonaren Semea bere aintzazko tronuan esertzean, zuek ere, nire jarraitzaileok, hamabi tronutan eseriko zarete, Israelgo hamabi leinuak epaitzeko. Eta negatik etxea, senideak, aita, ama, seme-alabak edota lurra uzten dituenak, ehun halako hartuko du eta betiko bizia jasoko ondare.

Pedrok galdera egin dio Jesusi: galdera ulergarria, baina lekuz kanpokoa: «guk dena utzi dugu, zer izango da guretzat?». Esan nahi du: zer ordainduko digu Jainkoak geure merezimenduengatik? Alabaina, gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak ez dira mugitzen ordainketaren logikaz, baizik eta maitasunaren logikaz. Eta Erreinua arnasten duen maitasunaren praktikan, doan etorri ohi diren dohainen itsasoan urtzen da eskuzabaltasun pertsonala: lehenik eta behin, ehun halako handituko da familia: anai-arrebak, aita edo ama, seme-alabak edo lurra; bigarren, betikotasunari begira dagoen bizia. Erreinuaren logikak ez du zerikusirik ordainketarekin, baina bai doan ematearen eta doan hartzearen ugaritasunarekin.

Urteko 14. astea

San Joan Gualberto, *abadea, beneditarra*San Hilario, *martiria*

Hasiera liburutik 49, 29-32; 50, 15-26a: Jainkoak zuen alde esku hartuko du, eta lurralde honetatik igoaraziko zaituzte. **Sal 104:** Izan bihotz, apalok, Jainkoaren bila zabiltzatenok!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10, 24-33.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Ikaslea ez da irakaslea baino gehiago, ezta morroia ere nagusia baino gehiago. Nahikoa du ikasleak irakaslea adina izatea, eta morroiak nagusia adina. Etxeko jaunari Beeltzebul deitu badiote, zer ez ote diete deituko haren etxekoei? Ez izan jendearen beldur! Izan ere, ez dago ezer gordea agertuko ez denik, ezta ezer ezkutuan ere jakingo ez denik. Gaueko ilunpean esaten dizuedana esan zuek egun-argitan, eta belarrira entzuten duzuen hots egin etxe-gainetik. Ez izan beldurrik gorputza hil bai, baina bizia kendu ezin dutenei; izan beldur, gorputza ez ezik, pertsona osoa ere infernuan gal dezakeenari. Ez al dira bi txori txanpon batean saltzen? Hala ere, ez da bat bakarra ere lurrera erortzen zuen Aitaren baimenik gabe. Zuen buruko ileak ere zenbatuak ditu Jainkoak. Ez, bada, beldur izan; txori guztiek baino gehiago balio duzue zuek. Jendearen aurrean aitortzen nauena aitortuko dut Nik ere zeruko neure Aitaren aurrean; baina jendearen aurrean ukatzen nauena ukatu egingo dut Nik ere zeruko neure Aitaren aurrean».

Jesusek ohartarazi die ikasleei ezen ez dezatela espero berari baino tratu hobea emango dietenik; alderantziz, pertsekuzioa eta ukoa jasan beharko dute, berak ere horixe sufritu baitu. Senidetasunaren eta solidaritatearen Erreinuak neke handiz urratzen du bidea; izan ere, giza askatasuna murrizten duten egitura zuzengabeei norbaitek eraso egiten dienean, liskarra sortzen da. Baina Jesusek azpimarratu die ikasleei ez daitezela beldur izan, Aitaren eskuetan baitaude. Bitartean, beraien hitza ezkutuan barreiatuko da, altxor eta berri on bezala, harrera egingo diotenen artean, bake, askatasun eta senidetasun-iturburu gisa. Pertsona mezulariak Jaunaren babesa aurkituko du, eta hitzak, haziak bezala, bere fruitua ematen jarraituko du, Erreinuari hazi eta aurrera egiteko aukera emanez.

Urteko 15. astea

San Enrique, *enperadorea*
San Silas, *San Pauloren laguna*

Deuteronomio liburutik 30, 10-14.

Honela mintzatu zitzaion Moises herriari: «Obedituko diozu Jaunari, zeure Jainkoari, legearen liburu honetan idatzitako beraren aginduak eta legeak betez, eta bihotz-bihotzez eta gogo osoz itzuliko zara Jaunagana, zeure Jainkoagana. Izan ere, gaur nik ematen dizudan agindua ez da zure indarrez gaindikoa, ezta eskuraezina ere. Ez dago zeruan, zuek hau esateko: “Nor igoko zaigu zerura, agindua ekarri eta guri jakinarazteko, bete ahal dezagun?”. Ez dago itsasoaz bestaldean ere, zuek hau esateko: “Nor joango zaigu itsasoaz bestaldera, agindua ekarri eta guri jakinarazteko, bete ahal dezagun?”. Zeren esku-eskura baituzu hitza, zeure ahoan eta bihotzean, bete dezazun».

Sal 68: Izan bihotz, apalok, Jainkoaren bila zabiltzatenok!

San Paulok Kolosarrei 1, 15-20.

Jainko ikusezinaren irudi da Kristo, sorkari guztietan lehen-sortua. Haren bidez sortu zituen Jainkoak zeru-lurretan diren gauza guztiak, ageri direnak eta ez direnak: munduan eragina duten ahalmenak, nagusitzak, aginteak eta botereak; sortua izan den guztiak Kristo du eredu eta helburu. Gauza guztiak baino lehenagokoa da hura, eta hari esker diraute. Hura da gorputzaren buru, Elizarena, alegia. Hura da hasiera, hildakoen artetik lehen-piztua, gauza guztietan hura izan dadin lehenengoa; Jainkoak nahi izan baitu bere izaeraren betea Kristogan egotea, eta honen bidez gauza guztiak berekin adiskidetzea, Kristok gurutzean isuritako odolaz bakeak eginez zeruko eta lurreko gauza guztiekin.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10, 25-37.

Aldi hartan, lege-maisu batek jaiki eta azpikeriaz galdetu zion Jesusi: «Maisu, zer egin behar dut ondareztat betiko bizia jasotzeko?».

Urteko 15. astea

San Enrique, *enperadorea*San Silas, *San Pauloren laguna*

Jesusek esan zion: «Zer dago idatzia Moisesen legean? Zer irakurtzen duzu?». Hark erantzun: «Maita ezazu Jauna zeure Jainkoa bihotz-bihotzez, gogo osoz, indar guztiz eta adimen guztiz; eta lagun hurkoa zeure burua bezala». Jesusek erantzun zion: «Ederki erantzun duzu. Bete hori eta bizia izango duzu». Baina, lege-maisuak, galdera bidezkoa zela adierazi nahirik, esan zion Jesusi: «Eta zein da nire lagun hurkoa?». Jesusek, orduan: «Behin batean, gizon bat zihoan Jerusalemdik behera Jerikorantz, eta lapurren eskuetan erori zen. Lapurrek zeuzkanak kendu eta, egurtu ondoren, alde egin zuten, erdi hilik utziz. Hain zuzen, apaiz bat gertatu zen bide hartan behera eta, gizona ikusi zuenean, bidetik baztertu eta aurrera jo zuen. Beste horrenbeste egin zuen handik igaro zen tenpluko lebitar batek ere: ikustean, bidetik baztertu eta aurrera jo zuen. Baina bidaian zen samariar bat bertara iritsi eta, hura ikustean, errukitu egin zitzaion. Hurbildu eta zauriak lotu zizkion, olio eta ardoz igurtzi ondoren; gero, bere asto gainean jarri, ostatura eraman eta bere ardurapean hartu zuen. Biharamunean, zilarrezko bi txanpon atera eta ostalariari eman zizkion, esanez: “Zaindu ezazu eta, gehiago gastatzen baduzu, hurrena natorrenean ordainduko dizut”. Zure ustez, hirurotan zeinek jokatu zuen lagun hurko bezala lapurren eskuetan eroritako gizonarekin?». Lege-maisuak erantzun zion: «Hartaz errukitu zenak». Jesusek esan zion, orduan: «Zoaz eta egin zeuk ere beste horrenbeste».

Eliz Gurasoek oso garaiz identifikatu zuten samariar ona Kristorekin, Galileako bideetan barna ibili zen gizon harekin, berri ona hots eginez eta jende gaixoa sendatuz eta bizitzaren zama arinduz. Samariar hura gai izan zen itxura hutsa baino harago ikusteko, hunkitu egin zen gizon zauritu hura bide bazterrean ikustean, eta erantzuten jakin zuen, eskura zuen guztiaz baliatuz. Jesusengan mugimendu horixe bera ikusi dugu, Jainkoaren errukiaren mugimendua: ikusi, errukitu eta jokatu. Bere errukia Jesusek ez du sentimendu hutsa, baizik eta solidarioa beti; ez da gelditzen zirrara sentitze hutsean, baizik eta laguntzera eragiten dio. Ez du jotzen bere ahalmenera, halakorik egiaz

Urteko 15. astea

San Enrique, *enperadorea*
San Silas, *San Pauloren laguna*

baldin badu ere, baizik eta espero izaten duen fedeari egiten dio dei. Samariar ona Jesus bera da. Ez dio ezikusiarena egiten azkenak direnen premiari, ez da gorderik diharduten gaiztaginen beldur, zikindu egiten da lagundu behar denean, bere-bere duenetik ematen du ezezagun bati lagundu behar zaionean. Gauza bera egitera deituak gaude, berarena bezalako bihotza izatera, sufritzen ari den errealitateari bera uki dezan uzten dion bihotza izatera, eta geurea bertan behera uztera, askotan hain burdina gogor eta hotza. Orduan, geure merezimenduak baino areago, betiko bizia zer den sumatzen dugu, Kristok guretzat doan irabazia.

* * *

Astindu nazazu

Astindu nazazu, Jauna, behin eta berriro. Behar dut.
Erakutsi zaitez beti originala nire aurrean.
Desinstala nazazu nire erosotasunaz eta segurtasunaz.
Gogoratu inoiz ez zaitudala erabat ulertuko.
Lagundu nazazu Zu modu berrietan hartzen.
Erakutsi iezadazu zure ekintzari nigan eta besteengan mugarik ez jartzen.
Jakinarazi iristen ari zarenean eta ezagutzen ez zaitudanean.
Bultza nazazu, pixka bat behintzat, etorriko ez zaren lekura begira nagoenean.
Barkatu uste dudanean ezin nauzula harritu.
Agindu zure presentzia salbatzailea izango dudala.
Emadazu zure zain egonez Zu maitatzea.

(Matu Hardoy. Otoi.eus)

Urteko 15. astea

San Kamilo Leliskoa, apaiza, fundatzailea (Kamilotarrak)

Irteera liburutik 1, 8-14.22: Israeldarren herria gu baino ugariago eta indartsuago bihurtzen ari da. Beraz, joka dezagun zuhur berarekin.

Sal 123: Gure laguntza Jaunaren izena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10, 34-11, 1.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Ez uste izan munduari bakea ekartzera etorria naizenik; bakea ez, baizik banaketa ekartzera etorria naiz. Bai, semea aitagandik banatzera etorri naiz, alaba amagandik eta erraina amaginarrebagandik banatzera. Eta nork bere etxeokak izango ditu etsai. Aita nahiz ama Ni baino maiteago duena ez da niretzat gai; semea nahiz alaba Ni baino maiteago duena ez da niretzat gai. Bere gurutzea hartu eta jarraitzen ez didana ez da niretzat gai. Bere biziaren jabe izan nahian dabilenak galdu egingo du; bere bizia nigatik galtzen duenak, ordea, eskuratu egingo du. Zuek onartzen zaituztenak Ni onartzen nau, eta Ni onartzen nauenak bidali nauena onartzen du. Profeta bat, profeta delako, onartzen duenak profetari zor zaion saria izango du, eta pertsona zuzen bat, zuzena delako, onartzen duenak pertsona zuzenari zor zaion saria izango du; eta txiki hauetako bati, nire ikasle delako, baso bat ur fresko besterik ez bada ere ematen diona, benetan diotsuet ez dela saririk gabe geldituko». Hamabi ikasleei argibide hauek ematen amaitu zuenean, joan egin zen Jesus handik, herri haietan irakastera eta mezua hots egitera.

Nahasgarri ditugu Jesusen hitz hauek. Ez al dugu esaten «bakearen printzea» dela bera? Nolatan dio, beraz, ezpata ereitera etorri dela, eta gure eta gure hurbilekoenen artean liskarra sortzera? Egia da ezen Jainkoaren Erreinuak, zuzentasunaren eta senidetasunaren Erreinuak, ez duela bidea zabalik ikusten, ez gure gizartean, ez norberaren bihotzean. Alderantziz, erresistentzia setatsurekin egiten du topo. Erresistentzia Jainkoaren doakotasunari, azkenak barneratzeari, egitura zuzengabeak eraldatzeari, gure biziera aldatzeari. Iristear den Erreinuak aurkakotasun asko eragiten ditu. Alabaina, Jesusek guztioi gonbita eginez jarraitzen du gaur, nork bere gurutzea lepoan har dezan eta berari ustetsu eta esperantzaz jarrai diezaion.

Urteko 15. astea

San Buenaventura, *gotzaina eta eliz irakaslea, frantziskotarra*

Irteera liburutik 2, 1-15a: Moises ezarri zion izena, uretik atera baitzuen, eta, heldua zelarik, bere senideengana joan zen. **Sal 68:** Izan bihotz, apalok, Jainkoaren bila zabiltzatenok!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11, 20-34.

Aldi hartan, Jesus miraririk gehienak egin zitueneko herriak gaitzesten hasi zen, bihotz-berritu ez zirelako: «Ai zu, Korozaín! Ai zu, Betsaida! Izan ere, Tiro eta Sidon hiri jentiletan zuengan bezainbeste mirari gertatu izan balitz, bihotz-berrituak ziratekeen aspaldi, dolujantziz eta hautsez estalirik. Horregatik, hau diotsuet: auzi-egunean, zigor bigunagoa izango dute Tirok eta Sidonek, zuek baino. Eta zu, Kafarnaum, zeruraino altxatuko zarela? Lurraren barrenerraino eroriko zara! Izan ere, zuregan bezainbeste mirari gertatu izan balitz Sodoman, gaurdaino iraungo zukeen. Horregatik, hau diotsuet: auzi-egunean, zigor bigunagoa izango du Sodoma, zuk baino».

Jesus kexu da Korozaín eta Betsaidan, Galilea aintzira ondoko bi hiri hauetan, aurkitu duen fede eskasagatik. Bietan egin ditu mirariak, baina ez dira bihoz-berritu, ez diote eskerrak eman Jainkoari beronen presentzia bizi eta eraldatzaileagatik. Hartutako dohainarekin gelditu dira, baina doako erregalutzat aitortu gabe. Onuradun izan dira, inolako erantzunik eman gabe. Gogortasun hori da Jesusi min ematen diona, esker txar hori. Gudan ere egin du Jaunak miraririk: bizia eman digu, geure familia, nori bere gorabehera pertsonalak eman dizkigu... Egokiera dugu geure buruari galdetzeko: zein neurritan erantzun ohi diegu bihotz zabal, zerbitzari eta esker onekoaz Jainkoari eta gainerakoei?

Urteko 15. astea

Karmelo Mendiko Andre Maria (Karmengo Ama)
Larreako Andra Maria

Karmengo Amaren Meza: Zakarias 2, 14-17: Poztu zaitez, Siongo alaba, banatorkizu-eta! **Salmoa: Lukas 1, 46-55:** Zorionekoa zu, Maria Birjina, betiko Aitaren Semea ekarri zenuena. **Mateo 12, 46-50:** Eskua bere ikasleetara luzatuz, Jesusek esan zuen: «Horra nire ama eta nire senideak».

Irteera liburutik 3, 1-6.9-12: Jaunaren aingerua agertu zitzaion, sasi artean pizturiko sugarrean. **Sal 102:** Bihozbera eta errukiorra da Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11, 25-27.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Bedeinkatua Zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsuei eta burutsuei gorde eta jende xumeari agertu baitizkiozu. Bai, Aita, hala izan duzu gogoko. Nire Aitak dena eman dit, eta ez du inork Semea ezagutzen, Aitak baizik; ezta Aita ere, Semeak baizik, eta Semeak agertu nahi dionak baizik».

Jesusek esker oneko hitzak jaulki ditu Aitarentzat; ikusi baitu txikiak direla Erreinuaren logika ulertzen dutenak eta berri ontzat hartzen dutenak. Justu kontrakoa gertatzen da jende jakintsu eta adituarekin; hauek ez dute ezer ulertzen. Txikiek Erreinua onartzen badute, begiak garbi dituztelako da eta Jesusen egintzak ideologien eta aurreiritzien bahetik pasatu gabe hartzen dituztelako. Gainera, behar den apaltasuna dute, hartzen dutena doakoa dela sumatzeko, Jainkoagandik datorren erregalu garbia dela sumatzeko, ez diotelako ezer leporatzen beren merezimenduei eta ahaleginei. Azkenik, txikiek esperantza bizi dute, eta Jesus senidetasunaren eta hainbeste irrikatzen duten bateratzearen etorkizun dela ikusten dutelako.

Urteko 15. astea

Santa Segunda, *martiria*San Leon IV.a, *103. aita santua*

Irteera liburutik 3, 13-20: Naizena naiz Ni. «Naizena naiz» deritzanak bidali nau zuengana. **Sal 104:** Gogoan du etengabe Jaunak bere ituna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11, 28-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Zatozte nigana nekatu eta zamatu guztiok, eta Nik arinduko zaituztet. Hartazue nire uztarria eta ikasi nigandik, gozoa eta bihotz-apala bainaiz, eta aurkituko duzue zeuen arimentzako atsedena. Nire uztarria leuna baita, eta nire zama arina».

Jesus Jauna gure atsedena da. Koloka jartzen gaituzten bizitzako guduen artean, estutzen gaituzten kezken eta beldurren artean, bakeleku bezala aurkezten zaigu bera. Beragana jo beharrean gertatu ohi gara konfiantza berregiteko, eta bizitzak utzi ohi dizkigun zaurietatik birgaitzeko. Ebanjelioak dio kristau-bizitzan uztarri bat eta zama bat izango ditugula. Zuzentasunaren eta senidetasunaren Erreinua gauzatzeko lanean, Jesusen lankide izateak bere kostua du, zalantzarik gabe, eta bere zama; izan ere, laster sortzen dira kontrako jarrerak. Alabaina, jasangarria da uztarria eta arina zama; Jesus bidelagun izateak adorea eta arnasa ematen du eta.

* * *

«Garapenaren helburuak ez du izan behar gutxi batzuek gero eta gehiago metatzea, baizik eta “giza eskubideak, pertsonalak eta sozialak, ekonomikoak eta politikoak, bermatzea, nazioen eta herrien eskubideak barne”» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 122).

Urteko 15. astea

San Federiko, *gotzaina*

Irteera liburutik 11, 10-12, 14: Ilunabarrean abere xehe bat hilko duzue; odola ikustean, aurrera igaroko naiz. **Sal 115:** Salbamen-dontzia dut hartuko eta Jaunaren izenari dei egingo.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 12, 1-8.

Aldi hartan, larunbatean gari-soroetan barrena zihoan Jesus. Ikasleak goseak zeuden eta galburuak moztu eta jaten hasi ziren. Hori ikustean, fariseuek esan zioten Jesusi: «Begira, larunbatez zilegi ez dena egiten ari dira zure ikasleak». Hark erantzun: «Ez al duzue irakurri zer egin zuen Davidek, bera eta lagunak goseak gertatu ziren batean? Nola Jainkoaren etxean sartu eta Jaunari eskainiriko ogiak jan zituzten, lege ez berak ez beraren lagunek, baizik eta apaizek bakarrik jan zitzaizkieten? Edota ez al duzue irakurri Moisesen legean apaizek larunbatero hausten dutela tenpluan atsedeen-legea, horregatik errudun izan gabe? Ba, Nik diotsuet: bada hemen tenplua baino gehiago den norbait. Ulertu bazenute zer esan nahi duen Jainkoak esandako honek: “Nahiago dut errukia sakrifizioak baino”, ez zenituzketen errugabeok gaitzetsiko. Zeren Gizonaren Semea larunbataren nagusi baita».

Pena ematen dute ikasleek. Ez zuten, nonbait, janari handirik berekin, bidean galburuak biltzen ari baitziren eta ale gordina jaten. Dударik gabe, goseak zeuden. Beraiez errukitu orde, fariseuek, berak segur aski ondo aserik egongo ziren, kritikari eman zioten, larunbatez lan horretan ari zirelako. Jesusek garbi erantzun zien, tartean egiarekin sartuz: Jainkoaren aginduak gizakiari laguntzeko dira, eta ez inor menderatzeko. Larunbata barne berrikuntzarako aldia da, atsedena hartzeko eta armonia pertsonala eta soziala eraberritzeko aldia, baina jendea goseak denean ezin lortu da halakorik. Jainkoaren aginduak ez dira garrantzizko, hildura edo sakrifizioa eskatzen dutelako, baizik eta beraien bidez gizakiak babesa sentitzen duelako, hazten laguntzen duelako eta gizatasun sakonagoa lortzeko bide direlako.

Urteko 15. astea

Kordobako Santa Aurea, *martiria*

Irteera liburutik 12, 37-42. Jaunak israeldarrak Egiptotik atera zitueneko gaua. **Sal 135:** Haren maitasuna betikoa baita.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 12, 14-21.

Aldi hartan, fariseuek, sinagogatik atera zirenean, elkar hartu zuten Jesusen kontra, hura nola galduko. Jakin zuen hori Jesusek eta alde egin zuen handik. Jende askok jarraitu zion, eta Jesusek denak sendatu zituen, eta agindu zien ez zezatela ezagutzera eman. Horrela, Jainkoak Isaias profetaren bidez esana bete zen: «Hona hemen nire zerbitzaria, Nik aukeratua, nire maitea, atsegin dudana. Honengan ipiniko dut neure espiritua; zuzenbidea iragarriko die herriei. Ez du haserrerik sortuko, ez oihurik egingo, ez da kaleetan haren mintzoa entzungo. Kanabera pitzatua ez du hautsiko, doi-doi piztua dagoen argi-metxa ez du itzaliko, zuzenbidea nagusiarazi arte. Hura izango dute itxaropen nazioek».

Pertsegitua den hori nazioen esperantza bezala ageri da. Fariseuek kendu egin nahi dute begi bistatik, horren sendatzeak nahasgarri gertatzen zaizkie agintariei, horren hitzek sumindu egiten dituzte. Harrera egiten dio jendeak, lege-agintariak jasan ezin duten harrera; Legea bera aztergai egin du eta Jainkoaren errukiaren mendeko bihurtu. Gizon pobre eta ibiltari horrek nazioei zuzenbidea hots egiteko argizat agertu du bere burua. Zuzenbidea: jenderik ahulenaren babesle da bera: «Kanabera printzatu ez du hautsiko, argi-metxa ahuldua ez du itzaliko». Jesus da hautsia den hori, itxuraz galdua den hori, baztertzen ez duena, baizik eta zaindu eta eraberritu egiten du. Ez du ematen inore ere baliogabetzat eta ezdeustzat; baizik eta berreskuratu eta birgaitu egiten du. Gizadia beraren zain dago.

Urteko 16. astea

San Apolinar, *gotzaina eta martiria*San Elias, *profeta*

Hasiera liburutik 18, 1-10a.

Egun haietan, Jauna agertu zitzaion Abrahami Mambreko artadian. Abraham oihal-etxolaren sarreran eseria zegoen, berorik handieneko orduan. Begiak jasorik, hiru gizonezko ikusi zituen bere aurrean zutik. Ikusi orduko, lasterka joan zitzaien etxolaren sarreratik eta, ahuspez jarririk, esan zuen: «Ene Jauna, gogoko banauzu, ez jarraitu aurrera zeure morroiarekin gelditu gabe. Ura ekarriko dizuet, oinak garbitzeko, eta zuhaizpean hartuko duzue atsedeen. Jatekoa ere ekarriko dizuet, indarberri zaitezten, eta gero jarraituko diozue bideari; zerbaitegatik igaro zarete zeuen morroi honen ondotik». Haiek erantzun zioten: «Egizu diozuna». Abraham lasterka sartu zen oihal-etxolara, Sara emazteagana, eta esan zion: «Bizkor, egizu oreira irin garbiz eta presta itzazu opilak». Abraham bera bizi-bizi joan zen ukuilura eta, zekor gizen on bat aukeraturik, morroi bati eman zion; honek berehala atondu zuen. Gero, hartu zuen Abrahamek gatzatua, esnea eta atondutako zekorra, eta bisitariei eraman zien. Haiek jaten zuten bitartean, zutik egon zen bera haien ondoan zuhaizpean. Bukatzean, galdetu zioten: «Non da Sara, zure emaztea?». Abrahamek erantzun: «Hor, oihal-etxolan». Haietako batek esan zion: «Urtebete barru ziur itzuliko natzaizu, eta ordurako zure emazte Sarak semea izango du».

Sal 14: Jauna, nor dagoke zure etxean?

San Paulok Kolosarre 1, 24-28.

Senideok: Pozik nago orain, zuen alde jasaten ditudan sufrimenduengatik; horrela, neure gorputzean jasaten ari naizen atsekabeen bidez Kristoren atsekabeak osatzen ditut, haren gorputza den Elizaren alde. Jainkoak Elizaren zerbitzari egin nau eta bere mezua zuei oso-osorik adierazteko egingizuna eman dit. Mezua Jainkoaren

Urteko 16. astea

San Apolinar, *gotzaina eta martiria*San Elias, *profeta*

asmo ezkutuari buruzkoa da, mendeetan eta gizaldietan gordea eduki ondoren, orain Jainkoak bere fededunei agertu diena. Hauei jakinarazi nahi izan die Jainkoak zein aberats eta aintzatsu den jentilentzat asmo ezkutu hori; zuengan den eta aintzarako itxaropen duzuen Kristori buruz ari natzaizue. Kristo hauxe ari gara hots egiten, denei aholku emanez eta jakinduria guztiaz irakatsiz, denak beren kristau-bizitzan heldutasun betera hel daitezen.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10, 38-42.

Aldi hartan, Jesus herrixka batean sartu zen, eta Marta zeritzan emakume batek etxean hartu zuen. Bazuen honek Maria izeneko ahizpa bat, eta hau, Jaunaren oinetan eserita, haren hitza entzuten zegoen. Marta, berriz, lanpetua zebilen etxeko zereginetan. Orduan, Martak Jesusen aurrean jarri eta esan zion: «Jauna, ez al dizu axola nire ahizpak lan guztia nire gain uztea? Esaiozu laguntzeko». Jaunak, ordea, erantzun zion: «Marta, Marta, gauza askorengatik zabiltza kezkatua eta larri; baina bakarra da beharrezko. Alderdirik onena aukeratu du Mariak, eta ez dio inork kenduko».

Adiskidetasun-sentimendu bero bat nabari da eszena honetan barna. Mariaren konfiantza: Jesusen oinetan eseri da, eta gustura entzuten dio hitz egiten. Martaren familiartasuna: ahizparen laguntza eskatu dio Jesusi. Ikusgarria da Jesusek agertu duen era lasaia eta zuzenekoa Martarekin hitz egitean. Jerusalemdik hurbil zegoen Betaniako familia hartan babestu ohi zen Jesus. Leku bat, non gozatua ematen ziona, ikasleen ondoan, emakume haien tratu xume eta maitagarriaz. Emakume biak ere ikasle ziren, Jesusen mezua jaso eta barneratu egin baitzuten. Marta lehiatsu ari da hainbat arrotzi harrera egin nahiz. Maria Jesusen oinetan jarri da, berari entzuten. Martak zerbitzatuz maite du; Mariak entzunez; bi jarrera beharrezko kristau-bizitzan. Entzutea eta denbora pasatzea: ematen dugun erregalua da. Ebanjelioak bihotza harrapa edo hunki diezagun nahi badugu, Jesusi entzuten badiogu bakarrik lortuko dugu, Mariak bezala, berari begira

Urteko 16. astea

San Apolinar, *gotzaina eta martiria*

San Elias, *profeta*

eta maitasunez, beraren oinetan. Bestetik, ezinbestekoa da Martaren zerbitzua. Baina larri ari da Marta, kezkatu gauzen gainean. Jarrera honetaz mintzo zaio Jesus. Estu eta lehiatsu ari da, funtsezkoarentzat astirik gabe, hau da, begiratzeko, entzuteko, Jaunari alditxo bat eskaintzeko betarik gabe, beraren ondoan gaudenean, beraren presentziaz xume-xume gozatu gabe.

* * *

Planto egitera noa

Jauna,
kezkatu eta barreiatu nabil
mila egiteko esku artean.
Planto egitera noa,
zure oinetan esertzera,
zure ondoan isilik egotera
neure izatearen sakonena aurkitzeko
zure aurrean, zure itzalpean.
Zain egonen naiz patxadan,
soseguz,
isiltasun honetan,
zure hitza sor dadin;
ene lur idor honetan,
zure Jakinduria loratu dadin.

(Dolores Aleixandre)

Urteko 16. astea

San Lorenzo Brindiskoa, *apaiza eta eliz irakaslea*

Irteera liburutik 14, 5-18: Jakingo dute Ni naizela Jauna, neure aintza agertuko dudanean faraoiaren bizkar. **Salmoa: Ir 15, 1b-2.3-4.5-6 (R/.1b):** Jaunari diot kantatzen, garaipen handia lortu duelako.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 12, 38-42.

Aldi hartan, lege-maisu eta fariseu batzuek esan zioten Jesusi: «Maisu, Zuk egindako seinale bat ikusi nahi genuke». Jesusek erantzun zien: «Seinale eske ari da gizaldi gaizto eta desleial hau; baina ez zaio seinalerik emango, Jonas profetarena besterik. Zeren, Jonasek arrainaren sabelean hiru egun eta hiru gau egin zuen bezala, hala egingo baitu Gizonaren Semeak ere hiru egun eta hiru gau lurraren barruan. Auzi-egunean ninibetarrek gizaldi honen aurka altxatu eta kondenatu egingo dute, haiek bihotz-berritu egin baitziren Jonasen predikuaz, eta baduzue hemen Jonas baino gehiago den norbait. Auzi-egunean gizaldi honen aurka jaikiko da hegoaldeko erregina eta kondenatu egingo du, lurraren azken mugetatik etorri baitzen hura Salomonen jakinduriatzko hitzak entzutera, eta baduzue hemen Salomon baino gehiago den norbait».

Fariseuek eta eskribauek mirari bat eskatu diote Jesusi. Zeinu distiratu bat, Jesus Mesias bezala agertuko lukeena; Jesusen jendaurreko bizitza guztian luzatuko den tentazioa da. Behin eta berriz eskatzen diote, gurutzean dela ere bai. Baina ez dago beste zeinurik: beraren hitza eta egin dituen sendatzeak; lekuko izan direnei sinetsi ala ez askatasuna utzi izan dietenak. Sinestea hutsunean jauzi egitea da, Jainkoaren besoetara erortzeko, zeina zain-zain baitugu gure fedea sendotzeko eta esperantza arnasteko. Ez dago hau beste zeinurik: gizon baten askatasuna eta ausardia, Aitari estu atxikirik, ongirantz bide egin duena, historiako bide-bazterrean utziak direnak askatzeari eman eta maitasuna azalduz.

Urteko 16. astea

Santa Maria Magdalena

Kantarik Ederrena liburutik 3, 1-4a.

Honela mintzo da emaztea: «Neure bihotzeko kuttunaren bila ibili nintzen gauez, ohean; bila ibili, bai, baina aurkitu ez! Jaiki eta herrian barna abiatu nintzen, kale eta plazetan zehar, neure bihotzeko kuttunaren bila; bila ibili, bai, baina aurkitu ez. Herrian zebiltzan zaindarien aurkitu ninduten. “Ikusi al duzue nire bihotzeko kuttuna?” galdetu nien. Haiengandik aldendu nintzeneko, aurkitu nuen neure bihotzeko kuttuna».

Sal 62: Zure egarritz daukat gogoa, Jauna, ene Jainkoa.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20, 1-2.11-18.

Asteko lehen-egunean, Maria Magdalena hilobira joan zen goizean goiz, artean ilun zegoela, eta harria hilobitik kendua ikusi zuen. Orduan, Simon Pedrogana eta Jesusek maite zuen beste ikasleagana itzuli zen lasterka, eta esan zien: «Eraman egin dute Jauna hilobitik, eta ez dakigu non jarri duten». Maria hilobi ondoan zegoen, kanpoan, negarrez. Eta, negarrez zegoela, hilobirantz makurtu zen eta bi aingeru ikusi zituen, zuriz jantziak, Jesusen gorpua egon zen lekuan eserita, bata burualdean eta bestea oinetan. Aingeruek esan zioten: «Zer duzu negarrez, emakume?». Hark erantzun zien: «Nire Jauna eramane dute, eta ez dakit non ipini duten». Hau esan eta berehala, atzera itzuli eta Jesus ikusi zuen zutik, baina ez zen konturatu Jesus zela. Jesusek esan zion: «Zer duzu negarrez, emakume? Noren bila zabiltza?». Hark, baratze zaina zelakoan, esan zion: «Jauna, zuk eramane baduzu, esadazu non ipini duzun, eta nik jasoko dut». Jesusek esan zion: «Maria!». Honek, hurbilduz, esan zion hebreeraz: «Rabbuni!» (hau da, «Maisu!»). Jesusek esan zion: «Utz nazazu, oraindik ez bainatz Aitagana igo. Zoaz nire senideengana eta esaiezu: “Neure Aitagana eta zuen Aitagana noa, neure Jainkoagana eta zuen Jainkoagana”».

Urteko 16. astea
Santa Maria Magdalena

Joan zen Maria Magdalena, eta berri hau eman zien ikasleei: «Jauna ikusi dut, eta hau eta hau esan dit».

Joanen ebanjelioak kristau-bizitza Kristo maitatzean jarri du. Ebanjelio horretan, bi pertsonaia nabarmendu dira beren maitasunaz, Jesusen ikasleen artean: ikasle maitea eta Maria Magdalena. Maria jarraitzaile eredu bezala ageri da. Gaurko pasadizoan, Jesusen gorpua ikustea antsiatzen du, beraren heriotzaren ondoren. Baina ezin aurkitu izan du; Maisuak, izan ere, beste presentzia-modu bat du; orduan, bere izenaz dei egin dio Mariari, kontsolatu du eta anai-arrebengana bidali du. Mariagan hartu dugu berria ezen Jesusen Jainkoa geure Jainkoa dugula, eta beraren Aita geure Aita. Jesusen beraren anai-arreba gara. Maria Magdalena berpiztuaren lekuko pribilegiatu bihurtu zaigu, bere maitasun sakonak gidatu du beragana, berari entzuteko eta beraz aitortzeko prest.

* * *

«Jabetza pribaturako eskubideak ondoan du beti printzipio lehena, garrantzitsuena: Lurreko jabetza pribatu oro ondasunen unibertsaltasunaren mende egotea, eta, horregatik, denok ukaitea ondasun horiek erabiltzeko eskubidea» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 123).

Santa Brigida Suediakoa, *erlijiosa, fundatzailea (Salbatzaile Santu-santuarien Ordena) (Europaren Zaindaria)*
Maturana, *dohatsua (Berriz) (Bilbo 1884-Donostia 1934)*

Ga 2, 19-20: Honezkero ez naiz ni bizi, Kristo bizi da nigan. Sal 33: Bedeinkatuko dut aldi oro Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15, 1-8.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ni naiz egiazko mahatsondoa, eta nire Aita da nekazaria. Nigan fruiturik ematen ez duen aihena moztu egiten du Aitak, eta fruitu ematen duena garbitu eta kimatu, fruitu gehiago eman dezan. Zuek garbi zaudete dagoeneko, Nik adierazi dizuedan hitzari esker. Zaudete Nigan, Ni zuengan bezala. Aihenak berez, mahatsondoan ez badago, fruiturik eman ezin duen bezala, zuek ere ez, Nigan ez bazaudete. Ni naiz mahatsondoa eta zuek aihenak. Norbait Nigan badago, Ni harengan bezala, hark fruitu asko emango du; Ni gabe ezin baituzue ezer egin. Nigan ez dagoena kanpora botatzen dute, ebaki eta ihartzen den aihena bezala; gero, bildu, sura bota eta erre egiten dute. Nigan bazaudete eta nire hitzak zuengan badaude, eskatu nahi duzuen eta izango duzue. Honetan azaltzen da nire Aitaren aintza: zuek, nire ikasle izanik, fruitu asko ematean».

Gauza harrigarria izaten da ikustea nola ernetzen diren udaberrian mahatsondoaren loreak, hura neguan zorrotz inausia izan ondoren. Mokor zahar eta bihurri batetik indarrez hasten dira sortzen aihenak beren hostoekin, zeinetatik hilabete gutxi barru mahats-lukuak agertuko baitira zintzilik. Horren guztiaren sekretua sustraiak dira, lurrean ondo sartuak, lur horrek berak babestuak hotzaren eta izotzaren kontra, eta udako beroa iristen denean landarea biziberritzen delarik. Jesusek aihenekin konparatzen gaitu, mahatsondoari itsatsiak, berari irmo lotuak, beraren maitasunean jarraituz, fruitua horrela bakarrik ematen ahal dugularik. Kristoren maitasuna da, irmoa eta etengabea, biziberritzen eta berritzen gaituena, udaberrian eguzkiak bezala.

Joan Pedro Bengoa (*Arrasate 1890-Carrion de Calatrava 1936*), Nizeforo Jesusena eta Mariarena, Zakaria Fernandez (Zentroniko 1917-Ciudad Real 1936) eta beste 23 lagun, *

Irteera liburutik 19, 1-2.9-11.16-20b: Jaitsiko da Jauna Sinai mendira herriaren aurrean. **Salmoa: Daniel 3:** Aintza eta gorespen zuri gizaldietan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13, 10-17.

Aldi hartan, Jesusengana hurbildu eta galdetu zioten ikasleek: «Zergatik hitz egiten diezu parabola bidez?». Jesusek erantzun zien: «Zuei eman zaizue zeruetako erreinuaren misterioak ezagutzea; horiei, ordea, ez. Izan ere, duenari eman egingo zaio eta gainezka izango du; ez duenari, ordea, duen apurra ere kendu egingo zaio. Hona zergatik hitz egiten diedan parabola bidez: begiratu bai, baina ikusten ez dutelako; entzun bai, baina aditzen ez dutelako, ezta ulertzen ere. Horrela, Isaias Profetak esana betetzen da horiengan: Entzungo duzue, bai, baina ulertu ez; ikusiko duzue, bai, baina ohartu ez. Izan ere, herri honek gogortu egin ditu buru-bihotzak, gortu belarriak, itsutu begiak. Ez bezate begiez ikus, ez belarriez entzun, ezta buruaz ulertu ere, horrela nigana bihur ez daitezen eta salba ez ditzadan». Zorionekoak, ordea, zuen begiak, ikusten dutelako, eta zuen belarriak, entzuten dutelako. Benetan diotsuet: profeta eta zintzo askok ikusi nahi izan zuen zuek ikusten duzuen, baina ez zuen ikusi, eta entzun zuek entzuten duzuen, baina ez zuen entzun».

Jesus parabola-bidez mintzo da Galileako herrixketan. Jendetza handia biltzen da berari entzuteko, eta liluraturik gelditzen da proposatzen dituen irudiengatik; eguneroko bizitzatik hartuak dira: emakume batek galdu duen moneta bat, gorderik zegoen altxor bat, airean bota ohi den hazi bat. Jai-otorduak eta festak, eztei bat... Jende

* *dohatsuak, Daimiel-eko pasiotarrak, martiriak (1936)*
Margarita Maria Lopez de Maturana, *birjina*
Santa Kristina, *martiria*
San Arnulfo, *martiria*

Joan Pedro Bengoa (*Arrasate 1890-Carrion de Calatrava 1936*), Nizeforo Jesusena eta Mariarena, Zakaria Fernandez (*Zentroniko 1917-Ciudad Real 1936*) eta beste 23 lagun, *

xumeak ulertzen dio, pobretasunaz, onarpenaz eta solidaritateaz zerbait baino gehiago dagien jendeak alegia, eta Jesusen hitzetan Jainko samur bat aurkitu du, hurbileko bat, errukitsu bat. Jende aditua, aldiz, ez da gai ezer ulertzeko; izan ere, ezin irudikatu du Jainkoa bere molde erlijioso zurrunetatik kanpo. Bizitzako irudietan distiratsu ageri ohi da Jainko errukitsua; baina ezkutuan gelditzen da bere bizitzan ontasuna, gupida eta onarpena bazterturik utzi dituenaren begi lausotuentzat.

* * *



* *dohatsuak, Daimiel-eko pasiotarrak, martiriak (1936)*
Margarita Maria Lopez de Maturana, *birjina*
Santa Kristina, *martiria*
San Arnulfo, *martiria*

Urteko 16. astea
SANTIAGO, APOSTOLUA
San Kristobal, *martiria*

Apostoluen Eginak liburutik 4, 33; 5, 12.27-33; 12, 2.

Egun haietan, Apostoluek aginpide handiz egiten zuten Jesus Jaunaren piztueraren aitormena, eta jendeak oso estimatuak zituen guztiak. Mirari eta egintza harrigarri asko gertatzen zen herrian apostoluen eskuz. Batzar Nagusiaren aurrera ekarri zituzten apostoluak, eta apaiz nagusiak esan zien: «Ez al genizuen zorrotz agindu ez irakasteko Jesusen izenean? Zuek, berriz, Jerusalem osoa bete duzue zeuen irakaspenez; gainera, gizon horren heriotzaren erantzukizuna geuri leporatu nahi diguzue». Pedrok eta beste apostoluek erantzun zuten: «Jainkoaren esana egin behar da aurrena, ez gizakiena. Gure arbasoen Jainkoak piztu egin du zuek egur batetik zintzilik hil zenuten Jesus. Jainkoak goratu egin du bere eskuinaz, Buruzagi eta Salbatzaile eginez, Israeli bihotz-berritzea eta bekatuen barkamena emateko. Geu gara gauza hauen testigu, geu eta esaneko zaizkionei Jainkoak ematen dien Espiritu Santua». Erantzun honek beren onetik atera zituen batzarkideak, eta hil egin nahi zituzten apostoluak. Eta Herodes erregeak ezpataz hilarazi zuen Joanen anaia Santiago.

Sal 66: Ene Jainko, aipa zaitzatela herriek, aipa zaitzatela herri guztiek.

San Paulok 2 Korintoarrei 4, 7-15.

Senideok: Altxor baliotsu hau buztinezko ontzian daramagu, argi ager dadin honenbesteko indarra Jainkoagandik datorrela, eta ez gugandik. Alde guztietatik estutzen gaituzte, baina zapaltzen ez; larri gaude, baina etsita ez; erasopean bai, baina eskutik utzita ez; lurrera botatzen gaituzte, baina suntsitzen ez; nonahi eta beti Jesusen heriotza daramagu geugan, Jesusen bizia ere gugan ager dadin. Bizi garen bitartean, beti heriotzara garamatzate Jesusengatik, gure izate hilkor honetan Jesusen bizia ere ager dadin. Horrela, gugan heriotza ari da; zuengan, berriz, bizia. Hau dio Liburu Santuak: «Sinetsi

Urteko 16. astea
SANTIAGO, APOSTOLUA
San Kristobal, *martiria*

nuen, eta horregatik hitz egin nuen». Guk ere, sinesmen-espiritu bera dugularik, sinesten dugu eta horregatik hitz egiten dugu, jakinik, Jesus Jauna piztu duenak piztuko gaituela gu ere Jesusekin, eta haren ondoan ipiniko gaituela zuekin batean. Hau guztia zuen onerako da, Jainkoaren dohaina askorengana zabaltzean, esker ona ere ugal dadin, Jainkoaren aintzarako.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 20, 20-28.

Aldi hartan, zebedeotarren ama hurbildu zitzaion Jesusi bere semeekin eta aurrean ahuspeztu, eskari bat egiteko. Jesusek galdetu zion: «Zer nahi duzu?». Eta hark: «Agindu ezazu nire bi seme hauek, eser daitezela zure erreinuan bata zure eskuinean eta bestea zure ezkerrean». Eta Jesusek: «Ez dakizue zer eskatzen duzuen. Gauza al zarete Nik edan behar dudan kalizatik edateko?». Erantzun zioten: «Bai, gauza gara!». Jesusek orduan: «Nire kalizatik edan, bai, edango duzue; baina nire ezker-eskuin esertze hori, ez dago nire esku inori ematea; nire Aitak norentzat prestatua duen, hari emango zaio». Gainerako hamarrak, hori entzutean, biziki haserretu ziren bi anaiekin. Baina Jesusek dei egin eta esan zien: «Badakizue herrietako agintariek menpean hartzen dituztela herriak, eta handikiek beren agintea ezartzen dietela. Ez bedi izan horrela zuen artean; baizik eta zuen artean handi izan nahi duena izan bedi zuen zerbitzari, eta zuen artean lehenengo izan nahi duena izan bedi zuen morroi. Gizonaren Semea ere ez baita etorri zerbitzaturik izatera, zerbitzari izatera baizik, eta bere bizia askoren ordainsari ematera».

Elizak zaindariauk aukeratu ditu herrientzat, santu zaindariauk, guztientzat eredu proposatuak. «Guztientzat» izate hori garrantzizko gauza da gure gizartean, hain mehatxatuak baikauzka banaketak: jatorria dela, alderdi politikoa dela, erreferentzia erlijiosoak direla, kultura eta hizkuntza direla. «Guztientzat», bizikidetasun bakar bateko zati baikara, sentimendu solidarioan eta adiskidetasun sozialean

Urteko 16. astea
SANTIAGO, APOSTOLUA
San Kristobal, *martiria*

bizitzeko deituak. Eliza garenez, lan egiteko erantzukizuna dugu: bake sozialaren alde, jende desberdinak topo egitearen alde, gatazken artean elkarrizketaren alde, azkenak direnak barneratzearen alde, desberdinak direnak bihotzez aintzat hartzearen alde. Ebanjelioak Joanen eta Santiagoren handi ustea gogoratu digu. Nor izan nahi dute, eta horretarako gainerakoen gainean kokatu dira. Maisuak, ordea, higuina dio desio horri, gizatasunaren aldetik hain ohikoa, baina hain zekena. Ikasle guztiak zerbitzari izatea nahi du Jesusek, baztertu dezatela tiranizatzen, menderatzen eta zapaltzen duen erakunde soziala, eta ez dezatela hartu gidari boterea, baizik zerbitzua. Horrela izango dira eraldatzaile egitura sozialen barnetik. Hauxe da Elizaren zeregin sozial handia: elkartasun edo komunio-zementu izan eta bera presente dagoen gizarteetan zerbitzari izan.

* * *

«Nazioarteko harremanen sare berria sortu behar dugu, gizabanakoen nahiz talde txikien artean elkarri laguntzera mugatuz gero ez baitugu lortuko munduko arazo larriak konpontzea» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 126).

Urteko 16. astea

San Joakin eta Santa Ana, Andre Mariaren gurasoak

Irteera liburutik 24, 3-8: Jaunak zuekin burutu duen itunaren ezaugarria da odol hau. **Sal 49:** Eskaini esker onezko oparia Jainkoari.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13, 24-30.

Aldi hartan, parabola hau esan zion Jesusék jendeari: «Zeruetako erreinuarekin gizon batek soroan hazi ona erein zuenean bezala gertatzen da. Jendea lo zegoela, etorri zen etsaia eta gari artean iraka erein eta alde egin zuen. Garia hazi eta burutu zenean, han azaldu zen iraka ere. Joan ziren, orduan, morroiak etxeko nagusiagana eta esan zioten: “Jauna, ez al zenuen hazi ona erein soroan? Nondik dator, bada, iraka?”. Nagusiak erantzun zien: “Etsaiaren lana da hori”. Morroiek, orduan: “Joango al gara iraka biltzera?”. Eta nagusiak: “Ez! Ez dadila gerta, iraka biltzean gara ere ateratzea. Utzi biak batera hazten uztaroa iritsi arte; orduan, igitariei esango diet: Bildu lehendabizi iraka, lotu eta erre; garaia, berriz, jaso nire mandiora”».

Iiraka (olo gaiztoa) gramineo bat da, gariaren antz handikoa. Zona berean jaiotzen dira biak, eta hasieran ez da erraza izaten biak bereiztea. Ulertzekoa da, beraz, Jesusen aholkua: biak elkarrekin hazten joan daitezen uztea; azkenean bakarrik bereiziko dira. Tentazio bat da elkarteak jende garbi-garbiez sortu nahi izatea: espiritu erlijioso setatien tentazioa da —edota gaur egun hain sarriak diren ideologia moralizanteena—; erakundearen baitan iskanbilak sortzen dituzte, eta kanpoan gelditu direnak deabruzat ematen. Ugari izaten dira orduan gaitzespenak, estigmatizazioak eta ostrazismoak. Jesusék salbatu egiten du eta ez gaitzetsi, eta bizikidetasunerako deia egin du. Guztiok daramagu geure barnean, bai gariaren hazia, bai irakarena. Denborak bakarrik ematen digu aukera, fruitua solidaritatea eta elkartasuna izan den ala gatazka eta banaketa.

Urteko 17. astea

San Galaktario, *gotzaina eta martiria (Baionako elizbarrutian)*
 Maria Pilar Izquierdo Albero *dohatsua, birjina*

Hasiera liburutik 18, 20-32.

Egun haietan, Jaunak esan zuen: «Izugarria da Sodomaren eta Gomorraren kontrako salakuntza, eta larriegia hiri horien bekatua. Salakuntza hori egia ala gezurra den ikusi behar dut». Gizasemeek handik atera eta Sodomarantz jo zuten; Abraham, berriz, Jaunaren aurrean zutik gelditu zen. Hurbildurik, esan zion Abrahamek: «Egiaz, errugabea ere galdu egin behar ote duzu errudunarekin batean? Beharbada, badira berrogeita hamar errugabe hirian. Horiek ere galdu egin behar ote dituzu? Ez ote diozu barkatuko hiriari berrogeita hamar errugabe horiengatik? Utikan zugandik horrelakorik egitea, errugabea errudunarekin batera hilaraztea! Nola jokatuko duzu, bada, berdin batarekin zein bestearekin? Zuk ez horrelakorik! Munduaren epaileak ez ote du zuzenbiderik egingo?». Jaunak erantzun zion: «Sodomako hiri barruan berrogeita hamar errugabe aurkitzen baditut, hiri osoari barkatuko diot haiengatik». Eta Abrahamek berriz: «Ausardia da benetan hauts eta errauts naizen honek neure Jaunari hitz egitea. Gerta daiteke berrogeita hamarrera iristeko bost falta izatea; hiri osoa suntsituko ote duzu bost horiengatik?». «Ez –erantzun zion Jaunak–, ez dut suntsituko, hirian berrogeita bost aurkitzen baditut». Oraindik ere Abrahamek: «Gerta daiteke berrogei besterik ez izatea». Jaunak erantzun: «Ba, ez dut suntsituko berrogei horiengatik». Orduan, Abrahamek esan zion: «Ez zaitez haserretu, ene Jauna, hizketan jarraitzen badut. Gerta daiteke hogeita hamar besterik ez izatea». «Ez dut suntsituko, hogeita hamar aurkitzen baditut», erantzun zion Jaunak. Abrahamek berriro: «Badakit ausartegia naizela; baina gerta daiteke hogei besterik ez izatea». Jaunak erantzun: «Ez dut suntsituko hogei horiengatik». Eta Abrahamek: «Ez haserretu, Jauna, beste behin mintzatzen banatzaizu. Gerta daiteke hamar besterik ez izatea». Jaunak erantzun zion: «Ez dut suntsituko hamar horiengatik».

Urteko 17. astea

San Galaktario, *gotzaina eta martiria (Baionako elizbarrutian)*Maria Pilar Izquierdo Albero *dohatsua, birjina*

Sal 137: Dei egin nizunean, erantzun zenidan, Jauna.

San Paulok Kolosarrei 2, 12-14.

Senideok: Bataioaren bidez, Kristorekin hobiratuak izan zarete, eta piztu ere, harengan piztu zarete, hura hildakoen artetik piztu zuen Jainkoaren ahalmenean sinetsiz. Garai batean, hilda zeundeten zeuen bekatuengatik eta erdaingabeak izateagatik; baina Jainkoak biziarazi egin zaituzte Kristorekin batera, bekatu guztiak barkaturik. Gu gaitzesten gintuen epai-agiria suntsitu egin du eta, gurutzean josiz, deuseztatu.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11, 1-13.

Behin batean, Jesus otoitzean ari zen leku batean; bukatu zuenean, ikasleetako batek esan zion: «Jauna, irakatsiezaguzu otoitz egiten, Joane bere ikasleei irakatsi zien bezala». Jesusek esan zien: «Otoitz egitean, esazue: “Aita, santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, emaguzu egunean eguneko ogia, eta barkatu gure bekatuak guk ere zor diguten guztiei barkatzen diegunez gero, eta ez utzi gutentaldian erortzen”». Gero, esan zien: «Eman dezagun, zuetako batek adiskide bat duela eta gauerdian datorkiola, esanez: “Adiskide, emazkidak hiru ogi, itzuliko ditiat eta; lagun bat etorri zaidak bidaian eta ez zeukaat zer eskaini”. Eman dezagun, besteak barrutik erantzuten diola: “Utz nazak bakean! Atea itxia zegok, eta haurrak eta neu oheratuak; ezin naitekek ematera jaiki”. Hau diotsuet: adiskidea duelako ez bada ere, aspergarri izan ez dakion behintzat, jaiki eta emango dio behar duena». Hau diotsuet, beraz: «Eskatu, eta emango dizue Jainkoak; bilatu, eta aurkituko duzue; jo atea, eta zabalduko dizue; eskatzen duenak hartu egiten baitu, bilatzen duenak aurkitu, eta atea jotzen duenari zabaldu egiten baitzaio. Zuetako norbaitek, aita izanik, semeak arraina eskatuta, sugea emango ote dio arrainaren

Urteko 17. astea

San Galaktario, *gotzaina eta martiria (Baionako elizbarrutian)*
 Maria Pilar Izquierdo Albero *dohatsua, birjina*

ordez? Edota arrautza eskatuta, eskorpioia emango ote dio? Beraz, zuek, gaiztoak izanik ere, zeuen seme-alabei gauza onak ematen baldin badakizue, zenbatez gehiago ez ote die zeruko zuen Aitak Espiritu Santua emango eskatzen diotenei!».

Jesusek Aitagana joatera animatzen gaitu, behin eta berriz otoitz eginez. Eta garrantzizko bi norabide aurkeztu dizkigu, eskaria era jatorrean egiteko. Gaurko ebanjelioaren bukaeran dio, Espiritu Santuari lehiati eskatzea da arazoa, hau da, arnasa, indarra, lagunartea, kontsolamendua, argia, esperantza, esker ona... bizitzako gorabehera guztietan, zeinetan askotan datozen bezala onartu besterik ez baitugu izango. Orobat irakasten dizkigu geure eskariaren eduki batzuk ere; Gure Aitan, adibidez. Horiek guztiek geure zeruertza eta begiradak zabaltzera behartzen gaituzte, txikiena eta hurbilena denetik irten eta handiena eta besarkatzaileenera iritsiz. Eskatzen dugu: munduaren, gizadiaren, partaide gaituen naturaren eta ogirik ez duten azkenekoen ongia. Eskatzen dugu: beraren Erreinua presente egin dadila gure artean eta beraren nahia joan dadila betetzen. Eta belaunika gaitetzela soilik beraren aurrean, eta ez esklabo bihurtzen gaituzten idolo hutsalen aurrean. Bihotz zabalez nola eskatu irakasten digu Jesusek; sentituz premian den familia bat bereko partaide garela, zeinez ardura baitu Aita onak. Bihotza zabalik, eta ez hesitua eta estutua; horra Jesusenarekin sintonizatzen duen bihotzaren zeinua.

Julian Plazaola (Donostia 1915), Lazaro Mujika
(Idiazabal 1867), Braulio Maria Corres (Torralba 1897),
dohatsuak, eta lagunak, erlijiosoak eta martiriak (1936),

Irteera liburutik 32, 15-24.30-34: Bekatu larria egin du herri honek, urrezko jainkoa eginez. **Sal 105:** Eskerrak Jaunari, ona baita.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13, 31-35.

Aldi hartan, parabola hau esan zion Jesusék jendeari: «Zeruetako erreinua gizon batek soroan ereiten duen mostaza-haziaren antzekoa da. Hazi guztietan txikiena da; baina, hazten denean, beste barazki guztiak baino handiago bihurtzen da eta zuhaitz egiten, txoriek etorri eta haren adarretan habiak egiteko moduko zuhaitza». Beste parabola hau ere esan zien: «Zeruetako erreinua legamiaren antzekoa da: emakume batek hiru lakari-irinetan nahasten du, eta ore guztia harrotzen da». Irakaspen hau guztia parabola bidez eman zion Jesusék jendeari, eta ez zien ezer irakasten parabola bidez izan ezik. Honela bete zen Jainkoak profetaren bidez esana: «Parabola bidez mintzatuko naiz, munduaren hasieratik gordea zegoena azalduko dut».

Mostaza-haziak gauza txikiaren indarra azaltzen digu. Txiki denak, ertzekoa denak, mespretxatua denak eman al dezake fruiturik, eralda al dezake errealitatea? Ez al da handia eta boteretsua bakarrik horrelakorik egin dezakeena? Jesus ertzeko gizona da, ezdeusetik eta periferiatik datorren Erreinua hots egiten digu; halere, bera dugu geroko esperantza. Erreinuak legamiaren indarra du, egundoko irinkantitatea harrotzen eta altxatzen du, hiru neurritaraino. Erreinua, bere ernetze txikian, errealitate mespretxagarri bezala ageri da, baina, legamiak oreka bezala, pertsonaren bihotza eta giza errealitate sozialak ukitzen ditu, erabat eraldatuz.

* *San Joan Jainkoaren ordenakoak*
San Pedro Poveda, apaiza, fundatzailea (Teresatar Institutioa) eta martiria
(1936)

Urteko 17. astea

Santa Marta, *Lazaroren arreba eta Mariaren ahizpa*

Irteera liburutik 33, 7-11; 34, 5b-9.28: Jaunak aurrez aurre hitz egiten zuen Moisesekin. **Sal 102:** Bihozbera eta errukiorra da Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 11, 19-27.

Aldi hartan, judu asko etorri zen Marta eta Mariagana, nebarengatik doluminak ematera. Marta, Jesus zetorrela entzun orduko, bidera atera zitzaion; Maria, berriz, etxean gelditu zen. Martak esan zion Jesusi: «Jauna, hemen izan bazina, gure neba ez zen hilko. Hala ere, badakit eskatuko diozun guztia emango dizula Jainkoak». Jesusek erantzun zion: «Piztuko da zure neba». Eta Martak: «Badakit piztuko dela azken egunean, hildakoen piztuerakoan». Jesusek esan zion orduan: «Ni naiz piztuera eta bizia; nigan sinesten duena, hilik ere, biziko da, eta bizi dena, nigan sinesten badu, ez da betiko hilko. Sinesten al duzu hori?». Martak erantzun zion: «Bai, Jauna, sinesten dut Zu Mesias zarena, Jainkoaren Semea, mundura etortzekoa zena».

Martarekin egin duen elkarriketan begi-bistan geratu da emakume horrek Jesusez sentitzen duen txera eta bere Jaunagan duen fedea, adiskidetasuna eta adorazioa. Adiskidetasunak elkarrekiko estimua eragiten du, baita maite duen pertsonarekiko gustua ere, baita ametsak eta esperantzak partekatze gogoa ere, erlazio horizontal emankorrean. Adorazioak konfiantza sakon bat izatera eragiten du, nork bere burua Jainkoaren eskuetan jartzera, Jainkoari begirunea agertzera bizitzako eta historiako edozein zertzeladatan, erlazio batean zeinetan Jainkoaren aginpide osoa aitortzen baita. Jesusekiko adiskidetasuna eta Jaunarekiko adorazioa bata bestearekin joan ohi dira Jesusen jarraitzaileen bizitzan. Orduan denak zentzu berri bat hartzen du eta bizitzako zeruertza betikotasunera hedatzen da.

Urteko 17. astea

San Pedro Krisologo, *gotzaina eta eliz irakaslea*.Braulio Corres *dohatsua eta lagunak, martiriak*Primo Martinez de San Vicente, *dohatsua. Martiria (Araba)*

Irteera liburutik 34, 29-35: Moisesek aurpegia distiratsu zuela ikusirik, beldur ziren harengana hurbiltzeko. **Sal 98:** Santua zara Jauna, gure Jainkoa!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13, 44-46.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Zeruetako erreinuarekin soroan ezkutatua dagoen altxorarekin bezala gertatzen da. Norbaitek, aurkitzen duelarik, berriro ezkutatu egiten du eta, pozaren pozez joan, dituen guztiak saldu eta soro hura erosten du. Era berean, zeruetako erreinuarekin, harri bitxi bila dabilen merkatariarekin bezala gertatzen da. Balio handiko bat aurkitzen duenean, joan, bere gauza guztiak saldu eta erosi egiten du».

Hainbeste izan ziren gerlak Israel herrian non ugari baitziren lurperatutako altxorren istorioak. Parabolako gizonak haietako bat aurkitu du, eta duen guztia saldu du lur-zati hura erosteko. Pozik dago gizona. Gauza bera gertatu zaio harribitxi finen erosleari, bere bizitzako harribitxia topatu duenean. Berak ere duen guztia saldu du hura erosteko. Erreinua bizi-grina bat da, barnetik betetzen du pertsona, sentiarazten dio beste guztiak ez duela ezer balio. Jainkoarekin adiskidetutako gizadi baten desioa, bere baitan eta kreazioarekin harmonia osoan bizi den desioa, hau da, Aitaren etxe komunean bakean bizitzeko guraria, Jesusen jarraitzailearen bizitza zentzuz eta pozez betetzen duena. Gainerako guztia ez da josteta huts bat baizik.

Urteko 17. astea

SAN IGNAZIO LOIOLAKOA, *apaiza, fundatzailea*
(Jesusen Lagundia) (Gipuzkoaren eta Bizkaiaren Zaindaria)

Irteera liburutik 40, 16-21.34-38: Lainoak estali zuen elkarketa-etxola eta Jaunaren aintzak bete zuen egoitza. **Sal 83:** Bai maitagarria zure egoitza, Jaun ahalguztiduna!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13, 47-53.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Zeruetako erreinuarekin itsasora bota eta mota guztietako arrainak biltzen dituen sarearekin bezala gertatzen da. Beterik dagoenean, bazterrera ateratzen dute eta, eseririk, onak saskira biltzen dituzte eta txarrak kanpora botatzen. Horrela gertatuko da munduaren azkenean: aingeruak etorri eta gaiztoak zintzoen artetik bereiziko dituzte eta su-labera botako. Han izango da negarra eta hortz-karraska!». Jesusek galdetu zien ikasleei: «Ulertu al duzue hau guztia?». «Bai», erantzun zioten. Eta Jesusek: «Beraz, zeruetako erreinuko ikasle egin den lege-maisua, bere altxorretik zaharrak eta berriak ateratzen dituen etxeko jaunaren antzekoa da». Jesusek, parabola hauek amaitu zituenean, alde egin zuen handik.

Arrantzaleek beren denbora behar izaten dute sareak aztertzeko. Saskietan biltzen dituzte jateko edo saltzeko diren arrainak, eta itsasora botatzen balio ez dutenak, bizirik jarrai dezaten. Honetan datza Erreinua: bizia eta zentzua ematen dizkigun hura astiro aukeratzean; aldi berean, alde batera uzten dugu tentagarri eta liluragarri duguna, baina hutsik dagoena, zabartzen eta desbideratzen gaituena. Jainkoaren bizira gidatzen gaituen ariketa hori gabe, egunero arretaz hautatze hori gabe, galdurik eta norabiderik gabe bukatzen dugu. Jaunak gidatzen gaitu aukera ona egitera: gehiena komeni zaiguna eta onik handiena egiten diguna, geuri eta munduari.

* * *

Urteko 17. astea

SAN IGNAZIO LOIOLAKOA, *apaiza, fundatzailea*
(*Jesusen Lagundia*) (*Gipuzkoaren eta Bizkaiaren Zaindaria*)

Loiolako San Ignazio: Meza berezia

Deuteronomio liburutik 30, 15-20.

Honela mintzatu zitzaion Moises herriari: «Begira, bizia eta zoriona, heriotza eta zorigaitza jartzen dizkizut gaur aurrean. Aditzen badituzu gaur nik ematen dizkizudan Jaunaren zeure Jainkoaren aginduak, Jauna zeure Jainkoa maitatuz, haren bidean ibiliz eta haren agindu, lege eta erabakiak betez, biziko zara eta ugarituko eta bedeinkatuko zaitu Jaunak zeure Jainkoak, jabetzan hartzera zoazen lurraldean. Baina zure bihotza okertzen bada, aditzen ez baduzu eta jainko arrotzen aurrean ahuspeztu eta haiek gurtzeko tentazioari amore ematen badiozu, gaur iragartzen dizut erabat hondatuko zarela, eta ez duzula luzaro iraungo, Jordanez beste aldean jabetzan hartzera zoazen lurraldean. Zeru-lurrak deitzen ditut gaur zure aurka testigu: bizia eta heriotza, bedeinkazioa eta madarikazioa jartzen dizkizut aurrean. Zuk eta zure ondorengoez bizi nahi baduzue, aukera ezazu bizia, Jauna zeure Jainkoa maitatuz, haren esana adituz eta hari lotuz. Horretan dago zure bizia eta hortik datorkizu Jaunak zure guraso Abrahami, Isaaki eta Jakobi zin eginez agindutako lurraldean luzaro bizitzeko ahalbidea».

Sal 1: Bai dohatsu gau eta egun Jaunaren legea hausnartzen duena!

Paulo apostoluak 1 Korintoarrei 10, 31-11, 1.

Senideok: Nahiz jan, nahiz edan, nahiz beste edozer egiten duzuela, egizue dena Jainkoaren aintzarako. Ez izan erorbide, ez juduentzat, ez jentilentzat, ez Jainkoaren eliz elkartearentzat ere. Ni ere guztiei gauza guztietan atsegin ematen saiatzen naiz, eta ez dut bilatzen neure ona, besteena baizik, guztiak salba daitezen. Izan zaitezte nire antzeko, ni Kristoren antzeko naizen bezala.

Urteko 17. astea

SAN IGNAZIO LOIOLAKOA, *apaiza, fundatzailea*
(Jesusen Lagundia) (Gipuzkoaren eta Bizkaiaren Zaindaria)

Jesu Kristoren ebanjelioa San Lukasen liburutik 9, 18-26.

Jesus otoitzean bakarrik ari zela, ikasleak hurbildu zitzaizkion, eta Jesusek galdetu zien: «Nor naizela dio jendeak?». Haiek erantzun zioten: «Batzuek Joan Bataiatzailea zarela; beste batzuek Elias; besteek, berriz, antzinako profetaren bat piztu dela». Jesusek, orduan: «Eta zuek, nor naizela diozue?». Pedrok erantzun zion: «Jainkoaren Mesias». Jesusek inori ez esateko agindu zien zorrotz. Ete esan zien, gainera, ikasleei: «Gizonaren Semeak asko sufritu beharra du; zaharrek, apaizburuek eta lege-maisuek gaitzetsi egingo dute eta hil, baina hirugarren egunean piztuko da». Eta hau esan zien denei: «Nire ondoren etorri nahi duenak uko egin biezaio bere buruari, har beza eguneroko bere gurutzea eta jarrai biezat. Izan ere, bere bizia salbatu nahi duenak galdu egingo du; baina bere bizia Nigatik galtzen duenak salbatu egingo du». Zertako du gizakiak mundu guztia irabaztea, bere bizia galtzen eta hondatzen badu? Beraz, norbait Nitaz eta nire mezuaz lotsatzen bada, Gizonaren Semea ere lotsatu egingo da hartaz, bere aintzaz eta Aitaren eta aingeru santuen aintzaz beterik etorriko denean».

Ignaziok Jainkoaren aurrean sakonki ez-duin zela sentitu zuen. Oso gogoan zuen bere konbertsio aurretik egin zuen gaitza, eta Jainkoaren aurrean hauts eta errauts sentitu zen. Halaz guztiz, Jesusen deia jaso zuen bera maitatzeko eta berari zerbitzatzeko; horrek erabat eraldatu zuen Ignazioren bizitza. Jesusek dei egin ziola sumatu zuen, beraren lankide izatera beraren misioan, eta Ignaziok horri eman zion bere burua buru-belarri. Jainkoak maite zuela ere sentitu zuen Ignaziok hark egin zion bera zerbitzatzeko deian, eta bihotz zabal erantzun zion. Ignaziogana hurbildu den Jesus hori gizon pobre eta apal bat da, gurutzea darama, beronetan jarri ditu munduko oinaze eta sufrimenduak. Gurutze horretan Jesusekin bat egitera jo du Ignaziok: gaixoengan, oinazedunengan, zokoratuengan eta ahulengan. Gurutziltzatuarekin egin duen adiskidetasun horrek gizon berri bihurtu du Ignazio. Jadanik ez du nahi beretzat Jesusena baino zori hoberik,

Urteko 17. astea

SAN IGNAZIO LOIOLAKOA, *apaiza, fundatzailea*
(*Jesusen Lagundia*) (*Gipuzkoaren eta Bizkaiaren Zaindaria*)

bere egin du Jesusen txerazko eta errukizko misioa, gizon-emakume guztiengana iritsi nahi du, urrunenak badira ere. Une batean eztiki apartatu egin da, tarte bat utzi nahi dio Jaunari pertsona bakoitzarekin harremanetan jar dadin, Gogo Jardunen bidez. Ignaziok Jaunaren ukitua sentitu zuen eta horrek goitik behera eraldatu zuen beraren bizitza, gero eta gehiago maitatzera eta zerbitzatzera eramanez.

* * *

LOIOLAKO SEMEA GURE ZAINDARIA

R/-Loiolako semea gure zaindaria, entzun, arren, gure eskaria.
Jainkoaren aurrean izan zaitez gure lagun,
zerua irabazi dezagun.

1.-Iruñean zauriturik, Loiolan santutu,
Andre Mariaren bitartez zinen bihotz-berritu, santu handia,
zerutik iguzu lagun,
gure bihotzak berri ditzagun.-R/.

2.-Zure gazte bizitza bekataria zen,
eta gero santutasunaren mendira igo zinen.
Gure bihotzak zurekin jaso ditzagun,
Jaunaren aintza bila dezagun.-R/.

Sainkoagana
bide 
eginez
Gogo
Jardunen
 bidez

ABUZZTUA / DAGONILA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA

Elkarbizitzaren alde: Egin dezagun otoitz elkarbizitza zailagoa dutela gizarteak arrazoi etniko, politiko, erlijioso edo ideologikoen eraginez liskarretan sartzeko tentaldian eror ez daitezen.

Urteko 17. astea

San Alfontso Maria Ligorio, *gotzaina eta eliz irakaslea, fundatzailea (Erredentoristak)*

Lebitarraena liburutik 23, 1.4-11.15-16.27.34b-37: Jaunaren jaietan batzar santuak egingo dituzue. **Sal 80:** Egin pozez oihu laguntzaile dugun Jainkoari.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13, 54-58.

Aldi hartan, Jesus bere herrira joan zen eta irakasten ari zitzairen sinagogan. Jendeak, harriturik, zioen: «Nondik du honek horrelako jakinduria, eta nondik mirari horiek? Hau ez al da, ba, arotzaren semea? Honen amak ez al du izena Maria, eta honen anaiek Santiago, Jose, Simon eta Judas? Eta honen arrebak ez al dira gure artean bizi? Nondik du, beraz, honek hori guztia?». Eta ezin zuten sinetsi harengan. Jesusek esan zien: «Profetari edonon ematen diote ohore, bere herrian eta etxean izan ezik». Eta, haien sinesgogorkeriagatik, ez zuen han mirari askorik egin.

Nazareteko herritarrek Jesusez zuten eguneroko ezagutzak bista lausotzen zien. Ez ziren gai haren haurtzaroko bitxikerietatik eta bere aitaren alboan garatutako jardueretatik harago ezer ikusteko. Jesusen hurbiltasunean eta behartsu-izaeran ezin zuten inolako Jainkoaren presentziaren ezaugarriarik edo zeinurik antzeman. Alderantziz baizik, behartsu-izaera eta etxekotasun hori ziren hain zuzen ere, haiek nahasten zituztenak. Guri ere halako zerbait gerta dakiguke, alegia, gauza txikietan, umiletan eta gertukoetan azaltzen zaigun Jesus horrek egindako deiari entzungor egitea. Geure begirada garbitu eta geure bizitzan agertzen den Jainkoaren presentziaren misterio sakon eta soilaz txundituta gelditu beharrean gaude.

Aingeruen Andre Maria. San Eusebio Vercelli-koa, *gotzaina*
 San Pedro Julian Eymard, *apaiza, fundatzailea (Sakramentu*
Santuaren Apaizak). San Pedro Fabro, *apaiza, jesuita*

Lebitarrak liburutik 25, 1.8-17: Jubileu urtean, zuetako bakoitzak bere lurren jabetza berreskuratuko du. **Sal 66:** Ene Jainko, aipa zaitzatela herriek, aipa zaitzatela herri guztiek.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 14, 1-12.

Aldi hartan, Jesusen berri jakin zuen Herodes Galileako gobernariak, eta esan zien bere zerbitzariei: «Joan Bataiatzailea da! Hildakoen artetik piztu da, eta horregatik du mirariak egiteko ahalmen hori». Izan ere, Herodesek Joan harrapatu eta, loturik, kartzelan sartua zuen, Herodias zela eta. Herodesen anaia Filiporen emaztea zen Herodias. Joanez esaten zion Herodesi: «Ez zaizu zilegi emazte hori edukitzea». Herodesek hil egin nahi zuen, baina jendearen beldur zen, profetatzat baitzuten denek. Baina Herodesen urtebetetzean, Herodiasen alabak dantzan egin zuen guztien aurrean eta atsegin izan zitzaion Herodesi. Hargatik, eskatu ahala guztia emango ziola agindu zion neskatzari zin eginez. Neskatzak, bere amaren aholkuari jarraituz, esan zion Herodesi: «Emadazu oraintxe bertan Joan Bataiatzailearen burua azpilean». Goibel jarri zen erregea; baina mahaikideen aurrean egindako zinagatik, eskatua emateko agindu zuen, eta Joani lepoa moztu zioten kartzelan. Azpilean burua ekarri eta neskatzari eman zioten, eta neskatzak amari. Joanen ikasleek haren gorpua jasotzera etorri eta lur eman zioten; gero, Jesusi berri ematera joan ziren.

Izutu egiten du noski Joan Bataiatzailearen burua erretilu batean irudikatzeak, lehenik Herodiasen alabari emana eta gero haren bidez bere amari. Oroitzapen horrek jarraitu egiten zion eta jazarri egiten zuen Herodes, zeren ikusi egiten baitzuen, bizen artetik beste mundura bidalitako profeta haren ondareak, orain Jesusengan, Jainkoaren beste gizon berri batengan, jarraitu egiten zuela. Batzuetan pentsatzen dugu boteretsuak direla historia mugitzeko gaitasuna dutenak. Baina Herodes autokrata konbentzituaren adibide bikaina da eta uste dugu

Urteko 17. astea

Aingeruen Andre Maria. San Eusebio Vercelli-koa, *gotzaina*
San Pedro Julian Eymard, *apaiza, fundatzailea (Sakramentu*
Santuaren Apaizak). San Pedro Fabro, *apaiza, jesuita*

benetako gaitasun eraldatzailea ontasunak eta txikiek dutela. Bere ikarak salatzen du. Haiek ezin daitezke akabatu eta desagerrarazi eta Erreinuko indar diren heinean, itxuraz oso hauskorak izan arren, Jainkoaren etorkizuna geroz eta gehiago hurbiltzen dute historian. Aldian aldiko Herodestarren bortizkeriak inoiz ez ditu haiek desagerrarazten.

* * *

Jesuen eskuak

Gure oroitzapena orain Jesusen eskuen gainean ezarriko da, konfiantza eragiteko, afektua adierazteko, segurtasuna eskaintzeko, maitasuna emateko... gai diren eskuen gainean.

Esku irekiak, haurrak ferekatu eta bedetinkatzeko;
esku emanak, bide-bazterrean etzanik,
beren bideari jarraitu ezinik direnei laguntzeko;
esku sendatzaileak, gorputz zaurituak eta espiritu urratuak sendatzeko;
esku langileak, sareari tira egiteko edo zura moldeatzeko;
bidea seinalatzen eta aurrera eragiten duten eskuak,
bete-betera zaramatzaten eskuak.

Arren eskatzen dizugu: luzatu eta eman guztiei zeure eskua,
zure ukitua biziarazle izan dadin,
zure musuak eta besarkadak zure hurbiltasunaren jakitun egin gaitzaten.

Zu lagun izanik, gai izango gara geu ere geure anai-arrebengana hurbiltzeko.

Lagun iezaguzu geure eskua luzatzen premia dutenei.
Zure sostengua espero dugu.

Lagundu iezaguzu fedea gal ez dezagun
eta zure eskuak geure eskuak ukitzen senti ditzagun. Amen.

(Isabel Gómez Acebo)

Urteko 18. astea

San Pedro Osmakoa, *gotzaina*
Santa Lidia, *martiria*

Kohélet liburutik 1, 2; 2, 21-23.

Huskeria hutsa –dio Kohéletek–, huskeria hutsa, dena huskeria da. Izan ere, gertatu ohi da, batek buruz, egoki eta trebetasunez lan egin ondoren, ezer egin ez duenari dena utzi beharra. Hau ere huskeria da eta oker handia. Zer gelditzen zaio gizakiari eguzkipean egin duen hainbeste lan eta eginahaletatik? Egunero atsekabea besterik ez du, eta bere lanetan nekea; gauzez ere ez du atsedetik haren bihotzak. Hau ere huskeria da.

Sal 89: Jauna, gure ihesleku Zu izan zara gizalditik gizaldira.

San Paulok Kolosarrei 3, 1-5.9-11.

Senideok: Kristorekin berpiztu zaretenez gero, bila itzazue zeruko gauzak, han baitago Kristo, Jainkoaren eskuinaldean eserita. Irrika itzazue goiko gauzak, eta ez lurrekoak, hilik baitzaudete, eta zuen bizia Kristorekin dago Jainkoagan gordea. Kristo, zuen bizia, agertuko denean, zuek ere aintzatsu agertuko zarete harekin batean. Hilaraz itzazue, beraz, zeuen baitan mundu honen araberrak jarri: lizunkeria, lohikeria, irrisak eta grina txarrak eta idolatria den diru-gosea. Ez esan elkarri gezurrik, izaera zaharra eta honen araberrak jokabidea erantzi eta berria jantzi duzuen gero; izaki berri zarete, beraren egile den Jainkoaren irudira eraberrituz doana, ezaguera beteagora iristeko. Hor ez dago honezkero ez greziarrik eta ez judurik, ez erdandurik eta ez erdandurik, ez kulturadunik eta ez kulturagaberik, ez eskulaborik eta ez librerik, baizik eta Kristo da guztia, eta guztiengan bizi da.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12, 13-21.

Aldi hartan, jende arteko batek esan zion Jesusi: «Maisu, esaiozu nire anaiari senipartea nirekin erdibanatzeko». Jesusek erantzun

Urteko 18. astea

San Pedro Osmakoa, *gotzaina*Santa Lidia, *martiria*

zion: «Lagun, nork jarri nau Ni zuen artean epaile edota ondasunbanatzaile?». Eta jendeari esan zion: «Kontuz! Gorde zeuen burua diru-gosetik, ondasunek ez baitiote inori bizia segurtatzen, ugari izanda ere». Gero, parabola hau kontatu zien: «Gizon aberats bati lurak uzta handia eman zion. Eta honela hasi zen berekiko pentsatzen: “Zer egin, ez baitut uzta non jasorik”. Eta beretzat esan zuen: “Badakit zer egin: mandio zaharrak bota eta handiagoak egingo ditut eta haietan jasoko garia eta gainerakoak. Gero, esango diot neure buruari: “Ea, motel! Baduk hor gordeta urtetarako ondasunik aski; hartu atsedeen, jan, edan eta bizi ongi!”. Baina Jainkoak esan zion: “Burugabea halakoa! Gaur gauean bertan hil behar duk. Norentzat izango duk pilatu duana?”». Eta honela amaitu zuen Jesusek: «Horra zer gertatzen zaion, Jainkoarentzat aberats izan beharrean, ondasunak beretzat pilatzen dituenari».

Jesusek ebanjelio honetan irrikaren aurka ohartarazten gaitu. Beti gehiago edukitzeko grina da, arrazoizkoa edo beharrezkoa denaren gainetik, agian segurtasun-gurariet edota nabarmentzeko grinet eraginda. Irrika horrek senidetasunaren aurka jotzen du, beste batzuei berena dena kentzen baitie eta, gaur egun, ingurumena ere kolpatzen du, izan ere, ondasunak, munduaren sorkuntzatik geure onurarako soilik ateratzen baititugu. Gauzengatik larrituta eta itota bizi denarentzat jada ez dago beste ezer, ez beste gizakirik, ez eta Jainkorik. Aldiz, gauzak alde batera uzten dituenak, badu lekua pertsonak maitatzeko, txikienen zaintza burutzeko, emankorra eta eskuzabala izateko. Orduan, bizitza aberastu egiten da adiskideekin, harremanen eta kulturaren atseginarekin, otoitzarekin eta kontenplazioarekin. Jainkoaganako eta bere sorkari diren izakientzako grina izateak, bete egiten dute gainezka egin gabe. Eta benetan ez dugu bestelakorik behar, nahikoa dugu Jainkoaren Erreinua eta bere zuzentasuna bilatzea eta Jainkoagan konfiantza izatea, gaur arte bezala, gauza denetan bera oso-osorik emango zaigula sinesteko. Atxikitzen duguna galdu eta usteldu egiten zaigu geure inguruan; partekatzen dugunak elikatu eta eraldatu egiten du.

Urteko 18. astea

San Joan Maria Vianney, *Ars-eko apaiza*

Zenbakiak liburutik 11, 4b-15: Nik bakarrik ezin dut herri hau guztia eramane. Sal 80: Egin pozez oihu laguntzaile dugun Jainkoari.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 14, 13-21.

Aldi hartan, Joan Bataiatzailearen heriotzaren berri jakitean, Jesus leku bakarti batera joan zen bera bakarrik txalupaz. Baina ohartu zen jendea eta oinez jarraitu zion herrietatik. Txalupatik ateratzean, Jesusek jendetza handia ikusi zuen; erruki izan zituen eta gaixoak sendatu zizkien. Ilunabarrean, ikasleek hurbildu eta esan zioten: «Leku bakartia da hau eta orduak aurrera doaz. Bidal ezazu jendea, auzoetara joan eta jatekoa eros dezan». Jesusek esan zien: «Ez dute zertan joan; emaezue zeuok jaten». Haiek, orduan: «Ez dugu hemen bost ogi eta bi arrain besterik». Eta Jesusek: «Ekarri hona». Jendeari belar gainean esertzeko agindu ondoren, hartu zituen bost ogiak eta bi arrainak, eta, begiak zerurantz jatorik, bedeinkapen-otoitza egin, ogiak zatitu eta ikasleei eman zizkien, eta ikasleek jendeari. Asetzeraino jan zuten guztiek, eta gelditutako hondarrez hamabi saski bete bildu zuten. Bost mila gizon inguru ziren jan zutenak, emakumeak eta haurrak aparte.

Jesusen errukia inoiz ez da gelditzen kontenplazio edo enpatia-ariketa batera murriztuta, baizik eta zaintza-ekintza eraginkor moduan zabaltzen da. Ebanjelioko errukiak beti, zerbitzu eskuzabalera eramaten du. Jesusen ekintzak harritu egiten ditu bere ikasleak eta kontrapausuan harrapatzen ditu, izan ere, jendetzari hor konpon esan eta agurtzeko asmotan ziren. Baina Jesusek haien kargu egin daitezela nahi du, duten guztia-ekin, bost ogi eta bi arrain xume soilik izan arren. Erakustaldi honek garbi azaltzen du, dena emateak, ugaritasunaren mirariari atea irekitzen diola. Jesusen keinuak, eukaristiakoak argi eta garbi, –ogia hartu, bedeinkatu, zatitu eta banatu– pentsarazi egiten dute, gure Eukaristia, Jesusek gose zen jendetza hari, gosea asetzen duen ogiaren beharrean zen hari, ematen zizkion arima betetzen duten otorduen oroigarria dela.

Urteko 18. astea

Andre Mariaren Eliza Sagaratzea, Erroman

Andre Maria Zuria Gasteizen. Elurretako Andre Maria

Zenbakiak liburutik 12, 1-13: Moises ez da gainerako profetak bezalakoa: nolaz ausartu zarete haren kontra gaizki esatera? **Sal 50:** Erruki, Jauna, bekatu egin dugu eta.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 14, 22-36.

Jendea ase ondoren, ontzian sarrarazi zituen Jesusek bere ikasleak eta bere aurretik bestaldera joateko agindu zien, berak jendeari agur egin bitartean. Jendea bidali eta gero, mendira igo zen Jesus bera bakarrik, otoitz egitera. Ilundu zuenean, han zegoen bakarrik. Txalupa, ordurako, lehorretik urruti zihoan, olatuek astindua, haizea kontra baitzuen. Goizaldera, Jesus haiengana joan zen, ur gainean oinez. Ikasleak, ur gainean ibiltzen ikusi zutenean, ikaratu egin ziren, mamuren bat zelakoan, eta beldurraren beldurrez deiadarka hasi ziren. Baina Jesus berehala mintzatu zitzaien: «Izan bihotz! Ni naiz; ez beldur izan!». Orduan Pedrok esan zion: «Jauna, benetan Zu bazara, agindu iezadazu ur gainean zuregana joateko». Jesusek erantzun: «Zatoz!». Pedro ontzitik jaitsi eta Jesusengana abiatu zen, ur gainean oinez. Baina, haizearen indarra nabaritzean, beldurra sartu zitzaion eta, urperatzen hasi zelarik, deiadar egin zuen: «Jauna, salba nazazu!». Berehala Jesusek eskua eman eta heldu zion, esanez: «Sinesmen txikiko hori! Zergatik izan duzu zalantza?». Ontzira igo zirenean, haizea gelditu egin zen. Eta ontzian zeudenak Jesusen aurrean ahuspez jarri ziren, esanez: «Egiaz Jainkoaren Semea zara Zu!». Itsasoa igaro ondoren, Genesareten iritsi ziren lehorra. Bertakoek, Jesus ezagutu zutenean, inguruko lurralde guztian zabaldu zuten berria, eta gaixo guztiak eraman zizkioten. Soineko-ertza bederen ukitzen uzteko eskatzen zioten, eta ukitzen zuten guztiak sendaturik gelditzen ziren.

Ikasleak larri ari dira arraunean itsaso zakarraren erdian. Bakarrik eta hauskor sentitzen dira Erreinuaren asmoak beren asmo bihurtzeko borrokan: besteekiko kezka, norberaren gauza guztiak beste batzuen

Urteko 18. astea

Andre Mariaren Eliza Sagaratztea, Erroman
 Andre Maria Zuria Gasteizen. Elurretako Andre Maria

onerako ematea, morroi baliogabe balira bezala banatzen jardutea. Baina Jaunak menderatzen du egoera eta hura ez dute erasaten aurkako haizeek eta olatuek, hura sendotasun osoz dabil bizitzako gertakari eta egoera guztien aurrean, beti ere bere bakea zabalduz: «izan adorea, ni naiz, ez izan beldurrik». Berarengan konfiantza izanik, gu ere gai izango gara bizitzako zailtasunen aurrean aise ibiltzeko, geure beldur eta traben gainetik Erreinuko bizitzarako eman beharreko jauzia emateko, haren ahotsak eta haren aholkuek soil-soilik gidatuta. Orduan, ikasleak bezalaxe, arinduak eta lasaituak sentituko gara, haizea baretu eta bakea itzulita.

* * *

Elurretako Andre Maria

Zakarias 2, 1-13: Poztu zaitez, Siongo alaba, banatorkizu-eta!
Apokalipsia 21, 1-5a: Jerusalem berria ikusi nuen, bere senargaiarentzat apaindutako andregai bezala. **Salmoa: Judit 13:** Zugar du gure herriak bere edertasuna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11, 27-28.

Aldi hartan, Jesus gauza hauek jendeari esaten ari zela, emakume batek jendartetik deiadarka esan zuen: «Zorionekoa sabelean eraman zintuen eta bularra eman zizun emakumea!». Baina Jesusek esan zuen: «Hobeki esan, zorionekoak Jainkoaren hitza entzuten eta betetzen dutenak.

AAndre Maria Zuriaren omenezko ospakizunak oso aspalditik datoz, Gasteiz hiriburuko zaindari izendatu baino askoz lehenagotik. 1883. urte arte, iraileko lehen astean egiten ziren ospakizunak, «Gasteizko Jaiak» izenpean. 1884. urtean, abuztuaren hasi ziren ospatzen, era ofizialean, Ama Zuriaren omenez. Elurretako Andre Maria izena ere ematen zaio. Azkenean, abuztuaren 5ean finkatu zen haren festaburua egutegi liturgikoan.

Urteko 18. astea

JAUNAREN ANTZALDATZEASan Justo eta San Pastor, *anaiak, martiriak***Danielen Profezia liburutik 7, 9-10.13-14.**

Begira nengoela, tronu batzuk jarri zituzten eta gizon zahar bat eseri zen. Haren soinekoa elurra bezain zuri, buruko ilea artilea bezain garbi! Haren aulkia eta gurpilak, sugar kiskalgarri! Suzko ibaia ateratzen zen haren aurretik. Jendetza izugarria zuen zerbitzari, milaka eta milaka zeuden haren aurrean zutik. Auzia hasi eta zabaldu ziren liburuak. Neure gau-ikuskarian, gizaseme antzeko bat ikusi nuen zeruko hodeietan etortzen. Gizon zaharragana hurbildu zenean, beroni aurkeztu zioten. Agintea, aintza eta erregetza eman zioten: herri, nazio eta hizkuntza guztietako jendeak zerbitzatzen zuen. Haren agintea betierekoa, ez da inoiz bukatuko; haren erregetza ez da inoiz hondatuko.

Sal 96: Errege da Jauna, Goi-goikoa, lur guztiaren gainetik!**San Pedroken 2. gutunetik 1, 16-19.**

Senide maiteok: Jesu Kristo gure Jauna ahalmenez etorriko den egunaz hitz egin genizuenean, ez ginen oinarritu irudipenezko ipuinetan, geure esperientzian baizik, geure begiz ikusi baikenuen haren handitasuna. Jesusek bere Aita Jainkoagandik hartu zituen ohorea eta aintza, hau esan baitzion Jainkoaren aintza bikainetik etorritako mintzoak: «Hau da nire Semea, nire maite honengan dut neure atsegina». Guk geuk entzun genuen zerutik etorritako mintzo hori, berarekin mendi santuan ginela. Badugu profeten hitza ere, hitz guztiz sendoa, eta zuek ederki egiten duzue hitz horri adi-adi egonez: toki ilunean argi egiten duen kriseilua bezala da zuentzat, eguna zabaldu eta goizeko izarra zuen bihotzean jaiki arte.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9, 28b-36.

Aldi hartan, hartu zituen Jesusek berekin Pedro, Santiago eta Joan, eta mendira igo zen otoitz egitera. Otoitzean ari zela, aurpegiko itxura

aldatu zitzaion, eta jantzia zuri distiratsu bihurtu. Hartan, bi gizon agertu ziren, Moises eta Elias, aintzaz distiratsu Jesusekin hizketan; Jerusalemen gertatzekoa zen Jesusen heriotzaz mintzo ziren. Pedro eta lagunak logurak jota zeuden; baina esnatu ziren eta Jesusen aintza eta harekin zeuden bi gizonak ikusi zituzten. Hauek urruntzen ari zirela, Pedrok esan zion Jesusi: «Maisu, bai ederki gaudela hemen! Egin ditzagun hiru txabola: bata zuretzat, bestea Moisesentzat eta bestea Eliasentzat». Ez zekien zer esaten zuen ere. Hau esaten ari zela, hodei batek estali zituen, eta hodeian sartzean beldurtu egin ziren. Ahots bat atera zen hodeitik, esanez: «Hauxe da nire Semea, nire Aukeratua. Entzuiozue». Ahotsa isiltzean, Jesus bakarrik ageri zen. Ikasleek isilik gorde zuten, eta egun haietan ez zioten inori esan ikusitakorik ezer.

Ebanjelio sinoptikoek duten kontaketa-lerroetako batek Jesusen nortasunaz galdetzen du: nor da profeta ibiltaria, erlijio-agintariak erasotua, denekin abegitsu eta errukitsu den gizon hori? Galdera horrek bere ikasleak ere harrapatzen ditu. Alde batetik, badakite nor den; izan ere, berarekin bizitzeak ezagutzeko bidea ematen die; baina, bestetik, berarekiko egirik sakonena ez dute ezagutzen. Han, mendian, otoitzean ari zen bitartean, Pedro, Santiago eta Joani ezagutzera eman zitzaien Jesusen azken misterioa. Lainoak hartuta, Jainkoaren giroan murgilduta sentitu zituzten beren buruak eta hantxe entzun zuten Aitaren ahotsa esaten, Jesus bere Seme aukeratua zela eta entzun egin behar ziotela. Guri ere, errealitateak, historiak eraginda, gurekin bizi diren pertsonak, hain eguneroko bihurtzen zaizkigu, arrunt eta hutsaltzat har ditzakegula. Baina sakonagora jota, haiengan dagoen Jainkoaren ildo antzematera hel gaitezke, beren izaera hautatu eta sagaratu, Jainkoa bizi den lur garbia, zeinetatik baitario Jainkoaren profetak dakarkigun bizi berria. Orduan, agian, ikasleek bezalaxe, han goian gelditu nahi izango dugu, baina Jainkoaren bizia eguneroko eta benetako bizitzaren errai bihurrietan bilatzen jarraitzera deituak gaude.

Urteko 18. astea

San Sixto II.a, *aita santua* eta lagunak, *martiriak*
 San Kaetano, *apaiza (teatinoen fundatzailea)**

Zenbakiak liburutik 20, 1-13: Ur-parrasta atera zen. **Sal 94:** Entzungo ahal duzue gaur Jaunaren mintzoa: «Ez gogortu zeuen bihotza».

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 16, 13-23.

Aldi hartan, Jesusek, Filiporen Zesareara iritsi zenean, galdera hau egin zien ikasleei: «Gizonaren Semea nor dela dio jendeak?». Haiek erantzun: «Batzuek Joan Bataiatzailea dela; beste batzuek Elias; besteek Jeremias edo profetaren bat». Jesusek, orduan: «Eta zuek, nor naizela diozue?». Simon Pedrok erantzun zuen: «Zu Mesias zara, Jainko biziaren Semea». Orduan, Jesusek esan zion: «Zorionekoa zu, Simon, Jonasen semea, hori ez baitizu hezur-mamizko inork agertu, zeruko nire Aitak baizik. Eta hau diotsut Nik: Zu Pedro zara —harkaitza—; harkaitz horren gainean eraikiko dut Nik neure Eliza, eta Herioaren indarrak ez zaizkio nagusituko. Zeruetako erreinuko giltzak emango dizkizut: zuk mundu honetan lotua, zeruan ere lotua geldituko da, eta zuk mundu honetan askatua, zeruan ere askatua». Orduan, bera Mesias zela inori ez esateko agindu zien Jesusek ikasleei. Une hartatik hasi zen Jesus ikasleei azaltzen beharrezko zela bera Jerusalemera igotzea, eta han asko sufritu beharra zuela apaizburuen eta lege-maisuen aldetik; hil egingo zutela eta hiru egunen buruan piztuko zela. Orduan, Pedro, Jesus aparte harturik, gogor egiten hasi zitzaion: «Inola ere ez, Jauna! Ez zaizu horrelakorik gertatuko!». Baina Jesusek, itzulirik, esan zion Pedrori: «Alde nire ondotik, Satanas! Oztopo zara niretzat, zure asmoak ez baitira Jainkoarenak, gizakiarenak baizik».

Jesusek lehenik, bere ikasleei galdetzen die bere buruaz jendeak zer esaten duen. Erantzunak oso lausoak dira, profetetako bat dela uste dutela, Jeremias, Elias edo Joan. Jesusek gehiago eskatzen die eta berek

* Santa Kandida Maria Jesusena (Andoain 1845-Salamanca 1912), *birjina, fundatzailea (Jesusen Alabak)*

Urteko 18. astea

San Sixto II.a, *aita santua* eta lagunak, *martiriak*
 San Kaetano, *apaiza (teatinoen fundatzailea)**

zer pentsatzen duten galdetzen die. Orduan erantzun zorrotzagoa eman beharrean daude. Eta Jesusek haiei bezalaxe, guri ere guretzat bera zer den galdetzen digu eta orduan erantzuna estuago eman beharrean gaude. Pedro bezalaxe, geure barne-muinetan hausnartu beharrean gaude sentitzen duguna aitortzeko. Pedrok esan zuena, borborka irten zen haren bihotzaren sakon-sakonetik. Eta zer erantzungo diot nik gaur Jesusi niretzat bera zein den galdetzen didanean? Gero, noski, dohain eta zeregin den erantzun horren arabera bizi izateko bide luzea geldituko zait egiteko.

* * *

«Denok salbatzen ez bagara, ez da inortxo ere salbatuko: horretaz kontzientzia hartu beharra daukagu» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 137).

* Santa Kandida Maria Jesusena (Andoain 1845-Salamanca 1912), *birjina, fundatzailea (Jesusen Alabak)*

Urteko 18. astea

Domingo santua, Guzmangoa, *apaiza, fundatzailea*
(*Domingotarrak*). *Trebiñu Konderrian jaia*

Deuteronomio liburutik 4, 32-40: Zure arbasoak maite izan zituen, eta haien ondorengoak aukeratu. **Sal 76:** Gogoan ditut, Jauna, zure egintza handiak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 16, 24-28.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Nire ondoren etorri nahi duenak uko egin biezaio bere buruari, har beza bere gurutzea eta jarrai biezat. Izan ere, bere bizia gorde nahi duenak galdu egingo du; bere bizia negatik galtzen duenak, ordea, eskuratu egingo du. Zertako du gizakiak mundu guztia irabaztea, bere bizia galtzen badu? Eta zer eman dezake gizakiak berriro bizia eskuratzeko? Izan ere, Gizonaren Semea bere Aitaren aintzaz beterik etorriko da aingeruekin, eta orduan bakoitzari bere jokabidearen arabera ordainduko dio. Egia diotsuet: hemen direnetako batzuk ez dira hilko, Gizonaren Semea errege bezala etortzen ikusi arte».

Bizitzan zehar alferrikako hainbat ahalegin egiten ditugu, nabarmentzeko eta besteen aitortza jasotzeko eta botere eta estatus-postuak lortzeko, baina ez gara konturatzen antsietatea eta hutsunea baino ez dugula bilduko. Horien atzetik ibilita, galduta amaituko dugu; izan ere, nork bere egoa edo harropuzkeria gizentzeak, zentzugabekeriara soilik eramaten du. Jesusek bizitzako gurutzeak geure gain hartzea eskatzen digu, geureak eta besteenak, errazago jasateko, arintzeko eta besteei laguntzeko. Bizitza soil eta zerbitzuko egiteak, gainerakoen beharrekiko adi egonda egiten denak eta beste batzuek hornitzeko eta aberasteko prest denak, alaitasun berria eta asmo berriak ematen dizkigu. Eta orduan hasten gara sumatzen, Jesusek eskaintzen digun bidea luzea dela, baina bide horrek badituela bakearen eta alaitasunaren funtsezko osagaiak.

Urteko 18. astea

Gurutzeko Santa Teresa Benedikta (Edith Stein), *erlijiosa eta martiria, Europaren Zaindaria*

Oseasen Profezia liburutik 2, 16b.17b.21-22.

Honela mintzo da Jauna: «Basamortura eramango dut Nik neure herria eta bihotzera hitz egingo diot. Han bere gaztaroen bezala erantzungo dit, Egiptotik igo zenean bezala. Neure emazte egingo zaitut betiko; neure emazte egingo justiziaz eta zuzenbidez, maitasunez eta errukiz. Leialtasunez egingo zaitut neure emazte, eta zuk ezagutuko duzu Jauna».

Sal 44: Badator senargaiak; irten zakizkiote bidera!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 25, 1-13.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Zeruetako erreinuarekin, beren kriseiluak eskuetan hartu eta senargaiari bidera irten zitzaizkion hamar neskatzekin bezala gertatzen da. Neskatzetako bost zentzugabeak ziren eta bost zentzudunak. Kriseiluak hartzean, zentzugabeek ez zuten oliorik hartu; zentzudunek, ordea, kriseiluekin batera olioia ere hartu zuten ontzietan. Senargaiak luzatzen zenez, logaletu egin ziren denak eta loak hartu zituen. Gauerdian oihu bat entzun zen: “Badator senargaiak; irten zakizkiote bidera!”. Jaiki ziren neskata guztiak, eta beren kriseiluak prestatu zituzten. Orduan, zentzugabeek esan zieten zentzudunei: “Emaguzue olio-pixka bat, kriseiluak itzaltzen ari zaizkigu eta”. Zentzudunek erantzun zieten: “Ea ez dugun nahikoa geuretzat eta zuentzat; hobe duzue, badaezpada, dendara joan eta erosi”. Baina, eroatera joanak zirelarik, senargaiak iritsi zen, eta prest zirenak ezteietara sartu ziren harekin. Eta atea itxi zuten. Iritsi ziren, azkenik, beste neskatzak ere eta dei egin zuten: “Jauna, Jauna, ireki!”. Baina hark erantzun zien: “Benetan diotsuet, ez dakit nor zareten”. Egon, beraz, erne, ez baitakizue, ez eguna, ez ordua».

Urteko 18. astea

Gurutzeko Santa Teresa Benedikta (Edith Stein), *erlijiosa eta martiria, Europaren Zaindaria*

Gauaren erdian beharrezkoa gertatzen da fedearen eta itxaropenarenugarra piztuta mantentzea, iluntasun orok bere zentzugabekeria aldarrikatzen duela dirudienean. Sugar horrek bizirik dirau otoitzean eta karitatearen jardunean nahiz giza adiskidetasunean eta ez zaio axola inguruan nolako inguruabarrak diren. Lehentxeago edo geroxeago, beste denboraldi bat hasiko da eta fede argitsu horrek bere distira osoa iritsiko du. Edith Stein-ek egiaren bila oso burugogor jardunez zaindu zuen bereugarra eta Kristorengana bideratu zuen. Gero, nazismoaren aurkako sugarrari eta zaurituen zerbitzuari eutsi zien, harik eta 1942an, Auschwitzeko gas-ganbarek heriotzan murgilduta ito zuten arte; eta orduan, senargaiak leizetik erreskatatu zuen argitasun osora eramanez.

Jakinduria liburutik 18, 6-9.

Aldez aurretik eman zitzaien gure arbasoei pazko-gauaren berri, sinetsi zituzten promesak, sendoak zirela ikustean, adore izan zezaten. Zintzoentzat salbamen eta etsaientzat hondamendi izan zen gau haren zain egon zen zure herria. Izan ere, egintza bat beraz gure etsaiak zigortu zenituen eta gu ohorez bete gintuzun, Zeuregana deituz. Zintzoen seme-alaba fededunek sakrifizioak eskaintzen zituzten ezkutuan, eta denek, aho batez, lege santu hau ezarri zuten: aldi onetan nahiz txarretan elkarturik egongo zirela zintzoak. Eta orduan jadanik, kantatzen zituzten arbasoen gorazarreak.

Sal 32: Bai dohatsu Jaunak bere oinorde hautatu duen herria.

Hebrearrei egindako gutunetik 11, 1-2.8-19.

Senideok: Itxaroten dugunaren oinarria da sinesmena, ikusten ez direnen frogak. Sinesmenagatik onetsi zituen Jainkoak gure arbasoak. Sinesmenari esker, Abraham, Jainkoaren deiari erantzunez, ondaretzat hartu behar zuen lurraldera abiatu zen, nora zihoan jakin gabe. Sinesmenaren indarrez atzerritar gisa bizi izan zen agindutako lurraldean; oihal-etxoletan bizi izan zen, Jainkoaren agintzari bera hartu zuten Isaak eta Jakob bezalaxe; eta hori, oinarri sendoa duen hiria, arkitekto eta egile Jainkoa bera duen hiria, itxaron zuelako. Sinesmenari esker hartu zuen ondorengoa ekartzeko indarra, bere emazte Sara agorra izan eta berak ere sasoia joana zuen arren, agintzaria egin ziona fidagarria zela sinetsi baitzuen. Horrela, gizon bakarragandik –eta berau horretarako hilik zegoela–, ondorengoak sortu ziren, zeruko izarrak bezain ugari eta itsasbazterreko hondarrak bezain kontaezin. Horiek guztiak Jainkoak hitzemandako ondasunak eskuratu gabe hil ziren; baina sinesmenenaren argian urrutira ikusi eta agurtu egin zituzten, horrela lur honetan errones eta arrotz

Urteko 19. astea

San Lorenzo, *diakonoa eta martiria*

zirela aitortuz; izan ere, honela mintzo direnek garbi adierazten dute aberriaren bila dabilzala. Utzi zuten lurraldea gogoan izan balute, izango zuten egokiera hara itzultzeko. Baina lur hobia zuten irrika, zerukoa. Horregatik, Jainkoak ez du «haien Jainko» deitua izateko lotsarik, hiri bat ere prestatu baitzien. Sinesmenari esker opari eskaini zuen Abrahamek Isaak, Jainkoak probatu zuenean. Bera, agintzariak hartu zituen, prest zegoen bere seme bakarra eskaintzeko, nahiz eta seme horretaz esana zion Jainkoak: «Isaaken bidez izango dituzu ondorengoak». Uste bizia zuen Abrahamek Jainkoa gai dela hildakoak pizteko ere; horregatik, semea berreskuratzea Jainkoaren ahalmenaren ezaugarri gertatu zitzaion.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12, 32-48.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez beldur izan, ene artaldetxo hori, gogoko izan baitu zuen Aitak erreinua zuei ematea. Saldu zeuen ondasunak eta eman limosna. Pila itzazue zeruan hondatuko ez diren ondasunak, huts egingo ez dizuen altxorra, hara ez baita lapurrik hurbiltzen, ezta ere han sitsak jaten. Zeren, zuen altxorra non, zuen bihotza han. Zaudete prest, jantziak loturik eta kriseiluak pizturik; izan zaitezte nagusia etzeietatik noiz itzuliko zain dauden morroiak bezalakoak, iritsi eta atea jo bezain laster irekitzeko prest dauden morroiak bezalakoak. Zorionekoak morroi horiek, nagusiak, iristean, zain aurkitzen baditu! Egia diotsuet: arropak aldaturik, mahaian eseraraziko ditu eta zerbitzatzen hasiko zaie. Eta gauerdian nahiz goizaldean badator eta horrela aurkitzen baditu, zorionekoak haiek! Hartu gogoan hau: etxeko nagusiak, lapurra zein ordutan etorriko den jakingo balu, ez luke etxea zulatzen utziko. Egon prest zuek ere, gutxien uste duzuen orduan etorriko baita Gizonaren Semea». Pedrok galdetu zion: «Jauna, guretzat ala denentzat esan duzu parabola hau?» Jaunak erantzun: «Izan zaitezte etxezain leiala eta zentzuduna bezalakoak, nagusiak, bere orduan behar den janaria

banatzeko, morroien buru ipini duena bezalakoak. Zorionekoa morroi hori, nagusiak, iristean, agindua egiten aurkitzen badu! Benetan diotsuet: bere ondasun guztien buru ipiniko du. Baina morroia, nagusiak luzatuko duelakoan, morroi-lagunak eta neskameak jotzen eta jan-edanean eta mozkerian hasten bada, gutxien espero duen egunean eta gutxien uste duen orduan etorriko zaio nagusia, gogor zigortuko du eta desleialek merezi dutena emango dio. Nagusiaren nahia zein den jakin arren, gauzak hark nahi bezala eratzen edo egiten ez dituen morroiak zigor gogorra izango du; nagusiaren nahia zein den jakin gabe, zigorra merezi duen zerbait egiten duenak, berriz, biguna. Askok eman zitzaionari, asko eskatuko zaio; eta askoren kargua eman zitzaionari, are kontu handiagoa eskatuko».

Garai presakoak bizi ditugu, dena abiadura handian gertatzen da eta ezinegonak asaldatuta mantentzen gaitu. Jesusen hitzek, ordea, itxarotera eta erne egotera gonbidatzen gaituzte. Berak, Erreinuko zeinuei arreta jartzeaz hitz egiten digu eta haien aurrerakadaz pazientzia izatera, aberastasunei eta ondasunei lotuta ez bizitzea, konfiantza, iraunkortasuna, zerbitzu isila..., bezalako bertuteak lantzeraz. Ez dirudi noski jarrera horiek, dena bat-batean eskuratzen ohitutako gaur egungo gure gizarteko balioekin oso bat datozenik, Baina bat-batekotasun hori merkataritza-arloan soilik egiaztatzen da eta ez gizatasunaren arloan. Pertsonok astiro-astiro hazten gara, ikasi ere neke handiz ikasten dugu erorikoen eta bizitzak ematen dizkigun ikasgaien ondoren; izan ere, gauza baliotsuek, beti dute garatze-prozesu luzea, horrek gaur egun, antzinako edo zimurtutako ikasgai-itxura izan arren. Parabolako morroiak bezala erne egotea, bizi-modu eta estilo soil eta neurritsuan irautea da, ahaztuekiko zerbitzari izanez, denekin eskuzabal jokatzuz, adiskidetsu eta hurbileko bezala portatuz, laguntzen gaituen Jainkoaren dohainean sustraituta eta hari erantzunez. Egun batean ikusiko dugu noski Jaunak nola hartzen gaituen beso-zabalik halakoak izanda, seme-alaba zoriontsu moduan bereganatuz.

Urteko 19. astea
Santa Klara, *birjina*

Deuteronomio liburutik 10, 12-22: Ezarri ituna zeuen bihotzean. Maita ezazu etorkina, zuek ere etorkin izan baitzineten. **Sal 147:** Jerusalem, ospe ezazu Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 17, 22-27.

Aldi hartan, Galilean zehar zebiltzala, esan zien Jesusek ikasleei: «Gizonaren Semea gizakien eskuetara emango dute; hil egingo dute, baina hirugarren egunean piztu egingo da». Ikasleak oso nahigabeturik gelditu ziren. Kafarnaumera iritsi zirenean, tenplurako zerga biltzen zutenek Pedrorengana joan eta esan zioten: «Zuen Maisuak ez al du tenplurako zerga ordaintzen?». «Bai», erantzun zien. Pedro etxeratu zenean, Jesusek aurea hartu zion, esanez: «Zer deritzozu, Simon? Munduko erregeek zeinengandik hartzen dituzte zergak edo kontribuzioak, etxekoengandik ala arrotzengandik?». Pedrok erantzun zion: «Arrotzengandik». Jesusek, orduan: «Etxekoak libre daude, beraz. Halaz guztiz ere, inori zeresanik ez emateko, zoaz itsasora, bota amua eta hartu lehenengo aterako duzun arraina; ireki iezaiozu ahoa, eta biren zerga ordaintzeko dirua aurkituko duzu. Hartu eta ordaindu zeuri eta bioi dagokiguna».

Hogei urte baino gehiagoko gizonezko judu guztiek bi drakma ordaindu behar zituzten tenpluaren mantentze-gastuetarako. Drakma batek egun bateko soldataren balioa zuen garai hartan eta Jesusek eta Pedrok ez zuten halako diru kopururik. Are gehiago, Jesusek ez zuen sinesten semeek ordaindu beharra zutenik, aita batek ez baitie bere semeei ezer kobratzen; beraz, semeak, bere iritiz salbuetsita zeuden. Jesusek azpimarratu egiten du Jainkoaren semeen duintasuna, harekiko ez baitago mendekotasunik; aita on batek ez ditu behartzen bere semeak. Aita onak, askatasunerantz irekitzen ditu bideak eta gonbidatu eta onartu egiten ditu semeak. Heldutasun-garaiko aita-seme arteko harremanetan, doako komunikazioa egoten da, ez ezarpena, horrela soilik sortzen baita maitasunean, eta ez beldurrean, oinarritutako harremana. Horrelakoa izan behar du noski gure Aita Jainkoarekiko harremanak.

Urteko 19. astea

Santa Joana Frantziska Chantalekoa, *erlijiosa, fundatzailea*
Salesko Frantziskorekin batean (Ahizpa Bisitarien Ordena)

Deuteronomio liburutik 31, 1-8: Josue, izan bihotz eta adore; zeuk sarraraziko duzu herria Jaunak agindutako lurraldera. **Salmo: Dt 32:** Israel bere herritzat aukeratu zuen Jaunak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18, 1-5.10.12-14.

Une hartan, hurbildu zitzaizkion ikasleak Jesusi eta galdetu zioten: «Nor da handiena zeruetako erreinuan?». Jesusek, haurtxo bati deitu, haien artean jarri eta esan zien: «Benetan diotsuet: Aldatu eta haurren antzeko bihurtzen ez bazarete, ez zarete sartuko zeruetako erreinuan. Beraz, bere burua haur honen antzera apaltzen duena, hori da zeruetako erreinuan handiena. Eta honelako haur bat nire izenean onartzen duenak Ni onartzen nau. Kontuz! Ez dezazuela txiki hauetako inor gutxietsi! Zeren, egia esan, hauen aingeruak zeruko nire Aitaren aurpegia ikusten ari baitira etengabe zeruan. Zer deritozozue? Gizon batek ehun ardi baldin baditu eta bat galtzen bazaio, ez al da laurogeita hemeretziak mendian utzi eta galdutakoaren bila joango? Eta aurkitzen badu, benetan diotsuet, poz handiagoa izango du bakar harengatik, galdu ez diren laurogeita hemeretziengatik baino. Era berean, zeruko zuen Aitak ez du nahi txiki hauetako bat ere galtzerik».

Jesusen begietan, umeek metatzen dituzte zeruetako Erreinuan sartzeko beharrezkoak diren jarrerak: gurasoen fidatzen dira, bizitzaz alaitu egiten dira, gauza berrien aurrean harridura eta miresmena azaltzen dituzte, lagunkoiak eta jostariak dira eta ezinezkorik ezer ikusten ez dutenen lehen uneko xalotasun hori dute, mundu gizatar eta zuzenagoaren eraikuntza barne. Jesusek ume bat jartzen du ikasleen erdian. Ume hauskor bat, gure kristau-idealik gorenak bezain hauskorra, baina haiek bezalaxe arreta eta ardura merezi dituen. Jesusek dei egiten digu gure kristau bizitzan txikia, xaloa eta koxkorra dena babestera, geure ardura ezdeusei eta zaurgarriari zabalduz. Horrela soilik irekiko dugu geure burua Erreinurako.

San Pontziano, 18. *Aita Santua*, eta San Hipolito, *apaiza, martiriak*. Felipe Jesusena Munarriz (Allo 1875-Barbastro 1936), *klaretarra, dohatsua*, eta lagunak, *martiriak*

Deuteronomio liburutik 34, 1-12: Han hil zen Moises, Jaunak esan bezala. Ordudanik, ez da sortu Israelen Moises bezalako profetarik.
Sal 65: Bedeinkatua Jainkoa, bizirik baitigu eutsi.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18, 15-20.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zure senideak bekatu egiten badu zure aurka, zoaz beragana eta zentzarazi bakarrean. Jaramon egiten badizu, irabazia duzu senidea. Jaramonik egiten ez badizu, berriz, har itzazu zeurekin lagun bat edo bi, auzia bi edo hiru lekukoren aitortpenaz erabaki behar da eta. Hauei ere jaramonik egiten ez badie, esaiozu elkarteari, eta elkarteari ere jaramonik egin nahi ez badio, izan bedi zuretzat jentil edo zergalari baten pareko. Benetan diotsuet: zuek mundu honetan lotua, zeruan ere lotua geldituko da, eta zuek mundu honetan askatua, zeruan ere askatua. Beste hau ere badiotsuet: zuetako bik elkar hartzen badute mundu honetan Jainkoari zerbait eskatzeko, emango die zeruko nire Aitak. Izan ere, nire izenean bizpahiru lagun bilduak dauden tokian, han naiz Ni haien artean».

Jesusek argibideak ematen ditu kristau-elkartearen barruan sortutako gatazkak tratatzeko, norbaitek elkarbizitzako arauak hausten dituenarako. Lehenik, gatazkari sustraitik heltzea proposatzen du, pertsonari laguntzeko helburu bakarrarekin eta hori pribatuan egitea, izen ona mehatxatuta gelditzen ez den tokian eta bakoitzaren egia biluzia aurrez aurre topatuko dugun lekuan. Geroago soilik, gaia larria baldin bada eta erreakziorik ez bada, elkarreak parte hartu beharko du. Ez da erraza okerrak zuzentzea, izan ere, askotan, estutasunaren edo eramanezinaren adierazle izaten baitira, geure inkoherentziak eta akatsak ere modu zaurgarrian bistan geldituz. Zuzenketa, tupust egin duenarekiko eta horrek kaltetu dituenekiko karitatean soilik sustrai daiteke. Eta horrek asmo-garbitasuna eta bereizmen-ariketa eskatzen ditu. Maitasunak soilik jartzen ditu gauzak kolokan.

Josue liburutik 3, 7-10a.11.13-17: Jaunaren itun-kutxa zuen aurretik igaroko da Jordan ibaian zehar. **Sal 113 A:** Aleluia.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18, 21-19, 1.

Aldi hartan, hurbildu zitzaion Pedro Jesusi eta galdetu zion: «Jauna, nire senideak bidegabekeriaren bat egiten badit, zenbat aldiz barkatu behar diot? Zazpi aldiz?». Jesusek erantzun zion: «Zazpi aldiz ez, baizik eta zazpitan zazpi mila aldiz. Hain zuzen, bere morroiekin kontuak garbitu nahi izan zituen erregearekin bezala gertatzen da zeruetako erreinuarekin. Kontuak garbitzen hastean, dirutza izugarria zor zion bat ekarri zioten. Eta nondik ordaindurik ez baitzuen, bera eta emaztea, seme-alabak eta zituen guztiak saltzeko agindu zuen nagusiak, zorra ordaintzeko. Morroiak, orduan, nagusiaren oinetan ahuspezturik, arren eta arren esaten zion: “Emadazu astia eta dena ordainduko dizut”. Nagusiak, errukiturik, dena barkatu eta libre utzi zuen morroia. Baina morroi hark berak, atera orduko, diru apur bat zor zion bere morroi-lagunarekin topo egin zuen, eta, lepotik heldu eta ito beharrean, esan zion: “Ordain iezadak zor didaana”. Lagunak, oinetan ahuspezturik, arren eta arren esaten zion: “Emadak astia eta dena ordainduko diat”. Baina besteak ezetz, eta joan eta kartzelan sartu zuen, zorra ordaindu arte. Beste morroiak, gertatua ikusirik, bizi atsekabetu ziren, eta nagusiagana joan eta gertatuaren berri eman zioten. Orduan, nagusiak morroiari deitu eta esan zion: “Morroi gaizto hori! Horrenbesteko zorra barkatu diat nik, eskatu didaalko; ez al zen bidezkoa hi ere heure morroi-lagunaz errukitzea, ni hitaz errukitu nintzen bezala?”. Eta nagusiak, haserre bizian, borreroen esku utzi zuen, zor guztia ordaindu arte. Zuei ere gauza bera egingo dizue zeruko nire Aitak, senideok elkarri bihotzez barkatzen ez badiozue». Hitzaldi hau bukatu zuenean, Galileatik alde egin eta Judeako mugetan sartu zen Jesus, Jordanez bestaldera igaroz.

Urteko 19. astea

San Maximiliano Maria Kolbe, *apaiza eta martiria*,
kaputxinoa

Bizitzan zehar itsuskeriak, mespretxuak, zuzengabekeriak edo erasoak jasotzen ditugu. Lehentxeago edo geroxeago iritsi egiten dira, saihestezinak baitira elkarbizitzaren baitan. Batzuetan ez-ulertuetatik edo eramanezinetatik sortzen dira; ez zaio axola, barru-barruan egiten digute kalte eta denbora luzez odola darien zauriak uzten dizkigute. Erresuminak gorde eta mendeku hartuz erantzun dezakegu, hori da errazena; edota barkamenari bidea irekiz eta hori da zailena. Barkamena Jainkoaren dohaina da eta giza jarreraren ahalegin isila. Gorrotoak jan egiten gaitu, inoiz ez gara gustura gelditzen; barkamenak, itxuraz koldar-izaerakoa izan arren, baretu eta gizatartu egiten du. Bene-benetan ausartek soilik onar dezakete barkamena. Barkamena bakearen Jainkoaren lana da, bere salbamena erasotuen zauritutako bihotza lehengoratuz hasten dena. Barkamenetik soilik erneko da itxaron dugun gizarte berria.

* * *



Altzo Muino. Erretaula.

Apokalipsia liburutik 11, 19a; 12, 1.3-6a.10ab.

Ireki zen Jainkoaren santutegia zeruan eta haren itun-kutxa agertu zen santutegian. Seinale handia agertu zen zeruan: emakume bat eguzkiz jantzia, ilargia oinazpian eta hamabi izarreko koroa buruan. Haurdun zegoen eta, erdimenez eta haurgintzako oinazez, garrasika ari zen. Beste seinale bat ere agertu zen zeruan: herensuge gorri handi bat, zazpi buru eta hamar adar zituena, eta buruetan koroa bana. Bere isatsez zeruko izarren herena arrastaka hartu eta lurrera jaurti zuen. Herensugea, haurra izateko zegoen emakumearen aurrean gelditu zen, jaio orduko semea irensteko. Emakumeak semea izan zuen, herri guztiak burdinazko makilaz gobernatuko dituen; hartu zuten semea eta Jainkoaren tronuraino eraman zuten. Emakumeak, berriz, basamortura egin zuen ihes; han leku bat prestatua zion Jainkoak. Orduan, ahots handia entzun nuen zeruan esaten: «Orain etorri dira gure Jainkoaren salbamena, indarra eta erregetza, eta beraren Mesiasen agintea».

Sal 44: Zure eskuinean dago erregina, urre finez apaindua.

Paulok 1 Korintoarrei 15, 20-27a.

Senideok: Piztu da Kristo hilen artetik, heriotzatik piztuko direnetan lehen-fruitu. Izan ere, heriotza gizon baten bidez etorri zen bezala, gizon baten bidez etorri da hildakoen piztuera ere. Eta Adamekin duten elkartasunagatik gizaki guztiak hiltzen diren bezala, Kristorekin duten elkartasunagatik guztiak itzuliko dira bizira. Baina bakoitza bere garaian: lehenengo Kristo, lehen-fruitua denez; gero, Kristorenak, hau berriro etortzean. Gero, azkena izango da, Kristok, Jainkoaren kontrako nagusitza, aginte eta indar guztiak ezereztu ondoren, Jainko Aitari erreinua emango dionean. Kristok errege izan behar baitu, Jainkoak etsai guztiak haren oinazpian ipini arte. Azkena

ezereztuko den etsaia heriotza izango da. Izan ere, «gauza guztiak haren menpean jarri ditu Jainkoak».

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 39-56.

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen, Judeako herri batera, eta, Zakariasen etxean sarturik, Elisabeti agur egin zion. Mariaren agurra entzun zuen orduko, jauzi egin zion Elisabeti haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen, eta esan zuen oihu handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nor naiz ni, nire Jaunaren ama ni ikustera etortzeko? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, Jaunak esan dizuna beteko dela sinetsi duzulako!». Mariak esan zuen: «Handiesten du nire arimak Jauna, pozaren pozez daukat neure barrua, Jainkoa baita nire salbamena, ikusi baitu mirabe honen ezereztasuna. Horregatik, dohatsu deituko naute gaurdanik gizaldi guztiek, handiak egin baitizkit Ahalguztidunak; santua da haren izena, eta haren errukia gizaldiz gizaldi begirune diotenengana. Bere besoaren indarra erabili du, buru-harroak suntsitu ditu; bota ditu beren aulkietatik ahaltsuak, eta gora jaso ditu ezerezak; ondasunez bete ditu gose zeudenak eta esku-hutsik bidali aberatsak. Lagun etorri zaio bere morroi Israeli, bere errukiaz oroiturik; hala zien gure gurasoei hitzemana, Abrahami eta ondorengoei betiko esana». Mariak hiru hilabete inguru egin zuen Elisabetekin; gero, etxera itzuli zen.

Ospakizun hau oso maitekorra da eta hainbat eta hainbat herri eta hirietako jaiak biziartzten ditu abuztuaren erdian, uzta osatzean. Maria, Elizan, Jainkoaren emakume-aurrepegiaren adierazlea da, bere gozotasunarena, abegikortasunarena eta txerarena, baldintzarik gabeko bere maitasunarena. Maria, ama. Maria jada Jainkoagan dago; berez benetan, beti egona da Jainkoaren orbitan. Gizaki guztiok bezala, bera ere Jainkoaren dohaina da, haren oparia. Baina gainera, Mariak

baietza eman zion bere sabelean Salbatzailearen misterioa onartzeko aingeruak egindako gonbitari eta erabaki horrek noski kezkek eta sufrimenduak izatera eramane zuten. Bera Jesusen jarraitzaile izan zen eta gurutzeraino lagundu zion Jesusi, beretarrek bakarrik eta urrunduta utzi eta hil ez zedin. Mariak halaber, bere barnean gorde zituen bere semearen amets berberak: Jaunak, bihotzez harro direnak sakabanatzen ditu, boteretsuak aulkietatik erorrarazten eta umilak goratzen, gose direnak ondasunez betetzen eta aberatsak esku-hutsik bidaltzen. Maria Jainkoarena zen eta Jainkoagana itzuli zen, zerura jasoa izan zen, jada Jainkoaren orbitan dago, guri aurea hartuz, guk ere egun batean Aitarekin berak duen aurrez aurrekotasuna izan dezagun. Berak ama moduan hartuko gaitu eta zeruko ateak irekiko dizkigu.

Urteko 19. astea

San Esteban Hungariakoa, *erregea*San Roke, *martiria*

Josue liburutik 24, 14-29: Aukera ezazue gaur zein zerbitzatu. Sal 15:
Zu zara, Jauna, nire ondarea.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 19, 13-15.

Aldi hartan, haurrak eraman zizkioten Jesusi, haien gainean eskuak ezarri eta otoitz egin zezan; ikasleek, ordea, haserre egiten zieten. Jesusek esan zien: «Utzi haurrei nigana etortzen, ez galarazi, horrelakoena baita zeruetako erreinua». Eta, haurrei eskuak gainean ezarri ondoren, joan egin zen handik.

Jesusi gustatu egiten zitzaion umeekin egotea eta umeak ere oso gustura egoten ziren berarekin. Oraingoan ez dizkiote gaixoak edo eriak eramaten, ez eta deabruak hartuak ere, umeak baizik, berak bedeinka ditzan, eskuak jar diezazkien eta beren alde otoitz egin dezan. Baina ikasleek aldendu egin nahi dituzte, enbarazu egingo balute legez. Ez dute ezer ulertu; Jesusentzat, ume haien xalotasunak, garbitasunak, alaitasunak eta ilusioak, Erreinuko jarrerez hitz egiten dute; hain zuzen ere, desengainuan hainbat aldiz murgilduta eta ongiak gaizkiaren aurrean itxuraz amore eman izanaren historian nahastuta gabiltzan helduok hain erraz ahazten ditugunez. Indarrean jarraitzen du umeak Jesusengana eramateko xedeak, hura ezagut dezaten eta beraren eta umeen arteko harreman atseginaren bitartez, ume horien bizitzak helduen jarraipena ere ekar dezan.

Jeremias profetaren liburutik 38, 4-6.8-10.

Egun haietan, buruzagiek esan zioten erregeari: «Jeremias honek bizia zor du! Bere hitzez, herrian gelditzen diren gudariak eta herritar guztiak adoregabetu besterik ez du egiten. Ez da ari herriaren onerako, kalterako baizik». Sedekias erregeak erantzun zien: «Zeuen esku duzue! Erregeak ez dezake ezer zuen aurka». Hartu zuten, beraz, Jeremias eta errege-familiako Melkias printzearen putzuan sartu zuten, sokaz jaitsiz. Putzua kartzelako atarian zegoen eta ez zuen urik, lokatza baizik. Jeremias lokatzetan sarturik gelditu zen. Ebed-Melek jauregitik erregeagana joan zen eta esan zion: «Errege jauna, gaizki jokatu dute gizon horiek Jeremias profetarekin; putzura bota dute, eta goseak hilko da bertan, ez baitago ogirik hirian». Orduan, agindu hau eman zion erregeak Ebed-Melek etiopiarrari: «Hartu zeurekin hiru gizon eta atera Jeremias profeta putzutik, hil baino lehen».

Sal 39: Jauna, zatokit azkar laguntzera!

Hebrearrei egindako gutunetik 12, 1-4.

Senideok: Hainbat eta hainbat testiguz inguratutik gaudenez gero, utz dezagun oztopo zaigun guztia eta inguratzen gaituen bekatua, eta ekin diezaiogun etsi gabe aurrean dugun lasterketari. Jar ditzagun begiak sinesmenaren iturri eta betetzailer dugun Jesusengan. Honek ere, itxaro zuen zorionagatik, gurutzean hiltzea onartu zuen, heriotza lotsagarria zela kontuan hartu gabe, eta orain Jainkoaren tronuaren eskuinaldean eserita dago. Izan ezazue, bada, gogoan bekatarien aldetik halako erasoaldia eramane zuen hura, adorea galdu eta etsi ez dezazuen. Oraindik ez zarete bizia galtzeraino iritsi bekatuaren aurkako zeuen borrokan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12, 49-53.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Lurrean sua jartzera etorri naiz, eta nahiago nuke dagoeneko sutan balego! Heriotza-urean

Urteko 20. astea

Santa Beatriz Silvako, *fundatzailea*

(Kontzepzionista Frantziskotarrak)

San Eusebio, *aita santua*

murgildu behar dut, eta hau larria hori bete arte! Munduari bakea ekartzera etorri naizela uste al duzue? Bakea ez, banaketa baizik. Zeren hemendik aurrera, etxe bateko bost senideak banaturik egongo baitira: hiru biren kontra eta bi hiruren kontra; aita semearen aurka eta semea aitaren aurka, ama alabaren aurka eta alaba amaren aurka, amaginarreba errainaren aurka eta erraina amaginarrebaren aurka».

Jesus, ebanjelioko pasarte honetan, sutsu eta zatitzaille moduan agertzen zaigu. Bere Erreinuaren mezua errotikoa da, erradikala, ez erdizkakoa edota konpontze bidekoa, irmoa eta zorrotza baizik, erabakigarria bizi-aukera irmo baten aurrean. Egiak eta zuzentasunak beren bidea egiten dute gezurraren eta ustiapenaren erdian, aitzak haragian zehar bezala. Maitasunak, barkamenak eta zerbitzuak, bortizkeriarekin, gorrotoarekin edota ustelkeriarekin izan litekeen edozein konpromiso hausten dute. Errukiaren eta gupidaren Erreinu, jasangaitz, haserre eta suminduta agertzen da zuzengabekeriaren aurrean. Eta horretaz hitz egiten digu Jesusek, zenbat eta kaltegarriagoa izan testuinguru bat gizakiarentzat, orduan eta gogorrago altxatuko da Erreinuaren erantzuna eta bere mezua gehiago nabarmenduko da. Benetako sua izango da erantzuna, sareak sutuko dituen eta kateak hautsiko dituen mailua. Errotikoa pertsona-arloan, heriotza-jokabideak azaleratzen dituen argia gizarte-arloan, politikoki zuzena denaren hizkera dantzan jartzen duen ahotsa. Horrek zalantzan jartzen du hain zabalduta dagoen ebanjeliaren ikuspegi gezatua, kristaibizitza gizarte-kontrolaren legepean jartzen duena, bere zentzua bigundu eta karikatura bihurtzen duena. Erreinuak ez du uzten bere burua otzantzen; bere aurpegirik garbiena agertzen du errealitatea giza bizitzaren eta duintasunaren aurka jartzen denean.

Epaileak liburutik 2, 11-19: Jaunak buruzagiak sorrarazi zituen, baina israeldarrek ez zieten kasurik egin buruzagiei ere. **Sal 105:** Oroitu gutaz, Jauna, zeure herriaganako onginalagatik.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 19, 16-22.

Aldi hartan, gazte batek Jesusengana hurbildu eta esan zion: «Maisu, zer onik egin behar dut betiko bizia eskuratzeko?». Jesusek erantzun zion: «Zergatik galdetzen didazu onari buruz? Jainkoa bakarrik da ona. Betiko bizian sartu nahi baduzu, bete aginduak». Hark, berriz: «Zein agindu?». Eta Jesusek: «Ez hil inor, ez egin adulteriorik, ez ostu, ez egin gezurrezko testigantzarik, hartu aintzat aita-amak, eta maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala». Gazteak, orduan: «Hori guztia bete dut; zer falta dut oraindik?». Jesusek erantzun zion: «Gutiz ona izan nahi baduzu, zoaz, saldu zeure ondasunak eta eman behartsuei, eta altxorra izango duzu zeruan; gero, zatoz eta jarraitu niri. Hitz hauek entzutean, nahigabeturik joan zen gaztea, ondasun handien jabe baitzen.

Jesusengana hurbiltzen den gazteak zerbait falta duela sentitzen du. Zerbait gehiago nahi du eta ez da konformatzen den bezalakoa izatearekin, jakin bai baitaki bere bizia urrunago eta aurrerago joan daitekeela, eta horregatik jotzen du Nazaretoko profetarengana, hark argi dezan. Jesusek eskertu dio gizon hari bere balioa eta jarrai diezaion baldintzak aipatu dizkio; horregatik eskaini dio bere bizitza ibiltaria; baina hori egin aurretik, aberastasun moduan dituen kargak atzean utzi beharko ditu. Alabaina, horrek gainditu egiten du gizon on haren prestutasuna eta goibeldurik urruntzen da. Gauzei eta loturei itsatsita, askatasuna eta alaitasuna dakartzan Erreinu beti berria galtzeko arriskua daukagu, eta bitartean ziurtasun zaharren eta konpromiso hutsalen bidesari gogaikarrien artean galduta gelditzen gara. Orduan, bizia makaldu egiten da hoztasunaren eta goibeltasunaren artean.

Epaileak liburutik 6, 11-24a: Gedeon, aska ezazu Israel. Nik bidaltzen zaitut! **Sal 84:** Jaunak bakea agintzen dio bere herriari.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 19, 23-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Benetan diotsuet: aberatsa nekez sartuko da zeruetako erreinuan. Berririo diotsuet: jostoratzaren begitik gamelua igarotzea errazago, aberatsa Jainkoaren erreinuan sartzea baino». Hitzok entzutean, ikasleek, zeharo harriturik, honela zioten: «Nor salba daiteke, orduan?». Jesusek begira-begira jarri eta esan zien: «Gizakiarentzat ezinezkoa da hori, baina Jainkoak dena dezake». Orduan, Pedrok esan zion: «Hara, guk dena utzi dugu, Zuri jarraitzeko. Zer izango da guretzat?». Jesusek erantzun zien: «Benetan diotsuet: Jainkoak mundu hau eraberritzean eta Gizonaren Semea bere aintzazko tronuan esertzean, zuek ere, nire jarraitzaileok, hamabi tronutan eseriko zarete, Israelgo hamabi leinuak epaitzeko. Eta nigatik etxea, senideak, aita, ama, seme-alabak edota lurrak uzten dituenak, ehun halako hartuko du eta betiko bizia jasoko ondare. Orain lehenengo diren asko azkeneko izango dira, eta orain azkeneko direnak lehenengo».

Erreinura sartzeko sarrerako ateak ez ditu uzten sartzen ego puztuak eta harroputzak, ez eta lotura-kargak dituzten motxilak. Ate hori, arin dabilenak soilik zeharka dezake, ohore, botere eta ondasunak alde batera utzi dituenak. Erreinuan, senidetasunaren, elkartasunaren eta partekatzearen bidezidorrean aurrera egiten duena soilik bizi daiteke, giza duintasun komunaren aitortza egiten duena, alferrikako edo hutsala den ezeri atxikitzen ez zaionaren askatasuna duena. Pertsonak bere bizimodua Erreinuaren antzirudiko egiten duenean, berak ezer eduki gabe, dena biderkatu zaiola antzematen hasten da, familian eta lagunartean, doan gainera, eta bere bizia eskertza eta goresmen kantu bihurtzen zaio. Hala bizi izan zen Jesus eta hala bizi dira bere jarraitzaileak.

Epaileak liburutik 9, 6-15: Erregea nahi dugu agintari, esaten ari zarete, Jauna errege duzuelarik. **Sal 20:** Jauna, zure indarraz pozten da erregea.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 20, 1-16.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Zeruetako erreinuarekin mahasti-nagusiarekin bezala gertatzen da. Goizean goiz bere mahastirako langile bila atera zen. Egunekeo lansaria zilarrezko txanpon batean hizketatu ondoren, mahastira bidali zituen langileak. Goizeko bederatziak aldera berriro atera zen eta, beste batzuk plazan lanerako zain ikusirik, esan zien: “Zoazte zuek ere nire mahastira eta ordainduko dizuet bidezko dena”. Eta haiek ere joan ziren. Atera zen berriro hamabiak aldera eta hirurak aldera, eta gauza bera egin zuen. Arratsaldeko bostak aldera ere atera zen eta, beste batzuk oraindik gelditi aurkiturik, esan zien: “Zertan zaudete hemen egun osoan lanik egin gabe?”. Haiek erantzun zioten: “Ez gaitu inork hartu lanerako”. Hark, orduan: “Zoazte zuek ere nire mahastira”. Iluntzean mahasti-nagusiak esan zion arduradunari: “Deitu langileei, eta emaitza bakoitzari bere soldata, azkenekoetatik hasi eta lehenengoetara”. Etorri ziren, bada, arratsaldeko bostetakoak, eta zilarrezko txanpon bana hartu zuten. Lehenengo ordukoek, txanda iritsi zitzaizenean, besteek baino gehiago hartuko zutela uste zuten; baina haiek ere zilarrezko txanpon bana hartu zuten. Orduan, nagusiaren kontra gaizki esaka hasi ziren, eta esan zioten: “Azkeneko hauek ez dute ordubete besterik lan egin, eta gurekin berdindu dituzu, egun osoko nekea eta beroa jasan dugunok”. Baina nagusiak erantzun zion haietako bati: “Adiskide, ez dizut bidegabekeriari ekiten. Ez al ginen zilarrezko txanpon batean hizketatu? Tori dagokizuna eta zoaz. Zuri bezainbat eman nahi diot azkeneko honi ere. Ezin ote dut neure diruaz nahi dudana egin? Ala inbidia duzu, ni ona naizelako?”. Horrela, bada, azkenekoak lehenengo izango dira eta lehenengoak azkeneko».

Urteko 20. astea

San Bernardo, *abadea eta eliz irakaslea*San Samuel, *Israelen epailea eta profeta*

Parabola honek txundituta uzten gaitu: hori al da kontratatzaile zuzena izatea? Eguzkiaren irteeratik sarrera arte lan egin dutenei eta ia ezer egin ez dutenei berdin ordaintzea? Ez al zuten bada gehiago merezi lehenengoek? Jesusek, Jainkoaren zuzentasuna karitatean ainguratuta eta finkatuta dagoela jartzen du agerian. Denek jasotzen dute denario bana, egun bateko soldata, bizi izateko behar dutena. Ez ote da ba hori benetan zuzena dena? Denei behar dutena iristea da gakoa, ez merituen matematika-kalkuluak egitea. Gure bizitzan dena doan jasotzen dugu, beste batzuen lanaren gainean bermatzen dugu geure burua, geure familien lanaren gainean, historiako hainbat eta hainbat gizakik egindakoaren gainean. Eskaintzen dugun doakotasunak bakarrik erantzuten dio zuzentasunez Jainkoagandik hartzen dugun eta gure bizitzaren sostengu den doakotasunari.

* * *

«Bestea aurkitzea ezinezkoa da sustraiak non bota ez badaukagu, oinak hortxe ongi errotuta soilik jaso baitezaket besteak opari emana, eta nik ere hortxe eman baitiezaioket besteari egiazkoa den zerbait» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 143).

Urteko 20. astea

San Pio X.a, 257. *aita santua*.San Bonoso eta San Masimiano, *martiriak*

Epaileak liburutik 11, 29-39a: Ongietorria egitera etxetik aterako zaidan lehenengoa Jaunarentzat izango da eta erre-opari eskainiko diot. **Sal 39:** Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egin dezadan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 22, 1-14.

Aldi hartan, Jesusek berriro parabola bidez hitz egin zien apaizburuei eta herriko zaharrei: «Zeruetako erreinuarekin bere semearen ezteiak ospatu zituen erregearekin bezala gertatzen da. Bidali zituen morroiak gonbidatuei dei egitera, baina haiek ez zuten etorri nahi izan. Berriro beste morroi batzuk bidali zituen mandatu honekin: “Esaiezue gonbidatuei: Hara, gertu daukat bazkaria; hilak ditut zezenak eta zekor gizenduak, prest dago dena. Zatozte ezteietara”. Baina gonbidatuek ez zioten jaramonik egin: bata bere lurretara joan zen, bestea bere negozioetara eta gainerakoek, morroiei heldurik, irainez bete eta hil egin zituzten. Haserretu zen erregea eta, bere soldaduak bidaliz, hil egin zituen hiltzaile haiek, eta su eman haien herriari. Gero, bere morroiei esan zien: “Ezteiak prest daude, baina gonbidatuak ez ziren gai. Zoazte, bada, bidegurutzeetara eta deitu ezteietara aurkitu ahala guztiak”. Atera ziren morroiak bideetara eta aurkitutako guztiak bildu zituzten, on nahiz gaizto. Eztei-gela bazkaltiarrez bete zen. Erregeak, bazkaltiak ikustera sartu zenean, eztei-jantzirik gabe zegoen bat ikusi eta esan zion: “Adiskide, nolatan sartu zara hona eztei-jantzirik gabe?”. Hark hitzik ez. Erregeak mahai-zerbitzariari esan zien, orduan: “Esku-oinak lotu eta bota ezazue kanpora, ilunpera; han izango da negarra eta hortz-karraska!”. Zeren gehiago baitira deituak, aukeratuak baino».

Israelen historian zehar, Yahvek profetak bidali zizkion bere herriari eta bere semearen ezteietan parte hartzera gonbidatu zuen, erreinuko oturuntzan alegia. Baina onartzetik urrun, bidaliak ezabatu zituzten, batzuk kolpatuta, beste batzuk aintzat hartu gabe eta

Urteko 20. astea

San Pio X.a, 257. *aita santua*.

San Bonoso eta San Masimiano, *martiriak*

beste batzuk erailda. Denbora amaitzean, bere gonbita berritu egin zuen, denei irekita, baita bideetan galdutakoei eta desbideratuei ere. Orain, han bildu dira denak, onak eta gaiztoak eta karitatearen eta zuzentasunaren fruituekin janzteia soilik eskatzen zaie, errukiaren eta bakearen Erreinuko maitasun horren mailan egon daitezen. Jesus izan da beraganako bidea ireki diguna.

* * *

Fanatiko eta fundamentalisten alde

Ertzak elkartzen trebea
Bazekien itzalak argiarekin lotzen
eta distira ilunpearekin.
Eskua eman eta ondoren ezetz esan zezakeen;
edo amorrutik irribarrera igaro.
Gorrototik huts zen Gizona,
gaitzespen zuzenetrako gai.
Erruki, tolerantzia eta baldintzen profeta.

Begira Gizonari, gizaki eta jainkoen epaileok.
Begira ondo, zuen itsutasunaz jabetzeko
eta betaurreko eta erraiak aldatzeko.
Ormaren bestaldean argia dagoela ikusiko duzue.
Nahita itsu direnek ez dute begiratu nahi.
Ze ebanjelio eskainiko diote munduari,
sutara botatzen baitituzte
zuen tribukoak ez diren pertsonak?

(Patxi Loidi)

Urteko 20. astea

Andre Maria Birjina Erregina

San Fabrizio eta Filiberto, *martiriak*

Andre Mariaren MEZA: Isaias 9, 2-4.6-7. Sal 112, 1-2.3-4.5-6.7-8.
Jesu Kristoren Ebanjelioa Lukasen liburutik 1, 26-38.

Rut liburuaren hasiera 1, 1.3-6.14b-16.22: Itzuli zen Noemi Rutekin,
bere errain moabdarrekin, eta Betleemera iritsi ziren. Sal 145:
Goretsazu Jauna, ene barrena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 22, 34-40.

Aldi hartan, Jesusek saduzearrak hitzik gabe utzi zituela jakitean, elkarrekin bildu ziren fariseuak, eta haien arteko lege-gizon batek azpikeriaz galdetu zion Jesusi: «Maisu, zein da legeko agindurik nagusiena?». Jesusek erantzun: «“Maita ezazu Jauna zeure Jainkoa bihotz-bihotzez, gogo osoz eta adimen gutiz”. Hau da agindurik nagusiena eta lehena. Eta bigarrena horren parekoa da: “Maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala”. Bi agindu hauetan oinarritzen dira Liburu Santu guztiak».

Jesusen garaian zeuden bete beharreko arau kontaezin haiek, hein batean azaltzen dute hainbeste lege-maisu egotea, gertakarien eta salbuespenen arloetan benetako aditu zirenak. Ez da batere harrigarria haietako batek Jesusi agindu nagusia zein zen galdetzea eta hori betebeharrak eta salbuespenen labirinto baten konplexutasunari dagokio. Baina Maisuak ez du inolako zalantzarik erantzutean, legea maitatzearan gauzatzen da; lehenik, maitasun ororen iturri dena, zeini beraren hizkuntzaz erantzunen ahal baitiogu; bigarren, maitasun hori bera erabiliz geure anai-arrebekin. Benetan, agindu bakarra da, Jainkoagandiko maitasunak zeharka gaitzala, bai berari dagokionean eta baita gizaki guztiei dagokienean ere. Maitatzea soilik da, hori nahikoa da.

Urteko 20. astea

Santa Arroza Lima-koa, *birjina*San Julian Leskar-ekoa, *gotzaina* (Baionako elizbarrutian)San Zakeo Jerusalemekoa, *gotzaina***Rut liburutik 2, 1-3.8-11; 4, 13-17:** Jaunak ondorengoa eman dizu.Jeseren aita izan zen Obed; Jese, berriz, Daviden aita. **Sal 127:**

Honela izango da bedekinkatua Jaunari begirune diona!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 23, 1-12.

Aldi hartan, Jesus honela mintzatu zitzaizen jendetzari eta ikasleei: «Lege-maisuak eta fariseuak Moisesen maisu-aulkian eseriak daude. Egizue, beraz, eta bete haiek esandako guztia; baina ez egin egiten dutena; esan, esaten baitute, baina egiten ez. Zama astunak eta eramanezkoak lotzen dituzte, eta besteei leporatzen; baina berek atzamar batez ere ez dituzte mugitzen. Egiten duten guztia, jendeak ikusteagatik egiten dute; larrutxa zabalak erabiltzen dituzte bekokian, eta borlatxo deigarriak mantu barrenean. Afarietan lehenengo jarlekuak, eta sinagogetan aurreneko aulkiak maite dituzte, plazetan jendeak agur egitea eta denek “maisua” deitzea. Zuek, ordea, ez utzi inori “maisua” deitzen, bakarria baita zuen maisua, eta zuek guztiok elkarren senide baitzarete. Eta ez deitu lurtean inori “aita”, bakarria baita zuen Aita, zerukoa. Eta ez utzi inori “gidari” deitzen ere, bakarria baita zuen gidaria, Kristo. Zuetako handiena izan bedi zuen zerbitzari. Bere burua goratzen duena beheeratu egingo du Jainkoak, eta bere burua beheeratzen duena goratu».

Eskribau eta fariseuek lapurtua dute Moisesen tokia eta beren katedratik fideltasun-itun zena arau eta legeen menpeko bizitza bihurtu dute. Eta bitartean berak han goian gelditu dira, gizakiak baino gehiago bailiran, aitormenak eta ohoreak eskatzen. Baina ez dago zor zaien ohorerik; izan ere, ezein pertsona ere ez da beste bat baino gehiago. Jainkoa soilik da gurtzeko duin. Aita bat soilik dugu, zerukoa eta maisu bakar bat, Maisua; gainerako guztiok bidelagun baino ez gara, geure historia bihurrietan elkarri laguntzera deituak; gurtza bakarria zeruko biziaren Jainkoarentzat gordetzen dugu.

Isaias Profetaren liburutik 66, 18-21.

Honela mintzo da Jauna: «Ezagutzen ditut Nik gaiztoen egintzak eta asmoak, eta herri eta hizkuntza orotako jendea biltzera etorriko naiz; haiek etorri eta nire aintza ikusiko dute. Ezaugarri bat emango diet; beraien artean bizirik gelditutako batzuk bidaliko ditut nazioetara; Tarsis, Etiopia eta Lidiara, Mexek, Tubal, Greziara eta urrutiko herrietara, inoiz nire berri izan ez duten eta nire aintzarik ikusi ez dutenengana. Eta nire aintza iragarriko dute nazioetan. Atzerriko nazio guztietatik ekarriko dituzte, Jaunarentzat opari gisa, zuen senide guztiak; zaldi, gurdi eta ohatiletan, mando eta dromedarioetan ekarriko dituzte Jerusalemgo nire mendi santura –dio Jaunak–, israeldarrek beren opariak Jaunaren etxera ontzi garbietan ekartzen dituzten bezala. Eta haien arteko batzuk ere aukeratuko ditut apaiz eta lebitar izateko –dio Jaunak–».

Sal 116: Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona.

Hebrearrei egindako gutunetik 12, 5-7.11-13.

Senideok: Ahaztu egin duzue seme-alabei bezala ematen zaizuen aholkua: «Ene seme, ez baztertu Jaunaren zentzaldia, ezta galdu ere adorea, haserre egiten badizu, maite duena baitu Jaunak zentzarazten eta seme-alabatzat hartzen duena du zigortzen». Jasaten duzuenazuek zentzarazteko da; Jainkoak seme-alaba bezala tratatzen zaituzte. Izan ere, zein seme nahiz alaba ez du aitak zentzarazten? Egia esan, edozein zentzabide, momentuan, mingarri da, ez pozgarri; baina, gerora, haren bidez hezitakoei bere fruituak ekartzen dizkie: bakea eta zuzentasuna. Jaso itzazue, beraz, esku eroriak eta belaun ahulduak, eta ibil zaitezte bide zuzenean, herrenaren hanka hautsi ez dadin, sendatu baizik.

Urteko 21. astea
SAN BARTOLOME, APOSTOLUA

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 13, 22-30.

Aldi hartan, Jesusek, Jerusalemara bidean zihoala, igarotzen zituen herri eta auzoetan irakasten zuen. Batek esan zion: «Jauna, gutxi al dira salbatzen direnak?». Jesusek erantzun zien: «Saia zaitezte ate estutik sartzen. Egiaz esan, askok sartu nahi izango du, baina ezin izango da sartu. Etxeko jaunak jaiki eta atea itxiz gero, kanpoan geldituok ate joka hasiko zarete: “Ireki, Jauna!”. Baina hark erantzungo dizue: “Ez dakit nongoak zareten”. Zuek, orduan, honela hasiko zatzaizkiote: “Zurekin jan eta edan izan dugu, eta Zuk gure plazetan irakatsi izan duzu”. Baina hark erantzungo dizue: “Ez dakit nongoak zareten. Alde nigandik, gaizkileok!”. Orduan, negarra eta hortz-karraska izango da, Abraham, Isaak eta Jakob eta profeta guztiak Jainkoaren erreinuan ikustean, zeuen burua, berriz, jaurtia. Asko etorriko dira sortaldetik eta sartaldetik, iparretik eta hegotik, eta Jainkoaren erreinuko mahaian eseriko dira. Begira: orain azkeneko den zenbait lehenengo izango da, eta lehenengo den zenbait azkeneko».

Jesusen garaian, salbatuko zirenen kopuruak kezkatzen zituen batzuk. Estatistikako kezka, noski; Jesusen interesetatik aldentua. Kontua ez da kopuruena, biziaren nolakotasunarena baizik. Bestalde, ezer ez du ziurtatzen halabeharrez Jesusen inguruan ibiltzeak ere, judu-herriari gertatu zitzaion moduan, bideak, otorduak eta plazak berarekin partekatu arren. Norberaren zintzotasuna da kontua, gizabide osoa izatea, behartsuekiko eskuzabala izatea eta biziarengatik Jaunari eskerrak ematea. Hori da Jesusek aipatzen zuen ate estua eta horrek ez du ezer ikustekorik Jesusen inguruan hurbilekoa izanagatik norbait dela uste duenaren egoerarekin. Salbamera ez dator ezagunen talde hautatu eta berezi batekoa izateagatik, Jesusena bezalako bizi-molde bat aukeratu izanagatik baizik. Orduan, denboran eta espazioan urrunekoa izan arren, bera gure Jaun bihurtzen da, guk jarraitzen dioguna, geure konfiantza eskaini dioguna eta Erreinuko atea, gure itxaropenaren arnasa edo hatsa. Eta orduan, sentitu ere egin gabe zeharkatzen da ate estua.

Urteko 21. astea

San Luis Frantziakoa, *erregea*San Jose Calasanz, *apaiza, fundatzailea (Eskolapioak)*

San Paulok 1 Tesalonikarrei 1, 1-5.8b-10: Sasijainkoak utzirik, Jainkoagana itzuli zineten, Jainkoak hildakoen artetik piztu zuen bere Semearen zain egoteko. **Sal 149:** Maite du Jaunak bere herria.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 23, 13-22.

Aldi hartan, honela mintzatu zen Jesus: «Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Jendeari zeruetako erreinuko sarrera ixten diozuenok! Zeuek ez zarete sartzen eta sartu nahi dutenei ez diezue uzten. Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Baten bat judu berri egiteagatik itsaso eta lehor zabiltzate eta, egin duzuenean, zeuek baino bi aldiz gaiago bihurtzen duzue infernurako. Ai zuek, gidariitsuok! Honela irakasten duzue: “Tenpluagatik zin egiteak ez du baliorik; tenpluko urreagatik zin egiteak, ordea, behartu egiten du”. Zoroitsuok halakook! Zer da handiago, urrea ala urrea sagaratzen duen tenplua? Beste hau ere irakasten duzue: “Aldareagatik zin egiteak ez du baliorik; aldare gaineko opariagatik zin egiteak, ordea, behartu egiten du”. Itsuok halakook! Zer da handiago, oparia ala oparia sagaratzen duen aldea? Aldareagatik zin egiten duenak, aldareagatik eta gainean dagoen guztiagatik egiten du zin; tenpluagatik zin egiten duenak, tenpluagatik eta bertan bizi den Jainkoagatik egiten du zin; zeruagatik zin egiten duenak, Jainkoaren tronuagatik eta bertan eserita dagoenagatik egiten du zin».

Gizarte orok izaten ditu erreferentziatzko pertsonaiak, beraien antzera ibiltzeko gomendioarekin, goian jarritako pertsonak eta bizitzeko moduaren jarraibide gisa jartzen direnak. Jesusen garaian, eskribauak eta fariseuak zeuden. Beste garai batzuetan agian, monjeek eta elizgizonek eta eliza-emaumeek jokatu dute paper hori. Gaur egun, gure garaiko balioak beren baitan dituztela diruditen gizarte zibileko pertsonekin topo egiten dugu. Arriskua haiek «gidariitsuak» izatean datza, Jesusek dioen moduan, galduta aurrerantz egiten dutenak eta funtsean itxurakeria huts direnak. Guztizko ohartarazpena da,

Urteko 21. astea

San Luis Frantziakoa, *erregea*

San Jose Calasanz, *apaiza, fundatzailea (Eskolapioak)*

guk geuk ere zerbaitetan adibide garela sinets ez dezagun, bizitzaren benetakotasunerako deia da, tatxarik gabeko irudia lantzetik eta besteei portaera-kode bat ezartzetik urrun gaitezen. Bizitzak argi egin dezake bere osotasunaren bitartez, baina ez hori beragan hartzen duen ohore hutsalaren bidez.

* * *

Fanatiko eta fundamentalisten alde (Jarraipena)

Bota itzazue horma honen oinarri eta paretak!
Fanatismo eta fundamentalismoaren gatibu,
zuen hizkuntza erabiltzen ez dutenak
baztertu eta deabruzat jotzen dituzte.
Irtzen zaitezte zeuok eraiki duzuen espetxetik.

Aita gizajoa, zenbat seme sutara kondenatuak
eta zenbat alaba etxetik bidaliak!
Nora bota dute zure errukia?
Non gorde dute joan zen semearen parabola?

Bedeinkatua izan zaitez ertzak lotzen dituzten pertsonengatik,
zuk bezala Aita, zuk bezala,
Espirituak bezala, bere haizepean babesten baitu
celebreenik bereziena ere

Eta emaizkidazu nire ere
begi ezberdinak eta oztopo gabeko bihotza.

(Patxi Loidi)

Santa Teresa Jesusena Jornet eta Ibars, *birjina* (*Adin handikoen Zaindaria*). Santa Joana Elisabet Bichier des Âges, *birjina, fundatzailea* (*Gurutzearen Alabak*)

San Paulok 1 Tesalonikarrei 2, 1-8: Prest ginen, Jainkoaren Berri Ona ez ezik, baita geure bizia ere zuei emateko. **Sal 138:** Jauna, Zuk aztertzen nauzu eta ezagutzen.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 23, 23-26

Aldi hartan, honela mintzatu zen Jesus: «Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Barazkirik kaxkarrenen hamarrenak ordaintzen dituzue; legeko gauzarik garrantzizkoenak, berriz, zuzenbidea, errukia eta leialtasuna, bazterrera uzten. Hauek bete behar zenituzten, haiek baztertu gabe. Gidariitsuok! Eltxoa iragazten duzue, eta gamelua irensten! Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Edalontzia eta platera kanpotik garbitzen dituzue, barrutik lapurretaz eta gutiziaz beterik dauden bitartean. Fariseuitsu hori! Garbi ezazu lehenik edalontzia barrutik, kanpotik ere garbi geldidarin».

Kanpoko itxurari distira emateagatik itsututa ibiltzea, eskandalu eta porroterako bidea prestatzea da. Hori gertatzen zitzairen fariseu eta eskribauei, zentzu urria izanda ere, legearen azkeneko agindua ere bete arren, Yahverekin zuten itunaren funtsezkoena betetzea ahanzten zitzaientza: zuzentasuna eta errukia. Jesusek adierazten duen norabidea, hain zuzen ere horren aurkakoa da, barrutik kanporantz joatekoa. Barrualde zintzo edo ondraduak soilik proiektatzen du kanporantz benetako argia. Orduan, egintza onek distira dute, konfiantzak bidea irekitzen du eta bizitza onaren zentzua, ezagutua eta aitortua izan daiteke. Pertsona zintzo eta garbia soilik izan daiteke gidari, zentzua, alaitasuna eta itxaropena izateko.

Urteko 21. astea

Santa Monika, *aitorlea*San Lizerio, *gotzaina*

San Paulok 1 Tesalonikarrei 2, 9-13: Gau eta egun egin genuen lan Berri Ona hots egin genizuenan. **Sal 138:** Jauna, Zuk aztertzen nauzu eta ezagutzen.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 23, 27-32.

Aldi hartan, honela mintzatu zen Jesus: «Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Hilobi zurituen antzeko zarete: kanpotik itxura ederrekoak, baina barrutik hil-hezurrez eta ustelkeriaz beteak! Zuek ere honelakoak zarete: kanpotik zintzoak jendearen aurrean, baina barrutik itxurakeriaz eta gaiztakeriaz beteak. Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Profeten hilobiak eraikitzen eta gizon zintzoen hilarriak apaintzen dituzue, esanez: “Gure arbasoen egunetan bizi izan bagina, ez genukeen parterik hartuko haiekin profeten hilketan”. Horrela, zeuek aitortzen duzue profetak hil zituztenen ondorengoak zaretela. Bete, bada, zeuek ere zeuen gurasoen egintza gaiztoen neurria!».

Bizitzaren benetakotasuna jokoan sartzen da batek bere barnean daramanaren eta kanporantz azaltzen duenaren arteko elkarrekikotasunean. Jesusez zioten, aginpidez eta jakinduriar hitz egiten zuela; hain zuzen ere beste batzuei entzundakoen aipamenik egiten ez zuelako eta barne barnetik irteten zena adieraztea baino egiten ez zuelako, horrela, berarengan zeraman egia argia islatuz. Eskribau eta fariseuak hilobi zurituekin konparatzen ditu, izan ere, itxuraz garbiak eta txukunak dira baina barruan hondakinak eta ustelkeria baino ez dituzte. Bizirik daudela dirudite baina hilda daude. Hipokrisiak usteldu egiten ditu giza harremanak, konfiantza-falta ereiten du, gizarteko adierazpenen hustasuna ezkutatuz eta pertsonen sakontasunari balioa kenduz. Hipokrisiak suntsitu egiten du umiltasunak eta benetakotasunak elikatzen dutena.

Urteko 21. astea

San Agustin, *gotzaina eta eliz irakaslea*
Santa Florentina Cartagenakoa, *abadesa*

San Paulok 1 Tesalonikarrei 3, 7-13: Jaunak gero eta handiago egin dezala zuek elkarrentzat eta denentzat duzuen maitasuna. Sal 89: Zeure maitasunaz ase gaitzazu, Jauna, poztu gaitezen zuegan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 24, 42-51.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zaudete erne, ez baitakizue zein egunetan etorriko den zuek Jauna. Hartu hau gogoan: etxeko nagusiak baleki gaueko zein ordutan etorriko den lapurra, erne egongo litzateke eta ez luke bere etxea zulatzen utziko. Egon, bada, prest zuek ere, gutxien uste duzuen orduan etorriko zaizue-eta Gizonaren Semea. Izan zaitezte morroi leiala eta zentzuduna bezalakoak, nagusiak etxeko morroiari bere orduan janaria banatzeko eginkizuna eman dion morroia bezalakoak. Zorionekoa morroi hori, nagusiak, iristean, agindua egiten aurkitzen badu! Benetan diotsuet: bere ondasun guztien buru ipiniko du. Baina beste morroi gaizto hura, nagusiak luzatu egingo duelakoan, bere morroi-lagunak jotzen eta mozkorrekin jan-edanean hasten bada, gutxien espero duen egunean eta gutxien uste duen orduan etorriko zaio nagusia, eta gogor zigortuko du eta itxurazaleek merezi dutena emango dio. Han izango da negarra eta hortz-karraska!».

Jauna modu askotara ager daiteke geure bizitzan, aldeztu aurretik inolako ohartarazpenik egin gabe. Batzuetan zoritxarrean indar sendo moduan, edo mugiarazi eta desmuntatzen duen konpromiso legez, edota itxaropen moduan garai ilunetan... edo beste hainbat modutan. Aldiro harritu egiten gaitu modu berriren batekin; izan ere, sorkuntza-berritasuna baita bere zeinuetako bat. Hortik bada bera jarrera eroso eta alferretik ezin lagundua. Erreinuaren eskakizunak beti doaz harago eta etengabeko prestutasun-ariketa egitera behartzen gaituzte. Horrek, dena egina daukala sentitzen duenaren segurtasun gerarazletik askatzen gaitu. Erreinuak etengabeko arreta eskatzen du, berehalako mugimendua, beti premiazkoak diren biziaren Jainkoaren deiei berehala erantzuteko jarrera.

Urteko 21. astea

SAN JOAN BATAIATZAILEAREN MARTIRITZA

Pedro Asua eta Mendia (Balmaseda 1890-Cantabria 1936),
*apaiza, dohatsua, martiria**

San Paulok 1 Tesalonikarrei 4, 1-8: Hau nahi du Jainkoak zuengandik: bizi zaitezte berarentzat, sagaratuei dagokienez. **Sal 96:** Poztu zaitezte Jaunarekin, zintzook.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6, 17-29.

Aldi hartan, Herodesek Joan harrapatu eta kartzelan lotua zuen, Herodias zela eta. Herodesen anaia Feliperen emaztea zen Herodias, baina Herodesek bere emaztetzat hartua zuen, eta Joaneke esaten zion: «Ez zaizu zilegi zeure anaiaren emaztea edukitzea». Horregatik, gorroto zuen Herodiasen Joan eta hil egin nahi zuen, baina ezin, Herodesek begirune baitzion Joani; gizon zuzen eta santutzat zeukan, eta babestu egiten zuen. Joanen hitzek kezkarik sortzen bazioten ere, gogoz entzuten zion. Etorri zitzaion, ordea, Herodias aukerako eguna: Herodesek, bere urtebetetzean, afaria eman zien agintari, gudarburu eta Galileako handikiei. Sartu zen jantokian Herodiasen alaba eta dantzan egin zuen, eta atsegin izan zitzairen Herodesi eta mahaikideei. Orduan, erregeak esan zion neskatzari: «Eskatu nahi duzuna, eta emango dizut». Eta zin eginez agindu zion: «Eskatu ahala guztia emango dizut, nire erreinuaren erdia bada ere». Atera zen neskatzari eta bere amari galdetu zion: «Zer eskatuko diot?». Amak erantzun: «Joan Bataiatzailearen burua». Itzuli zen arin-arin erregeagana eta eskaria egin zion: «Emadazu oraintxe bertan Joan Bataiatzailearen burua azpilean». Goibel jarri zen erregea, baina mahaikideen aurrean egindako zinagatik, ez zion ukatu nahi izan. Berehala, bere guardiako bat bidali zuen, Joanen burua ekartzeko aginduz. Joan zen hura kartzelara eta lepoa moztu zion, eta azpilean ekarri zuen burua; neskatzari eman zion, eta neskatzak amari. Joanen ikasleak, hori jakitean, haren gorpua jasotzera etorri eta hilobian ehortzi zuten.

* San Adelfo, *martiria*
Santa Sabina, *martiria*

Kontakizunak dioenez, Herodesek, «egin zuen zinarengatik eta gonbidatuengatik, emandako hitza ez zuen erdeinatu nahi izan». Tirano larderiatsua zen, itxura batean nahi zuen botere guztia bereganatua zuena, biziaren edo heriotzaren artean azalpenik eman gabe erabaki zezakeena. Baina gizon hura gainerakoen esamesen mende zegoen eta hainbestearaino egon ere; horregatik okerbidez erailtzera ere iritsi zen. Herodesek lepoa moztu zion bataiatzaileari eta horrela bere doilorkeria eta bere mendekoen marmarrekiko mendekotasuna agertu zituen. Hain ahaltsua baina gizarte-arauen eta bere irudi gupidagabearen hain mendeko. Benetako askatasuna, zuzentasunaren eta errukiaren alaba da, ausarta eta errukitsua, besteen eskaeren zikoizkeriak entzuten ez dituen eta egunero Erreinuko bideetara hurbiltzen gaituena.

* * *

«Mugaren edo partzialtasunaren kontzientzia, beraz, ez da inola ere mehatxu, proiektu komun bat amesteko eta gauzatzeko giltzarria baizik; izan ere, “gizakia mugaldeko izaki mugarik gabea da”» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 150).

* San Adelfo, *martiria*
Santa Sabina, *martiria*

Esteban Zudairikoa (Ameskoan jaioa) eta Joan Maiorga-koa (Donibane Garazin jaioa), *apaizak*, eta lagunak, *dohatsuak*, *martiriak*, *jesuitak*

San Paulok 1 Tesalonikarrei 4, 9-11: Jainkoak berak irakasten dizue elkar maitatzen. **Sal 97:** Badator Jauna herriak zuzentasunez epaitzera.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 25, 14-30.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Gizon batek, urrutira joaterakoan, bere morroiei dei egin eta bere ondasunak utzi zizkien. Bati bost talentu eman zizkion, beste bati bi, beste bati bakarra; bakoitzari bere trebetasunaren arabera. Eta gero joan egin zen. Bost talentu hartu zituen haiekin lanean hasi zen berehala, eta beste bost irabazi zituen. Bi hartu zituenak ere gauza bera egin zuen, eta beste bi irabazi zituen. Bat hartu zuenak, ordea, lurrean zuloa egin eta han gorde zuen bere nagusiaren dirua. Handik luzarora, etorri zen morroi haien nagusia, eta kontuak garbitzen hasi zitzaien. Hurbildu zen bost talentu hartu zituenak, eta beste bost eraman zizkion, esanez: “Jauna, bost talentu utzi zenizkidan; begira, beste bost irabazi ditut”. Nagusiak esan zion: “Ederki, morroi zintzoa eta leiala! Gauza txikian leial izan zarelako, askoren buruzagi egingo zaitut; sartu zeure nagusiaren festa ospatzera”. Hurbildu zen bi talentu hartu zituenak, eta esan zion: “Jauna, bi talentu utzi zenizkidan; begira, beste bi irabazi ditut”. Nagusiak esan zion: “Ederki, morroi zintzoa eta leiala! Gauza txikian leial izan zarelako, askoren buruzagi egingo zaitut; sartu zeure nagusiaren festa ospatzera”. Azkenean, hurbildu zen talentu bat hartu zuena, eta esan zion: “Jauna, banekien gizon zorrotza zarela; erein ez duzun tokian igitatzen, eta zabaldu ez duzun tokian biltzen duzuna. Beraz, beldurrez joan nintzen, eta lurpean gorde nuen zure talentua. Hemen duzu zeurea!”. Nagusiak erantzun zion: “Morroi gaizto eta alfer hori! Bahekien, beraz, erein ez dudan tokian igitatzen dudala nik, eta zabaldu ez dudan tokian biltzen. Horregatik, nire dirua dirutkatzaileei utzi behar hien, nik, etortzean, irabazi eta guzti jaso nezan. Ken iezaiozue, bada, talentu hori, eta eman hamar dituenari.

Esteban Zudairikoa (Ameskoan jaioa) eta Joan Maiorga-koa (Donibane Garazin jaioa), *apaizak*, eta lagunak, *dohatsuak*, *martiriak*, *jesuitak*

Duenari eman egingo baitzaio, eta gainezka izango du; ez duenari, berriz, duen hura ere kendu egingo zaio. Eta morroi alfer huts hori bota kanpoko ilunpera. Han izango da negarra eta hortz-karraska!”».

Bizitzan zehar jasotzen ditugun talentuak, erreinuaren alde egiteko Jaunak geure esku jartzen dituen bitartekoak dira. Modu pribatuan haiekin goza dezakegu, edota ez balira bezala jokatu, edo soil-soilik hutsaltzat hartu eta mesprezatu. Parabolak, geure sorkuntza-ahalmenarekin eta Jainkoaren gauzekiko grinarekin jokoan jartzera gonbidatzen gaitu, izan ere, modu horretan soilik eman ahal izango baitute gehiago berenetik. Aitak garen eta dugun on guztia jartzen du gure eskuetan bere ontasunaren eta errukiaren bideratzaile izan gaitzen, eta hala, emate horretan haz daitezten eta gu gizatarrago eta samurrago bihur gaitzaten. Erreinuaren haziak jada murgilduta daude gure lurrean eta guri hura zaindu eta irrigatzea dagokigu bateko ehun eman dezan.

* * *

«Populismoek, ahulenak beren probetxurako modu demagogikoan erabiltzen dituztenean, haienganako mespretxua ezkututzen dute; liberalismoek ere berdintsu jokatzen dute, ahulenak boteretsuen interes ekonomikoen zerbitzura jartzen dituztenean» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 155).

Urteko 22. astea

San Ramon Nonnato, apaiza, kardinala

San Jose Arimateakoa eta Nikodemo, Jesusen ikasleak

Siraken liburutik 3, 19-21.30-31 (gr. 17-18. 20. 28-29).

Seme nahiz alaba, egin otzantasunez egiten duzun guztia, eta Jainkoaren begiko denak maite izango zaitu. Zenbat eta handiago izan, orduan eta gehiago apaldu zeure burua, eta Jaunaren gogoko izango zara; handia baita Jaunaren ahalmena, eta apalek dute hura goresten. Harroaren ezbeharrak ez du erremediorik, gaiztakeriaren landarea sustraitua baitu bere baitan. Buruargiak jakinduriatzko esaerak hausnartzen ditu, adi egongo den belarria irrikatzen du jakintsuak.

Sal 67: Zuk, ene Jainko, zeure ontasunean eratu duzu dohakabeentzat etxea.

Hebrearrei egindako liburutik 12, 18-19.22-24a.

Senideok: Zuek ez zarete hurbildu, israeldarrak bezala, uki daitekeen mendi batera, su kiskalgarria, hodei itxia, ilunpea eta ekaitza zeuden mendira; ez duzue entzun turuta-hotsik, ezta ahotsik ere. Ahotsa entzun zuten israeldarrek gehiago ez ziezaiela hitz egin eskatu zuten. Sion mendira hurbildu zarete zuek, Jainko biziaren hirira, zeruko Jerusalemera, Jainkoa gorestekoa bildurik dauden milaka eta milaka aingerurengana, beren izenak zeruetan idatzirik dituzten lehen-semeen batzarrera, guztien epaile den Jainkoagana, beren helburura iritsi diren zintzoen espirituengana, eta itun berriaren bitarteko den Jesusengana.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 14, 1.7-14.

Behin batean, larunbatez, fariseu-buruetako baten etxera joan zen Jesus bazkaltzera, eta fariseuak zelatan zegozkion. Ohartu zen Jesus gonbidatuek aurreneko jarlekuak hartzen zituztela eta ohar hauek egin zizkien: «Ezteietara gonbidatzen zaituztenean, ez jarri mahaiburuan, baliteke-eta zu baino gonbidatu ospetsuagoren bat izatea; hala balitz,

Esteban Zudairikoa (Ameskoan jaioa) eta Joan Maiorga-koa (Donibane Garazin jaioa), *apaizak*, eta lagunak, *dohatsuak*, *martiriak*, *jesuitak*

biok gonbidatu zaituztenak etorri eta esango lizuke: “Utzi tokia honi”. Orduan, azkeneko lekuan eseri beharko zenuke lotsaturik. Alderantziz, gonbidatzen zaituztenean, jarri azkeneko tokian, gonbidatu zaituenak, datorrenean, esan diezazun: “Adiskide, igo gorago!”. Horrela, oso toki onean geldituko zara mahaikide guztien aurrean. Zeren eta bere burua goratzen duena beheratu egingo baitu Jainkoak, eta bere burua beheratzen duena goratu». Eta gonbidatu zuenari esan zion: «Bazkari edo afariren bat ematean, ez gonbidatu zeure adiskideak, ezta senideak, ahaideak edota auzoko aberatsak ere; zeren haiek ere gonbidatu egingo baitzintuzkete, eta horrela ordaina hartuko zenuke. Otordua ematean, gonbidatu behartsuak, elbarriak, herrenak etaitsuak. Zorionekoa zu orduan, ezin izango baitizute ordaindu! Zintzoak piztuko direnean jasoko duzu ordaina».

Bizitzako oturuntza doakoa da eta denei eskainia. Hala ere, parabolaren arabera, txikiek –behartsuek, elbarriek, herrenek eta itsuek– beren alde gutxien dutenek, guztien aurretik jartzeko den familia-logika horren arabera, lehentasuna izan dezakete oturuntzarako, berez balia daitezkeen gainerako guztien aurretik. Bizitzaren oturuntza horretan, ez dago jendaurrean erakuts daitezkeen meriturik, ezta galda daitezkeen ordainsaririk ere. Denei era berdinean irekita dago eta erantzun ahal bakarra eskertzea baino ez da, Aita bere eskuzabaltasunaz goratu eta mahaiaz eta lagunarteaz gozatu. Horrela da bizitza eta horrelakoa da Erreinua, denei irekia, opari hutsa eta guztientzako harrera-lekua. Baina giza logikek sarritan, erreinuaren dohaintza geure egoaren onetan okertzera eramaten gaituzte. Aitortzak eta txaloak, pribilegioak eta morrontzak edo mirabetzak bilatzen dituen egoa hain zuzen ere. Gu gai gara gauzarik sakratuena ere, giza duintasuna bera ere, geure burua goratzeagatik, geure mende jarri nahi izateko. Erreinuko oturuntzak senidetasun-zaporea besterik ez du eta ez duintasunena; adiskidetasunarena eta berdintasunarena eta ez begiruneena. Hori onartzen baldin badugu, bizia eraldatu egiten zaigu eta denak onartzen dituen eta azkenekoez bereziki arduratzen den familia adiskidetu baten eitea hartzen hasten da; hori da Aitak gonbidatzen gaituen eta den-dena ematen digun benetako oturuntza.



IRAILA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA

Kreazio osoarekin dugun harremanaren alde: Egin dezagun otoitz, San Frantziskok inspiraturik, Jainkoak maite dituen eta maitatzeko eta errespetatzeko duinak diren izaki guztiekiko gure interdependentziaz jabetu gaitezen.

San Paulok 1 Tesalonikarrei 4, 13-18: Jesusekin bat eginik hil direnak Jainkoak berekin hartuko ditu. **Sal 95:** Badator Jauna lurra epaitzera.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 4, 16-30.

Aldi hartan, Jesus Nazaretera, bera hazitako herrira, joan zen, eta larunbatean, ohi zuenez, sinagogan sartu eta zutik jarri zen irakurgaia egiteko. Isaias profetaren liburua eman zioten eta, irekitzean, pasarte hau aurkitu zuen: «Jaunaren Espiritua nire gainean dago, hark gantzutu bainau, behartsuei Berri Ona emateko. Gatibuei askatasuna eta itsuei ikusmena hots egitera bidali nau, zapalduen askatasuna ematera, Jaunaren onginahi-urtea hots egitera». Liburua bildu ondoren, laguntzaileari eman eta eseri egin zen. Denak sinagogan begira-begira zeuzkan. Jesus honela hasi zitzaizen: «Gaur bete da orain entzun duzuen Liburu Santuko hitz hau». Denek Jesusen alde hitz egiten zuten eta harriturik zeuden Jainkoaren onginahiaz esaten zituenengatik. Baina hau zioten: «Ez al da, ba, hau Joserren semea?». Orduan, Jesusek esan zien: «Harako esaera hura gogoraraziko didazue, noski: “Sendagile, sendatu zeure burua”, eta esango: “Egitzazu hemen ere, zeure herrian, Kafarnaumen egin omen dituzun gauzak”». Eta erantsi zuen: «Hara Nik egia esan: Ez da profetarik bere herrian onartua denik. Egiaz esaten dizuet: Bazen emakume alargunik asko Israelen Eliasen garaian, hiru urte eta sei hilabetez euria egin gabe egonik, lurralde guztian gosete gorria izan zenean; hala ere, Jainkoak ez zion haietako inori bidali Elias, Sidon herrialdeko Sareptako alargunari baizik. Eta bazen legendarunik asko Israelen Eliseo profetaren garaian; hala ere, ez zen haietako inor sendatu, Siriako Naaman baizik». Hauek entzutean, sinagogan zeuden guztiak amorruz bete ziren. Eta jaikirik, Jesus herritik kanpora atera eta herria eraikia zegoen mendiko amildegira eramane zuten, handik behera botatzeko asmotan. Baina Jesus haien erditik igaro eta bere bidetik joan zen.

Testu profetiko gutxik adieraz dezake hain egoki Galileako errukiaren profetaren misioa: pobreei Berri Ona iragartzea, gatibuak askatzea edo itsuei ikusmena itzularaztea. Isaiasen orrialdea aldarrikatzean, Jesusek bere bizitzaren helburua laburbiltzen du. Bera da Aitak bidalitakoa, ahaztuen eta baztertuen laguna, zapalduen bizia emateko. Kontakizunak Jesusek bere lurraldean aurkitzen duen ustekabeko aurkakotasuna erakusten du: ez du harrerarik jasotzen, mespretxua baizik. Beretarrek Jesusek ulertzen ez duen eksklusibotasuna eskatzen dute. Jainkoaren ikuspegitik, berriz, bizitzaren horizontea unibertatsala da: azkenek bakarrik jasotzen dute lehentasunezko tratua, zeren arreta eta zaintza handiagoa behar baitute. Gainera gaur gogoan dugu kreazioaren beharrezko zaintza, hau ere ahaztua, esplotatua eta mehatxatua; berau zaintzea dagokigu Jainkoaren dohain gisa, zeina eskertzen, goستن eta errespetatzen baitugu; bere Sortzailearen presentziaren agertokia eta bizi garen etxea da eta.

* * *

«Behartsuei diruz laguntzeak behin-behinekoa izan beharko luke beti, larrialdiari erantzuteko. Helburu nagusia hau da: lanaren bidez bizitza duina ahalbidetzea» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 162).

Urteko 22. astea

Frantzisko Dardan dohatsua (Isturitze ondoan 1733-Paris 1792, Iraultzakoan), *dohatsua, apaiza, eta lagunak, martiriak (Iruñeko eta Baionako elizbarrutietan)**

San Paulok 1 Tesalonikarrei 5, 1-6.9-11: Gugatik hil zen, gu harekin bat eginik bizi gaitezen. **Sal 26:** Jaunaren ontasuna ikusi ustean nago bizidunen lurrean.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 4, 31-37.

Aldi hartan, Jesus Galileako Kafarnaum hirira jaitsi zen, eta larunbatetan jendeari irakasten zion. Txunditurik zegoen jendea haren irakaspenaz, nagusitasunez hitz egiten baitzuen. Bazen sinagogan espiritu gaiztoaren menpe zegoen gizon bat, eta oihi bizian hau zioen: «Zer duk gurekin, Jesus Nazaretarra? Gu hondatzera al hator? Bazekiat nor haizen: Jainkoaren Santua». Jesusek gogor eraso zion: «Isil hadi eta atera gizon horrengandik!». Deabruak jendartean lurrera bota zuen gizona, baina batere kalterik egin gabe atera zen harengandik. Ikaraturik gelditu ziren denak, elkarri galdezka: «Zer da hau? Nagusitasunez eta indarrez agintzen die espiritu gaiztoei, eta hauek atera egiten dira». Jesusen entzutea herrialde hartako bazter guztietara zabaldu zen.

Sinagogaren erdian zegoen gizon hura barnetik urratzen zuen izpiritu gaiztoak, zeinek aztoratzen baitzuen. Barrutik itotzen zegoen pertsona zen eta kanpora begira mehatxagarria; bere psikologia hondatua zuen eta bere indar izpiritualak hiltorian zuen gizon beldurgarria eta desorekatua zen. Gizon haren barruko iluntasunean Jesus agertzen da, sendatzen eta galdutako harmonia itzultzen. Askatu eta liberatu egiten du, berriz ere bere buruaren jabe izan dadin eta besteekin lasai komunikatzeko gaitasuna berreskuratu dezan. Jaunak zauriek, mugek eta porrotek hondatutako gure barrua sendatzen du eta Erreinuaren zerbitzura dagoen bizimodu baketsu batera itzultzen gaitu. Ez dago ezein barne giza dinamismorik, zeinekin ezin duen; horregatik nabarmentzen da gure bizitzak eraldatzen dituen Jaun gisa.

* Santiago Bonnaud, *apaiza, eta lagunak*; Jose Imbert eta Joan Nicolas Cordier, *apaizak*; Tomas Sitjar, *apaiza, eta lagunak, martiriak, jesuitak*

Urteko 22. astea

San Gregorio Handia, 64. aita santua eta eliz irakaslea

San Paulok Kolosarrei 1, 1-8: Zuengana iritsi da Berri Ona, eta lur osora. Sal 51: Jauna, zure maitasunean dut konfiantza betiko.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 4, 38-44.

Aldi hartan, Jesus sinagogatik atera eta Simonen etxean sartu zen. Simonen amaginarreba sukar handiaz zegoen, eta haren alde zerbait egiteko eskatu zioten. Orduan, harengana makurturik, zorrotz agindu zion sukarrari, eta sukarrak alde egin zion. Berehala jaiki eta zerbitzatzen hasi zitzaien amaginarreba. Eguzkia sartu zenean, gaixoak zituzten guztiek, edozein zela ere haien gaitza, Jesusi eramaten zizkieten, eta hark, bakoitzari eskuak ezarriz, sendatu egiten zituen. Askorengandik deabruak ere ateratzen ziren, deiadarka esanez: «Zu Jainkoaren Semea zara!». Jesusek zorrotz galarazten zien hitz egitea, bazekiten-eta Mesias zela. Eguna argitu orduko, atera eta bazter bakarti batera joan zen. Jendea haren bila zebilen eta, aurkiturik, eutsi egin nahi zioten, alde egin ez ziezaien. Baina Jesusek esan zien: «Gainerako herrietan ere adierazi beharra dut Jainkoaren erreinuaren Berri Ona, horretara bidali bainau Jainkoak». Eta Judeako sinagogetan ibili zen Berri Ona hots egiten.

Jesusek «on egiten igaro zuela» (Eg 10, 38) zihoen San Pedrok, eta testu honek horixe berresten du. Jesusek bere ibilbidean sendatutako eta zaharberritutako pertsonen zerrenda luzea da: gaixoak, Pedroren amaginarreba bezala, eta deabrudunak Jesusengana dira zuzenduak, zeinen hitzek eta presentziak bizitza urratu batetik askatzen baitituzte, eta barne-bakerako eta giza-harremanetan harmonia berri baterako bidea irekitzen baitiete. Testuak Jesusen ibiltari izaera azpimarratzen du, zein ez baita konformatzen leku batean geratzearekin, han ondo egon arren; baizik eta hiri gehiago lortzeko benetako grina agertzen du, pertsona gehiagorengana iristeko; haiek ere beraren hitzek sorrarazten duten bakearen eta beraren ekintzek ematen duten liberazioaren beharra dute eta.

Urteko 22. astea

San Moises, *profeta*

San Paulok Kolosarrei 1, 9-14: Berak atera gaitu ilunpearen menpetik eta bere Seme maitearen erreinura aldatu. **Sal 97:** Bere garaipena ezagutarazi du Jaunak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 5, 1-11.

Aldi hartan, jendea gainera zetorkion Jesusi, Jainkoaren hitza entzuteko; Genesaret aintzira-ertzean zegoen Jesus. Bi txalupa ikusi zituen ur-bazterrean geldia; arrantzaleak, ontzietatik jaitsita, sareak garbitzen ari ziren. Igo zen txalupa haietako batera, Simonenera, eta lehorretik pixka bat aldentzeko eskatu zion. Gero, eseri eta txalupatik jendea irakasten jardun zuen. Hitzaldia bukatzean, esan zion Simoni: «Jo itsaso zabalera eta bota sareak arrantzurako». Simonek erantzun zion: «Maisu, gau osoan eginahalak egin eta ez dugu ezer harrapatu; hala ere, Zuk diozunez gero, botako ditut sareak». Hala egin zuten eta, hainbesteko arrain-pila harrapatu zuten, sareak lehertzeko zorian baitzeuden. Beste txalupako lagunei keinu egin zieten laguntzera etortzeko; etorri ziren, eta bi txalupak bete zituzten, ia-ia hondoratzeraino. Gertatua ikusirik, Jesusen oinetan ahuspeztu zen Simon Pedro, esanez: «Alde nigandik, Jauna, bekataria naiz eta». Izan ere, zur eta lur zeuden Simon eta harekin ziren guztiak, eginiko arrantzuagatik, eta gauza bera gertatzen zitzaizen Simonen arrantzu-lagun ziren Zebedeoren seme Santiagori eta Joani ere. Baina Jesusek esan zion Simoni: «Ez beldur izan, hemendik aurrera giza arrantzale izango zara». Haiek txalupak lehorrera atera zituzten eta, dena utzirik, jarraitu egin zioten.

Oso ederra da Jesusen irudi hori, jendea inguruan pilatuta duela, Berari entzuteko gogoz. Pertsona haien larritasunen eta babesgabetasunaren erdian, Haren hitzak baltsamoa bezalakoak izango ziren, lehorte garaian euri suabea bezala. Behin Jesus txalupara igota, Simon arraunean egitera animatzen du itsaso barrura, nondik itzuli berri diren, ezer ez arrantzatzeaz aspertuak. Simonek fidatzeko

Urteko 22. astea
San Moises, *profeta*

beharra du, hori ikastea hainbeste kostatuko zaion arren: konfiantza izatea Jesusengan eta Honek ematen dion misioan. Hori egiten duenean bakarrik, aldatzen dira gauzak: orain arrain ugari bilduko du; geroago uretan ibili ahal izango da; eta, are geroago, artalde berria bazkatu ahal izango du. Itsaso zabalean egin behar dugu arraun, Jesusek gidatuta; eta konfiantza izan, konfiantza bakarrik.

* * *

Jakintsu bihurtu ninduzun

Ulertu behar gaituzu, Jauna.
Norekin fidatuko ginen,
dagoeneko arrakasta izan dutenekin ez bada?
Beste nor hartu behar genuen eredutzat?
Erabakiak hartzeko orduan,
zalantzak ditugunean...
edo besterik gabe,
bizitzan zehar, oharkabea bezala,
gure gauzak bideratu behar ditugunean,
haiei begiratzen diegu,
jakintsu eta ikasiei;
eta seme-alabak ere
horrela hazten saiatzen gara,
arrakasta eta bizimodu hobea,
errazagoa izan dezaten. (...)

Urteko 22. astea

San Lorenzo Justiniano, *gotzaina*Santa Teresa Kalkutakoa, *fundatzailea (Karitateko Misiolariak)*

San Paulok Kolosarrei 1, 15-20: Gauza guztiak beraren bidez eta berarentzat dira eginak. **Sal 99:** Sar zaitezte oihu alaiz Jaunaren aurrera.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 5, 33-39.

Aldi hartan, fariseuek eta lege-maisuek esan zioten Jesusi: «Joanen ikasleek sarri egiten dute barau eta otoitz, baita fariseuen ikasleek ere; zureak, ordea, jan eta edan ari dira». Jesusek erantzun zien: «Nola nahi duzue ezteietara deituek barau egitea, senar berria berekin dutelarik? Etorriko zaie, bai, senar berria kenduko dieten eguna; orduan, egun hartan, egingo dute barau». Parabola hau ere esan zien: «Inork ez du jantzi berririk urratzen, zaharrari adabakia ipintzeko; bestela, jantzi berria hondatu egingo litzateke, eta zaharrari ez litzaioke berriaren adabakia egoki etorriko. Ez du inork ardo berririk sartzen ere zahagi zaharretan; ardo berriak zahagiak lehertu egingo lituzke; ardoa isuri egingo litzateke eta zahagiak galdu. Ardo berria zahagi berrietan sartu behar da. Ardo zaharrarekin ohitua dagoenak ez du berririk nahi, “zaharra hobe duk” esaten baitu».

Jesusekin iristen da ezkontzaren pareko poza. Orduan inork ez du pentsatzen barau egiterik ez dieta egiterik, festa ospatzea eta festarekin bat egitea baizik. Maisua bizi bitartean hori da dizipuluena denbora, Haren presentziaz gozatzeko garaia, eta ez aurpegi luzeetarako unea. Jesusekin alaitasunezko eta egiazko garai berria zabaltzen da. Beraz, zaharra berritzeko abagunea da, ezin baita jada Jainkoaren Berria geldiarazi. Fededunok zailtasunak ditugu aldatzeko, erraz atrofiatzen gara eta forma zaharkituei eusten diegu. Baina Jesusen Izpiritua putz egiten jarraitzen du; nobedadea ekarriz, eta gu gonbidatuz ausartak izatera eta bide berriak irekitzera. Jainkoaren sormenak eraman gaitzan onartzea bakarrik gelditzen zaigu.

Urteko 22. astea
San Eleuterio, *abadea*

San Paulok Kolosarrei 1, 21-23: Berekin adiskidetu zaituzte Jainkoak, beraren aurrean santu eta errugabe ager zaitezten. **Sal 53:** Nik Jainkoa dut laguntzaile.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6, 1-5.

Behin batean, larunbatez gari-soroetan barna zihoan Jesus. Eta ikasleak galburuak moztu, eskuetan aletu eta jaten ari ziren. Fariseu batzuek esan zieten: «Nolatan ari zarete, larunbatez zilegi ez dena egiten?». Jesusek erantzun zien: «Ez al duzue irakurri Davidek egin zuena, bera eta beraren lagunak goseak gertatu zirenean? Jainkoaren etxean sartu eta, Jaunari eskainiriko ogiak hartuz, jan egin zituen, eta bere lagunei ere eman zizkien, legez apaizek bakarrik jan zitzaketen ogiak izanik». Eta esan zien: «Gizonaren Semea larunbataren nagusi da».

Dizipuluek gosearen ziztada sentitzen zuten urdailean, eta soroetatik bildutako galburu urriekin arintzen zuten, beren hortzek nekez birrintzen bazituzten ere. Baina fariseuek gaitzetsi egiten dituzte, ikustean larunbateko arau zorrotza ez dutela errespetatzen. Larunbata gizakiaren atseden eguna da, Sortzaileak atseden hartu bezala, Bere obra bukatzean; arnasa hartzeko, izadia garatzeko, ospatzeko eta giza hazkunderako aukera da; otoitzerako eta sosegurako eguna; Jainkoarentzako eta besteentzako denbora. Agian dizipuluek ez dute betetzen legearen letra, baina bai beraren funtsa; larunbata gizon-emakumeentzako eguna da, zeren bihotz handiko Jainkoak eman baitzien, gizatasunik onenean haz zitezen.

Urteko 23. astea

Angostoko Andre Maria (iraileko 1. igandea)

Santa Regina, *martiria*

Jakinduria liburutik 9, 13-19 (gr. 13-18).

Zein gizakik ezagut dezake Jainkoaren asmoa? Zeinek ulertu Jaunak nahi duena? Gizaki hilkorron gogoetak kaskarrak dira, gure ideiak ziurtasun gabeak. Gure gorputz galkorra arimarentzat zama da, eta lurrezko etxola honek berez pentsakor den espiritua nekarazten du. Nekez igartzen diegu lurreko gauzei eta kostata aurkitzen irispidean duguna ere. Nork arakatuko ditu, beraz, zerukoak? Nork ezagutuko zukeen zure asmoa, Zeuk eman ez bazenio jakinduria eta zerutik bidali zeure espiritu santua? Horrela bakarrik izan zen zuzena lurtarren jokabidea, horrela ikasi zuten gizakiek zer duzun atsegin, eta salbatu ziren jakinduriaren bidez.

Sal 89: Jauna, gure ihesleku Zu izan zara gizalditik gizaldira.

San Paulok Filemoni egindako gutunetik 9b-10.12-17.

Anaia maitea: Nik, Paulok, dagoeneko zahartua eta orain, gainera, Kristo Jesusengatik kartzelan nagoen honek, mesede bat eskatu nahi dizut, kartzelan sortu dudan neure seme Onesimorentzat. Berriro bidaltzen dizut bera, ene bihotz-bihotzeko dudan hau. Neurekin eduki nahi nuen, zure orde zerbizari izan nezan, Berri Onagatik kartzelan nagoelarik. Hala ere, ez dut zure baimenik gabe ezer egin nahi izan, mesede hori gogoz egin dezazun eta ez behartuta. Beharbada, horretarako alde egin zizun apur batez, gero betiko har zenezan, eta ez esklabo bezala, esklabo baino zerbait gehiago bezala baizik, anaia maite bezala. Maite-maitea da niretzat, eta zenbatez maiteago ez ote da izango zuretzat, bai gizon den aldetik eta bai kristau den aldetik. Beraz, fedean adiskide banauzu, hartzazu Onesimo nerau banintz bezala.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 14, 25-33.

Aldi hartan, jende-talde handiak zihoazen Jesusekin; honek, haiengana bihurturik, esan zien: «Norbaitek nirekin etorri nahi badu,

Urteko 23. astea

Angostoko Andre Maria (iraileko 1. igandea)
Santa Regina, *martiria*

eta bere aita-amak eta emaztea, seme-alabak eta anai-arrebak, eta bere burua bera baino maiteago ez banau, ez daiteke izan nire ikasle. Bere gurutzea hartu eta nire ondoren ez datorrena ez daiteke izan nire ikasle. Izan ere, zuetako nork, dorrea egin nahi badu, eseri eta ez ditu aurretik gastuen kontuak ateratzen, bukatzeko lain ba ote duen ikusteko? Bestela, zimenduak hartu ondoren ezin bukatuko balu, hori ikustean barre egingo liokete denek, esanez: “Honako hau eraikitzen hasi huen eta ezin izan dik bukatu”. Edota zein erregek, beste baten kontra gerrara joan nahi badu, eseri eta ez du alde zuretik deliberatzen, ea hamar mila gizon aski dituen, hoge milarekin kontra datorkionari aurre egiteko? Eta ezetz ikusten badu, artean bestea urruti dela, mandatariak bidaliko dizkio bakea eskatuz. Era berean, zuetako inor ez daiteke nire ikasle izan, dituen guztiei uko egiten ez badie».

Jesusi jarraitzeak gure giza harreman guztiak birkokatzea suposatzen du, baita erabakigarrienak ere; esaterako, gure gertuko senideekin ditugunak: gurasoekin, bikotekidearekin, seme-alabekin eta anai-arrebekin. Jesusi jarraitzea afektiboa da beti eta, ondorioz, besteekiko afektu-loturak birkokatzea dakar; mendekotasunik gabeko maitasun ondu batera garamatza, zeina irekitzen baita beste giza harreman batzuetara, premia handiena dutenenganako sentsibiltate bereziz; eskuzabala da eta horizonte unibertsalaren izaera hartzen du. Jesusek gure giza harremanak eraldatu eta perspektiba zabalagoetan kokatzen ditu, haren Aitarengan denok garelako seme-alaba eta neba-arreba. Baina, askotan, errealitate hori norberaren giza bizierak jadanik duen kargari gehitzen zaio: gurutze astunari, zeinekin egin behar den bidea. Horrek nekatu egiten du, baina baita kontsolatu ere, konturatzean Jesusek hartutako bideari jarraitzen diogula; eta, neurri batean, beraren zoriarekin solidarizatzen garelara. Gurutzea Maisuaren jarraitzaileen bizitzaren parte da, bidegabeko mundu honetan; zeren bakearen eta justiziaren Erreinuaz ezer ez dakien mundua baita, eta Haren aurka egiten baitu. Jesusek gure bizitzak eraldatu egiten ditu, buelta ematen die eta zentzuz betetzen ditu.

Mikeasen Profezia liburutik 5, 1-4a.

Honela mintzo da Jauna:

«Zu, Efratako Betleem, Judako leinuetan txikiena, zugandik aterako da Israelen buruzagia. Aspaldikoa da honen sortzea, betiereko egunetakoa. Horregatik, utzi egingo du Jaunak herria, amak haurra izan dezan arte. Orduan, atzerrian bizirik gelditutako senideak Israelgoengana itzuliko dira. Sendo eutsiko dio eta artzain bizkorra izango da Jaunaren indarrez, Jaunaren bere Jainkoaren izen handiaz. Lasai biziko dira herritarrak; handi agertuko baita hura lurraren mugetaraino, eta bakea ekarriko du».

Sal 12: Pozaren pozez nago Jaunarekin.**Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 1, 1-16 18-23.**

Abrahamen eta Daviden ondorengo den Jesu Kristoren jatorri-liburua. Abrahamek Isaak sortu zuen, Isaakek Jakob, Jakobek Juda eta haren senideak; Judak Tamarrengandik Fares eta Zara sortu zituen, Faresek Esrom, Esromek Aram, Aramek Aminadab, Aminadabek Naason, Naasonek Salmon; Salmonen Rahabengandik Booz sortu zuen, Boozek Rutengandik Obed, Obedek Jese, Jese David erregea. Davidek Uriasen emazte izanagandik Salomon sortu zuen, Salomonek Roboam, Roboamek Abia, Abiak Asaf, Asafek Josafat, Josafatek Joram, Joramek Ozias, Oziasek Joatam, Joatamek Akaz, Akazek Ezekias, Ezekiasen Manases, Manasesek Amon, Amonen Josias; Josiasen Babiloniako erbesteratutako Jekonias eta haren senideak sortu zituen. Eta Babiloniako erbesteratutako Jekoniasek Salatiel sortu zuen, Salatielek Zorobabel, Zorobabelek Abiud, Abiudek Eliakim, Eliakimek Azor, Azorrek Sadok, Sadokek Akim, Akimek Eliud, Eliudek Eleazar, Eleazarrek Matan, Matanek Jakob; Jakobek, berriaz, Jose sortu zuen, Mariaren senarra, eta Mariagandik jaio zen Jesus,

Kristo deritzana. Jesu Kristoren sortzea honela gertatu zen: Maria, Jesusen ama, Joserekin ezkontzeko hitzemanan zegoen eta, elkarrekin bizi izan baino lehen, haurdun gertatu zen Espiritu Santuaren egitez. Josek, Mariaren senarrak, gizon zintzoa baitzen eta ez baitzuen bere emaztea salatu nahi, hura isilean uztea erabaki zuen. Baina asmo hori gogoan zerabilela, Jaunaren aingerua azaldu zitzaion ametsetan eta esan zion: «Jose, Daviden ondorengo hori, ez beldur izan zeure emazte Maria etxean hartzeko, honengan sortua Espiritu Santuagandik baitator. Semea izango du, eta zuk “Jesus” ipiniko diozu izena, hark salbatuko baitu bere herria bekatuetatik». Hau guztia Jaunak profetaren ahoz esandakoa bete zedin gertatu zen: «Begira, birjinak sabelean sortu eta semea izango du, eta Emanuel ipiniko diote izena (Emanuel izen honek “Jainkoa gurekin” esan nahi du)».

Jaungoikoak Mariarengan Jesusen ama eta gure ama oparitu digula ospatzen dugu; horregatik gogoratzen dugu bere jaiotza. Bizitza oro dohaina da, jaiotzen den pertsonarentzat eta munduarentzat. Hala izan zen Maria ere. Baina, gainera, Jainkoaren Semea bere erraietan izan zuen Mariak, Jainkoaren salbazioa lortu zigunak. Mateoren ebanjelioan salbazio hau Jesusengan datza, «Jainkoa Bera gurekin»; horregatik du Emanuel izena. Mariak beti gorde zuen bere baitan Jaunaren bitartekari izateko nahia; eta bere bizitzan prestatzen joan zen, Jainkoaren mezua zeraman aingeruari baietz esateko. Bere bizitza opari itzela izan zen, gaur ospatzen dugun jaia.

Urteko 23. astea

Arantzazuko Andre Maria

San Pedro Claver, *apaiza, misiolaria, jesuita*

San Paulok Kolosarrei 2, 6-15: Jainkoak biziarazi egin zaituzte Kristorekin batera, bekatu guztiak barkaturik. **Sal 144:** Ona da Jauna guztientzat.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6, 12-19.

Aldi hartan, Jesus mendira joan zen otoitz egitera, eta Jainkoari otoitzean igaro zuen gaua. Eguna argitu zuenean, ikasleei deitu eta haietako hamabi aukeratu zituen, eta apostolu izena eman zien: Simon –honi Pedro izena ezarri zion– eta honen anaia Andres, Santiago, Joan, Felipe, Bartolome, Mateo, Tomas, Santiago Alfeorena, Simon –Zelote zeritzana–, Judas Santiagorena eta Judas Iskariote, Jesusen saltzaile izan zena. Jesus ikasleekin menditik jaitsi eta zelaigune batean gelditu zen. Ikasle-multzo handia zen harekin; baita herriko jendetza ugaria ere, Judea osotik, Jerusalemdik eta Tiroko eta Sidongo itsasaldetik etorria, hari entzutera eta beren gaitzetatik sendatzera. Espiritu gaiztoek oinazetuak sendatu egiten ziren. Jende guztiak Jesus ukitu nahi zuen, halako indar bat baitzerion, denak sendatzen zituena.

Jesusek bere bizitzako une garrantzitsuetan otoitz egiten zuen, bere egiteko Aitaren argia, zeina hainbeste aldiz bilatzen baitzuen, Harengan aurkitu nahirik Bere erabakien gida. Hamabi apostoluak aukeratzean ere otoitz egin zuen. Haiek Jerusalemeraino lagunduko diote, frogaren unean zalantzak izango dituzten arren; Bere hitzak entzungo dituzte, nahiz ez ulertu; Bere heriotza iragartzen entzungo dute, baina ez diote sinetsiko. Jesus bizi bitartean, apostoluek ez diote ia ezer ulertzen. Hala ere, Jesus faltako denean eta Bere Izpirituaaren eraginez, Kristo iragarriko dute, eta beren urratsak Maisuaren amaiera horretara bideratuko dituzte, Jesusen Nekaldikoan ezin lortuko badute ere. Orduan baieztatuko zen Jesusek asmatu egin zuela haiek aukeratzean eta haiei irakastean, Erreinuaren Berri Onaren eramaile eginez.

Urteko 23. astea

Arantzazuko Andre Maria

San Pedro Claver, *apaiza, misiolaria, jesuita*

Arantzazuko Andre Mariaren Meza.

Judit liburutik 15 ,8-10;16,13-14. Salmoa: Lukas 1, 46-54.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 39-47.

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi-aldera joan zen, Judeako herri batera, eta Zakariasenean sartu, eta Elisabeti agur egin zion. Elisabetek Mariaren agurra entzun orduko, jauzi egin zion haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen, eta esan zuen oihu handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nondik niri, neure Jaunaren ama nigana etortzea? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, sinetsi duzulako, beteko baitu Jaunak esan dizuna!». Orduan Mariak esan zuen: «Handiesten du nire arimak Jauna, pozaren pozez daukat neure barnea».

Arantzazuko Ama

Gaur ospatzen ari gara Arantzazuko Andre Mariaren, Gipuzkoako Zaindariaren, eguna. Tradizioak dioenez, Rodrigotxok (Baltzategi baserrikoak) Andre Mariaren harrizko irudi txiki bat aurkitu zuen, Jesus Haurra besoetan zuela. «Arantzan zu?», galdetu omen zuen txunditurik. Gaurko festa-egun honetako ebanjelioak garbi esaten digu: fede sakonaz onartu du Mariak Jainkoaren hitza. Elisabeten senar Zakarias ez da fidatu aingeruaren hitzaz; Mariak, aldiz, konfiantza osoa eskaini dio: «gerta bekiz zuk diozuna». Arantzazuko Andre Mariaren goratasun beteak ospatzen dugun honetan, goratasun horretarako bidea zein dugun agertzen digu zeruko amak: bihotza besteengana irekitzea da bidea.

Urteko 23. astea

San Nikolas Tolentino-koa, *aitorlea*Frantzisko Garate (Loiola 1857-Bilbo 1929), *dohatsua, jesuita*

San Paulok Kolosarrei 3, 1-11: Kristorekin hilak zaudete. Hilaraz itzazue zuen baitan mundu honen araberako jarrerak. **Sal 144:** Ona da Jauna guztientzat.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6, 20-26.

Aldi hartan, Jesusek, ikasleei begira, esan zien: «Zorionekoak behartsuok, zuena baita Jainkoaren erreinua. Zorionekoak orain gose zaretenok, aseko baitzaituzte Jainkoak. Zorionekoak orain negar egiten duzenok, barre egingo baituzue. Zorionekoak zuek, Gizonaren Semea dela-eta jendeak gorrotatu, beren artetik bota eta madarikatuko zaituztetenean eta izen txarra emango dizuetenean. Alaitu zaitezte egun horretan eta egin pozez jauzi, handia izango baita zuen saria zeruan; gauza bera egin zieten profetei jende horren gurasoek. Baina ai zuek, aberatsok, bai baituzue zeuen poza. Ai zuek, orain aseak zaudetenok, gose izango baitzarete. Ai zuek, orain barre egiten duzenok; aiene eta negar egingo baituzue. Ai zuek mundu guztiak zuetaz ondo hitz egingo duenean, gauza bera egin baitzieten sasiprofetei jende horren gurasoek».

Badira bizitza eskuzabalak, zintzoak, irekiak eta besteei emanak, zeintzuk baitira munduarentzat benetako bedeinkazioa, Jainkoak gure artean eta historian zehar izan duen presentziaren benetako isla. Eta badira bizitza gutiziatsuak ere, kapritxoek eta pribilegioen irrikatsuak, harroputzak eta handinahikeriaz beteak, zeintzuek ito egiten duten eta besteez baliatzen diren, eta natura gaizki tratatzen duten. Batzuek Jainkoaren presentzia eta bere Erreinuaren esperientzia hurbildu egiten digute; besteek urrundu eta ezkutatu. Guri tokatzen zaigu aukeratzea zein aldetatik egon nahi dugun: bizitzatik eta argitik ala klandestinitatetik eta engainutik. Jesusek adierazten digu non aurkituko ditugun poza eta kontsolamendua, zentzua eta argia, bakea eta elkartasuna. Guri askatasuna eskaintzen digu, erabaki ahal dezagun.

Tomas Zumarragakoia (Gasteiz 1577-Japonia 1622),
dohatsua, apaiza, domingotarra eta lagunak, martiriak
(Gasteizko elizbarrutian)

San Paulok Kolosarrei 3, 12-17: Izan maitasuna, hori baita elkartasun betearen lokarria. **Sal 150:** Gorets beza Jauna arnasa duen orok!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6, 27-38.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Hau diotsuet zuei, entzuleoi: Maita itzazue zeuen etsaiak, egin on gorroto dizuetenei, bedeinkatu madarikatzen zaituztetenak, egin otoitz izen ona kentzen dizuetenen alde. Masail batean jotzen zaituenari eskaini bestea ere; soingainekoa kentzen dizunari ez ukatu jantzia ere. Eskatzen dizun edonori eman, eta zeurea kentzen dizunari ez itzularazi. Eta besteek zuei egitea nahi duzuen, egin zuek ere besteei. Maite zaituztetenak bakarrik maite badituzue, zer esker on zor zaizue? Bekatariek ere maite dituzte beren maitaleak. Eta on egiten dizuetenei bakarrik egiten badiezue on, zer esker on zor zaizue? Bekatariek ere egiten dute beste horrenbeste. Eta ordaina hartzekotan bakarrik ematen baduzue maileguz, zer esker on zor zaizue? Bekatariek ere aurreratu ohi diote elkarri, dagokiena hartzekotan. Ez! Zuek maitatu etsaiak, egin on eta eman maileguz, ordainari begiratu gabe; handia izango da zuen saria eta Goi-goikoaren seme-alaba izango zarete, ona baita hura esker txarrekoentzat eta gaiztoentzat. Izan zaitezte errukiorrak, zuen Aita errukiorra den bezala. Ez gaitzetsi inor, eta Jainkoak ere ez zaituzte gaitzetsiko; ez kondenatu, eta ez zaituzte kondenatuko; barkatu, eta barkatuko dizue; eman, eta emango dizue: neurri betea, sakatua, estutua eta leporainokoa emango dizue altzora. Izan ere, zuek zein neurriz neurtu, halakoaz neurtuko zaituzte Jainkoak».

Gero eta Jainkoaren antzekoago izateko bidea, maitasunak gure bizitzako esfera guztiak har ditzan ahalbidetzea da: senide, lagun eta hurbilekiko maitasunaren arrazoizko mugak gaindituz, guztiengana iritsi arte; baita kalumniatzen, madarikatzen edo gorrotatzen gaituztenengana ere. Horrela maitatzeak barne-erresistentzia handiak dakartza; zeintzuek, gainditzin direnean, giza komunitate berriei bidea

Urteko 23. astea

Tomas Zumarragako (Gasteiz 1577-Japonia 1622),
dohatsua, apaiza, domingotarra eta lagunak, martiriak
(*Gasteizko elizbarrutian*)

ematen dieten. Barkamenak eta maitasunak bakarrik apurtu ditzakete indarkeria-espiralak; haiek bakarrik sor ditzakete konfiantzan eta onarpenean oinarritutako harremanak; eta horrela soilik lor dezakegu benetan zalantzan jartzea nagusitasunean, mehatxuan eta estortsioan oinarritutako bizimoduak. Maitasunak egiten gaitu ontasunezko Aita-Amaren antzeko, zeinek egiten baitigu errukirako deia.

* * *

Jakintsu bihurtu ninduzun (Jarraipena 2)

Eta bat-batean Jesusek
dena alderantziz ikusten du:
goretsi egiten zaitu
gauzarik funtsezkoenak,
guretzako zure proiektua adierazten dutenak,
bizimodu gozo eta errazera eraman gaitzaketenak,
ikasiei eta jakintsuei ezkutatu
eta jende xumeari irakatsi dizkiezulako.
Eta beregana joateko esan digu,
berarekin batera lurra lantzeko,
Jainkoaren proiektua landuz joateko,
berak bakarrik ezagutzen baitu Jainko Aita-Ama
(eta guk ere bai, agian
Jesusek erakusten badigu). (...)

Urteko 23. astea
Estibalizko Andre Maria (*Arabaren Zaindaria*)

San Paulok 1 Timoteori 1, 1-2.12-14: Ni lehenago biraolari izan nintzen, baina nitaz errukitu egin zen Jainkoa. **Sal 15:** Zu zara, Jauna, nire ondarea.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6, 39-42.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Izan ote daiteke itsua itsuaren gidari? Ez ote dira biak zulora eroriko? Ikaslea ez da irakaslea baino gehiago, baina ondo eskolaturiko ikaslea bere irakaslea adinakoa izango da. Nolatan ikusten duzu senidearen begiko lasto-izpia eta zeure begiko habeaz ohartzen ez? Nolatan esan diezaiokezu senideari: “Adiskide, uztazu begian duzun lasto-izpia ateratzen”, zuk zeurean duzun habeak ikusten ez duzula? Itxurazalea halakoa! Atera lehenik zeure begitik habeak, eta orduan ikusiko duzu garbi, senidearen begitik lasto-izpia ateratzeko».

Gure akatsez eta bekatuez konturatzen garenean, eta hartakotzat hartzen ditugunean, ez da arraroa gu geure buruaz lotsatzea. Baina une horretan bertan urrats handia eman dugu, pertsona bezala. Gure akatsak onartzeak apalago eta gizatiarrago egiten gaitu: lurra, lokatza garelako konturatzen gara; eta besteen ore berberaz eginda gaudela. Errekonozimendu horrek lagun hurkoengana hurbiltzen gaitu, igo ahal izan dugun goi mailatik jaitsaraziz. Orduan has gaitezke aurrera egiten anai-arreba bezala: beste inor baino trebeagoak edo jakintsuagoak garelako pentsatu gabe; eta beste batzuekin batera Jesusek ireki dizkigun Erreinurako bideak bilatuz (gizatasun, erruki eta elkar ulertze bideak).

* * *

Estibalizko Andre Mariaren Meza

Sirak 24, 1-2.5-6.12-16.26-30: Maria, jakinduriaren aulkia. **Salmoa:**
1 Samuel: Jauzika daukat bihotza Jaunagan, nire Salbatzaileagan.

Urteko 23. astea

Estibalizko Andre Maria (*Arabaren Zaindaria*)

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 39-47.

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen, Judeako herri batera, eta, Zakariasen etxean sarturik, Elisabeti agur egin zion. Mariaren agurra entzun zuen orduko, jauzi egin zion Elisabeti haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen, eta esan zuen oihu handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nor naiz ni, nire Jaunaren ama ni ikustera etortzeko? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, Jaunak esan dizuna beteko dela sinetsi duzulako!». Mariak esan zuen: «Handiesten du nire arimak Jauna, pozaren pozez daukat neure barrua, Jainkoa baita nire salbamena, ikusi baitu mirabe honen ezereztasuna».

Estibalizko Andre Maria Birjinia

Estibalizko santutegiaren lehenbiziko albiste idatzia 1074koa da, Estibalizko Jaun edo Kondeak elizako eskuineko aldarea Donemiliaga Kukulako (Errioxa) monasterioari emate-agirian. Sortzez, bertako jaunaren otoitz-leku izango zen santutegia. XII-XVI mende artean joera eta debozio handia zion Arabako herriak Estibalizko santutegiari. Bi jai nagusi izan ohi ziren Estibalitzen: Jainkoaren Semearen Gizakundekoa –gehienetan Garizuman izaten denez, maiatzaren 1ean ospatu ohi zuten— eta iraileko igande batean, ziur aski Estibalizko Andre Mariari uztarengatik eskerrak emateko. 1608an Frantziskotarrek beren ardurapean hartu nahi izan zuten Estibalizko santutegia, eta Gasteizko Udalak baimena ere eman zien; baina ez zuten antolatu anaidirik. XIX. mendeko gerrateak zirela eta, santutegi oineko Villafrancako parrokiara jaitsi zuten Andre Mariaren irudia. XX. mendean berpiztu eta indarberritu egin zen Estibalitzeko joera eta debozioa, batez ere 1906an santutegia eraberritu eta urriaren 21ean Andre Maria berriz ere hara igo zutenez geroztik. 1915ean aldare nagusi berria sagaratu zuen apezpikuak. 1923az geroz, antzina kaperauarena zen etxea handiturik, beneditar lekaide-taldea kokatu zen Estibalitzen. (*Dionisio Amundarain*). Beneditarrek 2022ko irailaren 30ean utzi zuten Estibalitz.

Urteko 23. astea

San Joan Krisostomo, *gotzaina eta eliz irakaslea*

San Paulok 1 Timoteori 1, 15-17: Bekatariak salbatzera etorri zen Kristo Jesus mundura. **Sal 112:** Bedeinkatua izan bedi Jaunaren izena, orain eta beti.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6, 43-49.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez da zuhaitz onik fruitu txarra ematen duenik, ezta zuhaitz txarrik ere fruitu ona ematen duenik. Bere fruituetatik antzematen zaio zuhaitzari; elorritik ez da pikurik biltzen, ezta sasitik mahatsik hartzen ere. Ona denak ona ateratzen du bere barneko ondasun-altxorretik, eta gaiztoak gaitza bere gaiztakeri altxorretik; ahoak esan, bihotzari gainezka dariona esaten baitu. Zergatik esaten didazue “Jauna, Jauna!” eta ez duzue egiten esaten dizuedana? Erakutsiko dizuet noren antzeko den nigana etorri eta nire hitzak entzun eta betetzen dituen: etxea eraikitzean, zulatu, sakondu eta zimenduak harkaitzean hartu zituen gizonaren antzekoa da. Uholdea gertatzean, jo zuen ur-boladak etxea, baina ezin izan zuen dardararazi, sendo eraikia baitzegoen. Entzun bai, baina betetzen ez dituen, berriz, etxea lur gainean, zimendurik gabe, eraiki zuen gizonaren antzekoa da. Jo zuen ur-boladak eta berehala erori zen eta erabat porrokatua gelditu».

Kontrako norabidean egiten ditugun ahaleginak gorabehera, lehenago edo geroago, barruan daramaguna adierazten dugu, gure hitzez eta ekintzez. Jesusek hobeto eta laburrago dio: «bihotzak gainezka duenaz mintzo da ahoa». Ondo egitea lortzeko modurik onena, ona izaten saiatzea da; bihotzaren noblezia indartzea, barkatzea, kexak eta barne-erresuminak ez pilatzea, eskerrak ematea, pertsonen ontasunez begiratzea... dira funtsezko zereginak. Itxuraz ez dira ikusten; baina lehenago edo geroago, argitara irteten dira, pertsona baten esentzia proban jartzen den uneetan: lan isila eta irmoa da, norberaren barne artisauarena. Bihotzaren ongia lantzea, bizitza Kristoren harkaitzaren gainean oinarritzea da.

Urteko 24. astea

GURUTZE SANTUAREN GORAPENA

Jerusalemeko San Alberto, *gotzaina*

Zenbakiak liburutik 21, 4b-9.

Egun haietan, herria, bideaz gogaituta, gaizki esaka hasi zen Jainkoaren eta Moisesen aurka: «Zertako atera gintuzun Egiptotik? Basamortuan hiltzeko? Ez dugu ogirik, ez urik, eta asperturik gaude mana delako janari kaskar honekin». Jaunak suge pozoitsuak bidali zizkion herriari, eta haien ziztadaz israeldar asko hil zen. Orduan, Moisesengana joan eta esan zioten: «Bekatu egin dugu, Jaunaren eta zure kontra gaizki esaka jardunez. Erregutu Jaunari sugeak gugandik urruntzeko». Erregutu zuen Moisesek herriaren alde, eta Jaunak esan zion: «Egizu brontzezko sugea eta ipini haga baten muturrean. Sugeek zizta egindako guztiak, brontzezko sugeari begiratzean, sendatu egingo dira». Egin zuen Moisesek brontzezko sugea eta hagaren muturrean ipini zuen. Eta sugeren batek norbaiti zizta egiten zionean, brontzezkoari begiratzean sendatu egiten zen.

Sal 77: Ez ahaztu Jaunaren egintza handiez.

San Paulok Filipinoarrei 2, 6-11.

Kristo Jesusek, Jainkoaren izaera bereko izanik, ez zion gogor eutsi Jainkozko bere mailari; bestela baizik, zegokion aintza utzi eta esklabo-izaera hartu zuen, gizakien antzeko eginez. Eta gizaki bezala agertuz, apaldu egin zuen bere burua, menpeko eginez heriotzaraino, gurutzean hiltzeraino. Horregatik, denen gainetik goratu zuen Jainkoak eta izen guztietan bikainena eman zion, Jesusen izenaren omenez denen belaunak makur daitezen, zeruan, lurrian eta lurpean, eta mihi guztiek aitor dezaten Jesu Kristo dela Jauna, Jainko Aitaren aintzarako.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3, 13-17.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Nikodemori: «Ez da inor zerura igo zerutik jaitsi zena baizik, Gizonaren Semea. Moisesek basamortuan

Urteko 24. astea

GURUTZE SANTUAREN GORAPENA

Jerusalemeko San Alberto, *gotzaina*

brontzezko sugea altxatu zuen bezala, hala izan behar du altxatua Gizonaren Semeak, harengan sinesten duten guztiek betiko bizia izan dezaten. Izan ere, hain maite izan zuen Jainkoak mundua, bere Seme bakarra eman baitzion, harengan sinesten duen inor gal ez dadin, baizik eta betiko bizia izan dezan. Jainkoak ez baitzuen bere Semea mundura bidali mundua kondenatzera, haren bitartez mundua salbatzera baizik».

Mendeak igaro ziren Elizak Kristo gurutzean irudikatzen hasi arte. Irudi basatia eta iraingarria zen, zeinek arbuioa eta izua eragiten baitzituen. Hala ere, historian Jesusen irudi hori agertu zenetik, maitatua izan da eta jadanik ez dio erreproduzitzeari utzi: kristau ikurrik ugariena da, gure elizetan presente dagoena eta jende askok aldean daramana. Gurutzeak esanahi asko gogorarazi ditzake fededunaren bihotzean, baina agian bi nabarmentzen dira nagusiki. Alde batetik, Kristoren oinazea irudikatzen du, eta Berarengan munduan sufritzen duten hainbat pertsonena, zeintzuk gaurko gurutziltzatuak baitira. Jesus gurutzean gutako bakoitza bihurtu da: gure larritasun eta zaurietan, gure gau eta bakardadeetan. Bere solidaritateak lagundu egiten digu, eta Bere hurbiltasunak baretu. Gure atsekabeetan gurutziltzatutako Kristori otoitz egitea lasaigarria da bihotzarentzat. Bestalde, gurutze hori Jainkoaren gupidaren sinboloa da, Zeina gure artean presente dagoen Miserikordia gisa, ez epaiketa eta kondenazio gisa. Berak denok barkatzen gaitu, ez baitakigu zer egiten dugun. Erruki hori da historiari buruz Berak duen behin betiko hitza, itxaropenari bidea irekitzen diona. Horregatik, zuzentzen ditugu begiak gurutzerantz, konfiantza osoa Jainkoarengan bakarrik jarrita.

Urteko 24. astea

DOLORETAKO ANDRE MARIA

San Paulok 1 Timoteori 2, 1-8: Egin otoitz Jainkoari gizaki guztien alde, gizaki guztiak salbatzea nahi baitu berak. **Sal 27:** Bedeinkatua Jauna, entzun baitu nire erregu-oihua.

Jesu Kristoren ebanjelioa San Joanen liburutik 19, 25-34.

Aldi hartan, Jesusen gurutzearen ondoan zeuden haren ama, amaren ahizpa, Maria Kleofasen emaztea eta Maria Magdalena. Jesusek, bere ama eta, honen ondoan, maite zuen ikaslea ikusirik, esan zion amari: «Emakume, horra hor zeure semea!». Gero, ikasleari esan zion: «Horra hor zeure ama!». Eta orduz gero ikasleak bere etxean hartu zuen.

Mariak Jesusen ondoan dirau eta sufritzen dutenei laguntzen erakusten digu. Indarra kanpotik adierazten da sostengatzeko, baina minak barrutik sastatzen du. Maria ez da hausten kanpotik, bere Semearen sufrimendua ez mugiarazteko, nahiz eta bereak min ematen dion. Mariak ama izatearen maitasun baldintzarik gabea erakusten du eta dizipulu izatearen fideltasun osoa. Gurutzearen trantzea igaroz, berpizkundearen zorionaz gozatuko du. Gurutzepean, Maria fededun guztion ama bihurtzen da: gure gau ilunetan, zaurietan eta sufrimenduetan maitasunez hartzen gaitu; Mariarengan atsedena aurkitzen dute eroriek, mesprezatuek eta ahaztuek. Oinazean solidario bihurtu da munduko atsekabetuekin, babestuz eta baketuz.

* * *

Neurtitza (Doloretako Andre Mariarena)

Zutik, gurutze ondoan,
Ama samina zegoan,
eta Semea zintzilik.
Haren arimaren mina!,
zazpi ezpatek egina,
han zegoen larririk.

Hain estu eta atsekabea,
Seme bakardun Andrea,
Ama bedeinkatua!
Oinazez eta atsekabez,
Seme kutunaren lanez
zegoen kupitua.

Nork ez du negar egingo,
Jesusen Ama halako oinazez ikusita?
Ama-semeak ikustean
biak oinaze berean
elkarrekin josita?
Bazekien beretarren
erruz zutela zigortzen
Jesus, bere maitea.
Inortxok ere ez laguntzen,
eta azken arnasa ematen
han zekusan Semea.

Hots, Ama, maite-iturri,
zurekin oinaze bizi
har dezadan egizu.
Sutu Kristoren maitean
bihotz hau, eta haren aurrean
eder egin nazazu.

Ama, nire bihotzari
Kristoren zauriak jarri,
otoi, mami-mamian.
Seme horren neke-lanak
erdiz bidal niregana,
maite nauen sarian.

Urteko 24. astea

DOLORETAKO ANDRE MARIA

Zurekin negar bizian
naukazu, eta haren zorian,
hil nadin arteraino.
Zurekin gurutze ondoan
lagunduz, negar malkoan
nagon bizi naizeino.

Birjinetan ederrena,
zakizkit samurrena,
niri negar eragin.
Kristoren neke-herio
zauriak hartzeko, bihotz
hau adoretzu egin.

Zauri ni zeure zauriez
zora ni zeure odolez,
gurutze-iturripean.
Sugarrez erre ez nazaten
nire alde jarri, arren,
Ama azken egunean.

Hemendik irtetekoan,
Amaren bidez ni noan,
Kristo, garaipenera.
Nire gorputz hau hiltzean,
arima doala hegan
zeruko pozetara.
Amen.

Urteko 24. astea

San Kornelio, *aita santua* eta San Zipriano,
gotzaina, martiriak

San Paulok 1 Timoteori 3, 1-13: Zuzendariak akatsik gabea izan behar du; diakonoek ere Jainkoak agertu eta guk sinetsiriko egia kontzientzia garbiz gordetzen dutenak. **Sal 100:** Bihotz akats gabez jokatu du.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 7, 11-17.

Aldi hartan, Nain izeneko herrira joan zen Jesus, bere ikasleak eta jende asko lagun zituela. Herriko sarrerara hurbildu zenean, hildako bat, ama alargun baten seme bakarra, zeramaten lur ematera. Herriko jende asko zihoan amarekin. Hau ikustean, errukitu egin zitzaion Jauna eta esan zion: «Ez egin negarrik!». Hurbildurik, hilkutxa ukitu zuen, eta zeramatenak gelditu egin ziren. Orduan, esan zuen: «Gazte, zuri diotsut: Jaiki!». Jaiki zen hildakoa eta hizketan hasi, eta Jesusek amari eman zion. Beldurrak hartu zituen denak eta Jainkoa goستن zuten, esanez: «Profeta handia sortu da gure artean». Eta hau ere bazioten: «Jainkoa bere herria salbatzera etorri da». Judea eta inguruko lurralde guztian zabaldu zen gertaera honen berri.

Alargun honi zoritxarrak pilatzen zaizkio: senarra ez ezik, seme bakarra ere galdu du. Segizioa astiro doa, oinazez eta tristuraz beterik. Jesus adi dago beti; eta, jende harekin zerikusirik ez duen arren, argi eta garbi ikusten du haiek bizitzen ari direna, eta errukia sentitzen du. Ikusteak eta errukitzeak mugiarazten dute berriro ere Jesus. Bere bizitza erruki dinamika luzea da, zeinek eramaten baitu galdutako bizitzak erreskatatzera. Kasu honetan alargun gaixo haren semea da, zeina osasuntsu itzultzen dion emakumeari. Jesus bizitza da eta heriotzatik salbatzen du; Bere errukiak ez du mugarik, dena egin dezake. Berpiztuaganako fedean datza, zalantza izpirik gabe, Jaunagan fidatzeko dugun gaitasuna.

Urteko 24. astea

San Roberto Belarmino, *gotzaina eta eliz irakaslea, jesuita*

San Paulok 1 Timoteori 3, 14-16: Handia da gure erlijioaren misterioa.

Sal 110: Jaunak eginak handi dira.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 7, 31-35.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Norekin konparatuko nuke gizaldi honetako jendea? Noren antzekoa da? Plazan eserita dauden haurren antzekoa da, honela oihu egiten baitiete batzuek besteei: “Soinua jo dizuegu, eta zuek dantzarik ez; hiletak jo, eta zuek negarrik ez”. Izan ere, etorri da Joan Bataiatzailea, ez ogirik jan ez ardorik edan egiten ez zuela, eta deabruak hartua dagoela esaten duzue. Etorri da Gizonaren Semea, jaten eta edaten duela, eta honela diozue: “A zer tripazaina eta mozkorra, zergalari eta bekatarien adiskidea”. Baina bera onartzen dutenek arrazoi eman diote Jainkoaren jakinduriari».

Jesusek ezerk asetzen ez dituen haur apetatsu batzuen aurrean kokatzen gaitu. Batzuetan, haiei bezala gertatzen zaigu guri ere: poztea dagokigunean, kexati jartzeko arrazoiak aurkitzen ditugu; eta sufrimendua iristerakoan, berau sakonki eta fedez bizitzeari uko egiten diogu. Bizitza pasarte bat da gure sentimenduak Jainkoaren erritmora egokitzeke, zeinek une oro adierazten baitigu gure neba-arreben artean agertzeke dugun modu desberdina: batzuetan poztasuna emanez; beste batzuetan elkartasuna agertuz, adi besteen beharrianekiko eta prest eskuzabaltasunez geure burua eskaintzeko. Jesusek beti sustatu zuen Erreinuaren poza ospatzea, baina ihes egin gabe iristen zaizkigun sufrimenduetatik; zeintzuek, Haren ondoan biziz, ez baitute gu eraisteko ahalmenik.

Karlos Eraña (Aretxabaleta 1884-Ciudad Real 1936),
marianista, Fidel Fuidio eta Jesus Hita, *dohatsuak, erlijioso*
eta martiriak. San Jose Kupertino-koa, *frantziskotarra*

San Paulok 1 Timoteori 4, 12-16: Egin kontu zeure buruari eta irakaspenari; hori eginez, salbatuko baitituzu bai zeure burua, bai entzuleak. **Sal 110:** Jaunak eginak handi dira.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 7, 36-50.

Aldi hartan, fariseu batek bazkaltzera gonbidatu zuen Jesus. Joan zen, bada, Jesus fariseuaren etxera eta mahaian jarri zen. Honetan, emakume bat, herrian bekatari bezala ezaguna, Jesus fariseuaren etxean bazkaltzen zela jakinik, bertara joan zen, harzurizko ontzi bat ukendu zeramala. Jesusen atzean, oinen ondoan, jarri zen negarrez, eta haren oinak malkoz bustitzen hasi zen; gero, ileaz xukatu eta musukatu ondoren, ukenduz gantzutu zizkion. Hau ikusirik, gonbidatu zuen fariseuak bere baitan zioen: «Gizon honek, benetan profeta balitz, jakin behar luke zernolakoa den bera ukitzen ari den emakumea, bekataria baita». Jesusek esan zion: «Simon, badut zerbait zuri esateko». Hark erantzun: «Esazu, Maisu». «Mailegu-emaila batek bi zordun zituen: bata bostehun denario zor zizkion, eta besteak berrogeita hamar. Nondik ordaindu ez zutelarik, barkatu egin zien biei. Bietako zeinek izango ote du maiteen?». Simonek erantzun zion: «Gehien barkatu zaionak, nik uste». Jesusek esan zion: «Zuzen diozu». Eta, emakumeagana itzulirik, Simoni esan zion: «Ikusten al duzu emakume hau? Zuenean sartu naizenean, zuk ez didazu oinak garbitzeko urik eman; honek, berriz, malkoz busti dizkit oinak eta bere ileaz xukatu. Zuk ez nauzu musu emanez agurtu; hau, berriz, sartu denetik ez da gelditu nire oinei musuka. Zuk ez didazu burua olio zantzutu; honek, berriz, oinak ukenduz gantzutu dizkit. Hau diotsut, beraz: hainbesteko maitasuna agertzen duenean, bekatu asko barkatu zaion seinale da; gutxi barkatu zaionak maitasun txikia agertzen du». Eta emakumeari esan zion: «Barkatuak dituzu bekatuak». Beste bazkaltziarrak beren artean esaten hasi ziren: «Nor ote dugu bekatuak barkatu ere egiten dituen hau?». Baina Jesusek esan zion emakumeari: «Zeure sinesmenak salbatu zaitu. Zoaz bakean».

Urteko 24. astea

Karlos Eraña (Aretxabaleta 1884-Ciudad Real 1936),
marianista, Fidel Fuidio eta Jesus Hita, *dohatsuak, erlijioso*
eta martiriak. San Jose Kupertino-koa, *frantziskotarra*

Harritu egiten du ikusteak emakume hau Jesusen oinak garbitzen, musukatzen eta lurrinez igurzten. Ez dute geldiarazten antzeman ditzakeen begiradek ez iruzkinek. Bakarrik nahi dio adierazi Jesusi bihotz beteko maitasuna, neurrigabeko keinu baten bidez. Jesusék adeitasunez erantzun dio, eskaintzen dion arreta onartuz, eta Bere hitzez emakume haren ekintza bakoitza nabarmenduz. Jaunarekiko benetako harremanak bakarrik erabiltzen du Jainkoaren eta kreaturaren arteko maitasunaren hizkuntza hau. Harreman mota horretan sartzen ez dena bazterrean geratzen da, fariseua bezala: txundituta begira, ezer ulertu gabe. Baina elkarrekiko maitasun hori gertatzen denean, bizitza usain berri batez betetzen da, aretoa bete zuen lurrin hartaz bezala.

* * *

Jakintsu bihurtu ninduzun (Jarraipena 3)

Mila esker, Jauna,
 Jesusen ereduagatik.
 Ez diguzu erabakitzeke lana kendu,
 geure bidea geuk egiten dugu,
 askatasunez eta geure erantzukizunez;
 baina irizpide zuzena eman diguzu:
 Jesus.
 Hari jarraituz,
 Haren ondoan tiraka,
 Hark egingo lukeena eginez,
 zure proiektuan lanean ibiliko gara
 eta dena izango da
 eramán erraza eta arina. (...)

Urteko 24. astea

San Jenaro, *gotzaina eta martiria*

San Paulok 1 Timoteori 6, 2c-12: Zu, Jainkoaren gizon hori, saia zaitez justizian. Sal 48: Zorionekoak gogoz behartsu direnak, berena baitute Jainkoaren erreinua.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 8, 1-3.

Aldi hartan, herriz herri eta auzorik auzo ibili zen Jesus, Jainkoaren erregetzaren Berri Ona hots egiten. Berekin zituen Hamabiak, baita espiritu gaiztoetatik eta gaitzetatik sendatua zuen zenbait emakume ere: Maria Magdalena –honengandik zazpi deabru bota zituen–, Joana –Herodesen etxezain Kusaren emaztea–, Susana eta beste asko; hauek beren ondasunez laguntzen zieten Jesusi eta honen ikasleei.

Ebanjelioan aipatutako emakumeak gutxitan agertzen dira Jaunaren dizipulu gisa, baina horrela gertatzen da testu honetan. Hemen biltzen dira horietako batzuen izenak. Jesusen jarraitzaileak dira, Maisuaganako esker oneko emakumeak, izpiritu txarretatik edo gaixotasunetatik askatuak izan direlako. Baliabide ekonomikoak dituzte eta Jesusek gidatutako mugimendu ibiltaria beraien ondasunez zerbitzatzen dihardute gogotsu. Berririo agertuko dira Jesusen gurutzearen ondoan, lehenengo lerroan; eta Jaunaren berpizkundearen lekuko izango dira. Emakumeek funtsezko papera jokatu zuten lehen kristau komunitatean eta mendeetan zehar. Haien karismak gaur egun ere ezinbestekoak dira Elizan, zeina poliki-poliki baino ez baitoa onartzen Maisuak eman zien egitekoa.

Urteko 24. astea

San Andres Kim Taegon, *apaiza*, San Paulo Chong Hassag eta lagunak, *martiriak* (Koreako martiriak)

San Paulok 1 Timoteori 6, 13-16: Bete agindua akatsik gabe, Jauna agertuko den eguna arte. **Sal 99:** Sar zaitezte oihu alaiz Jaunaren aurrera.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 8, 4-15.

Aldi hartan, herri guztietatik jendetza handia bildu zitzaion batean, Jesusék parabola hau esan zien: «Behin batean, atera zen ereilea hazia ereitera. Ereitean, zenbait ale bide-bazterrean erori zen, eta zapaldu egin zuten eta txoriek jan. Beste zenbait ale harri artean erori zen eta, erne orduko, ihartu egin zen, hezetasunik ez zuelako. Beste zenbait ale sasi artean erori zen, eta sasiék, harekin batera ernerik, ito egin zuten hazia. Gainerakoak lur onean erori ziren, eta erne eta bateko ehun eman zuten fruitua». Hau esanik, honela egin zuen oihu: «Entzuteko belarririk duenak entzun beza». Orduan, parabola honek zer esan nahi zuen galdetu zioten ikasleek Jesusi. Honek erantzun zien: «Zuei eman zaizue Jainkoaren erreinuaren misterioak ezagutzea; besteei, ordea, parabola bidez hitz egiten diet. Horrela, begiratzen dute, baina ikusten ez; entzuten dute, baina ulertzen ez. Hona, bada, parabolaren esanahia: Hazia Jainkoaren hitza da. Bide bazterreko hazia bezalakoak hauek dira: hitza entzuten dutenak, baina deabrua etortzen zaie eta kendu egiten die hitza beren bihotzetik, sinetsi eta salba ez daitezten. Harri arteko hazia bezalakoak hauek dira: hitza entzutean pozik hartzen dutenak; baina, sustrairik gabeak izanik, denboraldi batean sinesten dute, baina tentaldi-garaian atzera egiten dute. Sasi artean eroritako hazia bezalakoak beste hauek dira: hitza entzuten dutenak, baina bizitzako arduren, diruaren eta atseginen artean itota gelditzen dira eta ez dira iristen fruitua ematera. Lur oneko hazia bezalakoak, berriz, hauek dira: hitza bihotz onez eta zabalez entzunik, barruan gorde eta iraupenez fruitua ematen dutenak».

Jainkoaren hitzak ez du eragiten modu automatikoan, txundituz eta borondateak makurraraziz. Hitz hau emeki erortzen da pertsona

Urteko 24. astea

San Andres Kim Taegon, *apaiza*, San Paulo Chong Hassag
eta lagunak, *martiriak* (Koreako martiriak)

bakoitzarengan, lur bigun eta emankorraren gainera, non hazi daitekeen. Hazia da, eta ahalmen osoa du ernetzeko, hazteko eta fruitua emateko; baina hori egin ahal izateko, jasotzen duenaren zaintza behar du: lurra goldatzea eta oxigenatzea, sustraiak sakon sar daitezen; inguratzen eta zanpatzen duten belarrak kentzea, desbideratze tentazioen kontra barau egiten dutenen antzera; eguzkiaren argitan jartzea eta euriz blaitzea, Jainkoaren beroak ase gaitzan, Horrela bai hazi gaitezke, loratu eta fruitua umotu, heldu arte.

* * *

Jakintsu bihurtu ninduzun (Jarraipena 4)

Lagundu behar diguzu, Jauna,
hori bai,
arrakasta bilatzeko joera daukagulako,
arrakastarako egin beharreko lana
arinagoa iruditzen zaigulako
eta hartu behar ditugun zamak
eraman errazagoak. (...)

Horrela guk ere esan ahalko dugu:
«Goretsia zu, Aita-Ama,
ezjakina nintzela,
jakintsu bihurtu ninduzulako».

Urteko 25. astea

SAN MATEO, APOSTOLUA ETA EBANJELARIA

San Jonas, *profeta*

Amosen Profezia liburutik 8, 4-7.

Entzun hau zuek, behartsuak zapaldu eta herriko jende xehea hondatzen duzenok. Zeuen baitan diozue: «Noiz igaroko ote da ilberri-jaia, garia saltzeko, noiz larunbata, alea salmentan ateratzeko? Neurria txikiagotu eta prezioa handituko dugu, okerreko pisuak erabiliz; gari-zahia ere saldu egingo dugu. Jende xehea diruz erosiko dugu eta behartsuak oinetako pare baten truke». Jakoben ondorengoen harrogarri den Jaunak zin dagi ez dituela sekula ahaztuko horien gintza gaiztoak.

Sal 112: Goretsazue Jauna, behartsua zaborretatik ateratzen duena.

San Paulok 1 Timoteori 2, 1-8.

Anaia maitea: Beste ezer baino lehen, gizaki guztien alde eskari, otoitz, erregu eta esker emateak egiteko eskatzen dizut; baita erregeen eta agintea duten guztien alde ere, modu lasaian eta baketsuan bizi gaitezen, jainkozaletasunez eta duintasunez. Eder eta atsegin zaio hau Jainko gure Salbatzaileari, gizaki guztiak salbatzea eta egia ezagutzera iristea nahi baitu berak. Izan ere, bakarra da Jainkoa eta bakarra Jainkoaren eta gizon-emakumeen bitartekoa ere: gizon bat, Kristo Jesus, bere burua guztien salbamenerako ordain-saritzat eman zuena. Bere garaian egindako aitormena da hau, eta honetarako egin nau ni Jainkoak oihulari eta apostolu –egia diot, ez diot gezurrik–, jentilen maisu, berauei sinesmena eta egia irakasteko. Beraz, gizonezkoek toki guztietan otoitz egin dezaten nahi dut, zerurantz esku garbiak jaso, haserrerik eta eztabaidarik gabe.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 16, 1-13.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Gizon aberats batek etxezain bat zuen, eta hau ondasunak alferrik galtzen ari zitziola

Urteko 25. astea
 SAN MATEO, APOSTOLUA ETA EBANJELARIA
 San Jonas, *profeta*

salatu zioten. Deitu eta esan zion: “Zer da zutaz entzun dudan hori? Emadazu etxezaintzaren kontu, ez baitzara aurrerantzean nire etxezain izango”. Etxezainak, orduan, bere baitan zioen: “Zer egin behar dut nik orain, nagusiak kargua kentzen didanez gero? Aitzurrerako ez naiz gauza, eta eskerako lotsa naiz. Badakit zer egin, kargutik botatzen nautelarik etxean nork hartu izan dezadan”. Banan-banan bere nagusiaren zordun guztiei deitu eta lehenengoari galdetu zion: “Zenbat zor diozu nire nagusiari?”. Hark erantzun: “Ehun upel olio”. Etxezainak, orduan: “Hona zeure ordain-agiria; agudo, eseri eta idatzi berrogeita hamar”. Gero, hurrengoari galdetu zion: “Zuk zenbat zor diozu?”. Hark erantzun: “Ehun anega gari”. Etxezainak, orduan: “Hona zeure ordain-agiria; idatzi laurogei”. Eta nagusiak txalotu egin zuen etxezain zuzengabe hura, zuhur jokatu zuelako. Izan ere, mundukoak zuhurrago dira beren arteko arazoetan, argitakoak berenetan baino. Beraz, hau diotsuet Nik ere: “Irabaz itzazue adiskideak bidegabeko diruaz; horrela, dirua amaitzean, betiko bizilekuan hartuko zaituzte Jainkoak. Gauza txikietan fidagarri dena, handietan ere fidagarri da, eta gauza txikietan zuzengabe dena, handietan ere zuzengabe. Bidegabeko dirua erabiltzen fidatzekoak izan ez bazarete, nork utzi zuen esku egiazko ondasuna? Zeuena ez duzuen aberastasunarekin fidatzekoak izan ez bazarete, nork eman benetan dagokizuen? Ezin da morroi bat bi nagusiren zerbitzari izan. Izan ere, bata gorroto izango du, eta bestea maite; edota bati leial izango zaio, eta bestea ez du aintzat hartuko. Ezin zarete izan Jainkoaren eta diruaren morroi”».

Testu honetan txertatutako parabolak, administratzaile bidegabearenak, okerreko interpretazioak eragiten ditu, Jesusek moralik gabeko jokabidea goretsi nahi duela aditzera eman baitezake. Baina komeni da irakurtzea parabola hau Amosen lehen irakurgaiaren argitan, zeinek behartsuekin zuzenak izatea eskatzen baitu. Ondasunen jabe bakarra Jainkoa da, eta Bere aurrean denok gara administratzaileak, ez lur-jabe izateko hautagai. Ez dagokigu

Urteko 25. astea

SAN MATEO, APOSTOLUA ETA EBANJELARIA

San Jonas, *profeta*

jabetzak metatzea, Jainkoak ematen dizkigun zeruko ondasunen bitartekari izatea baizik. Hori da bakarrik administratzaileak ulertzen duena, kaleratua denean: kontua ez dela jabe handi bihurtzea, nahi izan zuen bezala; baizik eta adiskideak egitea, ondasunak partekatuz eta zorrak barkatuz. Hauxe da Jesusek nahi duena guk egitea: ondasunak eta segurtasunak eskuratzeko grina hutsala alde batera uztea; eta pobreekiko elkartasuna eta eskuzabaltasuna gauzatzea, Jainkoarengandik bakarrik jaso dugunaren bitartez. Gure bokazioa ez da jabe izatearena, baizik eta elkarren kargu egiten diren nebarrebena. Gonbidapen bat da: partekatuz bizitzeko, eta ulertzeko ezen altxor bakarra giza familia osatzea dela eta ez aberastasun bidegabeak egitea.

* * *

«Lagun hurkoarenganako maitasuna errealista da, eta ez du alferrik galtzen historia eraldatzeko bide horretan behartsuenei mesede egiteko beharrezkoa iruditzen zaion ezer. (...) Horrek ederki asko erakusten du, beharrezkoa dela mundu-mailako antolaketa ahalik eraginkorrena izatea, eta ez bakarrik senidetasunaren mistika bat proposatzea, herrialde pobreetan guztiz baztertuta eta sufritzen bizi eta hiltzen diren pertsonen arazoak konpontzen laguntzeko» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 165).

Urteko 25. astea

Frantziska Amezual (Abadiño 1881), Justa Maiza (Ataun 1897), Kontxi Odriozola (Azpeitia 1882), *

Esdra liburuaren hasiera 1, 1-6: Jainkoaren herriko diren guztiak igo bitez Judako Jerusalemera, eta eraiki biezaiote etxea Jaunari.
Sal 125: Gurekin handikiro jokatu du Jaunak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 8, 16-18.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Inork ez du argia pizten eta ontzipean gordetzen edota ohepean ipintzen, baizik eta argimutilaren gainean ipintzen du, sartzen direnek argia ikus dezaten. Izan ere, ez dago ezer gordea agertuko ez denik, ezta ezkutuan ere jakingo eta argitaratuko ez denik. Kontu izan, beraz, nola entzuten duzuen! Izan ere, duenari eman egingo zaio; ez duenari, ordea, eduki uste duena ere kendu egingo zaio».

Gaizkia ugaria da kalezulo ilunetan eta gauaren belztasunean ezkututzen da, non istiluak lantzen eta ustelkeriak sortzen baitira. Ebanjelioak poztasunaren argia eta egia proiektatzen ditu errealitate lainotuan, argi utziz Jaungoikoaren maitasunak markatzen duela historiaren zentzua, jadanik dena eta egun batean osorik izatera iritsiko dena. Hori da goian jartzea dagokigun argia, bistaratu ditzan giza egoerak: trikimailuak eta tranpak agerian jarritz; eta gauza guztietan existitzen den ontasuna azaleratuz, dena baita dohain jainkotiarra. Jesusen Argiak argitzen ditu gure bizitzak, gizadia eta historia.

* Klara Ezkurra (Arrasate 1896), Feliziana Uribe (Muxika 1893), Kotsuelo Cuñado (Bilbo 1884), Antonia Gosenz Saez de Ibarra (Gasteiz 1870), Daria Campillo (Gasteiz 1870) eta lagunak, *vedrunatarrak, dohatsuak, birjinak eta martiriak*, 1936

Urteko 25. astea

San Pio Pietrelcina-koa, *apaiza, kaputxinoa*

Esdras liburutik 6, 7-8. 12b. 14-20: Bukatu zuten jauretxea eraikitzea, eta Pazkoa ospatu zuten. **Sal 121:** Goazen pozik Jaunaren etxera!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 8, 19-21.

Aldi hartan, ama eta anai-arrebak joan zitzaizkion Jesusi, baina jendearen jendeaz ezin iritsi ziren beragana. Eta jakinarazi zioten Jesusi: «Ama eta anai-arrebak dituzu kanpoan, zu ikusi nahian». Jesusek erantzun zien: «Hauek ditut Nik ama eta anai-arreba: Jainkoaren hitza entzun eta betetzen dutenak».

Ebanjelioetako orrialde batzuetan Jesusen familiartekoak agertzen dira, Hari aukera emanez adierazteko ezen garai berrian ez direla odol-loturak lehenetsiko; baizik eta senidetasun irekiarekiko eta gurasotasun jainkotiarrekiko errespetuzko loturak. Hortik sortzen dira garai orotako kristau elkarteak, zeintzuk saiatzen baitira bizitzen gaur egun, gerora bakarrik existituko den behin betiko errealitatea: giza familia adiskidetua, non guztiek onartzen baitute elkar anai-arreba bezala, eta non Jaungoikoa bakarrik baita misrikordiaren AITA-AMA. Maria, eta Jesusen neba-arreba deitutakoak, izan ziren Jesusen jarraitzailetzat hartuak, Maisuaren irakaskuntzan eta praktikan oinarritutako familia zabal hura handituz.

Urteko 25. astea

Mesedeetako Andre Maria

Esdras liburutik 9, 5-9: Geure Jainkoak ez gaitu eskutik utzi geure esklabotzan. **Salmoa: Tb 13, 2.3-4a.4bcd.5.8 (R/. 2a):** Bedeinkatua, beti bizi den Jainkoa!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9, 1-6.

Aldi hartan, Jesusek, Hamabiak beregana bildurik, deabru guztiak botatzeko ahalmena eta gaitzak sendatzeko indarra eman zien. Eta Jainkoaren erreinua hots egitera eta gaixoak sendatzera bidali zituen, esanez: «Ez hartu ezer biderako, ez makilarik, ez zakutorik, ez ogirik, ez dirurik, ezta aldatzeko soinekorik ere. Etxe batean sartzen zaretela, gelditu han herri hartatik atera arte. Eta onartzen ez bazaituztete, herri hartatik ateratzean, astindu zeuen oinetako hautsa, haien kontrako seinaleztat». Atera ziren, bada, eta herriz herri joan ziren, Berri Ona hots eginez eta alde guztietan gaixoak sendatuz.

Jesusek bere misioa nola bete behar duten irakasten die dizipuluei: ez dira autoritatean, ez ondasunetan, ez itxuran oinarrituko; beraien ahultasunak izan behar du harrera egiten dietenen hospitalitaterako deia. Horrela zabaldu ahal izango da Jainkoaren obra: ez inposizio gisa, baizik eta erantzuna eragiten duen gonbidapen gisa. Modu honetan, dizipuluek lagun duten Jaunaganako konfiantzaz baliatu beharko dute. Bere mezulariak dira egiazki, inbestituak baitira Jainkoaren miseriakordiaz; Zeinek iragartzen duen Berri Ona eta sendatzen dituen gaixoak eta deabrudunak, Jesusen bitartez. Haiek herriz herri joango dira ibiltari, Maisua bezala, bidean zehar Ebanjelioaren arrastoa utziz.

Urteko 25. astea

San Kleofas, *Jaunaren ikaslea*

Ageoren Profezia liburuaren hasiera 1, 1-8: Ekin tenplua eraikitzeari; atsegin izango dut Nik hori. **Sal 149:** Maite du Jaunak bere herria.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9, 7-9.

Aldi hartan, jakin zuen Herodes agintariak gertatzen ari zen guztia, eta zer pentsatu ez zekiela zegoen. Batzuek Joan Bataiatzailea hilen artetik piztu zela zioten; beste batzuek Elias profeta agertu zela; beste zenbaitek, berriz, antzinako profetaren bat piztu zela. Herodesek, ordea, honela zioen: «Joani neuk moztu nion lepoa. Nor da, beraz, hau, horrelakoak entzuten baititut honi buruz?». Eta Jesus ezagutzeko egokiera bila zebilen.

Jesus profetarekin gertatzen ari denaz harritu egiten da Herodes. Berak hil zuen Joan; eta pentsatzen zuen, haren dizipuluak sakabanatuta egonik, zentzugabekeria hura guztia desagertu egingo zela. Baina orain topo egiten du beste gizon batekin, Zeinek baitirudi Joanen arrastoari jarraitzen diola. Ebanjelioaren zeinuak hauskorrak dira beti, hala nola hura iragartzen dutenen bizitzak; Joanena nahiz Jesusena. Itxuraz nahikoa da indarkeria selektiboa, zeinu horiekin amaitzeko. Baina hori guztia baino indartsuagoak dira eta une oro berrindartzen dira, Espirituaren eraginez, Zeinek jarraitzen baitu kontzientziak pizten eta bihotzak mugiarazten; Jainkoarena denak, justizia eta duintasun-munduak, bide berriak aurkitu eta aurrera jarrai dezan. Ez dago haien kontra egin dezakeen Herodesik.

Urteko 25. astea

San Kosme eta San Damian, *martiriak*

Ageoren profezia liburutik 1, 15b-2, 9: Denbora gutxi barru Jaunaren etxea aintzaz beteko dut. **Sal 42:** Itxaron Jainkoagan; goretsiko dut neure salbatzailea eta Jainkoa.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9, 18-22.

Behin batean, Jesus otoitzean bakarrik ari zela, ikasleak hurbildu zitzaizkion, eta Jesusek galdetu zien: «Nor naizela dio jendeak?». Haiek erantzun zioten: «Batzuek Joan Bataiatzailea zarela; beste batzuek Elias; besteek, berriz, antzinako profetaren bat piztu dela». Jesusek, orduan: «Eta zuek, nor naizela diozue?». Pedrok erantzun zion: «Jainkoaren Mesias». Inori ez esateko agindu zien Jesusek zorrotz. Eta esan zien, gainera, ikasleei: «Gizonaren Semeak asko sufritu beharra du; zaharrek, apaizburuek eta lege-maisuek gaitzetsi egingo dute eta hil, baina hirugarren egunean piztuko da».

Jesus ez dator bat aurreko moldeekin; bere pertsona eta misioa misterioa zen, baita Berarentzat ere. Aitarekin komunikatzean otoitz egiten du, bere misioa zein den eta Jainkoak Beragandik zer espero duen ulertzen saiatuz; eta dizipuluengana jotzen du, jendeak Berari buruz zer dioen argitu asmoz. Azkenik, harago doa, beraientzat nor den galdetuz: zergatik jarraitzen dioten, zer espero duten Beragandik. Galdera hori, «nor diozu naizela Ni?», guri ere egiten digu Jaunak, gutako bakoitzak erantzun diezaion, ez hitzez bakarrik (doktrina buruz errepikatzen den bezala), baizik eta bizitzarekin; Jesusi jarraitzeak guretzat dituen ondorioak ateraz.

Urteko 25. astea

San Bizente Paul, *fundatzailea*

(*Pauldarrak eta Karitateko Ahizpak*)

Zakariasen Profezia liburutik 2, 5-9.14-15a: Etorriko naiz eta zure erdian biziko. **Salmoa: Jr 31, 10.11-12b.13 (R/. 10d):** Zainduko gaitu Jaunak, artzainak artaldea bezala.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9, 43b-45.

Aldi hartan, Jesusék egiten zituenengatik txundituta zeuden guztiak. Hark esan zien ikasleei: «Hartu ongi gogoan hitzok: “Gizonaren Semea gizakien esku utziko dute”». Haiek, ordea, ez zuten ulertzen zer ari zitzaien; ilun gertatzen zitzaien, eta ez ziren esanahiaz jabetzen; galdetzeak, berriz, beldurra ematen zien.

Jesus erabat jakitun da bere zoriaz, zeinek pasiorantz eta heriotzarantz daraman. Ez du engainatzen Bere burua, ezta ezkutatzen ere Bere patua. Harrigarria da konbentzimentu hori, itxuraz bateraezina bai Aitaren seme kutuna izatearen esperientziarekin, bai Jainkoaren maitasuna indarkeria oro baino handiagoa delako itxaropenarekin. Hala ere, Jesusengan heriotzak ez du Aitaren promesa suntsitzen, baizik eta birkokatu egiten du. Berak errepikatu egiten die Bere dizipuluei pasio-mezu hori eta ondorengo Berpizkundea, berehalako tragediarako prestatu daitezen. Jesusi jarraitzean, Bere misioaren porrota ez da behin betikoa, baizik eta estropezu bat gehiago, askotan beharrezkoa, Jainkoaren Argiak distiratzen jarrai dezan.

San Domingo Erkizia (Errezil 1589), *domingotarra*, San
Mikel Aozaraza (Oñati 1598), *domingotarra*, *biak apaizak*,
San Lorenzo eta lagunak, *martiriak* (Japonia 1637)

Amosen Profezia liburutik 6, 1a.4-7.

Honela mintzo da Jaun ahalguztiduna:

«Zoritzarrekoak Sionen lasai bizi direnak eta Samariako mendiaz fidatzen direnak! Marfilezko ohetan luze etzaten dira, artaldeko bildotsak eta ukuiluko zekorrak jaten dituzte; zitararen soinura kantuan egiten dute, doinu berriak asmatuz, David direlakoan; ardoa kopa handitan edaten dute, olio usaintsu bikainenaz gantzutzen dute beren burua. Eta ez die axola Israel herriaren hondamendiak! Horregatik, atzerrira joango dira erbesteratu guztien lerro-buruan, eta hor bukatuko dira horien jan-edanak eta nasaikeriak».

Sal 145: Goretsazu Jauna, ene barrena.

San Paulok 1 Timoteori 6, 11-16.

Zu, Jainkoaren gizon hori, saia zaitez justizian, jainkozaletasunean, sinesmenean, maitasunean, eroapenean eta otzantasunean. Ekin sinesmenaren borroka jatorrari, eta eskuratu betiko bizia, hartarako deitu baitzaitu Jainkoak eta fede-aitormen bikaina egin baituzu, testigu askoren aurrean. Gauza guztiak biziarazten dituen Jainkoaren aurrean eta Pontzio Pilatoren auzitegian aitormen bikaina egin zuen Kristo Jesusen aurrean erregutzen dizut: bete agindua akatsik gabe eta esankizunik sortu gabe, Jesu Kristo gure Jauna agertuko den eguna arte, bere garaian agerraraziko baitu Jainkoak. Hura da Nagusi bakarra eta zoriontsua, erregeen Erregea eta jaunen Jauna; hura bakarrik da hilezkorra, eta iritsi ezineko argian bizi da; ez du inoiz gizakiak ikusi eta ezin du ikusi ere. Berari aintza eta agintea betiko. Amen.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 16, 19-31.

Aldi hartan, Jesus honela mintzatu zitzaien fariseuei: «Bazen gizon aberats bat, purpuraz eta liho finez jantzi eta egunero festa

San Domingo Erkizia (Errezil 1589), *domingotarra*, San Mikel Aozaraza (Oñati 1598), *domingotarra*, *biak apaizak*, San Lorenzo eta lagunak, *martiriak* (Japonia 1637)

ederrak egiten zituen. Lazaro izeneko eskale bat, berriz, aberatsaren etxe-atarian etzanda egoten zen, zauriz josia; gogotsu jango zukeen aberatsaren mahaitik erortzen zena. Txakurrek berek ere etorri eta zauriak milikatzen zizkioten. Honetan, hil zen eskalea, eta aingeruek Abrahamen altzora eraman zuten. Hil zen aberatsa ere, eta ehortzi zuten. Hilan Egoitzan oinazetan zegoelarik, begiak jaso eta Abraham ikusi zuen urrutian eta Lazaro haren altzoan, eta deiadarka esan zuen: “Aita Abraham, erruki zakizkit! Bidal ezazu Lazaro atzamar muturra urean busti eta niri mihia freskatzera, oinaze gorrian bainago sugar hauetan”. Baina Abrahamek erantzun zion: “Seme, oroit zaitez zuk zorion franko izan zenuela bizitzan, Lazarok, berriz, zorigaitzak; horregatik, orain hark atsegina aurkitu du, eta zuk oinazeak. Gainera, gure eta zuen artean leize handia dago, eta nahita ere ezin da inor hemendik zuengana igaro, ezta hortik gugana ere”. Aberatsak berriro: “Orduan, aita Abraham, bidal ezazu, arren, Lazaro gure aitaren etxera, bost anaia badiut eta; jar ditzala jakinaren gainean, eurak ere oinaze-leku honetara etor ez daitezen”. Abrahamek erantzun zion: “Hor dituzte Moises eta profetak; entzun diezaietela”. Hark berriro: “Ez, aita Abraham; hildakoren bat joango balitzaie, bihotz-berrituko lirateke”. Baina Abrahamek erantzun zion: “Moisesi eta profetei entzutun ez badiete, ez dute sinetsiko ezta hildako bat piztuta ere”».

Gaurko parabolak geure garaiaren deskribapena dirudi, zeren: gaur ere amildegi batez daude bereizirik barnekoak, zeintzuek lurreko ondasun posible guztiez gozatzen duten; eta baztertuak, zeintzuek aurrekoen mahaitik erortzen diren hondakinak bakarrik lor ditzaketen. Lazaroren zauriak miazkatzen dituzten zakurrek erruki handiagoa erakusten diote hari, ez ikusiarena egiten dion aberatsak baino. Behartsuak bakarrik du izena, Lazaro; aditzera emanek Jainkoaren kezka gizon minbera eta zauritu horren alde egiten duela, zein kikilduta baitago jan edanean diharduen aberatsaren mahai-zapien azpian. Hil ondoren, aberatsak bizitzan pobrearekin izan ez zuen errukia bere anaiekin agertzen du. Orduan ere, agintea izan nahi

San Domingo Erkizia (Errezil 1589), *domingotarra*, San
Mikel Aozaraza (Oñati 1598), *domingotarra*, *biak apaizak*,
San Lorenzo eta lagunak, *martiriak* (Japonia 1637)

du Lazarorengan, honen testigantzak beretarrei pentsarazi diezaien. Ez da konturatu egoera aldatu egin dela, eta mundua ez dagoela bere zerbitzura eta ez diola obeditzen. Dena bereganatzen saiatu zen, eta orain agintzen. Baina jakina da Jainkoaren aukera, Zein kokatzen baita txikien eta ahaztuen alde, okerrenik dauden seme-alabez arduratzen den guraso bezala. Berarekin elkarlanean aritzera premiatzen gaitu gu, elkar maitatzen eta dena partekatzen duten neba-arreba gisa jokatzuz.

* * *

Jesusek ez dio lekuri ukatzen inori bere mahaian, ez dio ukatzen bera beste edozeinen mahaikide izateari ere.

Gure ludi honek mahai handi bat izan beharko luke guztientzat, fruitu apalez eta gozoz betea,

gure lanaren eta Jainkoaren erregalu den fruituz betea.

Duguna partekatuko bagenu, aski izanen litzateke guztientzat.

Geure burua gaizto eta akatsez betea ikusi arren,

ez genuke sekula dudarik izan behar honetaz:

Jesusek gogotik onartzen gaitu bere mahaian,

eta gustukoa du guk bera geurera gonbidatzea.

(Jose Arregi)

Urteko 26. astea

GOIINGERU SANTUAK: MIKEL, GABRIEL
ETA RAFAEL

Danielen Profezia liburutik 7, 9-10.13-14.

Nik, Danielek, ikuskaria izan nuen gaez. Begira nengoela, tronu batzuk jarri zituzten eta gizon zahar bat eseri zen. Haren soinekoa elurra bezain zuri, buruko ilea artilea bezain garbi! Haren aulkia eta gurpilak,ugar kiskalgarri! Suzko ibaia ateratzen zen haren aurretik. Jendetza izugarria zuen zerbitzari, milaka eta milaka zeuden haren aurrean zutik. Auzia hasi eta zabaldu ziren liburuak. Neure gau-ikuskarian, gizaseme antzeko bat ikusi nuen zeruko hodeietan etortzen. Gizon zaharragana hurbildu zenean, beroni aurkeztu zioten. Agintea, aintza eta erregetza eman zioten: herri, nazio eta hizkuntza guztietako jendeak zerbitzatzeko zuen. Haren agintea betierekoa, ez da inoiz bukatuko; haren erregetza ez da inoiz hondatuko.

Sal 137: Eresi egingo dizut, Jauna, aingeruen aurrean.

Apokalipsia liburutik 12, 7-12a.

Gudua izan zen zeruan: Mikel eta beronen aingeruak herensugearen aurka. Herensugea eta beronen aingeruak gogor borrokatu ziren, baina ezin izan zuten garaitu, eta aurrerantzean zeruan ez zen tokirik izan haientzat. Bota egin zuten, beraz, herensuge handia, antzinako sugea, deabru eta Satanas deritzana, mundu osoa engainatzen zuena; lurrera bota zuten bere aingeruekin batera. Orduan, ahots handia entzun nuen zeruan esaten: «Orain etorri dira gure Jainkoaren salbamena, indarra eta erregetza, eta beraren Mesiasen agintea; bota baitute gure senideen salatzailea, gure Jainkoaren aurrean, gau eta egun, salatzen zituena. Bildotsaren odolaz eta aitortu duten mezuaz lortu dute garaipena; nahiago izan zuten heriotza, bizia baino. Poztu zaitezte, beraz, zeruok, eta haietan bizi zaretenok».

Urteko 26. astea
GOIAINGERU SANTUAK: MIKEL, GABRIEL
ETA RAFAEL

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1, 47-51.

Aldi hartan, Jesusek Natanael beregana etortzen ikusi eta esan zuen: «Hona hemen egiazko israeldarra, faltsukeriarik gabea». Natanaelek esan zion: «Nondik ezagutzen nauzu?». Jesusek erantzun: «Felipek zuri dei egin baino lehen, pikupean zinela, ikusi zintudan». Natanaelek erantzun zion: «Maisu, Zu Jainkoaren Semea zara; Zu Israelgo erregea zara». Jesusek erantzun «Pikupean ikusi zintudala esan dizudalako, sinesten al duzu? Handiagorik ere ikusiko duzu». Eta esan zion, gainera: «Egi-egiaz diotsuet: Zerua zabalik ikusiko duzue eta Jainkoaren aingeruak gora eta behera Gizonaren Semearen gain».

Jainkoaren mezulariak dira aingeruak, zeintzuek haren hitza jakinarazten dieten garai bakoitzeko pertsonai. Hala ere, Jesusek aldeztu aurreko trazarik ez duen Jainkoaren hurbiltasuna lortu digu. Gutariko bat bihurtu da, gizakiekin solidarizatzeko denean. Aingeruak gaur egun pertsona onengan islatzen dira, Natanael-engan bezala, zein iruditzen baitzitzaion Jesusi benetako gizona, engainurik gabea, israeldar peto-petoa. Honelako gizon-emakumeek jainkotiar ezaugarriak bistaratzen dituzte, zeintzuek errealitatea zeharkatzen baitute eta bizitza fidagarri, ireki, eskuzabal eta entregatueta gorpuzten baitira. Bizitza horiek ondu eta kuestionatu egiten dute; ez dute uzten norberaren kontraesanak zurtzen gizadia gaitzetsiz; adierazezinaren presentzia iragartzen duten jende baten bizitzaz ari gara.

Urteko 26. astea

San Jeronimo, *apaiza eta eliz irakaslea*

Zakariasen Profezia liburutik 8, 20-23: Herri asko etorriko da Jerusalemara Jaunaren bila. **Sal 86:** Jainkoa gurekin da.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9, 51-56.

Jesusek, mundu honetatik eramana izateko garaia zetorkiolarik, Jerusalemara joateko erabakia hartu zuen. Mandatariak bidali zituen aurretik, eta Samariako herri batean sartu ziren, Jesusi ostata prestatzera. Baina herrikoek ez zuten hartu nahi izan, Jerusalemara zihoalako. Hori ikusirik, Santiago eta Joan ikasleek esan zioten: «Jauna, aginduko al dugu zerutik sua jaitsi eta kiskal ditzan?». Baina Jesusek, haiengana itzulirik, haserre egin zien. Eta beste herri batera joan ziren.

Santiagori eta Joani –Zebedeo anaiei– Jesusek Boanerges (Mk 3, 17) edo trumoiaren seme ezizena jarri zien. Agian honek esplikatuko luke haiek berehala jartzea haserre, samariarren errefusaren aurrean. Are gehiago, Jesusen botereaz baliatu nahi dute zerutik sua bidaltzeko, zeinek akabatuko bailituzke samariar haiek. Baina Jesus urrun dago horrela erreakzionatzetik; uko egiten dio amorrutz jokatzeari, zeina agian sentitzera ere iritsiko zen, juduen eta samariarren arteko desadostasunen historia zaharren berri baitzuen; baina irainak barkatzeko gai da. Eta guk nola erreakzionatzen dugu, sentitzen dugunean Erreinuaren arbuioa edo berau inozotzat hartzen duenaren begirada arduragabea?

POBREKIN
bide
eginez
eta
ADISKIDETZE
ZUZENTASUN
MISIOAN

URRIA / URRILA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA

Erlijio-tradizio ezberdinen arteko elkarlanaren alde: Egin dezagun otoitz erlijio-tradizio ezberdinetako sinestunek bakea, zuzentasuna eta giza-senidetasuna zaindu eta sustatzeko elkarlana egin dezagun.

Urteko 26. astea

Santa Teresa Jesus Haurarena, *birjina eta eliz irakaslea*

Nehemias liburutik 2, 1-8: Errege jauna, ondo baderitzozu, bidal nazazu nire gurasoen hirira, berriro eraiki dezadan. **Sal 136:** Nire mingaina ahosabaian itsats bekik, zutaz oroit ez banendi.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9, 57-62.

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak bidez zihoazela, batek esan zion: «Noranahi jarraituko dizut». Jesusek erantzun zion: «Azeriek badituzte zuloak eta zeruko hegaztiek habiak; Gizonaren Semeak, orde, ez du burua non ezarri». Beste bati esan zion: «Jarraitu niri». Baina hark erantzun: «Jauna, uztazu lehenik neure aitari lur ematera joaten». Jesusek erantzun zion: «Utzi hildakoei beren hildakoei lur ematen; zu zoaz Jainkoaren erreinua hots egitera». Beste batek, berriz, esan zion: «Jarraituko dizut, Jauna, baina uztazu lehenik etxekoei agur egiten». Jesusek erantzun zion: «Goldeari heldu eta atzera begiratzen duena ez da gai Jainkoaren erreinurako».

Jesus, bere nekaldi eta aintzaren hiri izango den Jerusalemerako bidea, urrats sendoz irekitzen ari da. Eta aurrera jarraitzen du gelditu gabe. Jarraitzen diotenek, gauza bera egin beharko dute, aurrerantz joan atzera begiratu gabe. Jesusi jarraitzeak, kidetasunak birkokatzen ditu eta loturak borrokatzen. Berarekin datorren Erreinuak ez du atzerapenik onartzen, berehalako erantzuna eskatzen du, prestua eta osoa. Bere atzetik joan nahirik azaltzen diren hiru pertsonen erantzuteko erabiltzen dituen esaldiak, irmoak eta zorrotzak dira eta ez dute trikimailurik onartzen. Behar-beharrezkoa da hitz horiek entzutea eta geure barnean sakon-sakonean sartzen uztea geure galdetzaile izan daitezen. Ebanjelioa inoiz ezin daiteke otzandu, beti da barruraino sartzen den aizto zorrotza, zalantzak sortzen dizkiguna eta geure lasaitasunetik ateratzen gaituena.

Nehemias liburutik 8, 1-4a.5-6.7b-12: Esdrasek legearen liburua zabaldu eta Jauna goretsi zuen, eta herri osoak erantzun: «Amen, amen». **Sal 18:** Jaunaren arauak zuzenak dira, bihotzaren pozgarri.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18, 1-5.10.

Une hartan, hurbildu zitzaizkion ikasleak Jesusi eta galdetu zioten: «Nor da handiena zeruetako erreinuan?». Jesusek, haurtxo bati deitu, haien artean jarri eta esan zien: «Benetan diotsuet: Aldatu eta haurren antzeko bihurtzen ez bazarete, ez zarete sartuko zeruetako erreinuan. Beraz, bere burua haur honen antzera apaltzen duena, hori da zeruetako erreinuan handiena. Eta honelako haur bat nire izenean onartzen duenak Ni onartzen nau. Kontuz! Ez dezazuela txiki hauetako inor gutxietsi! Zeren, egia esan, hauen aingeruak zeruko nire Aitaren aurpegia ikusten ari baitira etengabe zeruan».

Jesusek ume txiki eta babesgabe bat jartzen du erdi-erdian eta ez salatzeke, babesteko baizik. Halaxe egin zuen beti bere bizitzan zehar, hauskorrek eta ahulak bere arreta guztien erdigunean jarri zituen. Erreinua, ahulak eta abailduak denon etxera ekarriz eraikitzen da. Azkeneko direnekiko gure errukia pizten uzten dugunean, orduan Erreinua hurbiltzen hasten da duintasunez betez eta elkartuz. Bada txikitasunean ezkutuko sekretu bat, indar eraldatzaile bat, guk zaindu behar duguna. Halakoa da Jainkoa gizakietako bakoitzarekin, zaurgarritasuna zaintzen du, bakoitzaren baitatik gizatasun-iturri bat jaulki dadin. Hori Berak, bere aingeruen bitartez egiten duela esaten dugu, haiek zaintzen dutela bakoitzaren eta gu denon hauskortasuna. Berak beti jarraitzen du gure alboan.

Urteko 26. astea

San Frantzisko Borjakoa, *apaiza, jesuita*San Birila Leirekoa, *abadea (Iruñeko eta Tuterako elizbarrutietan)*

Baruken Profezia liburutik 1, 15-22: Bekatu egin dugu Jaunaren aurka eta ez diogu obeditu. **Sal 78:** Libra gaitzazu, Jauna, zeure izenaren ohoregatik.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10, 13-16.

Aldi hartan, honela mintzatu zen Jesus: «Ai zu, Korozain! Ai zu, Betsaida! Izan ere, Tiro eta Sidon hiri jentiletan zuengan hainbat mirari gertatu izan balitz, aspaldi bihotz-berrituak ziratekeen, dolujantziz estali eta hautsean eserita. Horregatik, Tiro eta Sidonek zigor bigunagoa izango dute auzian zuek baino. Eta zu, Kafarnaum, zeruraino altxatuko al zara? Lurraren barreneraino eroriko zara! Zuei entzuten dizuenak niri entzuten dit, eta zuek onartzen ez zaituztenak Ni ez nau onartzen; Ni onartzen ez nauenak, berriz, bidali nauden hura ez du onartzen».

Korozaim, Betsaida edo Kafarnaumek Jesusen arreta guztia jasoa zuten, haietan mirari asko egin baitzituen, baina horrelako ezerk ez zien sortu inolako erreakziorik. Ez zuten inolako esker onik agertu, ez zioten utzi Maisuaren eta bere jendearen hitzari galderak egiten eta bertako jendeak ez zuen bere bizitza eraldatu. Jesus, entretenimendua eta opariak dakartzaten eta amaieran inolako oinatzik uzten ez duten ferrialarien gisa hartua izan zen herri haietan. Jesus harritu egiten da bere auzotar galilearren sentiberatasun-gabezia horretaz. Dena gertagarritzat ematen dute eta ezerk ez ditu aldarazten. Horixe da gaur egun dugun arriskua, fedeari beldurraren bidea itxi ondoren, beste bidea, berez benetakoa den bakarra, esker onarena, ez dugula erabiltzen, ez eta hark alda gaitzan uzten, izan ere; ongizate lokartu batean kokatuta gaude.

Urteko 26. astea

San Frantzisko Asis-koa, *erlijiosoa eta fundatzailea*
(*Frantziskotarrak*)

Baruken Profezia liburutik 4, 5-12.27-29: Zoritxarra bidali dizuenak berak poza emango dizue betiko. **Sal 68:** Entzun die Jaunak behartsuei.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10, 17-24.

Aldi hartan, hirurogeita hamabi ikasleak pozez beterik itzuli ziren, eta esan zioten Jesusi: «Jauna, deabruak ere menpean jartzen zaizkigu zure izenean». Jesusek erantzun zien: «Tximista bezala zerutik erortzen ikusi dut Satanas. Begira, sugeak eta eskorpioiak zapaltzeko eta etsaiaren indar guztiak menperatzeko ahalmena eman dizuet, eta ezin izango dizue ezerk ere kalterik egin. Hala ere, ez poztu espirituak menpean jartzen zaizkizuelako; poztu, bai, zuen izenak zeruan idatzirik daudelako». Une hartan, Jesusek, Espiritu Santuaren pozez beterik, esan zuen: «Bedeinkatua zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsuei gorde eta jende xumeari agertu dizkiozulako. Bai, Aita, hala izan duzu gogoko. Nire Aitak dena eman dit, eta ez du inork ezagutzen Semea nor den, Aitak baizik; ezta Aita nor den ere, Semeak baizik eta Semeak agertu nahi dionak baizik». Eta, ikasleengana itzulirik, esan zien haiei bakarrik: «Zorionekoak, zuek ikusten duzuen ikusten duten begiak. Hara zer diotsuedan: profeta eta errege askok ikusi nahi izan zuen zuek ikusten duzuen, baina ez zuten ikusi, eta entzun zuek entzuten duzuen, baina ez zuten entzun».

Ebanjelioa santu gutxi bizi izan dute beren haragitan Asisko San Frantziskok bizi izan zuen bezain garbi eta argitasunez beteta. Beraren pobretasuna, izaki bizi guztiekiko izan zuen adiskidantza, elkarte eraikitze garra, Elizarekiko maitasuna..., hain dira sotilak, Jesusek aipatzen dituen umeak gogorarazten dituztela, zeruetako Erreinuan sartzeko haiek bezalakoak izan behar dugula esaten duenean. Frantziskok oso sakon bizi izan zuen inozentzia hori, frogak eta kontraesanak gairiduta, fede garbia eta itxaropen freskoa mantenduz. Frantziskori Jainkoaren jakinduria agertu zitzaion, hori ez baita liburuetan eta hitzaldi handietan agertzen, norberaren bizitzaren dohain irekian sendo azaltzen baizik.

Urteko 27. astea

San Froilan Leon-goia, ermitaua eta gotzaina

Habakuken Profezia liburutik 1, 2-3; 2, 2-4.

Noiz arte, Jauna, ari behar dut zuri erreguka, Zuk entzun gabe? Noiz arte ari behar dut oihuka gogorkeriaren aurka, Zuk salbatu gabe? Zergatik ikusarazten didazu horrenbeste bidegabekeria? Nola egon zintezke zapalketari begira? Hondamen eta gogorkeria ugari aurrean, haserreak eta borrokak nonahi. Orduan, Jaunak erantzun zidan: «Idatz ezazu agertuko dizudana, ezarri taulatxoetan, erraz irakurtzeko eran. Ikuskari hau ez da beteko epea burutu arte, baina badoa helbururantz, ez du huts egingo; luzatzen bada, zuk itxaron, berandu gabe iritsiko baita. Harroak ez du bakerik bere baitan; zintzoa, ordea, bere leialtasunari esker biziko da».

Sal 94: Entzungo al duzue gaur Jaunaren mintzoa: «Ez gogortu zeuen bihotza».

San Paulok 2 Timoteori 1, 6-8.13-14.

Anaia maitea: Gomendatzen dizut indarberri dezazula nik eskuak ezartzean Jainkoak eman zizun dohaina, Jainkoak ez baitigu beldurti egiten gaituen espiritua eman, indarra eta maitasuna ematen eta geure buruaren jabe egiten gaituen espiritua baizik. Ez izan, bada, gure Jauna aitortzeko lotsarik, ezta lotsatu ere harengatik kartzelan dagoen honetaz; bestela baizik, Jainkoaren indarraz fidaturik, eraman itzazu nekeak nirekin batean Berri Onaren alde. Har itzazu jarraibidetzat, Kristo Jesusengan oinarritzen diren sinesmenaz eta maitasunaz nigandik entzun dituzun hitz osasungarriak. Zaindu gordailu eder hau, gudan bizi den Espiritu Santuaren indarraz.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17, 5-10.

Aldi hartan, apostoluek esan zioten Jaunari: «Handitu sinesmena gudan». Jaunak erantzun zien: «Sinesmena bazenute, mostaza hazia

Urteko 27. astea

San Froilan Leon-goia, *ermitaua eta gotzaina*

bezain txikia izanik ere, pikondo honi “atera hortik eta landatu itsasoan” esango zeniokete, eta obeditu egingo lizueke. Emazue, zuetako batek morroia duela soro-lanean edota artzaintzan. Morroia etxeratzean, “hator berehala mahaira” esango ote dio? Ez ote dio beste hau esango: “Presta iezadak afaria, jantzi aurreko mantala eta zerbitza nazak, nik afaldu bitartean; ondoren, afalduko duk heuk?”. Morroiari esker ona zor ote dio, agindua bete duelako? Zuek ere gauza bera: agindutako guztia egin eta gero, esan: “Morroi gizajoak gara; egin behar genuena besterik ez dugu egin”».

Ikasleek fedearen gabezia sentitzen zuten, gaixo zeuden pertsonak Jesusengana hurbiltzen ikusiak zituzten eta, beren fedea bitarteko, sendatuak izan zirela ere bai. Horregatik esaten diote Jesusi: «Handitu sinesmena gudan». Bada fedearen errotik datorren modu bat: Jainkoa beti gurekin dagoela sinetsi eta fidatzea, beti eta une oro, inoiz bere eskutik utzi gabe, ona edo txarra, gertatzen zaiguna gertatzen zaigula. Geure jaiotzatik geure heriotzara arte. Beti hor egongo da, gure alboan, guri eutsiz. Fedea, beraren presentzia etengabekotzat hartzea da, Erreinuarengatik lan nekagaitza eginez, hurbiltasunekotzat eta solidariotzat. Gure Aita, gure laguna, gure Jauna, gure bakea. Bizitzan zehar beti ez zaizkigu gauzak ondo aterako, hori horrela da. Baina Jainkoa beti edukiko dugu gurekin, Emmanuel, Jainkoa gurekin. Besoak luzatu eta Jainkoaganantz jauzi egiteko gonbita da, hark hartuko gaituela eta ez gaituela erortzen utziko uste izanda noski. Horrela bizitzeak dena aldatzen du. Larrialdiak baretu egiten dira, beldurrek atzera egiten dute: esku onetan gaudela sentitzen dugu. Horrelako zerbait da fedea izatea. Ikasleekin batera eskatzen jarraitu beharra izango dugu, «handitu sinesmena gudan», beste bizimodu desberdin bat izan dezagun eta gertakizun guztiak konfiantzatik eta itxaropenetik ikus ditzagun.

Urteko 27. astea

ESKARI ETA ESKER ONEZKO OTOITZ EGUNA

San Bruno, *fundatzailea (Kartusiarrak)*

Deuteronomio liburutik 8, 7-18.

Egun haietan, honela mintzatu zitzaion Moises herriari: «Jaunak, zure Jainkoak, lurralde ederrera eramango zaitu: lurralde oparoa da, erreka, iturri eta ibarretan eta mendietan sorturiko iturburuz hornitua; gari, garagar, mahasti, pikondo, granadondo, olibondo, olio eta eztiz hornitua. Ogia neurrigabe jan ahal izango duzu eta ez zaizu ezer ere faltako. Hango harriek burdina dute eta mendietatik kobrea aterako duzu. Ase arte jango duzu, beraz, eta Jauna zeure Jainkoa bedekatuko duzu, eman dizun lurralde ederragatik. Baina, kontuz! Ez ahaztu Jauna zeure Jainkoa, gaur ematen dizkizudan haren agindu, lege eta erabakiak bazterreraz utziz. Ez dadila gerta, ase arte jatean, zeuk eraikitako etxe ederretan bizitzean eta zeure behiak eta ardiak, zilarra eta urrea eta era guztietako ondasunak gehitzean, zeu harrotu eta Jauna zeure Jainkoa ahazturik uztea. Berak atera zaitu Egiptotik, esklabotza-lurraldetik; berak eraman zaitu suge pozoitsuz eta eskorpioiz betetako basamortu handi eta ikaragarrian barrena, urik gabeko eremu elkor horretan barrena, berak atera du sukarritik ura eta edaten eman dizu; berak eman dizu jaten basamortuan zure gurasoek ezagutu ez zuten mana. Atsekabetu eta probatu zaitu, bai, baina azkenean zure onerako izan da. Ez esan zeure buruari: “Neure indarrez eta trebezia lortu ditut ondasun hauek guztiak”; gogora ezazu Jaunak, zeure Jainkoak, ematen dizula ondasun horiek lortzeko indarra; horrela, leial eusten dio gaur ere zure gurasoei zin eginez hitzemandakoari».

Sal: 1 Kronikak 29: Zeurea duzu, Jauna, handitasuna eta indarra.

San Paulok 2 Korintoarrei 5, 17-21.

Senideok: Kristorena dena sorkari berri da; zaharrarenak egin du, berria sortu da. Hau guztia Jainkoagandik dator, Kristoren bitartez berekin adiskidetu baikaitu, eta adiskidetzeko zerbitzua guri eman

Urteko 27. astea

ESKARI ETA ESKER ONEZKO OTOITZ EGUNA

San Bruno, *fundatzailea (Kartusiarrak)*

digu. Izan ere, Jainkoa ari zen Kristogan mundua berekin adiskidetzen gizon-emakumeei bekatuen kontua eskatu gabe, eta guri eman digu adiskidetzearen mezua. Kristoren mandatari gara, eta gure bitartez Jainkoak berak erregutuko balizue bezala da. Kristoren izenean eskatzen dizuegu: adiskide zaitezte Jainkoarekin. Bekatuarekin zerikusirik izan ez zuen hura, Jainkoak gugatik bekatuarekin bat egin zuen, guk haren bitartez Jainkoaren salbamena irits genezan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7, 7-11.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Eskatu, eta emango dizue Jainkoak; bilatu, eta aurkituko duzue; jo atea, eta zabalduko dizue; eskatzen duenak hartu egiten baitu, bilatzen duenak aurkitzen, eta atea jotzen duenari zabaldu egiten baitzaio. Zuetako norbaitek, semeak ogia eskatuta, harria emango ote dio? Edota arraina eskatuta, sugea emango ote dio? Beraz, zuek, gaiztoak izanik ere, zeuen seme-alabei gauza onak ematen baldin badakizue, zenbatez gehiago ez dizkie zeruko zuen Aitak gauza onak emango eskatzen dizkiotenei!».

Goraipamena eta esker ona bihotzetik irteten dira dena dohain moduan hartzen dugunean eta ez irabazitako meritu gisa, Jaunaren maitasunaz sarituak sentitzen garenean alegia. Eskerrak emateak, Jainkoak gurekiko duen maitasun horren aitortza egitea eskatzen du. Eskaera berriz, konfiantza duen, bere mugak ezagutzen dituen eta iritsi ezina duena zer den badakien pertsonarengan sortzen da, baina fede osoa Jainkoaren esku borondatetsuetan jartzen du. Liturgiak gaurko egun hau eskaintzen digu, beren Aitaren beharra duten seme-alaben moduan, Jainkoaren aurrean jartzeko, ematen digunaz esker oneko azalduz, dena opari gisa hartzen jarraitzeko, gogo handiz eta senidetazunezko misiorako eskuzabaltasunez erantzuteko prest izanik.

Urteko 27. astea

Arrosarioko Andre Maria Birjina
Santana Justina, *birjina eta martiria*

Jonasen Profezia liburutik 3, 1-10: Ninivetarrak beren bide okerretetik itzuli ziren, eta damutu zen Jainkoa haiei egindako mehatxuaz.
Sal 129: Gure erruak gogoan badauzkazu, Jauna, nor dagoke zutik, Jauna?

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10, 38-42.

Aldi hartan, Jesus herrixka batean sartu zen, eta Marta zeritzan emakume batek bere etxean hartu zuen. Bazuen honek Maria izeneko ahizpa bat, eta hau, Jaunaren oinetan eserita, haren hitza entzuten zegoen. Marta, berriz, lanpetua zebilen etxeko zereginetan. Orduan, Martak Jesusen aurrean jarri eta esan zion: «Jauna, ez al zaizu axola nire ahizpak lan guztia nire gain uztea? Esaiozu laguntzeko». Jaunak, ordea, erantzun zion: «Marta, Marta, gauza askorengatik zabiltza kezkatua eta larri; baina bat bakarra da beharrezko. Alderdirik onena aukeratu du Mariak, eta ez dio inork kenduko».

Martak geroz eta itoago sentitzen du bere burua bazkaldarren zerbitzuan eta bere ahizpa Maria, berriz, eserita dago ezer egin gabe. Mariarengana zuzenean jo orde, Jesus sartzen du alferrikako gatazkan, baina Jesus ez da sartzen joko horretan. Jesusek Marta bere barrura sarrarazten du; adierazten dio lanak eta aldiak baino garrantzizkoago direla pertsonak, zereginak bitarteko bakarrik direla funtsezkoa egiteko, hau da, Jainkoaren hitza entzuteko geure eguneroko bizitzan. Mariak eta Martak, guk Jesusi jarraitzeko izan ditzakegun bi modu edo neurri gogorarazten dizkigute, maitasunarena eta zerbitzuarena. Zerbitzuaren bidez adierazitako maitasuna eta maitasunak argituta eskainitako zerbitzua.

Urteko 27. astea

Santa Pelagia Antiokia-koa, *birjina eta martiria*

Jonasen Profezia liburutik 4, 1-11: Zuk errukia agertzen diozu landare honi. Eta Nik ez ote diot errukia agertuko Ninive hiri handiari?
Sal 85: Ona zara, Jauna, eta barkabera.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11, 1-4.

Behin batean, Jesus otoitzean ari zen leku batean; bukatu zuenean, ikasleetako batek esan zion: «Jauna, irakatsiezaguzu otoitz egiten, Joanek bere ikasleei irakatsi zien bezala». Jesusek esan zien: «Otoitz egitean, esazue: “Aita, santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, emaguzu egunean eguneko ogia, eta barkatu gure bekatuak guk ere zor diguten guztiei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen”».

Ikasleak adi-adi jarraitzen dute Maisuak egiten duen guztia, baita egunero Aitari otoitz egiteko erabiltzen duen modua ere. Jakin-minez begiratzen diote eta egun batez animatu egin dira otoitz egiten irakats diezaien eskatzera. Jesusek, orduan, bere barnea ireki eta haien otoitza biziartzten duten eskaerak partekatzen ditu. Kristau-elkarteek besteengandik hartu dituzte Gure Aita otoitzeko hitzak, haiek esatean gure bihotzean oratzen joan daitezen. Jainkoari Aita moduan dei egin, ogiaren eta elikaduraren beharra adierazi eta bihotz zabala eta barkatzeko gaitasuna duena edukitzeko gogoa adierazi. Otoitz hori egunero leun-leun esaten dugu, behin eta berriz errepikatzean, guk Jainkoaz dugun bizipena Jesusek duenarekiko geroz eta antz handiagokoa izan dadin.

Urteko 27. astea

San Dionisio, *gotzaina*, eta lagunak, *martiriak*
 San Joan Leonardi, *apaiza*, *botikarien zaindaria*

Malakiasen profezia liburutik 3, 13-20a: Badator eguna, labea bezain kiskalgarria. Sal 1: Zorionekoa Jaunagan itxarobidea jartzen duena!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11, 5-13.

Aldi hartan, esan zien Jesusek ikasleei: «Eman dezagun, zuetako batek adiskide bat duela eta gauerdian datorkiola, esanez: “Adiskide, emazkidak hiru ogi, itzuliko ditiat eta; lagun bat etorri zaidak bidaian eta ez zeukaat zer eskaini”. Eman dezagun, besteak barrutik erantzuten diola: “Utz nazak bakean! Atea itxia zegok, eta haurrak eta neu oheratuak; ezin naitekek ematera jaiki”. Hau diotsuet: adiskidea duelako ez bada ere, aspergarri izan ez dakion behintzat, jaiki eta emango dio behar duena». Hau diotsuet, beraz: «Eskatu, eta emango dizue Jainkoak; bilatu, eta aurkituko duzue; jo atea, eta zabalduko dizue; eskatzen duenak hartu egiten baitu, bilatzen duenak aurkitu, eta atea jotzen duenari zabaltu egiten baitzaio. Zuetako norbaitek, aita izanik, semeak arraina eskatuta, sugea emango ote dio arrainaren ordezt? Edota arrautza eskatuta, eskorpioia emango ote dio? Beraz, zuek, gaiztoak izanik ere, zeuen seme-alabei gauza onak ematen baldin badakizue, zenbatez gehiago ez ote die zeruko zuen Aitak Espiritu Santua emango eskatzen diotenei!».

Ez gara buruaskiak, dena ez dago gure eskuetan eta gauzak ere ez ditugu geure kontrolpean. Bizitzan zehar, lehenago edo geroago, babesik gabe, hauskor eta laguntza beharrean sentitzen dugu geure burua. Bakarrik gaudenean edota baztertuak edo zokoratuak garenean, gaixotasuna iristen zaigunean edo porrota eta abandonua jasaten ditugunean edota hurkoaren zoritxarren astuntasunak estutzen gaituenean, orduan, hain zuzen ere, beste baliabiderik ez dugunean, Jainkoagana jotzen dugu konfiantzaz eta beraren aurrean adierazten dugu behar duguna, gure eskaerei erantzutea desiratuz. Bere seme eta alaba maite gisa jotzen dugu beragana eta Aitaren errukiaren babespean sartzen gara geure larritasunen erdian. Jaunak beti harrera ona egiten digu, lagundu eta bizitzaren astuntasuna arintzen digu. Jainkoagan dugun konfiantzak soilik ematen digu indarra aurrera jarraitzeko.

Urteko 27. astea

Santo Tomas Villanueva-koa, *gotzaina, agustindarra*
San Daniel Comboni, *fundatzailea (Konbonianoak)*

Joelen Profezia liburutik 1, 13-15; 2, 1-2: Jaunaren eguna, ilunpe-eguna eta itzal beltzeko eguna. **Sal 9 A:** Justiziaz gobernatzen du Jaunak mundua.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11, 15-26.

Aldi hartan, Jesusek deabru bat bota ondoren, jendarteko batzuek zioten: «Deabruen buruzagi den Beeltzebulen indarrez botatzen ditu honek deabruak». Beste batzuek, azpikeriaz, Jainkoagandiko seinale bat eskatzen zioten. Igarri zizkien Jesusek beren burutazioak eta esan zien: «Bere baitan zatiturik dagoen erreinua erraustu egingo da eta etxea etxearen gain eroriko. Era berean Satanas ere: bere baita zatiturik badago, nola iraun dezake haren erreinuak? Zuek diozuenek, Nik deabruak Beeltzebulen indarrez botatzen ditut. Baina Nik deabruak Beeltzebulen indarrez botatzen baditut, noren indarrez botatzen dituzte zuen ikasleek? Horregatik, zeuen ikasleak izango dituzue epaile. Baina Nik deabruak Jainkoaren indarrez botatzen baditut, garbi dago iritsi dela zuengana Jainkoaren erreinua. Gizon indartsu batek, armaturik, bere jauregia zaintzen duen bitartean, seguru dauzka bere ondasunak. Baina indartsuago den batek eraso eta menderatzen badu, segurantzia ematen zioten armak kendu eta banatu egiten ditu hari harrapaturiko ondasunak. Nire alde ez dagoena nire aurka ari da, eta nirekin biltzen ez duenak sakabanatu egiten du. Espiritu gaiztoa, norbaitengandik atera ondoren, leku idorretan barrena ibili ohi da atsedean bila; baina aurkitzen ez duelarik, bere buruari esaten dio: “Itzul nadin atera nintzen neure etxera”. Iristean, etxea garbitua eta apaindua aurkitzen du. Orduan, joan eta beste zazpi espiritu hartzen ditu, bera baino gaiztoagoak, eta gizakiagan sartu eta bertan jartzen da bizitzen. Horrela, pertsona horren azken egoera lehengoa baino okerragoa gertatzen da».

Jesusek, espiritu zikin eta gaiztoen mende, edo, orduan esaten zen moduan, deabruaren mende zeuden pertsonak askatu egiten zituen.

Urteko 27. astea

Santo Tomas Villanueva-koa, *gotzaina, agustindarra*
San Daniel Comboni, *fundatzailea (Konbonianoak)*

Gertaera zalantzagabea zen, bera igarotzen zen herrixka askotan egiaztatua. Sendatu egiten zituen, pertsonak garbi gelditzen ziren eta okerbidera eramaten zituzten indarren mende egoteari uzten zioten. Eta batzuek hala arrazoitu zuten, deabruak kanporatzen edo botatzen baditu, haiengan boterea duelako da. Baina gaizkia, gerta daitekeen arren, ez du soilik gaiztoagoak menderatzen; borondate onak eta errukiak ere menderatzen du, Jesusen kasuan bezala, gaizkia hura agerian jarri eta desagerraraziz. Errukiak, gauzak beren onera eramateko boterea du: gaizkia zalantzan jarri eta nahasi egiten du, bihotza birgaitzen du eta bizitzan zeharreko ibilbidean konpromisoa ezartzen du, Jesusek, errukiaren profeta galilearrak bezala.

* * *

«Merkatua, bera bakarrik, ez da arazo guztiak konpontzeko gauza, fede neoliberalaren dogma hori berriro sinetsarazi nahi badigute ere. (...) “Giza duintasuna erdigunera eraman behar dugula berriro, eta zutabe horren gainean eraiki behar ditugula egitura sozial alternatiboak”» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 168).

Joelen Profezia liburutik 4, 12-21: Sartu igitaia, uzta heldu da. **Sal 96:**
 Poztu zaitezte Jaunarekin, zintzook.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11, 27-28.

Aldi hartan, Jesus gauza hauek jendeari esaten ari zela, emakume batek jendartetik deiadarka esan zuen: «Zorionekoa sabelean eraman zintuen eta bularra eman zizun emakumea!». Baina Jesusek esan zuen: «Hobeki esan, zorionekoak Jainkoaren hitza entzuten eta betetzen dutenak!».

Jendetzaren artean, emakume bat liluratuta gelditu da Jesusi Jainkoaz eta bizitzaz hitz egiten entzutean eta ahotsa altxatzen du haren ama, sortu zuena, erditu zuena eta hazi zuena goratzeko. Baina Jesus Erreinuaren indarrak eta harengan buru-belarri sartzeak liluratua du eta hortik dator berak zorionekoak Jainkoaren hitza entzun eta jarraitzen diotenak esatea. Hain zuzen ere, hori esatean, bere amaren irudiak balio berria hartzen du; izan ere, hura ez baitzen izan soilik sortu zuena, Jainkoaz fidatu zena ere baizik eta bere bizitzan zehar bidea ireki ziona, aldi berean bere semearen etorkizunari erabat atxikita. Gu ere zorionekoak gara gauza bera egiten dugunean.

* * *

Begoñako Andre Mariaren Meza

Ben Sirak 24, 17-22: Maria, jakinduriaren aulkia. **Salmoa: Lukas 1:**
 Handiesten du nire arimak Jauna. **San Paulok Galaziarrei 4, 4-7:**
 Bere Semea bidali zuen Jaungoikoak, emakumeagandik jaioa.

* San Joan XXIII.a, 261. *aita santua*
(Ikus beherago Begoñako Andre Mariaren Meza)

Urteko 27. astea

Begoñako Andre Maria Birjina (Bizkaiaren zaindaria)

Santa Soledad Torres Acosta, *fundatzailea*

(Mariaren Mirabeak)*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2, 43-51.

Jesusen gurasoak Jerusalemara joaten ziren urtero errones Pazko-jaietan. Jesusek hamabi urte bete zituenean, Jerusalemara igo ziren jaietara, ohitura zen bezala. Jaiegunak bukaturik gurasoak etxerantz abiatu zirenean, Jesus haurra Jerusalemen gelditu zen, haiek jakin gabe. Errones-kideen artean zetorrelakoan, egun bateko bidea egin ondoren, haren bila hasi ziren taldeko ahaideen eta ezagunen artean. Eta aurkitzen ez zutelarik, Jerusalemara itzuli ziren haren bila. Hiru egunen buruan, tenpluan aurkitu zuten, irakasleen artean eserita, haiei entzuten eta galdezka. Entzuten zioten guztiak txunditurik zeuden erantzunetan azaltzen zuen argitasunagatik. Gurasoak, ikusi zutenean, harriturik gelditu ziren, eta amak esan zion: «Seme, baina zergatik egin diguzu hori? Horra nolako atsekabez ibili garen aita eta biok zure bila!». Hark erantzun zien: «Zergatik ibili zarete nire bila? Ez al zenekiten Nik neure Aitaren etxean egon behar dudala?». Haiek, ordea, ez zuten ulertu zer esan nahi zien. Jesus Nazaretera jaitsi zen haiekin, eta haien menpean bizi zen.

Begoñako Andre Maria

Begoñako Andre Mariaren, Bizkaiko Zaindariaren, egun honetan, liturgia-ospakizunerako aukeratutako ebanjelioak, Jesus Haurraren gertakariaz, «galdu eta tenpluan aurkitua» izan zenaz, hitz egin digu. Lukas ebanjelariak, zera esanez amaitu du ebanjelioko pasarte hau: «Haren amak bere bihotzean gordetzen zituen gauza hauek guztiak». Mariaren bizitzako ezaugarriak sakonenetakoa laburbiltzen duen esaldia da: sinesmena bihotzean bizi; Jainkoaren hitzaz fidatu zen

* San Joan XXIII.a, 261. *aita santua*

Maria Deikunde edo Iragarpen egunetik beretik; zeruratua izan zenean, hara eramán zezan utzi zion Jainkoari. Mariak jakin zuen Jainkoari entzuten bere bizitzan, eta gure belarriak irekitzen ditu, Jesusen hitza gure barnera ere sar dadin. Andre Maria, otoitz egizu gure alde!

Andre Maria



* San Joan XXIII.a, 261. aita santua

Urteko 28. astea

Pilare-ko Andre Maria

San Joan Beyzym, *dohatsua, apaiza, jesuita*

Erregeak bigarren liburutik 5, 14-17.

Egun haietan, jaitsi zen Naaman siriarra Jordan ibaira eta zazpi bider murgildu zen, Jainkoaren gizonak agindu bezala, eta legenarra desagertu eta haurtxoarena bezain garbi gelditu zitzaion haragia. Orduan, Jainkoaren gizonagana itzuli zen bere lagun-talde osoarekin eta, haren aurrean zutik, esan zion: «Orain badakit ez dela munduan Jainkorik Israelena baizik. Otoi, onar ezazu zerbitzari honen esku-erakutsia». Eliseok erantzun zion: «Ala Jauna, zerbitzari nauena! Ez dut ezer hartuko». Naamanek hartzeko eta hartzeko esan arren, Eliseok ez zuen hartu nahi izan. Orduan, Naamanek: «Ezezkoan zaudenez gero, utz iezaziozu, bederen, zeure zerbitzari honi, bi mandok eraman dezaketen lurra hartzen; gaurtik aurrera ez baitio zure zerbitzariak erre-oparirik eta sakrifizioz inolako jainkori eskainiko, Jaunari izan ezik».

Sal 97: Agertu du Jaunak nazioen aurrean beragandiko garaipena.

San Paulok 2 Timoteori 2, 8-13.

Anaia maitea: Izan gogoan Jesu Kristo, Daviden jatorritik sortua, hilen artetik piztua. Hau da nik irakasten dudana Berri Ona eta honengatik nago neketan, gaizkile bezala katez lotua; baina Jainkoaren hitza ez dago katez lotua. Horregatik, dena jasaten dut Jainkoak aukeratu dituenen onerako, horiek ere Kristo Jesusek ematen duen salbamena eta betiko aintza irits ditzaten. Sinesgarria da adierazpen hau: Harekin hiltzen bagara, harekin biziko gara; harekin sufritzen badugu, harekin izango gara errege; hura ukatzen badugu, hark ere ukatuko gaitu; gu leialak ez bagara ere, hark leial dirau, ez baitezake bere burua ukatu.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17, 11-19.

Behin batean, Jesus Jerusalemera bidean, Samarian eta Galilean barna zihoan. Herrixka batean sartzean, hamar legenardun atera

Urteko 28. astea

Pilare-ko Andre Maria

San Joan Beyzym, *dohatsua, apaiza, jesuita*

zitzaizkion bidera. Urruti gelditurik, deiadarka esan zioten: «Jesus, Maisu, erruki zakizkigu!». Jesusek, ikustean, esan zien: «Joan eta azaldu apaizengana». Bidean zihoazela, garbi gelditu ziren. Haietako bat, sendatua zegoela oharturik, Jainkoa deiadarka goratuz itzuli eta Jesusen oinetara ahuspez erori zen, eskerrak emanez. Samariarra zen bera. Jesusek esan zuen: «Ez al dira hamarrak garbi gelditu? Non dira beste bederatziak? Ez al da izan atzerritar hau besterik Jainkoa goratzeraz etortzeko?». Gero, esan zion: «Jaiki eta zoaz; zeure sinesmenak salbatu zaitu».

Hamar gizon legenardun haiek Jesusengana jo dute beraren errukia piztu eta sendatuak izateko itxaropenarekin. Jesus errukitu egin da eta apaizengana bidali ditu beren sendakuntza ziurta dezaten eta beren herrietara itzultzeko baimena izan dezaten; izan ere, gaixorik dauden bitartean, gaixo arteko talde berezietan soilik bizi baitaitezke. Sendatu, denak sendatu dira, baina bakarra izan da, samariarra bera, arrotza alegia, Jesusi eskerrak ematera itzuli dena. Gaurko irakurgetatik eskerrak ematera deitzen gaituzte, samariarrak egiten duen moduan. Zergatik egin du hori samariarrak eta ez beste bederatzi juduetako inork? Juduek agian sendakuntza egintzat jo dute, hautatutako herri bateko kide izateagatik zor zaien zerbait balitz bezala. Samariarra ez, hura konturatu da berari ez zaiola ezer zor eta Jesus beraz grazia hutsez, dohaintza hutsez, errukitu dela. Funtsean, gure bizitzan zehar, dena da grazia, dena da dohaintza hutsa, ezer ez zaigu zor, dena da biziaren dohaintza hutsa eta maitatzen gaituzten pertsonena, eta azken finean, Jainkoaren dohaintza. Ezer ez da gure ahalegin edo merituen emaitza. Horregatik, giza jarrerarik zintzoena, eskerrak ematea da, baita jarrerarik kristauena ere. Eskerrak emateak, umil egiten gaitu, errealitatearekiko ohoreko, ondradu, eta egin zaigun on guztia eskertuta itzultzeko gogodun.

Urteko 28. astea

San Romulo, *gotzaina*San Fausto, *martiria, laboraria*Santa Zeledonia, *birjina, beneditarra**

San Paulok Erromatarrei 1, 1-7: Jesu Kristogandik hartu genuen apostolu izateko dohaina, jentil-herriei sinesmena eramateko.

Sal 97: Bere garaipena ezagutarazi du Jaunak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11, 29-32.

Aldi hartan, jende asko biltzen ari zelarik, Jesus honela hasi zitzaien: «Gizaldi hau gaiztoa da. Ezaugarri eske ari da, baina ez zaio ezaugarririk emango Jonas profetarena besterik. Izan ere, ninivetarrentzat Jonas ezaugarri izan zen bezala, hala izango da Gizonaren Semea gizaldi honentzat. Auzi-egunean hegoaldeko erreginak gizaldi honetako jendearen aurka jaiki eta kondenatu egingo du, lurraren azken mugetatik etorri baitzen hura Salomonen jakinduriatzko hitzak entzutera, eta hona hemen Salomon baino gehiago dena. Auzi-egunean ninivetarrek ere gizaldi honen aurka jaiki eta kondenatu egingo dute, haiek bihotz-berritu egin baitziren Jonasen predikua, eta hona hemen Jonas baino gehiago dena».

Jonasen predikua gai izan zen hiri handi bat bere osotasunean mugiarazteko eta azterketa eginda, erreakzionatu eta salbatu egin zen. Nahikoa izan zen horretarako menderatutako urruneko herri batetik etorritako gizon baten hitza Jainkoagana bihurtzeko. Haren mezua izan zen jaso zuten seinale bakarra. Jesusekin halaber Jainkoaren hitza iristen zaigu, orain barkamen eta erruki-hitza dena, jendearen miresmena eragiten duten sendatze eta askatze keinuekin datorrena. Baina ahots hori gizon babesgabe batengandik dator, jentilen Galileako batengandik, behartsua eta ibiltaria denarengandik, bazterreko judu batengandik, gaur eguneko teologoren batek duela gutxi izendatu duen moduan. Guk ere sinetsi ahal izango ote dugu salbamenak ertzetatik eta bazterretatik harrapatzen gaituela, ahuleriatik eta ez boteretik, errukitik eta ez mehatxutik?

* Santa Maria Soledad Torres Acosta, *birjina*

Eugenio Mari (Lazkao 1902-Pedralves 1936), *anaia beneditarra, dohatsu eta martiria*

Urteko 28. astea

San Kalisto I.a, 16. aita santua eta martiria

San Paulok Erromatarrei 1, 16-25: Jainkoa ezaguturik, ez diote eman aintzarik, Jainkoari dagokion bezala. **Sal 18:** Zeruek Jainkoaren aintza dute kontatzen.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11, 37-41.

Aldi hartan, Jesusek hitzaldia bukatu zuenean, fariseu batek bere etxean bazkaltzera gonbidatu zuen. Jesus sartu eta mahaian jarri zen. Fariseua harriturik gelditu zen bazkal aurretik eskuen garbikuntzarik ez zuela egin ikustean. Orduan, Jaunak esan zion: «Zuek, fariseuok, edalontzia eta platera kanpotik garbitzen dituzue, zeuek barrutik lapurretaz eta gaiztakeriaz beterik zaudeten bitartean. Zentzugabeok halakook! Ez ote du kanpokoak egin zuenak berak egin barrukoa ere? Hobe zenukete daukazuena limosnatzat emango bazenute! Horrela, gauza guztiak garbi izango lirateke zuentzat».

Jesusen garaian jan aurretik eskuak garbitzea, ohikune edo erritu-agindua zen. Hori ez egitea, barkaezina zen fariseu batentzat. Baina Jesusek horri ez dio batere garrantzirik ematen. Jesusek funtsezkoenera jotzen du eta horregatik jartzen du arreta gizakiaren barnean, egiten dugun guztia ernetzen den tokian. Ekintza bakoitzaren zuzentasunean zorrotz arreta jartzeak baino askoz ere gehiago balio du noski garena zaintzeak. Pertsona zauritu eta erresumindua, garratz eta mingots bihurtzen da, kritiko, mesprezati, bortitz edo iraintzaile. Bere barnea osasuntsu duen pertsona, borondate-iturri da, begirada garbiko, errukior eta itxaropentsu. Eskuak itsu-itsuan igurztea baino beharrezkoagoa da bihotz ona eta emankorra zaintzea.

Urteko 28. astea

Santa Teresa Jesusena Avilakoa, *birjina eta eliz irakaslea*

Ben Sirak 15, 1-6: Jakinduria eta adimen-espíritu beteko du eta soinekorik ederrenaz jantziko. **Sal 88:** Iragarriko diet zure izena neure senideei, goretsiko zaitut batzarraren erdian.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11, 25-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Bedeinkatua Zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsuei eta burutsuei gorde eta jende xumeari agertu baitizkiozu. Bai, Aita, hala izan duzu gogoko. Nire Aitak dena eman dit, eta ez du inork Semea ezagutzen, Aitak baizik; ezta Aita ere, Semeak baizik, eta Semeak agertu nahi dionak baizik. Zatozte nigana nekatu eta zamatuz guztiok, eta Nik arinduko zaituztet. Hartazue nire uztarria eta ikasi nigandik, gozoa eta bihotz-apala bainaiz, eta aurkituko duzue zeuen arimentzako atsedena. Nire uztarria leuna baita, eta nire zama arina».

Munduko gauzetan liluratutako bizitza urte askoz bizitu ondoren, Santa Teresak, Jesusen adiskidetasunaren bitartez Jainkoaren misterioak aurkitu zituen. Elizak irakasle maila aitortua dio, baina ez egin zituen ikasketengatik, Jainkoarekiko harreman amultsuan sakontzean bizia eta kristau-jarraipena argitu zitzaizkiolako baizik. Gaur egun oraindik, hainbeste denbora igaro arren, bere idazkietara jotzen dugu eta gidari argi dira fedearen bideetan sartzen denarentzat. Teresarengan, geldoena dena da emankorrena, hori baita eraldatzaileena. Gero, bere uztarria hartu eta hautsez betetako bide nekagarrietara irten zen jasotako espiritualtasunarekin beritutako komentu berriak sortzeko. Eta han aurkitu zuen Jainkoaren etengabeko laguntza.

San Paulok Erromatarrei 3, 21-30a: Fedegatik hartzen ditu zintzotzat Jainkoak gizon-emakumeak, eta ez legea betetzeagatik. **Sal 129:** Jaunagan dago errukia, harengan askatasun ugaria.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11, 47-54.

Aldi hartan, Jaunak esan zuen: «Ai zuek, zuen arbasoek hildako profetei hilarriak eraikitzen dizkiezuenok! Horrela, arbasoek egindakoarekin ados zaudetela aitortzen duzue; zeren haiek hil egin baitzituzten profetak, eta zuek hilarriak eraikitzen baitizkiezue. Zerbaitegatik esan zuen Jainkoaren jakinduriak: “Profetak eta apostoluak bidaliko dizkiet eta batzuk hil eta beste batzuk erasoka erabiliko dituzte”. Baina munduaren hasieratik isuri den profeta guztien odolaren kontuak eskatuko dizkio Jainkoak gizaldi honi: hasi Abelen odoletik eta aldaretik santutegira bitartean hil zuten Zakariasen odolerraino. Bai, Nik diotsuet gizaldi honi eskatuko dizkiola kontuak. Ai zuek, lege-maisuok, jakintzaren ateko giltzaren jabe egin zaretenok! Zuek ez zarete sartu, eta sartu nahi zutenei ez diezue utzi». Jesus handik atera zenean, fariseuek eta lege-maisuek gupidarik gabe eraso zioten, galderak egin eta egin, ea erantzun okerren batean harrapatzen zuten.

Profetak Espirituaren indarrez hornituta daude eta horrek pertsona libre bihurtzen ditu, Jainkoagandik datorren haizeak soilik eraginak direlako. Beren hitza askea da, beren jarduera sortzailea eta beren itxaropenak errealitatea ere agortzen dutela diruditen ortzimugak gainditzten ditu. Haientzat, Jainkoa dohain hutsa eta sortzeaskatasuna da. Bestalde, legearen zaintzaileak, agindu eta arauak erabat lotuta daude, irten ezin diren kontzeptu estuen karioletan sartuta. Lehenengoez bizimodu arriskutsua daramate, beti arriskuan dagoena; bigarrenak ahalegintzen dira zorrozki ezarritako gizarte-ordenak aldatetarik izateko mehatxurik izan ez dezan. Jesusen eta lege-maisuen artean egundoko leizea dago. Eta bi jarrera horiek historian zehar ere jarraitu egiten dute Elizaren barruan.

Urteko 28. astea

San Ignazio Antiokiakoa, *gotzaina eta martiria*

San Paulok Erromatarrei 4, 1-8: Abrahamek sinetsi zion Jainkoari, eta horregatik zuzenetsi zuen Jainkoak. **Sal 31:** Zu zaitut ihesleku, askapen-kantuz inguratzen nauzu.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12, 1-7.

Aldi hartan, milaka eta milaka lagun bildu zen, elkar zapaldu beharrean. Jesus hizketan hasi zitzairen, lehenik ikasleei zuzenduz: «Ibili kontuz fariseuen legamiarekin, hau da, itxurazalekeriarekin. Ez dago ezer gordeta agertuko ez denik, ezta ezer ezkutuan ere jakingo ez denik. Zeren gau-ilunez esan duzuen egun-argiz entzungo baita, eta etxe-zokoan belarrira esan duzuen etxe gainetik hots egingo. Zuei diotsuet, ene adiskideoi: ez izan beldurrik gorputza hil bai, baina hortik aurrera ezer egiterik ez dutenei. Esango dizuet nori izan beldur: izan beldur hiltzeko eta ondoren infernura botatzeko ahalmena duenari. Bai, izan beldur horri! Ez al dira bost txori bi txanponean saltzen? Hala ere, haietako bat bakarra ere ez dauka Jainkoak ahazturik. Zuen buruko ile guztiak ere zenbatuak dauzka Jainkoak. Ez izan, bada, beldurrik: zuek txori guztiak baino gehiago balio duzue».

Egiazkotasuna behar da eta ez itxurakeria, hori da Jesusek bere ikasleei ohartarazten diena. Itxurakeria legamia berezia da eta ez fariseuena soilik, izan ere, zabaldu eta kutsatzeko ahalmen handia baitu, batez ere bizimoldeetan betebeharrak motaren bat defendatzen duten pertsonen artean. Pertsona hipokritak edo itxuratiak, gainerakoak kritikatzeko dituzte eta bere lotsaizunak ezkutatzeko, lehentxeago edo geroxeago argitara irtengo diren arren. Benetakoa eta egia den pertsonak, aske eta arin sentitzen du bere burua eta bere hitz zintzo eta benetakoak zirrara sortzen du. Baina egiazkotasunak beti du berekin kostu bat gizartearen eta Jesusek horretaz ohartarazten dituen bere ikasleak. Horregatik, beldurrik ez izateko eskatzen die, Jainkoak beti laguntzen baititu bihotz zintzoz hura onartu eta beren biziaz iragartzen dutenak.

San Paulok 2 Timoteori 4, 10-17b.

Anaia maitea: Dimasek utzi egin nau; nahiago izan ditu mundu honetako gauzak, eta Tesalonikara joan da; Kreszente, berriz, Galaziara joan da eta Tito Dalmaziara. Lukas beste inor ez dago nirekin. Hartzazu Markos eta ekarri zeurekin, oso ona baitut lanerako. Tikiko Efesora bidali dut. Hona etortzean, ekar ezazu Troaden, Karporen etxean, utzi nuen soingainekoa, baita liburuak ere, batez ere pergaminoak. Alexandro errementariak kalte handia egin dit; Jaunak ordainduko dio bere jokabidearen arabera. Kontu izan zeuk ere horrekin, gogor jarri baitzen gure irakatsien kontra. Nire auziko lehenengo defentsan ez zen inor atera nire alde; bakarrik utzi ninduten denek; Jainkoak ez diezaiela kontuan har. Baina Jauna neurekin izan nuen eta indartu ninduen, nire bidez mezua osorik iragarria izan zedin eta jentil guztiek entzun zezaten.

Sal 144: Zure adiskideek ager bezate, Jauna, zure erregetzaren bikaintasuna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10, 1-9.

Aldi hartan, Jaunak beste hirurogeita hamabi ikasle izendatu eta bere aurretik bidali zituen binaka, bera joatekoa zen herri eta leku guztietara. Eta esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi. Egin, beraz, otoitz uzta-jabeari bidal ditzala langileak bere uztara. Zoazte! Arkumeak otso artera bezala bidaltzen zaituztet. Ez eraman poltsarik, ez zakutorik, ez oinetakorik, eta ez gelditu bidean inori agur egiten. Edozein etxetan sartzen zaretela, esazue lehenbizi: “Bakea etxe honetakoei!”. Eta han bakezalerik bada, haren gainean kokatuko da zuen bakea; bestela, berriz, zuen bakerik gabe geldituko dira. Geldi zaitezte etxe berean; eta jan eta edan daukatenetik, zor baitzaio langileari bere saria. Ez ibili etxez etxe. Herriren batean sartu eta ondo

Urteko 28. astea
SAN LUKAS, EBANJELARIA

hartzen bazaituztete, jan jartzen dizuetenetik, sendatu bertako gaixoak eta esaiezue: “Hurbil duzue Jainkoaren erreinua”».

Ez dute denbora asko igaro Jesusekin, baina jada berak bidaltzen ditu Erreinua iragartzera. Ez dira letratuak, ez dira ikasiak, ez dituzte eskuratu tituluak eta aitortzak, baina Jesusek prestatuak ikusi ditu misiorako. Ikusi eta entzun dutenaz hitz egingo dute eta barruan sentitu duten garrarekin adieraziko dute eta beren ezagutza-eskastasunarekin komunikatuko dute historian jada presente dagoen Jainkoaren handitasuna. Ezezaguna duten eremuan sartuko dira buru-belarri eta herri eta muga berrietara joango dira. Ez onartuak izateko arriskua izango dute, Jainkoak egiten duen moduan, baina onartuko dituztenak ere izango direnaren ziurtasuna ere badute. Ebanjelioak, Maisuaren hitz hauek entzutera eta Erreinuaren apostolu bihurtzera eramaten gaitu.

* * *



San Lukas. Altzo Muino. Erretaula.

Santuak: Joan de Brébeuf, Isaak Joguez, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak*, *jesuitak*
San Pedro Alcantarakoa, *frantziskotarra*, *apaiza**

Irteera liburutik 17, 8-13.

Aldi hartan, amalektarrek israeldarrei eraso zieten Refidimen. Orduan, Moisesek esan zion Josueri: «Aukeratu zenbait gizon eta atera amalektarren kontra borrokara. Bihar muinoaren gainean zutik egongo naiz ni, Jainkoaren makila eskuan». Moisesek esan bezala egin zuen Josuek eta amalektarren kontra borrokari ekin zion. Bitartean, Moises, Aaron eta Hur muino gainera igo ziren. Moisesek besoei goian eusten zienean, israeldarrak ziren garaile; behera erortzen zitzaizkionean, orde, amalektarrak. Moisesi besoak nekatu zitzaizkionean, harri bat hartu eta azpian ipini zioten, bertan eser zedin. Aaronek eta Hur-ek haren besoei eutsi zieten, alde banatatik. Honela, Moisesen besoek tinko iraun zuten, eguzkia sartu arte. Eta Josuek amalektarrak garaitu zituen eta ezpataz suntsitu.

Sal 120: Gure laguntza, Jaunaren izena, zero-lurrak egin dituenarena.

San Paulo apostoluak 2 Timoteori 3, 14-4, 2.

Anaia maitea: Iraun sendo, ikasi eta sinetsi duzun guztian; hartu gogoan norengandik ikasia duzun eta Liburu Santuak umetatik ezagutzen dituzula. Liburu Santuek eman diezazukete, Kristo Jesusenganako sinesmenaren bidez, salbamenera daraman jakinduria. Liburu Santuetan idatzirik dagoen guztia Jainkoak inspiratua da, eta irakasteko, arrazoiak emateko, okerrak zuzentzeko eta biziera zuzenean hezteko baliagarria; horrela, Jainkoaren gizona guztiz hornitua gertatzen da eta edozein eginbehar onetarako prest. Jainkoaren aurrean eta, errege bezala agertuz, biziak eta hilak epaitzera etorriko den Kristo Jesusen aurrean erregutzen dizut: hots egin Jainkoaren

* San Paulo Gurutzekoa, *fundatzailea (Pasiotarrak) apaiza*
San Grat (Zuberoa VI. mendean), *gotzaina*

Urteko 29. astea

Santuak: Joan de Brébeuf, Isaak Joguez, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak*, *jesuitak*San Pedro Alcantarakoa, *frantziskotarra*, *apaiza**

hitza; ekin garaia denean eta ez denean, eman arrazoiak, zentzarazi eta aholkatu, zeure pazientzia guztia eta irakasteko gaitasuna erabiliz

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 18, 1-8.

Aldi hartan, etengabe egin behar zutela otoitz eta ez zutela etsi behar adierazteko, parabola hau esan zien Jesusek: «Bazen hiri batean epaile bat, ez Jainkoari beldurrik, ez gizakiari begirunerik ez ziona. Bazen hiri berean emakume alargun bat ere. Hau epaile harengana joaten zen, eskatzera: “Egidazu justizia aurkariarekiko auzian”. Luzaroan epaileak ez zion kasurik egin nahi izan, baina azkenean bere baitan esan zuen: “Ez diot Jainkoari beldurrik, ez gizakiari begirunerik; baina, alargun hau gogaikarri zaidanez, egingo diot justizia, behingoz bakean utz nazan”». Eta honela bukatu zuen Jaunak: «Begira zer dioen epaile zuzengabeak. Eta Jainkoak, ez ote die justizia egingo, gau eta egun deiadarka ari zaizkion bere aukeratuei? Zain edukiko ote ditu luzaroan? Justizia berehala egingo diela diotsuet. Baina Gizonaren Semeak, datorrenean, aurkituko ote du sinesmenik munduan?».

Lukasek, jazarria den eta laguntza behar duen jatorri paganoko elkarte bati idazten dio eta otoitz egitera bultzatzen du. Lukasen ebanjelioan ugari dira Jesus Aitari otoitz egiten agertzen den pasarteak, hala nola bataiokoan, Getsemaniko olibadian edota ikasleak aukeratzerakoan. Berak, Jesusek bezala egin dezagula nahi du, otoitzean behin eta berriz jardutea geure bizitzak Aitaren beso abegitsuetan jartzeko modu gisa, hark guri behar dugun kontsolamendua eman ahal diezagun. Otoitza halaber, geure beharrianak haren esku uzteko modu gisa har daiteke, hark gure beharrianei arreta eskain diezaien eta guri haiei aurre egiteko indarra eman diezagun. Jesusek jakin badaki

* San Paulo Gurutzekoa, *fundatzailea* (Pasiotarrak) *apaiza*
San Grat (Zuberoa VI. mendean), *gotzaina*

Santuak: Joan de Brébeuf, Isaak Joguez, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak*, *jesuitak*
 San Pedro Alcantarakoa, *frantziskotarra*, *apaiza**

gizakion estutasun eta bakardadeen berri eta hala aurkitzen garenean otoitz egitera gonbidatzen gaitu. Badira uneak jada inorengana jotzerik ez dugunak, Jainkoaren babes ziurra baino gelditzen ez zaigunak eta halakoetan harengan konfiantza izatea beste biderik ez zaigu gelditzen. Baina otoitza ez da mugatzen eskatzera eta goresmena eta eskertza ere berarekin ditu. Horiakin, Jainkoaren presentziak geure bizitzetan sortzen duen alaitasuna eta bera lagun dugula jakiteak sentiarazten digun segurtasuna, adierazten ditugu. Eskerrak emanez otoitz egitea eta eskariak egitea da otoitzaren oinarrizko modua.

* * *

«Bakoitzari berea emateak zera esan nahi du: ez dagoela gizabanako edo gizatalde bakar bat ere, bere burua ahalguztiduntzat har dezakeenik eta beste pertsonen edo talde sozialen duintasuna eta eskubideak hankapean erabiltzeko baimena duenik» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 171).

* San Paulo Gurutzekoa, *fundatzailea* (*Pasiotarrak*) *apaiza*
 San Grat (Zuberoa VI. mendean), *gotzaina*

Urteko 29. astea

Santa Aurora, *aitorlea*San Kornelio, *ehuntaria*

San Paulok Erromatarrei 4, 20-25: Hori Liburu Santuak guregatik ere badio; gu ere, harengan sinesten dugunok, zintzotzat hartuko baikaitu Jainkoak. **Sal: Lukas 1:** Bedeinkatu Jauna, Israelgo Jainkoa, agertu eta bere herria askatu duena!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12, 13-21.

Aldi hartan, jende arteko batek esan zion Jesusi: «Maisu, esaiozu nire anaiari senipartea nirekin erdibanatzeko». Jesusek erantzun zion: «Lagun, nork jarri nau Ni zuen artean epaile edo ondasun-banatzailer?». Eta jendeari esan zion: «Kontuz! Gorde diru-gosetik, ondasunek ez baitiote inori bizia segurtatzen, ugari izanda ere». Gero, parabola hau kontatu zien: «Gizon aberats bati lurak uzta handia eman zion. Eta honela hasi zen berekiko pentsatzen: “Zer egin, ez baitut uzta non jasorik”. Eta beretzat esan zuen: “Badakit zer egin: mandio zaharrak bota eta handiagoak egingo ditut eta haietan jasoko ditut garia eta gainerakoak. Gero, esango diot neure buruari: “Ea, motel! Baduk hor gordeta urtetarako ondasunik aski; hartu atsedean, jan, edan eta bizi ongi!”. Baina Jainkoak esan zion: “Burugabea halakoa! Gaur gauean bertan hil behar duk. Norentzat izango duk pilatu duana?”». Eta amaitu zuen Jesusek: «Horra zer gertatzen zaion, Jainkoarentzat aberats izan beharrean, ondasunak beretzat pilatzen dituenari».

Gizon batek Jesusengana jotzen du bere anaiarekin jaraunspen edo herentzia baten banaketa ebazteko eta horrek Jesusi aukera ematen dio ondasunen metaketaz hitz egiteko. Metaketa edo pilaketa egiten dugu segurtasuna bilatuz edo onarpenak eskatuz. Ondasunak edukitzea gizarteko arrakastaren seinale modu bat da; izan ere, ustez behintzat, bizkorrena denak ditu ondasunak, edota prestatuen dagoenak eta, aldiz, ondasunik ez du, saiatu arren, lortu ez dituenak. Aberastasunaren atzean, beti dago geure meritu edo egoeraren erakusgarri bat. Baina Jesusentzat horrek ez du inolako baliorik. Jesusentzat balioa, pertsonak soilik du, eta ondasunetatik arindu eta zenbat eta gehiago besteei emana izan, hainbat eta gehiago gainera; aldiz, are zekenagoa da beretzat eta beretarrentzat ondasunak gordetzen saiatzen dena.

San Paulok Erromatarrei 5, 12.15b.17-19.20b-21: Gizon bakarraren bekatuagatik heriotza nagusitu bazen, zenbatez gehiago ez ote dira salbatuak nagusi izango betiko bizian! **Sal 39:** Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egin dezadan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12, 35-38.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zaudete prest, jantziak loturik eta kriseiluak pizturik; izan zaitezte nagusia etzeietatik noiz itzuliko zain dauden morroiak bezalakoak, iritsi eta atea jo bezain laster irekitzeko prest dauden morroiak bezalakoak. Zorionekoak morroi horiek, nagusiak, iristean, zain aurkitzen baditu! Egia diotsuet: arropak aldaturik, mahaian eseraraziko ditu eta zerbitzatzen hasiko zaie. Eta gauerdian nahiz goizaldean badator eta horrela aurkitzen baditu, zorionekoak haiek!».

Jesusek zorioneko deitzen die Jaunaren etorrera itxaroten bizi direnei; izan ere, den bezain askea izanda, gutxien uste denean agertzen da. Hortik bada beti ere adi eta erne egon beharra, edozein unetan ere konpromisoak hartzeko eta gu geu eskaintzeko ere beti prest egoteko. Jaunak beti modu berri batean harrapatzen gaitu, ezustean, geure arrazoizko usteak gainditzen dituen topaketa gozo baten bidez eta itxaropenez eta zentzuz betetzen gaitu. Gure mendekotasuna eskatuz letorkeen jaun baten jokabidetik urrun, bera da geure oinetan eta gure zerbitzura jartzen dena. Arreta jartzea eta itxarotea dira kristaubizitzan guri eskatzen zaizkigunak, bertan Jainkoa presente egin dadin guri alaitasuna eta itxaropena sorraraziz.

Urteko 29. astea

San Joan Paulo II.a, *aita santua*Nunilo (Novila) eta Alodia santuak, ahizpak, *birjinak eta martiriak (Iruñeko eta Tuterako elizbarrutietan)*

San Paulok Erromatarrei 6, 12-18: Heriotzatik bizira itzulitako gizaki bezala, jarri zeuen gorputz-atalak Jainkoaren zerbitzura. **Sal 123:** Gure laguntza Jaunaren izena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12, 39-48.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Hartu gogoan hau: etxeko nagusiak, lapurra zein ordutan etorriko den jakingo balu, ez luke etxea zulatzen utziko. Egon prest zuek ere, gutxien uste duzuen orduan etorriko baita Gizonaren Semea». Pedrok galdetu zion: «Jauna, guretzat ala denentzat esan duzu parabola hau?». Jaunak erantzun: «Izan zaitezte etxezain leiala eta zentzuduna bezalakoak, nagusiak, bere orduan behar den janaria banatzeko, morroi buru ipini duena bezalakoak. Zorionekoa morroi hori, nagusiak, iristean, agindua egiten aurkitzen badu! Benetan diotsuet: bere ondasun guztien buru ipiniko du. Baina morroia, nagusiak luzatuko duelakoan, morroi-lagunak eta neskameak jotzen eta jan-edanean eta mozorkerian hasten bada, gutxien espero duen egunean eta gutxien uste duen orduan etorriko zaio nagusia, gogor zigortuko du eta desleialek merezi dutena emango dio. Nagusiaren nahia zein den jakin arren, gauzak hark nahi bezala eratzen edo egiten ez dituen morroiak zigor gogorra izango du; nagusiaren nahia zein den jakin gabe, zigorra merezi duen zer bait egiten duenak, berriz, biguna. Asko eman zitzaionari, asko eskatuko zaio; eta askoren kargua eman zitzaionari, are kontu handiagoa eskatuko».

Administratzaileak gara eta ez jabeak edo nagusiak. Jainkoa, bizitzan zehar, pertsonak, gaitasunak eta ondasunak gure esku jartzen joan da, baina ez guk geure apetaren arabera erabil ditzagun, Erreinuaren zerbitzuan jar ditzagun baizik. Hala ez egitea, ustelkeria ororen ernamuina da, jasotakoaz jabetzen denarena bere onerako eta onurarako erabiltzeko. Ilunpean antolatuz usteltzen gara, inork ez gaituela ikusten pentsatuz, geure barnean geurez ez garen

handikeriazko ego-irudia gizenduz. Besteak zaintzea, garen eta dugun guztia eskaintzea eta pertsonen bizitzaz poztea da Jainkoak erne egoteko eskatzen digun modua. Aita errukitsu eta maitekor gisa iristen denean, bere presentziak egundoko poza sortuko digu.



Piztia eta abere, bedeinka ezazue Jauna, goretsi eta goraipatu menderen mendetan!

Urteko 29. astea

San Joan Kapestrano-koa (Italia), *frantziskotarra*, *apaiza*

San Paulok Erromatarrei 6, 19-23: Bekatuaren menpetik askaturik, Jainkoaren esklabo eginak izan zarete. **Sal 1:** Zorionekoa Jaunagan itxarobidea jartzen duena!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12, 49-53.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Lurrean sua jartzera etorri naiz, eta nahiago nuke dagoeneko sutan balego! Heriotza-uretan murgildu behar dut, eta hau larria hori bete arte! Munduari bakea ekartzera etorri naizela uste al duzue? Bakea ez, banaketa baizik. Zeren hemendik aurrera, etxe bateko bost senideak banaturik egongo baitira: hiru biren kontra eta bi hiruren kontra; aita semearen aurka eta semea aitaren aurka, ama alabaren aurka eta alaba amaren aurka, amaginarreba errainaren aurka eta erraina amaginarrebaren aurka».

Jesusen Berri Ona haustailea da. Zuzengabekeria-kateak hausten ditu, ezkutuko ustelkeriak salatzen, desberdintasun-egiturak eraisten, zauritzen eta baztertzen duten jokabideak zalantzan jartzen... Ebanjelioak nekez egiten du bide baketsua pertsonengan eta kulturetan. Beti gauzak zalantzan jartzen ditu eta maltzurra gertatzen da. Barruan esperimentatzen duenarentzat erretzen duen suaren gisakoa da, larrialdia dakarrena. Mehatxatuta sentitzen denarengan harresiak altxatzen ditu eta erresistentziak sortzen Ebanjelioaren indar horri eusteko eta gararazteko. Gizarteak ahalegintzen dira zuzentasun politikoaren bidezidorretatik bideratzen, baina hala ere ez du uzten bere burua hortik hezten. Indartsu eta benetan barne-barnean bizi denean, ez da batere ezohikoa uneren batean hura ukatu nahi izatea ere. Ebanjelioa benetako sua da munduan.

Urteko 29. astea

San Antonio Maria Claret, *gotzaina eta fundatzailea*
(Klaretarrak)

San Paulok Erromatarrei 7, 18-25a: Nork askatuko nau, heriotzara naraman neure izaera honetatik? **Sal 118:** Irakatsi niri, Jauna, zeure arauak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12, 54-59.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Sartaldean lainoa ikusi orduko, “euria dator” esaten duzue, eta hala gertatzen da. Hegoak jotzen duenean, berriz, “sargori dago” esaten duzue, eta hala gertatzen da. Itxurazaleok! Badakizue zero-lurren itxurari antzematen, eta nolaz ez diozue antzematen garai honi? Zergatik ez duzue zeuen kabuz bereizten zuzena zer den? Zeure etsaiarekin auzitegira zoazela, saia zaitez bidean harekin konponbidea aurkitzen; bestela, epaileagana eramango zaitu eta epaileak ertzainaren esku jarriko, eta ertzainak kartzelara botako. Hara Nik esan: ez zara handik aterako, azken xentimoa ordaindu arte».

Bizitza eta historia geure irakurketarako liburu ireki moduan aurkezten zaizkigu, baina ulertzeko moduaren behararekin. Jainkoa presente egiten da geure errealitatean inolako ezarpenik gabe, baina, hura antzemateko beharrezkoa da adi egotea, entzutea eta esan nahi diguna irakurtzen jakitea. Modu horretan soilik egin ahal izango dugu elkarlana berarekin, etengabe berrikuntzak sortzen baititu eta Erreinurako bideak irekitzen. Horiek dira gure garaiko zeinuak, sinestun moduan eta kristau-elkarte moduan antzematea dagozkigunak. Zeinu horiek irakurketa eta ikasketa onak behar dituzte baina are gehiago espiritu-sakontasuna eta otoitza. Beste batzuekin elkarriketa eta elkarlana egitea eskatzen dute baina baita pertsonaren konpromisoa eta eskuzabaltasuna ere. Garaiko zeinuak argituz doaz errealitatearen konplexutasunari adi eta kontenplazioz begiratu.

Urteko 29. astea

San Krispin eta San Krispiniano, *anaiak, martiriak*
(*Zapatarien Zaindariak*)

San Paulok Erromatarrei 8, 1-11: Jesus hilen artetik piztu zuen Jainkoaren Espiritua zuengan bizi da. **Sal 23:** Hau da, Jauna, zure aurpegi bila dabiltzanen taldea.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 13, 1-9.

Une hartan, etorri zitzaizkion batzuk Jesusi, galilear batzuei gertatuaren berri ematera: nola Pilatok hil zituen, eskaintzen ari ziren oparien odolarekin haiena nahastuz. Jesusek erantzun zien: «Uste al duzue galilear haiek gainerako galilearrak baino bekatariago zirela, horrelako heriotza izan zutelako? Ezetz diotsuet, eta, bihotz-berritzen ez bazarete, guztiok era berean galduko zarete. Eta Siloeko dorrea gainera erorita hil ziren hemezortzi haiek, uste al duzue gainerako jerusalemdarrak baino errudunagoak zirela? Ezetz diotsuet, eta, bihotz-berritzen ez bazarete, guztiok era berean galduko zarete». Eta parabola hau esan zien: «Gizon batek pikondo bat zeukan, bere mahastian landatua. Joan zen piku bila eta ez zuen aurkitu. Orduan, esan zion mahastizainari: “Bada hiru urte pikondo honetara piku bila natorrela, eta ez dut aurkitzen. Moztu ezazu. Zertako eduki hor, lurra alferrik jaten?” Mahastizainak, ordea, erantzun zion: “Jauna, utzazu aurtengoz; bitartean, ingurua aitzurto eta ongarria botako diot, ea aurrerantzean fruiturik ematen duen; eta bestela, moztu”».

Juduak izutu egiten zituen beren odola erre-oparietakoarekin nahastuta ikusteak eta uste zuten gertakari hura Jainkoaren zigorra soilik izan zitekeela. Baina Jesusek beste era batera pentsatzen du, eta berarentzat, kontua ez da hori, geure bizitzekin zer fruitu ematen dugun baizik. Ura irentsi, ongarriak bereganatu eta tokia bete arren fruiturik ematen ez duen pikondo batekin ernegatuta dagoen gizon baten berri ematen du parabolak. Baina nekazari patxadatsuari, oraindik ere apur batean itxaron beharra dagoela deritzo, landarea zainduz, ongarria emanez eta harengan itxaropena izanez. Horrela jokatzeko Jainkoak gurekin eta izugarri gustatzen zaigu hark horrela egitea, itxaronez, maitasunez zainduz eta pazientzia izanez, unea iristen denean geuk dezakegun guztia emango dugun ziurtasunarekin. Berak hala itxaro du.

Siraken liburutik 35, 15b-17. 20-22a (gr. 12-14. 16-18).

Epailea da Jauna, eta ez du harengan eraginik inoren izenak: ez du alderdikeriarik egiten behartsuaren kontra eta entzuten du zapalduaren eskaria. Ez du umezurtzaren erregua mespretxatzen, ezta kexati doakion alarguna ere. Jaunak gogo onez hartzen du bera zerbitzatzen duena, eta honen eskaria zeruraino iristen da. Apalaren otoitzak hodeiak zulatzen ditu eta ez du onik bere helmugara iritsi arte; ez du etsitzen, Goi-goikoak esku hartu eta errugabeei justizia egin arte.

Sal 33: Dohakabeak oihu egin zuen, eta Jaunak entzun.

San Paulok 2 Timoteori 4, 6-8.16-18.

Anaia maitea: Ni neure bizia opari eskaintzeko zorian nago; gainean dut mundu honetatik joateko ordua. Borroka ona egin dut, bukatu dut lasterketa, gorde dut sinesmena. Dagoeneko zain dut garaipenaren koroa, Jaunak, epaile zuzenak, azken egunean emango didan koroa; eta niri ez ezik, baita haren agerraldia maitasunez itxaro duten guztiei ere. Nire auziko lehenengo defentsan ez zen inor atara nire alde; bakarrik utzi ninduten denek; Jainkoak ez diezaiela kontuan har. Baina Jauna neurekin izan nuen eta indartu ninduen, nire bidez mezua osorik iragarria izan zedin eta jentil guztiek entzun zezaten. Berak atara ninduen lehoiaren ahotik. Jaunak aterako nau gaitz guztitik eta salbatuko, zeruko bere erreinura eramanez. Berari aintza menderen mendetan. Amen.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 18, 9-14.

Aldi hartan, parabola hau esan zien Jesusek beren burua zintzotzat hartzen eta besteak gutxiesten zituzten batzuei: «Bi gizon igo ziren tenplura otoitz egitera, bata fariseua eta bestea zergalaria. Fariseuak, zutik, honela egiten zuen otoitz bere barruan: “Eskerrak ematen

Urteko 30. astea

San Evaristo, 5. *aita santua*

dizkizut, ene Jainko, besteak bezalakoa ez naizelako: lapur, gaizkile, adulterioigile; ezta horrako zergalari hori bezalakoa ere. Astean bitan egiten dut barau, eta ditudan guztien hamarrenak ematen ditut”. Zergalaria, berriz, urruti gelditurik, ez zen begiak zerura jasotzera ere ausartzen, baizik eta bular joka ari zen, esanez: “Ene Jainko, erruki zakizkio bekatarari honi!”. Hara zer diotsuedan: azkeneko hau Jainkoarekin adiskideturik itzuli zen etxera; bestea, berriz, ez. Izan ere, bere burua goratzen duena beheratu egingo du Jainkoak, eta bere burua beheratzen duena goratu».

Jesusek Jainkoari otoitz egiten ari diren bi pertsona aurkezten dizkigu: bata fariseua, hantustetsua eta harroa eta bestea publikanoa, zerga-biltzailea, bihotza uzurtuta duena. Fariseuak besteak baino hobetzat du bere burua eta besteak mesprezatu egiten ditu. Bihotz puztu horrekin jotzen du Jainkoaren aurrera eta hala egiten dio otoitz ere. Berarengan ez dago eskertzarik, bere buruaz atsegina sentitzen du; ez du egiten kontzientzia azterketarik, bere burua zurtzekoa baizik. Otoitz horretan Jainkoak ez du ezer entzutekorik. Fariseuak bere buruarentzat egiten du otoitz. Jainkoak berak egiten duenarengatik maitatu egin behar duela iruditzen zaio. Jesusek kritikatu egiten ditu bere izaera ustetsua eta harrokeria, bere Jainkoaren beharrik eza alegia. Publikanoak, zerga-biltzaileak, bekataritzat aitortzen du bere burua eta Jainkoaren errukiaren beharrean sentitzen da. Ez du bere burua inorenarekin konparatzen eta ez du bere burua inorena baino hobetzat jotzen. Jainkoaren aurrean aurkezten du bere burua hark hala nahi badu onar dezan, beragana dezan eta bere barkamena eman diezaion. Apal-apal jartzen da Jainkoaren eskuetan, Jainkoaren borondatean konfiantza duela eta ez bere eginbideetan. Jesusek dio bere bizitza zuzenetsita irten zela. Jesusek gutxi espero du pertsona on ustetsuetatik. Aldaketak egiteko horma gogorrek direla uste du. Askoz ere gehiago itxaro du gaizto umiletatik. Aldatzeko eta beragana bihurtzeko gaitasuna dutela uste du. Parabola, bizitza esker onez bizitzeko deia da, inor baino hobeak garenik ez uste izateko, ez epaitzeko eta Jainkoaren maitasuna baldintzagabea eta merezimendu-gabea dela jakin dezagun. Jainkoa soilik da ona.

Urteko 30. astea

Bizente, Sabina eta Kristeta, *anai-arrebak, martiriak*

San Paulok Erromatarrei 8, 12-17: Seme-alaba egiten zaituzten Espiritua hartu duzue, eta Espirituaren bidez «Abba!», hau da, «Aita!» hots egiten diozue Jainkoari. **Sal 67:** Gure Jainkoa Jainko salbatzailea.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 13, 10-17.

Aldi hartan, larunbatez sinagoga batean irakasten ari zen Jesus. Bazen han emakume bat, hemezortzi urte haietan espiritu baten menpe gaixo zegoena; erabat konkortua zegoen eta ezin zen inola ere zuzendu. Ikustean, Jesusek deitu eta esan zion: «Emakume, libre zara zeure gaitzetik». Eskuak ezarri zizkion, eta bat-batean zuzendu zen eta Jainkoa goستن hasi. Sinagogako buruzagiak, Jesusek larunbatean sendatu zuelako haserre, esan zion jendeari: «Astean sei egun daude lanerako; etorri egun horietan sendatzera, eta ez larunbatean». Jaunak erantzun zion: «Itxurazaleok! Zuetako nork ez du larunbatez idia nahiz astoa ukuilutik askatzen eta ura edatera eramaten? Eta Abrahamen ondorengo den honi, hemezortzi urtez Satanasek lotua eduki duen honi, ez ote zitzaion larunbatez lokarri hori askatu behar?». Hitz hauekin, latsa-latsa eginik geratu ziren Jesusen etsai guztiak; jendetza, ordea, pozik zegoen hark egiten zituen gauza miragarri guztiengatik.

Emakume hura oker-oker eginda zebilen, burua altxatu ezinik, bere baitara itzulia, aurpegira begiratzuz gainerakoekin komunikatzeko gaitasunik gabe, bere pentsamendu eta kezketan murgildua. Ez zen egoera iragankorra, bizitzeko baldintza baizik, harreman guztiak aldarazi zizkion bizitzeko modua baizik. Jesusen ekintzak zutik eta irmo uzten du eta gizartera itzultzen, gainerakoei aurrez aurre begiratzeko moduan, zut eta irmo, pertsona eder. Jesusek berregokitu egiten gaitu, geure baitatik eta geure gurari txikietatik ateratzen gaitu, burua altxarazi eta urrunago begiratzeko gai egiten gaitu, ortzi-mugaraino hain zuzen ere, eta handik egiten digu dei Jainkoak eta berak liluratzen uzten. Ez dago erlijio-agindurik ez eta gizarte-araurik, Jesusi bere haurrideekiko gozotasuna eta errukia izatea galaraziko dionik.

Urteko 30. astea

SAN SIMON ETA SAN JUDAS, *APOSTOLUAK*

San Paulok Efesoarrei 2, 19-22:

Senideok: Ez zarete arrotz, ez atzerritar, Jainkoaren herriko kide baizik eta Jainkoaren familiako, apostoluen eta profeten oinarri gainean eraikiak, Kristo Jesus bera giltzarri delarik. Honengan ongi finkaturik, eraikin osoa gora doa, tenplu santu bihurtzeraino Jaunarengan. Honengan eraikinaren parte zarete zuek ere besteekin batera, Espirituagan Jainkoaren bizileku bihurtzeraino.

Sal 18: Lurbira guztira zabaltzen da haien hotsa.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6, 12-19.

Aldi hartan, Jesus mendira joan zen otoitz egitera, eta Jainkoari otoitzean igaro zuen gaua. Eguna argitu zuenean, ikasleei deitu eta haietako hamabi aukeratu zituen, eta apostolu izena eman zien: Simon –honi Pedro izena ezarri zion– eta honen anaia Andres, Santiago, Joan, Felipe, Bartolome, Mateo, Tomas, Santiago Alfeorena, Simon –Zelote zeritzana–, Judas Santiagorena eta Judas Iskariote, Jesusen saltzaile izan zena. Jesus ikasleekin menditik jaitsi eta zelaigune batean gelditu zen. Ikasle-multzo handia zen harekin; baita herriko jendetza ugaria ere, Judea osotik, Jerusalemdik eta Tiroko eta Sidongo itsasaldetik etorria, hari entzutera eta beren gaitzetatik sendatzera. Espiritu gaiztoek oinazetuak sendatu egiten ziren. Jende guztiak Jesus ukitu nahi zuen, halako indar bat baitzerion, denak sendatzen zituena.

Jesus otoitz egiten agertzen da erabaki garrantzitsuak hartu behar dituenean, eta oraingoan, gau osoan zehar hamabi apostoluak aukeratzeko. Haien artean daude Simon eta Judas, eta horiez ia ezer ez dakigu. Elkartera deituak gara, bakoitzak bera dena eta duena ekarriz, alferrikako protagonismoak eskatu gabe, Jainkoaren Erreinua iristea beste asmorik gabe. Apostoluak aukeratu eta berehala, Jesus lautadara jaitsi zen. Maisuak irakatsi egiten die bere ikasleei bere burutu behar

Urteko 30. astea
SAN SIMON ETA SAN JUDAS, APOSTOLUAK

duten misioa nolakoa den. Jesusen praktikatik ikasten dute, pertsonen artean dardara nola egiten duen ikusita, pertsonen alde bere burua nola ematen duen sumatuta eta bera animatzen duten haien eraginez nola zerbitzatzen dituen ikusita: Aitarekin duen batasun etengabe eta afektiboaren eta zaintzera eta saneatzera bultza egin dion errukiaren eraginez, alegia.

* * *

Lazaro

Jauna, gizadiaren erdia baino gehiago bizi da Lazaro bezala, Kapitalak erortzen uzten dituen apurren bila. Denak jauregien eta negozioen atarian, sobera denaren zain, eta haiekin zaude Zu. Atarian zaude behartsuekin eskean eta haiek hartzen dituzten ate zartakoak hartuz. Eta leihotik hots egiten diezu esklaboen merkatariei: Iritsiko da eguna dena galduko duzuen. Zeren azkenean, maitasuna izango duzue aztergai. Igandean elizara doaz espero dutena entzutera: zuk zeuk egin dituzula aberatsak eta pobreak eta guztiekin behar dela izan on, hau da, inorekin ez. Eta lasai irteten dira, hori zure ahotsa delakoan. Eraman nazazu zeurekin «lazaroen» etxoletara, eroria lurretik altxatzera eta herrenei makila bat ematera, paretak eraiki eta teilatua ematera, mahai biribilak prestatzera elikatu gabeko haurrei. Eraman nazazu, ez nazazu utz bide-bazterrean, honaino iritsi naizen honetan, maitasunaren izarraren bila. Esadazu niri ere, ezindu hari bezala: Jaiki eta ibil zaitez!

(Patxi Loidi)

Urteko 30. astea

San Nartziso Jerusalemekoa, *gotzaina*

San Paulok Erromatarrei 8, 26-30: Bera maite dutenen onerako bideratzen ditu Jainkoak gauza guztiak. **Sal 12:** Nik zure maitasunean dut, Jauna, konfiantza.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 13, 22-30.

Aldi hartan, Jesusek, Jerusalemara bidean zihola, igarotzen zituen herri eta auzoetan irakasten zuen. Batek esan zion: «Jauna, gutxi al dira salbatzen direnak?». Jesusek erantzun zien: «Saia zaitezte ate estutik sartzen. Egiaz esan, askok sartu nahi izango du, baina ezin izango da sartu. Etxeko jaunak jaiki eta atea itxiz gero, kanpoan geldituok ate joka hasiko zarete: “Ireki, Jauna!”. Baina hark erantzungo dizue: “Ez dakit nongoak zareten”. Zuek, orduan, honela hasiko zatzaizkiote: “Zurekin jan eta edan izan dugu, eta Zuk gure plazetan irakatsi izan duzu”. Baina hark erantzungo dizue: “Ez dakit nongoak zareten. Alde nigandik, gaizkileok!”. Orduan, negarra eta hortz-karraska izango da, Abraham, Isaak eta Jakob eta profeta guztiak Jainkoaren erreinuan ikustean, zeuen burua, berriz, jaurtia. Asko etorriko dira sortaldetik eta sartaldetik, iparretik eta hegotik, eta Jainkoaren erreinuko mahaian eseriko dira. Begira: orain azkeneko den zenbait jende lehenengo izango da, eta lehenengo den zenbait azkeneko».

Zenbat salbatuko diren galdetzen duen gizonaren kezka ezezaguna da Jesusentzat. Berari ardura diona pertsona bakoitzak Erreinuko bizitzan sartzeko ahalegina egitea da. Eta hori egiteko, gehiegi puzten duten eta geure seme-alaba eta senide-izaerako sotiltasunez soilik sar gaitezkeen ate batetik sartzea eragozten duten jantziak eta hornidurak alde batera utzi beharrean gaude. Harrokeriak eta kexuak albora utzi beharra dugu, babestu beharreko ondasunak eta landu beharreko ohoreak ere bai eta, zer esanik ez, kontrolatzeko gosea eta boterearen gogo. Elkartasun eta zerbitzuz, sufritzen dutenekiko errukiz eta maitasunez, borondatez eta animo-handitasunez jantzita soilik zeharka dezakegu Erreinuko atea, eta orduan soilik gozatu ahal izango dugu giza familia adiskidetuaz eta Aitaren mahai-inguruan eseritakoaz.

Urteko 30. astea

San Martzelo, *martiria*Domingo Collins, *dohatsua, jesuita*

San Paulok Erromatarrei 8, 31b-39: Ez gaitu ezerk aldenduko Jainkoak Jesu Kristogan agertu digun maitasunetik. **Sal 108:** Salba nazazu, Jauna, zure maitasunari dagokionez.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 13, 31-35.

Egun hartan, fariseu batzuk joan zitzaizkion Jesusi eta esan zioten: «Zoaz, alde egizu hemendik, Herodes Zu hil nahian baitabil». Jesusek erantzun zien: «Zoazte eta esan azeri horri: “Hara, gaur eta bihar deabruak botatzen eta sendatzen jarraitu behar dut, eta hirugarren egunean nire azkena izango da”. Baina gaur, bihar eta etzi bideari jarraitu behar diot, profeta ez baitaiteke Jerusalemdik kanpora hil. Jerusalem, Jerusalem, profetak hiltzen eta Jainkoak zuri bidaliak harrikatzen dituzuna! Zenbat aldiz ez ote ditut bildu nahi izan zure seme-alabak, oiloak bere txitaldia hegalpean bezala, eta zuek ez duzue nahi izan! Horra, bada, hutsik geldituko zaizue etxea! Eta esaten dizuet ez nauzuela ikusiko, hau esango duzuen eguna iritsi arte: “Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena”».

Hemen, berak burua moztea agindutako Joan Bataiatzailearen edozein arrasto ere ezabatzeko erabat itsututa dagoen Herodes azaltzen zaigu. Jesusen mugimendua ere desegin egin nahi du, Joanen ordezkotza hartua duela uste baitu. Baina Jesus ez da mehatxuekin ikaritzen den gizona, bera sendatzeko eta askatzeko bere lanean buru-belarri sartuta dago eta ez du utziko edonork ere bere eginkizunetik desbidera dezan eta are gutxiago Herodes bezalako gizon odolgiro batek. Jesus une oro aske azaltzen da, baina ez inozo; izan ere, oso ondo daki bere jokaerak izango dituen ondorioak zeintzuk diren eta sentitu ere egiten du bere inguruan agintariak nola ari diren azpijokoa egiten. Jesusek, beren misioa beren buruen osotasunaren aurretik jartzen dutenen askatasuna du. Ezerk eta inork ez dio atzera eragingo.

Urteko 30. astea

San Alonso Rodriguez, *jesuita*

San Paulok Erromatarrei 9, 1-5: Ni neu madarikatua izatea ere onartuko nuke, nire odoleko senideen onerako. **Sal 147:** Jerusalem, ospa ezazu Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 14, 1-6.

Behin batean, larunbatez, fariseu-buruetakoko baten etxera joan zen Jesus bazkaltzera, eta fariseuak zelatan zegozkion. Ur-mina zuen gizon bat zegoen han Jesusen aurrean. Jesusek, orduan, lege-maisu eta fariseuei galdetu zien: «Zilegi da larunbatez sendatzea ala ez?». Haiek isilik gelditu ziren. Orduan, Jesusek, gaixoa eskutik hartu, sendatu eta bidali egin zuen. Gero, haiei esan zien: «Zuetako nork, semea nahiz idia putzura erortzen bazaio, ez du berehala ateratzen, larunbata izanagatik?». Ezin izan zioten erantzun.

Jesusen bihotza errukitsua da eta denboran zehar metatutako gizon haren mina sentitu egiten du eta, jakin badaki, berak sendatzeko duen gaitasunaren berri. Berak egin nahi duena hori da: sendatu. Fariseuek eta Lege-maisuek ez dute sentitzen halako sufrimendurik eta, haren aurrean, ikusi ez balute bezala pasatzen dira. Gizon gaixo bat gehiago soilik ikusten dute harengan, hainbaten arteko bat, eta berdindio sendatzen den ala ez, edota gaur sendatzen den edo bihar. Jesusek, beren idi edo astoarengatik, sufritzen duen pertsona gaixo batengatik baino erruki gehiago izatea leporatzen die, larunbatez ere atera egingo bailukete –agian berena delako, hots, beren buruen hedapena–. Den-dena, besteren mina sentitzeko gaitasunean eta ondoriotsu izatean jokatzeko da.



GAZTEEKIN

bide
eginez

etorkizun

ITAROPENTSU

bat



SORTZEKO

AZAROA / ZEMENDIA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA

Suizidioaren prebentzioaren alde: Egin dezagun otoitz beren buruaz beste egiteko tentaldia duten pertsonen beraien elkartean behar duten babesa, zaintza eta maitasuna aurki ditzaten eta bizitzaren edertasunera ireki daitezen.

Apokalipsia liburutik 7, 2-4.9-14.

Nik, Joanek, beste aingeru bat ikusi nuen ekialdetik igotzen, Jainko biziaren zigilua zuelarik, eta ozenki egin zien deiadar lurra eta itsasoa hondatzeko ahalmena eman zitzaien lau aingeruei, esanez: «Ez hondatu lurra, ez itsasoa, ezta zuhaitzak ere, harik eta gure Jainkoaren zerbitzariak bekokian zigiluz markatu arte». Zigiluz markatuak zenbat ziren entzun nuen: ehun eta berrogeita lau mila, israeldar leinu guztietatik hartuak. Ondoren gizatalde handi bat ikusi nuen, inork kontaezin ahalekoa; nazio, arraza, herri eta hizkuntza guztietako jendea zegoen, tronuaren eta Bildotsaren aurrean zutik, soineko zuriz jantziak eta palma-adarra eskuetan. Eta ahots handiz egiten zuten deiadar: «Tronuaren eseria dagoen gure Jainkoari eta Bildotsari zor diegu salbamen». Tronuaren, zaharren eta lau izaki bizidunen inguruan zutik zeuden aingeru guztiak ahuspeztu egin ziren tronuaren aurrean, eta Jainkoa adoratu zuten, esanez: «Amen. Bedeinkazioa, aintza, jakinduria, esker ona, ohorea, ahalmena eta indarra gure Jainkoari menderen mendetan. Amen». Orduan, zaharretako bat mintzatu zitzaidan, esanez: «Soineko zuriz jantziak dauden horiek, zein dira eta nondik datoz?». Nik erantzun nion: «Ene Jauna, zeuk jakingo duzu». Hark esan zidan: «Hauek larrialdi handitik datozenak dira; beren soinekoak Bildotsaren odolean garbitu dituzte eta zuritu».

Sal 23: Hau da, Jauna, zure aurpegi bila dabiltzanen taldea.

San Joan Apostoluaren 1. gutunetik 3, 1-3.

Seme-alaba maiteok: Begira zenbaterainoko maitasuna agertu digun Aitak, Jainkoaren seme-alaba izena baitaramagu, baita izana ere. Hona zergatik munduak ez gaituen ezagutzen: Aita ere ezagutu ez zuelako. Ene maiteok, orain Jainkoaren seme-alaba gara; gero izango garena oraindik ez da agertu. Badakigu, Kristo agertuko denean, haren

antzeko izango garela, den bezalakoa ikusiko baitugu. Harengan itxaropen hau duen orok garbitu egiten du bere burua, hura garbia den bezala.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 1-12a.

Aldi hartan, jendetza ikusirik, Jesus mendira igo zen. Eseri eta ikasleak inguratu zitzaizkion. Orduan, honela hasi zitzaien irakasten: «Zorionekoak gogoz behartsu direnak, berena baitute Jainkoaren erreinua. Zorionekoak atsekabetuak, beraiek baititu Jainkoak kontsolatuko. Zorionekoak apalak, berek izango baitute agindutako lurra ondare. Zorionekoak zuzentasunaren gose eta egarri direnak, beraiek baititu Jainkoak aseko. Zorionekoak errukitsuak, beraiek baititu Jainkoak erruki izango. Zorionekoak bihotz-garbi direnak, berek ikusiko baitute Jainkoa. Zorionekoak bakegileak, Jainkoaren seme-alaba izango baitira. Zorionekoak zuzentasunagatik erasoa jasaten dutenak, berena baitute Jainkoaren erreinua. Zorionekoak zuek, nigatik madarikatuko zaituztetenean, erasoka eta gezurrez gaizki esaka erabiliko zaituztetenean. Poztu zaitezte eta alaitu, handia izango baita zuen saria zeruetan».

Gaur Santu Guztiak ospatzen ditugu, ez santu deklaratuak bakarrik, baizik eta Kristoren urratsei leial jarraitu dieten guztiak. Sinesten dugun Jainko onberak oratu zitzaizkien utzi zioten haiek; izan ere, santutasuna bikoitza da, Jainkoaren lana eta giza lankidetzak. Santuek zentzua eta esperantza eraman izan dituzte bizi izan diren lekura. Jatorri eta helmuga iruditu zaigun lekura, alegia. Bizitza hobeago eta gizatarrago baten irrika sortu izan dute. Zoriontsu dira; izan ere, egiazko poza aurkitu dute: esperantza, maitasuna, pazientzia, eskuzabaltasuna, onberatasuna eta barkazioa bizi dituenari darion poza. Barnetik betetzen du gizakia poz horrek. Santuak pobre izan ohi dira; den-dena dohain bezala eta esker onez bizi ohi dute eta. Sufritu egiten dute larri edo jota bizi direnekin. Zuzentasun-gose bizi dira, jende

Urteko 30. astea

SANTU GUZTIEN OROIPENA

Pedro Asuakoa (Balmaseda 1890-Liendo 1936), *dohatsua, apaiza, martiria*

guztiari duintasun handiagoz tratua emango dion mundu gizatarrago baten gose, alegia. Barkatu egiten dute, badakite, bada, ez daudela bekatutik aske. Munduari begi garbiz begiratzen diote eta edertasuna eta onberatasuna ikusten dute bertan. Bakearen alde lan egiten dute; ezin jasan dute-eta mespretxurik, mehatxurik edo indarkeriarik. Eta bizitzak eraso egiten edo pertsegitzen dituenean, bihotz emanik eta indarturik sentitzen dira eraila izan den Jesus gogora erakarriz. Gu geu ere santu izatera deituak gara. Jesusen Espirituak santuengan egin zuen indar berarekin jokutzen du gudan ere. Soilik, adoretu izatea eta Espirituak eraman gaitzan uztea falta zaigu.

* * *

«Bai tristea dela besteak pasibotasunera eraman nahi dituen altruismo itxurako hori. Esateko duguna adierazteko eta gizartean parte hartzeko bide desberdinak behar ditugu» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 187).

Job liburutik 19, 1.23-27a.

Jobek esan zuen: Ai nire hitzak idatziak geldituko balira, liburuan ezarriak! Edota burdinazko eztenaz eta berunaz betiko grabatuak haitzean! Nik badakit nire eskubidearen babeslea bizi dela eta, azkenean, hautsaren gainetik jaikiko dela. Nire larruazal hau hondatu ondoren, gorputzik gabe, Jainkoa ikusiko dut. Nik neuk ikusiko dut, eta ez bestek; neure begiez ikusiko dut. Bihotza sutan dut neure barruan!».

Sal 102: Bihozbera eta errukiorra da Jauna.**San Paulo Apostoluak Erromatarrei 14, 7-9.10C-12.**

Senideok: Gutako inor ez da beretzat bizi, ezta beretzat hiltzen ere. Bizi bagara, Jaunarentzat gara bizi, eta hiltzen bagara, Jaunarentzat gara hiltzen. Beraz, nahiz bizi nahiz hil, Jaunarenak gara. Honetarako hil eta piztu zen Kristo: hildakoen eta bizien Jauna izateko. Denok agertu beharko dugu Jainkoaren auzitegian, Liburu Santuak dioen bezala: «Zin dagit neure biziagatik –dio Jaunak– belaun guztiak makurtuko dira nire aurrean eta mingain guztiek goretsiko dute Jainkoa». Izan ere, guztiok eman beharko diogu Jainkoari nork bere buruaren kontu.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 25, 31-46.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Gizonaren Semea –eta aingeru guztiak harekin– aintzaz beterik etortzean, bere errege-aulki ospetsuan eseriko da, eta herri guztiak haren aurrean bilduko dituzte. Hark batzuk besteengandik bereiziko ditu, artzainak ardiak ahuntzetatik bereizten dituen bezala: ardiak bere eskuinaldean ipiniko ditu, eta ahuntzak ezker aldean. Orduan, erregeak esango die eskuinekoiei: “Zatozte, nire Aitaren bedeinkatuok; hartazue

Urteko 31. astea
HILDAKO GUZTIEN OROIPENA

munduaren sortzetik zuentzat prestaturik dagoen erreinua. Gose bainintzen, eta jaten eman zenidaten; egarri, eta edaten eman; arrotz, eta etxean hartu ninduzuen; biluzik nengoan, eta jantzi egin ninduzuen; gaixorik, eta bisitatu; espetxean, eta ikustera etorri zineten”. Orduan, zintzoek erantzungo diote: “Jauna, noiz ikusi zintugun goserik, eta eman genizun jaten, edota egarri, eta edaten eman? Noiz ikusi zintugun arrotz, eta etxean hartu, edota biluzik, eta jantzi? Noiz ikusi zintugun gaixorik edota espetxean, eta ikustera joan?”. Eta erregeak erantzungo die: “Benetan diotsuet: nire seniderik txikien hauetako bati egin zeniotena neuri egin zenidaten”. Gero, esango die ezkerrekoei: “Alde nigandik, madarikatuok, deabruarentzat eta haren lagunentzat prestaturik dagoen betiko sura. Gose bainintzen, eta ez zenidaten jaten eman; egarri, eta ez zenidaten edaten eman; arrotz, eta ez ninduzuen etxean hartu; biluzik, eta ez ninduzuen jantzi; gaixorik eta espetxean nengoan, eta ez zineten ni ikustera etorri”. Haiek erantzungo diote: “Jauna, noiz ikusi zintugun goserik edota egarri, arrotz edota biluzik, gaixorik edota espetxean, eta guk lagundu ez?”. Hark erantzungo die: “Benetan diotsuet: txikien hauetako bati egin ez zeniotena, neuri ez zenidaten egin”. Eta haiek betiko zigorrera joango dira; zintzoak, berriz, betiko bizira».

Gaur, aurea hartu diguten hainbat eta hainbat pertsona maite gogoratzen dugu. Badakigu Kristoren bakean hil direnek familia bat bera osatzen dutela gurekin. Haiek jadanik oroitzapen eta legatu edo ondare dira; gu oraindik esperantza eta etorkizun. Gure partaide dira haiek eta gu beraien partaide. Beraien bizitzagatik eskerrak emateko eguna da gaurko hau; izan ere, izan zirenarekin Jainkoaren berri eman ziguten. Aitaren irudira eta antzera eginak ziren: haiengan ere sumatu ahal izan dugu Jainkoaren aurpegia. Pertsona maiteen heriotza gogora ekartzeak geurea bera gogoratzea dakarkigu. Alde horretara jotzen du ebanjelioak: azken auzia aurkeztean, zaindu beharrekoa dugun muina edo funtsa iradokitzen digu. Dena desegingo denean, gure desio eta antsia guztiak itzaliko direnean, funtsezkoa bakarrik, muina bakarrik

geldituko da: maitatu al zenuen?, maitatu al zenuen beharrean zena?, odolaren edota adiskidetasunaren loturaz harago?, txeraz eta bihotz handiz maitatu al zenuen? Jaunak gose direnen aurrean jarri gaitu, kanpotarren, biluzik direnen, gaixoen eta presoan aurrean, beraien sufrimena arindu ote dugun, beraien premiari kasurik egin ote diogun ikusteko. Berak bat egin du txikienekin, eta halakoen bidez jarraitzen du dei egiten gaur egun, entzun diezaiegun eta zaindu ditzagun. Probetxurik gabeko maitasun horretan datza gure bizitza eta gure azken zoria.

* * *

«Gu eztabaida semantiko eta ideologikoetan katramilatzen garen bitartean, mundu osoan senide asko eta asko daude gosez edo egarriz hiltzen eta etxerik edo osasun-zerbitzurik gabe bizi direnak. Oinarritzko behar asegabe horiekin batera, pertsonen trafikoa ere lotsaizun ikaragarria da gizateria osoarentzat, eta nazioarteko politikak ez luke inola ere halakorik onartu behar; ez dago hitz eta asmo onetan lasai gelditzerik. Gerorako utziezinak diren gutxienekoak dira denak ere» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 189).

Urteko 31. astea

San Martin Porres, *domingotarra*

Ruperto Mayer, *dohatsua, apaiza, jesuita*

San Paulok Erromatarrei 11, 29-36: Jainkoak errebelde izaten utzi zien gizon-emakume guztiei, denez erruki izateko. **Sal 68:** Mesedegaraia duzu, Jauna; erantzun.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 14, 12-14.

Aldi hartan, Jesusek esan zion bazkaltzera deitu zuen fariseu handiki bati: «Bazkari edo afariren bat ematean, ez gonbidatu zeure adiskideak, ezta senide, ahaide edo auzoko aberatsak ere; zeren beraiek ere gonbidatu egingo baitzintuzkete, eta horrela ordaina hartuko zenuke. Otordu bat ematean, gonbidatu behartsu, elbarri, herren eta itsuak. Zorionekoa zu, orduan, ezin izango baitizute ordaindu! Zintzoak piztuko direnean jasoko duzu ordaina».

Otorduak bataren eta bestearen probetxurako harremanak sortzeko aukera izaten ziren. Elkarri eta elkarrekin eskerrak eman beharra zutela-eta gizarte-konpromisoen sarea eraikiz joan ziren. Horren kontra, Jesusentzat harrera-une edo gune irekiak dira otorduak; zokoratuei, behartsuei, elbarriei, herrenei eta itsuei harrera egiteko une edo gune, halakoekin batera giza elkarte berritzeko eta balio berriak lantzeko une edo gune. Horrelako otorduak Erreinuaren sakramentu dira. Jaunak horrelako lekuak irekitzeko deia egin digu, azkenak direnek haietan beren lekua aurki dezaten, familia-giroa bizi ahal dezaten, giza duintasuna aitorturik senti dezaten. Kristau-elkartea deitua dago leku pribilegiatu horietako bat izatera: harrera-lekua, denei irekia, zerbitzu apal bat eta txera eskainiz.

Urteko 31. astea

San Karlos Borromeo, *gotzaina*

San Paulok Erromatarrei 12, 5-16a: Bata bestearen atal gara guztiok.

Sal 130: Zaindu ezazu nire bizia bakean zeure baitan, Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 14, 15-24.

Aldi hartan, Jesusekin mahaian zegoen batek esan zion: «Zorionekoa Jainkoaren erreinuko otorduan parte hartuko duena». Orduan, Jesusek esan zion: «Gizon batek afari handi bat eman zuen eta jende asko gonbidatu. Afarirako ordua iritsi zenean, morroia bidali zuen gonbidatuei esatera: “Zatozte, prest dago dena”. Baina bata bestearen ondoren aitzakiak jartzen hasi ziren denak. Lehenengoak esan zion: “Soroa erosi dut, eta ikustera joan behar dut; barkatu, arren”. Beste batek, berriz: “Bost idi-pare erosi ditut, eta probatzera joan behar dut; barkatu, arren”. Eta hurrengoak: “Ezkundu berria naiz eta ez naiteke joan”. Itzuli zen morroia eta guztiaren berri eman zion nagusiarri. Etxeko nagusia biziki haserretu zen eta esan zion morroiari: “Hoa bizkor herriko plaza eta kaleetan barrena, eta ekarri behartsu, elbarri, itsu eta herrenak”. Geroago, morroiak esan zion: “Jauna, egin dut agindu duzuna, eta oraindik bada lekurik”. Orduan, nagusiak esan zion: “Hoa bidez bide eta bazterrik bazter eta sarrarazi jendea barrura, etxea bete dakidan. Egia esan, gonbidatu haietako batek ere ez du nire afaria dastatuko”».

Badira guztiz eta guztiaz aserik –jabetzak, bizi-baliabideak edota afektuak, ebanjelioaren pasarteak dioenez–, Erreinuko jaiotordua mespretxatzen dutenak. Aski izaten dute beren luxu txiki pribatuekin; bitartean ihes egiten diote giza elkartearen aktiboki parte hartzeari. Jesusek kontatu duen istorioan, gonbidatzaileak ez du etsi, aseak direnek parte hartzeari uko egin diotenean, jaiotordua bertan behera utziz. Orduan agertu dira premia dutenak, behartsuak, elbarriak, herrenak etaitsuak; aretoa bete, eman zaienaz gozatu eta eskertu egin dute. Beraiek dira azkenean Erreinuko mahaian eseri direnak; aseak direnak, berriz, beren ondasunen eta jardungai partikularren artean hesiturik geratu dira. Erreinu eraikitzea da arazoa, solidario eta pertsona ireki izanez, azkenak direnen artean alaitasuna eta giza betetasuna eraginez.

Urteko 31. astea

Jesusen Lagundiko santu eta dohatsu guztiak

Zakarias eta Elisabet santuak, *Joan Bataiatzailearen gurasoak*

San Paulok Erromatarrei 13, 8-10: Maite duenak erabat betetzen du legea. **Sal 111:** Ongi doakio errukitu eta ematen duenari.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 14, 25-33.

Aldi hartan, jende-talde handiak zihoazen Jesusekin; honek, haiengana bihurturik, esan zien: «Norbaitek nirekin etorri nahi badu, eta bere aita-amak eta emaztea, seme-alabak eta anai-arrebak, eta bere burua bera baino maiteago ez banau, ez daiteke izan nire ikasle. Bere gurutzea hartu eta nire ondoren ez datorrena ez daiteke izan nire ikasle. Izan ere, zuetako nork, dorrea egin nahi badu, eseri eta ez ditu aurretik gastuen kontuak ateratzen, bukatzeko lain ba ote duen ikusteko? Bestela, zimenduak hartu ondoren ezin bukatuko balu, hori ikustean barre egingo liokete denek, esanez: “Honako hau eraikitzen hasi huen eta ezin izan dik bukatu”. Edota zein erregek, beste baten kontra gerrara joan nahi badu, eseri eta ez du alde z aurretik deliberatzen, ea hamar mila gizon aski dituen, hoguei milarekin kontra datorkionari aurre egiteko? Eta ezetz ikusten badu, artean bestea urruti dela, mandatariak bidaliko dizkio bakea eskatuz. Era berean, zuetako inor ez daiteke nire ikasle izan, dituen guztiei uko egiten ez badie».

Jesusek ez du esan berari jarraitzea gauza erraza denik; aitzitik, berari jarraitzeak bere zailtasunak izango dituela ohartarazi digu. Dena behar da atzerago jarri: familia, jabetzak, baita norberaren probetxua bera ere. Nork bere gurutzea lepoan hartzea da arazoa eta orduan, bai, beraren ondoren bide egin. Bere garraztasuna duen bidea da, nahiz eta gure aurretik doan Jaunaren lagunartea zinez laguntzaile izango dugun. Orduan bakarrik jarraitu ahal izango diogu: geure nahikeriak eta probetxuak alde batera uzten ditugunean. Geure ego-a, bere edukiekin eta grinekin puzten dena, argaltzeko bidea da; bitartean, egiazko ni-a, apala, askea eta eskuzabala, indartuz joan ohi da barnean Jesusekin bide egitean. Buru-ukamenaren bidea

Urteko 31. astea

Jesusen Lagundiko santu eta dohatsu guztiak

Zakarias eta Elisabet santuak, *Joan Bataiatzailearen gurasoak*

da, geugan dugun alde ebanjelikoagoa garbi erne dadin Erreinuaren zerbitzurako.

* * *

JESUSEN LAGUNDIKO SANTU ETA DOHATSU GUZTIAK

Deuteronomio liburutik 30, 11-14.

Honela mintzatu zitzaion Moises herriari: «Obedituko diozu Jaunari, zeure Jainkoari, legearen liburu honetan idatzitako beraren aginduak eta legeak betez, eta bihotz-bihotzez eta gogo osoz itzuliko zara Jaunagana, zeure Jainkoagana. Izan ere, gaur nik ematen dizudan agindua ez da zure indarrez gaindikoa, ezta eskuraezina ere. Ez dago zeruan, zuek hau esateko: “Nor igoko zaigu zerura, agindua ekarri eta guri jakinarazteko, bete ahal dezagun?”. Ez dago itsasoaz bestaldean ere, zuek hau esateko: “Nor joango zaigu itsasoaz bestaldera, agindua ekarri eta guri jakinarazteko, bete ahal dezagun?”. Zeren eta esku-eskura baituzu hitza, zeure ahoan eta bihotzean, bete dezazun».

Sal 15: Zu zaitut, Jauna, neure ondarea.

Jesu Kristoren ebanjelioa San Joanen liburutik 12, 23-26.

Aldi hartan, Jesusek erantzun zien ikasleei: «Iritsi da Gizonaren Semearen aintza azalduko den ordua. Bene-benetan diotsuet: Gari-alea, lurrian sartu eta hiltzen ez bada, bera bakarrik gelditzen da; hiltzen bada, ordea, fruitu asko ematen du. Bere bizia maite duenak galdu egingo du; baina mundu honetan bere bizia gutxiesten duenak betiko bizirako gordeko du. Nire zerbitzari izan nahi duenak jarrai biezat eta, ni nagoen tokian, han izango da nire zerbitzaria ere. Nire zerbitzari dena Aitak ohoratu egingo du.

Urteko 31. astea

Jesusen Lagundiko santu eta dohatsu guztiak

Zakarias eta Elisabet santuak, *Joan Bataiatzailearen gurasoak*

Liburu Santuak dio, gizaki guztiok Jainkoaren irudi eta antz garela. Egia sakon hau distira handiagoz sumatzen da santuengan, hauen biografiak Jainkoaren handitasuna agertzen baitute. Lagundiko santuengan ezaugarri batzuk nabari dira bereziki: Kristo hots egiteko gogo, pobretasuna, Jainkoarekiko konfiantza, apaltasuna, eskuzabaltasuna eta poza. Arnasbide dira guretzat; izan ere, Jainkoaren dohaina ederretsi dezakegu haiengan, neurririk gabe eskainia, eta giza partaidetza, pertsonak gauza guztien gainetik Jainkoa lehenesten duenean, bera maitatuz gauza guztietan eta gauza guztiak beragan. Lagundiko santuek beren distira hilarazi egin nahi izan dute, Jainkoaren bizitzak distira dezan beraien bidez.

* * *

«Gizabanako txikiena ere senide bezala, munduan hura beste inor ez balego bezala, maitatzea ez da denbora alferrik galtzea» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 193).

Urteko 31. astea
San Severo, *martiria**

San Paulok Erromatarrei 14, 7-12: Nahiz bizi nahiz hil, Jaunarenak gara. **Sal 26:** Jaunaren ontasuna ikusi ustean nago bizidunen lurrean.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 15, 1-10.

Aldi hartan, zergalariak eta bekatariak hurbildu ohi zitzaizkion Jesusi, entzutera. Eta fariseuak eta lege-maisuak marmarrean hasi ziren, esanez: «Honek ongi hartzen ditu bekatariak, eta jan ere egiten du haiekin». Orduan, parabola hau esan zien Jesusek: «Zuetako bat, ehun ardi izan eta bat galtzen bazaio, ez al da beste laurogeita hemeretziak larrean utzirik, galdutakoaren bila joaten aurkitu arte? Eta, aurkitzean, lepoan hartzen du poz-pozik eta, etxera iristean, adiskideak eta auzokoak bildu eta esaten die: “Poztu zaitezte nirekin, aurkitu baitut galdutako ardia”. Hara Nik esan: Jainkoak ere poz handiagoa hartzen du bihotz-berritzen den bekatari batengatik, bihotz-berritu beharrik ez duten laurogeita hemeretzi zintoengatik baino. Eta zein emakumek, zilarrezko hamar txanpon izan eta bat galtzen bazaio, ez du, kriseilua pizturik, etxea garbitu eta ardura guztiz bilatzen aurkitu arte? Eta aurkitzean, adiskideak eta auzokoak bildu eta esaten die: “Poztu zaitezte nirekin, aurkitu baitut galdutako txanpona”. Hara Nik esan: Berdin pozten da Jainkoa bere aingeruekin bihotz-berritzen den bekatari batengatik».

Ez da harritzekoa Jesusek Jainkoari Aita deitu izana. Jesusen Jainkoaren logika familiek dutena baino hurbilago dago. Familietan,

* Joakin Esnaola (Idiazabal 1898-Madril 1936), *apaiza, agustindarra*, Klara Ezkurra (Arrasateko Ulibarri 1896-Valencia 1936), *birjina* eta lagunak, *dohatsuak, martiriak*

San Leon Intxausti Mintegia (Ajangiz-Granada 1937), *agustindar errekoletoa*, eta kideak, *dohatsu eta martiri*

Urteko 31. astea

San Severo, *martiria**

pertsonarik zainduena, ardura handiagoa eskatu ohi zaiona, sufritzen ari dena edota zailtasunik handiena jasaten ari dena izaten da. Gurasoek eginahalak eta bi egiten dituzte aurrera egin ezinik dabilen seme edo alabarentzat, edozein delarik ere arrazoia. Eta egundoko poza izaten dute lehen urrats bat egitea lortzen dutenean. Ez dute amore ematen lortu arte. Horrelakoa da maitasuna, bizia ematen da sufrimendua handiagoa denean. Horrela ulertu ahal da, batetik, Aitak pobreekiko eta bekatariekiko dituen maitasuna eta ardura, eta, bestetik, bere neurrigabeko poza arintzen eta berreskuratzen dituenean. Orduan, benetan Aita handi eta zinezko egiten da Jainkoa.

* * *

«Zinezko elkarriketa sozialak besteen ikuspuntuak errespetatzeko gai izatea eskatzen du, eta haien uste edo interesetako batzuk legitimoak izan daitezkeela onartzea» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 203).

* Joakin Esnaola (Idiazabal 1898-Madril 1936), *apaiza, agustindarra*, Klara Ezkurra (Arrasateko Ulibarri 1896-Valencia 1936), *birjina* eta lagunak, *dohatsuak, martiriak*
San Leon Intxausti Mintegia (Ajangiz-Granada 1937), *agustindar errekoletoa*, eta kideak, *dohatsu eta martiri*

Urteko 31. astea

San Florentzio Irlandakoa, *gotzaina*

San Paulok Erromatarrei 15, 14-21: Jesu Kristoren zerbitzari egin nau jentilentzat, Jainkoarentzat opari atsegingarri izan daitezen.

Sal 97: Agertu du Jaunak nazioen aurrean beragandiko garaipena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 16, 1-8.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Gizon aberats batek etxezain bat zuen, eta hau ondasunak alferrik galtzen ari zitzaiola salatu zioten. Deitu eta esan zion: “Zer da zutaz entzun dudan hori? Emadazu etxezaintzaren kontu, kargutik bota egiten zaitut eta”. Etxezainak, orduan, hau zioen bere baitan: “Zer egin behar dut nik orain, nagusiak kargua kentzen didanez gero? Aitzurrerako ez naiz gauza, eta eskerako lotsa naiz. Badakit zer egin, kargutik botatzen nautelarik etxean nork hartu izan dezadan”. Banan-banan bere nagusiaren zordun guztiei deitu eta lehenengoari galdetu zion: “Zenbat zor diozu nire nagusiar?””. Hark erantzun: “Ehun upel olio”. Etxezainak, orduan: “Hona zeure ordain-agiria; agudo, eseri eta idatzi berrogeita hamar”. Gero, hurrengoari galdetu zion: “Zuk zenbat zor diozu?”. Hark erantzun: “Ehun anega gari”. Etxezainak, orduan: “Hona zeure ordain-agiria; idatzi laurogei”. Eta nagusiak txalotu egin zuen etxezain zuzengabe hura, zuhur jokatu zuelako. Izan ere, mundukoak zuhurrago dira beren arteko arazoetan, argitakoak berenetan baino».

Jesusek goratu egin du administratzailearen trebezia: bere nagusiaren zordunak ondo hartzea pentsatu du, bihar egunerako adiskideak egiteko eta etorkizun bat gauzatzeko. Airoso erreakzionatu duen gizona da, bere negozioetan bizkorra. Erreinuak ere, hain erakargarria izanik, baina itxuraz ezin atzemana, bera hots egitean gu irudimentsu izatea eskatzen du eta bera bistartzeko kreatzaile. Askotan ulertezin gertatzen zaigu Jesus hain ezezaguna izatea, eta jende askok beraren berri izatea amesten dugu. Baina horrek, guri dagokigunez, etengabe bila ibiltzea eskatzen du, gure garaiko jendearengana iristeko baliabiderik onenak aurkitzeko. Alferkeriarentzat lekuri ez dago, ezta zerutik etorriko litzatekeen mirari baten zain egoteko ere, Jesusen mezua ahaleginik gabe iritsarazteko.

Urteko 31. astea

San Godofredo Amienskoa, *gotzaina*

San Paulok Erromatarrei 16, 3-9.16.22-27: Agurtu ezazue elkar musu santuaz. **Sal 144:** Ene Jainko, ene errege, bedeinkatuko dut zure izena betiere.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 16, 9-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Irabaz itzazue adiskideak bidegabeko diruaz; horrela, dirua amaitzean, betiko bizilekuan hartuko zaituzte Jainkoak. Gauza txikietan fidagarri dena, handietan ere fidagarri da, eta gauza txikietan zuzengabe dena, handietan ere zuzengabe. Bidegabeko dirua erabiltzen fidatzekoak izan ez bazarete, nork utzi zuen esku egiazko ondasuna? Zeuena ez duzuen aberastasunarekin fidatzekoak izan ez bazarete, nork eman zuei benetan dagokizuen? Ezin da morroi bat bi nagusiren zerbitzari izan. Izan ere, bata gorroto izango du, eta bestea maite; edota bati leial izango zaio, eta bestea ez du aintzat hartuko. Ezin zarete izan Jainkoaren eta diruaren morroi». Entzun zuten hau guztia fariseu diruzaleek, eta barre egiten zioten Jesusi. Honek esan zien: «Zuek zeuen burua zintzo agertzen duzue jendearen aurrean, baina ezagutzen du Jainkoak zuen barrua; izan ere, gizakiak baliotsutzat daukana, Jainkoarentzat mespretxagarri da».

Diruak giza bihotza harrapatzeko gaitasuna du. Bide ona da segurtasuna, egoera soziala eta kontsumo-gaitasuna lortzeko. Jendeak pentsa lezake dirua izanez dena duelako uste faltsua. Baina, ez gutxitan, pertsona diruarentzat bizi denean, dirua da pertsonaz jabetzen dena, pertsonaz nagusitzen dena. Begiak jaso beharra dugu eta aitortu beharra ezen benetako giza zoriontasuna bizitzako atsegin txikietan dagoela: adiskidetasunaz eta naturaz gozatzean, nork bere familiaz gozatzean, kreatzioaren eta artearen edertasuna kontenplatzean, beharrean denari zerbitzua eskaintzean, otoitzean edota esker onak ematean. Ezin bete du gure barnea beste ezerk: orduan puzten da, handitzen da eta hedatzen da pozik eta eskuzabal.

Ezekielen profezia liburutik 47, 1-2.8-9.12.

Egun haietan, Jaunaren tenpluko sarrerara eraman ninduen gizonak. Ura ikusi nuen tenpluko ate azpitik irteten eta ekialdera joaten, tenplua ekialdera begira baitzegoen. Ura tenpluaren eskuinaldetik jaisten zen, aldarearen hegoaldera. Gero, iparraldeko atetik irtenarazi ninduen, eta kanpotik itzulia eginarazi zidan, ekialdera begira zegoen sarreraraino. Eskuinaldetik zihoan ura isurian. Gizonak esan zidan: «Ur hau ekialdera doa, Araba haranera jaisten da eta Itsaso Hilean amaitzen. Itsasoratzean, hango ur ustelak ondu egingo ditu. Ibaia helduko den edonon, mota guztietako piztiak biziko dira eta arrain asko izango da; itsasoko urak on bihurtuko dira, eta bizia sortuko du doan toki guztietan. Ibaiaren bi ertzetan, mota guztietako fruta-arbolak haziko dira; ez zaie hostorik eroriko, eta etengabe emango dute fruitua, hilero emanaldi bat, santutegitik sortzen den urak ureztatzen baititu. Fruituak janari izango dira, eta hostoak sendagai».

Sal 45: Ibai baten adarrek alaitzen dute Jainkoaren hiria, Goi-goikoaren bizileku guztiz santua.**San Paulok Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik 3, 9c-11.16-17**

Senideok: Jainkoak eraikitzen duen etxe zarete zuek. Jainkoak eman didan dohainaren arabera, nik oinarria ipini dut, etxegile trebeari dagokionez; baina beste batek eraikitzen du etxea. Ikus beza bakoitzak nola eraikitzen duen. Inork ez dezake ipinia dagoen oinarria besterik ipini; eta oinarri hori Jesu Kristo da. Ez al dakizue, Jainkoaren tenplu zaretela eta Jainkoaren Espiritua zuengan bizi dela? Jainkoaren tenplua hondatzen duena, hondatu egingo du Jainkoak, Jainkoaren tenplua santua baita; tenplu hori zuek zarete.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 2, 13-22.

Aldi hartan, hurbil zen juduen Pazko-jaia, eta Jesus Jerusalemera igo zen. Tenpluan idi-, ardi-eta uso-saltzaileak aurkitu zituen, eta diru-

Urteko 32. astea
Letrango Eliza Sagaratzea

trukatzaileak han eserita. Jesusek, lokarritz zartailua eginik, bota egin zituen denak tenplutik, baita ardiak eta idiak ere, eta tratalarien diruak sakabanatu eta mahaiak irauli zituen. Uso-saltzaileei esan zien: «Ken horiek hortik! Ez bihurtu azoka-etxe nire Aitaren etxea». Ikasleak idatzirik dagoenaz gogoratu ziren: «Zure tenpluaren maiteminak sutu nau».

Orduan juduek galdetu zioten: «Zer ezaugarri ematen diguzu hori egiteko?». Jesusek erantzun zien: «Desegin ezazue tenplu hau, eta hiru egunean jasoko dut». Juduek erantzun zioten: «Berrogeita sei urte behar izan ziren tenplu hau eraikitzeke, eta Zuk hiru egunean jasoko duzula?». Hura, ordea, bere gorputzaren tenpluaz ari zen. Hilan artetik berpiztu zenean, gogoratu ziren ikasleak esandako honetaz, eta sinetsi zuten Liburu Santuetan eta Jesusek esandako hitzean.

Tenpluak herri esplotatu baten eskaintzez eta zergez bete ohi zituen bere kutzak. Bitartean, erabilera komuneko monetak tenpluko bereziak zirenekin trukatzuz zuritu ohi zuen bere garbitasun instituzionala. Jesusek leku hartan Jainkoaren etxeari ez zegokion merkataritza sumatu zuen. Mahaiak botaz eta ardiak eta idiak kanporatuz, tenplua bereizi egin du Jainkoa gurtzeko toki bezala. Alabaina, beraren heriotzaz gero, tenpluko oihala urratuko denetik, Kristoren gorputz gurutziltzatua bakarrik izango da adorazio-santutegi munduan gurutziltzatuak direnentzat, eta beraren gorputz berpiztua kristau-elkartean, Elizan. Letrango Basilikaren sagarapenaren jaia ospatzen dugu. Konstantinok 313an erlijio-askatasuna eman ondoren, kristauek familia-etxeetatik irten ahal izan ziren beren ospakizunak egiteko. Lehen eliza da Letrango Basilika. Basilika hau gerora eraiki ziren eliza guztien ama da. Jendea biltzeko eta otoitz egiteko gune dira elizak, beraietan gordetzen dugu Kristoren sakramentu-gorputza. Halaz guztiz, beraren benetako tenplu gizakiok gara, hasi ahaztuena den jendearekin, jarraitu jarraitzaileen elkartarekin, biltzen denean, eta jarraitu gurekin guztiokin, Jainkoaren graziaren egoitza eta adorazio-leku baikara.

Urteko 32. astea

San Leon Handia, 45. aita santua eta eliz irakaslea
 San Andres Avelino, erlijioso teatinoa, apaiza

Jakinduria liburutik 1, 1-7: Gizakia maite duen espiritu da jakinduria; Jaunaren espirituak lurra betetzen du. **Sal 138:** Gidatu ni, Jauna, betirako bidetik.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17, 1-6.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ezinbestekoa da munduan galbideak gertatzea, baina dohakabea inoren sinesmena galbidean jartzen duena! Hobe luke errotarria lepotik lotu eta itsasora botako balute, txiki hauetakoren bat galbidean jartzea baino. Ibili kontuz! Zure senideak bekatu egiten badu, egiozu haserre, eta, damutzen bada, barkatu. Eta egunean zazpi aldiz zure kontra bekatu egiten badu eta zazpi aldiz etortzen bazaizu “damu dut” esanez, barkatu». Apostoluek esan zioten Jaunari: «Handitu sinesmena gudan». Jaunak erantzun zien: «Sinesmena bazenute, mostaza hazia bezain txikia izanik ere, pikondo honi “atera hortik eta landatu itsasoan” esango zenioke, eta obeditu egingo lizueke».

Jesusek hiru irakaspen aurkeztu dizkigu, ikasleei eskainiak eta, haien bidez, kristau-elkarteari. Lehenik eta behin, ez eskandalizatzearen garrantzia; berekin du horrek, guztien gainetik, misterioa ez hutsaltzea, ez urardotzea, duin denaz barrerik ez egitea, bikain dena ez eskukatzea. Bigarren, barkazioaren balioa, etengabea eta irmoa, egiten ahal dizkiguten eraso eta iseken aurrean. Horrela bakarrik hausten ahal da erresuminaren espirala eta bata bestearen aurka oldartzearen zirkulu zoroa. Azkenik, fede handia izateko gonbita, Jainkoa gai dela errealitatea eraldatzeko, ilunena eta mugiezinena iruditurik ere. Beti sortzen ahal ditu sustrai berriak, eta beti birjaio daiteke zoru berrian.

Urteko 32. astea

San Martin Tours-ekoa, *gotzaina*

Toribio santua, *monjea*

Jakinduria liburutik 2, 23-3,9: Zentzugabeen begietan hilda zeuden behin betiko; baina zintzoak bakean daude. **Sal 33:** Bedeinkatuko dut aldiro Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17, 7-10.

Aldi hartan, Jaunak esan zuen: «Emazue, zuetako batek morroia duela soro-lanean edo artzaintzan. Morroia etxeratzean, “Hator berehala mahaira” esaten ote dio? Ez ote dio beste hau esaten: “Presta iezadak afaria, jantzi amantala eta zerbitza nazak, nik afaldu bitartean; ondoren, afalduko duk heuk?”. Morroiari esker ona zor ote dio, agindua bete duelako? Zuek ere gauza bera: agindutako guztia egin eta gero, esan: “Morroi gizajoak gara; egin behar genuena besterik ez dugu egin”».

«**Z**erbitzari ezdeus gara...»: zakarrak direla ematen dute Jesusen hitz horiek. Hori al da irrika dezakegun guztia? Egia da, kristau-bizitza anai-arrebei emandako zerbitzua dela, jarrera aske eta arretatsua gainerakoen premiekiko. Oinak garbitzearen pasarteak gogorarazten digu: gonbidatuak gaude Jesusek bezala jokatzera, gainerakoen oinetan. Baina Jesusek «ezdeus» hitza gehitzen du. Izan ere, ez gara gu salbatzaileak, Jainkoak bakarrik salbatzen du, eta ez guk. Ez gara mesias, Jesus bakarrik da mesias. Guk eskura duguna jartzen dugu, geure «bost ogi eta bi arrainak», dugun guztia; gainerakoa Jaunak egin dezan eta aldea marka dezan pertsonen bizitzan. Giza izaki xume gara, Jainkoaren graziarekin lankide.

Jakinduria liburutik 6, 1-11: Entzun, erregeok, jakintsu izaten ikas dezazuen. Sal 81: Jaiki zaitez, oi Jainko, epaitu mundua.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17, 11-19.

Behin batean, Jesus Jerusalemera bidean, Samarian eta Galilean barna zihoan. Herrixka batean sartzean, hamar legenardun atera zitzaizkion bidera. Urruti gelditurik, deiadarka esan zioten: «Jesus, Maisu, erruki zakizkigu!». Jesusek, ikustean, esan zien: «Joan eta azaldu apaizengana». Bidean zihoazela, garbi gelditu ziren. Haietako bat, sendatua zegoela oharturik, Jainkoa deiadarka goratuz itzuli eta Jesusen oinetara ahuspez erori zen, eskerrak emanez. Samariarra zen bera. Jesusek esan zuen: «Ez al dira hamarrak garbi gelditu? Non dira beste bederatzia? Ez al da izan atzeritar hau besterik Jainkoa goratzera etortzeko?». Gero, esan zion: «Jaiki eta zoaz; zeure sinesmenak salbatu zaitu».

Jatorriz samariarra den lepraduna bakarrik itzuli da Jesusengana, sendatu duelako eskerrak ematera. Beste inor ez. Gizon hark Jesusek mesede handia egin diola sentitu du eta barnetik atera zaio Jainkoa gorestea eta Jesusi eskerrak ematea. Gainerako lepradunek uste izan zuten, agian, zegokien edota zor zitzaien zer bait zela Jesusek eman ziena, zor zitzaiena zutela, Israelgo seme bezala, beren eskubidea zutela sendatze hura. Horregatik, harri durarik gabe geratu ziren sendatuak izan zirenean, eta bizitza eraldatzeak eragin ohi duen eskerrak eman beharra sentitu gabe eta eskerrak emateak eragin ohi duen pozik gabe. Ezerk ez du estutzen eta tristatzen begirada, hartu dugun doako ondasuna ez aitortzeak adina. Samariarra osasuntsu itzuli zen, bizia eta esker ona gainezka zituela. Jarrera hark eraldatu egin zuen pertsona bezala, osasuna eskuratzearekin eta bizi-zeruertz berria lortzearekin.

Urteko 32. astea

San Estanislao Kostka, *jesuita*San Leandro Sevillakoa, *gotzaina*

Jakinduria liburutik 7, 22-8, 1: Betiko argiaren distira da jakinduria, Jainkoaren indarraren ispilu gardena. **Sal 118:** Betierekoa da zure hitza, Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17, 20-25.

Aldi hartan, Jainkoaren erreinua noiz iritsiko zen galdetu zioten fariseuek Jesusi. Honek erantzun zien: «Jainkoaren erreinua ez da nabarmen etorriko. Ezin esango da: “Hona hemen” edota “hara han”; zeren Jainkoaren erreinua zuen artean baitago jadanik». Gero, ikasleei esan zien: «Iritsiko da garaia, Gizonaren Semea etorri osteko egun bat bederen ikusi nahi izango duzuen, eta ezin izango duzue ikusi. Orduan, “hona hemen”, “hara han” esango dizute. Baina zuek ez joan, ez atera atzetik lasterka. Izan ere, tximistak une batean zerualde batetik besteraino argi egiten duen bezala, hala izango da Gizonaren Semea etorriko den egunean. Baina aurretik asko sufritu behar du, eta gizaldi honek gaitzetsi egingo du».

Jainkoaren Erreinua gure artean dago. Jainkoa ez da etortzen gure mundukoa ez den norbait bezala. Mundua bere bizileku du, beronen barru-barrutik jardunez eraldatzen du berau. Kreazioan eta historian dago bera, gure elkarteetan eta familietan, gure bihotzean. Hor egiten du bere lan isila, legamiak orean bezala edota erne nahian borrokan bezala ari den haziak bezala. Guri, ondo bereiztea dagokigu non ari den Jauna ernetzeko borroka horretan, graziarekin geu ere lankide izateko. Jainkoa beti ari da, bizia eta esperantza promes eginez. Bizitza horretan parte har dezakegu garena eta duguna Jainkoaren zerbitzura jarritz, dagoeneko geure artean dugun Erreinuarekin partaide izanez.

Urteko 32. astea

San Jose Pignatelli, apaiza, jesuita
(Jesusen Lagundia berrezarri zuena)

Jakinduria liburutik 13, 1-9: Munduaren barne-egitura ezagutzeko bezain jakintsu izan badira, nolaz ez dute munduaren Jauna lehenago aurkitu? **Sal 18:** Zeruek Jainkoaren aintza dute kontatzen.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17, 26-37.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Noeren garaian bezala gertatuko da Gizonaren Semearen garaian ere: jan-edanean zebilen jendea eta ezkondu egiten ziren gizon-emakumeak, Noe ontzian sartu zen eguna arte; baina etorri zen uholdea eta denak galdu zituen. Gauza bera gertatu zen Loten garaian ere: jan eta edan, erosi eta saldu, landatu eta eraiki egiten zuen jendeak; baina, Lot Sodomatik atera zen egunean, su eta sufrezko euria egin zuen zerutik eta denak galdu zituen. Hala gertatuko da Gizonaren Semea agertuko den egunean ere. Egun hartan, etxe gainean egon eta bere gauzak etxean dituen ez bedi hartzera jaitsi; eta, era berean, soroan dena ez bedi atzera itzuli. Oroitu Loten emazteaz. Bere bizia beretzat gorde nahi duenak galdu egingo du; galtzen duenak, berriz, onik aterako du. Nik diotsuet: gau hartan bi lagun egongo dira ohe berean: bata hartuko dute eta bestea utziko; bi emakume ariko dira batera ehotzen: bata hartuko dute eta bestea utziko». Ikasleek galdetu zioten: «Non izango da hori, Jauna?». Jesusek erantzun zien: «Sarraskia non, han bilduko dira putreak».

Noe eta Lot irudi mitikoak dira. Beren familia salbatu dute gezur, ustelkeria eta zapalkuntza-aro larrietan. Jainkoak gidaturik, erreskate-bide bat urratu zuten beren pertsona maiteentzat, kreazioko animalientzat eta beren ganaduentzat. Kristok ere, gizonaren seme bezala, salbazio-bide bat irekiko du gizakientzat, berrikuntza eta eraldatze-bide bat giza errealitatearentzat. Baina zerbaitek hil beharra du, errealitate berri bati tokia egiteko. Hildako materiala desagertuko da putreen bidez, birjaioak aukera izan dezan aske eta berri hazten joateko. Jaunak aurrea hartu digu gizadi berri baten kreazioan, zeinetan Espiritua jardungo baita beraren arima bakar bezala.

Urteko 32. astea

San Alberto Handia, *gotzaina eta eliz irakaslea, domingotarra*

Jakinduria liburutik 18, 14-16; 19, 6-9: Ibiltzeko moduko bidea agertu zen Itsaso Gorrian, eta bildotsak bezala saltoka igaro ziren. **Sal 104:** Ekarri gogora Jaunak egingako mirariak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 18, 1-8.

Aldi hartan, etengabe egin behar zutela otoitz eta ez zutela etsi behar adierazteko, Jesusek parabola hau esan zien: «Bazen hiri batean epaile bat, ez Jainkoari beldurrik, ez gizakiari begirunerik ez ziona. Bazen hiri berean emakume alargun bat ere. Hau epaile harengana joaten zen, eskatzera: “Egidazu justizia aurkariarekiko auzian”. Luzaroan epaileak ez zion kasurik egin nahi izan, baina azkenean bere baitan esan zuen: “Ez diot Jainkoari beldurrik, ez gizakiari begirunerik; baina, alargun hau gogaikarri zaidanez, egingo diot justizia, behingoz bakean utz nazan”». Eta honela bukatu zuen Jaunak: «Begira zer dioen epaile zuzengabeak. Eta Jainkoak, ez ote die justizia egingo, gau eta egun deiadarka ari zaizkion bere aukeratuei? Zain edukiko ote ditu luzaroan? Justizia berehala egingo diela diotsuet. Baina Gizonaren Semeak, datorrenean, aurkituko ote du sinesmenik munduan?».

Jesusek estu eskatzen die ikasleei beti otoitz egiteko, epeldu gabe. Otoitz egitea gure kezka Jainkoaren eskuetan ipintzea da, berak onar ditzan, eta beraien gehiegizko zamak leherrarazi ez gaitzan. Gure beldurrak eta antsiak zedarritzea da gizadiaren premien esparruan, gure desio apalak zabal daitezen Jainkoaren begiradapean eta beraien larritasuna birkoka dezagun beste hainbat eta hainbat gizakiren aldarrien aurrean. Bitartean, Jauna gure barnea landuz joango da, lagun eginez, arnasa emanez eta kemena eskainiz. Hau guztia, errealitatea bere gordintasunean onartuz joan gaitezen da, doan hartua dohain bezala eskertu dezagun eta Jainkoaren desioei geure bihotzean sehaska gozoa eskaini ahal diezaiegun. Etengabeko otoitza Jesusen jarraitzailearen arnastea da.

Santa Gertrudis, *birjina, beneditarra*. Santa Margarita Eskoziakoa, *erregina*. Santuak: Roke Gonzalez, Alonso Rodriguez eta Juan del Castillo, *apaizak, martiriak, jesuitak*

Malakiasen profezia liburutik 3, 13-20a.

Hau dio Jaun ahalguztidunak: «Badator eguna, labea bezain kiskalgarria. Harro eta gaizkile guztiak lasto izango dira, eta zeharo kiskaliko ditu etortzekoa den egunak; ez die utziko, ez sustrairik, ez abarrik. Baina zuentzat, nire izenari begirune diozuenentzat, eguzkia bezala agertuko da nire justizia, errainuetan osasuna dakarrela».

Sal 97: Badator Jauna herriak zuzentasunez epaitzera.

San Paulok 2 Tesalonikarrei 3, 7-12.

Senideok: Ondo dakizue nola jokatu behar duzuen guk bezala egiteko; ez ginen zuen artean zabarkerian bizi izan, ez genuen inoren kontura ogia jan; aitzitik, gau eta egun lanean nekatu ginen, zuetako inorentzat zama ez izatearren. Bagenuen zuen kontura bizitzeko eskubiderik, baina lan egin nahi izan genuen zuei jarraibide emateko. Zuekin egon ginenean, arau hau eman genizuen: lanik egin nahi ez duenak ez dezala jan. Zeren jakin baitugu zuetako batzuk zabarkerian bizi direla, ezer egin gabe, ikusmiran zeregintsu. Horrelakoei Jesu Kristo Jaunaren izenean agintzen eta erregutzen diegu, bakean lan eginez, irabaz dezatela beren ogia.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21, 5-19.

Aldi hartan, tenpluari buruz ari ziren batzuk, harri ederrez eta emaitzez apaindua zegoela aipatuz. Orduan, Jesusek esan zien: «Etorriko da, hor ikusten dituzuen horietatik guztietatik harririk harri gainean geldituko ez den garaia; dena suntsituko dute». Ikasleek galdetu zioten: «Maisu, noiz gertatuko da hori? Eta zertan antzemango diogu gertatzera doala?». Jesusek erantzun zien: «Kontuz, ez zaitzatela inork engainatu! Asko etorriko dira nire izenean, “ni naiz Mesias” edo “gainean da garaia” esanez. Ez joan horrelakoen atzetik. Gerra-

Santa Gertrudis, *birjina, beneditarra*. Santa Margarita Eskoziakoa, *erregina*. Santuak: Roke Gonzalez, Alonso Rodriguez eta Juan del Castillo, *apaizak, martiriak, jesuitak*

eta iraultza-hotsak entzutean, ez ikaratu, lehenbizi gertatu beharrekoa baita hori guztia; baina ez dator berehala azkena». Esan zien, gainera: «Nazioa nazioaren aurka eta erreinua erreinuaren aurka altxatuko dira; lurrikara handiak izango dira, eta izurriteak eta goseteak han eta hemen. Gauza ikaragarriak gertatuko dira, eta seinale handiak agertuko zeruan.

Baina hori guztia gertatu aurretik, eskua erantsiko dizuete eta erasoko, sinagogetara eta karteletara eramango zaituztete, eta erregeen eta agintarien aurrera zuzenduko nigatik. Aitormen egiteko aukera emango dizue horrek guztiak. Hartu gogoan ez duzuela zeuen burua nola defendatuko kezkatzen ibili beharrik; Nik adieraziko dizuet zer eta nola esan, eta zuen etsaietako inork ez du zuei aurre egiterik edo erantzuterik izango. Zeuen guraso eta senideek berek, ahaide eta adiskideek berek salduko zaituztete, eta zuetako zenbait hilko; guztiek gorroto izango dizuete nigatik; baina ez duzue buruko ile bat ere galduko. Iraupenaren iraupenez lortuko duzue bizia».

Gure aroaren lehen mendea oso nahasia izan zen judu-herriarentzat. Bera suntsitzera iritsi arte 70. urtean, Jerusalem bera ere erori zen eta tenplua desegin. Dena geratu zen lurrian eta etorkizunik gabe, itxuraz. Jesusek, ordean, aldi berri bat iragarri zuen; hondamendiak eta pertsekuzioak errealitate berri baten jaiotzaren seinale dira. Hartara daraman pasadizo estuan, Jainkoak bere herriari lagun egiten jarraitzen du, honek Jainkoaren lekuko izaten jarrai dezan. Beraren lekukoen ile bat ere ez da egongo mehatxupear. Errealitate ustela eta bortitza desegingo duten kataklismoen artean, aldi berri baten esperantza iragarri digu, Jauna buru izango duena. Orduan ez da tenpluaren beharrik izango. Jainkoak uko egin dio eremu itxi eta hutsalean egoteari. Kristaudentzat tenplu bakarra mundua da, Jainkoa errealitatean eta historian bizi da eta, era berezian, gutako bakoitzaren bihotzean, bertan espirituz eta egiaz gurtu ahal dezagun. Jadantik ez dugu irrikatzen inongo tenplurik; Jainkoa gurtzeko eta zerbitzatzeko tenplu bakarra mundua da, eta Jainkoaren sorkariak, historia eta gizakiak, oso bereziki jende zaurgarria.

Makabearrak lehenengo liburutik 1, 10-15.41-43.54-57.62-64:

Ikaragarria izan zen Israelek jasan behar izan zuen probaldia.

Sal 118: Gorde nazazu bizirik, Jauna, eta beteko ditut zure legeak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 18, 35-43.

Behin batean, Jesus Jerikora hurbildu zelarik,itsu bat zegoen eskean bide-ertzean eseria. Jendea igarotzen sumaturik, zer zen hura galdetu zuen. Jesus Nazaretarra igarotzen zela jakinarazi zioten. Orduan, deiadarka hasi zen: «Jesus, Daviden Seme, erruki zakizkit!». Aurrean zihoazenean gogor egiten zioten isilarazteko; baina hark oihu handiagotz: «Daviden Seme, erruki zakizkit!». Jesusek, gelditurik, beregana ekartzeko agindu zien. Hurreratu zenean, galdetu zion: «Zer nahi duzu Nik zuri egitea?». Itsuak erantzun: «Ikus dezadala, Jauna!». Jesusek esan zion: «Ikusi, bada; zeure sinesmenak sendatu zaitu». Berehala ikusmena berreskuratu zuen eta Jesusen ondoren zihoan, Jainkoa goresiz. Eta herri osoak, gertatua ikusirik, Jainkoa goratu zuen.

Jesus Jerusalemera hurbildu da. Han epaituko eta gurutziltzatuko dute. Beraren jarraitzaile izan nahi duenarentzat gero eta ilunago ari da jartzen Maisuaren misioaren zentzua; misio honek eramango du Jesus iseka, porrota eta heriotza jasatera. Itsua bide-ertzean dago eserita. Horregana erori da Erreinuaren hazia, baina ematen du beraren fede apala itotzeko mehatxuka ari direla laharra; izan ere, nahasgarri gertatzen zaio gurutzera daraman bidea. Ikusi beharra du. Bere eskariari lotzen zaio, jendetzaren zarataren gainetik egiten du oihu. Jesusek bakarrik eman diezaioke ikustea, misioaren zentzua argituz; eta agertu du gari-aleak hil beharra duela bizia emango badu. Orduan, ikusmena eskuraturik, bide-lagun jarraituko dio Jesusi.

Urteko 33. astea

San Pedroren eta San Pauloren elizak sagaratzea
San Odon, *abadea, beneditarra**

Makabearrak bigarren liburutik 6, 18-31: Jarraibide bikaina utziko diet gazteei, gure legeagatik kementsu eman dezaten bizia. **Sal 3:** Jaunak dit eusten.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 19, 1-10.

Aldi hartan, Jesus Jerikon sartu eta herrian barna zihoan. Bazen han Zakeo izeneko gizon bat, zergalari-buru zena, oso aberatsa. Jesus zein zen ikusi nahirik zebilen Zakeo, baina ezin zuen jendetzagatik, txikia baitzen. Lasterka aurrera joan eta pikondo batera igo zen Jesus ikusteko, handik igaro behar baitzuen. Jesusek, toki hartara iristean, gora begiratu eta esan zion: «Zakeo, jaitsi berehala, gaur zure etxean gelditu behar dut eta». Berehala jaitsi zen eta pozik hartu zuen etxean. Hori ikusirik, denak marmarka hasi ziren: «Bekatari baten etxera joan duk ostatzuz». Zakeok, ordea, zutik jarrita, esan zion Jaunari: «Jauna, neure ondasunen erdiak behartsuei emango dizkiet eta, inori ezer ostu badiot, lau halako bihurtuko diot». Jesusek esan zion: «Gaur iritsi da salbamena etxe honetara, hau ere Abrahamen ondorengoa baita. Izan ere, Gizonaren Semea galdua zegoena bilatzera eta salbatzera etorri da».

Honen aurreko pasadizoan, gazte aberatsarekin, aberatsek zeruko erreinuan sartzeko zailtasuna izango dutela adierazi du Jesusek. «Baina Jainkoarentzat ezer ez ezinezko», esan zuen orduan. Oraingoan, Zakeorekin egin du topo; publikanoen burua eta aberatsa da Zakeo; gauza imajinaezina gertatu da honengan. Txikia da gorputzez, horregatik arbola batera igo da, Jesus ikusi nahian. Maisuak, ordea, beraren parera iristean gelditu eta beraren etxean geratu nahi duela

* M^a Anjeles Odriozola (Azpeitia), M^a Engrazia Lekuona (Oiartzun), M^a Zezilia (Azpeitia), M^a Ines (Etxarri) eta lagunak, *dohatsu, birjina eta martiri* (1936), *Andre Mariaren Bisitakoak*

Urteko 33. astea

San Pedroren eta San Pauloren elizak sagaratzea
San Odon, *abadea, beneditarra**

esan dio, eta Zakeok poz-pozik onartu du etxean. Jesusekin topo egiteak eraldatu egin du Zakeo. Beraren negozioak porrot egin duela esan liteke, agertu duen eskuzabaltasuna dela medio, baina, pertsona bezala giza duintasuna berreskuratu egin du, moneten eta irabazien gorabeheretan bizi zuen antsiez galdua zuena. Jaunarekin egindako bizi-topo zintzoak bakarrik du jendea errotik eraldatzeko indarra.

* * *

«Egia era askotara manipulatzeko, desitxuratzen eta ezkutatzeko da esparru publiko eta pribatuan, eta hori agerian jartzera ohitu beharko genuke» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 208).

* M^a Anjeles Odriozola (Azpeitia), M^a Engrazia Lekuona (Oiartzun), M^a Zezilia (Azpeitia), M^a Ines (Etxarri) eta lagunak, *dohatsu, birjina eta martiri* (1936), *Andre Mariaren Bisitakoak*

Urteko 33. astea

San Abdias, *profeta*

Makabearrak bigarren liburutik 7, 1.20-31: Munduaren Egileak itzuliko dizue arnasa eta bizia. **Sal 16:** Esnatzean zure presentziaz naiz aseko, Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 19, 11-28.

Aldi hartan, Jesusek parabola bat kontatu zion jendeari, Jerusalemdik hurbil baitzen eta jendeak Jainkoaren erreinua une batetik bestera azalduko zela uste baitzuen: «Handiki bat urrutiko lurralde batera joan zen, errege-izendapena hartzera, gero itzultzeko. Bere zerbitzarietako hamarri dei egin eta ontzako urre bana eman zien, esanez: “Saiatu etekina ateratzen, ni itzuli bitartean”. Baina herritarrek gorroto zuten eta mandatariak bidali zituzten ondotik, esatera: “Ez dugu hori errege nahi”. Errege-izendapena harturik itzuli zenean, deiarazi zituen dirua banatu zien morroiak, bakoitzak zer irabazi zuen jakiteko. Aurkeztu zen lehenengoa eta esan zuen: “Jauna, zure ontzakoak hamar halako eman du”. Nagusiak esan zion: “Ederki, morroi ona! Gauza gutxian leial izan zarenez gero, hartzazu hamar hiriren agintea”. Joan zen gero bigarrena eta esan zuen: “Jauna, zure ontzakoak bost halako eman du”. Honi ere nagusiak esan zion: “Hartzazu bost hiriren agintea”. Joan zen beste bat eta esan zion: “Jauna, hemen duzu zeure ontzakoak; zapian bildua eduki dut. Beldur nizun, gizon gogorra zarelako, eman gabea eskatzen eta erein gabea biltzen duzuna”. Nagusiak, orduan: “Heure esanetik kondenatzen haut, morroi gaizto hori! Bahekien gizon gogorra naizela, eman gabea eskatzen eta erein gabea biltzen dudana. Nolatan ez duk, bada, nire dirua bankuan jarri? Horrela, itzultzean, bere interesekin jasoko nian”. Eta han zeudenei esan zien: “Ken iezaiozue ontzakoak, eta eman hamar dituenari”. Haiek erantzun zioten: “Jauna, lehen ere baditu hamar ontzako”. Eta nagusiak: “Hara nik esan: Duenari eman egingo zaio; ez duenari, berriz, daukan apurra ere kenduko. Eta errege nahi ez ninduten etsai horiek, ekarri hona eta hil itzazue nire aurrean”». Hitz

Urteko 33. astea
San Abdias, *profeta*

hauek esan ondoren, Jesusek Jerusalemgo bidean gora jarraitu zuen denen aurretik.

Ezin egon gaitezke, besoak gurutzaturik, Jaunak jardun dezan zain, geure esku ezer ez bagenu bezala. Jaunak baliabideak eman dizkigu geure giza ahaltasun guztia garatu dezagun, nork berea, parte hartuz geure lanaz Erreinua iritsi dadin. Geure sormena ari eta ari jartzea da arazoa, ahaleginak egitea, geure alderik hobena ematea, bakoitzak hartua duen emankortasuna eskaintzera iritsi arte. Harrigarria da zenbait jendek ematen duena ikustea: eskuzabaltasuna, buru-eskaintza, karitatea. Parabolak beldurraren aurka ohartarazten gaitu; parabolako zerbitzarietako hirugarrena ahuldu edota ezgaitu duen beldurraz ari da. Gordetzen dena zimeldu egiten da; ematen denak ureztatu egiten du, darion eta ongarritzen duen urak bezala.

* * *

«Etika eta politika fisikaren pareko bihurtu direla: horixe da gaur egun gertatu zaiguna, horixe da logika hutsal eta makur batera eraman gaituena. Berez ez omen dago ez ongirik eta ez gaizkirik, baizik eta abantailen eta desabantailen kalkulu bat» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 210).

Urteko 33. astea

San Edmundo, *martiria*

Makabearrak lehenengo liburutik 2, 15-29: Jainkoak gure arbasoekin egindako itunari eutsiko diogu. **Sal 49:** Zuzen dabilenari diot Jainkoaren salbamena erakusten.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 19, 41-44.

Aldi hartan, Jesus, Jerusalemera hurbildu eta hiria ikustean, negarrez hasi zen berarengatik, eta esan zuen: «Ai Jerusalem, ulertuko bazenu zuk ere gaur bakerako bidea! Baina ez zara gauza hori ikusteko. Etorriko zaizu, bai, zeure etsaiek lubakiz inguratu, setiatu eta alde guztietatik erasoko dizuten garaia; txikitu egingo zaituztete zu eta zure bizilagunak; eta ez dizute harririk harri gainean utziko, Jainkoak eskaini dizun salbamen-aukera aintzat hartu ez duzulako».

Jerusalem erori zen, ez Jesusen denboran, baizik eta 70. urtean, geroago enperadore izango zen Titoren erromatar armadak hiria errautsi zuenean. Aldi nahasiak ziren haiek judu-herriarentzat; besteak beste, askatasunaren alde zeloteek bizi zuten antsia eta saduzeugarren botere moldakorra zeuden, herria gidatu nahian, azkenean hondamendira eraman zutenak. Tartean, Jesusen proposamen bakezalea agertu zen, errukian oinarritutako gizartea hots egin zuena, barkazioaren bidez indarkeriaren espirala hautsiko zuena, zokoratuei eskua luzatu ziena, gaixoak sendatzen eta Jaun bakartzat biziaren Jainkoa nahi zuena. Hori da bakera garamatzan bide bakarra. Denbora asko joan da, baina bide egin beharrean gara oraindik.

Urteko 33. astea

Andre Maria [haurra] Tenpluan Aurkeztua
San Gelasio 1.a, *aita santua*

Makabearrak lehenengo liburutik 4, 36-37.52-59: Aldare berriaren sagaratzea ospatu zuten, eta erre-opariak eskaini zituzten poz handiz. **Salmoa: 1 Kro 29, 10bc.11.12 (R/. 13b):** Zure izen ospetsua goستن dugu, Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 19, 45-48.

Aldi hartan, Jesus, tenpluan sarturik, bertan salerosketan ari zirenak kanpora botatzen hasi zen, esanez: «Liburu Santuak dio: “Nire etxea otoitz-etxe izango da”. Zuek, ordea, “lapur-zulo” bihurtu duzue». Egunero tenpluan irakasten ari ohi zen. Apaizburuak, lege-maisuak eta herriko handikiak Jesus hil nahian zebiltzan; baina ez zuten asmatzen zer egin, herri guztia aho zabalik baitzegoen hari entzuten.

Denbora agortzen ari da Jesusentzat. Tenpluko saltzaileak kanporatu zituenetik, herriko buruzagiak Jesus nola garbituko ibili ziren. Beraientzat tenplua ez zen erakunde erlijioso bat bakarrik. Gainera, erakunde ekonomikoa zuten; bertatik elikatzen zituzten beren kutxak, jende xumearen dohainen eta zergen bizkar. Jesusentzat tenpluaren zentzu bakarra Jainkoa gurtzeko leku izatea zen. Saltzaileak kanporatzeko zeinuak Jesusen kontrakotasuna adierazi zuen: Jainkoaren irudia okertzen zuen jarduera zen ordu artekoa; bestetik, herri haren onberatasunaz ustelkeriaz baliatzea zen. Jainkoa ulertzeko beste era bat amesten du Jesusek, eta gizartea antolatzeko beste modu bat.

Urteko 33. astea

Santa Zezilia, *birjina eta martiria*

Makabearrak lehenengo liburutik 6, 1-13: Jerusalemen egin nituen okerrengatik, atsekabearen atsekabez hilko naiz. **Sal 9 A:** Alaituko naiz, Jauna, zure salbamenaz.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 20, 27-40.

Aldi hartan, saduzear batzuk hurbildu zitzaizkion Jesusi (saduzearrek ez dute onartzen hildakoak pizten direla), eta galdetu zioten: «Maisu, Moisesek idatzi zigun: “Norbaiti anaia ezkondua seme-alabarik gabe hiltzen bazaio, ezkon bedi alargunarekin, anaiari ondorengoa emateko”. Baziren, bada, zazpi anaia. Zaharrena ezkondu eta seme-alabarik gabe hil zen. Bigarrena eta hirugarrena alargunarekin ezkondu ziren, eta zazpiak berdin. Eta denak seme-alabarik gabe hil ziren. Azkenik, hil zen emakumea ere. Piztuerakoan, zeinen emazte izango da, zazpiek izan baitzuten emazte?». Jesusek erantzun zien: «Mundu honetan gizon-emakumeak ezkondu egiten dira; baina datorren munduan eta hildakoen piztueran parte hartzeko Jainkoak gai aurkituko dituenak, gizaseme nahiz emakume, ez dira ezkonduko; izan ere, ez daitezke hil, aingeruak bezalakoak baitira eta Jainkoaren seme-alaba, piztueran parte dutenez gero. Gainera, hildakoak pizten direla Moisesek berak adierazten du, sutan zegoen sasiaren pasartean, Jaunari “Abrahamen Jainko, Isaaken Jainko eta Jakoben Jainko” deitzen dionean. Ez da hildakoen Jainko, biziena baizik, denak bizirik baitaude harentzat». Orduan, lege-maisu batzuek esan zuten: «Maisu, ederki esan duzu». Eta ez ziren ausartzen beste galderarik egitera.

Biziaren misterioaz sortzen zaizkigun galdera sakonak ez dira argitzen planteamendu soil eta sinple batzuez. Heriotzaren ondoko gure biziari buruzko arazoak ez du zerikusirik aldi bakoitzeko lege-ordenamenduekin. Saduzearrek Jesus nahastu egin nahi izan dute aporia, esapide nahasgarri, batekin. Baina ez da tranpan erori: ez da nahasi egoera absurdora daramaten arrazoiketa konplexuetan. Gure

Urteko 33. astea

Santa Zezilia, *birjina eta martiria*

bizia Jainkoarena da geure jaiotzetik besoak zabalduko ditugun arte, eta, berak, maitasun hutsez, heriotzaren amildegitik berreskuratuko gaituen arte. Biziaren Jainkoaren seme-alaba gara, eta guretzat duen maitasunak ez du mugarik. Beraren sukaldean biziko gara, gainerako gizon-emakume guztiekin adiskidetutako familia bakarra eratuz.

* * *

Sugar

Zutik nago, Jauna,
ziur, zure zain.
Nola galduko dut zure etorrera?

Atzeratzen ari zara, ez zatoz ...
Ilunpean aurkitzen naiz.
Ederra da gaua, etorri zatozenez.
Nahiz eta hotz dagoen, ez dut nabari,
zure zain nago eta.
Izartxoak josita dago gaua.

Piztuta daukat kandela eta gora jasota.
Nire eskuetan daukat estu-estu.
Haizeak gogor jotzen du,
nire argia itzaltzeko zorian jarri du.
Baina ez dit itzaliko,
argi hori zure suak egina da eta
eta hor zatoz, bazatoz.(...)

(Patxi Loidi)

Urteko 34. astea

JESU KRISTO GURE JAUNA, DIREN GUZTIEN

ERREGEA

San Klemente I.a, 4. *aita santua eta martiria**

Samuel bigarren liburutik 5, 1-3.

Egun haietan, Israelgo leinu guztiek Hebronera Davidengana etorri eta esan zioten: «Zeure odolekoak gaituzu. Lehenago ere, Saul gure errege zenean, zuk gidatzen zenituen Israelen joan-etorriak. Gainera zuri esana dizu Jaunak: “Zeuk gidatuko duzu nire herri Israel eta zeu izango zara israeldarren agintaria”». Etorri ziren, beraz, israeldarren buruzagi guztiak David erregeagana Hebronera, eta honek hitzarmena egin zuen haiekin Hebronon Jaunaren aurrean. Eta haiek Israelgo errege gantzutu zuten.

Sal 121: Goazen pozik Jaunaren etxera!

San Paulok Kolosarrei 1, 12-20.

Senideok: Eskerrak ematen dizkiogu Aitari, argiaren erreinuan bere santuentzat prestatutik dituen ondasunetan parte izateko gai egin gaituenari. Ilunpearen menpetik atera gaitu, eta bere Seme maitearen erreinura aldatu; honengan dugu askapena, honengan bekaturen barkamena. Jainko ikusezinaren irudi da Kristo, sorkari guztietan lehen-sortua. Haren bidez sortu zituen Jainkoak zeru-lurretan diren gauza guztiak, ageri direnak eta ez direnak: munduan eragina duten ahalmenak, nagusitzak, aginteak eta botereak; sortua izan den guztiak Kristo du eredu eta helburu. Gauza guztiak baino lehenagokoa da hura, eta hari esker diraute. Hura da gorputzaren buru, Elizarena, alegia. Hura da hasiera, hildakoen artetik lehen-piztua, gauza guztietan hura izan dadin lehenengoa; Jainkoak nahi izan baitu bere izaeraren betea Kristogan egotea, eta honen bidez gauza guztiak berekin adiskidetzea,

* San Kolumbano, *abadea eta misiolaria*
Migel Agustín Pro, *dohatsua, apaiza, martiria, jesuita*

Kristok gurutzean isuritako odolaz bakeak eginez zeruko eta lurreko gauza guztiekin.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 23, 35-43.

Aldi hartan, agintariak burlaka ari zitzaizkion Jesusi, esanez: «Besteak salbatu dizkik; salba dezala bere burua, Jainkoaren Mesias, Aukeratua, baldin bada». Gudariek ere iseka egiten zioten; hurbildurik, ospina eskaintzen zioten, esanez: «Juduen erregea baldin bahaiz, salba ezak heure burua!». Gaienez idazkun hau zuen: «HAU JUDUEN ERREGEA DA». Gurutzetik zintzilik zeuden gaizkileetako bat Jesusi irainka ari zitzaion: «Hi ez al haiz, ba, Mesias? Salba ezak heure burua eta salba gaitzak gu ere!». Baina besteak haserre egin zion, esanez: «Ez al diok beldurrik Jainkoari, zigorra jasaten hagoela ere? Gurea legezkoa duk, geure eginengatik merezia baitiagu; baina honek ez dik inolako okerrik egin». Gero, esan zuen: «Jesus, oroit zaitez nitaz, zeure erreinura iristean». Jesusek erantzun zion: «Benetan diotsut: gaur nirekin izango zara paradisu».

Hitzen esanahia aldatu egiten da denborarekin. «Errege» eta «errege izan» terminoek ez dute gure artean jadanik aspaldi hartako oihartzunik. Halaz guztiz, ondo ulertzen dugu zer esan nahi duten «Jesus errege izan dadin gogo» bezalako esapideek: izan gaitzela anai-arreba, urra dezagula bakearen, zuzentasunaren, gupidaren bidea. Ez dadila izan gehiago pertsona zokoraturik. Jesus errege balitz, mundua beste bat izango litzateke. Horixe da jai honen hondoan dagoen ametsa. Jesus errege da, bere gupidaz, bere barkamen-gaitasunaz, ekartzen duen barne bakeaz, bere doako zerbitzuaz, bere bizia emateaz, pobreenganako eta gu bezalako bekatiarienganako bere hurbiltasunaz. Benetan, aldi guztietako erregeak ez bezalakoa; errege-titulua ematen

* San Kolunbano, *abadea eta misiolaria*
Migel Agustin Pro, *dohatsua, apaiza, martiria, jesuita*

Urteko 34. astea

JESU KRISTO GURE JAUNA, DIREN GUZTIEN

ERREGEA

San Klemente I.a, 4. *aita santua eta martiria**

zaionean, errege terminoa berrinterpretatu egiten dugu. Ebanjelioak gogorazten digu Jesusekin gurutziltzatu zituzten gaizkileetako batek otoitz samur eta fin bat egin ziola: «Jesus, gogora zaitez nitaz zeure erreinura iritsiko zarenean». Eta Jesusen erantzuna: «gaur nirekin izango zara paradisuari». Eska diezaiozun beti horrela: «gogora zaitez nitaz», Jesusen erantzuna espero izanez, kreaio guztian mami hau duena: «Ez beldur izan. Nirekin izango zara. Nirekin izango zara betiko».

* * *

Sugar (Jarraipena)

Zure ondoan sartuko naiz ezkontzan,
Zurekin sartuko naiz, hotzak gogortuta,
izarrek ez baitute berotzen.
Baina ematen didaten itxaropenak
barrendik berotzen nau.

Ez noa lotara, nahiz eta dagoeneko gauerdia den.
Zutik nago,
kandela piztuta,
bihotza erne,
inguruan aterperik gabe dagoen jendearen bila,
goxotasunez estaltzeko
zure zain dauden bitartean, ni nagoen bezala.

(Patxi Loidi)

* San Kolunbano, *abadea eta misiolaria*
Migel Agustín Pro, *dohatsua, apaiza, martiria, jesuita*

Urteko 34. astea

San Andres Dung-Lac, *apaiza*, eta lagunak, *martiriak*

Danielen Profezia liburuaren hasiera 1, 1-6. 8-20: Ez zuen aurkitu Daniel, Hananias, Mixael eta Azarias adinakorik. **Salmoa: Dn 3, 52.53.54.55.56 (R/. 52b):** Aintza eta gorespen zuri gizaldietan!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21, 1-4.

Aldi hartan, begira zegoela, aberats batzuk ikusi zituen Jesusek tenpluko diru-kutxara limosna botatzen. Ikusi zuen emakume alargun behartsu bat ere bi txanpon botatzen. Eta esan zuen: «Benetan diotsuet: alargun behartsu honek beste guztiek baino gehiago bota du. Izan ere, beste guztiek sobera dutenetik egin dute limosna; honek, ordea, bere eskasian, bizitzeko zeukan guztia eman du».

Jesusen bihotza samurtu egin da giza eskuzabaltasunaren aurrean. Luxuzko jantzien eta opari aberatsen handikeria baino harago ikusten du. Bere begi aurrean emakume baten ontasunak egin dio distira, diru-kutxan hotsa doi-doi egin duten moneta arin batzuk bota ditu. Ez du daukana bakarrik eman, baizik eta bere burua eman du, daukan guztia partekatuz, albora utzirik segurtasuna eta premiak. Behartsuek horrela ematen dute, neurririk gabe. Badakite zer den gaizki pasatzea eta daukatena partekatzen dute, besteen larria arintzeko, gaur norbera baino okerrago egon baitaitezke. Horrela bizitzera deituak gara, ezer gorde gabe, jakinik Jainkoak eta biziak eskuzabal hartuko gaituztela, geuk ere horrela jokatzeko badugu.

Urteko 34. astea

Santa Katalina Alexandriakoa, *martiria*

Danielen Profezia liburutik 2, 31-45: Inoiz hondatuko ez den erreinua eraikiko du Jainkoak, eta beste erreinuak suntsituko ditu. **Salmoa:** Dn 3, 57.58.59. 60.61 (R/. 59b): Goretsi eta ospatu gizaldietan!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21, 5-11.

Aldi hartan, tenpluari buruz ari ziren batzuk, harri ederrez eta emaitzez apaindua zegoela aipatuz. Orduan, Jesusek esan zien: «Etorriko da, hor ikusten dituzuen horietatik guztietatik harririk harri gainean geldituko ez den garaia: dena suntsituko dute». Ikasleek galdetu zioten: «Maisu, noiz gertatuko da hori? Eta zertan antzemango diogu gertatzera doala?». Jesusek erantzun zien: «Kontuz, ez zaitzatela inork engaina! Asko etorriko dira nire izenean, “ni naiz Mesias” edo “gainean da garaia” esanez. Ez joan horrelakoen atzetik. Gerra- eta iraultza-hotsak entzutean, ez ikaratu, lehenbizi gertatu beharrekoa baita hori guztia; baina ez dator berehala azkena». Esan zien, gainera: «Nazioa nazioaren aurka eta erreinua erreinuaren aurka altxatuko dira; lurrikara handiak izango dira, eta izurriteak eta goseteak han eta hemen. Gauza ikaragarriak gertatuko dira, eta seinale handiak agertuko zeruan».

Jesusen aldia eta ondorengo hamarkadak sufrimendu-iturri handi izan ziren judu-herriarentzat; azkenean, erromatar gudarosteak garaitua, Jerusalem hiria erraustua eta tenplua suntsitua geratu ziren. Hizkuntza apokaliptikoak haustura baten beharra seinalatzen du, eta orainaren galera, etorkizun berri bati lekua uzteko. Hizkuntza horixe agertu da Jesusen ahoan. Horrekin esperantza berri bat iragarri digu. Azken hitza ez dute izango oraingo sufrimenduek eta larriek; egun batean gizadi osoak atsedean hartu ahal izango du Jainkoagan, eta gure gizarteak jende zaurgarria, pobretua eta mehatxupean dagoen natura babestera bideratuko dira. Bakea nagusituko da eta azkenak izan direnek atsedena lortuko dute.

Urteko 34. astea

San Konrado, *gotzaina*San Joan Berchmans, *jesuita*

Danielen Profezia liburutik 5, 1-6.13-14.16-17.23-28: Giza esku bat agertu zen eta hatzez idazten hasi. **Salmoa: Dn 3, 62.63.64.65.66.67 (R/. 59b):** Goretsi eta ospatu gizaldietan!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21, 12-19.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Eskua erantsiko dizuete eta erasoko, sinagogetara eta karteletara eramango zaituztete, eta erregeen eta agintarien aurrera zuzenduko nigitik. Aitormen egiteko aukera emango dizue horrek guztiak. Hartu gogoan ez duzuela zeuen burua nola defendatuko kezkatzen ibili beharrik; Nik adieraziko dizuet zer eta nola esan, eta zuen etsaietako inork ez du zuei aurre egiterik edo erantzuterik izango. Zeuen gurasoek eta senideek berek, ahaideek eta adiskideek berek salduko zaituztete, eta zuetako zenbait hilko; guztiek gorroto izango dizuete nigitik; baina ez duzue buruko ile bat ere galduko. Iraupenaren iraupenez lortuko duzue bizia».

Lehen kristau-elkarteak jaiotzatik beratik bizi eta jasan izan zuen pertsekuzioa, Kristoganako bere fedeagatik. Sinagogatik kanporatu egin zituzten, diasporako juduek pertsegitu, eta martiri hil zituzten enperadoreari kulturik eman nahi ez izateagatik. Geroago ulertu zuen Elizak arazoa ez zela kredo berri baten kontra egotea. Baizik eta Kristoganako fedearen edukiek, maitasunaren fedeak, giza duintasunaren zuzentasunak eta defentsak beti izango dutela aurka jende pribilegiatuaren kontrakotasun hertsia. Erreinuak gatazka eta aurkaritza artean urratuko du bere bidea. Gaur ere Jesusekiko fedea defendatzen dutenek kontraesanarekin eta erresuminarekin egiten dute topo. Jesusek konfiantza izatera deitzen digu, eta beragan itxarotera; izan ere, «zuen buruko ile bat ere ez da galduko».

Urteko 34. astea

Andre Mariaren medaila mirarizkoa
San Jakobo Pertsiakoa, *martiria*

Danielen liburutik 6, 12-28: Jainkoak aingerua bidali du lehoien ahoak ixtera. **Salmoa: Daniel 3:** Goretsi eta ospatu gizaldietan!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21, 20-28.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Jerusalem gudarostez inguratua ikustean, jakizue gainean duela bere hondamendia. Orduan, Judean daudenek ihes egin bezate mendietara; Jerusalem barruan daudenek alde egin bezate, eta soroan direnak ez bitez hirian sartu. Zigor-egunak izango dira, orduan beteko baita Liburu Santuan idatzirik dagoen guztia. Dohakabeak egun haietan haurdun izango direnak edota bularreko haurrak izango dituztenak! Estualdi handia izango baita lur honetan, eta haserre-zigorra herri honentzat. Ezpatapean eroriko dira eta nazio guztietara eramango dituzte gatibu; jentilek zapalduko dute Jerusalem, nazioentzat Jainkoak erabakitako epea erabat bete arte. Seinaleak izango dira eguzkian, ilargian eta izarretan, eta estu ibiliko dira lurrean herrialdeak, itsasoaren orroaz eta olatuen indarrez aztoraturik. Arnasarik gabe geldituko da jendea, munduari gainera datorkionaren beldurrez, ortzia ere dardaratuko baita. Orduan, Gizonaren Semea indartsu eta aintza handiz hodeian etortzen ikusiko dute. Hori guztia gertatzen hastean, izan bihotz eta jaso burua, hurbiltzen ari baita zuen askapena».

Larrialdian eta ilunaldian, Jesusek arnasa ematen die bereei, esperantzaz bizi daitezen. Munduak, ezagutzen ditugun beraren herioalderdiak kontuan hartuta –suntsitzea, erailketak, setioak, deserriratzak– erabat akabatzea izango luke bere azken zoria. Bada mundu horretan gainbehera egin beharko lukeen zerbaite gaizto eta kaltegarri, baina ez du egingo burrundararik gabe, bereari eutsiko dio, gure egoismoak, zekenkeriak eta botere-nahiak egin ohi duten bezala. Baina ez da hori azkena. Gure zoria Kristogan dago, bera izango da gure behin betiko askatzailea. Zerutik etorriko da gure salbazioa; horra «jaso burua» delakoaren nondik norakoa. Jainkoagan ez dago gaitzetsiko gaituen inor, baizik eta Aita bat, bere Semearen bidez salbatzen duena.

Urteko 34. astea

Santa Teodora, *abadesa, San Basilioaren ordenakoa*
San Honesto Nimeskoa, *apaiza*

Danielen Profezia liburutik 7, 2-14: Gizaseme antzeko bat ikusi nuen, zeruetako hodeietan etortzen. **Salmoa: Dn 3, 75. 76. 77. 78. 79. 80. 81 (R/. 59b):** Goretsi eta ospatu gizaldietan!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21, 29-33.

Aldi hartan, Jesusek adibide bat jarri zien ikasleei: «Begira pikondoari edota beste edozein zuhaitzi: kimu-berritzen hasi direla ikusi eta, besterik gabe, badakizue hurbil dela uda. Era berean, beste gauza horiek gertatzen ikustean, jakizue hurbil dela Jainkoaren erregetza. Benetan diotsuet: gizaldi honetakoak hil baino lehen gertatuko dira gauza guztiok. Zeru-lurak igaroko dira, baina nire hitzak ez dira bete gabe igaroko».

Mundu zaharraren heriotza ezinbestean gertatu beharrekoa da, Jainkoak kreatutako errealitate berri bati lekua uzteko. Ez da errealitate berririk zaharrarena eten gabe. Horrela iritsiko da Jainkoaren Erreinua; mundu honetako botere hutsalen artean bere bidea egingo du, bere bakea eta bere egia berrezarri arte. Egun batean beteko da Jesusen ametsa. Orduz gero, ez dira izango Jainkoaren Erreinuaren presentziaren zeinu bakarrik; izan ere, behin betiko errege izango da bera. Den-dena, zeruak eta lurra, igaroko da, baina ez Jesusen promesak, ordu arte jarraitzaileoi arnasa emanez jarraituko duten haiek. Sinesten dugu mundua salbatua izateko egina dela, gizadia eta kreaio osoa Kristogan berrerosirik eta birkreaturik geldituko direla.

Urteko 34. astea

San Zernin Tolosakoa (Okzitania) (Sazernin), *gotzaina eta martiria, Iruñeko zaindaria*Bernardo de Hoyos, *dohatsua, apaiza, jesuita*

Danielen Profezia liburutik 7, 15-27: Goi-goikoaren herri santuari emango zaio erregetza, agintea eta handitasuna. **Salmoa: Dn 3, 82. 83. 84. 85. 86. 87 (R/. 59b):** Goretsi eta ospatu gizaldietan!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21, 34-36.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ibil zaitezte kontuz! Ez bedi moteldu zuen bihotza hordikeriaz, mozkorkeriaz eta bizitza honetako kezkaz, egun hura ustekabeen gainera etor ez dakizuen, sarea bezala etorriko baita lurrean bizi diren guztien gainera. Beraz, egon erne eta egin otoitz une oro, etorri behar duten horiei guztiei ihes egin ahal diezaiezuen eta zutik egon ahal zaitezten Gizonaren Semearen aurrean».

Erreinua iristeak Jesusen jarraitzaileak adi eta erne bizitzea eskatzen du, agertuko denerako prest. Honek guztiak gure bizitzako oharkabetasuna eta atsegin hutsalak uztea eskatzen du, eta Jainkoari arreta eskaintzea, mundu honen askatasunerako lanean ari baita eta jadanik gure artean presente baitago. Jesusen garaian bezala, Erreinuaren zeinuak gauza txikien eta hauskarrien artean daude, errealitatea barnetik eraldatuz, egun batean zer den egiaz eta argi agertuko den arte. Esna eta erne biziz bakarrik ikusi ahalko dugu bizitzaren dinamika guztietan ari eta ari dabilen Erreinu hori, kimu berrietan indar erabakitzaileaz jaiotzen delarik.

Abendualdiko 1. astea. A urtea
SAN ANDRES, APOSTOLUA

Isaias profetaren liburutik 2, 1-5.

Isaiasek, Amosen semeak, Judaz eta Jerusalemek izandako ikuskaria: Azken egunetan, Jaunaren etxea dagoen mendia beste mendiak baino gorago ezarriko du Jaunak, beste mendixkak baino gorago; hara joko dute nazio guztiek eta herri asko joango da bertara, esanez: «Zatozte, igo gaitezen Jaunaren mendira, Jakoben Jainkoaren etxera; berak erakutsiko dizkigu bere bideak, eta gu haren bidezidorretan ibiliko gara; Siondik aterako baita legea eta Jerusalemdik Jaunaren hitza». Berak epaituko ditu nazioak, auzira ekarriko herri guztiak. Golde bihurtuko dituzte ezpatak eta igitai lantzak. Ez du herrik herriren aurka ezpatarik jasoko, ez dira gudurako berriz trebatuko. Zatoz, Jakoben herri, gabiltzan Jaunaren argitan.

Sal 121: Goazen pozik Jaunaren etxera!

San Paulok Erromatarrei 13, 11-14a.

Senideok: Ohar zaitezte zein garaitan bizi zareten. Izan ere, ordua da lotatik esnatzeko, sinesten hasiberri hartan baino hurbilago baitugu orain geure salbamena. Badoa gaua, gainean dugu eguna; ken ditzagun, beraz, ilunpetako egintzak eta jantzi argitako armak. Gabiltzan jator, egun-argiz bezala: ez jan-edankeria eta hordikeria, ez lohikeria eta neurrigabekeria, ez haserre eta norgehiagokeria. Hartazue Jesu Kristo Jauna soineko.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 24, 37-44.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Noeren garaian bezala gertatuko da Gizonaren Semearen etorrerakoan ere. Uholde aurreko egunetan jan-edanean zebilen jendea, eta ezkondu egiten ziren gizon-emakumeak, Noe ontzian sartu zen eguneraino; eta ez ziren konturatu, uholdea etorri eta guztiak eraman zituen arte. Horrela izango da

Abendualdiko 1. astea. A urtea
SAN ANDRES, APOSTOLUA

Gizonaren Semearen etorrerakoan ere. Orduan, bi gizon izango dira soroan: bata hartu egingo dute eta bestea utzi; bi emakume ariko dira errotarian: bata hartu egingo dute eta bestea utzi. Zaudete erne, ez baitakizue zein egunetan etorriko den zuen Jauna. Hartu hau gogoan: etxeko nagusiak baleki gaueko zein ordutan etorriko den lapurra, erne egongo litzateke eta ez luke bere etxea zulatzen utziko. Egon, bada, prest zuek ere, gutxien uste duzuen orduan etorriko zaizue- eta Gizonaren Semea».

Isaiasek *zer itxaron behar dugun* adierazten digu. Gerla-denboran bizi da, baina bake unibertsal baten antsia handiz. Deskribatzen du, nola herriak, gerla egiteaz eta bata bestea erailtzeaz asperturik, doazen Jerusalemerantz, behin betiko bakea ezarriko duen Jainko baten bila. Gaur desiratzen jarraitzen dugu ezpatak golde bihur daitezen, eta lantzak igitai: ez dezala dantzatu ezpatarik herriak herriaren aurka, ez dadila inor trebatu gerlarako. Egiatzko amets bat geure barnean txertatu beharrekoa. Ebanjelioak, bere aldetik, *nola itxaron* adierazten digu: itxarote ernea da. Etorkizunaren une batean Kristoren bigarren etorrera gertatuko da; prest egon behar dugu. Egun batean berriro etorriko da Kristo gugana; zain-zain egon behar dugu egun horren zain. Bere Erreinua ezarriko du berak, adiskidetutako giza familia batena; komeniko da prest aurki gaitzan. Bigarren irakurgaiak *zer egin* adierazten digu. Uko egitea da arazoa: egoismoari, harrokeriari, gehiegizko desioei, erresuminei eta gorrotoari, botere-antsiari, zekenkeriari... eta, aitzitik, jantzi gaitzela Kristoren jantziak. Jantzirik haren antzera: apaltasunez, doako zerbitzuz, esker onaz, onberatasunez, txeraz, eskuzabaltasunez, maitasunez. Gugatik ere esan ahal dezaten, Jesusengatik bezala: begira, on eginez bizi izan zen; nahas gaitzabela Jesusekin.



Guztion

ETXEAREN



Zaintzan



partaide

ABENDUA / GABONILA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA

Testuinguru gatazkatsuetan dauden kristauen alde: Egin dezagun otoitz gerra edo gatazka testuingurutan bizi diren kristauak, bereziki Ekialde Hurbilekoak, bakearen, adiskidetzearen eta itxaropenaren hazi izan daitezen.

Abendualdiko 1. astea

San Leontzio, *gotzaina*. Santuak: Edmundo Campion, Roberto Southwell, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak*, *jesuitak*. San Karlos de Foucauld (Estrasburgo 1858- Tamanrasset 1916)

Isaias Profetaren liburutik 2, 1-5: Jaunak herri guztiak bildu Jainkoaren erreinuan, betiko bakea goza dezaten. **Sal 121:** Goazen pozik Jaunaren etxera!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 8, 5-11.

Aldi hartan, Jesus Kafarnaum herrian sartu zelarik, erromatar ehuntari bat etorri zitzaion, arrenka esanez: «Jauna, elbarri eta oinazetan dago nire morroia etxean». Jesusek esan zion: «Joan eta sendatuko dut». Baina ehuntariak erantzun zion: «Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko; baina esazu hitz bat eta sendatuko da nire morroia. Nik ere, neu besteren mendean egon arren, soldaduak ditut neure mendean, eta bati joateko agintzen badiot, joan egiten da; beste bati etortzeko agindu, eta etorri; eta nire morroiari zerbait egiteko esan, eta hala egiten du». Hori entzunik, harritu egin zen Jesus eta ondoren zetozkionei esan zien: «Egia esan, Israelen ez dut inorengan aurkitu horrenbesteko sinesmenik. Eta hau diotsuet: Asko etorriko dira sortaldetik eta sartaldetik, eta zeruetako erreinuko mahaian eseriko dira, Abraham, Isaak eta Jakobekin».

Jesusek nor diren begiratu gabe hartzen ditu gizon-emakumeak, bihotzera begiratu, nondarrak edo zein mailatakoak diren kontuan izan gabe. Oraingoan ehuntari bat hartu du, erromatar gudarien burua eta inbaditzailea, eta gai da haren asmoa garbia dela antzemateko eta onartzeko. Miresgarria iruditzen zaio morroiari dion nahitasuna eta baita daukan fedea ere. Ehuntariak, berriz, ez du uste nor denik Jainkoaren gizon hura etxera joan dakion, eta hala adierazten du. Ezereza dela nabari du Jesusen santutasunaren aurrean. Horregatik haren laguntza besterik ez du eskatzen, ez dauka profetari bere etxean sarrarazteko intentziorik. Morroia sendatzea nahi izate hutsak salbatuko du. Eta ez dela duina sentitzetik dohain-saritua dela sentitzera igaroko da.

Abendualdiko 1. astea

Santa Bibiana, *birjina eta martiria*San Viktorino, *martiria*

Isaias profetaren liburutik 11, 1-10: Haren gainean Jaunaren espiritua kokatuko da. **Sal 71:** Zuzentasuna garatuko da haren egunetan, eta bakea ugari betieran.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10, 21-24.

Aldi hartan, Jesusek, Espiritu Santuaren pozez beterik, esan zuen: «Bedeinkatua Zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsuei eta burutsuei gorde eta jende xumeari agertu baitizkiozu. Bai, Aita, hala izan duzu gogoko. Nire Aitak dena eman dit, eta ez du inork ezagutzen Semea nor den, Aitak baizik; ezta Aita nor den ere, Semeak baizik eta Semeak agertu nahi dionak baizik». Eta ikasleengana itzulirik, esan zien haiei bakarrik: «Zorionekoak, zuek ikusten duzuen ikusten duten begiak. Hara zer diotsuedan: profeta eta errege askok ikusi nahi izan zuen zuek ikusten duzuen, baina ez zuen ikusi, eta entzun zuek entzuten duzuen, baina ez zuen entzun».

Jesusek pozak zoratzen goresten du Jainkoa, ikasleak bidali dituen misiotik itzuli direnean. Kontentu etorri dira, Jesusen izenean «deabruak eta guzti obeditzen baitziguten». Jesusek ikusi du jendeak berebiziko indarrez aurre egin diola Aitaren presentzia askatzailean sinesteari, batez ere buruzagi-jendeak. Hala ere, bere ikasleak, jende xumeak, gai dira eguneroko bizitzan Jainkoaren eragin bizia sumatzeko. Erabat konprometitzen denak bakarrik ikus dezake haiek ikusi duten bezala. Orduan, jende xumeak Jainkoaren askapenaren ezaugarriak antzematen ditu gure artean begirada garbiz eta xaloz.

Abendualdiko 1. astea

San Frantzisko Xabierkoa (Xabier 1508-Sancian 1552),
apaiza, jesuita. (*Ikus Xabierren Meza beheraxeago*)

Isaias 25, 6-10a: Jai-otordua emango die Jaunak herri guztiei eta xukatuko ditu aurpegi guztietako negar-malkoak. **Sal 22:** Jaunaren etxean naiz biziko luzaroen luzaro.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 15, 29-37.

Aldi hartan, Galileako itsasbazterrera joan zen Jesus; mendira igo eta han eseri zen. Jende asko hurbildu zitzaion, herren, itsu, besamotz, mutu eta bestelako gaixo asko eramanez; oinetan jartzen zizkieten, eta hark sendatu egiten zituen. Jendea harritua gelditu zen ikusten zuenaz: mutuak hizketan, besamotzak sendatuak, herrenak ibiltzen eta itsuak ikusten. Eta Israelen Jainkoa goresten hasi ziren. Jesusek ikasleei dei egin eta esan zien: «Erruki dut jende hau; badarama hiru egun nirekin eta ez du jatekorik. Ez ditut baraurik bidali nahi, bidean akitu ez daitezen». Ikasleek esan zioten: «Nondik atera guk basamortu honetan horrenbeste jende asetzeko lain ogi?». Jesusek esan zien: «Zenbat ogi duzue?». Haiek erantzun: «Zazpi, eta arraintxo bakar batzuk». Lurrean esertzeko agindu zion jendeari; gero, hartu zituen zazpi ogiak eta arrainak eta, esker-otoitza egin ondoren, zatitu eta ikasleei eman zizkien, eta ikasleek jendeari. Denek jan zuten ase arte, eta gelditutako hondarrekin zazpi saski bete bildu zituzten.

Gogorra da Jesus elbarritz, itsuz, ezinduz eta gormutuz inguratua irudikatzea. Munduko behartsu guztiak harengana doaz, bedeinka eta senda ditzan. Barruan bakea sortzen du ikuskari horrek, gu geu ere abailduta edo gaixorik aurkitzen garenean eta harengana jotzen dugunean kontsolamendu eta babes bila. Beste behartsu askok inguratuta eta haiekin bat eginda, Jesusen maitasuna eta hitza iritsi zain egoten gara. Baina Jesus haratago doa, jendetzaren beharrean sarrarazten ditu ikasleak, duten guztia jartzeko eskatuz, dauzkaten ogi eta arrain apurrak, goseak dagoen jende-oste haren zerbitzura. Garen eta dugun guztia eskainiz bakarrik senda eta jaten eman diezaioke Jaunak gizadiari.

Xabierko Frantziskoren Meza

San Paulok 1 Korintoarrei 9, 16-19.22-23.

Senideok: Berri Ona hots egiten dudala eta, ezin naiz harrotu; ezinbestean dagokidan eginbeharra baitut hori, eta errukarria ni, Berri Ona hots egingo ez banu! Berri Ona neure gogoz hots egingo banu, mereziko nuke saria; baina nik nahi izan gabe ezarri didaten eginkizuna betetzen ari banaiz, zein sari zor zait orduan? Hauxe besterik ez: Berri Ona dohainik hots egitea, Berri Onaren zerbitzutik datozkidan eskubideez baliatu gabe. Guztiz libre naizen arren, guztien esklabo egin naiz, ahalik eta jende gehien Kristorentzat irabazteko. Ahul direnekin ahul egin naiz, ahulak irabazteko. Guztiengana ahalik eta gehien egokitzen saiatu naiz, nolabait batzuen batzuk salbatzeko. Eta dena Berri Onagatik egiten dut, Berri On horretan nik ere parte izan dezadan.

Sal 95: Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 16, 15-20.

Aldi hartan, Jesus Hamaikei agertu eta esan zien:

«Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona izaki guztiei. Sinetsi eta bataiatzen dena salbatuko da; sinesten ez duena, berriz, kondenatuko. Sinesten dutenek seinale hauek izango dituzte lagun: nire izenean deabruak botako dituzte, hizkuntza berrietan mintzatuko dira, sugeak eskuetan hartuko dituzte eta, edari hilgarriren bat edanda ere, ez die kalterik egingo; gaixoei eskuak ezarriko dizkiete, eta sendatu egingo dira». Horrela mintzatu ondoren, Jesus Jauna zerura jaso izan zen eta Jainkoaren eskuinaldean eseri zen. Haiek, berriz, alde guztietara joan ziren Berri Ona hots egitera. Eta Jauna bera ari zen haiekin, egiten zituzten mirarien bidez hitza baiesten zuela.

Abendualdiko 1. astea

San Frantzisko Xabierkoa (Xabier 1508-Sancian 1552),
apaiza, jesuita.

Zeruetara igo aurretik, lurbira osoko bazter guztietara bidali ditu Jesusek ikasleak, beti beraiekin izango dutela ziurtatuz. Bidalketa horrek bizirik iraun du historian zehar Jesusen jarraitzaileen artean, Ebanjelioa kreazio guztira eraman dezaten hauspotzen dituela. Xabierko Frantzisko ez bere herriari ez bere kulturari lotu ez zitzaion pertsonaren ispilu paregabea da, Jesus Jaunaren izena eramateko urrutiko lurraldeetara joatera arriskatu zelarik. Ikasi zuen besteen kulturei begirunea izaten, haien barruan Jainkoa zegoela antzematen, fedea iragartzeko alde guztietara moldatzen. Jesusek gogoa berotzen digu gaur ere bere lehen ikasleen bidalketa gudan berritu dezagun.

Xabierko San Frantzisko,
apaiza, jesuita (*Misiolarien Zaindaria*)



Abendualdiko 1. astea

San Joan Damaskokoa, *apaiza eta eliz irakaslea*.
 Santa Barbara, *birjina eta martiria* *

Isaias 26, 1-6: Sar bedi herri zintzoa eta leiala. Sal 117: Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7. 21.24-27.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez da aski niri “Jauna, Jauna” esatea zeruetako erreinuan sartzeko; hau da beharrezkoa: zeruan dagoen nire Aitaren nahia egitea. Beraz, nire hitz hauek entzuten eta betetzen dituen bere etxea harkaitz gainean eraiki zuen gizon zentzudunaren antzekoa da. Egin zuen euria, etorri ziren uholdeak, jo zuen haizeak eta eraso zioten etxe hari; baina ez zen erori, harkaitz gainean oinarritua baitzegoen. Nire hitz hauek entzun bai, baina betetzen ez dituen, bere etxea hondar gainean eraiki zuen gizon burugabearen antzekoa da. Egin zuen euria, etorri ziren uholdeak, jo zuen haizeak eta eraso zioten etxe hari; eta erori egin zen eta erabat hondatua gelditu».

Aabendualdiak Jaunaren etorrerarako gorputz eta arima presta gaitzen gonbidatzen gaitu. Jaunari jarraitzeko ze oinarri eraikitzen ditugun ziurtatzera deitzen gaitu gaurko ebanjelioak, izan ere oinarri sendoak behar ditu jarraipenak gure historiako borroketan irauteko, kontraesan eta huts egiteetan, zalantza eta nekeetan eusteko. Kristauontzat harkaitz bat bakarra dago, Kristo. Hari helduz bakarrik aurre egin ahal izango diegu jarraipenaren zailtasunei, etsipena, hustasuna eta zentzu eza direlarik gaur egungo ezinak. Otoitzean agertzen zaigun Kristo dugu sostengu eta, santu eta bekataria izanik, Jaunari apal jarraitzen dion kristau elkarteko Kristoren gorputza gure euskarri.

* Pio Heredia (Larrea 1875-Santander 1936) eta lagunak, *Cobrezesko zistertarrak, dohatsu eta martiri*

Abendualdiko 1. astea

Santa Krispina, *martiria*San Sabas, *abadea*San Mauro, *martiria*

Isaias profetaren liburutik 29, 17-34: Egun hartan ikusiko dute itsuen begiek. **Sal 26:** Jauna dut argi eta salbamen.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9, 27-31.

Aldi hartan, Jesus handik ateratzean, bi itsuk jarraitu zioten, oihuka: «Erruki zakizkigu, Daviden Seme!». Etxera heltzean, itsuak hurbildu zitzaizkion eta Jesusek esan zien: «Sinesten al duzue hori egin dezakedala?». Haiek erantzun: «Bai, Jauna. Orduan, begiak ukitu zizkien, esanez: «Gerta bekizue sinesten duzuen bezala». Eta ireki egin zitzaizkien begiak. Jesusek zorrotz agindu zien: «Begira, gero, ez dezala inork ere jakin». Baina haiek, atera orduko, eskualde guztian eman zuten Jesusen berri.

Sendatu orduko pozez lehertu dira bi itsuak. Ezin dira mutu geratu. Sendatuak izan direla esan eta kontatu beharra dute, bozkarioz beterik baitaude. Jaunak gure itsutasunak errotik senda ditzakeela sinetsi dezagun gonbidatzen gaitu irakurgaiak, eta hari jarraituz eta zerbitzatuz bizitzaren zentzua aurkitzen laguntzen digu. Baina barruan dugun pozaren eta kontsolamenduaren berri ere agertzeraz bultzatzen gaitu, beste jendeek ere jakin dezaten eta, Jaunarengana hurbilduz, beren barnean bizirik nabaritu ahal dezaten. Ezin gara jarraitzaile tristeak izan, goibel eta isilak, alderantziz baizik, alaiak eta gure bizitzetan dagoen Jainkoa hots egiten dutenak.

Abendualdiko 1. astea
San Nikolas, gotzaina

Isaias profetaren liburutik 30, 19-21.23-26: Errukituko zaizu Jauna zeure deiazen hotsera. **Sal 146:** Zorionekoak Jaunagan itxaro dutenak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9, 35-10,1.5a.6-8.

Aldi hartan, herriz herri eta auzorik auzo zebilen Jesus, hango sinagogetan irakasten, erreinuari buruzko Berri Ona hots egiten eta gaitz eta eritasun guztiak sendatzen. Jendetza ikustean, erruki izan zuen, nekatua eta lur joa baitzegoen jende hura, artzainik gabeko ardiak bezala. Orduan, ikasleei esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi. Erregutu, bada, uzta-jabeari, bidal ditzala langileak bere uztara». Eta hamabi ikasleei dei egin eta ahalmena eman zien espiritu gaiztoak botatzeko eta gaitz eta eritasun guztiak sendatzeko. Hamabi horiek bidali zituen Jesusek, ohar hauek eginez: «Zoazte galduak dabiltzan Israel herriko ardietara. Eta bidean zoaztela, hots egin hurbil dela zeruetako erreinua. Senda itzazue gaixoak, piztu hildakoak, garbitu lepradunak, bota deabruak; hutsean hartu duzue, eman hutsean».

Jesus errukitu egiten da gizon-emakumeak lehertuta eta abandonatuta ikusiz, eta konturatzen da ez dela aski berak eta bere ikasleek duten indar apurra. Askoz esku gehiago behar dira lanerako giza mahasti eder baina ahaztu horretan. Gaur egun pilatzen ari dira pobrezia, gosea, gerrak, eskola eza, gaixotasuna edo ahanztura jasaten duten baztertuak. Estortsioan, esplotazioan eta indarkerian aritzen den pertsona gehiegi dago, eta bakearen mezulari gutxiegi, barkamenaren eta gorputz-arimek jaten ematen dien manaren igarleak eskas. Sendatzera eta askatzera bidalitako hamabi ikasleen taldea ugaritzen jarraitu beharrean gaude gaur egun, mahasti-jabeari mahastira langileak bidaltzeko otoiztuz.

Abendualdiko 2. astea

San Anbrosio Milangoa, *gotzaina eta eliz irakaslea*

Isaias profetaren liburutik 11, 1-10.

Egun hartan, kimu berri bat sortuko da Jeseren zuhaitz-ondotik, muskil berri bat loratuko haren zainetatik. Haren gainean Jaunaren espiritua kokatuko da: jakinduri eta adimen-espiritua; kontseilu eta sendotasun-espiritua; Jainkoa ezagutzen eta haren esaneko izaten irakatsiko dio. Ez du auzia itxuraz bakarrik erabakiko, ezta epaituko ere entzuten duenaz bakarrik. Zuzen erabakiko du apalaren auzia, eta zintzo epaituko herriko behartsuak. Bere ahoko zigorrak joko ditu gogorrek, bere ezpainetako arnasaz hilko gaizkileak. Zuzentasunak eta leialtasunak inguratuko dute, gerrikoak gerria bezala. Otsoa bildotsarekin biziko da, eta lehoi-nabarra antxumearekin etzango; txekorra eta lehoikumea elkarrekin larratuko dira, eta haurtxo bat izango da haien artzain. Behia eta hartza batera larratuko dira, eta haien umeak elkarrekin etzango; lehoiak eta idiak batera jango dute lastoa. Bularreko haurra suge-zulo ondoan jostatuko da, eta bularra utzi berriak bere eskua suge-gorriaren zuloan sartuko du. Nere mendi santu osoan ez da, ez gaitzik, ez hondamenik, ikusiko; Jaunaren ezagueraz beteko baita lurraldea, itsasoa urez beterik dagoen bezala. Egun hartan Jeseren zuztarreko muskil berria herrien ikurrintzat jarri dute; herriak haren bila etorriko dira, eta haren tokia ospetsua izango da.

Sal 71: Zuzentasuna garatuko da haren egunetan, eta bakea ugari betieran.

San Paulok erromatarrei 15, 4-9.

Senideok: Liburu Santuetan idatzia den gutzia gure ikasbiderako dago idatzia, geure eroapenaz eta Liburu Santuek ematen duten adoreaz itxaropenari eutsi ahal diezaiozun. Eroapenaren eta adorearen iturri den Jainkoak eman diezazuela elkar ongi hartzea, Jesu Kristok nahi bezala: bihotz batez eta aho batez gora dezazuen Jainkoa, Jesu Kristo

Abendualdiko 2. astea

San Anbrosio Milangoa, *gotzaina eta eliz irakaslea*

gure Jaunaren Aita. Horrela, bada, harrera on egiozue elkarri, Kristok zuei harrera on egin dizuen bezala, Jainkoaren aintzarako. Hau esan nahi dizuet: Juduen zerbitzari egin zela Jesu Kristo, arbasoei egindako agintzariak betetzen dituen Jainkoaren leialtasuna egiaztatzeko, eta, beste aldetik, harrera on egiten diela jentilei, Jainkoari aintza eman diezaioten, agertu dien errukiagatik. Honela baitio Liburu Santuak: Ospatuko zaitut atzerrietan, Jauna, goretsiko dut zure izena».

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 3, 1-12.

Egun haietan, Joan Bataiatzailea Judeako basamortuan agertu zen, hots eginez: «Bihotz berri zaitezte, hurbil da eta zeruetako erreinua». Honengatik esana zuen Isaiasek: «Mintzo bat oihuka ari da basamortuan: Urra ezazue bidea Jaunarentzat, zuzendu haren bidexkak». Joanez gamelu-larruzkoa zuen jantzia, eta gerrian, larruzko gerrikoa, eta matxinsaltoak eta basa-eztia zituen janari. Jerusalemetik, Judea osotik eta Jordan aldetik harengana joaten zen jende guztia; haiek aitortzen zituzten beren bekatuak, eta hark bataiatu egiten zituen Jordan ibaian. Baina Joanez, fariseu eta saduzear asko bere bataioa hartzera zetozkiola ikusirik, esan zien: «Sugekumeok! Nork irakatsi dizue, gainean duzuen haserreari ihes egiten? Eman itzazue bihotz-berritzeari dagozkion fruituak. Eta ez esan zeuen baitan: “guk Abraham dugu aita”. Hara zer esaten dizuedan: Jainkoak harri horietatik ere sor diezazkioke seme-alabak Abrahami. Ezarri diote aizkora zuhaitz hondoari; fruitu onik ematen ez duen zuhaitza, hondotik ebaki eta sura botako dute. Nik urez bataiatzen zaituztet, bihotz-berri zaitezten; nire ondoren datorrena, ordea, ni baino ahaltsuago da, ni ez bainaiz inor haren oinetakoak eramateko ere; hark Espiritu Santuaz eta suaz bataiatuko zaituzte. Eskuan dauka sardea; larraina garbituko du eta garia mandiora bilduko; lastoa, berriz, itzali ezin den suan erreko du».

Abendualdiko 2. astea

San Anbrosio Milangoa, *gotzaina eta eliz irakaslea*

Joan basamortutik mintzo zen. Basamortua Jaunarekin topo egiteko tokitzat zeukaten baina baita proba lekutzat ere. Hala izan zen exodoa Israelgo herriarentzat. Joan soil a zen jaten eta janzen eta horrek Jaunari lekua egiten uzten zion bere bizitzan. Ez zuen ezerk galarazten haren barruan Jainkoa izatea, ez zuelako ezerk ez estu lotzen ez desbideratzen. Hark bataiatzeak agindutako lurrera igarotzea esan nahi zuen, baina ibaiko uretan murgiltzeak hutsik zegoen bizitzara hiltzea esan nahi zuen eta zuzentasun eta askatasunezko bizitza berri bati heltzea. Mateoren ebanjelioak Abendualdi honetan eremua berdinduz bihotz-berritzea beharra gogorarazten digu. Jaunari bidea ematea da kontua, hari irekitzea. Abenduan bihotz-berritzeak txikiari arreta jartzea esan nahi du batez ere: ahul eta gaixoak zaintzea; adiskidetasuna bilatzea; kreaioa begiratu eta mirestea; elkartasuna eta harrera ona egitea; otoitz egiteko eta Jainkoaren Hitza edo espiritualtasun liburu bat lasai irakurtzeko tartea hartzea; besteekin atseginez hitz egitea; nonahi gaudela apal-apal laguntzea, garrantzirik eman gabe eta ezereen aitortzarik eskatu gabe; nork bere burua maitatzea baina harrotu gabe. Abendua txikia denari kasu egitea da, Jesus txikia iristen denean haren presentzia xumearekiko sentibera izateko.

* * *

«Topaketaren aldeko prozesuak abiaraztea da kontua, desberdintasunak gobernatzen dakien herria eraikitzeke. (...) Hauxe da esaten ari garenaren ondorioa: besteari beti bera eta beti desberdina izateko duen eskubidea aitortzera ohitu behar dugula» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 217-218).

Abendualdiko 2. astea
ANDRE MARIA SORTZEZ GARBIA

Hasiera liburutik 3, 9-15.20.

Adamek zuhaitzetik jan ondoren, Jainko Jaunak dei egin eta esan zion: «Non zara?». Hark erantzun: «Zure oin-hotsa baratzean entzun dudanean, beldurtu eta gorde egin naiz, larrugorri nengoelako». Jainkoak esan zion: «Eta zeinek jakinarazi dizu larrugorri zeundela? Galarazi nizun zuhaitzeko fruitua jan al duzu?». Gizonak erantzun: «Laguntzat eman didazun emakumeak eskaini dit fruitua, eta jan egin dut». Orduan, Jainko Jaunak esan zion emakumeari: «Zer egin duzu?». Emakumeak erantzun: «Sugeak engainatu nau eta jan egin dut». Orduan, Jainko Jaunak esan zion sugeari: «Hori egin dualako, madarikatua izango haiz abere guztien eta basapiztia guztien artean; sabel gainean ibiliko haiz arrastaka eta hautsa jango duk heure bizitzako egun guztietan. Elkarren etsai egingo zaituztet hi heu eta emakumea, hire eta haren ondorengoa; honek burua zapalduko dik, eta hik orpotik helduko diok». Gizonak bere emazteari «Eva» ezarri zion izena, bizidun guztien ama delako.

Sal 97: Kanta Jaunari kantu berri, egin baititu hainbat harrigarri.

San Paulok Efesoarrei 1, 3-6.11-12.

Bedeinkatua izan bedi Jainkoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita, zeruan, Kristoren bitartez, Espirituaren era guztietako ondasunez bedeinkatu gaituena! Kristogan aukeratu gintuen, mundua sortu baino lehen, santu eta errugabe izan gaitezen beraren aurrean, maitasunez. Bere onginahiak eraginda aurrez zuen erabakia, Jesu Kristoren bitartez gu seme-alabatzat hartzea, bere Seme maiteagan eskuzabal eman digun dohain zoragarria gorespen-kantu bihur dadin berarentzat. Kristoren bitartez gara oinordeko gu ere, israeldarrok, lehendik Mesiasengan itxaroten genuenok, gauza guztiak berak nahi bezala egiten dituen Jainkoak aurrez aukeratu baikaitu bere asmoaren arabera, beraren aintzaren gorespen-kantu izan gaitezen.

Abendualdiko 2. astea

ANDRE MARIA SORTZEZ GARBIA

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 26-38.

Aldi hartan, Gabriel aingerua bidali zuen Jainkoak, Nazaret zeritzan Galileako herri batera, birjina batengana; birjinak Maria zuen izena eta Jose zeritzan Daviden jatorriko gizon batekin ezkontzeko hitz emana zegoen. Aingeruak, Mariaren etxean sartu eta esan zion: «Poztu zaitez, graziaz bete hori! Jauna zurekin». Ikaratu zen Maria hitz haiek entzutean, eta pentsatzen jarri zen, zer izan ote zitekeen halako agur hura. Aingeruak esan zion: «Ez beldur izan, Maria; Jainkoak gogoko zaitu. Begira, sabelean sortu eta semea izango duzu, eta “Jesus” ipiniko diozu izena. Handia izango da; Goi-goikoaren Seme deituko diote, eta Jainko Jaunak bere aita Daviden errege-aulkia emango dio; Jakob en herriaren errege izango da beti, eta haren erregetzak ez du azkenik izango». Mariak esan zion aingeruari: «Nola gerta daiteke hori, ez bainaiz inongo gizonekin bizi». Aingeruak erantzun zion: «Espiritu Santua jaitsiko da zugana eta Goi-goikoaren indarrak bere itzalpean hartuko zaitu; horregatik, zugandik jaioko dena santua izango da eta Jainkoaren Seme deituko diote. Hara, Elisabet zure ahaidea ere haurdun dago bere zaharrean, eta sei hilabeteko dago agorra omen zena; Jainkoarentzat ez baita ezer ezinik». Mariak, orduan: «Hona hemen Jaunaren mirabea; gerta bekit zuk diozun bezala». Eta aingeruak utzi egin zuen.

Mariaren handitasuna ospatzen dugu gaur, garbi izatea: orbainik gabeko emakumea, bekaturik gabea. Gu bezalako gizakia, bere bizitzan Jainkoari bidea eman diona, bere bitartez azal dadin. Mariaren sabelean hazi zen Jesus. Berak eman zion bizia, arnasa, jana, heziketa. Jesusek funtsezko zer bait du Mariarena, horregatik da haren semea. Aingeruak Mariari «Agur, Jainkoaren gogoko hori! Jauna zurekin» esan dio lehenik. Emakume ederra da Maria, Jainkoak bedeinkatua. Hala dela jakingo du bizitza guztian zehar, Jainkoak graziaz, onginahiz betea. Bedeinkatuak maitatua esan nahi du, zaindua eta txera bereziz tratatua. Hau gure festa ere bada. Gu ere bedeinkatuak garela

Abendualdiko 2. astea
ANDRE MARIA SORTZEZ GARBIA

gogorarazten digu, hau da, maitatuak, bereziak Aitaren aurrean, haren seme-alabak. Ona eta dohainak ugari eman dizkigu. Eta gure baitan den Jainkoari, gure barru-barruan denari, gure bizitzan bere ontasunean ager dadin laguntzera gonbidatuta gaude. Gizaki ororen barnean bada zerbait garbia, barru sakon bat ukiezina dena, guztiz garbia, bere aurpegi egiazkoena aurkitzen dena. Jainkoa bera bizi da gure barnean, gure benetako izaera emanez, ontasunez, lautasunez eta eskuzabaltasunez egina den nortasuna.

* * *



Albiztur. Erretablea.

Isaias profetaren liburutik 40, 1-11: Jainkoak bere herria kontsolatu.

Sal 95: Hara, indarrez jantzia etorriko da gure Jainkoa!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18, 12-14.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zer deritzozue? Gizon batek ehun ardi baldin baditu eta bat galtzen bazaio, ez al da laurogeita hemeretziak mendian utzi eta galdutakoaren bila joango? Eta aurkitzen badu, benetan diotsuet, poz handiagoa izango du bakar harengatik, galdu ez diren laurogeita hemeretziengatik baino. Era berean, zeruko zuen Aitak ez du nahi txiki hauetako bat ere galtzerik».

Jainkoarentzat ez dago arreta merezi ez duen inortxo ere, ez dago hutsaren hurrengorik, eta ez du galdutzat jotzen noraezean dabilen bat bera ere. Guk alde batera utzi ohi ditugu gauza batzuk, iraungita daudela iruditzen zaigulako, etorkizunik ez dutelakoan. Jainkoarentzat, ordea, gizaki guztiek dute etorkizuna, horregatik dago beti irekita bigarren aukerarako atea. Eta Jesusek diosku Aitari berebiziko poza ematen diola gizaki bakoitza oneratzeak. Ahaztutako eta baztertutako guztiek gizadian berriro txertatzeko parada aurkitzen dute Jainkoagan, berak ez baitu sekula etsitzen. Jainkoaren zentzua guztiongatik, batez ere azkenak diren seme-alabengatik, ahaleginak eta bi egiten dituen gurasoaren zentzu bera da. Gu ere haien artean hartuko gaitu eta sendi bakarra osatuko dugu.

Abendualdiko 2. astea

Santa Eulalia Meridakoa, *birjina eta martiria*

Isaias profetaren liburutik 40, 25-31: Jainko ahalguztidunak ematen dio nekatuari adorea. **Sal 102:** Bedeinka beza nire arimak Jauna!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11, 28-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Zatozte nigana nekatu eta zamatu guztiok, eta Nik arinduko zaituztet. Hartazue nire uztarria eta ikasi nigandik, gozoa eta bihotz-apala bainaiz, eta aurkituko duzue zeuen arimentzako atsedena. Nire uztarria leuna baita, eta nire zama arina».

Arduratzen garen gauzengatik eta pertsonengatik nekea eta etsipena, kezka eta larria sentitzea, gure bizitzako alderdietako bat da eta horrekin bizi gara. Batzuetan itota senti gaitezke, edo irteerarik gabeko kale-zuloetan itxita bageunde bezala. Halakoetan, bakardade gorrian aurkitzen garela uste izan dezakegu. Orduan ukendu bihurtzen zaizkigu Jesusen hitzak, bake eta atsedeen iturri. Haren laguntasunak arindu eta baretu egiten gaitu, baketu eta atsedendu. Ez dio axola Jesusi jarraitzeak giza bizitzari zama gehitzea, guztiak zentzu berria hartzen baitu eta Jauna lagun izateak indarberritu egiten baikaitu biderako. Behin eta berriz entzun behar ditugu arnasberritzen gaituzten haren hitzak.

* * *

«Munduko leku askotan behar dira zauriak ixteko moduko bake-bideak, bai eta bakegile zorrotz eta ausartak ere, sendabideak eta elkarguneak bilatzeko prest daudenak» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 225).

Abendualdiko 2. astea

San Damaso, 37. *aita santua*

Isaias profetaren liburutik 41, 13-20: Ni Neu nauzu lagun, Israelgo Santua. **Sal 144:** Errukiorra eta bihozbera da Jauna, haserregaitza eta onginahiz betea.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11, 11-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Egiaz diotsuet: Ez da sortu amaren semerik Joan Bataiatzailea baino handiagorik. Hala ere, zeruetako erreinuan txikiena, hura baino handiago da. Joan Bataiatzailea agertu zen egunetatik gaurdaino, zeruetako erreinua indarrez hartzen da, eta indar egiten dutenek eskuratzen dute. Profeta guztien eta Moisesen agintzarien garaia Joan Bataiatzailearekin bukatu da. Joan hau da etortzekoa zen Elias, nahi baduzue onartu. Belarririk duenak entzun beza».

Itun Zaharreko azken profeta da Joan. Herria Jainkoaren nobedaderako prestatzen saiatzen da. Bihotz-berritzea eta damua hots egiten ditu eta Jordanen murgiltzen ditu penitentziagileak, beren bekatuak ur santuan ito eta errukizko eta Jainkoari begirunea dion bizitza berrira jaiotzeko. Berriz jaiotzeko igarotze erritu bat. Jesus da Joanen hurrengoa, errukiaren Jainkoa hots egingo duena, seme-alaba txikienez kupitzen dena eta guri opari ematen zaiguna, geu ere geure burua dohain emanez bizitzeko. Penitentziazatik ospakizunera; ikaratik konfiantzara: urrats bat dago Joanen eta Jesusen artean, baina baita leize bat ere. Joanek inoiz aitortu ahal izan zuen baino bizi gehiago hartu dute Erreinuko seme-alabek.

Isaias profetaren liburutik 48, 17-19: Nire aginduak aintzakotzat hartuko bazenitu! **Sal 1:** Zuri jarraitzen dizunak, Jauna, izango du bizirako argia.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11, 16-19.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Zeinen antzekoa dela esango nuke gizaldi hau? Plazan eserita dauden haurren antzekoa da; honela oihu egiten baitiete batzuek besteei: “Soinua jo dizuegu, eta zuek dantzarik ez; hiletak jo, eta zuek aienerik ez”. Izan ere, etorri zen Joan Bataiatzailea, ez jan ez edan egiten ez zuela, eta deabruak harturik dagoela diote. Etorri da Gizonaren Semea, jaten eta edaten duela, eta honela diote: “A zer tripazaina eta mozkorra, zergalari eta bekatarien adiskidea”. Baina egiteek Jainkoaren jakinduriari eman diote arrazoia».

Jesus harrituta dago Jainkoaren deiari herriak egiten dion aurkako indarragatik, dei hori ez baita eduki zehatzen araberakoa. Dei horrek bihotz-berritzera eta penitentziara daramanean, Joan Bataiatzaileak bezala, urrutitik begiratzen dute, ezinezkoa iritzita; ospatzera eta baztertuak elkartean hartzera deitzen duenean, Jesusek bezala, kritikatu egiten dute, mespretxuz. Jainkoaren presentzia eta jarduera haien ondotik igarotzen da, baina entzungor egiten diote. Begiratu, epaitu eta inoiz erantzuten ez deiari. Gaur egun ere hoska ari da Jainkoaren deia eskuzabalak izateko, fedearen eta justiziaren alde lan egiteko, mundu zuzenago baten alde ari direnekin batera jarduteko... Prestatuko ote gara beraiekin dantza egitera edo negar egitera?

Abendualdiko 2. astea

Santa Luzia, *birjina eta martiria*San Eugenio, *martiria*

Siraken liburutik 48, 1-4, 9-11: Berriz etorriko da Elias. Sal 79: Jainko, berpiztu gaitzazu; salba gaitezen, zeure begia leun ager ezazu.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 17, 10-13.

Menditik jaistean, galdetu zioten ikasleek Jesusi: «Nola diote lege-maisuek, lehenbizi Eliasek etorri behar duela?». Jesusek erantzun zien: «Bai, Eliasek etorri behar zuen eta gauza guztiak eraberritu. Baina hara zer diotsuedan: Elias etorria da, eta ez dute aintzat hartu, baizik eta nahi izan duten guztia egin diote. Era berean, Gizonaren Semeak ere oinazeak jasango ditu horiengandik». Orduan konturatu ziren Joan Bataiatzaileaz ari zitzaiela.

Joan Itun Zaharreko profeta handien arrastoan dabil, usteldutako eta bidegabeko sistema kritikatzek kartzelara eramango du eta handik heriotzara. Antzeko zerbait gertatuko da Jesusekin, estortsioaren eta esplotazioaren gainean eraikitako gizarte eta erlijio antolaketa salatzen duen errukiaren Jainkoarekin. Bortitzen atzaparretan eroriko dira biak. Bada zerbait egiazko fede-bizitzan heriotzaren dinamikak biluzten dituen, inbidia eta gorrotoa piztuz eta erasoa lehertuz. Gure munduko baztertuen kausekin bat egitean haien zoriaren puska bat hartuko dugu bizkarrean, barrutik beteko gaitu baina kanpotik zaurituko. Hala gertatu zitzaion Joani eta halaxe Jesusi ere.

* * *

«Egiak lagun bereizezinak ditu justizia eta errukia. Hirurak batera funts-funtsezkoak dira bakea eraikitzeko. (...) Egiak ez luke mendekurik ekarri behar, adiskidetzea eta barkamena baizik» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 227).

Abendualdiko 3. astea

Gurutzeko San Joan, *apaiza eta eliz irakaslea, karmeldarra*

Isaias profetaren liburutik 35, 1-6a.10.

Poztu bitez basamortua eta lur elkorra, alai bedi eremua, eta lilia bezala loratu, jantzi bedi lorez eta egin beza irrintzi eta jauzi pozaren pozez. Libano bezain zoragarri eta Karmel mendia eta Xaron lautada bezain eder bihurtuko dira. Ikusiko dute Jaunaren aintza, gure Jainkoaren edertasuna. Indar itzazue esku ahulduak, sendotu belaun makalduak; esan bihotz-beldurtiei: «Eutsi gogor! Ez beldur izan! Horra zuen Jainkoa! Hura bera dator zuek salbatzera eta merezia duten zigorra etsaiei ematera». Orduan, itsuen begiak irekiko dira eta gorren belarriak zabalduko; herrenak basahuntzak bezala jauzi egingo du eta mutuaren mihiak oihu egingo pozez. Jaunak askatuak pozez kantari etorriko dira Sionera: amaigabeko alaitasuna haien aurpegian! Poza eta alaitasuna izango dituzte lagun. Nahigabeak eta negarrak ihes egingo dute.

Sal 145: Zatoz, Jauna, eta salba gaitzazu.

Santiago apostoluaren gutunetik 5. 7-10.

Senideok: Izan ezazue pazientzia Jaunaren etorrera arte. Begira nekazariari: lurraren fruitu ederraren zain egoten da eta pazientziaz itxaroten ditu garaiz datorren euria eta berandu datorrena. Izan pazientzia zuek ere eta egon sendo, laster etorriko baita Jauna. Senideok, ez ibili bata bestearen aurka marmarka, kondenatu ez zaitzaten; begira, epailea ate-atean da. Senideok, har itzazue sufrimenduaren eta pazientiaren eredutzat Jaunaren izenean hitz egin zuten profetak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11, 2-11.

Aldi hartan, Joan Bataiatzaileak, kartzelan Kristoren egiteen berri izanik, bere ikasle batzuk bidali zizkion galdetzeraz: «Zu al zara etortzekoa ala besteren baten zain egon behar dugu?». Jesusek

Abendualdiko 3. astea

Gurutzeko San Joan, *apaiza eta eliz irakaslea, karmeldarra*

erantzun zien: «Zoazte eta esan Joani entzuten eta ikusten duzuen: itsuek ikusten dute eta herrenak badabiltza, legendunak garbi gelditzen dira eta gorrek entzuten dute, hilak pizten dira eta behartsuei Berri Ona hots egiten zaie. Eta zorionekoa nigatik erorbide hartzen ez duena!». Haiek alde egitean, Joanez mintzatzen hasi zitzaion Jesus jendeari: «Zer ikustera atera zineten basamortura? Haizeak astintzen duen kanabera? Edota zer ikustera atera zineten? Apain jantzitako gizona? Apain janzten direnak errege-jauregietan egoten dira. Zer ikustera atera zineten, bada? Profetaren bat? Baietz diotsuet, eta profeta baino ere handiago dena. Horretaz dago idatzia Liburu Santuan: “Begira, neure mezularia bidaltzen dut zure aurretik, zuri bidea prestatzera”. Egiaz diotsuet: Ez da sortu amaren semerik Joan Bataiatzailea baino handiagorik. Hala ere, zeruetako erreinuko txikiena hura baino handiago da».

Giltzapean dela, Joan Bataiatzailea harremanetan izango da Jesusi buruz mintzo zaizkion ikasleekin. Hartaz entzuten duenak nahastuta uzten du. Uste zuen Jesus Mesias zela, baina hartaz esaten dutena ez dator bat. Izan ere, Joanen ustez, Mesiasak zuzena egingo zuen, «lastoa itzaltzen ez den suan erre», Israelgo erreinua berriz ezarri arte eta zapaltzaileei merezi dutena emanez. Beraz, hausnartzeari ekiten dio ziegan eta hor dago, zalantza beteta. Horregatik bidaliko ditu bere ikasleak Jesusi aurrez aurre galdetzeraz ea bera den Mesias, edo besteren baten zain egon behar duten. Jesusek harritu egiten du, bera berri ona da: berarekin itsuek ikusi egiten dute, eta herrenak badabiltza; legendunak garbi gelditzen dira eta gorrek entzun egiten dute; hilak piztu egiten dira eta behartsuei berri ona ematen zaie. Ez du justizia zorrotzik ezartzen, alderantziz baizik, ontasunaren eta errukiaren profeta da. Joanez irudikatzen zuen Mesias zigortzailearen aldean bestelakoa zen Jesus, errukiaren profeta. Joan nahastuta geratu izango zen. Abenduan ustekabeko Jainkoaren zain gaude, Jainko xamur eta txikiaren esperoan, aldez aurretik eta barru-barruan sartuta dauzkagun ideiei aurre egiten diena. Berri Ona hain da harrigarria ezen, galduko ez bagara, atzera hari zabalik jarri beharrean gertatzen baikara.

Abendualdiko 3. astea

Santa Silvia, aitorlea

San Valeriano, gotzaina

Zenbakiak liburutik 24, 2-7.15-17: Izar bat aterako da Jakoben herritik. Sal 24: Erakutsi niri, Jauna, zeure bideak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 21, 23-27.

Aldi hartan, Jesus tenplura etorri eta, irakasten ari zela, apaizburuak eta herriko zaharrak hurbildu zitzaizkion, galdezka: «Zein aginpidez egiten duzu hori? Nork eman dizu aginpide hori?». Jesusek erantzun zien: «Nik ere gauza bat galdetuko dizuet; erantzuten badidazue, Nik ere esango dizuet zein aginpidez egiten dudan hori. Joane noren aginduz bataiatzen zuen: Jainkoaren aginduz ala gizakien aginduz?». Haiek beren baitan zioten: «Jainkoaren aginduz ari zela esaten badugu, zergatik sinetsi ez genion esango digu. Eta gizakien aginduz ari zela esaten badiogu, berriz, jendearen beldur gara, guztiek profetatzat baitaukate Joan». Beraz, hau erantzun zioten Jesusi: «Ez dakigu». Jesusek, orduan, esan zien: «Nik ere ez dizuet, bada, esango zein aginpidez egiten ditudan gauza hauek».

Zaharrek Jesusi egiten dioten galdera ez da parte onekoa, lazoan harrapatu nahi dute. Jesus, ordea, ez da alferrikako elkarrizketan hasiko. Joane zeinen aginduz jarduten zuen galdetzen die, ondo dakielarik mespretxatu eta baztertu egin dutela, nahiz eta herriak gurtu, eta hil ostean are gehiago, gainera. Ez dute erantzun nahi. Hortaz, beraiek ere ez dute Jesusen aginpideaz erantzunik izango. Egiaz, Jesusek Aitaren aurrean bakarrik erantzuten du, hura du bere nagusi bakarra, hari bakarrik ematen dizkio kontuak. Bitxia bada ere, Aitaren aginte errukitsu eta xamur horrek eramango du leku humano bakarra zapal-zapal egindako pertsonengan aitortzera, horien aurrean bakarrik jarriko da hankutsik, horiek gurtuko ditu eta beraiekin konprometituko da.

Abendualdiko 3. astea

San Agrikola, *martiria*Santa Adelaida, *enperadorea*

Sofoniasen Profezia liburutik 3, 1-2.9-13: Mesiasengandiko salbamena behartsu guztiei agindu. **Sal 33:** Dohakabeak oihu egin zuen, eta Jaunak entzun.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 21, 28-32.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apaizburu eta herriko zaharrei: «Zuek zer deritzozue? Gizon batek bi seme zituen; batarengana joan eta esan zion: “Seme, zoaz gaur mahastira, lanera”. Hark erantzun: “Ez dut nahi”. Baina gero damutu eta joan egin zen. Bestearengana ere joan eta gauza bera esan zion. Eta hark erantzun: “Banoa, jauna”; baina ez zen joan. Bietan zeinek egin zuen aitaren nahia?». «Lehenengoak», erantzun zioten. Orduan, Jesusek esan zien: «Egiaz diotsuet: Zergalariak eta emagalduak zuek baino lehenago sartuko dira Jainkoaren erreinuan. Izan ere, etorri zitzaizuen Joan Bataiatzailea Jainkoaren nahiari dagokion jokabidea hots eginez, eta ez zenioten sinetsi; zergalariak eta emagalduak, berriz, sinetsi egin zioten. Zuek, ordea, ikusi eta gero ere, ez zineten bihotz-berritu, hari sinesteko».

Bizitzeko bi jarrera agertzen dizkigu ebanjelioak, ondo ezagunak. Agintzen dionari inoiz kontra egin ez, baina esana betetzen ez duenarena, eta pertsona zintzoarena, batzuetan egoskorra, gauzak bi aldiz pentsatzeko gai dena eta eskatzen diotena egiten duena. Itxurazkoa ez da beti egiazkoa izaten. Jesus gauza da pertsonen egia ikusteko, aldatzeko duten prestasuna, beren giza ezpala. Zergalari nahiz bizimodu txarreko jende artean ezagutzen du gaitasun hori eta, aldiz, herri agintariak hutsik ikusten ditu. Bihotza samurtzeko premia daukagu gaur egun ere, bihotz-berritze, ontasun eta zuzentasunerako Jainkoaren deia aurrean lozorroan dugun gizatasuna esnatzeko beharra.

Azarias, Ananias, Misael (Itun Zaharrekoak), *martiriak*.
 San Juan de Mata, *apaiza, fundatzailea San Felix de*
*Valoisekin batean (trinitarioak)**

Hasiera liburutik 49, 1-2.8-10: Errege-makila ez da Judagandik aldenduko. **Sal 71:** Zuzentasuna garatuko da haren egunetan, eta bakea ugari betieran.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 1, 1-17.

Abrahamen eta Daviden ondorengo den Jesu Kristoren jatorri-liburua. Abrahamek Isaak sortu zuen, Isaakek Jakob, Jakobek Juda eta haren senideak; Judak Tamarrengandik Fares eta Zara sortu zituen, Faresek Esrom, Esromek Aram, Aramek Aminadab, Aminadabek Naason, Naasonek Salmon; Salmonek Rahabengandik Booz sortu zuen, Boozek Rutengandik Obed, Obedek Jese, Jese David erregea. Davidek Uriasen emazte izanagandik Salomon sortu zuen, Salomonek Roboam, Roboamek Abia, Abiak Asaf, Asafek Josafat, Josafatek Joram, Joramek Ozias, Oziasek Joatam, Joatamek Akaz, Akazek Ezekias, Ezekiasen Manases, Manasesek Amon, Amonek Josias; Josiasen Babiloniako erbetealdian Jekonias eta haren senideak sortu zituen. Eta Babiloniako erbetealdi ondoren, Jekoniasen Salatiel sortu zuen, Salatielek Zorobabel, Zorobabelek Abiud, Abiudek Eliakim, Eliakimek Azor, Azorrek Sadok, Sadokek Akim, Akimek Eliud, Eliudek Eleazar, Eleazarrek Matan, Matanek Jakob; Jakobek, berriz, Jose sortu zuen, Mariaren senarra, eta Mariagandik jaio zen Jesus, Kristo deritzana. Beraz, hamalau gizaldi izan ziren guztira Abrahamengandik Davidenganaino, hamalau gizaldi Davidengandik Babiloniako erbetealdiraino, eta hamalau gizaldi Babiloniako erbetealdiraino Kristoganaino.

Jesus giza katebegi luze baten buruan jaioko da, bere aurrekoek eta kultura judua moldatu zutenek osatua. Pertsona haien artean

* San Jose Manyanet, *apaiza eta fundatzailea*

historia ederrak aurkitzen dira, baina baita eskas askoak ere edo bekatuak eragindakoak. Pertsona haiek guztiak beharrezkoak izan ziren Jesus jaio zedin, inor ez zen sobera. Jainkoa gure lokatz artetik ari da salbamena eraikitzen, ezer bota gabe, guztia gizadiarentzako onginahi bihurtuz. Izan garena osoki hartzen du Jesusek, iraganeko hauskortasunari muzin egin gabe, ezta pasatako miseriari ere, eta bere baitan dena salbatu eta burutuko dela ziur egoteko konfiantza ematen digu. Abraham, Yahveren seme maitearengan hasitako promesa Jesusengan burutuko da, Aitaren seme kuttunarengan.

* * *

«Sufrimendu bidegabe eta krudel asko pairatu behar izan duenari ezin zaio, nolabait esatearren, barkamen sozialik eskatu. (...) Nolanahi dela ere, ahanztura da sekula eta inola inposatu beharko ez genukeena» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 246).

* San Jose Manyanet, *apaiza eta fundatzailea*

Abendualdiko 3. astea

Itxaropenaren Andre Maria

San Modesto, *patriarka, Jerusalemen berritzailea*

Jeremias profetaren liburutik 23, 5-8: Legezko muskila sortuko diot Davidi. **Sal 71:** Zuzentasuna garatuko da haren egunetan, eta bakea ugari betieran.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 1, 18-24.

Jesu Kristoren sortzea honela gertatu zen: Maria, Jesusen ama, Joserekin ezkontzeko hitzemanen zegoen eta, elkarrekin bizi izan baino lehen, haurdun gertatu zen Espiritu Santuaren egitez. Josek, Mariaren senarrak, gizon zintzoa baitzen eta ez baitzuen bere emaztea salatu nahi, hura isilean uztea erabaki zuen. Baina asmo hori gogoan zerabilela, Jaunaren aingerua azaldu zitzaion ametsetan eta esan zion: «Jose, Daviden ondorengo hori, ez beldur izan zeure emazte Maria etxean hartzeko, honengan sortua Espiritu Santuagandik baitator. Semea izango du, eta zuk “Jesus” ipiniko diozu izena, hark salbatuko baitu bere herria bekatuetatik». Hau guztia Jaunak profetaren ahoz esandakoa bete zedin gertatu zen: «Begira, birjinak sabelean sortu eta semea izango du, eta Emmanuel ipiniko diote izena (izen honek “Jainkoa gurekin” esan nahi du)». Josek, lotatik esnatu zenean, Jaunaren aingeruak agindu bezala egin zuen, eta bere etxean hartu zuen emaztea.

Nahiko lan du Jose gizajoak, barrena zalantzan, bi indar tiraka: Maria salatzea eta harrika hiltzea agintzen duen gizartearen antolamendua, edo Mariaz errukitzea eta etxean emaztetzat hartzea. Buruak, gogor, alde batera bultz egiten zion; bihotzak, gupidaz, beste aldera. Ametsetan bakarrik, arrazoiaren defentsa guztiek amore ematen dutenean, agertu zen argi eta garbi Jainkoaren ahotsa aingeruaren bitartez, misio bat emanez: har zitzala Maria eta haren semea. Josek fina zela erakutsi zuen entzuteko gai izan zenean, eta otzana, enkargu hura onartzean. Joserengandik hartu zuen Jesusek izena, «Jainkoak salbatzen du», beste izen batekin batera ageri dena, Emmanuel, «Jainkoa gurekin». Jainkoa gugana dator, gure artean betiko geratzeko.

Abendualdiko 3. astea

San Dario, *martiria*Santa Protasia, *birjina*. San Urbano V.a, 200. *aita santua*.San Anastasio I.a, 39. *aita santua*

Epaileak liburutik 13, 2-7.24-25a: Aingeruak Samsonen jaiotza iragarri. **Sal 70:** Zure gorespenaz betea nuen ahoa zure ospea kantatzeko.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 5-25.

Judeako errege Herodesen egunetan, bazen Zakarias izeneko apaiz bat, Abiaren apaiz-sailekoa; haren emaztea Aaronen ondorengoa zen eta Elisabet zuen izena. Biak zintzoak ziren Jainkoaren aurrean, eta Jaunaren agindu eta lege guztiak huts egin gabe betez bizi ziren. Ez zuten haurrik, agorra baitzen Elisabet eta biak urteetan aurreratuak. Behin batean, Zakarias bere sailekoekin Jainkoaren aurrean apaiz-zerbitzua egiten ari zelarik, Jaunaren santutegian sartzea egokitu zitzaion, apaizen ohituren arabera, intsentsua eskaintzera. Intsentsua eskaintzen ari zen bitartean, herri osoa otoitzean ari zen atarian. Hartan, Jaunaren aingerua agertu zitzaion Zakariasi, intsentsu-aldarearen eskuinaldean zutik. Hura ikustean, izutu zen Zakarias eta beldurrak hartu zuen. Aingeruak, ordea, esan zion: «Ez beldur izan, Zakarias, entzun baitu Jainkoak zure eskaria. Zure emazte Elisabetek semea emango dizu, eta zuk “Joan” ipiniko diozu izena. Poz handia izango da zuretzat, eta haren jaiotzak jende asko poztuko du, handia izango baita Jaunaren aurrean. Ez du edango ardorik, ez edari bixigarririk. Espiritu Santuaz beteko da amaren sabelean bertan. Israeldar asko bihurtuko du Jaunagana, bere Jainkoagana; Jaunaren aurretik etorriko da, Eliasen espirituaz eta indarrez, gurasoak seme-alabekin adiskidetzeko, bihurriei zintzoen sena emateko eta Jaunarentzat herri egokia prestatzeko». Zakariasek esan zion aingeruari: «Nola jakin dezaket hori gertatuko dela? Ni zaharra bainaiz, eta nire emaztea ere urteetan aurreratua». Aingeruak erantzun zion: «Ni Gabriel naiz, Jainkoaren aurrean zerbitzari nagoena; hark bidali nau zuri hitz egitera, berri on hau emateko. Baina begira, mutu geldituko zara, hitz egin ezinik, hauek gertatu artean, ez baitituzu sinetsi nire hitzak, bere

garaian beteko diren hitzak». Bitartean, herria Zakariasen zain zegoen, harriturik, santutegian hainbeste luzatzen zuelako. Atera zenean, ezin zien hitz egin, eta ohartu ziren ikuskariren bat izan zuela santutegian. Bera keinuka ari zitzaien, mutu jarraitzen baitzuen. Tenpluko bere zerbitzu-egunak bukatuta, etxera joan zen. Egun batzuen buruan, haren emazte Elisabet haurdun gelditu zen; bost hilabetez etxetik atera gabe egon zen, eta bere baitarako zioen: «Hara zer egin duen Jaunak nire alde, jendearen aurrean nuen lotsa kendu nahi izan duenean».

Aginte erlijioso juduaren erdian Jainkoaren promesa sortzen da, bizi berri baten agintzaria, Joanez iragarria, herri osoarentzako misio batekin: “pronto dagoen herria prestatzea”. Iragarpena emeki-emeki doa bidea urratzen eta Bataiatzailearengan beteko da, artean sortu gabea, gero hazi, heldu eta profeta bihurtzekoa zena. Bien bitartean, itxaron egin behar da eta sinetsi, Zakarias hainbeste kostatzen zaiona, izan ere bere bizipenak esaten dio kontuz ibiltzeko aingeruaren hitzekin. Hala ere, pozik izango da eta gozatuko du, berak ere biziko du Espiritu Santuaren presentzia, bere semearen baitan dagoena. Jainkoaren hitzak inguratuko du bera ere, iristen ari den Jainkoaren salbamenean esku hartzeko.

Abendualdiko 3. astea

Domingo santua, Silos-koa, *abadea***Isaias profetaren liburutik 7, 10-14:** Begira, birjina haurdun dago.**Sal 23:** Badator Jauna: bera da errege ospetsua.**Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 26-38.**

Handik sei hilabetera, Gabriel aingerua bidali zuen Jainkoak, Nazaret deritzan Galileako herri batera, birjina batengana; Daviden etxeko Joserekin ezkontzeko hitzeman zegoen birjina, eta Maria zuen izena. Aingeruak, haren etxean sarturik, esan zion; «Poztu zaitez, graziaz bete hori: Jauna zurekin». Ikaratu zen Maria, hitz haiek entzutean, eta pentsatzen jarri zen, zer izan ote zitekeen halako agur hura. Aingeruak, orduan: «Ez izan beldurrik, Maria; Jainkoaren ederra aurkitu duzu. Begira, sabelean sortu eta semea izango duzu; eta “Jesus” ezarriko diozu izena. Handia izango da; Goi-goikoaren Seme deituko diote, eta Jainko Jaunak haren aita Daviden errege aulkia emango dio; Jakoben etxean errege izango da beti, eta haren erregetzak ez du azkenik izango». Mariak orduan aingeruari: «Nola izan daiteke hori? Nik ez baitut ezagutzen gizonik». Eta aingeruak: «Espiritu Santua jaitsiko da zugana, eta Goi-goikoaren indarrak bere itzalpean hartuko zaitu; horregatik, zugandik jaioko den Santuari, Jainkoaren Seme deituko diote. Hara, zure ahaide Elisabet ere, bere zaharrean, haurdun dago; eta agorra omen zena seigarren hilabeteko dago; Jainkoarentzat ez baita ezer ezinik». Mariak orduan: «Hona hemen ni, Jaunaren mirabea; gerta bekit, zuk diozun bezala». Orduan aingeruak utzi egin zuen.

Munduko azken bazterreko herrixka urrun bateko emakume gazte bati baimena eskatuz sartzen da Jainkoa gure historian. Hantxe aurkituko du Jesusek maitasuna, harrera eta bakea. Jainkoak bedekatu egiten du emakume hura, Jainkoak berak egin ohi duen eran, bere presentzia oparituz, eta handik aurrera ez du inoiz utziko. Aingeruak esaten dio ez beldurtzeko eta pozteko, horra Jainkoaren presentzia hori gure bizitzan hartzeko modu bakarra. Maria bere

Abendualdiko 3. astea

Domingo santua, Silos-koa, *abadea*

Jaunaren zerbitzari egingo da, bere bizitza osotoro emanaz handik aurrera eta betiko. Lehenik ama izango da, gero ikaslea, bere sabelean gizaki egindako Jaunaren jarraitzailea. Horrela, Jainkoaren asmo salbatzaileara bilduko da Maria, bere bizitzatik eta bere semearenetik igaroko dena.

* * *

Prozesio luzea

Etzazue holakorik egin, etzazue holakorik egin.

Jesus bakarra da.

Etzazue inor jarri Haren ondoan,
ezta Maria ere.

Baina Maria lehena da,
garaiena eta handiena.

Zuen hizkera ulergaitza zaigu.
Ez dago gloriarik ez handitasunik Jesusen etxean.
Bai, oster, maitasuna ugari eta sakrifizioa,
leialtasun handiak eta lana,
lan asko bere kausan irauteko.

Baina ahots batez esan dezakegu, bai:
Lehena dohain bat hartzen.
Lehena ematen.

(Patxi Loidi)

Abendualdiko 4. astea

San Pedro Canisio, *apaiza eta eliz irakaslea, jesuita*

Isaias profetaren liburutik 7,10-14.

Egun haietan, mezu hau eman zion Jaunak Akaz erregeari Isaias profetaren bidez: «Eska iezaiozu Jaunari, zeure Jainkoari, ezaugarri bat zeuretzat, lurraren barrenean nahiz zeruen goienean». Akazek erantzun zion: «Ez dut ezaugarririk eskatuko, ez dut tentatuko Jauna». Orduan Isaiasek esan zuen: «Entzun, Daviden etxe: Gutxi al deritzozue gizakientzat aspergarri izateari? Nire Jainkoarentzat ere aspergarri izan behar al duzue? Horregatik, Jaunak berak emango dizue ezaugarria. Begira, birjina haurdun dago eta semea izango du; Emmanuel ipiniko dio izena, hau da, “Jainkoa gurekin”».

Sal 23: Badator Jauna, bera da Errege ospetsua.

San Paulok Erromatarrei 1, 1-7.

Ni, Paulo, Jesu Kristoren zerbitzaria, Jainkoak deitu eta bereizi ninduen apostolu izateko eta Liburu Santuetan profeten ahoz aurrez agindua zuen bere Berri Ona hots egiteko. Berri On hau Jainkoaren Semeari buruz da, Jesu Kristo gure Jaunari buruz, alegia: hau giza jatorriz Daviden hazitik jaio zen; baina hilen artetik piztu denez gero, santu egiten duen Espirituak Jainkoaren Seme ahaltsu egin du. Jesu Kristogandik hartu genuen apostolu izateko dohaina, beraren izenean jentil-herriei sinesmena eramateko eta haiengan fedezko erantzuna sortzeko, Jesu Kristo beraren aintzarako. Haietakoak zarete zuek ere, Erroman bizi zareten guztiok, Jainkoaren maiteok eta Jesu Kristok bere herri santuko izatera deituok. Grazia eta bakea zuei, Jainko gure Aitagandik eta Jesu Kristo gure Jaunagandik.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 1, 18-24.

Jesu Kristoren sortzea honela gertatu zen: Maria, Jesusen ama, Joserekin ezkontzeko hitzeman zegoen eta, elkarrekin bizi izan

Abendualdiko 4. astea

San Pedro Canisio, *apaiza eta eliz irakaslea, jesuita*

baino lehen, haurdun gertatu zen Espiritu Santuaren egitez. Josek, Mariaren senarrak, gizon zintzoa baitzen eta ez baitzuen bere emaztea salatu nahi, hura isilean uztea erabaki zuen. Baina asmo hori gogoan zerabilela, Jaunaren aingerua azaldu zitzaion ametsetan eta esan zion: «Jose, Daviden ondorengo hori, ez beldur izan zeure emazte Maria etxean hartzeko, honengan sortua Espiritu Santuagandik baitator. Semea izango du, eta zuk “Jesus” ipiniko diozu izena, hark salbatuko baitu bere herria bekatuetatik». Hau guztia Jaunak profetaren ahoz esandakoa bete zedin gertatu zen: «Begira, birjinak sabelean sortu eta semea izango du, eta Emmanuel ipiniko diote izena (izen honek “Jainkoa gurekin” esan nahi du)». Josek, lotatik esnatu zenean, Jaunaren aingeruak agindu bezala egin zuen, eta bere etxean hartu zuen emaztea.

Ebanjelioak ez digu Joserren larria sumatzen uzten, Maria, bere andregaiia, haurdun dagoela jakiten duenean. Mariaren egoera salatzeko agintzen zuen legeak eta harrika hiltzeko, eta Jose, barrua sutan, zirikatuko zuen agindua kontuan har zezan. Baina gizon haren ontasunak isildu egin zuen barruko orroa eta zapuzte pribatura etsi zuen, maite baitzuen Maria eta ez baitzion txarrik opa. Nahiago izan zuen isiltasun ausart bat mendeku bortitz bat baino. Jainkoa, ordea, ez zen beraz ahaztu. Ametsetan lasaitu zuen, Mariaren egia agertu eta misio bat eman zion: haur hura hartzea eta Jesus izena jartzea, «Jainkoak salbatzen du». Hala Jesusen aita bilakatuko zen Jose, Jaunak «abba» lehenbizi deitu ziona. Harengan antzeman izango zuen Aita handiago bat, Jainkoa bera, xamurtasun eta maitasun beraz zaintzen zuena. Ez dago Joseri buruz gauza hoberik esaterik, bere seme maiteak Jainkoari Aita deitu ziola baino. Errukiaren profeta bere aita Jose zela medio inguratu zen Jainkoaren errukira, azken eta egiazko bere Abbarengana.

Samuel lehenengo liburutik 1, 24-28: Anak eskerrak eman, bere seme Samuelen jaiotzagatik. **Salmoa: 1 Sm 2:** Jaunagan da nire bihotza pozten, nire salbatzaileagan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 46-56.

Aldi hartan, Mariak esan zuen: «Handiesten du nire arimak Jauna, pozaren pozez daukat neure barrua, Jainkoa baita nire salbamenen, ikusi baitu mirabe honen ezereztasuna. Horregatik, dohatsu deituko naute gaurdanik gizaldi guztiek, handiak egin baitizkit Ahalguztidunak; santua da haren izena, eta haren errukia gizaldiz gizaldi begirune diotenengana. Bere besoaren indarra erabili du, buru-harroak suntsitu ditu; bota ditu beren aulkietatik ahaltsuak, eta gora jaso ditu ezerezak; ondasunez bete ditu gose zeudenak eta esku-hutsik bidali aberatsak. Lagun etorri zaio bere morroi Israeli, bere errukiaz oroiturik; hala zien gure gurasoei hitzemaia, Abrahami eta ondorengoei betiko esana». Mariak hiru hilabete inguru egin zuen Elisabetekin; gero, etxera itzuli zen.

Jainkoaren oparia nabari du Mariak bere baitan. Ikustaldia egin dio Jainkoak Mariari eta salbamenaren egitasmoan sartu du. Gorespenak kantatuz lehertzen da Isabelekin topo egitean, sentitu duenean bi ume haiek bizia eramango diotela abaildutako eta hautsitako herri hari. Mariak bereganatu egin ditu Israelgo elkarte sufrituaren ametsak: «buru-harroak suntsitu ditu, ahaltsuak goi-postuetatik bota eta ezerezak gora jaso; ondasunez bete ditu gose zeudenak, eta esku-hutsik bidali aberatsak». Gai da Israelgo Jainkoaren nahian oraindik gordea dagoena ikusteko: azkenak eta baztertuak direnentzako salbamenen. Maria Jainkoarena da jada, haren onginahiaz betea, Jainkoaren egitasmoak historian egia izateko irrikatzen.

Abendualdiko 4. astea

San Joan Kety-koa, apaiza

Malakiasen profezia liburutik 3, 1-4.23-24: Elias profeta bidaliko dizuet, Jaunaren eguna etorri baino lehen. **Sal 24**: Izan bihotz eta jaso burua, hurbiltzen ari baita zuen askapena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 57-66.

Haurra izateko denbora bete zitzaionean, Elisabetek semea izan zuen. Jakin zuten auzokoek eta ahaideek zein erruki handia agertu zion Jaunak, eta zorionak ematen zizkioten. Jaio eta zortzigarren egunera, haurra erdaintzera eraman zuten, eta aitaren izena jarri nahi zioten, Zakarias. Amak, ordea, esan zuen: «Ez! Joan izango du izena». Esan zioten: «Ez duzue senitartean inor izen hori duenik». Orduan, aitari keinuka galdetu zioten zein izen eman nahi zion haurrari. Eta hark oholtxo bat eskatu eta idatzi zuen: «Joan du izena». Denak harriturik gelditu ziren. Bat-batean mihia askatu zitzaion Zakarias, eta hitz egiten hasi zen eta Jainkoa goستن. Beldurrak hartu zituen auzoko guztiak, eta Judeako mendialde guztian zabaldu zen gertatuaren berri. Entzuten zuten guztiek beren baitarako esaten zuten: «Zer izango ote da ume hau?». Zeren Jainkoaren eskua harekin baitzegoen.

Haur guztiek jaioberritan galdera berak eragiten dizkiete begira dauzkatenei: «ze bizitza izango ote du?». Hala gertatuko da Joan sortu berriarekin ere, baina jakin-mina areagotu egingo da haren jaiotzaren inguruko ezaugarriak direla eta, Jainkoaren eskuak ukitu duela iradokitzen baitute. Joan Jainkoarena da sortzetik beretik, Salbatzailearen iragarlea izango da. Mendekoaren papera jokatu du, kausa goren baten zerbitzari gisa jarriko da eta onartu egingo du Erreinuko gauzez apenas ezer jakitea, hain harrapatua baitzeukan Itun Zaharreko fedeak. Bigarren mailan geratzeko gai da Joan eta horretan datza bere handitasuna, hala Mesiasak dagokion tokia izan dezan gizadiari bere salbamen eskaintzeko. Horra hor zergatik den poz eta gorespen iturri Joanen jaiotza.

Abendualdiko 4. astea

Eguberri-bezpera

Jesusen arbasoak: Adam, Abraham, Jakob. David...

2 Samuelen liburutik 7, 1-5.8b-12.141.16: Daviden erreinuak betiko iraungo du Jaunaren aurrean. **Sal 88:** Jauna, zure maitasuna abestuko dut beti eta beti.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 67-79.

Aldi hartan, Zakarias, Joan haurraren aita, Espiritu Santuaz beterik, profeta bezala mintzatu zen, esanez: «Bedeinkatua Jauna, Israelen Jainkoa, agertu eta bere herria askatu duena! Salbamen-indarra digu eman bere morroi Daviden etxean. Hala hitzemanen zuen antzinatek bere profeta santuen ahoz: salbatuko gintuela geure etsaien menpetik, gorroto gaituzten guztien eskutik. Horrela agertu du gure gurasoenganako errukia eta oroitu da bere itun santuaz, gure guraso Abrahami egindako zinaz: berak emango zigula, etsaien eskutik askaturik, beldur gabe bera zerbitzatzea, santu eta zuzen izanez haren aurrean geure bizitza guztian. Zuri, berriz, haurtxo horri, Goi-goikoaren profeta deituko dizute, Jaunaren aurretik joango baitzara hari bidea prestatuz, erakustearren haren herriari salbamena, beren bekaturen barkamena. Gure Jainkoaren errai errukitsuengatik, agertuko zaigu goiz-eguzkia zeru goitik, ilunpean eta Herio-itzalean daudenei argi egitera, gure oinok bake-bidean zuzentzera».

Zakarias bozkarioz lehertzen da, Abrahamen aspaldiko garaietan sortu zen herriari Yahvek agindutakoak betetzen ari direlako. Historian zehar Yahvek izandako leialtasuna ospatzen du, Jesusengan burutuko dena. Zakarias ez da bere semearen jaiotzak dakarkion pozean itxiko, baizik eta askoz urrutirago so egiten du, herri guztiaren salbamenari begiratzen dio. Goitik datorren eguzki berria ikusten du Jesusengan, heriozko ibarrak eta etsipenezko ilunak argituko dituen da, herri osoa bakezko Erreinurantz gidatzeko. Egunero, gorespenetan ereserki hori otoizten du Elizak poz handi hori barneratzeko, Jainkoa bere herrira baitator behin betiko bertan geratzeko.

Jaunaren Jaiotza (Eguberri)
 Gauerdiko Meza (*ikus segidan Eguneko Meza*)
 Betleemeko Andre Maria

Isaias Profetaren liburutik 9, 1-6.

Ilunpean zebilen herriak argi handia ikusi zuen; herio-itzalean bizi zirenei distira egin zien argiak. Gehitu zenuen poza eta handitu atsegina; pozetan dabilta zure aurrean, uzta biltzean izaten den pozez, harrapakinak banatzean izaten den atseginez. Apurtu baituzu lepoan zeramaten uztarri astuna, zapaltzailearen aginte-makila, Madiango gudarostea apurtu zenuen bezalaxe. Suak erreko ditu eta erraustuko lurra danbadaka zapaltzen zuten gudari-botak eta odolez zikinduriko jantziak. Haurra jaio zaigu, semea eman zaigu; hari eman zaio aginpidea, eta haren izena Kontseilari harrigarri, Jainko indartsu, Aita betiko, Errege bake-emaile. Handia izango da haren aginpidea, amairik gabekoa bakea Daviden tronuan eta haren erreinuan; sendo egingo da eta zuzenbidean eta justizian oinarrituko, gaurdanik eta betidaino. Jaun ahalguztidunaren maiteminak egingo du hau.

Sal 95: Salbatzailea jaio zaigu gaur: Mesias, Jauna.

San Paulok Titori gutunetik 2, 11-14.

Anaia maitea: Agertu da Jainkoaren onginahia, gizon-emakume guztien salbamenerako. Salbamen honek Jainkorik gabeko bizitzari eta munduko grina txarrei uko egiten irakasten digu, eta neurriz, zuzentasunez eta jainkozaletasunez mundu honetan bizitzen, gure itxaropen zoriotsua noiz beteko zain, Jesu Kristo Jainko handia eta gure salbatzailea aintzaz beterik noiz agertuko zain. Hark bere burua eman zuen gugatik, gu gaiztakeria guztietatik askatu eta garbi egiteko, haren herri berezi izan gaitezen, on egin zale.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2, 1-14.

Egun haietan, mundu guztiaren errolda egiteko agindua atera zuen Augusto enperadoreak. Lehenengo errolda hau Siriako gobernadore

Jaunaren Jaiotza (Eguberri)

Gauerdiko Meza (*ikus segidan Egunekeo Meza*)

Betleemeko Andre Maria

Kirino zela egin zen. Beraz, erroldatzera joan ziren denak, nor bere herrira. Jose ere, Daviden etxekoa eta jatorrikoa izanik, Galileako Nazaret herritik Judeara igo zen, Betleem deritzan Daviden herrira, bere emazte Mariarekin erroldatzera. Maria haurdun zegoen. Betleemen zeudela, haurra izateko egunak bete zitzaizkion, eta bere lehen-semea izan zuen. Oihaletan bildu eta askan etzan zuen, ez baitzen ostatuan haientzako lekurik. Baziren inguru hartan artzain batzuk, gauez beren artaldea txandaka zaintzen. Honetan Jaunaren aingerua agertu zitzaion, eta Jaunaren aintzak argiz inguratu zituen; haiek, beldurrak jota gelditu ziren. Aingeruak, ordea, esan zien: «Ez beldur izan! Begira, poz handia sortuko duen berri ona iragartzen dizuet, herri guztiarentzat izango dena: Salbatzailea, hau da, Mesias Jauna jaio zaizue gaur Daviden herrian. Eta hau izango duzue seinale: haur bat aurkituko duzue, oihaletan bildua eta askan etzana». Eta bat-batean zerutar talde handia bildu zitzaion aingeruari, Jainkoa goستن zuela, esanez: «Aintza zeruetan Jainkoari, eta bakea lurrean haren gogoko gizon-emakumeei».

Jesusen jaiotzak hari begira-begira jartzen gaitu. Jesutxo jaioberriari begiratzen diogu, ez gara aspertzen hari so, suarekin edo olatuekin bezala. Jesus haurra itxaropenerako leiho bat da, batez ere iluntasunean bizi direnentzat, bakardadea edo abandonua bizi dutenentzat, munduko baztertuentzat. Aska batean jaio den haur horrek etorkizunik baldin badu, eta izan, badu, orduan badute etorkizuna sufrizten duten munduko pertsona guztiek. Ume hori hartu eta maitatua bada, guztiek izango dute harrera eta maitasuna, baita azken-azkenekoei ere. Gaurko gauak esaten digu ez dagoela inor giza duintasun gaberik, inortxo ere ez hutsaren hurrengotzat har daitekeenik. Jesusengan guztioi agintzen zaigu harrera, bedeinkapena eta betetasuna. Jesusen jaiotza gure bizitza harenarekin zailtzeko deia ere bada, sendatu eta askatzeko lanean laguntzeko deia. Jesusen eskuak izatera gonbidatzen gaitu, hartzen eta zaintzen duten esku izatera; haren begirada ere izatera, laztantzen, miresten eta aukerak ikusten

Jaunaren Jaiotza (Eguberri)
Eguberri Eguneke Meza
 Betleemeko Andre Maria

dituena; baita haren bihotza izatera ere, hunkitzen, haserretzen eta maitatzen duena. Begira egoteko gaua dugu gaurko hau, bihar Jesusen bideak urratzeko, uste onez, etsi gabe.

* * *

EGUBERRI EGUNEKO MEZA

Isaias Profetaren liburutik 52, 7-10.

Bai ederrak direla mendi gainetan albistariaren oinak! Bakea iragartzen du, zorionaren berri ona ematen eta salbamena iragartzen! Sioni diotso: «Zure Jainkoa errege da!». Entzun zeure zaintzaileen oihua! Oihuka ari dira, poz-irrintzika, guztiak batera, beren begiz ikusten baitute Jauna Sionera itzultzen. Ekin poz-oihuka guztiok batera, Jerusalengo horma eroriok, Jaunak bere herria kontsolatu baitu eta askatu du Jerusalem. Herri guztien aurrean erakutsi du Jaunak bere beso santuaren indarra, eta munduko bazter guztiek ikusiko dute gure Jainkoaren salbamena.

Sal 97: Ikusi dute lur-muga denek gure Jainkoagandiko garaipena.

Hebrearrei gutunetik 1, 1-6.

Askotan eta era askotara hitz egin zien antzina Jainkoak profeten bidez gure arbasoei; azkenak diren egun hauetan, berriz, bere Semearen bidez hitz egin digu. Seme hau egin zuen gauza guztien oinordeko, egin ere honen bidez egin baitzuen mundua. Seme hau da Jainkoaren aintzaren distira eta Jainkoaren izatearen irudia. Honek eusten die gauza guztiei bere hitz indartsuaz. Eta, bekatuen garbikuntza egin ondoren, Jainko handiaren eskuinaldean eseri zen zeru-goienetan, aingeruak baino gorago jarria, ondareztat jaso zuen izena ere haiena

Jaunaren Jaiotza (Eguberri)
 Eguberri Eguneko Meza
 Betleemeko Andre Maria

baino goragokoa denez gero. Izan ere, zein aingeruri esan dio inoiz: «Nire Seme zara Zu; Nik zaitut gaur sortu?».

Eta beste behin: «Aita izango nau hark Ni eta Seme izango dut Nik hura?». Eta berriro, Lehen-semea munduan sarraztean, hau dio: «Gurtu bezate hura Jainkoaren aingeru guztiek».

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1, 1-18.

Hasieran bazen Hitza, eta Hitza Jainkoarekin zen, eta Jainko zen Hitza. Hitza hasieran Jainkoarekin zen. Gauza guztiak haren bidez eginak dira, eta egindakorik ezer ez da hura gabe egin. Hitzagan zen bizia, eta bizia gizakien argia zen; argiak ilunpean argi egiten du, baina ilunpeak ez zuen onartu. Agertu zen gizon bat, Jainkoak bidalia: Joan zuen izena. Aitormenerako etorria zen, argiaren aitormen egitera, haren bidez guztiek sinets zezaten. Hura ez zen argia, argiaren aitormen egin behar zuena baizik. Hitza zen egiazko argia, mundura etorritz gizaki guztiak argitzen dituen. Munduan zegoen eta, mundua haren bidez egin den arren, munduak ez zuen ezagutu. Bereengana etorri zen, eta bereek ez zuten onartu. Onartu zuten guztiei, berriz, haren izenean sinesten dutenei, alegia, Jainkoaren seme-alaba izateko ahalmena eman zien. Hauek ez dira giza odoletik sortu, ezta giza nahieratik ere, Jainkoagandik baizik. Eta Hitza haragi egin zen, eta gure artean jarri zuen bizilekua, eta ikusi dugu haren aintza, Aitagandik graziaz eta egiaz betea datorren Seme bakarrari dagokion aintza. Joanez hartaz egin zuen aitormen, oihuka esanez: «Hau zen nik esan nuen hura: “Nire ondoren datorrena nire aurretik jarri da, ni baino lehenagokoa baitzen”». Eta haren betearen betetik guztiok hartu dugu grazia graziaren gain hartu ere. Legea Moisesen bidez emana zen; grazia eta egia, berriz, Jesu Kristoren bidez etorri dira. Jainkoa ez du inork inoiz ikusi; Aitaren altzoan dagoen eta Jainko den Seme bakarrak ezagutarazi digu.

Jaunaren Jaiotza (Eguberri)
Eguberri Eguneko Meza
 Betleemeko Andre Maria

Joan ebanjelariak Jainkoa haragi egitearen esanahi historiko eta kosmikoan murgiltzen gaitu. Jesus salbamen egitasmo baten gailurra da, munduaren sortzetik beretik hasia. Jesus maitasun hitza da, horrekin sortu da dena, kreaioaren gramatika da maitasuna. Maitasun hori bizia da, ez baitago maitasun era garaiaorik norbaiti izatea opatzea baino. Maitasun hori ere argia da gure munduko nahasmen, deskuidu eta ahanzturen artean. Egia eta argitasuna dakartza, argitu eta gezurrezko estalkiak kentzen ditu. Gaueko itzalak eta ikarak urratzen dituen egunsentiko argitasuna da. Munduari, ordea, zail egiten zaio maitasun-argi hori ezagutzea, itxurazko argiek itsututa eta ase ezineko desioen keinuek engainatuta. Jesusek bizi izan du maitasunaren ukazioa nartzisismoak, botere goseak eta ondasun irrikak jotako munduan, hainbeste bazterkeria eta ahanztura dakarrena. Gure Jainkoa, mundua maitasunez sortzen duena, alde batera utzia eta zokoratua izan da. Jainko baztertua da. Jesusen historian berak pizten dituen gatazken artetik sartzeko ataria dugu Joanen hitzaurrea. Jainkoak bere seme-alaba izatera deitzen gaitu eta bere salbamen egitasmoan esku hartzera.

* * *



San Esteban, lehen-martiria

Santa Bizenta Lopez Bikuña (Kaskante 1847-Madril 1890),
fundatzailea (Maria Sortzez Garbiaren Erlijiosak)

Apostoluen Eginak liburutik 6, 8-10; 7, 54-60.

Egun haietan, Estebanek, graziaz eta indarrez beterik, mirari eta ezaugarri handiak egiten zituen herrian. Hartan, zirenear eta alexandriarrez osatua zegoen eta «Askatuena» zeritzan sinagogako batzuk, ziliziar eta asiar batzuekin batera, eztabaidan hasi ziren Estebanekin. Baina ezin izan zioten aurre egin Espirituak mintzatzeko ematen zion jakinduriari. Estebanen hitzak entzutean, barrua lehertzen jarri zitzairen amorruz eta hortzak karraska haren kontra. Baina hark, Espiritu Santuaz beterik, zerura begiratu eta Jainkoaren aintza ikusi zuen, eta Jesus zutik Jainkoaren eskuinaldean. Eta esan zuen: «Horra, zerua zabalik ikusten dut eta Gizonaren Semea zutik Jainkoaren eskuinaldean». Orduan, haiek, garrasika, belarriak itxi zituzten eta denak batean gainera oldartu zitzaizkion; hiritik atera zuten eta harrika hasi zitzaizkion. Saulo zeritzan gazte baten oinetan utzi zituzten testiguen beren jantziak. Harrika ari zitzaizkion bitartean, Estebanek honela egiten zuen otoitz: «Jesus Jauna, hartazazu nire bizia». Gero, belauniko jarrita, ahots handiz esan zuen «Jauna, ez leporatu horiei bekatu hau». Eta, hau esanik, hil egin zen.

Sal 30: Zure eskuetan uzten dut, Jauna, neure bizia.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10, 17-22.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Kontuz jendearekin! Auzitegietara eramango zaituztete eta sinagogetan zigorkatuko; agintarien eta erregeen aurrera eramango zaituztete nigatik, aitormen egin dezazuen haien eta jentilen aurrean. Eramaten zaituztetenean, ez egon zer eta nola esango duzuen kezkatan: une hartan bertan adieraziko dizue Jainkoak zer esan; ez zarete zuek mintzatuko, zuen Aitaren Espiritua mintzatuko da zuen bidez. Anaiak anaia emango du heriotzara, eta aitak semea; seme-alabak gurasoen aurka altxatuko dira

San Esteban, lehen-martiria

Santa Bizenta Lopez Bikuña (Kaskante 1847-Madril 1890),
fundatzailea (Maria Sortzez Garbiaren Erlijiosak)

eta hil egingo dituzte. Mundu guztiak gorroto izango dizue nigatik; baina azkeneraino irauten duena, horixe izango da salbatua».

Mesias jaio orduko, San Esteban martiriaren festaburua. Harrigarria. Esaten ari zaiguna da gatazka, gaizki ulertu eta indarkeria artean urratuko duela bidea Jesusen mezuak, eta kanporatze, aska eta hotzez egindako Betleem hori ez dela ipuin polit bat. «Bere etxera etorri zen baina beretarrek ez zuten onartu», San Joanek dioen bezala. Eta, hala eta guztiz ere, baztertua zelarik, Estebanek begirada argi eta konfiantza Jaunarengan, horra Maisuari leial jarraitu arazten dion lekukotasuna. Horrela hil badaiteke, barrua zentzuz, duintasunez eta itxaropenez betetzen duen bizitza bat ezagutu delako da. Merezi du Kristogan sinestea, gure bizitzaren Jauntzat harturik.

* * *

«Gaur egun oso erraz eror gintezke orria pasatzeko tentazioan, zergatik-eta aspaldi gertatua gaingitu eta aurrera begiratu behar omen dugulako. EZ, Jainkoarren! Ez dago memoriarik gabe aurrera giterik» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 249).

San Joan *apostolua eta ebanjelaria*

1 Joanen gutunetik 1, 1-4.

Seme-alaba maiteok:

Hasieratik zen biziaren Hitza, entzun eta geure begiz ikusia, begiratu eta geure eskuz ukitua, iragartzen dizuegu. Izan ere, bizia agertu zen, ikusi dugu eta beraren lekuko gara; Aitarekin zegoen eta guri agertu zitzaigun betiko bizia iragartzen dizuegu. Ikusi eta entzun duguna iragartzen dizuegu, zuek ere gurekin elkartasunean bizi zaitezten. Eta gure elkartasuna Aitarekin eta honen Seme Jesu Kristorekin da. Eta gauzok idatzi, gure poza bete-betea izan dadin idazten dizkizuegu.

Sal 96: Poztu zaitezte Jaunarekin, zintzook.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20, 1a.2-8.

Asteko lehen-egunean, Maria Magdalena Simon Pedrogana eta Jesusek maite zuen beste ikasleagana itzuli zen lasterka, eta esan zien: «Eraman egin dute Jauna hilobitik, eta ez dakigu non jarri duten». Atera ziren, orduan, Pedro eta beste ikaslea, eta hilobirantz abiatu ziren. Biak batera zihoazen lasterka, baina beste ikaslea Pedro baino arinago zihoan, eta lehenago iritsi zen hilobira. Barrura begiratzeko makurturik, oihal-zerrendak lurlean ikusi zituen, baina ez zen sartu. Iritsi zen haren atzetik Simon Pedro ere eta hilobian sartu zen. Oihal-zerrendak lurlean ikusi zituen, baita Jesusen burua biltzen egoniko zapia ere; hau, ordea, ez zegoen oihal-zerrendekin batera jarria, beste toki batean bildua baizik. Orduan, sartu zen beste ikaslea ere, hilobira lehenengo iritsi zena. Ikusi eta sinetsi egin zuen.

Joan ebanjelaria laugarren ebanjelioko ikasle maitearekin identifikatzen du liturgiak. Maitasuna, Jesusi jarraitzeko giltzarri erabakigarria dela erakutsi digu. Jainkoagandik datorren maitasuna, gure bizitza gorespen eta esker on bihurtzen duena. Gure burua

San Joan apostolua eta ebanjelaria

eskuzabaltasunez eta erabat ematera bultzatzen gaituen maitasuna, Jainkoagandik hartu dugulako. Jarraitzaileen elkarte izanik Jainkoaren bizitzan murgilarazten gaituena, harekin bat eginez. Eta Jesusen bizitzara miresmenez eta txeraz hurbiltzen laguntzen digun maitasuna, hura barrutik ezagutzeko eta zerk mugitzen zuen hobeto jakiteko, Jainkoari, bizitzari, izadiari eta munduari diogun maitasuna egunero berritzeko.

* * *



San Joan. Altzo Muino. Erretaula.

FAMILIA SANTUA

Haurtxo Errugabe Santuak, *martiriak*

Siraken liburutik 3, 3-7.14-16.17b (gr. 2-6. 12-14).

Jaunak seme-alaben gainetik ohoratzen du aita, eta amaren aginpidea ezartzen bere umeen gain. Aita ohoratzen duenak bere bekatuak ezabatzen ditu, eta ama goresten duenak ondasunak pilatzen. Aita ohoratzen duenak poza izango du bere seme-alabengan, eta otoitz-egunean entzun egingo dio Jaunak. Aita ohoratzen duena luzaro biziko da, eta Jaunari obeditzen dionak atsegin ematen dio amari. Ene seme, zaindu aita zahartzaroan eta ez eman nahigaberik bizi den artean; burua galtzen hasten bada ere, izan barkabera eta ez gutxietsi bizi den bitartean; aitari emandako laguntza ez da ahaztuko, bekaturen ordain izango duzu. Atsekabe-aldian gogoan izango zaitu Jaunak.

Sal 127: Zorionekoa Jaunari begirune diona, eta haren bideetan dabilena!

San Paulok Kolosarrei 3, 12-21.

Senideok: Jantzi zaitezte bihotz errukitsuz, onberatasunez, apaltasunez, otzantasunez, eroapenez, Jainkoaren herri aukeratua, santua eta maitea zaretenez gero. Eramazue ondo elkar eta barkatu batak besteari, inork inoren aurka ezer balu. Jaunak barkatu zizuen bezala, barkatu zuek ere elkarri. Eta horien guztien gainetik, izan maitasuna, hori baita elkartasun betearen lokarria. Kristoren bakeak agindu beza zuen bihotzean, bake horretara deituak zaretenez gero gorputz batean, eta izan esker oneko. Bizi bedi oparo zuengan Kristoren hitza; irakatsi eta aholkatu jakinduria osoz; kantatu Jainkoari bihotzez eta esker onez salmoak, gorazarreak eta kantu inspiratuak. Edozer esaten nahiz egiten duzuela, egizue dena Jesu Kristo Jaunaren izenean, haren bidez Jainko Aitari eskerrak eman. Emazteok, zaudete zeuen senarren mende, Jaunaren jarraitzaileei dagokien bezala. Senarro, maita itzazue zeuen emazteak, eta ez izan gogor haiekin. Seme-alabok, egin zeuen

FAMILIA SANTUA

Haurtxo Errugabe Santuak, *martiriak*

gurasoen esana gauza guztietan, hori nahi baitu Jaunak. Gurasook, ez sumindu zeuen seme-alabak, gogogabetu ez daitezten.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 2, 13-15.19.23.

Magoek alde egitean, Jaunaren aingerua agertu zitzaion ametsetan Joseri eta esan zion: «Jaiki, hartu haurra eta ama, eta zoaz ihesi Egiptora, eta egon han nik esan arte, Herodes erregea haurra hil nahian ibiliko baita». Jaiki zen, beraz, Jose, hartu zituen haurra eta ama gauzez eta Egiptora joan zen. Han egon zen Herodes hil arte. Horrela bete zen Jaunak profetaren bidez esandakoa: «Egiptotik etortzeko dei egin nion neure semeari». Herodes hil zenean, Jaunaren aingerua agertu zitzaion ametsetan Joseri Egipton eta esan zion: «Jaiki, hartu haurra eta ama, eta zoaz Israelgo lurraldera, hilak baitira haurrari bizia kendu nahirik zebiltzanak». Jaiki zen, beraz, Jose, hartu zituen haurra eta ama, eta Israelgo lurraldera itzuli zen. Baina, Herodesen ondoren, Judean errege haren seme Arkelao zegoela jakinik, beldur izan zen hara joateko. Eta, ametsetan albistea harturik, Galileara jo zuen. Hara iritsi zenean, Nazaret deritzan herrian gelditu zen bizitzen, profetek esan zutena bete zedin: «Nazaretarra deituko diote».

Egiptoko lur arrotzean errefuxiatu bihurtzen du Mateok Mariaren eta Joserren haur txikia. Denbora gutxiko kontua izango da, Herodesen heriotzean eten egingo baita haren pertsekuzioa. Jesusek bat egiten du asilo bila dabiltzanekin, beren herrian ez dagoelako beraientzako lekurik. Mateok bere herrian bertan deserriratutako Jainkoa dela agertzen digu eta beste Moises bat bezala ere aurkeztuko digu Jesus, Egiptotik heldua, juduak salbamenera gidatzera datorrena. Mariak eta Josek haurra zaindu eta beren maitasun guztia ematen diote Beraiek gogorarazten digute familian egiten garela pertsona, sendia dela giza bizikidetzeta eta hazkuntzaren gunea. Hor ikasten dugu maitatzen eta maitatuak izaten, elkarrizketan egiten, errealtateari begiratzen, besteen onaz arduratzen, ordainik espero gabe zerbitzatzen. Seme-

FAMILIA SANTUA

Haurtxo Errugabe Santuak, *martiriak*

alaba eta senide izateak zer esan nahi duen ikasten dugu sendian. Giza hazkuntzaren oinarritzko hezkuntza hartzen dugu familian, ez dugu eskola hoberik ezagutzen. Gaurkoa gure sendiari eskerrak emateko eguna dugu, gure senide bakoitzagatik eskerrak ematekoa. Gure familia ere sakratua da, familia sakratua. Jainkoaren bizilekua dugu, hor dator guregana eta hor laguntzen digu.

* * *

«Barkamena doakoa bada, damutzeari uko egiten dionari eta barkamena eskatzeko gai ez denari barkatzea ere posible da» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 250).

Eguberri ondoko 5. eguna

San Tomas Becket, *gotzaina eta martiria*San David, *erregea*

San Joan Apostoluaren lehenengo gutunetik 2, 3-11: Senidea maite duena argian dago. **Sal 95:** Poztu bedi zerua, alaitu lurra.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2, 22-35.

Moisesen legearen arabera, amari garbikuntza egiteko unea iritsi zitzaionean, gurasoek Jerusalemera eraman zuten Jesus, Jaunari aurkezteko. Izan ere, honela dago agindua Jaunaren legean: «Lehen- seme guztiak Jaunari sagaratuko dizkiozue». Jaunaren legean ezarritako oparia ere eskaini behar zuten: «Bi usapal edota bi usakume». Bazen Jerusalemen Simeon izeneko gizon bat, gizon zintzo eta jainkozalea, Jainkoak Israel noiz kontsolatuko zain zegoena. Espiritu Santua berekin zuen, eta aditzera emana zion ez zela hilko Jaunaren Mesias ikusi arte. Eta Espiritu Santuak eraginda tenplura joan zen. Legeak agintzen zuena betetzeko gurasoek Jesus haurra tenplura eraman zutenean, Simeonek haurra besoetan hartu eta Jainkoa bedeinkatu zuen, esanez: «Orain utz dezakezu, Jauna, zeure morroi hau bakean hiltzen, Zeuk hitzeman bezala. Ikusi dute nire begiok zugandiko salbamena, herri guztien aurrean Zuk aurkeztua: nazioak argitzeko argia eta zure herri Israelen ospea». Haurraren aita-amak harriturik zeuden haurraz esaten zirenekin. Eta Simeonek bedeinkatu egin zituen, eta haurraren ama Mariari esan zion: «Begira, israeldar asko erortzeko eta beste asko altxatzeko ipinia dago hau; eztabaida sortzen duen ezaugarri izango da, horrela bihotz askotako asmoak agerian geldi daitezten. Eta zuri ezpata batek alde z aldez zulatuko dizu arima».

Jesus Jaunari aurkeztu diote Tenpluan, lehen semeekin egiten zuten legez, eta pobreek ohi zuten eskaintza egin zuten haren gurasoek, bi usapal edo bi usakume. Haur harengan agindutako Salbatzailea ezagutu du Simeon zaharrak, bizitza guztia haren esperoan egin ondoren. Bakean atsedean hartu ahal izango du, aski baitu hura ikusi eta besoetan hartu izana, baretu da bere barrena. Izango du herriak

Eguberri ondoko 5. eguna

San Tomas Becket, *gotzaina eta martiria*

San David, *erregea*

askapenezko etorkizuna, ez du beste ezer jakin beharrik. Simeonekin guk ere har dezakegu haurra besoetan, berak gure bizitza osoa har dezan, gure kontsolamendua eta gure ardura izan dadin, Erreinuko baketik aldentzen gaituzten apeuak albora geratzen diren bitartean.

* * *

«Zenbait krimen izugarri lazgarriak dira, krudel-krudelak, eta haien egileei sekulakoak eta bi sufriarazteak ere ez du balio biktimak egin dioten kalteagatiko ordaina jaso duela sentitzeko» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 251).

Eguberri ondoko 6. eguna
San Felix 1.a, 26. aita santua

San Joan Apostoluaren 1 gutunetik 2, 12-17: Jainkoaren nahia egiten duenak betiko irauten du. **Sal 95:** Poztu bedi zerua, alaitu lurra.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2, 36-40.

Aldi hartan, bazen profetesak bat Ana zeritzana, Fanuelen alaba, Aserren jatorrikoa. Urteetan oso aurreratua zen; gaztetan ezkondu eta zazpi urtez senarrarekin bizi ondoren, alargun gelditu zen, eta bazituen laurogeita lau urte. Gau eta egun tenpluan egoten zen, barau eta otoitz, Jainkoa zerbitzatzen. Ordu hartan han gertatu zen, eta Jainkoa goستن eta haurraz mintzatzen hasi zitzairen Jerusalem askatasunaren zain zeuden guztiei. Jesusen gurasoak, dena Jaunaren legeak agintzen duen bezala bete ondoren, Galileara itzuli ziren, beren herri Nazaretera. Haurra hazten eta indartzen zihoan, jakinduriaz betetzen ari zen eta Jainkoaren grazia berekin zuen.

Ana profetesak, jada urtetsua, bizialdi luzea egin du errealitatean Jainkoaren presentziaren arrastoak miatzen, eta oso iaioa egin da horri antzematen. Barau eta otoitz, gau eta egun, eten gabe, horrek laguntzen dio Jauna non dagoen igartzen. Jende asko dago Jerusalem egun horietan, baina Simeon zaharra eta biak bakarrik daude prestatuta haur xume baten kimuan bizi-promesa antzemateko. Ana eskerrak emanez eta goresiz lehertu da. Urte hondarrean guri ere dei egiten zaigu gure bizitzan Jainkoaren dohainak ezagutzeko ariketa egin dezagun. Dohain apalak, kimu txikiak, baina promesaz beteak, zaindu eta ureztatzeko eskatzen zaigu gure artean fruitua eman dezaten.

Eguberri ondoko 7. eguna

San Silvestre I.a, *aita santua*

Santa Columba, *birjina eta martiria*

1 Joan 2, 18-21: Zuek Jainkoagandik datorren Espiritu Santua duzue eta guztiok ezagutzen duzue egia. **Sal 95:** Poztu bedi zerua, alaitu lurra.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1, 1-18.

Hasieran bazen Hitza, eta Hitza Jainkoarekin zen, eta Jainko zen Hitza. Hitza hasieran Jainkoarekin zen. Gauza guztiak haren bidez eginak dira, eta egindakorik ezer ez da hura gabe egin. Hitzagan zen bizia, eta bizia gizakien argia zen; argiak ilunpean argi egiten du, baina ilunpeak ez zuen onartu. Agertu zen gizon bat, Jainkoak bidalia: Joan zuen izena. Aitormenerako etorria zen, argiaren aitormen egitera, haren bidez guztiek sinets zezaten. Hura ez zen argia, argiaren aitormen egin behar zuena baizik. Hitza zen egiazko argia, mundura etorritz gizaki guztiak argitzen dituen. Munduan zegoen eta, mundua haren bidez egin den arren, munduak ez zuen ezagutu. Bereengana etorri zen, eta bereek ez zuten onartu. Onartu zuten guztiei, berriz, haren izenean sinesten dutenei, alegia, Jainkoaren seme-alaba izateko ahalmena eman zien. Hauek ez dira giza odoletik sortu, ezta giza nahieratik ere, Jainkoagandik baizik. Eta Hitza haragi egin zen, eta gure artean jarri zuen bizilekua, eta ikusi dugu haren aintza, Aitagandik graziaz eta egiaz betea datorren Seme bakarrari dagokion aintza. Joanez hartaz egin zuen aitormen, oihuka esanez: «Hau zen nik esan nuen hura: “Nire ondoren datorrena nire aurretik jarri da, ni baino lehenagokoa baitzen”». Eta haren betearen betetik guztiok hartu dugu, grazia graziaren gain hartu ere. Legea Moisesen bidez emana zen; grazia eta egia, berriz, Jesu Kristoren bidez etorri dira. Jainkoa ez du inork inoiz ikusi; Aitaren altzoan dagoen eta Jainko den Seme bakarrak ezagutarazi digu.

Amaitu da urtea eta Joanez diosku Kristo argia dela. Hartu al dugu argi hori aurreko hilabeteetan zehar? Utzi al diogu bihotz-berritzeko

Eguberri ondoko 7. eguna


San Silvestre I.a, *aita santua*Santa Columba, *birjina eta martiria*

premia duen gure barrua argitzen eta bizitzako bidea erakusten? Guztioi egiten digu argi Kristok, baina gidatzen utzi behar diogu. Egiaz, «bere etxera etorri zen baina bereek ez zuten onartu», Jainkoak bere kreazioan eta historian bertan bizi izan duelako gizakiaren arbuioa. Guztiena ez, ordea; ez fedez erabat emanik bizi diren bere seme-alabena. Jainkoa erabat eman zaigu guri eta hartu dugun hainbeste on berarengan ikustera deitzen gaitu eta esker oneko izanez bizitzera. Urtea amaitzean, San Ignazioarekin batera esan dezakegu, «Hartu zuk, Jauna, eta jaso...».

* * *

«Gerra orok uzten du mundua aurretik zegoen baino okerrago. Politikak eta gizateria osoak porrot egin izanaren ondorio da gerra: gaizkiaren aurrean modu lotsagarrian errenditu eta amore ematearen ondorio. Ez bedi inor eztabaida teorikoetan katramilatu, eta hurbildu eskua zaurietara eta kaltetuen haragira» (Frantzisko. *Fratelli tutti*, 261).

OTOITZAK ETA DEBOZIOAK



Iñigo, erromes Manresan.

Otoitzak eta Debozioak

EGUNERO

GURUTZE SANTUAREN

† Gurutze santuaren seinaleagatik,
gure etsaiengandik
zaindu gaitzazu, Jauna, gure Jainkoa.
Aitaren, eta Semearen
eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

GURE AITA

Gure Aita, zeruetan zarena:
santu izan bedi zure izena,
etor bedi zure erreinua,
egin bedi zure nahia,
zeruan bezala lurrean ere.
Emaguzu gaur
egun honetako ogia;
barkatu gure zorrak,
guk ere geure zordunei
barkatzen diegunez gero;
ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen,
baina atera gaitzazu gaitzetik.

AGUR MARIA

Agur, Maria, graziaz betea:
Jauna da zurekin:
bedeinkatua zara zu
andre guztien artean,
eta bedeinkatua da
zure sabeleko fruitua Jesus.
Santa Maria,

Jaungoikoaren ama,
erregutu ezazu
gu bekatarion alde
orain eta
gure heriotzako orduan. Amen.

AINTZA AITARI

–Aintza Aitari eta Semeari eta Espiritu Santuari.
–Hasieran zen bezala, orain eta beti,
gizaldi eta gizaldietan. Amen.

ANGELUS (goizean, eguerdian eta arratsean)

- Jaunaren aingeruak Mariari adierazi zion.
- Eta Espiritu Santuaren egitez sortu zuen.
Agur, Maria, graziaz betea...
- Hona hemen ni, Jaunaren mirabea.
- Gerta bekita zuk diozun bezala.
Agur, Maria, graziaz betea...
- Eta Jainkoren Semea gizon egin zen.
- Eta gure artean bizi izan zen.
Agur, Maria, graziaz betea...
- Otoitz egizu gure alde, Jainkoaren Ama santu horrek.
- Jesu Kristo gure Jaunaren aginduak irabaz ditzagun.

Egin dezagun otoitz: Isur ezazu, Jauna, gure bihotzean zeure grazia, eta, aingeruak esanik, zure Seme Jesu Kristo gizon egin dela jakin dugunok, egizu, haren nekaldi eta gurutzearen bidez eta Andre Mariaren otoitzari esker, irits gaitezela piztueraren ospera. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

REGINA COELI (Zeruko erregina) (Pazkoaldian)

- Zeruko erregina, poztu zaitez, aleluia.
 - Sabelean ekarri zenuena, aleluia.
 - Piztu baita berak esan bezala, aleluia.
 - Otoitz Jainkoari gure alde, aleluia.
-
- Egizu pozaz gainez, Andre Maria, aleluia.
 - Jauna egiaz piztu baita, aleluia.

Egin dezagun otoitz: Jesu Kristo gure Jauna, zeure Semea, piztuz, mundua pozez bete duzun Jainkoa; egizu, arren, Andre Maria haren eta gure Amaren otoitzari esker, irits gaitezela betiko pozak goatzera. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

ARRATSEAN

ESKERRAK EGUNA BUKATZEAN

Eskerrak, Jauna, / eguna bukatzean / zuri eskertzeko aukera dugulako, / zure heriotzaren merezimenduak / eta Eukaristiako ogia / alaitasun betean / eta zurekiko elkartasunean bizi izan ditugulako; / fedea, maitasuna, esperantza / eta gure loa, / gorespen apal bihurtzeko, / zure graziaren ontasun hau / bizi izan dugulako.

ESPIRITU SANTUARI

VENI SANCTE SPIRITUS

(Mendekosteko sekuentzia)

(Orixe, ukitu bakan batzuekin)

Zatoz, bai, Gogo Guren eta bidal zerutik zure argi izpia.
Zatoz, gaixoen Aita; zatoz, dohain emaile; zatoz, bihotzen argi.
Poz-emaile bikain, etxelagun atsegin, sargorian haize fin.

Lan artean atsedean, nekean aringarri, malkoetan pozgarri.
Zure laguntza gabe ez du pertsonak ezer, ez du ezer on denik.
Garbi, zikin dagona; busti, lehor dagoena; zauriak oro senda.
Zurrun dena bigundu; makur dena zuzendu, hotz dagoena berotu.
Zugan usteon duten zintzoei isuri zazpi dohain zerutik.
Zintzo saria eman, osasun hil artean, poza betieran.
Amen.

VENI CREATOR SPIRITUS

Zatoz Zintzoen Barnera
(Orixe, ukitu bakan batzuekin)

Zatoz zintzoen barnera,
Gogo Guren sortarazle;
bete graziaz bihotz hauek, zu baitzaituzte egile.
Poz-emaile deritzozu,
Goiko Jaunaren dohain, ur bizi, su, maitasun, eta gantzu zerukoia.
Zazpi dohainen isurle,
Aitaren eskuin hatza, apostoluei hitzeman, haien ahoetan hitza.
Argi iezaguzu zentzua, suaz sutu bihotza,
indar horretaz sendatu argal daukagun gorputza.
Haiza gugandik etsaia, eman berehala bakea,
zu aurretik zaitugula, urrun iezaguzu kaltea.
Erakuts iezaguzu Aita, harekin Semea ere;
bien Arnasa duguna sinets dezagun beti ere.
Aitari, eta hilengandik berpiztu zen Semeari eta Gogo Gurenari
edertasun orain eta beti. Amen.

MENDEKOSTE

Espirituaz bizitza aukera!
(<https://youtu.be/VwW5YZqSUwU>)

Espiritu santua
maitasun sorrera,
hamaika koloredun
gizarte bat bera,
baztertua senide,
arrotza etxera,
otoitzaren indarraz
bizitza aukera.

Zabal espiritua
bete zure hitza:
gure bihotz barruak
garbitzeko giltza,
txikiaren babesa,
haizete bortitza,
Zugaz gura genduke
aukera bizitza.

Zure jakituria
eta pentsaera
Elizaren bideak
eroan hobera,
josi esku bihotzak
guztiok batera
abestuz guk dagigun
bizitza aukera.

(Bideo egilea eta kantaria:
Ana Berrizbeitia.
Hitzak: Jose Mari Kortazar)

EUKARISTIA

BEDEINKATUA JAINKOA

(Eukaristia adoratzean)

Bedeinkatua Jainkoa.

Bedeinkatua haren izen santua.

Bedeinkatua Jesu Kristo, egiazko Jainkoa eta egiazko gizona.

Bedeinkatua Jesusen izena.

Bedeinkatua haren bihotz txit santua.

Bedeinkatua haren odol txit baliotsua.

Bedeinkatua Jesus aldareko sakramentu santuan.

Bedeinkatua Espiritu Santu kontsolatzailea.

Bedeinkatua Jainkoaren Ama, Maria txit santua.

Bedeinkatua Mariaren sortze santu eta garbia.

Bedeinkatua haren zeruratze aintzatsua.

Bedeinkatua Maria birjina eta amaren izena.

Bedeinkatua San Jose, haren senar txit garbia.

Bedeinkatua Jainkoa bere aingeru eta santuengan.

Egin dezagun otoitz.

Jesu Kristo gure Jauna,

sakramentu miresgarri honetan

zeure nekaldiaren oroitzapena utzi diguzu;

arren erregutzen dizugu:

beneratu ditzagula zure gorputz-odolen misterio santuak,

zure salbamenaren fruituak geuregan etengabe sentitzeko moduan.

Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan. Amen.

GURUTZE BIDEA

HASIERA

V/. - Adoratzen zaitugu, Kristo, eta bedeinkatzen.

R/. - Zeure gurutze santuan mundua salbatu zenuelako.

V/. - **Egin dezagun otoitz.**

Jesu Kristo gure Jauna!

Gurutzea hartzera gonbidatu gaituzu,

eta gure aurretik zoaz etsenplu emanaz;

emazkiguzu zeure argia eta grazia:

Gurutze-bide honetan zure urratsak gogoan hausnartzean,
izan gaitezela gai eta izan dezagula gogo bizia zuri jarraitzeko.

Nazareteko Andre Maria,

Doloretako Ama izan zinen;

inspiratu guri,

Jainko den zeure Semeari bide honetan atsekabez jarraitzean
zeuk izan zenituen maitasun-sentimenduak.

R/. - Amen.

GELDIALDIAK

1. Lehen geldialdia: Jesus hiltzera kondenatua.

(geldialdi bakoitzaren ondoren

segidako hau errepikatzen da)

V/. - Adoratzen zaitugu, Kristo, eta bedeinkatzen.

R/. - Zeure gurutze santuan mundua salbatu zenuelako.

2. Bigarren geldialdia: Jesus gurutzea daramala.
3. Hirugarren geldialdia: Jesus erori lehen aldiz.
4. Laugarren geldialdia: Jesusek Amarekin topo.
5. Bosgarren geldialdia: Zirenearrak Jesusi lagundu.
6. Seigarren geldialdia: Veronikak Jesusi aurpegia xukatu.
7. Zazpigarren geldialdia: Jesus erori bigarren aldiz.
8. Zortzigarren geldialdia: Jesus eta Jerusalemgo emakumeak.

9. Bederatzigarren geldialdia: Jesus erori hirugarren aldiz.
10. Hamargarren geldialdia: Jesus erantzi eta biluztu.
11. Hamaikagarren geldialdia: Jesus gurutzean josi.
12. Hamabigarren geldialdia: Jesus gurutzean hil.
13. Hamahirugarren geldialdia: Jesus gurutzetik jaitsi.
14. Hamalagarren geldialdia: Jesus hilobian.
15. Hamabosgarren geldialdia: Jesus berpiztu.

V/. - Egin dezagun otoitz.

Begiratu, Aita, begi onez zeure seme-alaba hauei;
Jesu Kristo gure Jaunak ez zuen dudarik izan,
gu guztiongatik gurutzeko heriotzara joateko;
egizu:

haren nekaldiaz eta gurutzeaz gogoeta egin ondoren,
parte har dezagula harekin batean haren Piztueraren aintzan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez eskatzen dizugu,
Errege bizi baita zurekin gizaldiz gizaldi.
R/. - Amen.

ANDRE MARIARI

SALVEA

Agur, erregina, ama errukiorra, gure bizi, gozo eta itxaropena, agur!
Zuri deiez gaude Evaren ume erbestetuok; zuri aiezka, antsiatz eta
nagarrez negar-herri honetan.

Ea, bada, itzul itzazu gugana zeure begi errukitsu horiek, eta erbeste
honen ondoren erakutsiezaguzu Jesus, zure sabeleko Seme bedeinkatu
hori.

O bihozbera! O errukiorra!

O Maria Birjina gozoa!

- Otoitz egizu gure alde, Jainkoaren Ama santua.
- Jesu Kristo gure Jaunaren promesak iristeko gai izan gaitezen.

ZURE BABESERA GATOZ

(Sub tuum praesidium)

Zure babesera gatoz ihesi, Jainkoaren Ama;
gure otoitzei ez eman esker txarrik behar ordu estuan;
arrisku guztietatik onez atera gaitzazu,
Birjina eder eta bedeinkatua.

ARROSARIO SANTUA

POZEZKO MISTERIOAK

(astelehena eta larunbata)

1. Jainkoaren Semea gizon egina.
2. Andre Mariak bisita Elisabet lehengusinari.
3. Jainkoaren Semea jaio.
4. Jesus Haurra Tenpluan aurkeztu.
5. Jesus Haurra galdu eta Tenpluan aurkitu.

DOLORETAKO MISTERIOAK

(asteartea eta ostirala)

1. Jesusen otoitza Getsemaniko baratzean.
2. Jesus zigortua.
3. Jesusen arantzazko koroia.
4. Jesus gurutzea lepoan duela.
5. Jauna gurutzean hil.

AINZAZKO MISTERIOAK

(asteazkena eta igandea)

1. Jesus Jauna piztu.
2. Jesus Jauna zerura igo.
3. Espiritu Santua jaitsi.
4. Andre Maria zeruratu.
5. Andre Maria koroatu.

MISTERIO ARGITSUAK

(osteguna)

1. Jesus bataiatua Jordan ibaian.
2. Jesus agertu Kanako ezteietan.
3. Erreinua hots egin, bihotz-berritzeko deia eginez.
4. Jesus antzaldatu.
5. Jesusek Eukaristia eratu.

OTOITZA (misterio bakoitzaren ondoren)

Andre Maria, graziazko Ama, errukizko Ama onbera, zaindu gu geure etsaietatik,
eta babestu orain eta geure heriotzako orduan. Amen.

ANDRE MARIAREN LETANIAK

Erruki, Jauna. Erruki, Jauna.
Kristo, erruki. Kristo, erruki.
Erruki, Jauna. Erruki, Jauna.
Kristo, entzun guri. Kristo, entzun guri.
Kristo, aditu guri. Kristo, aditu guri.
Zeruko Aita Jainkoa. Erruki gutaz.
Jainko Semea, munduaren Salbatzailea. Erruki gutaz.
Jainko Espiritu Santua. Erruki gutaz.
Hirutasun Santua, Jainko bakarra. Erruki gutaz.
Andre Maria Santua. Otoitz gure alde.
Jainkoaren Ama Santua. Otoitz gure alde.
Kristoren Ama. Otoitz gure alde.
Elizaren Ama. Otoitz gure alde.
Ama txit garbia. Otoitz gure alde.
Salbatzailearen Ama. Otoitz gure alde.

Elkartasun Berriaren Kutxa. Otoitz gure alde.
Ama Jainkoari eskaintzearen eredua. Otoitz gure alde.
Zerura jasotako erregina. Otoitz gure alde.
Arrosario Santuaren erregina. Otoitz gure alde.
Jesusen Lagundiaren erregina. Otoitz gure alde.
Maria, fededun handia. Otoitz gure alde.
Maria, Hitzaren entzule fededuna. Otoitz gure alde.
Maria, Jaunaren Hitzaren gordetzailea. Otoitz gure alde.
Maria, Hitzaren hausnartzaile handia. Otoitz gure alde.
Maria, Jesusen jarraitzaile leial eta iraunkorra. Otoitz gure alde.
Jesusen mezuarekin bat egin duzun Maria. Otoitz gure alde.
Maria, Jainkoaren herriko lagun alaia. Otoitz gure alde.
Maria, gizadi berriaren eredua. Otoitz gure alde.
Maria, ama doloretakoa. Otoitz gure alde.
Maria, esker onekoa. Otoitz gure alde.
Maria, bisitari fina. Otoitz gure alde.
Maria, eztei-lagun aztia. Otoitz gure alde.

Jainkoaren Bildotsa

- Jainkoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua. Barkatu, Jauna.
- Jainkoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua. Entzun, Jauna.
- Jainkoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua. Erruki, Jauna.
- Otoitz egizu gure alde Jainkoaren Ama santu horrek.
- Jesu Kristo gure Jaunaren promesak eskuratu ditzagun.

Egin dezagun otoitz.

Jainko Jauna, pozez bete zenuen mundua
Jesu Kristo zeure Seme eta gure Jauna piztean;
mesedez, haren eta gure Ama Maria Birjinaren otoitzari esker,

libra gaitzazu mundu honetako tristuratik
eta emaguzu zeruko poza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

IGNAZIOTAR ESPIRITUALITATEA

INAZIO,

gure patroi handia, / Jesusen konpainia / fundatu eta dezu armatu, / ez
da ez etsairik / jarriko zaizunik inolaz aurrean / gaurko egunean,
nahiz betor / Luzifer deabrua / utzirik infernua.
Zure soldaduak / dirade aingeruak, zure gidaria / da Jesus handia.
Garaitu ditu / zure konpainiak / etsaiak.
Ez dauka fedeak, / ez kristau nireak, ez dauka beldurrik / inongo aldetik.
Inazio hor dago, / beti ernai dago, armetan jarria / dauka konpainia,
txispaz armaturik / bandera zabalik, gau ta egun / guk guztiok / bakea
dezagun, beti gau eta egun.

Loiolako Ignazioren Otoitza

Hartu, Jauna, eta onartu
nire askatasun guztia, nire oroimena,
nire adimena eta nire gogo osoa,
dudan eta daukadan guztia.

Zeuk eman zenidan,
zeuri, Jauna, itzultzen dizut, Jauna.
Zurea da dena.

Egin erabat nahi duzuna.
Emadazu zeure maitasuna eta onginahia,
aski dut hori. (Gogo Jardunak 234)

BANDERA BIEN SOLASA

(Gogo Jardunak 147)

(Nik neuk Kristoren arima izateko eskari-otoitza)

Eskatu nahi diot Andre Mariari
irits diezadala grazia bere Seme eta Jaunagandik
bere banderapean har nazan.
Lehenik eta behin, pobretasun espiritual handiengan
eta, jainkozko bere Maiestateari hala baderitzo
eta hautatu eta onartu nahi banau,
baita txikiagoa datekeen pobretasun errealean ere;
bigarren, laidoak eta irainak jasaten,
haietan bera gehiago imitatzeke,
baina jasan ahal ditzadala inoren bekaturik gabe
eta beraren jainkozko Maiestatea atsekabetu gabe.
*Eta, horrenbestez, **Agur Maria** bat.*

Eskatu nahi diot beste horrenbeste Semeari,
irits diezadan Aitagandik;
eta, horrenbestez, Kristoren Arima.

Eskatu nahi diot beste horrenbeste Aitari,
berak eman diezadan.
*Eta errezatu **Gure Aita**.*

GAUZA GUZTIEN BETIKO JAUNA

(Gogo Jardunak 98)

*(Neure buru eskaintza egin nahi dut;
horretarako, laguntza eskatzen diot
Jainko Jaunari)*

Gauza guztien betiko Jauna,
neure eskaintza noa egitera,
zure mesede eta laguntzarekin,
mugagabeko zure onberatasunaren
eta zeruko gorteko
santu guztien aurrean,
nahi dudala eta opa
eta nire erabaki deliberatua dela
—soilik izan dadila zure zerbitzu eta gorespenik handiena—
zu imitatzea, jasanez
bai irain eta laido oro,
bai pobretasun oro nola erreal ala espiritual.
Nahi izango ahal du zure Maiestate guztiz santuak
ni hautatzea eta onartzea
biziera eta izaera horretan.

EGUNEROKO AZTERKETA

(Gogo Jardunetan [43] inspiratua)

1. Argia eskatu nahi diot Jaunari, bizi dudan eguneko gorabeherak ikusteko, haren begiez eta ez neureez.
2. Eskerrak eman nahi dizkiot Jainkoari, gaur gertatu zaidan guztiagatik.
3. Begiratu bat eman nahi diot bizi izan dudan egun honi; saiatu nahi dut ikusten nola egin zaidan Jainkoa presente eta nola erantzun diedan nik haren deiei.
4. Barkazioa eskatu nahi diot Jaunari, eta damutzen naiz halako maitasunari eman diodan erantzun eskasaz.
5. Eskuzabalago izateko erabakia hartzen dut, hark eskatzen didana emateko orduan.

PRESTATZEKO OTOITZA

(Gogo Jardunak 46)

(Neure bizitzan barne begiak

garbi gorde ahal izateko,

neure burua engainatu nahi gabe gordetzeko,

laguntza eske)

Laguntza eskatu Jainko geure Jaunari,

nire asmo, egintza

eta eragiketa guztiak

garbi norabidetuak izan daitezen

jainkozko bere Maiestatearen

zerbitzu eta aintzara.

Emadazu, Jauna,

benetako askatasuna;

ez nazala aparta zugandik, ez ezerk, ez inork,

eta gauza orotan eta pertsona guztietan

maita eta zerbitza zaitzadala zu.

ZER EGIN DUT KRISTOGATIK

(Gogo Jardunak 53)

(Jesusek lurreko bizitzan egin duena begi aurrean dudala,

zer egin dut nik berari erantzuteko?)

Kristo gure Jauna

aurrean eta gurutzean josita iruditurik,

hizketatxo bat egin:

nola etorri den Egile izatetik gizon izatera,

eta betiko bizitzatik aldiko bizitzara,

eta horrela ene bekatuengatik hiltzera.

Beste horrenbeste neroni begira:

zer egin dudan Kristogatik,

zer egiten dudan Kristogatik,
zer egin behar dudan Kristogatik;
eta horrela, gurutzean esekita ikusiz,
pentsatu buruak ematen duen guztia.

LOIOLAKO SEMEA GURE ZAINDARIA

Loiolako semea gure zaindaria,
entzun, arren, gure eskaria.
Jainkoaren aurrean izan zaitez
gure lagun,
zerua irabazi dezagun.

1. Iruñean zauriturik,
Loiolan santutu,
Andre Mariaren bitartez
zinen bihotz-berritu,
santu handia,
zerutik iguzu lagun,
gure bihotzak berri ditzagun.-R/.
2. Zure gazte bizitza
bekataria zen,
ta gero santutasunaren
mendra igo zinen.
Gure bihotzak
zurekin jaso ditzagun,
Jaunaren aintza bila dezagun.-R/.

KRISTOREN ARIMA

(Ignazioaren deboziokoa)
(anonimoa, XVI. mendea)

Kristoren arima, santu egin nazazu.
Kristoren gorputza, senda nazazu.
Kristoren odola, birbiztu nazazu.
Kristoren saihetseko ura, garbi nazazu.
Kristoren nekaldia, indartu nazazu.
Oi Jesus ona, entzun nazazu.
Zeure zaurietan gorde nazazu.
Zugandik alde egiten ez utzi niri.
Infernuko etsaiengandik libra nazazu.
Heriotzako orduan deitu nazazu,
eta joanarazi nazazu zugana,
zure santuekin batean
mendez mende gorets zaitzadan. Amen.

HAURRENTZAT OTOITZAK

GURE AITAGATIK OTOITZA

Haurrentzat otoitzak. Azkoitiako parrokia.

Zeruko Aita maitea,
nire aita zaindu eta babes ezazu,
lanpetuta ibiltzen baita
familia aurrera ateratzeko.
Makina bat gauza erakusten dit
eta berarekin ziur sentitzen naiz.
Berarekin jolastea atsegin dut.
Eskerrik asko Lurrean gurekin
aita bat edukitzeagatik.

GURE AMAGATIK OTOITZA

Haurrentzat otoitzak. Azkoitiako parrokia.

Kaixo, Jesus, eskerrak ematen dizkizut,
eta nire amagatik eskatzen dizut.
Beti ni zaintzen eta onena erakusten aritzen da.
Ahalegin handiz.
Batzuetan ez diot kasurik egiten
edo gaizki hitz egiten diot.
Jauna, damutzen naiz, Amari ere eskatuko diot.
Jarrera hobetuko dut.
Egizu, beti elkarrekin batuta egon gaitezela,
maita gaitezela,
eta elkarri barka diezaiegula. Amen.

AITONA-AMONENGATIK OTOITZA

Haurrentzat otoitzak. Azkoitiako parrokia.

Jainko maitea,
eskerrak ematen dizkizut,
gure aiton-amonengatik,
maite nautelako,
nitaz kezkatu
eta gauza asko erakusten didatelako.
Osasuna izan dezatela,
eta beti zoriontsu izan daitezela eskatzen dizut.
Jakin dezatela zu Jesus,
beti beraiekin zaudela,
eta inoiz ez dituzula utziko.

Agintzen dizut,
zinez maiteko ditudala,
entzungo diedala,
nire kontuak kontatuko dizkiedala,
errespetuz hartuko ditudala,
eta ez ditudala bakarrik edo goibel utziko. Amen.

NIRE LAGUNENGATIK OTOITZA

Haurrentzat otoitzak. Azkoitiako parroikia.

Jaun maitea,
bereziki estimatzen ditudan lagun batzuk ditut.
Berengatik otoitz egiten dizut,
gida eta babes itzazu beti,
Zerurako ziurtasunera iritsi arte. Amen.

GOGOETARAKO



JUBILEUKO OTOITZA

Zeruan zauden Aita
zure Seme eta gure anaia den
Jesu Kristorengan eman diguzun fedeak
eta Espirituagan gure bihotzetan
isuria izan den karitatearen garrak,
esna dezatela gugan, zure Erreinuaren etorreran,
itxaropenaren zoriontasuna.

Zure graziak bihur gaitzala
gizadia eta kosmosa onduko duten
Ebanjelioaren hazien ereile zintzo,
zeru berriaren eta lur berriaren
uste oneko itxaropenean,
gaitz ororen indarrak gainditurik
zure aintza betiko agertuko denean.

Jubileuaren graziak
sustatu dezala Itxaropenean Erromes garenongan
zeruko ondasunekiko lehia
eta isur dezala mundu osoarengan
gure Salbatzailearen alaitasuna eta bakea.
Zuri, betiereko Jainko bedeinkatu horri,
gorespen eta aintza gizaldi eta gizaldietan.
Amen.

JESUS ETA EMAKUMEA

Honela laburbil dezakegu Jesusek emakumeekin duen jokabidea:

1. Emakumea gizonezkoa baino gutxiago ote den iritzi ezkor hori sustatzen duten burubideak eta irizpideak ezabatzen edo aldatzen ditu Jesusek.

2. Ama izatea eta etxeko lanez arduratzea ez da emakumearen duintasun nagusia. Jesusen iritziz, gizona bezalaxe, emakumea ere Jainkoaren Hitza entzutera eta betetzera deitua dago.
3. Emakumearen gainera dagoen gizonaren nagusitasunaren eta aginpidearen mesedetarako den gizarte patriarkala salatzen du Jesusek. Jainkoak ez ditu gizonaren nagusitasuna eta emakumearen menpekotasuna eragiten dituzten egiturak onesten.
4. «Gizonezkoen nagusitasunik gabeko eremutat» jotzen du Jesusek bere jarraitzaileen mugimendua. Gizonezkoen «aginpide patriarkala» ezabatu egiten da Jainkoaren erregetzaren zerbitzurako Jesusek sortzen duen «familia berrian».
5. Gizonezkoen maila berean onartzen ditu Jesusek emakumezko ikasleak. Aita bakarra zerukoa eta Maisu bakarra Jesus duten berdinen arteko ikaslegoa sortzen du gizon eta emakume.
6. Bizi diren familia patriarkaleko gizonei eta emakumeei deituz ekiten dio Jesusek. Haren ondoan gizonek indarra galtzen dute eta emakumeek duintasuna irabazten. Ahulenen eta txikienen zerbitzuko gizarte berria, senide eta elkarren laguntzaile egiten gaituen gizarte berria, horrela bakarrik burutzen da.

Hori horrela izanik, geure buruak Jesusen jarraitzailetzat ditugunok nola joka beharko genuke?

(Jose Antonio Pagolarena egokituz)

GAURKO GAZTERIA

«Gure gazteriak neurrigabe maite du luxua, gaizki hezia da, agintariei burla egiten die eta ez du zaharrenganako inolako errespeturik.

Gaurko haurrak tiranoak dira. Ez dira altxatzen zaharren bat gelan sartzen denean, modu txarrean erantzuten diete gurasoei eta, lanean jardun ordeztu, hitzontzi hutsak dira. Ziztu bizian jaten dute, eta tiranizatu egiten dituzte maisu eta irakasleak...».

«Gaurko gazteriak agintea hartzen duenean, akabo, amaitu dira nire itxaropen guztiak. Gazteria hau jasangaitza da, beldurgarria, nazkagarria...».

«Gure mundua egoera kritiko batera iritsi da. Seme-alabek ez diete jaramonik egiten gurasoei. Munduaren amaiera ez da oso urruti egongo...».

«Gazteria hau barruraino ustelduta dago. Gazteak alproja hutsak dira, alperak. Inoiz ez dute emango aspaldiko gazteriaren maila. Gaurko gazte hauek ez dira gure kultura gordetzeko gauza izango...».

Gazteriarri buruzko lau iritzi hauek ez dute gazteen eta helduen arteko harreman zailei buruzko ezer berririk eskaintzen. Baina gogora dezagun: Sokratesek eman zuen lehen iritzia K. a.ko V. mendean.

Bigarrena, Hesiodorena da, K. a.ko VIII. mendekoa.

Hirugarrena, apaiz egiptiar batena, orain dela 3000 urtekoa da.

Laugarrena, Babiloniako hondakinetan aurkitu zen, pitxer batean grabatuta, eta orain dela 5000 urtekoa da.

GAUAREN ESKU BELTZEAN

Gauaren esku beltzean
galduta sentitzen naizenean...

bila,
zure bila nabil,
ez badakit ere nola eta non
aurkituko zaitudan.

Zerurik gabe,
izarrak ilunduta,
gau sentitzen naiz
zu gabe.

Gauaren esku beltzean
zer egin ez dakidala gelditzen naizenean
hotz ikaragarria hezurretaraino sartzen zait,
nora ezaren hotza,
zu gabe.

Gauak bere esku beltzean
naukanean,
itxaropenerako itun bezala
bizi nahi zaitut.
Zure argi izpi bat besterik ez dizut eskatzen
eta «Hemen nago» xuxurlatzen didan
zure ahotsa.
(*Bihotz galduaren bila*. Patxi Ezkiaga)

HEMEN NAIZ, JAUNA

Gaur, Jauna, laurogeitar naizelarik,
eta bizitzari begirada botaz,
bizitzan erabat garaitu nauzu,
zeure graziaz bete baituzu nire izana.

Etorkizunak kezkatzen nau, gehiegi,
motza delako eta bukaera gainean delako,
presaka, egiteko asko dagoelako.
Denerako prestatua aurki nadila!

Ez zait axola, Jauna, ez noiz
eta ez nola izango den azkena,
bitartekoari etekina atera nahi diot.

Beti, Jauna, zure bakearen irrikan
salmoak dioena esango dizut:
«hemen naiz zure nahia egiteko».

(Juan Bosco. *Orar 301 Egokitua*)

KANPORA BELDURRAK

Zuri diotsut, Jauna,
zeure gertutasuna eskertuz,

otoitzean bihotzak sortzen dituen
hitz goxoak esanez.
Eskerrik asko, Jesus,
gizon emakumeengan eragina duten
irrikak, lanak, kezkek, arazoak
entzuteagatik.

Ze ederra kezken zama
zure eskuetan jartzea!
Ez aldendu, ez utzi entzuteari, inoiz ere ez.
Ze samina nigan zu urrun sentitzeak,
zure argia, gure salbamena, jaso ezinik.

Jauna, lagun iezadazu,
zure ondoan egonez ezerk
ez nauela larrituko sumatzen,
harkaitz baitzara, babes,
kanpora beldurrak!

(Transi del Castillo. *Orar 301*)

Maitatzen ikasteko otoitza

Jauna, gose nagoenean, emadazu janaria behar duen norbait;
Egarri naizenean, emadazu ura behar duen norbait;
Hotza sentitzen dudanean, emadazu beroa behar duen norbait.
Sufritzen dudanean, emadazu kontsolamendua behar duen norbait;
Nire gurutzeak astuna dirudienean,
utziezadazu bestearen gurutzea partekatzen;
Behartsu nagoenean, jarri nire ondoan behartsuren bat.
Astirik ez dudanean, emadazu nire minutuak behar dituen norbait;
Umiliatzen naizenean, eman aukera norbait goraipatzeko;
adorerik gabe nagoenean,
emadazu norbait hari adore berria emateko.
Besteek ni ulertzea nahi dudanean,
emadazu nire ulermena behar duen norbait;
Besteak nitaz arduratzea behar dudanean,
emadazu lagun diezadaken norbait;
Neure buruaz pentsatzen dudanean, beste norbaitengana eraman
ezazu nire arreta.
Egiguzu, Jauna, gure anaiei zerbitzatzeko duin;
Emaiezu, gure eskuen bidez, eguneroko ogia ez ezik,
gure maitasun errukiorra ere,
zurearen irudia.

(Ama Teresa Kalkutakoa. Otoi.eus)

Adiskidetzea

Zuzenaren odola
eta gaiztoarena
zure bihotzetik pasatzen dira.

Kolpatzen duenaren bizkarra
eta zartakoa jasotzen duena
zure gorputzaren zati dira.

Zure malkoetan negar egiten dute
onaren minak
eta erasotzailearen nahasmenak.

Zure samurtasunak berak besarkatzen du
Ama Mariaren aurpegia
eta iltzatzen zaituen soldaduarena.

Zure bihotzean ez dago bazterturik,
zure gorputzean denok sartzen gara,
zure malkoetan negar egiten dugu denok,
zure samurtasunean denok gaude.

Utzi zurekin sartzen,
Jauna, zure misterioan,
eta utzi zure nekaldiaren etxean bizitzen
non ezinezkoa dena adiskidetzen duzun!

(Benjamín González Buelta SJ. Otoi.eus)

Isiltasuna eskatu eta Jaunari entzuteko otoitza

Lagundu isiltzen, Jauna,
Zure ahotsa entzun nahi dut.
Har ezazu nire eskua, gida nazazu basamortura,
bakarrik egon gaitezen, zu eta biok.

Zure aurpegiari begiratu behar diot.
Zure ahotsaren berotasuna behar dut,
elkarrekin ibili
isilik egon, zuk hitz egin dezazun.

Zure eskuetan jartzen naiz,
nire bizitza berrikusi nahi dut,
zertan aldatu behar dudan jakin,
ondo dabilena sendotu,
eta eskatzen didazun berriarekin harritu.

Tentatzen nau entzuten dizudala sinesteak,
nire ahotsa entzuten dudanean.
erakutsi bereizten!
Emadazu argia zure aurpegia ikusteko.

Eraman nazazu basamortura, Jauna,
aska nazazu lotzen nauenetik,
astindu nire ziurtasunak eta probatu
nire maitasuna berriro hasteko,
apaltasunez, xalotasunez, indarrez eta Espirituz
zureganako leialtasunean bizitzeko.

(Javier Leoz aita. Otoi.eus)

